MARKINAKO FRONTEA

MARKINAKO ETA XEMEINGO EGOERA POLITIKOA ETA SOZIALA BIGARREN ERREPUBLIKAN ETA GERRA ZIBILEAN (1931 - 1939)

Patxi Juaristi Larrinaga



eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

MARKINAKO FRONTEA

MARKINAKO ETA XEMEINGO EGOERA POLITIKOA ETA SOZIALA BIGARREN ERREPUBLIKAN ETA GERRA ZIBILEAN (1931 - 1939)

MARKINAKO FRONTEA

MARKINAKO ETA XEMEINGO EGOERA POLITIKOA ETA SOZIALA BIGARREN ERREPUBLIKAN ETA GERRA ZIBILEAN (1931 - 1939)

Patxi Juaristi Larrinaga

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

CIP. Biblioteca Universitaria

Juaristi Larrinaga, Patxi

Markinako frontea [Recurso electrónico]: Markinako eta Xemeingo egoera politikoa eta soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939) / Patxi Juaristi Larrinaga. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2026]. – 1 recurso en línea : PDF (350 p.)

Ed. electrónica de la ed. impresa (2011)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-799-9

1. Markina-Xemein (Bizkaia) - Historia. 2. País Vasco – Historia - 1931-1939 (República). 3. País Vasco – Historia - 1936-1939 (Guerra civil)

(0.034)94(460.15)“1931/1939”

UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetza

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-799-9

Gerra Zibilean eta gerraostean sufritu zuten
markinarren eta xemeindarren oroimenez

AURKIBIDE OROKORRA

HASIERAKO BERBAK 15

I. 1931 - 1936: BIGARREN ERREPUBLIKA MARKINAN ETA XEMEINEN 23

1.1. 1930 - 1931: Errepublika etorri aurreko giro politikoa 24
1.2. 1931 - 1933: Biurteko Progresista eta aldaketa politiko, sozial eta erlijiosoak 32
1.3. 1932ko ekaina: tradizionalisten eta abertzaleen harremanen gaiztotzea 42
1.4. 1933: Markina eta Xemein modernizatzen 50
1.5. 1934 - 1936: Biurteko Beltza 54
1.6. 1936ko hauteskunde orokorrak 58

II. 1936KO UZTAILA-ABENDUA: GERRA ZIBILEKO LEHEN HILAK . . 63

2.1. 1936ko uztaila - iraila: lasaitasuna herrian 63
2.2. 1936ko irailaren 21a eta urriaren 4a: frankistak Markinako eta Xemeingo mendietan 71
2.3. 1936ko urriaren 20a: Jose Sagarna fusilatu zuten 88
2.4. 1936ko urriaren 21a: Egixarreko bataila 92
2.5. 1936ko urriko azken egunak: atxiloketa eta heriotza gehiago 94
2.6. 1936ko urriaren bigarren erdia: Errepublikaren Defentsarako Herri Batzorde eta Ordena Publiko berriak 96
2.7. 1936ko urriaren 27an eta 28an: Jose Peñagarikano eta Zelestino Onaindia fusilatu zituzten 99
2.8. 1936ko urriaren 26tik 30era: bonbardaketen aurkako babesleku publikoen eraikuntza 100
2.9. 1936ko azaroa: bizimodua goitik behera aldatuta 103
2.10. 1936ko abendua: giro istilutsuak jarraitzen du 110
2.11. 1936ko abenduaren 26a: San Esteban eguneko bataila 114
2.12. 1936ko Gabonak: egoera negargarria herrian 116

III. 1937: FRANKISTAK HERRIAN SARTU ZIREN URTEA 119

3.1. 1937ko urtarrila: tentsioa Markinako Frontean 119
3.2. 1937ko otsaila - martxoa: Bizkaia menderatzeko frankisten prestaketak 127

3.3. 1937ko martxoaren 31: Bizkaia menderatzeko matxinatuen ofentsibaren hasiera 132
3.4. 1937ko apirilaren 26a: Munitibarren eta Gernikaren aurkako bonbardaketak 138
3.5. 1937ko apirilaren 27an: frankistak Markinan eta Xemeinen sartu ziren 142
3.6. 1937ko maiatza: abertzale, ezkertiar eta errepublikazaleen aurkako errepresioaren hasiera 147
3.7. 1937ko maiatza - ekaina: iheslariek bizimodu kaxkarra 155
3.8. 1937ko ekainaren 19a: frankistak Bilbon sartu ziren 162
3.9. 1937ko uztaila: egitura erlijioso, sozial, politiko eta kultural berriak Markinan eta Xemeinen 165
3.10. 1937ko abuztuaren 25a: gerraren bukaera Hego Euskal Herrian 169
3.11. 1937ko gabonak: markinarrak eta xemeindarrak triste 176

IV. 1938: MESFIDANTZA, FRUSTRAZIOA ETA BELDURRA NAGUSI . . 181

4.1. 1938ko urtarrila: Saturrarango kartzela eta emakumeen aurkako errepresioa 181
4.2. Francoren borroka Espainiatik kanpo 184
4.3. Heriotzak frontean eta kartzeletan 184
4.4. 1938ko gabonak: mesfidantza, beldurra eta lotsa galtzaileen artean . . 186

V. 1939: GERRAKO AZKEN URTEA 189

5.1. 1939ko urtarrila - maiatza: atxiloketek, heriotzek eta ihesaldiek jarraitzen dute 189
5.2. 1939ko apirilaren 1a: Gerra Zibila ofizialki bukatu zen. 191
5.3. 1939ko apirila: Karmeldarren Kapitulu Probintziala Markinan 193
5.4. 1939ko bigarren seihilekoa: egoera lasaiagoa bi herriotan. 194
5.5. 1940 eta 1941: gerraren ondorioak agerian 198
5.6. Frankisten errepresioaren zergatiak 199

VI. GERRAREN ONDORIOAK MARKINAN ETA XEMEINEN 205

VII. BIBLIOGRAFIA 213

VIII. ERABILITAKO WEB ORRIAK 221

IX. ERABILITAKO EGUNKARIEN ETA ALDIZKARIEN HEMEROTEKAK 223

X. ARAKATUTAKO ARTXIBOAK 225

XI. ZUZENEKO INFORMAZIOA EMAN DIDATEN INFORMATZAILEAK. 227

XII. ETXEKOEN EDOTA HURBILEKOEN BERRI EMAN DIDATEN INFORMATZAILEAK 229

XIII. ERANSKINAK: GERRAKO PROTAGONISTAK 231

I. ERANSKINA: ERREPUBLIKARRENGANDIK IHES EGIN ZUTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK 231
II. ERANSKINA: ERREPUBLIKARREK ESPETXEAN SARTU ZITUZTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK 233
III. ERANSKINA: FRANCOREN TROPAK SARTU AURRETIK IHES EGIN ZUTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK 237
IV. ERANSKINA: ESPETXEAN EDO KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN SARTU ZITUZTEN EZKERTIARRAK, ABERTZALEAK ETA ERREPUBLIKAZALEAK..... 256
V. ERANSKINA: KARTZELAN EDO KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN GAIXORIK HIL ZIREN HERRITARRAK..... 284
VI. ERANSKINA: FRANCOREN ALDEKO TROPEK FUSILATUTAKO MARKINARRAK, XEMEINDARRAK ETA INGURUKO HERRIETAKOAK..... 286
VII. ERANSKINA: ERREPUBLIKARREK FUSILATUTAKO MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK 291
VIII. ERANSKINA: FRANKISTEK HIL ZITUZTEN ZIBILAK 294
IX. ERANSKINA: ILEA MOZTU ZIETEN EMAKUMEAK 297
X. ERANSKINA: FRONTEAN HILDAKO MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK 299
XI. ERANSKINA: GERRA ZIBILEAN BORROKATU ZUTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK..... 306

TAULEN AURKIBIDEA

I. Taula: 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorrak Markinan 33
II. Taula: 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorrak Xemeinen 34
III. Taula: Estatutuari buruzko plebiszitua: 1933ko azaroaren 5a 50
IV. Taula: Biztanleria aktiboaren bilakaera Markinan, Xemeinen, Bizkaian eta Estatuan 51
V. Taula: 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorrak Markinan 54
VI. Taula: 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorrak Xemeinen 55
VII. Taula: 1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak Markinan 60
VIII. Taula: 1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak Xemeinen 61
IX. Taula: Tradizionalisten eta eskuindarren aurkako errepresioa Markinan eta Xemeinen 67
X. Taula: Francoren tropetatik ihes egin zutenen berezitasunak 138
XI. Taula: Frankistek hil zituzten zibilak 142
XII. Taula: Markinako eta Xemeingo elizgizonen aurkako frankisten errepresioa 151
XIII. Taula: Gerratean fusilatutako markinarrak eta xemeindarrak 174
XIV. Taula: Markinako eta Xemeingo emakume abertzale eta ezkertiarren aurkako errepresioa 1937 - 1939 183
XV. Taula: Kartzeletan edota kontzentrazio esparruetan atxilotuta egon ziren markinarrak eta xemeindarrak 191
XVI. Taula: Frontean hildako markinarrak eta xemeindarrak 192

HASIERAKO BERBAK

> «Los ciudadanos son depositarios y herederos naturales de la historia, del recuerdo y la memoria. El olvido es el impedimento de acceso al conocimiento, es único y es sólido, y tiene por objetivo que sólo se acepte una versión del pasado, para estruir así la memoria diversa; por eso, las dictaduras tienen en el olvido el recurso imperativo y necesario que consolida su cultura, y, por tanto, su poder y su consenso. La democracia, en su fragilidad, requiere para vivir el acceso de los ciudadanos al conocimiento histórico, porque es la única garantía de respeto a la pluralidad de memorias, permite la adquisición de criterios propios y hace a los ciudadanos civilmente más sabios, y, por lo tanto, más libres».
>
> JAVIER RODRIGUEZ GONZÁLEZ
> *Tipología de la represión franquista* (2008: 131)

Gerra Zibilari buruzko azalpen gutxi entzun ditut umetan eta gaztaroan. Antzinateko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko hamaika guda, iraultza eta istilu ikasi nituen eskolan eta institutuan, baina ni jaio baino 40 urte aurretik Markina-Xemeinen bizitako gerra ez zen eskola curriculumean sartzen. Etxean berdin gertatzen zen. Nire aitaitak, amonak eta osaba-izebek modu intentsuan bizi izan zituzten gerra eta osteko urteak, baina gutxi hitz egiten zuten sasoi ilun haiei buruz. Belaunaldi zaharrenek sinatua zuten Gerra Zibilari buruzko isileko hitzarmena, eta gazteagook oso gutxi jaso ahal izan genuen gai honi buruz.

Hala eta guztiz ere, noizean behin, ia-ia nahi gabe, gerrako eta gerraosteko pasadizoak azaleratzen ziren familia elkartzen zenean, eta sumatzen nuen garai hura apartekoa izan zela etxekoentzat, eta, oro har, markinarrentzat eta xemeindarrentzat. Markinako Fronteari buruzko oroimenak, hildakoen izenak edo bonbardaketen esperientziak bizirik igartzen nituen nire inguruko zaharrenen artean[1].

Helduaroan, Markina-Xemeingo biztanleengan gerrak izan zuen eraginari buruz gehiago jakiteko gogoa piztu zitzaidan, baina garai hura bizi izan zuten inguruko pertsona gehienak hilda zeuden, eta liburuen bidez gehiago jakitea zaila zen; besteak beste, Gerra Zibilean gure herrian gertatu zenari buruz gutxi zegoelako idatzita.

Fusilatutako pertsona baten izena, hiruzpalau anekdota eta zenbait herritarrek kartzelan, kontzentrazio esparruetan edo ihesean bizitako dramak ezagutzen nituen; baina gertatu zenaren historia osotua falta nuen. Bestalde, denbora aurrera zihoan heinean,

[1] Sarrera hau idazten ari naizen momentuan, 2011ko martxoaren 1ean, gerrako obus bat topatu dute Markinako Okerra kaleko etxe bateko sotoan. Gerrako aztarnak, oroimenak, bizipenak… oso presente daude, oraindik ere, gure artean.

markinarrengandik eta xemeindarrengandik informazioa lortzea gero eta zailagoa zela ohartzen nintzen, gertaera hura bizi izan zuten belaunaldiak desagertzen ari zirelako. Berba gutxirekin esateko, Gerra Zibila gure memoria historikotik betirako desagertzeko arriskua zegoela ikusten nuen; horrenbeste markatu gaituen garaia betirako ahaztekoa.

2006. urtean, Gerra Zibilaren hasieraren 70. urteurrena gogoratzeko, hainbat ekitaldi egin ziren Hego Euskal Herrian, eta, Markina-Xemeinen ere zerbait egiteko aitzakiarekin, liburuak arakatzen eta gerrako belaunaldiko batzuei elkarrizketak egiten hasi nintzen, *Garaian* aldizkarian artikulu batzuk idazteko asmoarekin (Juaristi, 2006, 2007a eta 2007b). Hasieratik ikusi nuen ikertzea merezi zuen historia interesgarria zegoela, eta gerrak nik uste baino askoz herritar gehiagorengan izan zuela eragina. Gaiarekiko lehen hurbilpen xume hark gehiago sakontzeko grina piztu zidan, eta markinarrek eta xemeindarrek Gerra Zibilean bizitakoak modu sistematikoan ikertzen hasi nintzen. 2009. urtean, UPV/EHU-k emandako lizentzia sabatikoak ikerketan buru-belarri sartzeko aukera ederra eman zidan.

Historia berreraikitzeko metodologia

Gerra Zibilean gure herrian gertatu zena berreraikitzea intelektualki interesgarria eta aberasgarria izan da, baina baita lan gogorra ere; informazio biltze prozesua luzea, neketsua eta zaila izan baita. Markinarrek eta xemeindarrek oso gertutik bizi izan zuten gerra, baina agintari frankistekiko beldurrak, galtzaile izatearen lotsak, momentu mingarri guztiak bizkor ahanzteko gogoak, edota seme-alabei frustrazioa eta amorrua ekidin nahiak belaunaldien arteko transmisioa oztopatu zuten. Gainera, garai hura bizi izan zuten ia denak hilda daude, eta bizirik gelditzen direnak gazteegiak ziren 1936an eta 1937an, jazoera guztiak behar bezala gogoratzeko. Horrez gain, Gerra Zibilak Markinan eta Xemeinen izan zuen eraginari buruzko lekukotasunik ia ez da bildu 75 urte hauetan, eta, beraz, gai honen inguruan gutxi dago aztertuta edota idatzita.

Gauzak horrela, une historiko garrantzitsu hau isiltzen eta ahanzten joan da, eta gerraondoan jaiotako gutxik izan dute gertatu zenaren ideia argi bat. Informazio objektiboa, egiazkoa eta osatua lortzeko, beraz, estrategia edo bide desberdinak erabili behar izan ditut:

Ikerketarako lehen bidea izan da gai honi buruz idatzita dagoena aztertzea. Zazpi hilabetez, frontea geratuta egon zen Markinako, Xemeingo eta Etxebarriako lurretan, eta liburuetan eta aldizkarietan badaude Markinako Frontea deitzen zitzaionari buruzko datuak eta aipamenak. Hala ere, lan asko egin behar izan dut hori dena biltzen eta ordenatzen. Besteak beste, datu pila lortu ditut Alberto Onaindiak, Jose Antonio Oar-Artetak, Joxe Migel Barandiaranek edo Karmengo komentuko fraideek idatzi zituzten kronika, elkarrizketa, biografia edota gogoetetan. Zeharka bada ere, Markina-Xemeingo Garaian aldizkariak 1987tik argitaratu dituen elkarrizketa, artikulu, argazki eta datuak ere informazio asko eman didate. Beste liburu batzuetan ere aurkitu ditut Markinako Fronteari, gerraren ondorioei eta osteko errepresioari buruzko aipamenak eta azalpenak. Erabilitako bibliografia guztia lanaren bukaeran aurkezten dut.

Informazioa biltzeko beste estrategia garrantzitsu bat izan da gerrako belaunaldiei euren oroimenei buruz era sistematikoan eta kontrolatuan galdetzea. Senide, lagun eta ezagunen bidez, edo liburuetan bilatutako informazioan oinarrituta, gerra bizi izan zuen norbait elkarrizketatzen nuen, eta norbait horrek elkarrizketa bat edo gehiago egiteko bidea zabaltzen zidan. Beste berba batzuekin esanda, informatzaileak balizko beste

informatzaile batzuen iturri bihurtzen ziren. Modu horretan, 2006tik 2010era, 50 sakoneko elkarrizketa egin ditut Gerra Zibila bizi izan zuten markinarren eta xemeindarren artean. Nire esker onaren seinale, hauen guztien berri ematen dut bibliografiaren ostean, XI. atalean.

Informazio hau kontrolatzeko eta osatzeko, 68 elkarrizketa egin ditut, era batera edo bestera, Gerra Zibilean inplikatuta egon zirenen seme-alabekin, ilobekin edota ahaideekin. Nahiz eta hauek ez zuten gerra ezagutu, edo ume ziren garai hartan, eman didaten informazioa ezinbestekoa izan da euren senideen historiak ezagutzeko, informazioa kontrastatzeko eta gerraostean gertatu zena behar bezala ulertzeko. Hauen guztien zerrenda XII. atalean aurkezten dut.

Gerra Zibilaren inguruan azken sei urteetan antolatu ditugun ekimen herrikoiek ere gertaerak hobeto ulertzen eta informazioa biltzen lagundu didate. Markina-Xemeingo Udalaren, Garaian aldizkariaren, Garaian Kultur Elkartearen, Uhagon Kultur Gunearen, Artibai Mendigoizale Taldearen, Udal Liburutegiaren, Ahaztuen Oroimena Elkartearen eta Markina-Xemeingo hamaika herritarren laguntzarekin, hainbat bilera, argazki erakusketa, pelikula eta dokumental emanaldi, mendi ibilaldi eta hitzaldi antolatu ditugu 2006tik 2011ra, eta horiek ere informazioa lortzeko iturri garrantzitsua izan dira[2].

Ekimen hauek guztiek markina-xemeindar asko erakarri dituzte, eta Gerra Zibilean bizi izandakoei edota etxean entzundakoei buruz hitz egitera bultzatu dituzte herritarrak; eta hori oso garrantzitsua izan da urteetan ezkutuan egon den informazioa azaleratzeko.

Zentzu honetan, ikerketa hau metodologia kritikoan edo dialektikoan oinarritzen da. Izan ere, ekimen parte hartzaile hauek guztiak, informazioa azaleratzea eta biltzea ahalbidetu didate, baina, era berean, interbentzio moduak ere izan dira[3]. Gerraren ingu-

---

[2] 2006ko abenduaren 30rean, Gerra Zibila bizi izan zuten 70 bat markinar eta xemeindar nagusi elkartu, eta gerrari buruzko berbaldi herrikoia egin genuen. 2007ko apirilaren 27an eta 29an, «Ezkaba, la gran fuga de las cárceles franquistas» eta «Mujeres del 36» dokumentalak eman genituen. 2007ko maiatzaren 1ean, 60 pertsonatik gora parte hartu zuten Markinako Frontea ezagutaraztea helburu zuen mendi ibilaldi batean. 2008ko urriaren 28an, herrian ditugun metrailadore etxeak eta lubakiak ezagutzeko ibilaldia antolatu genuen. 2008ko ekainean, *Gerra Zibila, Jendea da Hila* (Juaristi, 2008a) liburuaren aurkezpena aitzakiatzat hartuta, Gerra Zibilak Markina-Xemeinen izan zuen eraginari buruzko hitzaldi bat eman nuen. 2008ko abenduaren 7an, Joseba Goñi ikerlari eta idazlea ekarri genuen Markina-Xemeingo udal liburutegira, Alberto Onaindia abade markinarraren inguruan hitzaldi bat ematera. 2011ko apirilaren 15ean, Saturrarango Kartzelari buruzko «Debekatua oroitzea» dokumentala eman genuen; eta bere zuzendariarekin, Txaber Larreategirekin, dokumentalari eta Saturrarango kartzelari buruzko gogoeta egin ahal izan genuen. 2011ko maiatzaren 6an «Ezkaba: Francoren Kartzeletatik Egindako Ihesaldi Handia» dokumentala eman genuen bigarrenez. 2011ko ekainaren 3an, Markinako Fronteari buruzko dokumentala eta hitzaldia antolatu genituen, Ahaztuen Oroimena elkarteko kideen laguntzarekin. 2011ko ekainaren 5ean, oraingo honetan ere Ahaztuen Oroimena Elkarteko kideekin batera, mendi ibilaldia egin genuen Kalamua eta Akondian zehar, ingurune hortan egon zen frontea ezagutzeko helburuarekin. 2011ko urriaren 3tik 23ra, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, «Hilotzak deshilobiratuz, duintasuna berreskuratuz» erakusketa zabaldu genuen. 2011ko urriaren 7an, Aranzadi Elkarteko Pako Etxebarriak erakusketaren izenburu bera zuen hitzaldia eman zuen. 2011ko urriaren 14an, «Udaberri Galdua» dokumentala eman genuen, eta ostean bere egilearekin, Josi Sierrarekin, hitz egiteko aukera izan genuen. 2011ko azaroaren 4an, «Memoria i Oblit d'una Guerra» dokumentala eman genuen, eta kontzentrazio esparruetako bizimoduari buruz hitz egin genuen. 2011ko abenduaren 17an, *Garaian* aldizkariaren 47. zenbakiaren aurkezpena, Gerra Zibilari buruzko argazki erakusketaren irekiera eta Gerra Zibila oinarritzat hartuta Pablo Fdez. Arrietak egin duen musika eta olerki ikuskizuna eskaini genituen.

[3] Tradizio metodologiko kritiko edo dialektikoak teknika parte hartzaileak hobesten ditu. Era honetako tekniken bidez, ikergai den populazioko kideek ikerketa prozesuaren parte dira; ikerketaren

ruko ekitaldien bidez, herritarrek Gerra Zibilari buruz gogoeta egin ahal izan dute, eta, era batera edo bestera, gaiaren inguruko belaunaldien arteko transmisioa bultzatu da. Kontuan izan, ekintza hauetan, gerrako belaunaldiaren seme-alabak eta ilobak parte hartu dutela, eta, ostean, hauetariko askok euren etxekoei buruzko informazioa bildu dutela ikerketa honetarako. Gerra Zibila bizi izan zutenak zein hauen seme-alaba eta ilobak protagonista bihurtu ditugu, informazioa bil dezaten, baina baita gertatu zenaren memoria historikoa gordetzearen garrantziaz ohartu daitezen ere.

Informazioa lortzeko erabili dudan bosgarren bidea izan da artxiboak arakatzea. Hain justu ere, hamaika artxibotako txostenak, aktak, agiriak edota dokumentuak aztertu ditut. Arakatutako artxibo guztien zerrenda X. atalean aurkezten dut.

Garaiko prentsa ere aztertu dut. Hemerotekak gizarte jakin batean gertatzen dena zein gizarte horren bilakaera ezagutzeko informazio iturri aberatsak dira. Gainera, gaur egun, Interneten laguntzarekin, egunkari batzuen hemerotekak erraz azter daitezke. Besteak beste, www.hemeroteka.com web orria informazio iturri emankorra izan da. Interneten bidez, beste hainbat hemeroteka, entziklopedia eta aldizkari ere aztertu ditut. Guztien zerrenda IX. atalean agertzen dut.

Ikerketarako azken bidea izan da jendeak utzitako eskutitzak, dokumentuak, argazkiak, idatziak eta ondasun pertsonalak aztertzea. Era honetako materialek informazio asko eman didate, eta gauzak hobeto ulertzen lagundu.

Badakit historia modu desberdinetan interpreta daitekeela. Norbere aurreiritzi, esperientzia eta ideologiak eragin asko izaten dute iragana berreraikitzerakoan edota ulertzerakoan. Alabaina, ikerketa honetan, nire lehen asmoa izan da objektibotasuna bilatzea. Memoria selektiboa denez, intentzio onenak dituzten informatzaileek ere ikusitakoen eta bizitakoen zatiak kontatu dizkidate, eta, nahitaez, informazio hori guztia irazi, kontrastatu eta osatu behar izan dut. Alegia, elkarrizketetatik lortutako informazioa dokumentuetan, hemeroteketan, liburuetan edota artxiboetan agertzen denarekin alderatu dut, datak, izenak, gertaerak edota biografiak ahal den modu zehatzenean agertzeko.

Helburu orokorra

Beste gizarte batzuetan, gerren oroitza gorde dute: museoak, liburuak, memoriari eskainitako guneak, adierazpen publikoak, hitzaldiak, monumentuak, dokumentalak… lagungarriak direnak, bai zorigaitza bizi izan zutenen memoria gordetzeko, zein hauen senideekiko elkartasuna adierazteko eta belaunaldi berriei gertatu zena erakusteko.

Errepublikarren gehiegikerien biktimek Francoren gobernuaren babesa eta ordaintza morala jaso zuten. Errepublikarrek euren senideei eragindako mina ezagutzeko aukera izan zuten (egia jakiteko eskubidea), jasan zituzten kalteak ikertu eta epaitu ziren (justizia eskubidea), eta kalte-ordainak jaso zituzten, eta duintasuna eta babesa eman zitzaien (konponketa eskubidea). Frankistek errepublikarrek baino errepresio bortitzagoa burutu zuten abertzale, ezkertiar eta errepublikazaleen aurka, baina jazarraldien biktimei egia jakiteko eskubidea, justizia eskubidea eta konponketa eskubideak ukatu zitzaizkien (Fal-

---

laguntzarekin, errealitatea eraldatzen dute; eta, azken finean, ikerketan parte hartzen dutenen egoera edota bizi kalitatea hobetzen da. Ikerketa, kasu honetan, informazioa biltzeko eta aztertzeko bidea izateaz gain, interbentzio modu bat ere bada, ikergai den populazioa dituen arazoez ohartzeko, bere egoeraren azterketan sakontzeko eta arazo hori konpontze aldera, mobilizatzeko. Beste berba batzuekin esanda, populazioa ez da ikerketaren objektua, subjektua baizik.

xa, 2009: 201-219). Izugarrikeria pila jasan bazituzten ere, Errepublikaren aldekoek barnean gorde behar izan dituzte, urte askotan, saminak, frustrazioak eta lotsak.

Liburu honen asmoa da, beraz, Gerra Zibilean eta gerraondoan gure herrian gertatu zena berreraikitzea, fusilatu zituztenen, bonbardaketa eta tiroengatik hil zirenen, langileen batailoietan esklabutza lanetan aritu zirenen, ilea moztu zieten emakumeen, isunak ordaindu zituztenen, erbesteratuen edota espetxean urteak egin zituzten markinarren eta xemeindarren memoria bizirik gordetzeko; bereziki, frankismoaren kontra eta askatasunaren eta demokraziaren alde borrokatuta, errepresioa jasan zuten herritarren oroimena zaintzeko. Izan ere, Gerra Zibila, min eta drama anitz duelarik ere, gure ondare historikoa da. Ondo ezagutu eta jagon beharreko ondarea.

Ikerketa honen helburua ere bada markinarren artean Gerra Zibilean gertatu zena zabaltzea, eta gai honen inguruko gogoeta bultzatzea.

Egin ditudan elkarrizketetan, batzuek esan didate honelako gogoeta bat eta, oro har, biktimen aldeko ekimenak beranduegi datozela, gerrako kaltetuak zein Francoren errepresioa jasan zuten ia denak hilda daudelako. Zilegi da hori pentsatzea. Nolanahi ere, nire ustez, ez da beranduegi honelako oroitza bat egiteko, kontuan hartzen badugu Gerra Zibilean sufritu zutenen seme-alabak eta ondorengoak bizirik direla, eta hauek ere biktimak direla. Gainera, beti ere hobe da gertatu zena jakitea, ez jakitea baino.

Historia berreraikitzeak eta kontatzeak ez du kaltetuen egoera aldatzen, ez du hauen sufrikarioa arintzen, baina bizi izan zutena ulertzen laguntzen digu besteoi, elkartasun sareak sendotzen ditu belaunaldien artean, eta etorkizunean saihestu behar den bidea erakusten; hiritar jakintsuagoak, irizpide gehiagokoak eta, ondorioz, askeagoak ere sortzen ditu. Gehiago esango dut, frankisten jazarraldiaren biktimen memoria historikoa berreskuratzea etorkizunean inbertitzea da. Izan ere, herrien identitatea memoriak emandako materialetatik elikatzen da, nagusiki (Juaristi, 2011).

Hartutako erabakiak

Ikerketa bat egiterakoan, lanaren nondik norakoa zehazten duten erabakiak hartu behar izaten dira. Erabaki batzuk ikerketa hasten den momentuan bertan hartzen dira; beste batzuk, aldiz, informazioa biltzen denean, datuak aztertu edota lana idazterakoan. Hona hemen nik hartu ditudan erabakiak:

Markinak eta Xemeinek udal bakarra dute gaur egun, baina, 1952. urtera arte, bi udal desberdin ziren. Beraz, pertsonen jaioterriak adierazterakoan, udal erabakiak agertzerakoan zein gertaerak azaltzerakoan, bi udalerri desberdin balira bezala aurkezten ditut. Dena den, kontuan izan Markinako Frontea esaten dudanean, Berriatu ingurutik Eibarko Udalaren lurretara arte tropa frankisten aurka eraiki zen guda lerroari buruz ari naizela. Alegia, Markinako Frontea kontzeptua Berriatuko, Xemeingo, Markinako eta Etxebarriako lurretan eraiki zen frontea izendatzeko erabiltzen zen Gerra Zibilean, eta nik ere esanahi horrekin darabilt.

Liburu honetan, hainbat pertsonaren izenak eta abizenak agertzen ditut. Euskaldunak direnak gaur eguneko euskal grafiarekin agertzen ditut, nahiz eta garai hartan erdarazko grafiarekin idazten ziren.

Gerra Zibilean bi bandok borrokatu zuten elkarren aurka. Francoren aginduetara borrokatu zutenei frankista edo Francoren aldekoak deitzea erabaki dut. Nahiz eta hasieran Franco ez zen matxinatutako militarren agintari bakarra, 1936ko urriaren 1ean, estatuburu bihurtu, eta, beraz, gerra ia osoa, matxinatuek Francoren agintepean borrokatu zuten. Egokia iruditzen zait, honenbestez, frankistak edo Francoren aldekoak deitzea.

Faxistak ere deitzen diet, Franco eta bere inguruko militarrak 1933an sortutako Falange Española alderdian, hau da, faxismo espainiarrean, oinarritu zirelako, guduaren hasieratik. Azkenik, matxinatuak ere deitzen diet, demokratikoki aukeratutako Errepublikaren gobernuaren aurka matxinatu zirelako. Errepublikaren alde borrokatu zuten soldaduei gudariak edo milizianoak deitzen diet, EAJ-ko batailoietan edo batailoi sozialistetan, errepublikarretan, anarkistetan edo komunistetan borrokatu zutenaren arabera.

2006. urtetik, hainbat elkarrizketa egin dizkiet gerrako belaunaldiei eta haien seme-alaba eta ilobei. Berbaldi horietan, salatzaileen, atxiloketetan parte hartu zutenen, andrazkoei ilea mozten aritu zirenen edota, era batera edo bestera, errepresioa erraztu eta bideratu zutenen tradizionalisten edota FET-JONS-eko hainbat kideren izenak azaleratu dira. Dena den, elkarrizketatu gehienek salatzaileen izenak ez agertzeko eskatu didate, eta nik nahi hori errespetatu egin dut.

Batzuen ustez, benetako memoria historikoak eta biktimekiko ordaintza moralak jazarraldietan parte hartu zutenen izenak azaleratzea eskatzen du, eta, ziur aski, arrazoia dute: biktimek zein gizarteek borreroen eta salatzaileen izenak ezagutzeko eskubidea dute. Ikerketa honetan, baina, elkarrizketatuei zor diedan errespetuagatik eta emandako hitza betetzeagatik, hauen izenak ez agertzea erabaki dut. Halaber, Markina-Xemein herri txikia da, eta ankerkeriak egin zituztenen izenak argitaratzeak hauen seme-alabak eta ilobak lotsaraziko lituzke, eta txarragoa dena: agian, gure arteko harreman sareak eta kohesio soziala ahulduko lirateke; nahiko nukeen azken gauza. Ikerketa honen asmoa ez da inor epaitzea, mintzea edo salatzea, baizik eta Gerra Zibilean eta gerraostean sufritu zuten markinarren eta xemeindarren memoria bizirik mantentzea.

Lanean, Markinan eta Xemeinen jaio eta bizi izan diren hamaika pertsonaren bizitza historiak agertzen ditut. Gure herrian jaioak izanik beste nonbaitera bizitzera joan zirenen berri ere ematen dut; baita gerraondoan gure artera bizitzera etorri eta bertakotu zirenena ere. Alegia, era batera edo bestera, Markinarekin eta Xemeinekin harreman zuzena izan duten pertsonen historiak agertzen saiatu naiz.

Azterketa historikoa da aurkezten dudana, baina baita soziologikoa eta politologikoa ere. Beraz, jazoera historikoen berreraiketarekin batera, gizakien arteko harremanak eta sare politiko, sozial, erlijioso eta kulturalen berezitasunak ere aztertu ditut, Errepublikako urteak eta gerra garaiko zein osteko bizimodua hobeto ulertzeko helburuarekin. Azken finean, nire nahia izan da 1931tik 1939ra bitarteko markinarren eta xemeindarren bizitza osotasunean irudikatzea.

Era askotara aurkeztu zitekeen bildutako informazioa, baina nik denboraren arabera ordenatzea erabaki dut; hau da, bildutako informazioa kronologikoki antolatu dut, nire ustez lanak barne koherentzia lortzen duelako eta gertaerak eta hauen ondorenak hobeto ulertzen direlako.

Gertatu zenaren argazki osatuago bat lortzeko asmoarekin, ahalegin berezia egin dut biztanle arrunten bizipenak edota biografiak agertzen. Dena den, eskolatuen, elizgizonen eta jauntxoen bizipenak, biografiak edota gorabeherak herritar arruntenak baino errazago lortu ditut (kasu askotan, eurei gertatutakoak idatzita utzi zituztelako), eta, beraz, hauei buruzko informazioa osatuagoa eta aberatsagoa da.

Liburu honetan, herriko emakumeek Gerra Zibilean izan zuten parte hartzea agertzen saiatu naiz, baita euren aurkako errepresioa modu bereiztuan erakusten ere. Izan ere, liburu gehiegi irakurri ditut Gerra Zibilean emakumeei gertatutakoak inondik inora ere agertzen ez dituztenak.

2006tik 2010era, Gerra Zibilean, era batera edo bestera, inplikatuta egon ziren markinar eta xemeindarrei buruz galdetzen eta ahal den informazio osatuena eta egiazkoena

biltzen aritu naiz. Hala ere, baliteke jazoera, historia eta biografiaren batzuk lan honetatik kanpo gelditzea. Hau da, onartzen dut Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen hemen agertzen dudana baino gehiago izan zela. Horrekin zera esan nahi dut: ikerketa honek ez duela gaiarekin bukatzen, eta, aurrerantzean, azterketa gehiago egin behar direla, gaia sakontasunean eta osotasunean ezagutzeko. Gure herrian eta, oro har, Markinako Frontean gauza asko gertatu ziren, eta horrek ikerketarako aukera asko ematen ditu. Are gehiago, hemen aurkezten dudan daturen bat okerra bada, edo informazio gehiago baduzu, irakurle, eskertuko nizuke nirekin harremanetan jarriko bazina.

Liburuaren egitura

Esan bezala, liburu honen helburua da Gerra Zibilean eta gerraondoan gure herrian gertatu zena berreraikitzea, erbesteratuen, bonbardaketen edo tiroen ondorioz hil zirenen, fusilatu zituztenen, ilea moztu zieten andrazkoen edota espetxean urteak egin zituzten markinarren eta xemeindarren memoria bizirik gordetzeko. Dena den, herrien bizimodua aldatzen duten gertaera historikoak ez dira hutsean sortzen. Iraultza politikoek, gerrek edo aldaketa sozial bortitzek aurrekari ugari izaten dituzte edota elkarri lotutako hainbat gertaeraren nahitaezko ondorio izaten dira. Zentzu honetan, Bigarren Errepublikan gertatu ziren iskanbila politikoak, Gerra Zibilean bizi izan ziren izugarrikeriak eta gerra garaiko zein osteko bortizkeriak eta mendekuak elkarri lotuta daude; beraz, Gerra Zibila sakonean ulertzeko eta kokatzeko, ezinbestekoa da Errepublika garaia ezagutzea. Horrela, liburu honen lehen kapituluan, markinarrek eta xemeindarrek Errepublikako urteak nola bizi izan zituzten aztertzen dut.

Osteko kapituluetan, Gerra Zibila ikertzen dut, urtez urte. 1936ko uztailaren 18tik 1939ko abuztura arte gertatu zirenak aurkezten ditut, modu kronologikoan. Bigarren kapituluan, beraz, 1936ko uztailetik abendura arteko egunak aztertzen ditut. Hirugarren kapituluan, 1937. urtea lantzen dut, laugarrenean 1938.ena eta bosgarrenean 1939. urtea. Bosgarren kapituluan, 1940ko eta 1941eko gertaera batzuk ere aurkezten ditut, Gerra Zibilarekin harreman zuzena dutelako. Horrez gain, herriko frankistek bultzatu zuten errepresio basatia ulertzeko gogoeta bat ere aurkezten dut. Azken kapituluan, seigarrenean, ondorio orokor batzuk agertzen ditut.

Amaitzeko, erabilitako bibliografia eta web orriak, begiratutako hemerotekak, arakatutako artxiboak eta informatzaileen izenak aurkezten ditut.

Lana osatzeko, gerrako protagonisten biografiak aurkezten ditut eranskinetan. Memoria historikoaren izenean, garrantzitsua iruditu zait, era batera edo bestera, gerran parte hartu, sufritu edota biktima izan ziren guztien berri ematea. Lehenengo eranskinean, frontea gure herriko lurretan geldirik egon zen zazpi hiletan, errepublikarrengandik ihes egin zutenen zerrenda aurkezten dut. Bigarrenean, errepublikarrek espetxean sartu zituzten markinarrak eta xemeindarrak agertzen ditut. Hirugarrenean, Francoren tropak sartu aurretik ihes egin zutenen zerrenda. Laugarrenean, espetxean edo kontzentrazio esparruetan sartu zituzten ezkertiarrak, abertzaleak eta errepublikazaleak. Bosgarren eranskinean, kartzelan edo kontzentrazio esparruetan gaixorik hil ziren herritarrak. Seigarrenean, Francoren aldeko tropek fusilatutako markinarrak, xemeindarrak eta inguruko herrietakoak. Zazpigarren eranskinean, errepublikarrek fusilatutakoak aurkezten ditut. Zortzigarrenean, frankistek hil zituzten zibilak. Bederatzigarren eranskinean, ilea moztu zieten emakumeak. Hamargarrenean, frontean hildakoak. Azkenengoan, hamaikagarrenean, Gerra Zibilean borrokatu zuten markinarrak eta xemeindarrak aurkezten ditut.

Eskerrak ematen

Gogorra izan da liburu hau egitea. Bakarkako lan asko egin behar izan dut, eta, momentu batzuetan, aurrera egitea asko kostatu zait, informazio bilketa ez zelako bukatzen. Gertatutako gehiengoa bilduta nuela pentsatzen nuen bakoitzean, biktima, jazoera edota historia berriak agertzen zitzaizkidan.

Nolanahi ere, argi daukat lan hau ez nuela amaituko hainbat pertsonaren laguntzarik gabe. Hasteko, elkarrizketatu ditudan herritarrak edota datuak eman dizkidatenak eskertu gura nituzke. Liburuetan eta artxiboetan agertzen ez diren hainbat detaile, anekdota eta gertaera kontatu dizkidate, eta hori ezinbestekoa izan da Gerra Zibilak gure herrian izan zuen eragina sakontasunean ulertzeko. Gehiago esango dut, eurek edo euren familiakoek bizitakoak kontatzeko markinarrek eta xemeindarrek izan duten eskuzabaltasunak zeharo hunkitu nau. Historia dramatikoak, familia barneko une hunkigarriak edota etxeko sekretuak kontatu dizkidate, ezeren truke, eta hori bihotzez eskertzen diet. Nire esker onaren seinale, guztien izenak agertzen ditut bibliografiaren ostean.

Eskerrak baita ere Asier Madarietari, Iñaki Goioganari, Igor Idoetari eta Mikel Errazkini. Erabili ditudan dokumentu, akta, agiri eta zerrenda gehienak lagun hauek agiritegietan egin duten lanari eta araketari esker lortu ditut. Modu berean, Markina-Xemeingo Udala, Abertzaletasunaren Agiritegia eta Aranzadi Elkartea eskertu nahi nituzke euren dokumentuak nire eskuetan uzteagatik.

Eskerrik asko Fidel Carrillori, 2005etik 2009ra, Eusko Jaurlaritzako liburutegitik ikerketako ezinbestekoa izan den bibliografia eskuratzen laguntzeagatik.

Eskerrik asko UPV/EHU-ri, ikerketa burutu eta liburu hau idazteko urte beteko lizentzia sabatikoa emateagatik.

Eskerrik asko UPV/EHU-ko Euskara Errektoreordetzari eta Argitarapen Zerbitzuari, lan honen argitarapena bultzatzeagatik. Beregainki, Gidor Bilbao, Jose Inazio Armentia eta Roberto Lopez eskertu gura nituzke.

Eskerrik asko Markina-Xemeingo Udalari, Uhagon Kultur Guneari, Ahaztuen Oroimena Elkarteari, Artibai Mendigoizale Taldeari, Markina-Xemeingo Udal Liburutegiari eta, bereziki, Garaian Kultur Elkarteari, memoria historikoari eta gerrari buruzko ekitaldiak bultzatu edota antolatzeagatik. Ekitaldi hauek informazioa kontrastatzeko eta biltzeko iturri paregabea izan dira niretzako.

Eskerrik asko argazkiak, agiriak, eskutitzak edo datuak eman dizkidaten guztiei, batez ere, Iñaki Goioganari, Segundo Oar-Artetari, Inma Aransolori, Felipe Amutxastegiri, Oskar Aldazabali, Aitor Bereziartuari, Maite Arrizabalagari, Aitziber Eizagirreri, Nere Duralderi, Rafael Lakari, Lauren Aretxabaletari, Alberto Agirregomezkortari, Alberto Unamunori, Jon Onaindiari, Jasone Aretxabaletari, Julen Urkizari eta Jose Inazio Etxebarriari.

Eskerrak, baita ere, testua zuzentzeko iradokizunak eta zuzenketak egin dizkidaten lagun eta lankideei; beregainki, Mikel Aizpururi, Betikone Aretxabaletari, Iñaki Goioganari, Oier Gorosabeli eta Alberto Unamunori; baita UPV/EHUko Euskara Zerbitzuari ere. Txarto egindako eta idatzitakoen errua nirea izaki, ondo egindakoena eurek emandako aholkuen eta zuzenketen ondorio dira.

Azkenik, ez ditut ahantzi nahi lan hau eskaintzen diedan nire emazte Maite eta seme-alaba Malen eta Ibon. Hau bezalako lan bat egiteko behar den indar eta orekarik ez bainuen izango haiek inguruan izan ez banitu.

I
1931 - 1936: BIGARREN ERREPUBLIKA MARKINAN ETA XEMEINEN

> «El carácter peculiar de esta Villa, que siempre ha sido más bien rural, poseyendo la casi totalidad de sus vecinos tierras de labor y huertas, no existiendo industria de importancia, aunque sí alguna que pudiéramos llamar industria familiar, es causa de que en Marquina no haya habido desde hace siglos variación notable en el número de sus pobladores…»
>
> JOAN JOSE MUGARTEGI
> *La Villa de Marquina* (1927: 127)

Markina eta Xemein herri txikiak ziren Errepublika etorri aurretxoan. 1930ean, Markinak 1.711 biztanle zituen eta Xemeinek 1.288. Biek batera, 2.999 biztanle zituzten[1].

Nekazaritza eta abelazkuntza ziren bi udalerrion ekonomiaren oinarria, baina, hala ere, desberdinak ziren biztanleria aktiboaren osaketari dagokionez; baita nekazaritzak eta abelazkuntzak ekonomian zuen pisuari dagokionez ere.

Xemeingo biztanle ia denak baserritarrak ziren. 1927. urtean, 1.352 ziren erroldatutako bizilagunak: 1.296 biztanle herrian bertan bizi ziren eta beste 56 eskubidezko biztanleak ziren, hau da, Xemeinen erroldatuta zeuden, baina beste nonbaiten bizi ziren (Zubikarai eta Fernandez Egiguren, 1991: 65). Gerraurrean, gehienez jota, Xemeingo 30-35 bat familia izango ziren dendak, tabernak, enpresa industrial txikiak edo ogibide liberalak zituztenak edota hauetan lan egiten zutenak. Hain zuzen ere, 30. hamarkadaren hasieran, bost latoneria edota galdategi, hamabi bat denda, jatetxe, taberna eta okindegi, karegile bat, zerratoki bat, teilagile bat, otzara egile bat, Urberuagako bainuetxea, denboraldiko bost ostatu eta argindarra sortzen zuten enpresa txiki batzuk zeuden[2]. Nire kalkuluen

---

[1] 1930ean, Bizkaia osoak, gutxi gorabehera, 500.000 biztanle zituen; beraz, Bizkaiko biztanleriaren %0,6 bizi zen Markinan eta Xemeinen. 2008ko datuen arabera (www.eustat.es), gaur egun, Bizkaiko biztanleriaren %0,425 bizi da Markina-Xemeinen. 1768. urtean Markina eta Xemein herriek, biek batera, 1.761 biztanle zituzten, eta 1787. urtean 1.892 biztanle. Alegia, bi herri hauetan, Bizkaiko biztanleriaren % 1,7 bizi zen, XVIII. mendearen bigarren erdian. Ikusten den bezala, XVIII. mendetik Markina-Xemein garrantzi demografikoa galtzen joan da Bizkaian.

[2] 1922ko urtarrilaren 30rean, argindarra sortzen zuten Markinako eta Xemeingo enpresa txikiak batu zituen Ondarroa Ibaiko Ur-jauziak (Saltos del río Ondarroa) sortu zen, milioi eta erdi pezetatako kapitalarekin (Iberduero, 1985). Elkarte honen eragile nagusia Villafranca del Castilloko Markesa, Manuel Alonso Agirresarasua, izan zen. Berarekin batera, fundazioko bazkideak izan ziren: Alejandro Gaitan de Aiala Ansotegi, Jose Maria Murga Arana, Jose Maria Bernaola Alkorta eta Victorio Arrizabalaga Ortuzar. Bakoitzak bere ur-jauziak, eskubideak, eraikuntzak eta makinak ekarri zituen elkartera. Etengabe eta arrakasta handiz,

arabera, Xemeingo biztanleria aktiboaren %80 baserritik bizi zen, %7 taberna, jatetxe eta okindegietan ari zen lanean eta %13 enpresa industrial txikietan edo ogibide liberaletan.

Markinan ere nekazaritza zen ekonomiaren oinarri garrantzitsuena, baina industria txikiek, ogibide liberalek eta, oro har, hirugarren sektoreak Xemeinen baino garrantzi gehiago zuten. Felicitas Lorenzoren arabera, «1825ean, beharrerako gauza zan biztanleriaren %60ak jarduten zuen nekazaritzan. Ingurunea baserri girokoa zan bete-betean, errepide nagusietatik aldenduta egoan, eta azken batean, laborearen ekoizlerik nagusiena berau zan, Xemeini be aurrea hartzen eutson-eta» (Lorenzo, 1996: 74). Alabaina, XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran, gauzak pixka bat aldatzen hasi ziren, eta dendak, tabernak, gozotegiak eta ogibide liberalak ugaritu egin ziren Markinako kale artean. Joan Jose Mugartegiren arabera, 1927an, Markinak 85 baserri zituen eta 1.800 biztanle: 1.100 hiribilduan eta 700 auzoetan (Mugartegi, 1927: 6). Horrekin batera, Mugartegik dio Markinan 366 familia bizi zirela, 262 etxetan banatuta (batez beste, beraz, 6-7 pertsona bizi ziren etxe bakoitzean), eta horietatik 232 familia kale artean eta inguruko errebaletan bizi zirela. Honenbestez, pentsa daitekeena zera da: gerra aurreko urteetan, markinar gehienak, gutxi gorabehera biztanleriaren %50, nekazaritzatik bizi zela, %40 merkataritzatik, ogibide liberaletatik edo erlijioari loturiko postuetatik (Markinan 70 bat moja, abade eta fraide zeuden), eta %10 inguru jarduera industrialetik (ferratokiak, latoneriak, argindar fabrikak…) (Mugartegi, 1927: 6). Ehun urtetan, 1825etik 1927ra, nekazaritzatik bizi ziren markinarren ehunekoa %60tik %50ra pasatu zen.

1.1. **1930 - 1931: Errepublika etorri aurreko giro politikoa**

1930eko abuztuaren 17an, errepublikarrek, sozialistek eta nazionalista kataluniarrek Donostiako Ituna sinatu zuten, erregea kendu eta II. Errepublika ezartzeko helburuarekin.

Egoera zail hartan, erregezaleek hauteskunde orokorrak deitzeko eskatu zioten Alfontso XIII. erregeari. Legebiltzar berria aukeratu aurretik, eta erregearen aldeko indarren berrantolaketarako denbora izateko, udaletako hauteskundeak deitzea erabaki zuten.

Errepublika etorri aurreko hiletan, lau alderdi politiko zeuden antolatuta Markinan eta Xemeinen: Alderdi Katoliko Tradizionalista, Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ), Espainiako Langile Alderdi Sozialista (PSOE) eta Acción Republicana (AR).

Alderdi Katoliko Tradizionalista zen lauretatik indartsuena eta bi herriotan tradizio eta historia luzeena zuena[3]. Alderdi politiko hau Vazquez de Mellak sortu zuen

---

elkarte honek hogeita hamabost urtez (1957an Iberduerok erosi zuen enpresa) ustiatu zituen Arizmendiko, Oxilaingo (1901ean sortua), Azpiltzako, Ubillako eta Plazakolako ur-jauziak; eta, modu apalagoan, baita Aranzibia eta Errotabarri ere. Saltos del río Ondarroa argindar enpresarekin batera, 20. hamarkadan eta 30. hamarkadan zehar, beste elektra enpresa batzuk ere sortu ziren Markinako eta Xemeingo argindar eskariak asetzeko: Electrica Marquinesa (Jeronimo Ugarte Mugerza, Iriondo eta Onaindia ziren jabeak), Sociedad Cooperativa Electra Otaola (Otaolako ur-jauzia ustiatzen zuen, kooperatiba gisa funtzionatzen zuen, eta Markinako eta Xemeingo etxe askoren argindar beharrizanak asetzen zituen), Armistegi Errota (Jose Kareaga Mandiolak Armistegiko errotan lortzen zuen argindarra, eta Barinaga auzoko beharrizanak asetzen zituen) eta Manuel Alzibarren elektra (XX. mendearen hasieran sortu zen Amalloan, eta inguruko baserriei saltzen zien argindarra). Argindar enpresa hauek guztiek garrantzi handia izan zuten Markinako eta Xemeingo latonerien argindar zerbitzua hobeagotzeko, baita herritarren bizimaila ere (Juaristi, 2008b: 27-31).

[3] Berrezarkuntzako (1874 - 1923) lehen urteetan, karlistak jaun eta jabe ziren Bizkaiko udal gehienetan. Javier Real Cuestak dioen bezala: «A pesar de la derrota militar, el bloque más compacto del País

1919an[4], baina tradizio karlistatik jaiotako alderdia izanik, ondo lotu zen sasoi hartako sektore tradizionalen ideologiarekin, eta berehala hedatu zen Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban (Nafarroan jaimistak izan ziren nagusi). Primo de Riveraren diktadura aurreko urteetan, tradizionalistak edo mellistak ondo antolatuta zeuden, elkarguneak ere bazituzten, eta alkatetza eta zinegotzi ugari lortzen zituzten ingurune honetako udalerrietan (Durango, Markina, Xemein…). Markinako eta inguruko tradizionalistek zuzendaritza batzordea zuten, hainbat militante eta baita biltzeko toki bat ere: Zehar kaleko Zirkulu Tradizionalista. Elkarte hau Alderdi Katoliko Tradizionalista sortu eta hil batzuetara zabaldu zen, 1920. urtearen inguruan; gutxi gorabehera, EAJ-koek lehen Batzokia zabaldu zuten garai berean[5].

Tradizionalistek gure herrian zuten indarraren erakusle ere bada emakume tradizionalistak ere antolatuta zeudela Margaritak taldean (Agrupación Femenina Tradicionalista). Hauen asmo garrantzitsuenetarikoa zen ideia tradizionalistak babestea; zehazki, familiaren balio tradizionalak[6]. Mitin eta bilera politikoez aparte, txiroentzako arropa bilketak eta emakumeentzako ekitaldi kulturalak antolatzen zituzten «Zirkuluan»[7]. Markinako Margariten burua Dolores Alkorta Zulueta zen (Markina, 1888 - Gijon, 1977).

Vasco en los primeros años de la restauración fue el tradicionalista. Este espacio fue ocupado por un partido único, el partido carlista, que supo adaptarse con rapidez a las ideas y sentimientos católicos-forales claramente dominantes en el País y que consiguió rentalibilizarlos políticamente: en 1886 tenían el control de las Diputaciones de Álava y Guipuzcoa, el Ayuntamiento de Vitoria y la inmensa mayoría de los municipios vascos. Posteriormente, sus posiciones quedarían muy reducidas en Vizcaya, mientras que en Álava y Guipuzcoa su hegemonía resultaría condicionada por las vicisitudes del bloque liberal» (Real Cuesta, 1991: 12). Dena dela, XX. mendea aurrera zihoan heinean, Alderdi Karlista ahultzen joan zen, batez ere Bizkaian. Lea-Artibai eskualdea osatzen duten herrietan (lehen Markinako Barrutia), erregezale dinastikoek (Alfontso XII. eta XIII.aren aldekoek) eta alderdi katolikoek gero eta indar eta hedakuntza handiagoa zuten, eta karlisten eragina murrizten ari zen (Delgado, 2008: 299-302). Hala eta guztiz ere, Markinan eta Xemeinen, Alderdi Karlistak indarra zuen XX. mendearen lehen hamarkadetan, eta, beraz, karlistek hainbat aldiz eskuratu zituzten Xemeingo eta Markinako alkatetzak. Zehatzago esateko, Primo de Riveraren diktadura aurreko urteetan, Alderdi Katoliko Tradizionalistako kideak agintzen zuten Markinan eta Xemeinen; hau da, alkatetzak «mellisten» edo «tradizionalisten» eskuetan zeuden.

[4] XX. mendeko lehen bi hamarkadetan, Vazquez de Mella izan zen Alderdi Karlistaren ideologo nagusia. Dena dela, Lehen Mundu-gerran, Alemaniaren alde agertu zen, eta Karlismoaren buru zen Jaime Borbon erregegaiak haren jarrera gaitzetsi zuen. Horregatik, Vazquez de Mellak Alderdi Karlista utzi eta Alderdi Katoliko Tradizionalista sortu zuen, 1919an. Tradizionalistak, beraz, Karlisten ondorengoak dira, eta, askotan, batzuk eta besteak nahastu egiten dira. Garai hura bizi izan zuten markinarrek eta xemeindarrek ere karlista hitza erabiltzen dute, ofizialki «tradizionalistak» edo «mellistak» izan zirenei buruz hitz egiterakoan. Herritar gutxi batzuk integristak (Partido Católico Nacional Alderdik Karlistaren banaketa batetik sortu zen, 1888an) edo jaimistak (Partido Carlista) izaten jarraitu zuten, baina, markinar eta xemeindar gehienak Alderdi Katoliko Tradizionalistaren jarraitzaile bihurtu ziren.

[5] Besteak beste, tradizionalistak ziren Joan Jose Mugartegi, Teodoro Urtiaga «Txillaro», Joan Jose Baskaran, Patxi Baskaran, Joakin Olaortua, Zesar Olaortua, Alejandro Duralde, Gonzalo Goioganai, Jose Urkiza, Hilarion Amutxastegi, Javier Sanchez del Campo, Markinako Instrukzio Epailea, Emilio Ruiz, Xemeingo Instrukzio Epailea, Rikardo Urkieta, Zezilio Bustindui, Jeronimo Mendibe, Roberto Bustingorri, Rafael Urbieta edo Klaudio Azpiazu.

[6] Margarita izena hartu zuten, Karlos VII.aren emaztearen, Margarita Borbonen, omenez. Izan ere, Margarita Borbonek lan asko egin omen zuen bigarren gerra Karlistako zauritu karlistak zaintzen.

[7] Errepublika garaian, margaritek erreketeei lagundu zieten, armak ezkutatzen eta garraiatzen. Ez dakit horrelako lanik egin zuten Markinako eta Xemeingo margaritek, baina badakigu laguntza eta informazioa ematen zietela frontearen beste aldean zeuden militar matxinatuei.

Ez dakit zenbat margarita elkartzen ziren Zirkuluan, baina tradizionalismoak zuen indarra eta margaritek antolatzen zituzten ekimenak kontuan hartuta, talde garrantzitsua zela pentsa daiteke. Kontuan hartzekoa da II. Errepublikako urteetan, Euskal Herrian zegoela Espainiako margarita kopururik handiena (González eta Barinaga, 2008: 24-25).

Primo de Riveraren diktadura (1923 - 1930) etorri aurreko urteetan, bi herriotako tradizionalistek indarra zuten, eta antolatuta zeuden; hala ere, Bizkaian, oro har, ahulak zirenez, hauteskunde orokorretan zein probintzialetan aliantzak edota koalizioak egiten zituzten eskuineko beste alderdi batzuekin. Primo de Riveraren diktadurara arte, beraz, gure herriko biztanle gehienek tradizionalisten aldeko bozka ematen zuten udal hauteskundeetan, eta, aldiz, Alfontso XII.a edo XIII.a babesten zituzten politikari monarkikoen edo katoliko independenteen alde egiten zuten Aldundirako edo Gorteetarako hauteskundeetan. Egia esan, hautesleen botoa jauntxoen eskaeren, interesen, presioen edo eroskerien arabera aldatzen zen (Delgado, 2008). 1929ko eta 1923ko hauteskunde orokorretan, eta 1923ko hauteskunde probintzialetan, adibidez, mellistek (tradizionalistek) Liga de Acción Monárquica alderdiaren aldeko botoa eskatu zuten (Delgado, 2008: 59), eta, ondorioz, jauntxo guztiek eta markinarren %80ak alderdi honen alde bozkatu zuten. Herritarren %20ak EAJ-ren alde egin zuen (Delgado, 2008: 299-302)[8].

Primo de Riverak Alderdi Katoliko Tradizionalistaren jarduera politikoa debekatu egin zuen, eta Zirkulu Tradizionalista zarratu. Diktadurak Joan Jose Mugartegi tradizionalista kendu zuen Markinako alkatetzatik, eta Jose Maria Aranbarri jarri zuen agintean; alegia, militarrek Alfontso erregegaiaren aldeko herritar bati eman zioten alkatetza. Hala eta guztiz ere, tradizionalistak antolatuta jarraitu zuten klandestinitatean, eta, Errepublika etorri zenean, 1931n, «Zirkulua» berriro zabaldu zuten, eta, aurretik bezala, lan politiko, sozial eta kulturalari ekin zioten.

1931n, tradizionalismoa zen historia luzeena eta indar gehien zuen alderdi politikoa Markinan eta Xemeinen, baina, apurka-apurka, ideologia jeltzalea edo bizkaitarra ere hedatzen ari zen.

XX. mendearen hasieran, gure herriko jauntxo, merkatari, abade, fraide eta moja ia denak oso hurbil zeuden ideologia tradizionalista edo karlistatik, eta herritarrengan zuten autoritatea erabiltzen zuten, hautagai katoliko, eskuindar eta tradizionalisten aldeko botoa eskatzeko. Abertzaletasunak indar gutxi zuen.

Mendea aurrera zihoan neurrian, gero eta herritar gehiago Sabino Aranaren mezu nazionalista bereganatzen hasi zen, eta Autonomia Estatutuaren gaiak gero eta oihartzun eta hedakuntza handiagoa zuen. Hortaz, XX. mendearen hasieran, ideologia abertzalea zuten lehen zinegotziak sartu ziren Markinako udalean. 1911n, adibidez, Benito Aginaga Ugalde «Mendaro» (1874 - 1937) abertzalea aukeratu zuten zinegotzi, eta, geroago, baita bere anaia Teodoro ere (1867 - 1930).

Gauzak are eta gehiago aldatu ziren 1918an (Delgado, 2008: 55). Urte horretako hauteskunde orokorretan, EAJ-k hautagai bat aurkeztu zuen Markinako hauteskunde barrutian, lehen aldiz, eta garaile atera zen, bai Markinan eta bai Xemeinen. EAJ-ko Arroyo hautagaiak 174 bozka lortu zituen Markinan eta 151 Xemeinen (http://www.euskomedia.org/aunamendi). Larrazabal Mauristak bozka gutxi batzuk besterik ez zituen eskuratu.

---

[8] Liga de Acción Monárquica Bizkaiko hauteskunde-koalizio bat izan zen, abertzaletasunak hartutako indarrari aurre egiteko sortua (Bilbo, 1919). Alderdi Liberala, Alderdi Kontserbadorea, Alderdi Maurista eta monarkiko independenteak elkartu ziren Ligan. Bizkaiko oligarkiaren eta Madrilgo gobernuaren laguntza izan zuen, eta Errepublika aldarrikatu zenean desegin zen (1931).

1918tik 1923ra, EAJ-k hauteskunde orokorretan lortzen zuen bozka kopurua murrizten joan zen[9], baina, zalantza gabe, XX. mendearen bigarren hamarkadaren hasieran, EAJ errotuta zegoen Markinan eta Xemeinen. Horren adierazle da 1920. urtearen inguruan zuzendaritza bat zutela, Batzokia ireki zutela eta kultur ekitaldiak antolatzen zituztela.

Lehen Batzokia gaur egun Melo's Tabern dagoen lokalean (Zehar kaleko 21ean) zabaldu zen, 1920. urtearen bueltan[10]. Bertan, EAJ-koek antzerki emanaldiak eskaintzen zituzten neguko igande iluntzetan. Gutxi gorabehera 1921ean, Batzokia Okerra kaleko 24ra pasatu zen, eta hemen ere antzerki emanaldiekin eta ekitaldi kultural eta politikoekin segitu zuten.

Primo de Riverak jarrera bortitza erakutsi zuen abertzaletasunaren, euskararen eta euskal kulturaren kontra. EAJ klandestinitatera pasatu zen, eta Markinako Batzokia zarratu (Juaristi, 2008b: 9). Hala eta guztiz ere, EAJko kideek antolatuta jarraitu zuten ezkutuan. Bileretarako deialdiak edota mezuak elkarri pasatzeko, militanteen umeak erabiltzen zituzten.

Diktadura bukatu zenean, EAJ-ko kideak bilera gehiago egiten hasi ziren, hobeto antolatzeko helburuarekin. Hilario Aretxabaleta (Markina, 1888 - Derio, 1937) lehendakari zela[11], Markinako Uri Buru Batzarra indartu zuten[12].

Markinako Emakume Abertzale Batza (EAB) ere 1931ko azaroaren hasieran eratu zen (Euzkadi, 1931-10-11), elkartearen zuzendaritzan hainbat emakumek parte hartzen zutelarik. Besteak beste, Natividad Zabalak (1875 - 1969), Miren Lourdes Mokoroak, Jone Onaindiak, Rosario Onaindiak eta Elixabete Aginagak «Ete-k».

Errepublikako urteetan, EAB andrazkoen erakunde garrantzitsuena bihurtu zen Bizkaian, eta gure herrian ere indar asko lortu zuen. 1936. urtean, 28.500 bazkide zituen, horietariko 15.000 Bizkaian (González eta Barinaga, 2008: 21). Elkarte honen baitan, emakume abertzaleek ekintza kultural, erlijioso, politiko eta sozialak burutzen zituzten: euskara ikastaroak, antzerkiak, ibilaldiak, euskal dantzen eta kanten ikastaroak, festak, txiroentzako arropa bilketak, mezak, mitinak, hitzaldiak… EABren bitartez, emakume abertzaleak bizitza publikoan parte hartzen hasi ziren, ikuspuntu kultural, sozial eta

---

[9] 20. hamarkadan zehar, EAJ-k ez zuen lortu 1918an lortu zuen bezalako babesik. 1919ko hauteskunde orokorretan, Liga Monarkikoko hautagaiak, Alonsok, irabazi zuen Markinan eta Xemeinen. Dena dela, EAJ-ko hautagaiak (Arroyok) 100 bozka lortu zituen Markinan eta 99 Xemeinen. 1920ko hauteskunde orokorretan, Liga Monarkikoko hautagaiak, Aznarrek, irabazi zuen Markinan eta Xemeinen, baina EAJ-ko hautagaiak (Arroyok) 52 bozka lortu zituen Markinan eta 29 Xemeinen. Azkenik, 1923ko hauteskunde orokorretan, Liga de Acción Monarkikoko hautagaiak, Artetxek, irabazi zuen Markinan eta Xemeinen, baina Unión Nacionalista alderdiko hautagaiak (De la Sotak) 42 bozka lortu zituen Markinan eta 35 Xemeinen (Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia, http://www.euskomedia.org/aunamendi).

[10] Egia esan, ez dakit berariazko Batzoki bat zen, edo bertan zegoen taberna elkartzeko toki gisa erabiltzen zuten. Izan ere, toki honetan, «Boca-rica»-ren kafetegi eta trinketa zegoen. Boca-rica Gregorio Unamuno Elkororen ezizena zen. Gregorio Abandon jaio zen, eta «Tejer» famatuaren semea zen. Frantziska Dionisia Trotiaga Maguregirekin (1879an jaioa) ezkonduta zegoen (Bilbao, 1988: 9-14).

[11] Hilario Aretxabaleta erloju konpontzailea zen, eta gaur egun Zelaiko ziburuak dauden pareko etxearen lehenengo solairuan erlojuak saltzen eta konpontzen zituen. Bere militantzia politikoagatik Derion fusilatu zuten 1937an.

[12] EAJ-ko beste buruzagi batzuk ziren Pedro Onaindia, Benito Aginaga «Mendaro», Anastasio eta Jose Maria Barrenetxea «Txirget», Luis Foruria, Anjel Pertika, Joan Zelaia, Tomas Duralde, Gregorio Duralde, Jerardo Ibarluzea, Bernardo Aretxabaleta, Txomin Aretxabaleta, Akilino Egiraun, Joan Onaindia «Uhagon», Felipe García Maguregi, Luziano Muñoz Azpeitia edo Joan Ugarteburu Anitua.

politikotik kontzientziatu, eta euretariko asko ohartu ziren emakumeen mundua ez zegoela bakarrik etxean edo elizan.

Errepublika etorri aurretxoan, beraz, EAJ-k antolaketa sendoa zuen, hainbat militante, eta ekitaldi politikoak eta kulturalak antolatzeko gaitasuna; 1931ko udal hauteskundeetan lehiatzeko prest zegoen.

1931n, EAJ eta, gehienbat, Alderdi Katoliko Tradizionalista ziren bi herriotako alderdi politiko garrantzitsuenak. Nolanahi ere, errepublikazale gutxi batzuk ere baziren[13], eta hauek ere bazuten zeozelango antolaketa. Ez nago oso ziur, baina iruditzen zait Errepublika etorri aurreko urteetan, gure herriko errepublikazale gehienak Acción Republicana alderdiaren inguruan zebiltzala. Gutxi ziren, baina antolatuta zeuden, eta, ondorioz, Errepublika aldarrikatu eta lau hilera, 1931ko abuztuan, Markinako eta Xemeingo Errepublikazaleen Elkartea sortu zuten (http://www.euskomedia.org/aunamendi).

Elkarte honen lehen lehendakaria Alberto Onaindia Badiola (1882 - 1951) botikaria izan zen (ez nahastu Alberto Onaindia Zuluaga abadearekin). Alberto Onaindia, baina, bakarrik sei hilabetez egon zen elkartearen lehendakaritzan. 1932an, bere kargua utzi egin behar izan zuen, erlijio kontuak medio, ez zelako ondo konpontzen beste batzordekideekin[14]. Ostean, Martin Laka Mandiola egin zuten lehendakari[15].

Anbrosio Mallukiza Aldaolearen taberna-dendan elkartzen ziren errepublikazaleak. Saltoki hau Pitis jatetxearen eta Legarraren etxearen artean zegoen, eta Anbrosiok ostatua eta bizartegi zerbitzuak ere eskaintzen zituen (Garaian, 4, 1989: 40).

Bizkaiko errepublikazaleek Foruen interpretazio liberala egiten zuten, eta bizkaitar sentimendua eta identitatea babesten. Tradizionalisten aurkakoak ziren, Errepublika federala defendatzen zuten, ez ziren oso elizkoiak, eta monarkiaren aurka eta Errepublikaren alde agertzen ziren. Sozialistekin eta EAE - ANV-koekin aurkeztu ziren 1931ko udal hauteskundeetara, eta Markinan zinegotzi bat lortu zuten.

---

[13] 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorretan, Madariaga errepublikarrak 72 bozka lortu zituen Markinan eta 72 Xemeinen.

[14] Badirudi horren arrazoia izan zela Alberto pertsona erlijiosoa zela, eta prozesioak egitearen alde zegoela. Errepublika garaian, eskoletatik gurutzeak kendu ziren eta prozesioak debekatu. Alberto Onaindiak bere influentziak erabili zituen herrian prozesioak egiten jarraitu ahal izateko. 1937ko abuztuaren 26an, zera esaten zuen Markinako alkatearen txosten batek, epaile batek pertsona honen erantzukizun politikoez galdetu zuenean: «Dicho Sr. Onaindia en Agosto de 1931 fue nombrado Presidente de la Agrupación Republicana de esta villa, siendo destituido y expulsado a los seis meses por conceptuársele reaccionario, culpándosele por sus ideas religiosas y de ser persona de orden. Con posterioridad, visto el espíritu religioso del vecindario de este pueblo, consiguió se celebraran las procesiones religiosas tradicionales, aún cuando estaban prohibidas por la Autoridad.

Dada la gran influencia y amistad personal suya con Don Indalecio Prieto, el Ayuntamiento de esta villa, por su mediación, consiguió una subvención del Estado Español de 40.000 pesetas para la construcción de nuevas escuelas.

En la últimas elecciones del año 1936 dejó en libertad a sus inquilinos o arrendatarios para que emitieran sus sufragios a su arbitrio y voluntad. Y por último, durante el Movimiento o dominación Rojo-separatista no ha ocupado cargo alguno, pero sí a favorecido a algunas personas de las derechas, entre otras al Sr. Juez de Instrucción de esta Villa Don Javier Sánchez del Campo y a Don Venancio Nardiz, ex-ayudante del Rey y ex-Diputado Monárquico por el Distrito de Guernica, que fueron perseguidos por las hordas Rojas».

[15] Batzordeko beste kide batzuk ziren Agustin Arrate Elordi «Txorixa» eta bere seme Jenaro eta Joan Arrate Santamaria, Jose Cazalis Sarasua, Anjel Aretxabaleta Aizpuru (Paulino Gomez buruzagi errepublikarraren lehengusua zena), Anbrosio Mallukiza, Doroteo Etxebarrieta, Jose Maria Aransolo Barinagarrementeria «Gerriketxe» eta Migel Larrinaga Aldazabal «Goiko Bolu».

Errepublika garaian, ideologia errepublikarreko hainbat alderdi sortu eta desagertu ziren. Dena dela, eta aurretik adierazi bezala, iruditzen zait, bi herriotako errepublikar gehienak Acción Republicana alderdiaren inguruan zebiltzala. Hala ere, 1934ko apirilaren 3an, Acción Republicana alderdia eta Partido Republicano Radical Socialista Independiente elkartu ziren, eta Izquierda Republicana alderdia eratu zuten. Hemendik aurrera, herriko errepublikazaleak Izquierda Republicana alderdian bildu ziren.

Errepublikarrekin batera, PSOE-k ere bazuen presentzia txiki bat bi herriotan. Markinar eta xemeindar gehienak nekazariak ziren, hautagai tradizionalisten edo abertzaleen aldeko bozka ematen zuten nagusiki, eta mesfidantzaz ikusten zituzten ezkerreko ideiekin identifikatzen ziren ateismoa eta kultura laikoa. Dena den, Hego Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, 20. hamarkadan zehar, ugaritu egin ziren latonerietan eta argi indar enpresetan lan egiten zuten beharginak (Juaristi, 2008c: 27-31). Langile hauek, gainera, Eibarko enpresetan beharrean ari ziren beste markinar eta xemeindarren eragin ideologikoa zuten, eta, apurka-apurka, klase kontzientzia hartzen eta ezkerreko ideiez jabetzen ari ziren. Horrela, Errepublika etorri aurretik, PSOE-k eta UGT-k bazituzten afiliatu batzuk bi herriotan, eta hauen ekimenez, Markinako Batzorde Sozialista sortu zen 1931ko azken hiletan[16]. Batzorde hau Cazalistarren etxean elkartzen zen, Artibai kaleko 14an, eta baita Zehar kalean zegoen taberna batean[17] eta Goiko Portaleko Anbrosio Mallukizaren taberna-dendan ere[18].

Herriko sozialista gehienek latonerietan eta elektrizitate fabriketan lan egiten zuten. Plazakolako argindar zentrala, Arizmendikoa edo Azpiltzakoa ustiatzen zituzten langileak (hurrenez hurren, Jose Domingo Balentziaga, Frantzisko Larrinaga eta Nemesio Aldazabal) sozialistak ziren, baita Cazalistarren, Oliverren, Barinaga eta Alberdiren edo Larrinagatarren latonerietan lan egiten zuten asko ere.

Klase kontzientzia eta ideologia sozialistekin batera, Errepublikaren etorrerarekin, kleroaren aurkako jarrerak gehiago hedatu ziren. Cazalistarrak eta, oro har, batzorde

---

[16] Batzorde sozialista 1931ko azken hiletan sortu zela pentsatzeko arrazoia da Markinako Sozialistak ez zutela ordezkaririk bidali 1931ko uztailean egin zen Euskadiko eta Nafarroako Federazio Sozialisten kongresura. Aldiz, badakit 1931n politikoki aktiboak izan zirela, 1931ko hauteskundeetan parte hartu zutela eta 1934ko abuztuan, Bizkaiko Sozialisten Federazioaren Kongresuan parte hartu zutela. Egigurenek Hego Euskal Herriko sozialisten historia aztertzerakoan dioen bezala: «Cuando en agosto de 1934 se reune el Congreso de la Federación Socialista de Vizcaya, el número y la localización de las agrupaciones asistentes confirman las previsiones más optimistas. Estuvieron presentes las agrupaciones de Aranguren, Arrigorriaga, Baracaldo, Basauri, Bermeo, Bilbao, Durango, Erandio, Echavarri, Galdames, Gallarta, Guecho, Guernica, la Arboleda, Lejona, Ortuella, Portugalete, Santurce, Sestao, Sodupe, Sorrorrostro, Sondica, Usansolo, Valmaseda, Elorrio, Ibarrangelua, Sopuerta, Elanchove, Marquina, Munguía, Vitoria y el grupo socialista de Orozco. En total 32 agrupaciones.

La celebración de este Congreso provincial de la Federación Socialista de Vizcaya, agosto de 1934, debió de coincidir con el momento de máximo auge del partido socialista en el País Vasco. Es lógico pensar, que tras los acontecimientos de octubre de 1934 (Revolución de Asturias), también en el País Vasco descendió el número de afiliados al PSOE» (Egiguren, 58-59).

[17] Taberna hau, gaur egun Arriaga Altzariak dagoen tokian zegoen. Lehenengo Bravorena (Berazadi) izan zen, eta gero Mallabiko «Saietza» baserrikoena (Garaian, 3- 1988: 14).

[18] Batzorde sozialistako kide batzuk ziren Benito Muñoz Azpeitia (Lehendakaria), Manuel Cazali's Sarasua, Joan Cazalis Areitio, Frantzisko Cazalis Areitio, Luis Mandiola Bastida, Frantzisko Larrinaga Jaio, Domingo Urbieta Eleizgarai, Agustin Egizabal «Agustin Politxe», Ignazio Azkue Goia, Bernardo Iraolagoitia Lekerikabeaskoa, Nemesio Aldazabal Eizagirre (Xemeingo 2. alkate ordeko gerratean), Pedro Aldazabal Eizagirre, Frantzisko Aldazabal Akarregi, Fernando Oliver Larrinaga eta Jose Domingo Balentziaga Maguregi.

sozialistako zein elkarte errepublikarreko kideak ezagunak ziren elizaren aurka zituzten ideiengatik (Onaindia, 1980: 456). Aipatzekoa da kleroaren aurkako jarrera erakusten zutenetariko asko Artibai kalearen amaieran, beheko errebalean, bizi zirela. Mikaela Ibarrolazak zihoen bezala: «Este barrio, como nadie iba a misa, era conocido como el barrio chino» (Garaian, 2007- 40: 40). Esan beharrik ere ez dago, erabat elizkoia zen gizarte hartan, jarrera hauek zer esan asko sortzen zutela.

Gutxi ziren Batzorde Sozialistako kideak, baina antolatuta zeuden, eta 1931ko apirileko udal hauteskundeetara, errepublikazaleekin eta EAE - ANV-koekin batera aurkeztu ziren, eta, EAJ-ko kideekin eta tradizionalistekin egindako akordioen ondorioz, zinegotzi bat lortu zuten Markinan. Ignazio Azkue Goia (1884 - 1968) izan zen sozialisten eta errepublikazaleen lehen ordezkaria Markinako Udalean.



Argazkia: Felipe Amutxastegi
Felipe Garcia Maguregi, Jose Antonio Agirre eta Markinako eta Xemeingo EAJ-ko beste batzuk Markinan, 1931ko udal hauteskundeak baino aurretik.

Espainia osoan, Udal Hauteskundeak 1931ko apirilaren 12an egin ziren, baina, egun horretan, markinarrek eta xemeindarrek ez zuten botorik eman. Bi udalerriotan, zerrenda bakarra aurkeztu zen hauteskundeetara, eta garaiko hauteskunde legearen 29. artikuluari jarraituz, aurkeztu zen zerrenda aukeratu zen, inolako bozketarik egin gabe. Markinan antolatuta zeuden lau alderdi politikoetako kideek (EAJ, Alderdi Katoliko Tradizionalista, PSOE eta errepublikarrak) euren artean adostu zuten hauteskunde zerrenda, eta Udal Batzordea era honetan osatu zen, 1931ko apirilaren 5ean:

– Alkate: Felipe García Maguregi (EAJ)
– 1. Alkate Ordeko: Tomas Duralde Kerejeta (EAJ)
– 2. Alkate Ordeko: Luziano Muñoz Azpeitia (EAJ)
– Bernardo Aretxabaleta Arriola (EAJ)

– Joan Ugarteburu Anitua (EAJ)
– Jose Luis Arizmendiarrieta Atxa (EAJ) (Molina, 2005: 164).
– Klaudio Azpiazu Azkaiturrieta (tradizionalista)[19].
– Jose Urkiza Arriaga (tradizionalista)
– Ignazio Azkue Goia (errepublikarren eta PSOE-koen ordezkaria Udal Batzordean).



Argazkia: Garaian aldizkaria
Bernardo Aretxabaleta Arriola «Tate» (Markina, 1894 – Markina-Xemein, 1968). Markinako alkatea gerratean. Frantzian errefuxiatu zen 1937tik 1952ra.

Udal Batzorde berriak aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen Markinara: lehen aldiz herri honen historian, EAJ-koek eskuratu zuten alkatetza, tradizionalisten edo karlisten kaltetan.

Xemeinen ere ez zen lehiarik egon. Hemen ere zerrenda bakarra aurkeztu zen, eta hauteskunde legearen 29. artikuluaren arabera, aurkeztu zen zerrenda aukeratu zen. Tradizionalisten eta «Bizkaitarren» (EAJ) artean egindako akordioen arabera, Xemeingo alkatetza tradizionalistengandik gertu zeudenen eskuetara joan zen, eta EAJ-k hiru zinegotzi lortu zituen. Xemeingo Udal Batzordea era honetan gelditu zen osatuta, 1931ko apirilaren 5ean (Auñamendi Eusko Entziklopedia: http://www.euskomedia.org/aunamendi):

– Alkate: Julian Ituarte Solozabal (1858 - 1936) (joera tradizionalistakoa)
– Andres Zelaia Kareaga (1882 - 1955) (joera tradizionalistakoa)
– Joan Ugartetxea Olasolo (EAJ)
– Luziano Arroitajauregi Malaxetxebarria (1899. urtean jaioa, EAJ)
– Ignazio Etxaniz Laka (EAJ)
– Lorenzo Azpiri Ugartetxea (Xemein, 1902 – Markina-Xemein, 1981)

[19] Klaudio Azpiazu 1894an jaio zen. 1957. eta 1958. urteetan, Valeriano Gurtubai alkate zela, berriro ere zinegotzia izan zen Markinan. Valeriano Gurtubai Zabala (1903 - 1980), Markinako alkate izan zen 1954tik 1960ra.

– Jose Maria Rekalde Agirreamalloa (1884. urtean jaioa) (joera tradizionalistakoa)
– Jose Iriondo Urkidi (joera tradizionalistakoa)
– Jose Martin Onaindia Aldazabal (1870. urtean jaioa) (joera tradizionalistakoa)

Tradizionalistek, abertzaleek, sozialistek eta errepublikazaleek ideologia, helburu eta interes desberdinak zituzten, baina, 1931n, biztanleen artean ez zegoen apurketa bortitzik. Aurkakotasun politikoa eta ideologikoa ukatu gabe, batzuek eta besteek elkarrekin parte hartzen zuten herriko bizitzan, eta, nire iritziz, Markina eta Xemein gizarte kohesionatuak ziren.

Kristau sinesmena erabat errotua zegoen biztanle ia denen artean, eta elizak eta elizgizonek desberdintasun ideologikoak murrizteko eta jendea biltzeko gaitasun handia zuten. Abertzaleek zein tradizionalistek elkarrekin parte hartzen zuten jai egunetako, Gabonetako edo Aste Santuko errito, ospakizun edota prozesio erlijiosoetan, eta bat egiten zuten hain ugariak ziren elkarte eta anaidi erlijiosoetan (Garaian, 1994-15: 15 eta Urkiza, 1992: 371-400).

Aisialdiko jardueretan ere, batera aritzen ziren ideologia desberdinetako herritarrak (Bilbao 1995 eta 2009). Pilota ikuskizunetan, apustuetan, tabernetan, erromerietan edota auzoetako jaietan, ez zegoen zatiketarik[20].

Desberdintasunak desberdintasun, biztanle gehienak tradizionalistak edo abertzaleak ziren, kulturalki euskaldunak ziren, foruak berreskuratzearen alde zeuden eta katoliko sutsuak ziren. Ideologien gainetik, oinarri linguistiko, kultural eta erlijioso bera zuten markinar eta xemeindar ia denek, eta horrek desberdintasun politikoak arintzen zituen eta kohesio soziala ahalbidetzen (Goñi, 1989: 53)[21]. Beraz, ez da harritzekoa 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan, Markinan zein Xemeinen abertzalez, tradizionalistez, sozialistez eta errepublikazalez osatutako zerrenda bakarrak aurkeztea.

1.2. **1931 - 1933: Biurteko Progresista eta aldaketa politiko, sozial eta erlijiosoak**

1931ko apirilaren 12an egin ziren udal hauteskundeak Espainian, eta errepublikazaleak atera ziren garaile: Estatuko 50 hiriburuetatik 41ean irabazi zuten, baita hiri nagusienetan eta meatze eta industria guneetan ere. Monarkiaren aldekoak nekazaritza indartsua zen tokietan baizik ez ziren garaile atera; hau da, berrezarkuntza garaiko kazike sistema indarrean zegoen tokietan.

---

[20] Markinako eta Xemeingo jauntxoen aisialdia desberdina zen. Murga, Mugartegi, Areizaga, Urkixo, Uhagon edo Gaitan de Aialatarrek dirua, ikasketak eta kultura zutenez, tenisean jokatzen zuten, euren jauregietako lorategi eta baso sofistikatuetan paseatzen zuten, liburutegi bikainak zituzten, eta arte lan garestiak erosten zituzten. Baserritarrek eta herritar xeheek pilota edo herri-kirol ikuskizunetan parte hartzen zuten bitartean, jauntxoek gustu finduak zituzten. Batzuk eta besteak mundu guztiz desberdinetan bizi ziren.

[21] Joseba Goñik dioen bezala: «Las divergencias ya ostensibles de la familia foralista vasca ¿eran definitivamente irreversibles? Todavía no. Un legado histórico ligaba todavía a todos, a saber, el espíritu paccionado y contractual con el poder central, la recuperación del agravio foralista inferido en el siglo XIX por el constitucionalismo español y, en fin, la cultura vasca en muchas de cuyas manifestaciones, aunque era innegable la sabia joven inyectada por la formulación nacionalista, contaba con personajes beneméritos procedentes del tradicionalismo en instituciones tan imprescindibles y fundamentales como la Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia o Academia de la Lengua Vasca, etc. Aparte de dichas convergencias la defensa del catolicismo podría constituir una ratio definitiva de alianzas políticas» (Goñi, 1989: 53).

Eibartarrak izan ziren Errepublika aurrenekoz aldarrikatu zutenak, apirilaren 13an, eta, ostean, Estatuko herri eta hiri askok segitu zuten eredua. Erregeak erbesterako bidea hartu behar izan zuen, eta Donostiako Ituna sinatu zuten alderdi politikoek Errepublikaren behin-behineko gobernua eratu zuten.

Errepublikarekin, aldaketa politikoak bata bestearen atzetik etorri ziren, eta Hego Euskal Herriko bizitza politikoa bi ardatz nagusiren inguruan mugitzen hasi zen: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarentzat Autonomia Estatutu bat lortzea, eta, horrekin batera, biztanle guztientzat bizimaila hobeagoa eta gizarte demokratikoagoa ekarriko zuten aldaketak bultzatzea.

Eusko Ikaskuntzak 1931n aurkeztu zuen Estatutu egitasmoak garaiko alderdi politiko guztien (abertzaleak, sozialistak, errepublikarrak eta tradizionalistak) onarpena izan zuen.

1931ko ekainaren 14an, Hego Euskal Herriko alkate nazionalistek eta tradizionalistek (tartean Xemeingo eta Markinako alkateek) Lizarrako Estatutua onartu zuten. Hain zuzen ere, autonomia nahi zuten Hego Euskal Herriko 520 herrietatik 480k babestu zuten Lizarrako Estatutua. Estatutu konfesionala, eskuindarra eta abertzalea zen (Granja, 1990: 21-22).

Handik hamalau egunetara, 1931ko ekainaren 28an, hauteskunde orokorrak egin ziren Estatuan, eta sozialisten eta errepublikarren koalizioak lortu zuen gehiengoa Gorteetan. Hego Euskal Herrian, koalizio honek bederatzi ezarleku lortu zituen.

EAJ eta Alderdi Katoliko Tradizionalista elkarrekin joan ziren Estatutuaren Defentsarako Euskal Hautagaitza - Candidatura Vasca Defensora del Estatuto (CVDE) koalizioan, eta hamabost ezarleku lortu zituzten. Hautagaitza honen asmoa zen Lizarran, ekainaren 14an, Hego Euskal Herriko udal gehienek onartu zuten Autonomi Estatutuaren egitasmoa Errepublikako Gorteetan aldeztea (Ranz, 1996: 15). Hala ere, egitasmo hau ez zen aurrera atera, ezkerreko alderdiak aurka agertu zirelako; batez ere, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanen artikulua konstituzioaren aurkakoa zelako (Granja, 1990: 22-24).

Markinan eta Xemeinen, Alderdi Katoliko Tradizionalista eta EAJ ziren alderdi politiko indartsuenak, eta, ondorioz, Estatutuaren Defentsarako Euskal Hautagaitza (CVDE) atera zen garaile. Markinan Basterretxea (EAJ) eta Oreja (tradizionalista) hautagaiek lortu zituzten bozka gehien; bakoitzak 223 boto. Alabaina, hauteskundeek erakutsi zuten errepublikarrek eta sozialistek ere bazituztela jarraitzaileak. Madariaga errepublikarrak 72 boto lortu zituen eta Zugazagoitia sozialistak 66. EAE - ANV alderdiak bederatzi bozka lortu zituen.

I. Taula. **1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorrak Markinan**

Hautagaiak	Alderdiak	Botoak	Emaitza
Basterretxea	CVDE (EAJ)	223	ATERA ZEN
Oreja	CVDE (tradizionalista)	223	ATERA ZEN
Madariaga	errepublikarra	72	
Zugazagoitia	Sozialista	66	
Areitioaurtena	EAE – ANV	9	
Agirre	CVDE (EAJ)	2	ATERA ZEN
Urrengoetxea	A.N.V.	0	

Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia (http://www.euskomedia.org/aunamendi) eta Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak (http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm)

Xemeindar gehienak ere tradizionalistak edo abertzaleak ziren, eta Estatutuaren aldeko hautagaiek lortu zituzten boto gehien. Markinan bezala, Basterretxeak (EAJ) eta Orejak (tradizionalista) irabazi zuten Xemeinen, bakoitzak 167 boto lortuta. Hala eta guztiz ere, errepublikarrek, sozialistek eta EAE - ANV-koek ere jaso zituzten boto batzuk: Madariaga errepublikarrak 72 boto lortu zituen, eta Zugazagoitia sozialistak eta Areitioaurtena EAE-ANV-koak 36na bozka.

II. Taula. **1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorrak Xemeinen**

Hautagaiak	Alderdiak	Botoak	Emaitza
Basterretxea	CVDE (EAJ)	167	ATERA ZEN
Oreja	CVDE (eskuindarra)	167	ATERA ZEN
Madariaga	errepublikarra	72	
Zugazagoitia	Sozialista	36	
Areitioaurtena	EAE-ANV	36	
Urrengoetxea	EAE-ANV	0	
Agirre	CVDE	0	ATERA ZEN
Zuriak		1	

Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia (http://www.euskomedia.org/aunamendi) eta Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak (http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm)

1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorretako emaitzek argi erakutsi zuten, tradizionalistak eta abertzaleak zirela herriko alderdi politiko boteretsuenak, eta, gainera, nahiko parekatuta zeudela. Hauteskunde hauetan bozkatu zuten markinarren %75ak eta xemeindarren %72ak Estatutuaren Defentsarako Euskal Hautagaitzaren alde egin zuten. Ezkertiarren koalizioak (sozialistak eta errepublikazaleak) askoz boto gutxiago lortu zituen: markinarren %25a eta xemeindarren %28a agertu zen hauen alde.

Esan bezala, Estatuan, alderdi sozialistak eta errepublikarrek osatzen zuten koalizioak irabazi zituen 1931ko ekainaren 28ko hauteskundeak, eta, 1931ko abenduan, konstituzio berria onartu zen. Konstituzio honen xedea zen Espainia industrializatua, modernoa eta nazioartean integratua lortzea. Horretarako, hainbat aldaketa abiarazi zituzten: hauteskunde legearen aldaketa, jauntxoen eragina murrizteko; erakunde politikoen modernizazioa; nekazaritzaren erreforma; andrazkoen bozka eskubidea; Autonomia Estatutuen onarpena, nazionalista katalanei eskaerei erantzuteko; armada berritzea; eskola laikoen sistema sortzea; dibortzioa legeztatzea; hilerriak eta erietxeak sekulartzea eta Espainian ezarritako ordena erlijiosoak murrizteko erabakiak hartzea (berbarako, 1932. urtean, Josulagunen ordena desegin zen).

Gobernu espainiarrak proposatu zituen aldaketa hauek guztiek eragina izan zuten Estatu espainiarrean, eta, era batera edo bestera, baita Markinan eta Xemeinen ere. Alde batetik, berdintasunezko sufragio unibertsalak abertzaleak indartu zituen hauteskundeetan. Bestetik, Estatua osatzen zuten lurraldeen autonomia eskubideak indarra hartu zuen, eta horrek EAJ sendotu zuen. Konstituzio berriak nekazarien eta maizterren eskubideen kontzientzia hartzea ere ahalbidetu zuen, eta baserritarrak sindikatuetan antolatzen eta

nekazaritzaren erreforma bultzatzen hasi ziren. Denborarekin, Markinako eta Xemeingo nekazari batzuk Euzko Nekazarien Alkartasuna sindikatura afiliatu ziren.

Aldaketa politikoei lotuta, aldaketa erlijiosoak etorri ziren. Nahiz eta bi herriok oso katolikoak eta elizkoiak ziren, ezkertiarrek gero eta beldur gutxiagorekin agertzen zituzten kleroaren aurkako iritziak. Gainera, Konstituzio berriak bultzatzen zuen gurtza askatasunak hemen ere eragin zuen, eta Inazio Azkue Goiak, Markinako Udaleko errepublikarren eta PSOE-koen zinegotziak, zera eskatu zuen, 1932ko otsailean egin zen udal ordezkarien osoko bilkuran: udaletxeko horman zegoen Jesusen Bihotz Sakratuaren irudia kentzea, Udal Batzordeko kide gisa alkate eta zinegotziak elizkizunetara ez joatea, hilerria sekulartzea, eta Garizuman gramofono bat jartzea, nahi zutenek erromeria egin zezaten (Euzkadi, 1932-3-1).

Eskaera honek tradizionalisten eta abertzaleen haserrea eragin zuen, eta zer esan ugari sorrarazi zuen. Hala ere, ondo erakutsi zuen Errepublikak garai ideologiko berri bat ireki zuela: oso elizkoia zen gizartean, posible zen kleroaren eta elizaren aurkako adierazpenak egitea.

Inazio Azkueren eskabideak ez ziren bete, baina, gobernu errepublikarrak aginduta, bi herrietako eskoletako gurutzeak kendu egin ziren, 1932ko lehen hiletan, eta prozesioak debekatu (geroago, dena dela, prozesioak baimendu ziren).

Hala eta guztiz ere, markinarrak eta xemeindarrak euren sinesmenen erlijiosoekin jarraitu zuten (Bilbao, 1994-15: 15-20 eta Baraiazarra, 2005-36: 7-11)[22]. Laikoen erlijio elkarte ugariek ez zuten eten pastoraltza lana[23], aurretik bezala bokazio erlijiosoak ugariak ziren, herritarrak debozio handiz parte hartzen zuten elizak antolatutako errito eta ospakizunetan, eta agintariak zein alderdi politiko nagusienak (abertzaleak zein tradizionalistak) oso elizkoiak ziren (Garaian, 1994-15: 15-20 eta Baraiazarra, 2005-36: 7-11). Horrela, abadeek bultzatu zuten berariazko ekimen baten bidez, Artibaiko eskolan kendutako gurutzea elizan jarri zuten eliztarrek, 1932ko martxoan (Euzkadi, 1932-3-19).

Egia esan, parrokia eta komentuetan elizgizon eta moja ugari bizi ziren, eta izugarrizko autoritatea eta eragina zuten herritarren zein agintarien pentsamoldeetan eta, oro har, bizimoduan[24]. 1931ko udazkenean, 70-77 bat moja, abade eta fraide bizi ziren bi herriotan, zazpi erlijio gunetan banatuta (gaur egun, 10-12 daude):

---

[22] Bigarren Errepublikako urteetan, hainbat eraikuntza zibil eta erlijioso erre ziren Estatu espainiarrean, baina Hego Euskal Herrian katolikoak ziren nagusi, eta ez zen horrelakorik gertatu. Elizak eragin asko zuen Hego Euskal Herrian, eta, ondorioz, Espainiako erretserba katolikoa bihurtu zen errepublikako urteetan. Jose Luis de la Granja historialariak dioen bezala, «oasi katoliko» bat sortu zen gure lurrean (Granja, 1990: 20-25).

[23] Karmengo komentuan, adibidez, sei anaidi eta elkarte zeuden (Urkiza, 1992: 371-400): Karmengo Anaidia 1777an sortu zen, Karmengo Andre Mariarenganako debozioa erakusteko; «Semana Devota» elkartea, 1903an eratu zen, aurreko anaidiaren baitan, eta bere helburu berberak zituen; San Joseren Anaidia, 1889an sortu zen, eta hainbat meza, hirurren eta ospakizun erlijioso antolatzen zituen, San Joserenganako debozioa erakusteko; «Pan de San Antonio Elkartea», herriko txiroei laguntzeko eratu zen, 1904an; Pragako Ume Jesusen Anaidia, 1914an sortu zen, eta 100 umetik gora elkartzen zituen; eta 1926an eratutako Ume Jesusen Santa Teresaren Jaierazko Bazkuna. Xemeingo parrokiaren inguruan bi elkarte garrantzitsu zeuden: «Mariaren alabak» Elkartea, 1895ean sortua eta hainbat emakume gazte elkartzen zituena, eta Luis Gonzaga kongregazioa («Luistarrak»). Azken honek mutil gazteekin lan egiten zuen. 200 mutil gaztetik gora biltzen zituen Errepublika garaian.

[24] Agintarien laguntzarekin, kleroaren helburuetariko bat zen herrietako tradizioak eta kultura katolikoa babestea. 1931n, adibidez, Markinako agintariek isuna jarri zieten gazte batzuei, erromerian helduta dantzan aritzeagatik. «…en junio de 1931, en Markina (Bizkaia), las autoridades locales multaron a unas jóvenes que bailaban demasiado juntas, al estilo moderno (el valseo, o el agarrado). Las

Xemeingo parrokian parroko-artzapez bat eta bost abade laguntzaile zeuden, 1931ko azaroan:

1. **Jose Anizeto Urrutia Esteibarlanda (Apotzaga, 1880 – Leza, 1941):** Apotzagan (Gipuzkoa) jaio zen, eta 1906an egin zen abade. Xemein parrokiako parroko-artzapeza izan zen 1917tik 1936ra (Martínez, 2007: 59).
2. **Valentin Zulueta (Markina, 1865 – Markina, 1944)**: Markinan jaio eta hil zen, eta bere abade bizitzan ez zen inoiz Markinatik eta Xemeindik atera. Abade egin zen 1889an, eta urte horretan bertan, Larruskaingo parroko egin zuten. 1917an, Xemeingo parrokiako abade laguntzaile kargua hartu zuen, eta bertan aritu zen lanean, zendu zen arte.
3. **Markos Espilla (Markina, 1876 – Markina, 1966)**: abade egin zen 1900. urtean, eta Xemeingo parrokiako abade laguntzailea izan zen, 1912tik 1937ra arte. Frankistek atxilotu egin zuten 1937ko maiatzaren hasieran, eta, kartzelan denboraldi bat egin ostean, desterratu egin zuten. 1947an, Markinara bueltatu zen, eta Xemeingo parrokiako abade laguntzaile izan zen, zendu zen arte.
4. **Domingo «Txomin» Onaindia Zuloaga (Markina, 1901 – Angelu, 1985)**: Markinan jaio zen, eta 1923an egin zen abade. Arteagako Seminario Txikiko irakaslea izan zen, 1923tik 1929ra, eta Xemeingo parrokiako abade laguntzaile, 1929tik 1937ra. Domingo Onaindia Alberto Onaindiaren eta frankistek Hernanin fusilatu zuten Zelestino Onaindiaren anaia zen.
5. **Jose Antonio Oar-Arteta Undabeitia (Ajangiz, 1900 - Urberuaga, Markina-Xemein, 1978)**: Ajangizen jaio zen, eta 1923an egin zen abade. Abade laguntzaile izan zen Xemeingo parrokian 1931tik 1936ra. Ospe handiko sermoigile izan zen, eta hamaika artikulu eta liburu idatzi zituen euskaraz (Onaindia, 1977). Auto istripuz hil zen Urberuagan, 1978an.
6. **Alberto García Maguregi (Etxebarria, 1878 - Markina, 1948)**: Etxebarritarra zen jaiotzez, baina Markinan hazi zen. 1903an abadetu zen, eta 1912. urtera arte, Erandion egon zen abade laguntzaile lanetan. Bertako Konpasioko mojen kapilau ere izan zen (mojak hauek 1907an etorri ziren Erandiora). 1912tik 1937ra, Xemeingo parrokiako abade laguntzaile eta moja karmeldar oinutsen kapilau izan zen. «Rompe Bóvedas» deitzen zioten, elizan abesten edo sermoiak botatzen ahots oso indartsua zuelako.

Larruskain edo Amalloko Parrokian (Elizako katalogoetan Larruskain «Amalloa» izenarekin agertzen da) abade bat zegoen Errepublika garaian, eta 249 eliztar bizi ziren. Parrokia hau Berriatuko parrokiaren menpe zegoen, nahiz eta lurrez Xemein izan; eta gaur egun ere horrela da. Hona hemen Bigarren Errepublikako urteetan Larruskaingo abade izan zirenen zerrenda:

1. **Manuel Solozabal Egurrola**: Larruskaingo parrokoa izan zen, 1927tik 1931ra.
2. **Luis Garai Idaurrazaga**: Getxon jaio zen 1907an, eta abade egin zen 1931n. Urte horretan etorri zen Larruskainera, eta bertan egon zen abade lanetan, 1933ra arte.
3. **Julian Etxebarrieta Lejarzegi**: Mendatakoa zen, eta abade egin zen 1933an. Larruskaingo parroko izan zen 1933tik 1935eko ekainera arte.

---

notificaciones se refirieron a ellas tachándolas de 'delincuentes' por violar las promesas colectivas de una comunidad» (Christian, 1997: 53).



Argazkia: Garaian aldizkaria.
Jose Sagarna abadea (Zeanuri, 1911 - Markina, 1936), Larruskaindarrekin, Errepublika garaian. Frankistek fusilatu zuten 1936ko urriaren hogeian, Amulategi baserriaren inguruan.

4. **Jose Sagarna Uriarte (Zeanuri, 1911 - Markina, 1936)**: Julian Etxebarrietaren tokia hartu zuen Larruskaingo parrokian. 1935eko ekainaren 28an, Jose Sagarna abade gazteak lehen aldiz eman zuen meza Zeanurin, eta egun berean hartu zuen Larruskaingo parrokiako ardura. Jose Sagarnak 22 urte zituen Larruskainera heldu zenean. 1936ko ekainean, Larruskain utzi eta Berriatura aldatzeko agindua hartu zuen Gasteizko Gotzaindegitik (Euzko Apaiz Taldea, V. tomoa, 1981: 279 eta Gorosabel, 2006: 114). Dena dela, 1936ko urrian, berriro hartu behar izan zuen Larruskaingo parrokiaren ardura. Handik egun gutxira, 1936ko urriaren 19an, militar matxinatuek atxilotu egin zuten, eta biharamunean, urriaren hogeiko goizean, fusilatu zuten, Amulategi baserriaren inguruan.
5. **Joseba Andoni Urresti**: Jose Sagarnaren tokia hartu zuen Larruskaingo parrokian, 1936ko ekainean. Frontea 1936ko urriaren 4an heldu zen Larruskain inguruko mendietara, eta, beldurtuta, Frantziara ihes egin zuen.

Barinagako parrokian bi abade zeuden Errepublika etorri zenean:

1. **Joan Barquin Trueba (Markina, 1891 – Leioa, 1986):** Markinan jaio zen, eta 1915ean abadetu zen. 1916tik 1938ra, Barinagako ekonomoa izan zen, eta 1938tik 1941era Xemeingo parrokiako abade laguntzailea. 1941ean Leioako arimazain egin zuten (Kalzakorta, 2006: IX). Ideologia tradizionalista zuen.
2. **Jose Mari Ugartetxea Ugarteburu (1889an jaioa, Markinan)**: hargina izan zen gaztetan, eta 1917an, 28 urte zituela, abade txiki egin zen, hau da, karrera

laburreko abade. Garai hartarako nahiko berandu zen hori. Lehenengo Gerea auzoan (Mallabia) egon zen, eta gero, ez dakit noiz, Barinagara etorri zen (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, II, 1991: 188). II. Errepublika garaian, Joan Barquin Truebaren abade laguntzailea izan zen Barinagako parrokian. Francoren tropak sartu aurretxoan, 1937ko apirilean, Mexikora hanka egin zuen.

Karmengo komentuan, hamabi fraide karmeldar, hamabost erlijioso ikasle profesio egin berri, beste bi fraidegai, hiru anaia eta morroi bat zeuden. Alegia, 1931n, 33 bat pertsona bizi ziren komentuan (Urkiza, 1992: 287). Hauetariko asko abertzaleak edo euskaltzaleak ziren, eta, gerraondoan, errepresio frankista pairatu behar izan zuten. Hona hemen hamabi fraide karmeldarren zerrenda:

1. **Hiazinto Artalarrea Gorrotxategi – Hiazinto Karmengo Birjina Santuarena (Berriz, 1863 – Gasteiz, 1944)**: fraide karmeldarra 1881. urtetik. Berrizkoa zen jaiotzez, baina Errepublika garaian eta gerra hasi zenean, Markinako karmeldarren komentuan bizi zen. Euskaltzalea zen, eta euskarazko predikuan nabarmendu zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 259).
2. **Felipe Etxebarria Alakano – Aita Pio Santa Teresarena (Gorozika, 1898 – Lima, 1945):** 1932tik 1936ra, Karmengo Argia aldizkariaren zuzendaria izan zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 436). Markinako karmeldarren prioreordea eta profesio egin berrien irakaslea zen, gerra hasi zenean.
3. **Higinio Gorrotxategi Alberdi – Aita Higinio San Joserena (Berriz, 1866 – Markina, 1939):** 1888an sagaratu zuten apaiz. Bere erlijio bizitza gehiena Markinan burutu zuen, euskaraz predikatuz (Urkiza, 1991: 516).
4. **Pio Ibaibarriaga Oregi – Aita Apolinar San Joserena (Garai, 1882 – Begoña, Bilbo 1946):** euskaltzalea zen, eta euskarazko predikuan nabarmendu zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 82).
5. **Leandro Jauregi Altuna – Aita Zezilio Karmengo Ama Birjinarena (Aramaio, 1872 – Markina, 1951)**: euskaltzalea eta abertzalea zen. 1914ko maiatzaren 24an sortutako Pragako Jesus Haurraren Anaidiaren sortzailea eta eragile nagusia izan zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 127).
6. **Jose Domingo Kortabitarte – Aita Polikarpo Santa Barbararena (Amoroto, 1857 – Bilbo, 1937):** armada karlistan zerbitzuak eskaini ostean, Larreako nobizio etxean sartu zen, eta 1888an egin zen apaiz. 1930. urtean etorri zen karmeldarren komentura. Gerratean, bere jaiotetxera joan zen bizitzera, Amorotora, baina 1937an, gaixotu, eta Bilboko ospitalean zendu zen (Urkiza, 1991: 516).
7. **Urbano Manzisidor Atutxa – Aita Urbano Jesusena (Lemoa, 1894 – Viña del Mar, Txile, 1974):** karmeldarren komentuko fraidegaien irakasle izan zen 1921etik 1928ra, eta baita 1934tik 1936ra (Unzueta eta Izpura, 2001: 501). Euskaltzalea zen, eta, gerra piztu zenean, historia euskaraz irakasten zuen komentuan.
8. **Eujenio Legarra Maguregi – Aita Bautista San Joserena (Aulesti, 1902 – Palmira, Kolonbia, 1986)**: gerra aurrean, musika irakaslea zen Markinako karmeldarren komentuan (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 386 eta Unzueta eta Izpura, 2001: 98).
9. **Pedro Ormaetxea Aldana – Aita Leoncio (Lontzi) San Joan Gurutzekoarena (Etxano, 1891 – Viña del Mar, Txile, 1949):** 1931tik 1937ra, Larreako eta Markinako karmeldarren komentuetan bizi izan zen. 1936an, euskara irakaslea zen Markinako karmeldarren komentuan. Unzueta eta Izpurak dioten bezala (2001: 350): «Predikari, idazle eta olerkari euskalduna».

10. **Jose Mateo Ugartetxea Urkieta – Aita Jose Mateo Jesus Bihotz Sakratuarena (Markina, 1881 – Donostia, 1970):** Domingo Ugartetxea abadearen eta Frantzisko (Jose Domingo) Ugartetxea fraide karmeldarraren anaia. Markinako Zehar kalean jaioa, lehenbizi abade egin zen. 1907an fraide karmeldar egin, eta II. Errepublika garaian Markinako komentuan bizi zen. 1930etik 1933ra komentuko priorea izan zen (Urkiza, 1991: 295-296 eta Unzueta eta Izpura, 2001: 307).
11. **Martin Uriarte Odriozola – Aita Martin Mariaren Bihotz Garbiarena (Zeanuri, 1879 – Larrea, 1960):** Karmengo komentuko priorea izan zen 1924tik 1927ra, eta gero berriro egin zuten priore 1936an. Larreako eta Begoñako priorea ere izan zen gerra aurreko eta osteko urteetan. 1937an, kartzelan sartu zuten, eta uko egin behar izan zion Markinako priore karguari. Aita Martin euskaltzalea eta joera nazionalistakoa zen, eta Karmengo Argia aldizkariaren lehen zuzendaria (Unzueta eta Izpura, 2001: 389).
12. **Jose Uriguen Perea – Jose Inazio Jesusena (Etxano, 1903 – Larrea, 1985)**: gerra hasi zenean, Markinan zegoen (Urkiza, 1992: 287).

San Jose komentuan, Beheko mojetan, 16-21 lekaime bizi ziren Errepublika etorri zenean. Moja karmeldar oinutsak 1890. urtean etorri ziren Markinara, eta 2003.era arte egon ziren gure artean bizitzen. Klausurakoak ziren, eta, beraz, ia ez ziren kalera ateratzen. Markina-Xemeinen egin zituzten 114 urteetan, guztira, 60 bat moja karmeldar bizi izan ziren gure herrian. 90. hamarkadaren hasieran, 16 bizi ziren komentuan, eta Komentua zarratu zen aurreko urtean, 2003an, 14 (Garaian, 2003-33: 37-40 eta Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1989, II. tomoa: 147). Komunitate erlijioso honen araudiaren arabera, gehienez 21 moja bizi zitezkeen komentu honetan, beraz, nire ustez, Errepublika etorri zenean, 16-21 moja inguru biziko ziren bertan.

Mesedetako Komentuan, 17 bat moja bizi ziren Errepublika etorri zenean. Hasieran, klausuran, baina bigarren Errepublika etorri aurreko urteetan, ordenak sakoneko aldaketak izan zituen. 1924an, Margarita Maria López de Maturanak institutu aktibo eta misiolari bihurtzeko asmoa agertu zion Ordenako Jeneralari. Pio XI. Aita Santuaren oniritzia jaso zuen, eta lehenengo misiolariak Wuhu-ra (Txina) irten ziren, 1926ko irailaren 19an. Berrizko komunitateari 1930eko abenduaren 13an eman zitzaion Institutu misiolari berriaren Konstituzioa. Harrezkero, klausura utzi, eta Berrizko Mesedetako Erlijio Zale Misiolariak izena hartu zuten (Baraiazarra, Garaian 1993-12: 34). Errepublika garaian, Anjeles Urkidi zen komentuko Komendadora.

San Roke Egoitzan, Pauleko San Bizenteren Karitateko Alaben ordenako hiru bat moja zeuden, eta bertan bizi ziren zaharren eta gaixoen ardura zuten. Moja hauek eskola bat ere bazuten II. Errepublika garaian. Gerraostean, eskolarekin segitu zuten, eta jaten ere ematen zieten arazo ekonomikoak zituzten etxeetako umeei. 1968an, alde egin zuten Markinatik, egoitzan lan egiteko, ordenak mojarik ez zuelako.

Ikusi bezala, Errepublika etorri zenean, markinarrak eta xemeindarrak oso elizkoiak ziren, baina kleroaren baitan aldaketa ideologiko garrantzitsuak gertatzen ari ziren.

XX. mendeko lehen bi hamarkadetan, herriko abade, fraide eta moja ia denak oso hurbil zeuden alderdi tradizionalista, integrista edota karlistengandik, hauek erlijioaren eta tradizioaren defentsa sutsua egiten zutelako. Ondorioz, hautagai karlista, integrista, tradizionalista edo eskuindarren aldeko bozka ematen zuten hauteskundeetan, eta herritarrenganako autoritatea erabiltzen zuten, jendea hauen alde bozkatzera eramateko.

Mendea aurrera zihoan heinean, bereziki 1918tik aurrera, gero eta elizgizon gehiago Sabino Aranaren mezu nazionalista bereganatzen hasi ziren, eta ikuspuntu kultural eta linguistikotik ere, euskal pizkundearen sua elizaren ikastetxeetara, seminarioetara eta komentuetara heltzen hasi zen (Atxaga, 1998: 53-55). Honenbestez, II. Errepublika etorri zenean, Markina eta Xemeingo elizgizon gehienak abertzale edota euskaltzaleak ziren. Nahiz eta Valentin Zulueta (Xemeingo abade laguntzailea) edo Joan Barquin (Barinagako parrokoa) abadeek ideologia tradizionalista zuten, Alberto García, Markos Espilla, Txomin Onaindia eta Jose Antonio Oar-Arteta Xemeingo parrokiako abade laguntzaileak abertzaleak ziren, harreman estua zuten EAJ-ko militanteekin eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarrera sutsua erakusten zuten publikoki[25]. Txomin Onaindiak eta Jose Antonio Oar-Artetak, adibidez, euskarazko klaseak emateaz gain, euskarazko antzerkiak ere idazten eta itzultzen zituzten, gero Markinako Batzokian antzezteko. Harreman estua zuten Batzokiko Emakume Abertzale Batzakoekin eta Euskaltzale bazkunakoekin. Fusilatu zuten Jose Sagarna Larruskaingo abade laguntzailea zein Barinagako Jose Maria Ugartetxea ere joera abertzalekoak ziren.

Abadeak ez ezik, Karmengo komentuko fraideetariko asko ere euskaltzaleak eta abertzaleak ziren. Prioreak, Martin Uriarte Odriozolak - Aita Martinek, euskaraz idazten zuen, eta abertzalea zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 389). Hiazinto Artalarrea Gorrotxategi– Aita Hiazinto eta Pio Ibaibarriaga Oregi – Aita Apolinar oso famatuak ziren, sermoiak euskaraz egiten zituztelako; Felipe Etxebarria Alakano - Aita Pio euskara hutsez argitaratzen zen Karmengo Argia aldizkariaren zuzendaria izan zen 1932tik 1936ra; Urbano Manzisidor Atutxa - Aita Urbano eta Pedro Ormaetxea Aldana - Aita Leontzio (Lontzi) euskaltzaleak ziren, eta euskaraz irakasten zuten komentuan. Leandro Jauregi Altuna - Aita Zezilio, Eujenio Legarra Maguregi - Aita Bautista eta Jose Mateo Ugartetxea Urkieta - Aita Jose Mateo euskaltzaleak eta abertzaleak ziren.

Errepublika etorri zenean, beraz, giro abertzalea eta euskaltzalea nagusi zen pulpituetan. Horregatik, Jose Antonio Oar-Artetak gustura hartu zuen Xemeingo parrokiako abade laguntzaile postua. Bere loba Segundo Oar-Artetak dioen bezala: «1931-ko urriaren 31n, berak ondo estimauko eban izendapena hartu eban, eta Aulestitik hurrago: koadjutoretza bat Markinan. Hemen, bere gogo-eretxikoak ziran lagunak aurkitu zituan bertako abade-taldean, ume eta gazteen katekesi lanean errez bat egitekoak; euskerea be landuko eban, herriko gazteei be ikasteko zaletasuna emonez. Markina uri euskalduneuskalduna zan, euskera eder, zehatz eta aberats baten jabea. Hartuemon hestuak eio ebazan Onaindia familiagaz, eta ahaztuezineko adiskidetasuna bizi guztian gorde; Patxi Etxebarria 'Txanbolin' eta honen emazteagaz bizi izan zan, mahai berean jan eta etxe berean bizi; urraturik bako adiskidetasun barru-barrukoa izan eban bizi guztian eurokaz. Castor Uriarte arkitektuaren eta honen andrearen lagun handia be izan zan, nahiz eta Lemoizko Abadetxea («Abadena») eregi behar izan zanean konponduezinen batzuk euren artean sortu. Markinan idatzi eban, herriko esakera eta berba asko sartuaz, bere obra ezagunenetariko bat, 'Miren'en Senargeya', eta herriko giroan kokaturiko elebarria» (Oar-Arteta, 1991: 15-16).

Ikuspuntu politikotik ez ezik, ikuspuntu sozialetik ere aldaketa ideologiko garrantzitsuak gertatzen ari ziren abade eta fraideen artean. Hauetariko askok Leon XIII.aren *Rerum novarum* (1891) eta Pio XI.aren *Quadragesimo Anno* (1931) entzikliketako filo-

[25] Xemeingo parroko-artzapeza, Anizeto Urrutia, ere euskaltzalea zela pentsatzen dut. Izan ere, Francoren tropak herrian sartu aurretxoan, ihes egin zuen Frantziara, eta atzerrian egon zen denboran harreman estua izan zuen errefuxiatutako abade abertzaleekin.

sofiak barneratu zituzten, eta gai sozialez arduratzen hasi ziren. Alberto Onaindia Zuluaga abade markinarrak, adibidez, artikulu pila idatzi zituen langileen arazoei buruz, eta hainbat hitzaldi, mitin, gogo jardun eta bileretan, elizak gai sozialen inguruan zuen erantzukizunari buruz hitz egin zuen. Ondorioz, eskuindarrek Mujika gotzaina presionatu zuten, ekintza hauek errotik mozteko. Gotzainak Gasteizko eliz aldizkarian zirkular bat idatzi zuen, apaizei eztabaidak debekatzen eta prentsako lanak galarazten (Onaindia, 1975:5-27 eta Martin Ugalde, Argia, 1988-VII-3).



Argazkia: Garaian Aldizkaria
Zelestino, Txomin eta Alberto Onaindia abadeak. Celestino (Markina, 1898- Hernani,1936) 1936ko urriaren hogeita zortzian fusilatu zuten. Txominek eta Albertok ihes egin zuten Markinatik 1937ko apirilean, Francoren soldaduak Markinan sartu aurretxoan, eta Iparraldeak errefuxiatu ziren.

Herriko tradizionalistek ere oso gaizki ikusten zuten abade eta fraideek euren euskaltzaletasuna, ideologia abertzalea eta langileen eta pobreenganako ikuspuntu soziala modu agerian erakustea. Ondorioz, areriotzat zeuzkaten. Segundo Oar-Artetak bere osaba Jose Antoniok Xemeingo parrokian izan zuen egonaldiari buruz dioen bezala: «Dotrinea eta Katezismoa euskeraz azaltzen eban, herriko gazteei euskalzale eta herrizale izaten irakatsi, gure herriaren askatasun eta independentziaren aldeko eretxiak zabaldu; berba baten esateko, abertzaletasuna. Horrek guztiorrek hainbat oker-ulertu eta kontrako jarrera sorrerazo ebazan bere kontra, herriko jauntxoen artean batez be. Giro honek eragin izan eban parrokiako eleiztarren artean be, jakina, eta horrek uriko eleizgizonei oste txarra ekarri izan eutsen anaiarteko gudua sortu zanean» (Oar-Arteta, 1991: 15-16). Errepublika garaian, abade eta fraide euskaltzale eta abertzaleen aurka tradizionalisten artean garatu zen amorrua izan zen, nagusiki, gerraondoan hauen aurka burutu zen jazarraldiaren oinarri garrantzitsuenetarikoa.

Ikuspuntu politiko, sozial eta erlijiosotik ez ezik, hezkuntzaren ikuspuntutik ere aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren Biurteko Progresistan: lehen aldiz gure herriaren historian, euskarazko irakaskuntza formala eskaintzen hasi ziren, Bizkaiko Aldundiaren menpeko auzo eskoletan.

Errepublika aurretik, hezkuntza eredua 1857ko Moyano Legean oinarritzen zen, eta eskolaren helburuetariko bat zen Estatu espainiarra ikuspuntu kultural eta linguistikotik homogeneo bihurtzea eta, gure kasuan, Euskal Herria espainiartzea. Klaseak erdaraz izaten ziren, nahiz eta ume guztiak euskaldunak izan[26].

Markina eta Xemein bi udal desberdin ziren, eta, beraz, bakoitzak bere eskola zuen. Xemeingo eskola Arretxinagan zegoen eta Markinakoa Artibai kalean. Eskola biak publikoak ziren eta udalaren eta gobernuaren babesa zuten[27].

Auzoetan, bestalde, Bizkaiko Aldundiak babestutako eskolak zeuden[28]. Hain zuzen ere, 1921etik 1936ra, 125 auzo eskola eraiki ziren Bizkaian Aldundiaren babespean. Markinan eta Xemeinen era honetako lau auzo eskola eraiki ziren:

1. Larruskaingoa (Xemein)
2. Azpiltzakoa (Xemein)
3. Goierrikoa (Santutxu, Xemein)
4. Iturretakoa (Markina)

Nahiz eta jauntxoek eta tradizionalistek atzerapena zela zioten, Aldundiari esker, auzoetako umeek euskaraz ikasi ahal izan zuten urte batzuetan. Besteak beste, badakigu Azpiltzako auzo eskolara maistra ondarrutar bat bidali zutela, eta baserriz baserri aritu zela proiektu berria azaltzen eta umeak bertara eramateko eskatzen[29].

1.3. **1932ko ekaina: tradizionalisten eta abertzaleen harremanen gaiztotzea**

Biurteko Progresistan martxan jarri ziren aldaketak ez ziren tradizionalisten gustukoak. Horrez gainera, hauek sumatzen zuten abertzaleak gero eta indartsuagoak zirela, eta horrek ere lehia politikoa hauspotzen zuen, eta herriko giroa nahasten. Hala ere, Errepublikako lehen urtean, EAJ-koek eta tradizionalistek harreman nahiko onak zituzten, eta bat egin zuten Lizarrako Estatutuaren inguruan. Honenbestez, Hego Euskal Herriko alkate gehienak, Lizarran proposatu zuten Estatutu egitasmoa onesteko, Iruñeako Gaiarre Antzokian elkartu ziren berriro, 1932ko ekainaren 19an. Oraingoan, integristen eraginez, Nafarroako 123 udalek Hego Euskal Herriarentzako Estatutuaren

---

[26] Errepublika denboran, Markinan eta Xemeinen irakasle lanetan ari zirenen artean daude Jose Maria Beotegi (Markinako maisua), Jesus Egia (Markinako maisua), Paulo Rodriguez Ayala (Xemeingo maisua), Victoria Preciados (Markinako maistra), Anparo Goiogana (auzoetan maistra) eta Maria Azpiri Jemein (auzoetan maistra).

[27] Bi eskoletan mutilak gela batean egoten ziren eta neskak beste batean, eta talde bakoitzak bere irakaslea zuen. Adin desberdinetako ikasleak elkartzen ziren gela berean. Dena dela, 11-12 urte zituela gehienek eskola utzi egiten zuten. Herriko edo auzoko eskoletara nekazarien eta dendarien seme-alabak joaten ziren. Jauntxoen seme-alabek kanpoko eskola pribatuetan ikasten zuten (Loiolan, Durangon, Madrilen…), eta, herritarrak ez bezala, mutil gehienak (neskak beste era bateko hezkuntza hartzen zuten) unibertsitatera joaten ziren.

[28] 1917an, Ramon Sota Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakari izendatu zuten. Orduan, auzo eskolak sortzeko plana abiarazi zuen, baserri inguruko biztanleak alfabetatzeko helburuarekin. Izan ere, baserrietar gehienak alfabetatugabeak ziren. Auzo eskola horiek eraikitzeko lanetan, udalek ere parte hartu zuten, eta, kasu askotan, auzokideak aritu ziren eraikuntza lanetan.

[29] Etxebarrian ere, Frantzisko «Pako» Barroetabeña Petralanda maisu azpeitiarrak euskaraz ematen zituen klaseak (Arrieta, Etxabe eta Etxabe, 1988: 20). Errepublika garaian etorri zen Etxebarrira lan egitera. Gerratean, Etxebarriako udal idazkaria izan zen, baita Errepublikaren Defentsarako Batzordeko kidea ere.

aurka bozkatu zuten, eta 109 udalek alde. Horrekin, nafarrek Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarekin bat egiteko asmoa baztertu zuten, eta 1841ean hitzartutako legean aurreikusitako erakundeekin jarraitzea onartu. Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak ez zuten Autonomia Estatuturik lortu 1936ra arte, 1933an, eskuinak irabazi ostean, Estatutuaren auziak geldialdia izan zuelako.

Tradizionalistek eta «Bizkaitarrek» (EAJ) iturri politiko bera zuten, foruzaletasuna, eta bizimodu eta sinesmen erlijioso berdinak (Goñi, 1989: 53). Dena dela, Gaiarre Antzokiko bileratik aurrera, elkarrengandik urruntzen hasi ziren, eta, 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorren ostean eratutako EAJ-ko eta Komunio Tradizionalistako diputatuen taldea apurtu egin zen. Gainera, EAJ-k gizarte gaiekiko gero eta kezka handiagoa erakusten zuen, eta demokrazia sozial kristaura gerturatzen ari zen (Granja, 1990: 25). Kontuan hartzekoa da Jeltzaleek eragin garrantzitsua izan zutela Euzko Langileen Alkartasuna (ELA-STV) eta Euzko Nekazarien Bazkuna sortzen (Bizkaian, Euzko Nekazarien Alkartasuna izena hartu zuena), eta, horrekin, nekazari eta langile industrial euskaldunei euren egoeraz jabetzen lagundu ziela. Honen guztiaren ondorioz, tradizionalisten eta abertzaleen arteko mesfidantzak eta ikusi ezinak handitzen joan ziren. Jose Luis de la Granjak dioen bezala: «La alianza entre el PNV y la Comunión Tradicionalista se rompió en el verano de 1932 al fracasar el Estatuto de las Gestoras en Navarra por la oposición carlista. En adelante, estos dos partidos confesionales evolucionaron en sentido opuesto: la CT, hacia el antiautonomismo, el autoritarismo y el golpe militar contra la República; el PNV, hacia el autonomismo, la democracia socialcristiana y la integración en el régimen republicano» (Granja, 1990: 25).

Abertzaleekin harremanak hautsi ostean, karlisten inguruko alderdiek indarrak biltzeari ekin zioten, euren bizimodua, ideologia eta boterea hobeto babesteko. Integristak (Partido Católico Nacional), jaimezaleak (Partido Carlista) eta tradizionalistak (Partido Católico Tradicionalista) Alfontso Karlos Borbon erregegaiaren inguruan elkartu ziren, eta karlisten mundura batasuna ekarri zuen alderdi politiko berri bat sortu zen, 1932ko urtarrilaren 16an: Alderdi Tradizionalista Karlista, Komunio Tradizionalista ere deitua. Alderdi politiko honetan elkartuta, tradizionalisten asmoa zen monarkia berrezartzea, Errepublikak bultzatutako aldaketak gelditzea, eta hauteskundeetan ezkertiarrei eta abertzaleei aurre egitea.

Herriko jauntxoek berehala babestu zuten alderdi politiko berria, eta, hauen eraginez, baita hamaika herritarrek ere. Kontuan izan behar da jauntxoak baserri eta ondasun askoren jabe zirela, eta horrek euren maizterrengan zein eurentzako lan egiten zutenengan eragiteko gaitasun handia ematen ziela. Aipagarria da Jose Luis Gaitan de Aiala Komunio Tradizionalistako hautagaia izan zela 1933ko Markinako udal hauteskundeetan zein 1936ko otsaileko hauteskunde orokorretan, eta, bi lehiatan, bere botere, autoritate eta presio gaitasun guztiak erabili zituela, bere maizterren eta, oro har, herritarren botoa erakartzeko (Granja, 1986: 560). Hainbat dendari eta baserritar aberats ere tradizionalistak ziren, eta horiek ere eragin handia zuten herritarrengan.

Honenbestez, Komunio Tradizionalista erraz hedatu zen Markinan eta Xemeinen, eta, Bigarren Errepublikan zehar burutu ziren udal hauteskundeetan, 300-400 boto eskuratzen zituen; hautesleen erdia inguru.

Berrezarkuntza garaian, tradizionalistak politika egiteko modu berrietara egokitzen joan ziren (mitinak, ekitaldi kulturalak, emakumeen antolaketa, elkarteen irekierak…), eta, beraz, Komunio Tradizionalista alderdi modernoen santsuak zituen (Delgado, 2008: 305-323). Hala eta guztiz ere, tradizionalisten jarduera politikoan pisu asko zuten harreman pertsonalek, ahoz ahoko propagandek eta, oro har, jauntxokeriek: opariak, bozka

egunetako eskupekoak, afariak, maizterrenganako eta euren menpeko langileenganako presioa… Markinako askok gogoratzen dituzte Gaitandarrek hauteskundeetan eskaintzen zituzten afariak edo ematen zituzten eskupekoak, botoa erakartzeko helburuarekin. Hamar pezeta eta afariaren truke, hauteskunde agenteak kontratatzen zituzten herritarren artean, hauteskunde bezperetan, etxerik etxe, boto eske ibiltzeko[30].

Tradizionalisten munduan ez ezik, abertzaleen artean ere sakoneko aldaketak gertatu ziren, Errepublikako lehen urteetan. EAJ alderdi moderno eta ondo antolatua bihurtzen ari zen.

Alde batetik, ildo politikoak zehazten zituen Uri Buru Batzarra zegoen; alegia, EAJko zuzendaritza batzordea. Errepublika garaian, Markinako Uri Buru Batzarreko lehendakaria Hilario Aretxabaleta izan zen.

Bestetik, Batzokiko zuzendaritza zegoen. Askotan batzokiko zuzendaritza eta Uri Buru Batzarrekoa nahastu egiten dira, baina erakunde desberdinak ziren. Batzokiko lehendakariak, Errepublika garaian, Bernardo Aretxabaleta eta Luis Foruria izan ziren[31].

Uri Buru Batzarra eta Batzokiko buruzagitzaz gain, Emakume Abertzale Batzak ere bere zuzendaritza zuen[32]. EAB-ri erabat lotuta, Euskaltzale bazkuna elkarteko[33] talde bat ere biltzen zen Batzokian. Bazkun honetako kideek euskara klaseak ematen zituzten (Purita Foruria eta Elixabete Aginaga), euskal abestiak erakusten zizkieten umeei (Luke Longa, Angela Arrate eta Pakita Ugarte) edota antzerkiak prestatzen, Batzokian antzezteko. Talde honetako Elixabete Aginaga, «Ete-k», Markinako kronikak ere idazten zituen Euzkadi egunkariko «Errijetatik» atalean (Uruburu, 1997: 15).

Beste hainbat batzokitan bezala, antzerkiaren inguruan dinamika indartsua garatu zen Markinako Batzokian, eta propagandarako eta jendea abertzaletasunera erakartzeko tresna baliagarria bihurtu zen (Delgado, 2008: 310-311 eta Urkizu, 1996: 75)[34]. Elixabete Aginaga «Ete» zuzendari zutela, EAJ-ko kideek antzerki ugari eskaintzen zituzten

---

[30] Herritar askok kontatzen dute 1936ko hauteskunde bezperan gertatu zena: Jose Luis Gaitan de Aiala afari bat ematen ari zen bere jarraitzaile eta boto biltzaileentzako Azpiltzako tabernan (Xemeingo Amallo auzoan), eta, norbaitek Hilarion Amutxastegiren taxiaren gurpilak zulatu zituen. Ondorengo egunetan, gazte abertzale batzuk salatu zituzten, eta abertzaleen eta tradizionalisten artean iskanbila izugarria egon zen. Gerraostean, gertaera hau jendea kartzelaratzeko edota frankisten alde bortxazko lanetan jartzeko aitzakia izan zen.

[31] Batzoki berriaren irekiera bultzatu eta Batzokiko eta Uri Buru Batzarreko zuzendaritzetan aritu zirenen artean ere bazeuden Anjel Pertika, Joan Zelaia, Tomas Duralde, Jerardo Ibarluzea, Bernardo Aretxabaleta, Anastasio Barrenetxea, Txomin Aretxabaleta, Pedro Onaindia, Akilino Egiraun, Joan Onaindia «Uhagon», Elixabete Aginaga «Ete», Purita Foruria…

[32] Lehendakaria Natividad Zabala (1875 - 1969) zen, eta lehendakariorde Miren Lourdes Mokoroa. Idazkari eta idazkari ordekoak Jone Onaindia eta Rosario Onaindia ziren. Diruzaina Elixabete Aginaga Garate «Ete» zen. Taldeko ordezkariak ziren: Rosario Garate, Purita Foruria eta Matali Ugartetxea. EAB-ko kideak ziren, besteak beste: Angela Azpiri, Maria Luisa Jaio, Bibiana Aginaga, Miren Kasilde Aginaga, Itziar Gandiaga, Jone Barrutia, Pele Goiogana, Miren Barinaga, Pakita Ugarte, Amalia Gomez, Jeronima Arrate, Klara Arregi, Klementina eta Klara Korta ahizpak…

[33] Euskeltzale Bazkuna 1928an sortu zen, baina ez dakit noiz hasi zen lanean Markinako taldea. Nire ustez, Errepublikako lehen urteetan izango zen.

[34] Patri Urkizuk dioen bezala (Urkizu, 1996: 75): «…bajo el mecenazgo de Manu Sota (considerado por la revista *Antzerti*, como el Cocteau vasco) y con la valiosa ayuda de Esteban Urkiaga «Lauxeta», crearon un movimiento que se extendió por casi todos los pueblos vizcainos… Movimiento vasquista, nacionalista, cultural y teatral, que surgiendo casi de la nada tras la tercera guerra carlista va a tener en los años treinta su mayor esplendor, pero que como otros movimientos culturales semejantes del estado, fue sesgado por la guerra civil.

Andonegi jauregiko lehen solairuan (Juaristi, 1996: 9). Askotan, Jose Antonio Oar-Arteta eta Txomin Onaindia abadeek idazten eta moldatzen zituzten antzerkiok[35].

Mendigoizale talde bat ere bazegoen Batzokian. Diktadura aurretik bezala, mendi irteerak eta txangoak egiten zituzten igandeetan eta jai egunetan. Oso ohikoa zen batzokiak zabaltzen zituzten tokietara edo EAJ-ko ekitaldi politikoak zeuden herrietara txangoak antolatzea.

Azkenekoz, aipatzekoa da ezpata dantzari eta gorulari talde bat ere bazegoela Batzokian, eta EAJ-k antolatzen zituen ekitaldietan parte hartzen zutela.

Mendi irteeren eta ekitaldi politiko, kultural eta sozialen bidez, EAJ-koek gero eta jende gehiago erakartzen zuten abertzaletasunera. Gainera, herriko abade batzuek euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna aldarrikatzen zuten, eta, ondorioz, Estatutuaren alde gero eta jende gehiago agertzen zen. EAJ hartzen ari zen indarraren erakusle ere bada, Barinagan eta Bolibarren ere batzokiak zabaldu zirela (Gerrikagoitia, 2000: 51). Barinagako Batzokiko lehendakaria Antonio Oregi Olalde zen, Bolibarkoa Tomas Gerrikagoitia «Beesi»[36].

Tradizionalistek baino diru gutxiago zutenez, jeltzaleek ezin zuten afaririk edota eskupekorik eskaini, baina hainbat mitin, bilera politiko eta ekitaldi kultural antolatzen zituzten, jendea erakartzeko. Berbarako, 1931ko abenduan, Emakume Abertzale Batzak hitzaldi bat antolatu zuen Estepan Urkiagarekin «Lauxeta» eta Estepan Aranzadirekin. Emakume Abertzale Batzako zuzendaritzako Purita Foruriak aurkeztu zituen hizlariok. Oraindik Batzokia ireki gabe zegoenez, Acción Católica-koen egoitzan izan zen ekitaldi politikoa[37].

---

[35] Natividad Zabala Rekalderen laguntzarekin, Elixabete Aginaga arduratzen zen bakoitzari zegokion papera zehazten, entseguak antolatzen eta arropak eta dekoratuak prestatzen. Elixabete Aginaga ezagutu zutenek, bere argitasuna eta antzerkirako grina azpimarratzen dute. Andre honen zuzendaritzapean, honako hauek parte hartzen zuten antzerkietan: Joan Loiola (Joan Zumarra), Lauren Foruria, Purita Foruria, Migel Duralde, Luis Foruria (Batzokiko lehendakaria Errepublika garaian), Maritxu Arrarte, Bernardino Larruskain (Bernardino Arkupe), Jesusa García, Kasilde Aginaga, Asentsio Lizundia «Buztarri», Joan Zelaia, Joakin Aginaga, Joan Ugartetxea, Agustin Azpiri, Maritxu Fotero, Karlota Zelaia, Maritxu Barrutia, Agustin Goitxi... Antzerkiak, neguko igande iluntzetan izaten ziren eta sarrera kobratzen zen. Diru hau hurrengo antzerkiaren gastuak ordaintzeko erabiltzen zen. Emanaldi haueta-ra herritar asko hurbiltzen zen. Kanpoko jendea ere etortzen omen zen, eta antzerki taldea kanpora ere joaten omen zen antzeztera. Antzerkiak euskaraz egiten ziren eta libreto gehienak EAJ-ko gazte elkarteak Bilbon zuen egoitzatik bidaltzen ziren. Era berean, Markinako abade ziren Domingo Onaindiak eta Jose Antonio Oar-Artetak batzokian antzezteko Salvador Arriola abadearen obrak euskaratzen eta moldatzen zituzten. Ia hilero antzerki bat antzezten zela kontutan hartuta, zalantzarik ez dago Bigarren Errepublika garaian, Markinako Batzokian, antzerkiaren inguruan dinamika garrantzitsua lortu zela.

[36] Tomas Beesik dioen bezala: «…Goillebarren be gitxiago ez nai izan, eta gela aundi bat atondu genduan euskal jantziz eta ikurriñez, eta onek bedainkatzeko eta ospakizunerako, alan edo olan, neuk egin neban aurkezpena; eta ondoren, Elias Gallastegik eta beste Ondarruko emakume gazte batek. Onan bada, gu be beste askoren pare giñala eta pozik (Gerrikagoitia, 2000: 51).

[37] «Acción Católica» elkartekoak Jose Martinen batzartoki, jolasleku eta kafetegian biltzen ziren, 1903tik (Delgado, 2008: 85). Batzartoki hau Jose Martinen etxean zegoen, hau da, gaur egun Ipar Kutxa banketxea dagoen etxeko lehen solairuan. Acción Católica da laikoak antolatzeko eliza katolikoak XIX. mendearen erdialdean Europan sortu zuen elkartea. Bere helburua zen, gero eta sekularragoa zen gizarte europarrean, katoliko laikoak biltzea eta eliza eta erlijio katolikoa babestea. Estatu espainiarrean Acción Católica 1926an sortu zen, Reig eta Casanova kardinalak egindako berrantolaketari esker. 1931. urtean, Espainiako Acción Católicak 200 elkarte biltzen zituen, eta 10.000 bazkide zituen. Gazteentzako dotrina berri bat eskaintzen zutela esan daiteke, eta, horrekin batera, baita hainbat ekimen ere: txangoak, antzerkiak, gogo jardunak, erromesaldiak, txiroei laguntzeko ekimenak…

EAJ lortzen ari zen antolaketa onaren erakusle ere bada, 1932ko martxoaren 19an, zapatuan, batzoki berria zabaldu zela, Zehar kaleko, Andonegi jauregiko lehen solairuan. Egun horretan, bakarrik alderdikideentzat ireki zen. Biharamunean, igandean, hiru pertsonak hitz egin zuten afiliatuen aurrean: Polixene Trabuduak, Joseba Mandalunizek eta Bingen Biterik. Pedro Onaindiak egin zituen aurkezpenak (Euzkadi, 1932-3-30). Militante asko etorri ei zen batzokiaren irekiera ekitaldira eta biharamuneko mitinera.

EAJ Markinan eta Xemeinen hartzen ari zen indarraren erakusle ere bada jeltzaleek handikiro ospatu zutela lehen Aberri Eguna, 1932ko martxoaren 26an eta 27an.

Herritar batzuek Bilbon antolatu ziren ekitaldietan parte hartu zuten. 1932ko martxoaren 27an (Berpizkunde igandea), goizean goiz, Bilbora heldu ziren, eta Jesusen Bihotzaren plazatik atera zen manifestazioan parte hartu zuten, beste 60.000 jeltzalerekin batera. Markinar eta xemeindar guztien buru, ikurrinak eramaten, Luis Foruria eta Kasilde Aginaga joan ziren. Kasildek Emakume Abertzale Batzako ikurrina eraman zuen (Garaian, 2008-42: 13) eta Luisek Batzokikoa (Euzkadi, 1932-4-6). Arratsaldean, Arriaga Antzokian egin zen antzerkia ikusi zuten guztiek.

Bilbora joan zirenek ez ezik, herrian gelditutakoek ere ospatu zuten lehen aberri eguna. Zapatuan, 26an, Ondarroako, Lekeitioko, Markinako eta Xemeingo mendigoizaleak Zapola mendira igo ziren, eta suak piztu zituzten tontorretan. Bitartean, batzokiko dantzariak Markinako kaleetan aritu ziren. Biharamunean, igandean, berriro atera ziren dantzariak, eta Zelaian dantza ugari egin zituzten, txistuak lagunduta (Euzkadi, 1932-4-6).

Egun gogoangarria izan zen EAJ-ko kideentzat. Egun eder bat pasatzeaz gain, euren atxikimendu abertzalea sendotu zuten. Denak konturatu ziren momentu historiko bat bizitzen ari zirela.

San Jose egunean, bakarrik alderdikideentzat ireki zuten Batzokia, baina 1932ko ekainaren 5ean, ofizialki zabaldu zuten ezagutu nahi zuten herritar guztientzat. Egun berean, Usansoloko eta Ermuko Batzokia ere ireki ziren, baina Markinako batzoki berriaren irekiera ekitaldira inguruko hainbat mendigoizale eta abertzale hurbildu ziren. Irekiera ospatzeko ekitaldi asko antolatu zituzten (Berriozabal, 1996: 221 eta Euzkadi, 1932-5-26 eta 1932-6-14):

– 1932ko ekainaren 4an, zapatuan, arratsaldeko zortziretan: Arretxinagako baselizan Salbea abestu zuten batzokiko kideek. Gero, kalerik kale ibili ziren, txistularien laguntzarekin, biribilketak dantzatzen eta euskal abestiak abesten.
– Ekainaren 5ean, domekan:

  • 9:30etan: beste herrietatik zetozen EAJ-ko ordezkariak agurtu ostean, Mendigoizaleen batzarra egin zen Batzokian.
  • 11:00etan: meza nagusira joan ziren guztiak, EABko eta Batzokiko batzordeak buru zirela. Elizarako bidean, Purita Foruriak eraman zuen EABko ikurrina eta Pakita Ugartek Batzokikoa. Eujenio Larrañagak eman zuen meza.
  • Meza ostean, Batzokia bedeinkatu zuten, eta EAB-koek erabiltzen zuten aretoan, Begoñako Ama Birjinaren irudi bat jarri.
  • Ostean, batzokiko dantzarien saioa izan zen Zelaian.
  • Aurresku txapelketa zegoen iragarrita, baina bertan behera gelditu zen, euria hasi zelako.
  • 13:00etan: bazkaria Batzokian.
  • 15:00etan: pilota partida, Markinako eta Aulestiko batzokiko pilotarien artean.

- 16:00etan: mitina. Donato Ugartetxea «Goitxi» xemeindarraren hitzekin hasi zen berbaldia, eta, ostean, Bingen Biterik, Julene Urzelaik, Jose Antonio Agirrek eta Goikoetxea arabarrak hitz egin zuten.
- Mitinean zehar, Kepa Enbeita bertsolariak abestu zuen[38].

EAJ-k sortu zituen erakunde, batzorde eta taldeen lana ez zen alferrikakoa izan. «Bizkaitarrak» (EAJ) egitasmo erakargarriak aurkezteko eta ondo antolatzeko gai ziren, eta gero eta jende gehiago gerturatzen zen Batzokira. Honek guztiak tradizionalisten eta jauntxoen amorrua eta inbidia sorrarazten zuen, eta tentsio politikoa hauspotzen (Oar-Arteta, 1991: 15-16).

1933ko urtarrilaren 20ko udal hauteskundeetan, abertzaleen eta tradizionalisten artean zegoen lehia politikoa modu bortitzean lehertu zen Markinan. Benito Aginaga «Mendaro» hauteskunde mahaiko lehendakari zen, Artibai kaleko eskolan, eta ez zion utzi bozkatzen Alejandro Gaitan de Aialaren emazteari, Maria Juliana Costa Anunzibairi, bere abizena ez zelako behar bezala idatzita agertzen erroldan. Eztabaida izugarria sortu zen tradizionalisten eta «Bizkaitarren» (EAJ) artean. Borrokan ere egin zuten, eta norbaitek bozka ontzia apurtu zuen. Azkenean, Asaltoko Guardiak etorri behar izan zuten bakea berrezartzera, eta hauteskundeak balio gabe gelditu ziren. Gobernadoreak batzorde kudeatzaile bat aukeratzea agindu zuen. Batzorde hau urtarrilaren 29an eratu zen, pertsona hauekin:

– Lehendakaria: Markinako zerga ordaintzaileen artean, Bitoriano Orbea Plaza aukeratu zuten. Hasieran, Jose Luis Gaitan de Aiala atera zen, baina honek uko egin zuen, eta, azkenean, Bitoriano Orbea Plaza aukeratu zuten.
– Bigarren lehendakaria: langileen izenean, Agustin Egizabal Martínez hautatu zuten. Obreros Vascos de Marquina elkarteko kidea zen. Elkarte honetan hautatuak izateko aukera zuten bederatzi pertsona zeuden, eta, zoriz, Agustin aukeratu zuten.
– Arduradun: funtzionarioen artean, Viktoria Preciados Mues aukeratu zuten. Nesken eskolako maistra zen (1904an jaioa).

1933ko urtarrilaren 20an jazotakoek ondorio larriak izan zituzten gerraondoan. FET-JONS-eko kideek gertaera hau erabili zuten Benito Aginaga kartzelaratzeko. Iskanbila hauetan, Joan Loiola eizagirre ere (EAJ-ko ordezkaria) egon zen nahastua, eta, frankistek liskarrean izan zuen parte hartzea aitzakiatzat erabili zuten, atxilotzeko eta bere heriotza sententzia sendotzeko (Egaña, 2000, VII. tomoa: 219). Itxura denez, hauteskunde lekuan sortu zen borrokan parte hartu zuen tradizionalisten bat hil egin zen biharamunean, eta tradizionalistek Joan Loiolari leporatzen zioten heriotza, aurreko egunean pertsona horrekin borrokan aritu zelako.

Xemeinen hauteskunde eguna arazorik gabe joan zen, eta Udal Batzordea modu honetan osatu zen:

– Julian Ituarte Solozabal, Alkate (joera tradizionalistakoa)
– Joan Barruetabeña Basterretxea (EAJ)
– Antonio Oregi Olalde (EAJ) (Barinagako batzokiko lehendakaria)
– Andres Zelaia (joera tradizionalistakoa)
– Pedro Agirreamalloa Solozabal (EAJ)
– Jose Luis Iriondo (joera tradizionalistakoa)

[38] Amurizak dioen bezala: «Mitin eta ekitaldi abertzale handietan, plazetan nahiz antzokietan, Kepa Enbeitaren presentzia nahitaezko bilakatu zen, Jose Antonio Agirre, Lauaxeta eta abarren ondoan» (Amuriza, 1996: 104).

Urtarrilaren 20ko bozketa baliogabetu ostean, 1933ko apirilaren 23an, igandean, hauteskunde berriak egin ziren Markinan. Lehia gogorra izan zen EAJ-koen eta tradizionalisten artean eta, boto gutxi batzuengatik, tradizionalistak atera ziren garaile. Hauteskunde hauek giro politikoa are eta gehiago okertu zuten.

Abertzaleek zioten tradizionalistek iruzurra egin zutela, hautesleak, gehienbat maizterrak, euren alde bozkatzera behartu zituztelako, botoak erosi zituztelako eta batzuek bi aldiz ere bozkatu zutelako. Oso adierazgarriak dira Elixabete Aginagak «Ete-k» *Euzkadi* egunkariko «Errijetatik» atalean idatzi zituenak (Euzkadi, 1933-4-29): «Igazi dan igandian auteskundiak ixan doguz errijon. Egundo ezagutu eztiran lako auteskundiak ixan be gero.

¡Emengo zikinkerija! Autarki erostia, ostutia, txapel-okerrak jauzkakuak, 'pistoleruak' 'limosnak' eta abar eta abar; eta orrexek gustijok eta be amazortzigatik eruan euskuben eta hamazortzi orretatik amairu kendu biar dira autarkija-bota ebenak baño orrexenbeste geyago agertu ziralako.

Emen diran elbarridun gustijak tatarrez be, eruan autarkija emotera. Eta autarki bi batera bota eragin be bai ta abar. Eta azkenian, jakiñaba, ezin ondo urten kontubak».

Eztabaidak eztabaida, alkateak eta zinegotzi berriek 1933ko maiatzaren 10rean hartu zuten agintea, eta Markinako Udala modu honetan gelditu zen osatua:

– Alkate: Jose Luis Gaitan de Aiala Costa (Tradizionalista)
– Ordeko: Fermin Alberdi Alberdi (1893 - 1973) (Tradizionalista)
– Ordeko: Alejandro Duralde Barrenetxea (Tradizionalista)
– Tomas Duralde Kerejeta (EAJ)
– Bernardo Aretxabaleta Arriola (EAJ)
– Pedro Onaindia Jaio (EAJ)

Udal berria eratu zen egunean, tradizionalistek jai izugarria egin zuten. Suziriak bota zituzten, eta gramofono baten laguntzarekin, dantzan aritu ziren (Euzkadi, 1933-5-12). Oso pozik zeuden, alkatetza berreskuratu zutelako. Hala ere, EAJ-koak ziren seitik hiru zinegotzi. Alegia, tradizionalistek eta jeltzaleek antzerako boterea zuten Markinan.

Lehia politiko bortitzak eraginda, batzuek eta besteek ahal zuten guztia egiten zuten jendea erakartzeko. Edozein aitzakia ona zen propaganda egiteko.

Errepublikazale eta sozialistek, adibidez, Manuel Azaña, Errepublikako Gobernu Burua, Indalezio Prieto, Obra Publikoen Ministroa, eta Martzelino Domingo, Nekazaritza Ministroa, ekarri zituzten Markinara, 1933ko apirilaren 10rean. Zehatzago esateko, Azaña, Prieto eta Domingo Ondarroara zihoazen, portuko lanen hasierako lehen harria jartzera (Oruemazaga, 2006: 38-45), eta bidean, Alberto Onaindia Badiolaren etxean hartu zuten atseden (Bilbao, 1983: 64). Alberto Onaindia Badiola errepublikazalea zen, eta Indalezio Prietoren laguna. Adiskidetasun hau erabiliz, Errepublika garaian, Markinako Udalak 40.000 pezeta lortu zituen gobernutik, eskola berriak egiteko.

EAJ-koek ere etengabe antolatzen zituzten antzerki, mitin eta jai aberkoiak. 1933ko ekainaren 11n, adibidez, Batzoki berriaren irekieraren lehen urteurrena ospatu zuten. Meza izan zuten goizean, eta, ostean, Batzokiko abesbatzak, ezpata dantzariek eta gorulariek kantu eta dantza ekitaldiak eskaini zituzten. Pilota partida ere izan zen, eta, eguerdi ostean, mitina izan zuten. Hizlariak Donato Ugartetxea «Goitxi», Karlos Linazasoro «Altzeta», Julia Jauregi eta Alberto Onaindia «Egizale» izan ziren (Euzkadi, 1933-6-7).

Tradizionalistek ere mitin-jaiak antolatzen zituzten, euren indarra erakusteko eta jendea erakartzeko. 1933ko ekainaren 25ean, adibidez, meza izan zuten, eta gero Martzelino Oreja Elosegi politikari tradizionalistak hitz egin zuen «Zirkuluan». Arratsaldean erromeria egin zuten. Abertzaleen kasuan bezala, tradizionalisten artean ere erlijioa, politika eta arlo ludikoa loturik zeuden.

Batzuek eta besteek antolatzen zituzten mitin eta ekitaldi politikoetako gai garrantzitsuena Estatutuaren auzia zen. Estatutuaren gaia puri-purian zegoen.

Eusko Ikaskuntzak 1931n plazaratu zuen Estatutu proposamenetik bi egitasmo desberdin atera ziren: Lizarrako Estatutua, tradizionalistek eta EAJ-koek babestu zutena, eta Batzar Kudeatzaileen egitasmoa, ezkertiarrek bultzatutakoa. Bigarren Estatutu egitasmo hau 1933ko abuztuaren 6an onartu zuten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalek, Gasteizen elkartu ostean. Kutsu demokratikoa zuen, eta Lizarrakoa baino ezkertiarragoa eta akonfesionalagoa zen. Hala ere, onartu eta gutxira, eskuina hasi zen agintzen Espainian, eta egitasmoa ez zen aurrera atera.



Argazkia: Aitziber Eizagirre
Joan Loiola eizagirre «Zumarra» (1903-1937) Derion fusilatu zuten, 1937ko irailaren bederatzian.

Markinako alkateak, Jose Luis Gaitan de Aialak, parte hartu zuen udalen biltzar honetan, eta, Tolosako, Markinako eta beste lau udal tradizionalisten izenean, emendakina aurkeztu zion Estatutu egitasmo honen 12. artikuluari (Agirre, 1976: 372). Egiatan, tradizionalisten helburua zen ezkertiarrek bultzatutako Estatutu egitasmo honi bidea oztopatzea, euren aburuz, kleroaren aurkakoa eta ideologia errepublikarrean oinarrituta zegoelako (Granja, 1990: 25).

Oztopoak oztopo, 1933ko azaroaren 5ean, Estatutuari buruzko galdeketa egin zen, eta biztanle gehienek alde agertu ziren. Markinan, hautesleen %97ak Estatutuaren alde bozkatu zuen, eta Xemeinen %95,4ak. Abertzale, ezkertiar zein tradizionalistek babestu zuten Estatutua.

III. Taula. **Estatutuari buruzko plebiszitua: 1933ko azaroaren 5a**

	Hautesleak	Alde	Aurka
Markina	1016	987	0
Xemein	719	686	0

Iturria: nik egindako taula, Auñamendi Eusko Entziklopediatik hartutako datuekin (http://www.euskomedia.org/aunamendi)

1.4. **1933: Markina eta Xemein Modernizatzen**

Errepublikako lehen bi urteetan, istilu eta eztabaida asko sortu ziren ikuspuntu politikotik: botere borroka bortitzak, Estatutuaren inguruko eztabaida sutsuak, alderdi politikoetako kideen arteko liskarrak, hauteskunde istilutsuak… sasoi nahasia izan zen markinarrentzat eta xemeindarrentzat; baina baita sormenez betetako garai berritzailea ere. Ikuspuntu politiko, sozial, ekonomiko zein kulturaletik, Markina eta Xemein aldatzen eta modernizatzen ari ziren. Errepublika garaian gure herriak bizi izan zuen modernizazio prozesuaren erakusle batzuk dira Obreros Vascos de Marquina Elkartea, Esperanza fabrika, Euzko-Etxea Elkartea, Cine Marquines aretoa eta Euzko Nekazarien Alkartasuna (ENA).

1930ean, estatu espainiarreko biztanleria aktiboaren gehiengoak nekazari izateari utzi zion, lehen aldiz Espainiako historian. 1900. urtean, estatuko biztanleriaren %66,34 nekazaria zen, %15,99k industrian eta eraikuntzan lan egiten zuen eta %17,07k zerbitzuetan. 1930ean, gauzak guztiz aldatuta zeuden: biztanleriaren %45,51 zen nekazaria, %26,51k industrian eta eraikuntzan lan egiten zuen eta %27,98ak zerbitzuetan (Lacomba, 1998).

Bizkaian eta Gipuzkoan ere antzerako aldaketa gertatu zen. Bizkaiko biztanleria aktiboaren %51,6 nekazaria zen 1900. urtean, baina 1930ean, % 21,5a. Gipuzkoan, 1900. urtean, nekazaritzatik bizi zen biztanleria aktiboaren %43,5 eta 1930.ean % 25a (Majuelo, 2009: 17).

Markina, Xemein eta inguruetako herrien egitura sozial eta ekonomikoa ere aldatzen ari zen. Errepublika aldarrikatu zenean, Markina eta, batez ere, Xemein nekazaritzari lotuta zeuden, baina lanpostu industrialak ugaritzen zihoazen. XIX. mendearen azkenetan eta XX. mendearen hasieran sortutako latonerien lan karga handitu egin zen, eta, horrekin, baita hauetan lan egiten zuten langile industrialen kopurua ere. 1936an, familiarteko zazpi enpresa txiki zeuden bi herriotan, eta gutxi gorabehera 50-60 bat pertsonari ematen zien lana (Markinan hiru latoneria edota galdategi zeuden[39] eta Xemeinen lau[40]). Horrez gain, bi herriotako biztanleen argindar beharrizanak handitzen zihoazen,

[39] Mateo Cazalis Lapeiraren (1860 - 1943) (Mateo «Pirri») latoneria: XIX. mendearen amaieran zabaldu zen, eta 60. hamarkadan zarratu zen. Modesto Foruria Gerrikabeitiaren (1878an jaioa) latoneria: Artibai kalean zegoen, gaur egun fisioterapia zentroa dagoen tokian. 70. hamarkadan zarratu zen. Martin Frantzisko Cazalis Lapeiraren (1845 - 1917) (Martin «Pirri») latoneria: Artibai kalean zegoen, lehengo eskola zaharrak zeuden tokian, postetxea egon zen tokiaren atzean. Gerraondoan itxi zen, jabeak kartzelan sartu zituztelako.

[40] Goikoetxea Galdategia: Goikoetxea familiak sortu zuen 1898an. Latoneria hau gaur egun ere zabalik dago. Fernando Paulo Oliver Lakastaren (Alcala de Henares, 1878 - Xemein, 1946) latoneria: epaitegiaren eta kartzelaren aurrean zegoen, Arretxinaga etorbidean. XX. mendearen hasieran sortu zen, eta 50. hamarkadan itxi. Segundo Cazalis Lapeiraren (Segundo «Pirri») latoneria: 1880an sortu zen, Irus lantegia zegoen tokian, Artibai 29an. 1920. urtearen inguruan, Ramon Maria Anbrosio Alberdik eta

eta Saltos del río Ondarroa enpresako elektrizitate zentraletan lanean ari zirenen kopurua ere handitzen zihoan (Juaristi, 2008c: 27-31).

IV. Taula. **Biztanleria aktiboaren bilakaera Markinan, Xemeinen, Bizkaian eta Estatuan (%)**

	Markina		Xemein		Bizkaia		Estatua	
	1825	**1927**	**1825**	**1927**	**1900**	**1930**	**1900**	**1930**
Nekazaritza	60	50		80	51,26	21,5	66,34	45,51
Industria		10		7			15,99	26,51
Zerbitzuak		40		13			7,07	27,98

Iturria: nik neuk egina Mugartegi (1927), Lorenzo (1996), Lacomba (1998) eta Majuelotik (2009) hartutako datuekin.

Beraz, II. Errepublika aldarrikatu zenean, 1931n, langile industrialak antolatu, eta Obreros Vascos de Marquina elkartea sortu zuten. Pertsona gutxik osatzen zuten elkartea (hasieran, bederatzi pertsonak), baina klase kontzientzia indartsua zuten, eta euren eskubideak eta interesak babesteko prest zeuden.

Dena den, Markina eta inguruak goitik behera eraldatu zituena Esperanza y Cia fabrika izan zen. 1932ko urtarrilean hasi ziren eraikitze lanak, udalak jabeei diru laguntzak eskaini ostean[41], eta lantegia 1933an hasi zen martxan (Juaristi, 2008c: 27-31). Jasotako diru laguntzen truke, fabrikaren jabeek hamar urtetan Markinan lanean aritzeko konpromisoa hartu zuten.

Mariano Gregorio Barinagarrementeria Larrinagak (1885 - 1934) erosi zuten, eta Barinaga y Alberdi enpresa sortu. Joan Jose Maria Larrinaga Arrateren (1888 -1957) latoneria: Joan Larrinaga Larrinagak (1858an jaioa) sortu zuen, 1898. urtearen inguruan, Azpiko-errotan. Latoi eta brontze galdategia zuten, eta txorrotak eta fumisteria produktuak egiten zituzten. Latoneria Joan Joseren semeak, Joan Larrinaga Larrinagak hartu zuen (1913 - 2008). 60. hamarkadaren erdi inguruan (1965. inguruan) zarratu zen. 1928an, Lorenzo Azpiri Ugartetxeak (1902 - 1981), Joan Loiola eizagirrek, («Joan Zumarra») (1903 - 1937), eta Joan Ugartetxeak «Joan Padarrak» (1904 -) Artibai kaleko latoneria sortu zuten (Garaian 4, 1989: 43). Gaur egun Azpiri Galdategia izenarekin jarraitzen du (Garaian 4, 1989: 43).

[41] Enpresa hau Eibarren sortu zen 1908. urtean. Joan Esperanza Salvador (Broto, Huesca, 1860 – Bilbo, 1951) armagilea eta Pedro Unzeta administratzailea elkartu ziren, eta «Esperanza y Unceta» enpresa sortu zuten. Enpresa honek Eibarko armagintza sektoreko enpresentzako piezak egiten zituen. 1910. urtean, Pedro Kareaga ingeniari eta asmatzailea sartu zen enpresan. Pedro Kareagak Browning delako pistolan oinarrituta, Victoria pistola patentatu zuen. Pedro Kareaga bera izan zen Eibar izeneko pistola asmatu zuena, gero Rubi izenarekin komertzializatu zena. 1913an, enpresa handitzeko aukera gutxi zutenez Eibarren, eta, gainera, Gernika-Lumoko udalak enpresa bertara eramateko eskaintza ona egin zienez (fabrika jartzeko lurra doan eskaini zien, fabrikaren eraikuntza lanak Udalak ordaindu zituen, eta, gainera, 50 mila pezetetako dirulaguntza eman zien), Gernika-Lumora joan zen fabrika. Hemen ere pistolak egiten jarraitu zuten. 1914. urtean, ekoizten zituzten armak ASTRA izenarekin saltzen hasi ziren. 1925. urtean, Joan Esperanzak utzi egin zuen Esperanza y Unceta enpresa, eta enpresa berri bi sortu zituen: «Esperanza y Cia» eta «Construcciones Mecánicas S. A». Enpresa biak ere armagintzan aritzen ziren. Zehazki, bi arma mota egiten zituzten: alde batetik, Valero Morteroa. *Mortero honen asmatzailea, Valero Kapitaina, Esperanza y Cia-ko bazkidea izan zen. Bestetik, ELKAR pistola. 1922an desagertu zen Alkartasuna enpresari erositako patentea erabili zuten horretarako* (Juaristi, 2008b: 27-31).

Enpresa honek eragin izugarria izan zuen Markinako, Xemeingo eta inguruko herrietako ekonomian, lanpostu industrial zuzenak zein zeharkakoak sortu zituelako. Migel Anjel Bilbaok dioen bezala, Esperanza Markinan kokatzea gabonetako loteria tokatzea beste izan zen (Bilbao, 2000: 34).

Castor Uriarteren zuzendaritzapean (Catabuig, Filipinak, 1892 - Bilbo, 1979), enpresa honek morteroak, metrailadoreak, pistolak eta subfusilak egiten zituen, ECIA (Esperanza y Cia) markarekin, eta, II. Errepublikako urteetan, 120-130 pertsonari ematen zien lana (1985ean, 348 langile zituen) (Barinagarrementeria, 1989: 90).

Esperanzak modernitatea ekarri zuen: soldatapeko langileak ugaldu zituen, nekazaritzak ekonomian zuen garrantzia gutxitu, eta jauntxoekiko mendekotasun harremanak ahuldu. Esperanzarekin, Markina eta Xemein aro modernoan sartu ziren. Kokatu zen eraikuntza bera ere modernismo horren adierazle da: Esperanza fabrikaren eraikina Bizkaiko arkitekturan 1930etik aurrera eragina izan zuen estilo arrazionalistaren erakusle bikaina da (Juaristi, 2008c: 27-31).

Obreros Vascos de Marquina elkartearekin eta Esperanzarekin batera, Markinaren eta Xemeinen modernizazio prozesuaren adierazle ere bada Euzko-Etxea elkartea.

1933ko azaroaren 15ean, herriko abertzale batzuek kooperatiba bat eratu zuten, Zehar kaleko 9. eta 11. portaletan, eurentzako etxebizitzak eraikitzeko helburuarekin. Kultur eta kirol ekitaldiak egiteko trinket bat ere eraiki zuten, beheko solairuan. Proposamen berri eta moderno bat izan zen; lehen aldiz, herri ekimen batetik abiatuta, jauntxo eta etxe jabeekiko mendekotasunarekin apurtu, eta etxebizitza egitasmo bat bultzatzen zelako. Esperanza bezala, eraikin hau ere arkitektura arrazionalista eta modernista erabiliz egin zen[42].

Egitasmo honek herritarren mentalitate aldaketa ez ezik, abertzaleak lortzen ari ziren indarra ere erakusten du, nire ustez. Izan ere, kooperatibaren eragile guztiak EAJ-ko kideak eta batzokiko bazkideak ziren. Horregatik, hain justu ere, gerraostean, frankistek bahitu egin zuten eraikuntza, eta Guardia Zibilak hasi ziren bizitzen bertan.

Arlo sozial eta kulturalean ere bi herriok aldatzen eta modernizatzen ari ziren. «Euzko-Etxeako» beheko trinketean, «Cine Marquinés» zinetokia ireki zen 1935eko abenduaren 8an, Kontzesio egunean. Jose Mari Eizagirrek, Serafin Landak eta Jesus Egiak elkarte bat osatu zuten, eta trinketeko kantxan butakak jarri zituzten (butaka hauek gaur egun Markina-Xemeingo udaletxe zaharreko pleno aretoan daude), frontisean pantaila, eta zenbait aldaketa egin ostean, zinea zabaldu zuten[43]. «Cine Marquinés» jazoera garrantzitsua izan zen markinarren eta xemeindarren bizitza sozialean.

Azkenik, gure herriaren modernizazioaren erakusle ere bada nekazariak antolatzen eta euren egoera eta arazoez jabetzen ari zirela.

Errepublika etorri zenean, Markinan eta Xemeinen ez zegoen goserik, baina hainbat ziren zorpean eta estuasunekin bizi zirenak. Baserri jabeek, jauntxoek eta dendariek bizi baldintza nahiko onak zituzten, baina maizterrek amaigabeko lan orduak,

---

[42] Zazpi pertsonak sortu zuten kooperatiba: Bernardo Aretxabaleta Arriola, Hilario Aretxabaleta Arriola, Domingo Onaindia Zuluaga, Pedro Onaindia Jaio, Segundo Onaindia Jaio, Tomas Duralde Kerejeta eta Akilino Egiraun Arza. Geroago, bazkide gehiago sartu ziren elkartean.

[43] Funtzioak eguen eta zapatu gauetan (21:30etan) eta domeka arratsalde (18:00etan) eta gauetan (21:30etan) izaten ziren, eta markinarrak eta xemeindarrak hutsik egin gabe hurbiltzen ziren pelikulak ikustera. Zinearen ate aurrean iragartzen zen eguenetik domekara eskainiko zen pelikula. Zine hau ezagutu zutenek diotenez, pelikula asko eta oso onak ematen ziren zine areto honetan (Juaristi, 1997: 37-41).

eskasia asko eta, oro har, bizimodu kaxkarra zuten. Lortzen zituzten etekin txikiekin errenta handiak ordaindu behar izaten zituzten, eta familia ugariak mantendu. Diru gutxi izaten zen soberan. Halaber, garaiko legeen arabera, etxe jabeak edozein momentuan bota zezakeen maizterra. Tomas Beesik azaltzen duen legez: «…ugazabak uskerizko atxaki bat gaitik kanpora botateko almen osua eukan. Martiaren 25erako emon aldetako agindue, eta azaroaren 30erako etxia ustu egin bihar izaten eben. Eta olan ikusten ziran uda-azken guztietan, euren traste zartxuok burdian zituela, batzuk gora eta beste batzuk beera. Etxe aldaketa tristiak: bere jaioterria, etxia, lagunak itxi eta nunbaiten aurkitu daben zuloren batera. Leen eduki dituen guzti orrek guztiz barritu bihar» (Gerrikagoitia, 2000: 52).

Errepublika garaian, Markinako eta Xemeingo baserritar asko ez ziren etxe jabeak, maizterrak baizik. Baserri guztien bi herenak Mugartegi, Gaitan de Aiala, Murga edota Onaindia bezalako familienak ziren.

Etxe jabearen eta maizterraren artean *enfiteusi* erako kontratua zegoenean, errentak bizi osorako izaten ziren, eta labore edota abereekin ordaintzen. Dena dela, gutxi ziren era honetako kontratuak. Gehienak laburrak izaten ziren, sei urte edo gutxiagokoak, eta denbora hori pasatu ostean, nagusiak errenta igo zezakeen eta bere etxerako maizter langileenak edo berarentzat fidagarrienak edo gustukoenak zirenak aukeratu zitzakeen. Alegia, etxe jabearen eta maizterraren arteko harreman txarrak maizterra etxetik botatzeko aitzakia izan zitekeen. Horrek botere politiko, ekonomiko zein sozial asko ematen zien etxe jabeei, eta maizterrenganako mendekotasun harremanak sortzen[44].

Errepublikaren etorrerarekin, iraganetik indarrean zeuden lan eta jabetza harremanak aldatu nahi izan zituzten nekazariek, eta nekazaritza erreforma eskatzen hasi ziren. Hortaz, Biurteko Progresistan (1931 - 1933), Nekazaritza Erreformaren Oinarrien Legea onartu zen. Lege honek kalte-ordainen bidez, lurrak desjabetzeko sistema bat ezarri zuen, eta maizterrei bizi ziren etxeenganako eskubide gehiago eman zizkien.

Nekazariek bizi baldintza hobeagoak eta nekazaritzaren erreforma eskatzen zituzten testuinguru honetan, Euzko Nekazarien Bazkuna sortu zen Gipuzkoan, 1933an, Polikarpo Larrañaga abadearen eskutik[45]. Elkarte honek harreman estuak izan zituen ELA sindikatuarekin, eta bat egin zuen EAJ-k nekazaritza politikaz zituen irizpideekin. Katolizismoa, euskaltzaletasuna eta legearen barnean jokatzea oinarritzat hartuta, nekazarien bizi baldintzak hobeagotzea eta nekazariei laguntza eskaintzea zuen helburu. Idazkaritza orokorra Donostian jarri zuten, eta gerra aurrean, Gipuzkoako 8.100 familia ordezkatzen zituzten 68 herri batzordek parte hartzen zuten Bazkunean.

---

[44] Mendekotasun egoera honetan, maizterrak euren erantzukizun eta betebeharrak behar bezala betetzen eta baserri jabearekin ondo konpontzen saiatzen ziren. Urtean behin – ia beti Domu Santu egunean - maizterrak nagusiaren edo administratzailearen etxera joaten ziren, errenta ordaintzera. Errenta dirutan, gauzatan edo bietan ordaindu zezaketen. Horrez gain, derrigorrezko opariak zeuden: kapoiak, oilarrak, sagarrak, arrautzak, gazta, eztia eta beste zenbait jaki gozo. Azkenik, etxaldearen ekoizpen ahalmenari eutsi edo hobetzeko konpromisoa hartzen zuten maizterrek, eta, noizean behin, karearekin ongarritzeko eta gaztainondoak eta sagastiak landatzeko beharra zuten. Baserriaren konponketa txiki batzuk egitea ere eskatzen zitzaien, eta noizbait erreteila osorik jartzea ere bai edo labea egitea. Obra handiagoak jabearen kontura izaten ziren.

[45] Polikarpo Larrañaga Aranguren (Soraluze, 1883 - Baiona, 1956) Gasteizko apaizgaitegian apaiztu zen 1908an. Elgoibar eta Eibarren apaiz egon zen, eta bertako bizitzan parte hartu zuen. Euskal aldizkarietan idatzi zuen, eta arrantzaleen eta nekazarien elkarteak sortu zituen (1932 - 1933). ELA sindikatuaren sorreran ere parte hartu zuen. Gerra Zibilean, Baionara ihes egin, eta euskal nazionalismoaren alde lanean jarraitu zuen (http://www.euskomedia.org/aunamendi).

Gipuzkoan sortutako mugimendu honek gure inguruan ere izan zuen eragina. Hain zuzen ere, Bizkaiko nekazarien lehen herri batzordea Markinan eta Xemeinen eratu zen, 1934ko martxoaren 4an (http://www.euskomedia.org/aunamendi/43254). Hemendik abiatuta, eta ELA sindikatuaren laguntzarekin, nekazarien elkarteak ugaritzen hasi ziren Bizkaian. Horrela, 1934ko uztailaren 21ean, Bizkaiko nekazariak biltzen zituen Euzko Nekazarien Alkartasuna (ENA) sortu zen Markinan berbertan. Egun horretan, nekazari abertzaleek jai handia egin zuten gure herrian.

1.5. **1934 - 1936: Biurteko Beltza**

Estatu espainiarreko eta Hego Euskal Herriko hainbat tokitan bezala, Markinan eta Xemeinen ere aldaketa asko izan ziren 1931tik 1933ra. Tentsio politiko izugarria bizi zen, gehienbat tradizionalisten eta abertzaleen artean, baina, hala ere, bi herriok modernizatzen eta aldatzen ari ziren ikuspuntu politiko, sozial, ekonomiko zein kulturaletik.

1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorretan, eskuinak gehiengoa lortu zuen Estatuan (Espainian sufragio unibertsala ziurtatzen zen lehen hauteskundeak ziren), eta horrek ekarri zuen 1934tik 1936ra arteko Biurteko Beltza[46]. Boterea hartzeaz bat, eskuindarrek aurreko bi urteetan hasitako modernizazio prozesua gelditzen saiatu ziren. Honako hauek izan ziren 1933ko hauteskunde orokorretako emaitzak Markinan:

V. Taula. **1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorrak Markinan**

Hautagaiak	Alderdiak	Botoak
Agirre	EAJ	378
De la Torre	EAJ	372
Oreja	Iraultzaren aurkako frontea	350
Areilza	Iraultzaren aurkako frontea	343
Bustos	Errepublikar – sozialista	72
Erkoreka	Errepublikar – sozialista	54
Beste batzuk		2
Bozkatu zutenak		805

Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia (http://www.euskomedia.org/aunamendi) eta Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak (http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm)

[46] Hauteskunde orokor hauetan ere iskanbila txiki batzuk izan ziren Markinan. Maria Rosa Urraca Pastor (1907an jaioa) etorri zen, Zirkulu Tradizionalistan mitin bat ematera, eta emakume abertzale batzuk mitinetik bota zituzten, zarata ateratzen eta, ustez, mitina galarazten ari zirelako. Maria Rosa Urraca pedagogoa, idazlea eta propagandista zen, eta Komunio Tradizionalistako hautagaia izan zen Gipuzkoatik 1933ko hauteskunde orokorretan, baina ez zen aukeratua izan (http://www.euskomedia.org/aunamendi).

EAJ-k botoen %47a lortu zuen Markinan, Iraultzaren aurkako fronte eskuindarrak botoen %43a eta Errepublikar eta sozialisten koalizioak % 10a. Errepublikako lehen bi urteetan egindako lanek etekin onak eman zizkien EAJ-koei. Xemeinen ere jeltzaleek irabazi zituzten hauteskundeak.

VI. Taula. **1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorrak Xemeinen**

Hautagaiak	Alderdiak	Botoak
Agirre	EAJ	310
De la Torre	EAJ	310
Oreja	Iraultzaren aurkako frontea	191
Erkoreka	errepublikarra – Sozialista	124
Areilza	Iraultzaren aurkako frontea	104
Bustos	errepublikarra – Sozialista	35
Beste batzuk		4
Zuri		2
Bozkatu zutenak		545

Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia (http://www.euskomedia.org/aunamendi) eta Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak (http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm)

Errepublikako urteak aurrera zihoazen heinean, EAJ-k gero eta boto gehiago bereganatzen zituen Markinan eta Xemeinen. Abade eta fraideek bultzatzen zuten giro euskaltzale eta abertzaleak, Batzokiko ekitaldi kultural, politiko eta sozialek eta Autonomia Estatutuaren alde herritarren artean zegoen jarrera baikorrak EAJ asko sendotu zuten. Errepublika hasi zenetik 1933ra, EAJ gero eta boteretsuagoa zen, eta, aldiz, tradizionalistak ahultzen ari ziren. Gauza bera gertatzen ari zen Espainia osoan: nahiz eta 1933ko hauteskunde orokorrak irabazi, eskuindarrek ikusten zuten ezkertiarrak, abertzaleak eta errepublikazaleak gero eta indartsuagoak zirela.

Testuinguru soziopolitiko hau ez zen jauntxoen eta eskuindarren gustukoa, euren autoritatea, *status quo*-a eta pribilegioak zalantzan ikusten zituztelako. Eliza, Espainiako Eskuin Autonomoen Konfederakuntza (CEDA) eta armadaren alderdi kontserbadoreenak biltzen zituen Espainiar Batasun Militarra (1933an eratua) gero eta modu ageriagoan agertzen ziren Errepublikaren eta honek bultzatzen zituen aldaketen aurka.

Tradizionalistak, bere aldetik, Errepublikaren aurkako jarrera erakusteaz haratago, erreketeen erakunde militarra berrantolatzen eta indartzen hasi ziren, 1933tik aurrera. Horretan, eragin nabarmena izan zuen errekete taldeetan militar profesionalak sartu zirela, eta ordenantzak idatzi zituztela (Canal, 2006: 43-44). Erreketeen helburuak ziren tradizionalistak defendatzea, eraikin erlijiosoak babestea eta kaleak eta tradizionalisten egoitzak zaintzea. Horrez gainera, 1934ko martxoan, Komunio Tradizionalistakoek eta Renovación Españolakoek isileko ituna sinatu zuten Benito Mussolini gobernuburu italiarrarekin. Mussolinik laguntza militarra, trebakuntza, dirua eta armak eskaini zizkien erreketeei, eta ordainean, tradizionalistek eta Renovacioneko kideek hartu zituzten konpromisoak izan ziren: Errepublikaren aurka borrokatzea, monarkia berrezartzea,

Italiarekin adiskidantza ituna sinatzea eta Mediterraneoan gerra piztuz, Frantzia eta Espainiaren arteko akordioa salatzea. Itun honen eraginez, erreketeak hobeto antolatu ziren, eta gerra hasi aurretik erabat indartuta zeuden, bereziki Nafarroan (Canal, 2006: 44).

Tradizionalismoa hain boteretsua izanik Markinan eta Xemeinen, tradizionalistak ez ziren mugimendu honetatik kanpo gelditu, eta errekete talde bat sortu zen, Joakin Olaortua Aranaren ardurapean (Onaindia, 1937).

Eskuindarrak zein erreketeak Errepublikaren aurka antolatzen, konspiratzen, entrenatzen edota indarrak biltzen ari zirela, «Ardoaren gerra» edo «Euskal Udalen Matxinada» hasi zen 1934ko irailaren 2an. Bigarren Errepublikako urteetan, Hego Euskal Herrian gertatu zen gatazka garrantzitsuenetarikoa izan zen.

Gobernuak «Ardoaren Estatutua» jarri nahi zuen indarrean, hau da, alkoholei zergak gutxitu nahi zizkien, salneurriak murrizteko eta, horrekin, Frantziako ardoekin lehiatzeko. Gorteetako diputatu abertzaleek aurka bozkatu zuten, Kontzertu Ekonomikoaren kontrako erabakia zela argudiatuz. Egia esan, ardoei zerga kenduta, euskal ogasunek diru sarrera garrantzitsuenetarikoa galtzen zuten (%25etik %30era). Eztabaida honetan, zinegotzi abertzaleak gobernuaren erabakiaren aurka agertu ziren (Granja, 1986: 476-485).

1934ko uztailaren 5ean, udalek bilera bat antolatu zuten gaia eztabaidatzeko. Bizkaiko eta Gipuzkoako udal gehienek parte hartu zuten, eta hartutako erabakia zera izan zen: kontzertu ekonomikoa babestuko zuen zinegotzien batzorde bat aukeratu behar zela. Batzorde hori aukeratzeko bozketak abuztuaren 12an egitea erabaki zuten (Granja, 1986: 476-477). Bozkatu aurretik, baina, behin-behineko batzorde bat antolatu zuten. Batzorde horretan, Markinako alkate tradizionalista, Jose Luis Gaitan de Aiala, egon zen.

Bizkaiko Gobernari Zibilak debekatu egin zituen hauteskundeak, eta, abuztuaren 12an, asaltoko guardiak bidali zituen udaletxetara, bozketak galaraztera. Halanda ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udaletxetan hauteskundeak ospatu ziren, eta, ondorioz, Gobernuak hainbat alkate eta zinegotzi atxilotu zituen, batzuk baita kargugabetu ere; besteak beste, Ormaiztegiko, Azpeitiko, Zumaiako, Debako eta Getariako alkateak.

Gauzak horrela, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalek berriro elkartzea erabaki zuten Zumarragan, 1934ko irailaren 2an. Poliziak ez zien utzi udal ordezkariei bertara heltzen, eta horrek Euskadiko hamaika zinegotzi eta alkateren dimisioa eragin zuen (Granja, 1986: 483-484). Markinako EAJ-ko hiru zinegotzi abertzaleek (Tomas Duralde Kerejeta, Bernardo Aretxabaleta Arriola eta Pedro Onaindia Jaio) dimititu egin zuten irailaren 7an, eta Markinako Udala era honetan gelditu zen osatua:

1. Alkate: Jose Luis Gaitan de Aiala Costa (Tradizionalista)
2. Ordeko: Fermin Alberdi Alberdi (1893 - 1973) (Tradizionalista)
3. Ordeko: Alejandro Duralde Barrenetxea (Tradizionalista)

Xemeinen ere EAJ-ko zinegotzi abertzaleek dimititu egin zuten 1934ko irailaren 7an (Joan Barruetabeña Basterretxeak, Zamora baserrikoak, Antonio Oregi Olaldek, Barinagako batzokiko lehendakariak, eta Pedro Agirreamalloak, Olabe Baserrikoak), eta zinegotzi berriak sartu ziren udalean. Xemeingo Udala honela gelditu zen osatua 1934ko udan:

1. Julian Ituarte Solozabal, Alkate (joera tradizionalistakoa)
2. Jose Maria Rekalde (joera tradizionalistakoa)
3. Andres Zelaia (joera tradizionalistakoa)
4. Jose Martin Onaindia (joera tradizionalistakoa)
5. Jose Luis Iriondo (joera tradizionalistakoa)

Dimititu zuten zinegotziak salatu zituzten, eta epaileek zinegotzi aritzeko gaitasunik gabe utzi, euren funtzioak uzteagatik eta desobedientziagatik. Salaketa hauek euren aurka erabiliko ziren gerraondoko epaiketetan.

Euskal Udalen Matxinadarekin batera, Biurteko Beltzean bizi izan zen giro istilutsuaren baitan, aipatzekoak dira 1934ko urriaren 5eko iraultza eta osteko atxiloketak.

Gorteak zabaldu zirenean, 1934ko urriaren lehen egunean, Espainiako Eskuin Autonomoen Konfederakuntzak (CEDA) gobernuan sartzea eskatu zuen. Urriaren 4an, Lerrouxen gobernu berriak CEDA-ko hiru ministro izendatu zituen. Izendapen hauen aurka egiteko, ezkerreko alderdiek eta langileen sindikatuek lanuzte deia egin zuten urriaren 5erako.

Lanuzte arrakastatsua izan zen Estatuko hiri guztietan, tokian tokiko ezaugarriekin: Bilbon greba eguna baketsua izan bazen ere, matxinada kutsua izan zuen Bizkaiko itsasadarreko langile udalerrietan (Portugaleten) eta meatzari eskualdean (Somorrostron), baita Eibarren eta Arrasaten ere. Markinako Zirkulu Tradizionalistara mitinak ematera sarritan etorritako Martzelino Oreja Elosegi politikari tradizionalista greba honen baitan bahitu zuten grebalariek, Arrasaten, eta hil egin zuten (Fusi, 2002: 177-201). Guztira, 1934ko iraultzak 40 defuntu eta 1.500 atxilotu utzi zituen Euskal Herrian; 900 bat bizkaitarrak ziren (Fusi, 2002: 1789).

Markinan eta Xemeinen, alderdi sozialistako kideak aritu ziren enpresak zarratu nahian, baina arrakasta handirik gabe, eta nahiko egun lasaia izan ei zen. Nabaritu zen ezkertiarrek indar gutxi zutela ingurune honetan. Dena dela, Guardia Zibilek hainbat pertsona atxilotu zituen inguruan, pikete lanetan aritu zirela salaketapean. Manuel Goikoetxea Omar, Zamora baserrikoa, Patxi Cazalis eta beste batzuk preso hartu zituzten; Ondarroan atxilotutakoan artean Santiago Meabe zegoen. Denak sozialistak ziren.

Atxilotutakoak Markinako kartzelan sartu zituzten lehenik. Gero, Asaltoko Guardiek Bilbora eraman, eta itsasontzi batean sartu zituzten preso (Garaian, 2007-40: 40-45). Patxiren emazteak, Mikaela Ibarrolazak, dioen legez: «Al día siguiente (1934ko urriaren 6an), Jose Luis Gaitan de Aiala vino a verle a la cárcel y le comentó 'hombres como tu no pueden estar en un sitio como éste. Vamos a subirte a la enfermería para que estés mejor'. Y él contesto que allí le había llevado la Guardia Civil, y que ellos serían los que le trasladaran. No quería deber favores. Pero vino un carro de guardias de asalto y les llevaron a todos a Bilbao, a una prisión en alta mar. Su hermano mayor se traslado a Bilbao, para ver lo que pasaba y me dijo 'Micaela no te muevas de casa'. Pero en el barco, al pasar lista, coincidió que su apellido era el mismo que el del que estaba pasando la lista, le llamó y resultó que el Capitán era su primo carnal, así que le dejó salir» (Garaian, 2007-40: 40).

Udal ordezkari abertzaleak eta langile ezkertiarrak ez ezik, baserritarrak ere elkartzen eta eskuindarren gobernuak hartutako erabakien aurka mugitzen ari ziren. Inguruko baserritar askok mesfidantzaz ikusten zuten Euzko Nekazarien Alkartasuna (Jauntxo eta baserri jabe tradizionalisten itzala nabaria zen), baina, apurka-apurka, gero eta bazkide gehiago zituen (Euzkadi, 1935-12-27).

Eguenetako azokak, zein hilean behin, zapatuetan, egiten zen feriak aisialdirako uneak ziren baserritarrentzat, baina baita bilerak antolatzeko edota propaganda politikorako guneak ere. 1935eko abenduaren 14an, zapatuan, hileroko azoka egin zen Markinan, eta baserritar asko etorriko zela aprobetxatuz, Euzko Nekazarien Alkartasunako kideek batzarra antolatu zuten[47]. Eskuindarrek bultzatutako legeen aurka lan egin behar

[47] 1936ko urtarrilean, Euzko Nekazarien Alkartasunak 2.000 familia ordezkatzen zituen 22 herri batzorde zituen Bizkaian (Iturria: http://www.euskomedia.org/aunamendi).

zela aipatu zen bileran. Beregainki, Landa Guneko Errentamenduen Legearen aurka egin beharrekoei buruz hitz egin zuten.

Biurteko progresistan, ezkerreko gobernuak hainbat erabaki hartu zituen, indarrean zeuden lan eta jabetza harremanak aldatzeko, eta maizterrei eskubide gehiago emateko. Alabaina, 1933ko hauteskunde orokorren ostean, eskuindarrek boterea hartu eta Biurteko Beltza hasi zenean, aurreko urteetan onartutako legeak ezabatu zituzten, nekazarien erakundeak desegin, eta hauen aurkako lege berriak ezarri: Landa Guneko Errentamenduen Legea, maizterrei jabetza lortzeko aukera oztopatzen ziena eta guztiz jabeen aldekoa zena; Nekazaritza Kontrarreformarako Legea, oztopo multzo bat jabeek ez zezaten desjabetzerik izan; eta Uztargileen Legea indargabetzea, denak beren lurretatik egozteko.

Landa Guneko Errentamenduen Legearen aurka egiteko, Euzko Nekazarien Alkartasunakoek 1936ko otsailaren 3an, San Blas egunean, Abadiñon elkartzeko deia egin zuten. Hala ere, Abadiñora heltzea lortu zuten nekazariek ezin izan zuten inolako manifestaziorik edo aldarrikapenik egin, alde batetik, euri jasak zirelako, eta, bestetik, herria Guardia Zibilek hartuta zutelako. Asaltoko Guardien etorrera oztopatzeko, norbaitek telefonoaren kableak moztu zituen, eta Asaltoko Guardiek Tomas «Beesi» eta beste lau pertsona (hiru bolibartar eta gernikar bat) atxilotu zituzten. Tomas Beesik dioen bezala: «…bat-batian ogetamar asalto-kok artu ginduezan erdian eta eskuak lotu. Autokar aundi bi eukezan an. Sartu ginduezan su ondoan gengozan bostok bakarrik: lau goillebartar eta gernikar bat. Beste erriko biek tabernan geratu ziran, barrure ardao asko botata siketuko zirela eta. Onek subertie; eta gu, Markiñako kartzelara» (Gerrikagoitia, 2000: 54). Otsailaren 6ra arte egon ziren Markinako kartzelan. Euzko Nekazarien Alkartasunako abokatuak egin zituen tramiteei esker atera ziren kartzelatik.

1.6. **1936ko hauteskunde orokorrak**

Testuinguru nahasi eta istilutsu honetan, 1936ko hauteskunde orokorrak etorri ziren. Bizkaia osoan legez, Markinan eta Xemeinen ere hiru ziren lehiatzeko prest agertu ziren ideologia politikoak:

– Iraultzaren Aurkako Frontea (Komunio Tradizionalista - karlistak, integristak eta tradizionalistak -, Unión Monárquica Vascongada, Renovación Española eta Espainiako Eskuin Autonomoen Konfederakuntza – CEDA -): zentralismo espainolaren alde eta Estatutuaren aurka agertzen zen (Granja, 1986: 547-548)
– EAJ: Euskal Herriaren eskubide nazionalak eta Autonomi Estatutua aldarrikatzen zituen. Horrez gain, erlijioaren eta gizarte justiziaren alde agertzen zen (Granja, 1986: 543-547).
– Herri Frontea (PSOE, Izquierda Republicana, Unión Republicana, Euskadiko Alderdi Komunista eta Euskal Abertzale Ekintza): Autonomi Estatutuaren alde egiten zuen, baina, bere asmo garrantzitsuena langileriaren bizimaila hobetzea zen (Granja, 1986: 541-543).

Hiru bloke politiko hauek mitinak eta ekitaldi politikoa antolatu zituzten Markinan.

Zirkulu Tradizionalistan, Iraultzaren Aurkako Fronteak Bizkaian aurkeztu zituen bi hautagaiek hitz egin zuten: Jose Luis Gaitan de Aialak eta Santiago Martínez de las

Rivasek[48]. Batzokian, herriko zein kanpoko EAJ-ko kideek hitz egin zuten Estatutuaren alde. Herri Fronteak ere mitin bat antolatu zuen, eta hainbat hizlarik euren ikuspuntu sozialak eta ezkertiarrak agertu zituzten.

Ezkertiar gutxi zegoen herrian, eta, beraz, hauteskundeetako eztabaida eta lehia nagusia Estatutuaren aldekoen eta aurkakoen artekoa izan zen (Onaindia, 1937).

«Bizkaitarrak» (EAJ) zein tradizionalistak gogor aritu ziren botoak erakarri nahian. Jose Luis Gaitan de Aialak diputatu izateko aukera asko zituela kontuan hartuz, tradizionalistek kanpaina gogorra egin zuten. Botoak erosteaz aparte, mehatxuak eta etengabeko presioa erabili zituzten. Alberto Onaindia abadeak dioen bezala: «El medio de que más echaron mano en toda la propaganda fué el presentarse ellos como los únicos representantes de la Religión Católica. Decían que el Estatuto era laico, que el Papa había mandado votar a los católicos, presentaban en los caseríos una carta que afirmaban los agentes españolistas era del Sumo Pontífice, que los nacionalista iban unidos a los izquierdistas etc.

…Pagaron los votos del modo siguiente los de la candidatura de Derechas. Nombraban agentes electorales a todos los aldeanos de una barriada que cobraban 10 pesetas diarias y comían a cuenta del candidato. Al anochecer se veían las tabernas muy concurridas por los 'agentes electorales' que después de haber trabajado en sus casas iban a 'cobrar' el sueldo. Como no trabajaban por un ideal, se explica el que ocurrieran casos como el de los agentes de la barriada de Meabe que decían no tenían interés en conseguir votos sino en andar por las casas de los electores.

A todos los inquilinos de propietarios antiestatutistas se les amenazó con lanzarles del caserío, se exhibieron cartas de propietarios nacionalistas, obligando a los inquilinos a votar la candidatura antinacionalista. Como se comprenderá estas cartas eran falsas. Nunca dejaron en manos de los aldeanos estas cartas ni las que como en Gabaro etc. presentaron afirmando ser del Papa. Los hermanos del candidado Gaitan de Ayala se presentaron en casa de sus inquilinos para obligarles al voto. El padre del candidato aprovechó la ocasión de que el domingo anterior a la elección fueron los inquilinos a pagar la renta, para pedirles el voto.

Los últimos días la lucha se presentó con muchísima acritud por parte de los antiestatutistas que amenazaban a los empleados públicos, creyendo que el triunfo sería suyo. Tal ocurrió al sobrestante de caminos amenazado por Emilio Ruiz juez municipal de Jemein».

1933ko hauteskundeetan bezala, «Bizkaitarren» (EAJ) eta tradizionalisten artean zeuden ikusiezin eta amorruak hauteskunde egunean lehertu ziren. Bozketa eguna, gehienbat bigarren bueltakoa, oso istilutsua izan zen. Alberto Onaindia abadea Markinako hauteskunde mahaiko lehendakari izan zen, eta horrela kontatzen du gertatutakoa (Onaindia, 1937: 2): «La elección fue más dura el día de la segunda vuelta. El que relata estas incidencias actuó de presidente de mesa en el colegio donde hubo más lucha (nire ustez, Artibai kaleko umeen eskolan zegoen hauteskunde mahaian). La cantidad de apoderados que se presentó en el colegio por ambos bandos era crecidísimo. Había momentos en que entraban a empellones los apoderados, y se presagiaba algún alboroto notable. Todo se reducía a gritos e insultos que se lanzaban los bandos contendientes.

[48] Santiago Martínez de las Rivas lehenengo Renovación Española alderdiko kidea izan zen, eta 1934tik aurrera, Unión Monárquica Vascongada-ko kidea. Portugaletekoa zen, eta politikari ezaguna zen Bizkaian. 1936ko hauteskunde orokorretan, Iraultzaren Aurkako Frontearen aldeko mitinak ematen aritu zen (http://www.euskomedia.org/aunamendi)

Hubo momentos en que peligró la integridad del recipiente de cristal en el que se depositaban las papeletas.

Hubo bastantes bolillas, distinguiéndose en esta labor las aldeanas que con una seriedad imperturbable llegaban a depositar el voto falso. No hubo disparos ni conatos de tal acto. En la primera vuelta el candidato Sr. Gaitan de Ayala se presentó en su pueblo rodeado de pistoleros que sacaron a brillar la convincente pistola y a consecuencia de ello hubo alguna detención.

Como presidente de mesa hube de ordenar varias veces desalojar el colegio, encargándose de este oficio la guardia civil que actuó este día con suma imparcialidad. Últimamente se desalojó el salón que estaba lleno de gente en el momento del escrutinio».

Estatuan, Herri Fronteak irabazi zituen hauteskundeak: diputatuen %60 lortu zituen eta bozka guztien %50. Hego Euskal Herrian, EAJ-k irabazi zuen. Bederatzi ezarleku lortu zituen: bost Bizkaian eta lau Gipuzkoan. Iraultzaren aurkako fronteak zortzi diputatu lortu zituen: zazpi Nafarroan eta bat Araban. Herri Fronteak zazpi diputatu atera zituen: lau Bizkaian (guztiak Bilboko barrutian), bi Gipuzkoan eta bat Araban.

Bizkaian lehen bueltan ez zen argitu norentzat zen Gorteetako diputatu ezarlekua (Jose Antonio Agirrerentzat edo Jose Luis Gaitan de Aiala markinarrarentzat), eta bigarren buelta egin behar izan zen. Markinako emaitzak lehen (otsailaren 16an) eta bigarren bueltan (martxoaren 1ean) honako hauek izan ziren:

VII. Taula. **1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak Markinan: otsailaren 16an (lehen buelta) eta martxoaren 1ean (bigarren buelta)**

		2. buelta	**1. buelta**
Bozkatu zutenen kopurua		742	744
Gaitan de Aiala	Iraultzaren Aurkako Frontea	356	376
Agirre	EAJ	337	331
De la Torre	EAJ	334	330
Martínez de las Rivas	Iraultzaren aurkako frontea	77	22
Espinosa	Herri Frontea	52	40
Gomez	Herri Frontea	49	41
Jauregi	EAJ	0	0
Beste batzuk		0	3
Zurian		1	0

Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia (http://www.euskomedia.org/aunamendi) eta Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak (http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm)

Markinan, Iraultzaren Aurkako Fronteak irabazi zituen hauteskundeak bi bueltetan. Bigarren bueltan, bozkatu zuten markinarren %48ak Iraultzaren Aurkako Frontearen (Gaitan de Aialaren alde) aldeko bozka eman zuten, %45ak EAJ-ren alde egin zuen eta %7ak Herri Frontearen alde.

Markinan ez bezala, Xemeinen, EAJ-ko hautesleek lortu zituzten boto gehien. Bigarren bueltan, bozkatu zuten xemeindarren %48,5ak EAJ-ren aldeko bozka eman zuen, %46ak Iraultzaren Aurkako Frontearen alde eta %5,5ak Herri Frontearen alde.

VIII. Taula. **1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak Xemeinen: otsailaren 16an (lehen buelta) eta martxoaren 1ean (bigarren buelta)**

Hautagaiak	Alderdiak	Botoak bigarren bueltan	Botoak lehenengo bueltan
Bozkatu zutenen kopurua		583	574
Agirre	EAJ	283	272
De la Torre	EAJ	281	270
Gaitan de Aiala	Iraultzaren aurkako frontea	267	272
Martínez de las Rivas	Iraultzaren aurkako frontea	95	8
Gómez	Herri Frontea	34	34
Espinosa	Herri Frontea	33	32
Jauregi	EAJ	0	0
ZURIAN		1	0

Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia (http://www.euskomedia.org/aunamendi) eta Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak (http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm)

Jose Luis Gaitan de Aiala markinarrak hauteskundeen lehen bueltan 24.726 bozka lortu zituen eta bigarrenean 21.488 (Granja, 1986: 550 eta 563), eta Martínez de las Rivas monarkikoak 22.089 boto lehen bueltan eta 19.409 bigarrenean. Jose Luis de la Granjak dioen legez, Jose Luis Gaitan de Aialak ahal izan zituen amarru guztiak erabili zituen Martínez de las Rivas-ek baino boto gehiago eskuratzeko: «En Vizcaya-provincia, la derecha aumentó cerca de 4.000 votantes, triunfando en el extremo occidental de las Encartaciones y en el Durangesado. Fue la lista más votada en Arbacegui y Gerricaiz, donde ocho caseros fueron desahuciados en vísperas de los comicios. Llama la atención la considerable ventaja lograda por el candidato tradicionalista sobre el monárquico, que se debió a los manejos caciquiles realizados por Gaitan de Ayala para salir elegido diputado. Gaitan de Ayala dispuso a sus criados para que en su feudo de Marquina no obtuviese un solo voto su compañero Martínez de las Rivas. La maniobra le dio resultado pues tuvo 376 votos frente a los 24 de este último[49]. En la segunda vuelta sucedió lo mismo (Granja, 1986: 560). Amarruak amarru, Jose Luis Gaitan de Aialak galdu egin zituen hauteskundeak, eta Jose Antonio Agirrek lortu zuen diputatu ezarlekua.

Estatuan, Herri Fronteak irabazi zituen hauteskundeak, baina eskuindarrek ez zituzten emaitzak onartu, eta, ondorioz, militarrak estatu kolpea antolatzen hasi ziren. Errekeeteek ere entrenamendu militarrak ugaritu zituzten. Zenbait historialariren arabera, Bizkaian, 3.200 errekete inguru ari ziren borrokarako prestatzen (Talon, 1988: 88). Du-

[49] Nire datuen arabera, lehenengo bueltan, Jose Luis Gaytan de Ayalak 376 boto lortu zituen Markinan, eta Martínez de las Rivas-ek 22.

rango inguruan, 200 tradizionalista baino gehiago omen zeuden militarki prestatuta altxamenduaren zain, eta Durangon, Zabalaundin eta Urkiola inguruan entrenatzen zuten (Irazabal, 2007: 7 eta Irazabal, 2001: 19). Badirudi Ondarroako erreketeak ere entrenatzen aritu zirela[50].

Aurretik ere esan dut, baina gure herrian bazegoen errekete talde bat, eta, pentsa daitekeena da, 1936ko otsailetik aurrera, gutxi edo asko, estatu kolperako prestatzen aritu zirela. Izan ere, badakit armak, buruzagiak eta nolabaiteko antolaketa zutela. Are gehiago, badirudi gazte errekete batzuek bazekitela altxamendua gertatuko zela, uztailaren 18an, herritik kanpo zeudelako, eta gero erreketeekin aritu zirelako borrokan. Alegia, altxamendua gertatu aurretik ihes egin, eta, 1936ko irailaren 21etik 1937ko apirilaren 27ra, Markinako Frontean borrokatu zuten, erreketeen tertzioetan integratuta. Lan asko egin omen zuten militar matxinatuei bideak erakusten, orografiari buruzko aholkuak ematen eta errepublikarren aurkako erasoetan parte hartzen. Hauetariko batzuk Alejandro Gaitan de Aiala babesten ere aritu omen ziren, frontearen beste aldera pasatu zenean.

1936ko ekainaren 15ean, erreketeak eta eskuindarrak matxinadarako prestatzen ari ziren sasoian, Jose Sagarna abadeak Larruskain utzi eta Berriatura aldatzeko agindua hartu zuen Gotzaindegitik. Bere tokia Joseba Andoni Urresti ondarrutarrak hartu zuen (Euzko Apaiz Taldea, 1981: 281). Josek bezala, Anbrosio Mallukizak, Hilario Aretxabaletak, Joan Loiolak, Zelestino Onaindiak, Jeronimo Sanchezek, Ramon Zuazok, Bonifazio Egurrolak, Jose Peñagarikanok Bizenta Atxurrak, Domingo Ibarluzeak, Migel Iturraranek, Patxi Baskaranek eta Bittor Jose Alegriak ez zuten inola ere pentsatzen urte beteren buruan fusilatuko zituztela.

[50] Santi Meabek Jose Maria Arbex Gussi militar ohia salatu zuen, Ondarroako erreteak entrenatzen aritzeagatik (Talon 1988: 880).

II
1936KO UZTAILA - ABENDUA: GERRA ZIBILEKO LEHEN HILAK

> «Al día siguiente, pasaba por mi pueblo una carrera ciclista, y la gente joven se echó al Prado para presenciar el paso de los corredores. No se pensaba en guerras»
>
> ALBERTO ONAINDIA
> *Hombre de Paz en la Guerra* (1980: 19)

Markina eta Xemein herri txikiak ziren gerra piztu zenean. 1936an, Markinak 1.898 biztanle zituen eta Xemeinek 1.347 (Euzkadi, 1936-12-20). Hala ere, giro politikoa eta soziala oso nahastuak zeuden. Horrenbeste bozketa, mitin, eztabaida eta istiluren ostean, haserre eta amorru asko zeuden ideologia desberdinekoen artean, eta kohesio soziala erabat ahuldurik zegoen.

Banaketen gainetik, baina, herritar gehienak ahal zuten bizitza normalena egiten saiatzen ziren. Astean zehar, gogor lan egiten zuten baserrian edota fabriketan, eta, igandetan eta jai egunetan, aisialdiaz disfrutatzen saiatzen ziren. Zehar kaleko Batzokian, Jose Martinen batzar toki, jolasleku eta kafetegian edo Artibai kaleko eskolan, guztientzako antzerki emanaldiak eskaintzen ziren. Gizonak Markinako alde zaharreko zein auzoetako taberna edota sagardotegietan elkartzen ziren, eta, eguenetik igandera, Zehar kaleko «Cine Marquines»-en pentsaera askotako herritarrak biltzen ziren. Desberdintasunen gainetik, jendeak bat egiten zuen elizkizunetan, tabernetan edo kirol ikuskizunetan.

Egia da tradizionalisten, abertzaleen, sozialisten eta errepublikazaleen arteko harremanak nahiko gaiztotuta zeudela, eta lehia politiko izugarria zegoela, baina, biztanle gehienek eguneroko bizimodua aurrera ateratzea zuten helburu, baita, ahal zuten neurrian, aisialdiaz disfrutatzea ere. 1936ko uztailean, errekete gutxi batzuk kenduta, inork ez zuen gerratan pentsatzen.

2.1. **1936ko uztaila - iraila: lasaitasuna herrian**

Militarren altxamendua uztailaren 17an gertatu zen, baina markinar eta xemeindar gehienek uztailaren 19an, igandean, izan zuten gertatzen ari zenaren berri. Prentsak zioen Gobernuak dena kontrolpean zeukala, eta Espainian erabateko lasaitasuna zegoela.

Herritarrak Karmen jaietan murgildurik zeuden aste bukaera horretan, eta gutxi izan ziren altxamenduarekin arduratu zirenak. Jendea estatu kolpearekin baino gehiago arduratu zen jaien egitarauaren baitan igande arratsalderako antolatuta zegoen bizikleta laster-

ketarekin edo gauean frontoian egingo zen erromeriarekin (Onaindia, 1937: 3). Jose Maria Arizmendiarrietak (Markina, 1915 – Arrasate, 1976) eta bere lagunek, adibidez, ez zioten garrantzi gehiegirik eman altxamenduari. Oraindik ahantzi gabe zuten Sanjurjo jeneralak 1932an antolatu zuen estatu kolpe saioak huts egin zuela (Molina, 2005: 138).

Herritar gehienak lasai zeuden, eta uztailaren 19an, pozik atera ziren kalera, txirrindulari lasterketa ikustera (Onaindia, 1980: 19). Hala ere, lasterketaren ibilaldia aldatu egin behar izan zuten antolatzaileek, Eibarren iskanbilak zeudelako, eta bertatik pasatzea ezinezkoa zelako. Orduan ohartu ziren markinar eta xemeindar asko zerbait larria gertatzen ari zela.

Aparteko egoera zela ikusirik, udal agintari tradizionalistek kanpotarren autoak herritik ateratzeko agindua eman zuten, eta jendeak bizkor ihes egin zuen etxera, zerbait larria gertatuko zela pentsatuta (Onaindia, 1937: 3). Hala ere, Markina lasai zegoen iluntzean, eta erromeria arazorik gabe egin ahal izan zen frontoian. Herritarrak bertara zihoazela, Zubiaga prokuradoreak, badaezpada, hanka egin zuen herritik. Sozialistek, bere aldetik, erromeria utzi eta bilera egin zuten, abagunea aztertzeko.

Herritar gehienak ez ziren arduratu, baina militar matxinatuek argi adierazi zuten nolako guda izango zen. 1936ko uztailaren 19an, markinarrak eta xemeindarrak txirrindulari lasterketa ikusten ari zirenean, zera esan zuen Mola jeneralak, Iruñeako Gaztelu Plazan, milaka erreketeen aurrean: «Izua erein behar da… mendekotasun sentsazioa utzi behar da, guk bezala pentsatzen ez dutenak eskrupulorik gabe desagerraraziz…» (Mola jenerala, Iruñea, 1936ko uztailaren 19an). Markinarrek eta xemeindarrek ez zekiten asko zer zetorkien gainera.

Altxamendua gertatu eta berehala, gobernu errepublikarra militar matxinatuei aurre egiteko antolatzen hasi zen, eta uztailaren hogeian, astelehenean, Bizkaiko Gobernadore Zibilak, Jose Etxebarria Novoak, Santiago Meabe (Bilbo 1878 – Bilbo, 1961) sozialista bere delegatu izendatu zuen Markinako Barrutian; baita Markinako eta Ondarroako Errepublikaren Aldeko Batzordeko lehendakari ere (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 144; eta Camino, 1985: 89)[1].

Gerra hasi eta lau egunetara, uztailaren 22an, hegazkin frankistek Otxandio bonbardatu zuten. Gizarte zibilaren aurka hegazkinez egin zen historiako lehen bonbardaketa izan zen. 58 pertsona hil ziren, eta hainbat zauritu zituzten. Frankistek esan zuten hildakoak gudariak eta milizianoak zirela, baina, egiatan, eraildako gehienak umeak eta emakumeak ziren (Irazabal, 2007: 10). Bonbardaketa honek oihartzuna izan zuen, eta herritarrak gerra batean sartuta zeudela konturatu, eta gehiago arduratzen hasi ziren.

---

[1] Iñaki Goioganak dioen bezala (Goiogana, 2010: 74): «Gerra hasi eta ia batera Bizkaiko gobernadore zibilak, Echevarria Novoak, Markinako ordezkari izendatu zuen. Bazegoen horretarako nahiko arrazoirik. Batetik, bere aspaldiko militantzia abertzalea eta orduko kidetza sozialista. Argi zegoen matxinoen kontrakoa eta Errepublikaren Aldekoa zela eta, bestetik Xantyren Lea-Artibairekiko lotura. Bizkaiko ekialde hori zen, beharbada, lurraldeko eremurik nekazariena edo, beste era batera esanda, gutxien industrializatuena izango zen orduan. Baziren han, gainera, matxinoen aldeko jende multzo batzuk, esaterako Ondarroako erreketeak edo Markinako monarkikoak. Kontuan izan behar da gainera, Ondarroako karlistak matxinatu egin zirela, nahiz eta laster amaitu errebolta. Egoera horretan Echevarria Novoak bere erako buruzagi askorik ez zeukan aukeran.

Meabe bai. Jatorriz, meabetarrak lekeitiarrak ziren eta Xanty Bilbon jaioa izan arren, Lekeitio eta Ondarroarekin harreman handia zeukan. Gazte-denboran, udaldietan-eta, Lekeitiora joaten zen, eta bertan ikasi zuen euskara, Resurrección Azkuek irakatsita. Bestalde, emaztea ondarrutarra zuen eta ezkonduz gero hara joaten hasi zen atseden hartzera. Gainera, inguruko kontserba enpresatako ordezkari ere bazen. Beraz, Markina inguruko lurraldean erabat errotutako pertsonaia zen Santiago Meabe.

Bere kargu zegoen eremua, gaur egungo Lea-Artibaiko eskualdeaz gain, Durangaldeko Mallabi eta Garaik ere osatzen zuten».

Bereziki tradizionalistak kezkatuta zeuden, euren usteen aurka, altxamenduak huts egin zuelako Bizkaian eta Gipuzkoan. Gainera, «mugimendu nazionala» hasi eta egun gutxira, miliziar ezezagunak ikusten ziren herrian, pistolak eta armak agerian zituztela, eta izututa zeuden.

Egoera nahasi honetan, Markinako alkate tradizionalistak, Jose Luis Gaitan de Aialak (1907 - 1993), beldurtuta, ihes egin zuen, etxeko lorazainak, Anakleto Txurrukak, lagunduta. Uztailaren 24rako, alkatea desagertuta zegoen[2].

Jendeak pentsatu zuen frankisten partera, hau da, Nafarroara, alde egin zuela, baina Xemeingo eta Aulestiko baserri batzuetan ezkutatu zen (Txepetxabixe, Gabaro, Lauzirika, Larrus…), 1937ko otsailean atxilotu zuten arte.

1936ko uztailaren 24an, miliziar ezkertiarrek Ondarroako Zirkulu Tradizionalistako kide batzuk atxilotu zituzten Santiago Meaberen aginduz (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 142-151), eta Markinako kartzelara ekarri zituzten preso[3]. Ondarroako Historia Zaleek zioten legez: «Entre las fechas del 24 de Julio y 27 de Agosto de 1936, el Delegado del Gobernador Civil de Bizkaia en el distrito de Markina, Santi Meabe, que además era Presidente del Comité de Defensa de Ondarroa, dice 'obligado por las circunstancias excepcionales ya que el Juez de Instrucción D. Javier Sánchez del Campo y Echenique y su secretario D. Rafael Enríquez de Salamanca y Dávila, no eran afectos al régimen republicano', y lógica desconfianza en sus actuaciones, hace comparecer 'a los recluidos en la cárcel de Markina por mi orden' a las siguientes personas del Círculo o Juventudes Tradicionalista de Ondarroa, cuyas declaraciones se realizan el 24 de Julio y 27 de Agosto de 1936, mediante atestado» (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 144). Ziur aski, uztailaren 24ko tradizionalisten atxiloketak izango ziren Jose Luis Gaitan de Aiala alkatea ihes egitera bultzatu zutenak.

Ondarroan ez ezik, Markinan eta Xemeinen ere miliziar errepublikarren mugimenduak gero eta ageriagoak ziren. Gerra piztu eta sei edo zortzi egunetara, uztailaren 24tik 26ra, Cazalis familiaren etxean, Artibai kaleko 14.ean, Errepublikaren Aldeko Batzordea hasi zen lanean, Santiago Meaberen zuzendaritzapean. Herriko eta kanpoko Herri Fronteko miliziar boluntarioez osatuta zegoen (Izquierda Republicanako kideak, komunistak eta, batez ere, sozialistak), eta bere helburua zen Errepublika babestea, ordena publikoa ziurtatzea, eta faxistei aurre egiteko frontea antolatzea.

Santiago Meabek kanpoko miliziar ezkertiar asko ekarri zituen ordena publikoa zuzentzeko, eta horrek urduritasuna eta beldurra eragin zituen herritarren artean. Hasieran, EAJ-koek ez zuten argi zein izan behar zen altxamenduaren aurrean hartu behar zuten jarrera, eta ez zuten parte hartu batzordean. Mesfidantzaz ikusten zituzten batzordeko kideak, ordena publikoaz arduratzen ziren milizianoak eta Santiago Meabe bera.

Batzordearen lehen lana izan zen Jose Luis Gaitan de Aiala alkatea aurkitzea. Horrela, alkateak ihes egin eta egun gutxira, Santiago Meaberen agindupeko miliziar talde bat Patrokua jauregian agertu zen, bera atxilotzeko helburuarekin. Ordurako, Jose Luis Gaitan de Aiala alkatea ondo ezkutatuta zegoen, Xemeingo baserri batean.

Hemendik aurrera, Jose Luis Gaitan de Aiala alkate tradizionalistaren atxiloketa lehen helburu bihurtu zen Santiago Meaberentzat eta bere mende zeuden ordena publikoko

---

[2] Barroeta dorretxean jatorria zuen Jose Luis Gaitan de Aialaren ihesaldian oinarrituta, Bernardo de Arrizabalaga idazle markinarrak *Los Barroeta* izenburua duen eleberria idatzi zuen 1967an. Bertan, Markinan eta Xemeinen gerratean gertatu ziren hainbat gertaera historiko agertzen ditu. 2004. urtean, Markina-Xemeingo Udalak euskarara itzuli zuen liburua, *Barroetatarrak* izenburuarekin.

[3] Andres Gandiaga Loiola (1892an jaioa) izan zen kartzelako arduraduna, 1936ko uztailetik azarora.

milizianoentzat. Alkatearen ihesaldiari eta ezkutalekuari buruz informazioa lortzeko, 1936ko uztailaren 30rean, Santiago Meabek Markinako tradizionalista batzuen atxiloketak agindu zituen. Valentin Vallejo Corral eibartarrak eta beste 14-15 milizianok bost pertsona atxilotu zituzten: Joan Jose Baskaran Garate, Joakin Olaortua Arana, Zesar Olaortua Arana, Paulo Irusta «Kanpetxa» eta Teodoro Urtiaga Alzibar «Txillaro». Bostak Markinako kartzelan sartu zituzten, errekete taldeko kide zirela salaketapean (Onaindia, 1937).

Atxilotutakoentzat lazgarriak izan ziren kartzela egunak. Milizianoek egin zizkieten galdeketetan, tratu txarrak jasan zituzten, eta beldur asko pasatu zuten. Dena den, herritarrek (EAJ-koek, batez ere) ahalegin asko egin zituzten espetxeratuei tratu egokia ziurtatzeko, eta alkatearen ihesean inplikaturik egon ez zen jendea kartzelatik ateratzeko (Onaindia, 1937). Azkenean, ia denak askatu zituzten, hiru egunetara. Atxiloketa hauek tradizionalisten beldurra, mendeku nahia eta amorrua eragin zuten, eta tentsio une izugarriak sortu zituzten ezkertiarren eta abertzaleen artean.

Lehenengo egunak pasatu ostean, herriko alderdi politikoek matxinadari buruz zituzten jarrerak argitzen hasi ziren. EAJ-koek, Izquierda Republicana-koek eta PSOE-koek ozen adierazten zuten altxamenduaren aurka zeudela, eta Errepublikaren alde azken muturreraino borrokatzeko prest zeudela. Aurreko urteetan, eztabaida eta haserre ugari izan zituzten, baina bat egin behar izan zuten, militarren matxinadaren aurka borrokatzeko. Gerrak ez zuen beste aukerarik uzten.

Tradizionalistak eta herriko jauntxoak, aldiz, altxamenduaren alde zeuden. Nahiz eta, badaezpada, publikoki ez zuten hori adierazten, berehala babestu zuten militarrek 1936ko uztailaren 17an hasi zuten altxamendua. Are gehiago, isilean, hainbat sabotaje eta estrategia antolatu zituzten, ordena publikoko milizianoen eta Errepublikako tropen aurka. Markinako eta Xemeingo Bosgarren Zutabeak lan asko egin zuen tropa frankisten alde[4].

Nahiz eta elkarrekin bizitzen jarraitu zuten, aurkakotasun izugarria sortu zen altxamenduaren aldekoen eta aurkako herritarren artean, eta elkar zaintzen eta zelatatzen aritu ziren, fronteak iraun zuen zazpi hiletan. Elkarbizitza eta kohesio soziala guztiz zapuztu ziren, eta horrek eragina izan zuen gerraosteko errepresioan zein hurrengo urteetako herriko bizitzan.

1936ko uztailaren 31n, markinarrak eta xemeindarrak gerran sartzen ari zirela jabetzen ari zirenean, Bizenta Atxurra Gojenola - Daniela Bernabe Donearena (Xemein, 1890 – Bartzelona, 1936) moja karmeldarra fusilatu zuten errepublikarrek, La Arrabassadan (Bartzelona). Nik dakidala, Gerra Zibilean hil zen lehen herritarra izan zen[5]. Bizenta 1915ean sartu zen karmeldar misiolarien ordenan, Graciako (Bartzelona) mojagaitzan, eta 1921ean ordenatu zen. 46 urte zituen fusilatu zutenean. 2007ko urriaren 28an, beatifikatu zuten Erroman, Gerra Zibileko beste 497 martirirekin batera (Ecclesia Digital, 2007ko urriaren 23a eta Juaristi, 2010: 42).

Bizenta Atxurra hil zuten garaian, Santiago Meaberen agindupean zegoen Errepublikaren Aldeko Batzordea gazte ezkertiarrak eta errepublikazaleak militarki entrenatzen eta lubakiak egiten hasi zen, inguruko mendietan, tropa frankisten aurrerapausoa gelditzeko asmoarekin. Gazteak entrenatzen ari zela, Patxi Cazalisek tiro bat hartu zuen hankan (Garaian, 2008).

---

[4] Bosgarren zutabea deitzen zaio errepublikarrek kontrolatzen zuten zonaldeetan altxamenduaren alde eta errepublikarren aurka borrokatzen zutenen taldeari. Batzuk diote Emilio Molak asmatutako kontzeptua dela, eta beste batzuk Varela jeneralak.

[5] Bizenta Xemeingo Torremotxo baserrian jaio zen. Toki guztietan esaten da Bizenta Berriatukoa zela, baina kontuan hartu behar da Torremotxo baserria Xemein zela udalez (gaur egun Markina-Xemein), nahiz eta elizaz Berriatu izan.

Santiago Meaberen zuzendaritzapean lanean ari ziren milizianoen helburu garrantzitsua ere bazen Jose Luis Gaitan de Aiala alkate tradizionalista atxilotzea. Handik eta hemendik lortutako informazioarekin, batzordekideek bazekiten Jose Luis Xemeingo baserriren batean zegoela ezkutatuta, eta, abuztuan zehar ere, alkatearen bila aritu ziren etengabe.

Gaitandarrek ikusten zuten euren anaia edo semearen atzetik zebiltzala, eta milizianoek egin ahal zietenaren beldur ziren; Patrokua jauregiko bizilagunak oso presionatuak sentitzen ziren. Abuztuaren 14an, Jose Luis alkatearen anaia Fernando Pedro Onaindiaren etxean (Alberto Onaindiaren anaia) agertu zen, ezkutatzeko erregutzen. Onaindiatarrak Goiko Portalean bizi ziren, bigarren pisuan, eta berbertan gorde zuten egun batzuetan, eta gero Gabaro baserrira ihes egiten lagundu zioten. Bere anaia Jose Luisi bezala, Anakleto Txurrukak, etxeko lorezainak, lagundu zion ihesaldian (Onaindia, 1937).

Alejandro Gaitan de Aialaren hirugarren semeak ere, Joakin Gaitan de Aialak, abuztuaren 14an egin zuen hanka, eta, Xemeingo hainbat baserritan ezkutatuta ibili ostean, frankisten aldera pasatu zen, 1936ko abenduan, bere anaia Fernandorekin batera.

Nire ustez, Gaitandarren aitak, Alejandro Gaitan de Aialak, ere abuztuaren 14an ihes egin zuen Patrokua jauregitik. *Los desastres de la guerra civil* (Azcona, 2007: 28) liburuan esaten den legez, 1936ko abuztuaren erdira arte egon zen Markinan, eta gero desagertu egin zen. Alejandro Txepetxabixe baserrian ezkutatu zen, eta, 1937ko urtarrilean, frontearen beste aldera pasatu zen, Markinako Margariten buruarekin batera, hau da, Dolores Alkortarekin (Onaindia, 1937).

Alejandro Gaitan de Aialaren andrea, Maria Juliana Costa Anunzibai, eta hauen alaba, Maria Gaitan de Aiala «Torreko Baronesa» (Markina, 1913 – Zentroniko, 2010) eta seme Luis Felipe (Markina, 1908 – Sevilla, 1976) ere abuztuaren erdian desagertu ziren.

Milizianoek zelatatzen, baserriak miatzen eta herritarren artean galdeketak egiten jarraitzen zuten, eta, beraz, Gaitandarrek ihes egin osteko egunean, abuztuaren 15ean, Gaitandarrei lagundu zien Anakleto «Kleto» Txurruka (1910 - 2007) atxilotu zuten. Markinako kartzelan eduki zuten egun batzuetan, eta abuztuaren 27an, Bilbora eraman zuten. Hala ere, laster atera zen kartzelatik (Onaindia, 1937).

IX. Taula. **Tradizionalisten eta eskuindarren aurkako errepresioa Markinan eta Xemeinen (Ikus I., II. eta VII. eranskinak)**

	Errepublikarrengandik ihes egin edota ezkutatutakoak	Atxilotu, eta egun batzuetan Markinako kartzelan egondakoak	Markinako kartzelatik Bilboko kartzeletara eramandakoak	Atzerrian errefuxiatutakoak	Markinatik eta Xemeindik kanpo atxilotutakoak	Errepublikarrek fusilatutakoak
Gizonak	9[6]	20	4	–	4	4
Emakumeak	4	–		3	1	1
Umeak	–	–	–	–	–	–
Guztira	13	20	4	3	5	5[7]

Iturria: nik neuk egina.

[6] Hainbat gazte ezkutatu egin zen, frontera ez joateko. Hauek ez dira kontaketa horretan sartu.

[7] Bost hauetatik lau abade eta mojak ziren, eta Euskal Herritik kanpo fusilatu zituzten. Bosgarrena, Patxi Baskaran, Bilbon hil zuten.

Miliziar armatuek, entrenamendu militarrek, lubakien eraikuntza lanek, elikagaien eta autoen bahiketek eta tradizionalisten atxiloketek izua eragiten zuten hasieran, baina, apurka-apurka, jendea armei, milizianoei eta gerra girora ohitzen hasi zen. Anakleto preso hartu zuten egunean, abuztuaren 15ean, markinarrek eta xemeindarrek arazorik gabe eta handitasunean omendu zuten Markinako zaindaria, Xemeingo Ama Birjina. Alberto Onaindiak dioenaren arabera: «El día 15 de agosto, festividad de la Asunción, se celebró con toda solemnidad el día de la Patrona de nuestra parroquia de Xemein, se cantó una misa de Perosi a tres voces y, luego, paseamos en el Prado con la paz de siempre. Fue allí donde por primera vez, el sacerdote Barrenechea[8], a quien sus paisanos le conocían con el sobrenombre de «Katxu», nos hizo una amplia relación de matanzas y crímenes registrados en la zona gubernamental o republicana» (Onaindia, 1980: 21).

Tradizionalisten eta Gaitandarren ihesaldian nahastuta egon zitezkeen pertsonen atxiloketak kenduta, markinarrek eta xemeindarrek ez zuten borrokaldirik ezagutu 1936ko uztailean eta abuztuan. Miliziar armatu anitz zebilen herrian, gora eta behera, indar erakustaldiak egiten, baina, oro har, giroa nahiko lasaia zen abuztuaren erdi aldean (Onaindia, 1937). Horren lekuko da Karmengo komentuko fraideak betiko bizimodua-rekin jarraitu zutela, nahiz eta, badaezpada, balioko gauza batzuk gorde zituzten (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 379; eta Urkiza, 1992: 287). Bestalde, uztailean eta abuztuan zehar, oso gutxi izan ziren mobilizatutako gazteak (hiruzpalau errekete eta ezkertiar gutxi batzuk), eta, ondorioz, frontean ez zen herriko inor hil. Arestian esan bezala, 1936ko uztailean eta abuztuan, herritar bakar bat hil zuten: Bizenta Atxurra moja karmeldarra; baina Bartzelonan hil zutenez, bere heriotzak oihartzun gutxi izan zuen bere herrikideengan. Gainera, abuztuaren hastapenean, herritarrek ez zuten Estatuan gertatzen ari ziren sarraskiei buruzko informazio garbirik, ezta Gipuzkoan gertatzen ari zenari buruzkorik ere, eta horrek ere giroa baretzen zuen.

Gauzak abuztuaren erdi inguruan hasi ziren aldatzen. Herritarrek bazekiten Gipuzkoan gogor borrokatzen ari zirela, jende asko hiltzen ari zela, eta guda lerroa gerturatzen ari zela; eta urduritzen hasi ziren. Alberto Onaindiak zioen legez: «Resultaba difícil hacerse una idea exacta de lo que acontecía en diversas capitales y provincias del Estado. Las primera noticias de asaltos, tiroteos, combates callejeros, prisioneros y muertos llegaron de San Sebastian. La bella capital de Guipúzcoa era escenario de graves choques y de encuentros sangrientos. Donato de Ugartechea nos trajo un día noticias frescas de Donostia. Venía aturdido y asustado de cuanto había podido presenciar. Así pasamos varios días y hasta semanas. El 12 de agosto vino a casa, desde Elgoibar, mi hermano Celestino[9], coadjutor de aquella parroquia, y nos trajo más confirmación de ataques de grupos navarros contra localidades de la frontera de Guipúzcoa. Ya se hablaba de violencias de parte de los carlistas» (Onaindia, 1980: 20-21).

Badaezpada, jendea txarrenerako prestatzen hasi zen, abuztuaren erdi inguruan. Jose Maria Arizmendiarrietaren amak, Iturbe baserriko etxekoandreak, Tomasa Madariagak, berbarako, hainbat gauza erosi zituen etxerako, Gipuzkoa ingurutik zetozen berri txarrek bultzatuta. «Abuztuaren 15ean, Jasokunde egunean, Markina bakean zegoen, baina berri txarrak zetozen kanpotik: izugarrizko borrokak omen ziren Donostia aldean,

---

[8] Valeriano Barrenetxea Arrate – Simon Ume Jesusena (Markina, 1907 – Tenerife, 1973) fraide karmeldar bihurtu zen 1931n, baina 1955. urtean, sekularizazio indultua lortu zuen (Unzueta eta Izpura, 2001: 486).

[9] Zelestino Markinara etorri zen abuztuaren 12an, biharamunean, bere urtebetetzea zelako; 38 urte egiten zituen eta etxekoekin ospatu nahi zuen egun hori. Gehiago ez zuen bere familia ikusiko.

eta indarkeria iraultzailea nagusitu omen zen Errepublikaren aldeko euskal herri eta hirietan. Garai horretan, Tomasa esku-diruaz libratzen hasi zen, eta abereak, mahai-tresneria eta nekazaritza-lanabesak erosten. Erabaki hori funtsezkoa izan zen, laster helduko zen garai zailean familiak aurrera egiteko» (Molina, 2005: 139).

Abuztuaren 27an, Santiago Meaberen aginduz, milizianoek Ondarroako tradizionalista gehiago atxilotu, eta Markinako kartzelara ekarri zituzten (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 142-151). Horrek herritarren, beregainki tradizionalisten, urduritasuna eta ezinegona areagotu zituen.

Atxilotu zituzten egun berean galdekatu, eta Bilboko kartzelara eraman zituzten. Hauekin batera eraman zuten Bilbora Anakleto Txurruka markinarra. Abertzaleak beldur ziren espetxeratuei zerbait txarra gertatu ahal zitzaiela, eta Bilboko kartzeletara eramatea eskatu zuten. Abertzaleek egin zuten presioaren ondorioz, Anakleto egun gutxira bueltatu zen etxera (Onaindia, 1937).

Bizkaia bakean zegoen irailaren hasieran, baina Gipuzkoan gertatzen ari ziren borroketatik ihesi, gero eta errefuxiatu gipuzkoar gehiago zetorren. Irailaren 4an, frankistak Irunen sartu ziren, eta egun batzuk geroago, 1936ko irailaren 6aren bueltan, gipuzkoarren lehen ihesaldi handia ikusi zuten markinarrek eta xemeindarrek. Jendea zur eta lur zegoen horrenbeste jende gerratik eta soldadu nazionalengandik ihesean ikusita. Jose Mari Rekaldek zioen legez (Garaian, 37, 2005): «…handik egun batzuetara, jendea etorri zan kamioietan eta hemendik pasetan ziran, negarrez. Esan eben Irun bonbardatu egin ebela eta handik etorrela jendea. Nik Joanita Urkizaren aitaren eta amaren etxeko balkoitik ikusi neban, arkupeko etxeetan, zelan jendea pasetan zan gerratik ihesi». Ihesaldi hauek zer pentsa asko eman zieten herritarrei. Asko hitz egiten zen erreketeek hartzen zituzten herrietan egiten zituzten atxiloketei eta fusilamenduei buruz, eta jendeak beldurra zuen erreketeak sartu ostean gertatu ahal zitzaienagatik.



Argazkia: herritar batek emandakoa
Domingo Ibarluzea (Markina, 1906 - Las Casas, Ciudad Real, 1936): Josulaguna. Ciudad Realen atxilotu zuten errepublikarrek 1936ko abuztuaren hamazortzian, eta irailaren zortzian fusilatu zuten.

1936ko irailaren 8an, markinarrek eta xemeindarrek errefuxiatu gipuzkoarren lehen ihesaldi handia ikusi zuten garaian, Domingo Ibarluzea Oregi (Markina, 1906 - Las Casas, Ciudad Real, 1936) fusilatu zuten Las Casas-en. Gerra Zibilean hil zen bigarren herritarra zen. Bizenta Atxurra bezala, Domingo ere erlijiosoa zen, eta errepublikarrek erail zuten, Euskal Herritik kanpo (López Pego, 2003: 57-63 eta Alia Miranda, 1994: 241-243)[10].

[10] 1932an, Errepublikako gobernuak Josulagunen ordena desegin zuen, eta hauetariko askok atzerrira ihes egin zuten. Gelditu ziren josulagunen artean, errepublikarrek 122 hil zituzten, eta horieta-

1936ko abuztuaren bukaeran eta irailaren hasieran, Bizkaiko Gobernari Zibilak, Jose Etxebarria Novoak, 2.780.000 pezetatako isunak jarri zizkien 25 bizkaitarri, hitzez eta egitez, frankisten altxamendua babestu zutelako, eta matxinatuei armak erosteko dirua eman zietelako (Arizaleta, 1993: 147). 25 pertsona hauen artean, Alejandro Gaitan de Aiala markinarra zegoen, 100.000 pezetetako isunarekin. Alejandro Gaitan de Aiala eta bere familia abuztuaren 14an desagertu ziren, eta, beraz, ez zuten isuna ordaindu. Ondorioz, 1936ko abuztuaren amaieran, Patrokua Jauregia bahitu zioten, eta irailaren 1ean odol ospitalea zabaldu zen bertan (Arizaleta, 1993: 148, Azkona, 2007: 28, Sebastian, 1999: 174 eta Unzeta, 1937)[11]. 1937ko martxoaren 4an, Euzkadiko Gobernuak Alejandro Gaitan de Aialaren ondasun guztiak bahitu zituen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 5-3-1937an argitaratua).



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa. Errepublikarrek 1936ko abuztuan bahitu zuten Patrokua Jauregia, eta irailaren batean odol ospitalea zabaldu zuten.

Alejandro Gaitan de Aialak ez ezik, bi herriotako beste hainbat tradizionalistak ere Errepublikaren Aldeko Batzordeak jarritako isunak ordaindu behar izan zituzten, «faxista» salaketapean. Besteak beste, isuna ordaindu zuten Dolores Alkorta Zuluetak eta bere senar, Jose Urkizak, Zezilio Bustindui Plazak (1886 - 1955), Rikardo Urkietak, Alejandro Duraldek, Jeronimo Mendibek, Roberto Bustingorrik eta Rafael Urbietak. Horrez gain, dendariak eta herriko aberatsenak ere aparteko zergak ordaintzera behartu zituzten, eta milizianoak etengabe aritu ziren fronterako janaria, arropak, abereak edo autoak bahitzen.

---

riko 52 beatifikazio prozesuan daude momentu honetan. Domingo Ibarluzea Oregi horietariko bat da. Domingoren anaia Benito (1919 - 1939) ere Gerra Zibilean hil zen.

[11] Herri Fronteak Donostian argitaratzen zuen informazio orokorreko berripaperak zera zioen 1936ko irailaren 12an (Herri Frontea, Informazio Orokorra, 1936-9-12: 5): «Se imponen multas por valor de cerca de tres millones de pesetas. Los sancionados son monárquicos significados que prestaron su concurso al movimiento revolucionario… Los sancionados deberán ingresar en el plazo de tres días las multas impuestas, pues de lo contrario se procederá a la incautación total de todos sus bienes personales, habiéndose dirigido una circular a las entidades bancarias, a fin de que se proceda a la retención e impida la extracción de cuanto los multados posean en cuentas corrientes, depósitos, cajas de custodia, etc. La providencia dice que todas las personas han hecho manifestaciones no sólo verbales y públicas, sino que llegaron a acudir con cantidades diversas a los diferentes partidos hoy en rebeldía, cantidades que se dedicaron a la compra de armas».

Zerga, bahiketa eta isun hauek tentsio handia sortu zuten, eta herritar batzuk atxilotu ere egin zituzten, hauen aurka agertzeagatik edota ordainketei uko egiteagatik. Jerardo Ibarluzea «Itsulapiko» dendariak, adibidez, eztabaida sutsua izan zuen milizianoekin, eta ez zuen dendariei jarritako zerga ordaindu; ondorioz, gau bat kartzelan pasatu behar izan zuen.

Era honetako liskarrek argi erakusten dute, nire ustez, Santiago Meaberen agindupean zeuden milizianoen eta herritarren artean (bereziki EAJ-ko herritarren artean) tentsio izugarria zegoela.

2.2. **1936ko irailaren 21a eta urriaren 4a: frankistak Markinako eta Xemeingo mendietan**

Uztaila, abuztua eta irailaren lehen hiru asteak nahiko lasaiak izan ziren, baina irailaren 21ean, gauzak guztiz aldatu ziren.

Irailaren 4an, Errepublikaren aldeko soldaduek Irun galdu zuten, irailaren 13an Mola jeneralaren tropak Donostian sartu ziren, eta irailaren 21ean, Gipuzkoa ia osoa bereganatu ostean (Eibar eta Mutriku izan ezik), matxinatuak San Migel, Kalamua eta Urkaregi inguruan zeuden.

Francoren tropak gelditu gabe zetozen Bizkaia konkistatzera, baina, irailaren bukaerako eta urriko lehen egunetako milizianoen eta gudarien kontraerasoek (Asterrikan, Kalamendin, Berriatun, Akarregi mendian, Kalamuan, Eibarren, Intxortetan…) bidea itxi zieten matxinatuei, eta Berriatu ingurutik Kanpanzarrera arte, frontea mugitu gabe egon zen zazpi hilabetez; hain justu ere, 1936ko urriaren hasieratik 1937ko apirilaren azkenetara (Beldarrain, 1980). Frankistei bidea ixtearen ondorioz, Bilboren defentsa antolatu ahal izan zen, baita lehen Eusko Jaurlaritza eratu ere.

Irailaren 21ean, urduritasuna eta beldurra nagusitu ziren markinarren eta xemeindarren artean. Jendeak pentsatu zuen erreketeak berehala sartuko zirela, eta, izututa, herritar askok ihesari ekin zioten 21etik 22rako goizaldean.

Erantzukizun politikoren bat zuten ezkertiar eta abertzaleek frankisten jazarraldiaren beldurra zuten, Gipuzkoan gertatu ziren fusilamendu eta atxiloketen berri zutelako, eta berehala desagertu ziren. Gazte askok ere ihes egin zuten, pentsatzen zutelako erreketeek eurekin eramango zituztela frontera. Herriko Guardia Zibilak ere, badaezpada, gau horretan pasatu ziren frankisten aldera. Alberto Onaindiak dioen bezala: «Después de la caída de Donostia entraban sin resistencia los militares en las villas y pueblos gipuzkoanos. Llegaron a Elgoibar el día 21 de septiembre y ese día evacuó Markina en parte muy considerable sobre todo en la parte de la juventud.

Al mediodía del día 21 llegaron dos docenas de mendigoizales a Markina a ver el convento de los P.P. Carmelitas con vistas a instalarse en él. Se les recibió con cariño. En nuestra casa comieron dos en el segundo piso y tres en el primero. El pueblo cobró confianza ante la presencia de los mendigoizales, ya que se conocían las actuaciones heróicas de los jóvenes abertzales en otros pueblos de Gipuzkoa, consiguiendo evitar los desmanes de los rojos.

Al anochecer llegó la gente de Elgoibar con todos los dirigentes de partidos políticos y municipales. Habían entrado los requetés en Elgoibar y en la madrugada del siguiente día entrarían en Markina.

Era lunes, día de evacuación, ya que ha habido en Markina tres intentonas de evacuación en tres lunes y al fin la verdadera y definitiva evacuación tuvo lugar también un lunes.

La madrugada del 22 salió en masa toda la juventud de Markina sin dirección ni rumbo fijo. Unos a Lekeitio, otros a Murelaga, quien hacia Gernika quien a la parte de Bolibar. Como se creía que la contienda no duraría, todos creían bastaría con esconderse durante algunos días y luego al llegar la paz regresar al pueblo. Muchos jóvenes estuvieron escondidos en Zapola-mendi.

Durante la noche del 21 al 22 hubo vigilancia en las calles a cargo de un grupo de mendigoizales que llegaron de Saturraran. A la mañana siguiente no había ni mendigoizales, ni guardias civiles, porque los mendigoizales obedeciendo a órdenes de sus superiores desalojaron el pueblo y los guardias civiles se pasaron en masa a los facciosos por el Alto de Urkaregi» (Onaindia, 1937: 7).

Markinako eta Xemeingo hiriguneetatik oso hurbil zeuden erreketeak (oinez 20 minututara), eta, ondorioz, irailaren 21ean, herriko bizimodua goitik behera aldatu zen. Elgoibartik gazte abertzale asko etorri zen ihesean[12]; eta Bilbo ingurutik, hainbat miliziar errepublikazaleak. Gerra hasi zenetik lehen aldiz, gerra giroa nabari zen herrian.

Matxinatuei aurre egiteko helburuarekin, irailaren 22an, Asaltoko Guardiak eta miliziar batzuk (40 bat) Kalamua, Urkaregi eta San Migel inguruko tontorretara igo ziren. Egun horretan bertan, miliziar eta gudari gehiago heldu ziren Markinara, eta, agintari militar eta zibilek jakinarazi zuten hurrengo egunetan, soldadu gehiago ailegatuko zirela, eta horientzako ostatuak atondu behar zirela. Irailaren hirugarren astean, bestalde, errepublikarrek fusilak eta munizioa lortu, eta frankistei aurre egiteko baldintzak hobeagotu zituzten. Irailaren 22tik 23rako goizaldean, armatutako 400 bat miliziar agertu ziren herrian (Onaindia, 1937: 7).

Miliziar eta gudariei ostatua emateko, intendentziarako edota gerrako materiala gordetzeko eta konpontzeko, Errepublikaren Aldeko Batzordekideek herriko hiru eraikuntza handienak erabilpen militarrerako bahitu zituzten:

– **Karmengo komentua**: Markinako fraide karmeldarrek irailaren 22an hartu zuten komentua uzteko agindua; intendentzia eta Errepublikaren aldeko tropen kuartela jarri behar zituztelako bertan. Julen Urkizak dioen legez: «Herriko sozialistek, Markinako eraikin hoberenak tropentzat uzteko agintzen zuen Bizkaiko Gobernadorearen agindu bat zutela aurkeztu ziren komentuan. Ondorioz, erlijiosoek komentua utzi behar izan zuten» (Urkiza, 1992: 287). Fraideek eskatuta, une hartan herrian agintzen zuen komiteak itxi eta zigilatu egin zituen eliza, sakristia, korua eta biblioteka (Urkiza, 1992: 288). Fraideek euren jaiotetxeetara edo inguruko baserri eta etxeetara bizitzera joan behar izan zuten. «Hurbilekoak zirenak bakoitza bere etxera joan ziren; gainerakoak Amoroto, Bolibar eta Markinako baserri ezberdinetan zehar banatu ziren. A. Zezilio eta A. Urbano Olabe baserrian. Beste

[12] Ansola anaiak, adibidez, irailaren 21ean heldu ziren Elgoibartik Markinara. Erreketeak irailaren 21eko arratsaldeko 18:30etan sartu ziren Elgoibarren, eta Ansolatarren ama Markinarra zenez, Askurrinaga Goikoa baserrikoa, amaren jaiotetxera etorri ziren, frankistengandik ihesi. Batez ere Jose Ansola oso inplikatua zegoen Elgoibarren, abertzalea eta ELA sindikatuko kidea zelako, eta, beraz, frankisten errepresioaren beldur zen. Ansolatarren aita, Laureano Ansola, atxilotu egin zuten berehala, eta erreketeen txapel gorriarekin ibiltzera behartu zuten. Ez zioten uzten Elgoibartik irteten. Alaba bat, Joanita Ansola Zelaia, Alzolako bainuetxea garbitzera behartu zuten hainbat egunetan. Izan ere, bertan jarri zuten frankistek ospitalea eta kuartela. Ansola anaiak Markinako Ordena Publikoan aritu ziren urriaren bigarren erditik aurrera, eta 1936ko azaroan, Esperanza enpresarekin joan ziren Zamudiora lan egitera. Hauen ama eta hiru ahizpak hauekin joan ziren bizitzera Zamudiora, 1937ko abuztuan. Aita eta Altzolako bainuetxea garbitzera beharturik zegoen alaba, Joanita, Elgoibarren gelditu ziren bizitzen.

bi Txarakan ere bai. A. Zeziliok eskerronez gogoratzen du Olabeko egotaldia. Hango guztiek bi karmeldarrekin izan zuten portaera ezin hobea izan zela diosku; etxekoandrea bereziki eurentzat ama bat bezain txeratsu eta bihotz oneko izan zela. San Jazinto baselizan ematen zuten meza egunero; igandeetan hitzaldi eta guzti. Auzune hartatik eta inguruetatik jende asko biltzen omen zen. Aitortzak ere egiten zituzten, jendea erruz Markina barrutik eta urrunagotik ere Olabeko karmeldarrekin aitortzera San Jazintora joaten zelarik. Baina jendeari erlijio aldetik lagunduz eta on eginez sekulako pozen zeudela, auzo honetako neska batekin ezkondurik zegoen eibartar bat etorri eta ermitaren arduraduna heriotzarekin mehatxatuz ermita ixteko agindua ematen dio. Hala jakin erazi zion A. Zeziliori ermitaren arduradunak: ermita itxi beharra zuela, gaizkin haren mehatxuak egia bihurtu ez zitezen. Gizona lasaitzen ahalegindu ziren gure karmeldarrak. Inorentzat arriskubide ez zutela izan nahi eta, nahigabez, baina beste etxe batetara joango zirela. Egon ere, arriskuz inguraturik zeuden orduan eta edozein aitzakia aski izaten omen zen gizona garbitzeko» (Garaian, 5, 1989: 39-40).

– **San Jose Komentua (Beheko mojak)**: Beheko mojek 1936ko irailaren 27an hartu zuten komentua uzteko Bizkaiko Gobernadorearen agindua (Baraiazarra, 2011). 16-21 moja inguru bizi ziren komentuan, eta kasu honetan ere, ahal zutenak euren jaiotetxeetara joan ziren, eta besteak herritarren etxeetan banatu ziren. Fraide karmeldarren bitartez, moja batzuek Larrea auzoko (Amorebieta-Etxano) Santosenean ere hartu zuten ostatu (Aita Rafael, 2005: 167). 1937ko uztailaren 2an bueltatu ziren komentura (Baraiazarra, 2011).
– **Mesedetako mojen komentua:** mesedetako mojek ere 1936ko irailaren 22an hartu zuten komentua uzteko deia. 17 bat moja bizi ziren komentuan aldi hartan. Ahal izan zutenak euren jaiotetxeetara joan ziren, eta beste batzuk herriko familietan banatu ziren: besteak beste, bi Murgatarren jauregira joan ziren bizitzera, eta Anjeles Urkidi, komentuko komendadorea, Arrien medikuaren etxera.

Bizkaiko Gobernadorearen agindua tarteko, Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordeak beste eraikin batzuk ere bahitu zituen, kuartel, komandantzia, intendentzia edota odol ospitale bihurtzeko:

1. **Areizaga jauregia**: milizianoek hartu zuten, kuartel bezala erabiltzeko. Dena den, badirudi jabeak, Joan Karlos Areizagak, bertan bizitzen jarraitu zuela, eta bertan hil zela 1937an.
2. **Artibai kaleko eskola:** gerra medio, eskolarik ez zegoen, eta milizianoek intendentzia jarri zuten bertan. Errazionamendu kartilen bidez, bertatik egiten zen elikagaien banaketa. Bonbardaketa batean, eskola kaltetua gelditu zen.
3. **Erdotza jauregia**: Eusebio Garate Ugartebururena zen, «Erdoza Menor» pilotariarena. Errepublikarrek ospitale militarra eta kartzela ireki, eta Santiago baserriaren alboan, Kalamuara begira, kanoiak jarri zituzten. Gerratean, bertan bizi ziren «Erdoza Menorren» emaztea eta bi semeak, baita bere iloba Dolores Garate Bru (Lolita), honen ama, erdozatarren Donostiako ahaide batzuk eta neskameak. Lolita berbertan zendu zen, frankisten bonbardaketa batean, 1936ko urriaren 23an.
4. **Euzko-Etxea**: Zehar kalean dagoen etxe hau abertzaleek eraiki zuten kooperatiba moduan, 1933an. Euzko-Etxeako lehen pisua utzik gelditu zen 1936ko azaroan, bertan bizi zirenak Esperanza fabrikarekin Zamudiora joan zirelako lanera, eta, ondorioz, ordena publikoko soldaduen etxebizitza bihurtu zen.

5. **Frontoia**: autoak gordetzeko eta konpontzeko garaje bihurtu zen. Bonbardaketa asko jasan zituen eta oso kaltetua gelditu zen. Konpondu zen arte, 1949. urtean, ezin izan zen bertan jokatu (Bilbao, 1995: 36).
6. **Jose Martinen etxea**: gaur egun Ipar Kutxa banketxea dagoen eraikineko lehen solairuan, Jose Martinen batzar toki, jolasleku eta kafetegia zegoen. Bertan, «Acción Católica» elkartekoak biltzen ziren, 1903tik (Delgado, 2008: 85). Agintari militarrek pisu hau eta Kosme Arriolaren arrebarena bahitu zituzten, eta bertan hasi ziren bizitzen. 1936ko urrian, Santiago Meabe, Markinako Barrutirako Bizkaiko Gobernadore Zibilaren Delegatua, ere berton hasi zen bizitzen. 1937ko inauteri egunean, eraikin hau eta albokoa (Toldope taberna dagoen eraikina) erre egin ziren, Urkaregitik frankistek bota zituzten obusengatik. 1941. urtean berreraiki zuten (Garaian, 1992-10: 33).
7. **La Amistad taberna:** errepublikarrek bolborategia eta armategia jarri zuten bertan. Egun batean, obus bat Okerra kaleko atetik sartu zen, eta Osteko kaleko atetik irten zen, baina lehertu gabe. Markinako alde zaharrean bizi zirenek zorte handia izan zuten; obusa lehertu balitz, alde zaharreko etxe asko txikituko ziren, eta jende asko hilko zen.
8. **Laubegi baserria:** Bilboko bidea zen Markinatik ateratzeko bide bakarra. Elgoibarrera eta Eibarrera doazen bideak itxita zeuden, frontea berbertan zegoelako, Lekeitiorako bidea ere su biren erdian zegoen eta Ondarroa ere frankisten eskuetan zegoen. Beraz, Laubegi baserrian, kontrola jarri zuten miliziar errepublikarrek, herritik sartzen eta ateratzen zirenak kontrolatzeko. Bertan soldadu asko egoten ziren guardia egiten, eta autoak ere konpontzen zituzten. Horregatik, baserri honi «Reparación» deitzen zioten milizianoek (Garaian, 37, 2005).
9. **Munibe jauregia**: jauregi hau Antonia Maria Martínez de las Rivas Tracy-rena zen. Adolfo Urkixo Ibarraren (Bilbo, 1866 – Donostia, 1933), Urkixo eta Ospin de Urkixoko kondearen, alargunarena. Familia hau gutxi egoten zen jauregian, eta, beraz, gerrak ez zituen bertan harrapatu. 1936ko irailaren bukaeratik aurrera, milizianoek kuartel, kartzela eta odol ospitale bihurtu zuten (Garaian, 1992-11). Teilatuan, gurutze gorri bat margotu zioten, hegazkin frankistei jauregia ospitale bat zela adierazteko eta bonbardaketak ekiditeko. Horrez gain, badirudi, Agirre Lehendakariak jauregi hau aukeratu zuela 1937ko uda pasatzeko. Inazio Urkixok dioenaren arabera: «…había de sufrir también el escarnio de ser elegida como residencia de verano de aquél que se llamó, Presidente de los Vascos. La victoria de Franco, no permitió que mancillase este lugar aquel verdadero embaucador de multitudes, que aliado con los sin Dios y en un mal entendido amor al País Vasco, sembró la ruina y desesperación en todos los hogares de esta tierra» (Urkixo, 1947: 18-19).
10. **Plazido Sarasolaren etxea**: Goiko Portaleko etxe honetan, Markinako Sektoreko buru militarra hasi zen bizitzen, gerrako lehen hiletan. Santiago Meabe eta ordena publikoko milizianoak ere hemen egon ziren hasieran.
11. **Patrokua jauregia**: Gaitan de Aiala familiarena zen, baina hauek ihes egin zuten abuztuaren erdi inguruan eta, horrez gainera, Bizkaiko Gobernariak jarri zieten isuna ez zutenez ordaindu, jauregia bahitu egin zuen gobernuak, odol ospitale bat egiteko (Garaian, 11, 1992). Autore batzuen arabera, 1936ko irailaren 13aren bueltan bahitu zuten Patrokua (Arizaleta, 1993: 148, Azkona, 2007: 28 eta Sebastian, 1999: 174). Untzetaren arabera (1937), 1936ko irailaren 1ean zabaldu zen Patrokuako odol ospitale militarra (Untzeta, 1937). Ospitalea

egiteko, Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordeko kideek Gaitandarren liburutegia Bilbora eraman zuten, Gabaron ezkutatuta zegoen Jose Luis Gaitan de Aiala informatu ostean. Hala ere, erabaki hori markinar askoren aurka erabili zen, gerraondoko epaiketetan.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa.
Milizianoak atsedena hartzen, Goiko Portalean, 1936ko irailaren azkenetan.

12. **Udaletxe Zaharra:** hasieran (1936ko urrian), bertan kokatu zen errepublikarren komandantzia militarra.
13. **Uhagon etxea**: Maria Dolores Prado Uhagon andrearena (1991n hil zen Donostian) zen. Maria Dolores, Maria del Carmen Uhagonen (Markinan jaio zen 1885ean) eta Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz-en alaba (Markinan ezkonduak 1907an), Eduardo Gortazar Moronatti-rekin zegoen ezkonduta[13]. Uhagondarrak Donostian bizi ziren, baina denboraldi luzeak egiten zituzten Markinan, gehienbat udaldian. Gerrak Markinan harrapatu zituen Maria Dolores eta bere familia, eta bertatik ihes egin zuten Alzolara, eta gero Frantziara. Lehenengo Alberto Onaindiaren amaren etxean egon ziren ezkutatuta, eta Alberto Onaindiak berak lagundu zieten ihes egiten (Onaindia, 1980: 131 eta Gallego eta Pazos, 2001: 275-277). Uhagon etxea hutsik gelditu zenez, aurrenengo Avellaneda batailoiaren intendentzia bihurtu zen, eta gero Otxandiano batailoiarena. Intendentziaren ardura eramaten zuten soldaduak bertan bizi ziren, baita Uhagondarren morroiak ere.

[13] Eduardo Gortazar Moronatti Donostia eraso zuten tropa frankisten kapitaina izan zen, eta 1936ko irailetik aurrera, Kalamuako frontean aritu zen borrokan erreketeekin. Desfile militar batean hil zen Bilbon, 1962ko ekainaren 19an. Hil zenean, Garellanoko infanteriako koronela zen.

14. **Urberuagako bainuetxea:** Manuel Alonso Agirresarasuarena zen, Villafranca del Castillo-ko Markesarena (1946an hil zen Bilbon). Euskadiko gobernuak erabilpen militarretarako bahitu zuen, 1936ko urrian. 1936ko urritik 1937ko apirilera, batailoi asko koarteleratu ziren hemen. Besteak beste, Rosa Luxenburgo eta Avellaneda batailoien kuartel nagusia izan zen (Lorenzo, 1996: 185).
15. **Karmen Landetxea:** Migel Urdanpilletarena eta honen emazte Karmen Azpiri Arrizabalagarena zen[14]. Dena den, gerra hasi zenean, pentsatzen dut hutsik zegoela, eta, etxe handia izanik, bahitu egin zutela errepublikarrek. Jose Martinen etxea bonben bidez erre zutenean, 1937ko otsailaren 7an, Santiago Meabe eta bere inguruko milizianoak bertara joan ziren bizitzera, eta hor egon ziren, frankistak sartu ziren arte.
16. **Zirkulu tradizionalista:** milizianoek Zehar kalean zegoen tradizionalisten egoitza ere bahitu zuten, erabilpen militarretarako. 1936ko uztailaren 24an edo 26an, Santiago Meaberen zuzendaritzapean ordena publikoa zaintzera etorri ziren milizianoak hasi ziren bizitzen bertan.

Etxe handienak eta ederrenak bahitzeaz gain[15], tradizionalista eta eskuindar batzuen etxeak ere hartu zituzten. Besteak beste, Jose Urkiza eta Dolores Alkortaren etxea, Joan Jose Baskaran Garaterena eta Bitoriano Gurtubai Zabalarena (Onaindia, 1937: 17). Bestalde, soldaduak etxean hartzera behartu zituzten herritarrak, guztientzako bizitokiak atondu bitartean. Tokia zuten familiek janaria eta lo egiteko tokia eman behar zizkieten matxinatuen aurka borrokatzera etorritakoei.

Gudari eta milizianoentzako bizitokiak lortu baziren ere, guda lerro bat antolatzea gerlarientzako ostatua atontzea baino zerbait gehiago da. 1936ko irailaren bukaeran, ez zegoen muniziorik, janaririk edo erremintak frontera garraiatzeko modu egokirik. Intendentzia behar bezala antolatu gabe zegoen, eta aginte falta izugarria zen. Oro har, egoera nahiko anarkikoa bizi zen (Onaindia, 1937: 9).

Gerra hasi zenetik irailaren 23ra arte, Ondarroa, Markina, Xemein, Etxebarria, Ziortza eta Bolibar Santiago Meaberen agintepean zeuden; alegia, Markinako Barrutiko agintaritza zibilen eskuetan. Hutsuneak hutsune, eta arazoak arazo, Santiago Meabek eta bere mendeko milizianoek ordena publikoa, faxisten aurkako babesak eta elikagaien banaketak antolatu zituzten.

---

[14] Urdanpilleta jaunak atzerrian egindako diruekin eraiki zuen etxea, 1.900. urtearen inguruan. Gaur egun duen armarria Artibai kaleko Peñaflorida kondearen jauregitik ekarri omen zuten. Urdanpilletarengandik bere loba Jose Maria Azpiri Aldazabalen (Markina, 1905 – La Habana, 1990) eskuetara pasatu zen. Jose Azpiri Aldazabal pilotaria zen (Bilbao, 2009: 70), Kuban ezkonduta zegoen, eta bertan gelditu zen bizitzen. Ez zen inoiz bizi izan Karmen Landetxean. Larrinagatarrak 1950. urtean joan ziren bizitzera Karmen Landetxera. Hain justu ere, Karmen Azpiri hil ostean.

[15] Jauntxo ia guztien etxeak bahitu arren, nik dakidala, Murgatarren eta Mugartegitarren jauregiak baketan utzi zituzten. Murgatarrak zein Mugartegitarrak euren jauregietan bizitzen jarraitu ahal izan zuten, arazorik gabe. Murgatarrek Mesedetako moja batzuk izan zituzten etxean. Mugartegi jauregian, egon ziren bizitzen Joan Jose Mugartegi bera, bere arreba bat, Maria Arantzazu (1891n jaioa), eta honen seme-alabak: Joan Jose, Federiko, Luis Maria, Matilde, Maria Teresa, Angela eta Ignazio. Joan Jose Mugartegik informazio asko zuen gerratean ingurune honetan gertatutakoaz. Horrela, 1937ko uztailaren hogeian, behin Francoren tropak Markinan eta Xemeinen sartu ostean, bi herriotan gertatutakoari buruzko txosten bat bidali zion Valladolideko Unibertsitateko ikerketa batzordeko lehendakariari, Manuel Ferrandis Torresi (Garaian, 1994-15: 30-31 eta Valladolideko Unibertsitatea, 1938: 122-225).



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Solartekua jauregia, bonbardaketa baten ostean.

Ikuspuntu militarretik, baina, gauzak hankaz gora zeuden, irailaren laugarren astean. Antolaketa militarra oso ahula zen, lubaki eta metrailadore etxe gutxi zeuden eginak, eta logistika kontuak oso txarto zeuden.

Hala ere, irailaren bukaeran, graduko agintari militarrak etorri ziren Markinara, eta arlo militarra hobeto antolatzen hasi ziren. Soldaduentzako kuartelak eta bizitokiak behar bezala atondu ostean, 1936ko irailaren bukaeran eta urrian zehar, logistika arazoak (intendentzia, osasun zerbitzuak, babesak, garraioa…) konpontzen saiatu ziren.

Frontean zeuden gudari eta milizianoentzako janaria Karmengo fraidetxean prestatzen zen. Errepublikaren aldeko soldaduek behar zuten baino jateko gehiago zutenez, sukaldari zereginetan ari zirenek ez zuten inolako buruhausterik, eta mandoak zama astuna zutela joaten ziren soldaduei jana eramatera. Hasieran, janari asko alferrik galtzen ei zen.

Intendentziarekin batera, komunikabideak eta garraioak hobeagotu ziren. Bideak garbitu eta ireki ziren, eta abere, auto eta gurdi gehiago bahitu, elikagaiak, armak eta eraikuntza materialak fronteko lehen lerrora eramateko. Hegazkinen etorrera iragartzeko, telefonoz konektatu ziren Zapola gaina eta Markinako Udal kanpandorrea.

Agintari militarrek babeserako eraikuntza gehiago egitea ere agindu zuten. Abertzale eta ezkertiar boluntario asko joan ziren zapadore edo luebakitzaile lanetara, eta Amallo ingurutik hasita, Akarregi puntatik zehar, Kalamuaren oinetaraino eta hortik Akondia mendiraino, hau da, gutxi gorabehera Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan, hainbat lubaki, metrailadore etxe eta parapeto eraiki zituzten, tropa nazionalei aurre egiteko helburuarekin. Azkenekoz, militarrek frontetik gertu zeuden hainbat baserri ere hartu zituzten, soldaduen erabilpenerako.



GureGipuzkoa.net © CC BY-SA: Indalecio Ojanguren (1937)
Kalamuako Lubakiak

Esan bezala, agintari militar errepublikarrak irailaren azken astean agertu ziren gure herrian. Beraz, 1936ko irailaren 23tik 1937ko apirilaren 27ra, Markinako Fronteak bi eratako agintariak izan zituen: agintari militarrak eta agintari politiko-administratiboak.

Guztira, Markinako Fronteak lau buru militar izan zituen (Onaindia, 1937)[16]:

– 1936ko irailetik urriaren erdira arte, Richard izeneko pertsona bat egon zen Markinako Sektoreko buru militar lanetan (Onaindia, 1937). Nire ustez, Richard hau Rikardo Gomez García komandantea izan zen[17].
– Urritik gabon ingurura arte, Antonio Naranjo Limon komandantea egon zen agintean. Berak zuzendu zuen 1936ko urriaren 21eko Egixarreko bataila[18].

---

[16] Markinako Sektoreko buru militarrak hainbat tokitan egon ziren bizitzen: hasieran, 1936ko irailaren bukaeran, Zehar kaleko udaletxe zaharrean hasi ziren bizitzen. Gero, Plazido Sarasolaren etxean (Josune denda dagoen etxean), Markinako eskoletan (Artibai kalean) eta Jose Martinen etxean. 1937ko otsailaren 7an, inauteri igandea, Jose Martinen etxea eta albokoa (Toldope taberna dagoen etxea) erre egin ziren, frankistek bota zituzten obusen ondorioz. Beraz, buru militarrak Karmen Landetxera («Villa Karmen») joan ziren bizitzera.

[17] Gerra hasi zenean, Rikardo Gomez García karabineroen tenientea zen, Gipuzkoako 19. komandantzian. Lehenengo Gipuzkoan aritu zen borrokatzen, Errepublikaren alde. Gipuzkoa frankisten eskuetan jausi ostean, Bizkaira etorri zen borrokatzera, nire ustez, Markinako Frontera. Gero, 1937ko otsailaren 9an, komandante egin zuten (izendapena 1937124 - 09/02/1937 Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan argitaratu zen). Orozko - Baranbio inguruan ere borrokatu zuen (Talon, 1988: 901). Gernikako bonbardaketaren ostean, Euzko Gudarosteko I. Dibisioko agintea hartu zuen (Ruiz Manjon-Cabeza, 1986: 477). Dibisio hau itsasotik Bizkargi mendiaren ingurunera arte zegoen hedatuta.

[18] Antonio Naranjo Limon Guardia Zibilen komandantea Extremaduran jaioa zen. Pozas jeneralaren laguntzailea izan zen, azken hau Gobernazio Ministroa izan zenean. Gerran, Euzko Gudarosteko

– Gabon ingurutik aurrera, Guardia Zibilen teniente bat egon zen komandante lanetan. Ez nago ziur, baina iruditzen zait Ledesma abizeneko Guardia Zibilen tenientea egon zela agintean. Bera izan zen Egixarreko gudaldia zuzendu zuenetariko bat. Geroago, Lekeitioko fronteko agintean ere egon zen. 1937ko otsailaren 19an, frankisten aldera pasatu zen, Markinako Fronteari buruzko informazio pila eramanez (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 78).
– Azken buru militarra Andaluziako guardia zibil bat izan omen zen (Onaindia, 1937).

Buru militarren alboan, agintari politiko-administratiboak zeuden. Alde batetik, Markinako Sektoreko Bizkaiko Gobernari Zibilaren ordezkaria zegoen; bestetik, Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordea.

1936ko uztailaren hogeitik 1937ko apirilaren 27ra, hau da, frontea, gure herriko lurretan, mugitu gabe egon zen zazpi hiletan, Santiago Meabe izan zen Bizkaiko Gobernariaren ordezkaria Markinako Sektorean. Bera izan zen agintari politiko-administratibo gorena, eta bere aginduak bete behar izaten zituzten herritarrek[19].

Sektoreko delegatuarekin batera, Errepublikaren Aldeko Batzorde bat ere bazegoen. Batzorde honen lana zen ordena ziurtatzea, herriko ondarea zaintzea, elikagaien hornikuntzak eta banaketak antolatzea, defentsarako eraikuntzak egitea eta bizikidetza ziurtatzea. 1936ko uztailaren hogeitik urriaren erdira arte, Santiago Meabe izan zen Batzorde honen burua. 1936ko urriaren bigarren erdian, Santiago Meabe kendu egin zuten buruzagitzatik, eta abertzale eta ezkertiarrek hartu zuten agintea.

Markinako Frontean zeuden agintariekin bukatzeko, aipatzekoa da Jose Luis Iriondo medikua izan zela Patrokua Jauregiko odol ospitaleko zuzendaria. Praktikanteak Lorenzo Palacios eta Emiliano Vidal izan ziren (Untzeta, 1937). Ospitalean, hainbat mediku zeuden; besteak beste, Andres Lorez Uranga (Untzeta, 1937).

Agintari militarrak irailaren azken astean agertu ziren gure herrian, eta, eurekin batera, baita hainbat soldadu ere. Irailaren 22tik 23rako goizaldean, 400 bat miliziar heldu ziren autobusetan, eta hiru komentuetan ostatu ziren (Onaindia, 1937). 23ko goizean, Markina goitik behera aldatua zegoen. Herritarrak zur eta lur zeuden kaleek zuten itxura berriarekin. Ehunka soldadu ezezagun armatuta ikusteak harridura eta beldurra eragiten zuen. Egun batetik bestera, Markina eta Xemein militartutako guneak bihurtu ziren.

Irailaren 23an, goizean goiz, diana jo zuen korneta errepublikarrak soldaduak esnatzeko, eta aurreko egunean ihes egin zuten eta inguruko mendi eta auzoetan ezkutatuta zeuden markinarrek eta xemeindarrek pentsatu zuten frankistak sartu zirela (Onaindia, 1937).

---

antolakuntza sekzioaren burua izendatu zuten. Frantziara ihes egin zuen, eta 1938an bota egin zuten Errepublikako armadatik. Bizente Talonek dioen bezala, (Talon, 1988: 913): «Extremeño, comandante de la Guardia Civil, fue enviado a Bilbao, donde se hizo cargo de la Sección de Organización del Estado Mayor del Cuerpo de Ejército vasco. Tenía fama de gafe y maldiestro, sirviendo para ilustrar tan poco grata reputación este desgraciado suceso. Preparó, en el frente de Marquina, un ataque contra un saliente de las posiciones enemigas situado a quinientos metros de distancia, muriendo en la preparación sesenta hombres y resultando un gran número de heridos, parte de los cuales perecieron cuando al poco el hospital donde se encontraban fue bombardeado por un avión».

[19] Arestian esan bezala, Santiago Meabe eta bere inguruko milizianoak hainbat tokitan bizi izan ziren zazpi hile horietan. 1936ko urriaren hasieran, Plazido Sarasolaren etxean hasi ziren bizitzen, buru militarrekin batera. Hemendik, Jose Martinen etxera joan ziren. 1937ko otsailaren 7an, etxe hau eta albokoa erre zirenean, Karmen Landetxera joan ziren. Bertan egon ziren apirilaren 26ra arte, hau da, frankistak herrian sartu ziren arte.

Guztien usteen aurka, frontea ez zen mugitu. Beraz, miliziar batzuk Kalamua, Urkaregi eta San Migel ingurua babestera igo ziren eguerdian. Alberto Onaindiak zioen bezala: «Por la mañana del 23 las calles estaban llenas de milicianos que llegaron procedentes casi todos de la parte izquierda de la Ría de Bilbao. La mayoría eran jóvenes socialistas. Muy temprano sonó el cornetín tocando a diana. Los jóvenes markineses que estaban escondidos en los montes próximos creyeron que habían entrado en Markina los requetes.

Hacia el medio día subieron al monte a reforzar a los guardias de asalto de los que una sección había subido la víspera con otro de unos 40 milicianos.

En el pueblo reinaba un terror muy grande, pues aún no había disciplina entre los milicianos, y Markina no estaba acostumbrada a presenciar centenares de milicianos izquierdistas recorriendo las calles en plan de dueños de la villa» (Onaindia, 1937: 7).

1936ko irailaren 23an, lehen borrokak izan ziren San Migel, Urkaregi eta Kalamua inguruan, eta hainbat miliziar eta errekete hil ziren[20].

Irailaren 24an, Arana Goiri batailoiko gudariak (zehazki, Garaizabal konpainia eta Zubiaur konpainiaren bi sekzio), Iñaki Aranaren agintepean, Bilbotik Markinara etorri ziren, eta, egun berean, Urkaregi Gainera igo ziren, erreketeen aurka borrokatzera (Vargas Alonso, 2001: 325-326). San Migelen eta Urkaregin bat egin zuten konpainia sozialista eta anarkista batzuekin, Garellanoko soldaduekin, Asaltoko guardiekin eta beste gudari batzuekin (Beldarrain, 1980: 29). Egun horretan, Zubiaur konpainiak sei hildako eta zazpi zauritu izan zituen Ziardamendin[21]. Zaurituak Markinako ospitalera eraman zituzten lehenbiziko, eta, gero, Bilbora (Berazategi eta Dominguez, 2006: 94-95). Erreketeek ere hamaika defuntu eta zauritu izan omen zituzten (Beldarrain, 1980: 30). Jose Maria Otxoa de Txintxertuk honela azaltzen du irailaren 24an Sabino Arana batailoiko gudariei gertatutakoa: «Estuvimos unas horas en Markina y al amanecer subimos al alto de San Miguel y al alto de Ziardamendi. No había trincheras ni nada: apoyados en el suelo, tirábamos hacia donde buenamente creíamos que estaban. Y tuvimos muchísimas bajas, mientras nosotros perdimos seis compañeros muertos y siete heridos, de los 36 de Begoña. Entre los heridos estaba yo: una bala me entró por el hombro y salió por la espalda. Y tuve una suerte providencial: estaba junto a un compañero y él me dijo que me fuera un poco más allá. Nada más cambiarle el puesto, recibió un balazo en la frente y quedó muerto en el acto sobre mi brazo.

Me levanté como pude y fuimos hacia la carretera, donde había una escuela en la que me curaron dos chicos de la CNT. Me dieron una botella de coñac Byass. ¡A mí, que con 18 años no había probado ni el vino ni el coñac! Recuerdo que bebí hasta dejar la botella a la mitad. En una ambulancia me llevaron a Markina.

Recuerdo que, unos años después, volvimos al lugar donde habíamos caído heridos. Un señor de un caserío había sido obligado a enterrar a los muertos, porque el ejército español sólo se dedicaba a rapiñar lo que llevaban los caídos. Tanto es así, que cuando en el 82 desenterramos a uno de Begoña para llevarlo a Bilbao, vimos que estaba el cadáver… pero no la dentadura, que la llevaba toda de oro. Eran los moros y los requetés los que hacían aquellas cosas» (Berazategi eta Dominguez, 2006: 94-95).

---

[20] Besteak beste, Jose Hernandez Crespo, Luis Suarez Iglesias (Barakaldo batailoia) eta Domingo Bizente Rebollar (Herri Miliziak) (Iturria: Egaña, 2000).

[21] 1982an, hildako sei gudariak Ziardamendin lurperatu zeuden tokitik atera, eta Derioko hilerrian hobiratu zituzten. Arana Goiri batailoiko gudariak ez ezik, milizianoak ere hil ziren irailaren 24an; besteak beste, Manuel Fernandez Aja (Barakaldo Batailoia). 2011ko irailaren 25ean, hura gertatu eta 75 urtetara, omenaldia egin zitzaien Ziardamendin hil ziren gudari eta milizianoei.

Hurrengo egunetan ere erasoek eta borrokek segitu zuten Urkaregi eta San Migel inguruan, eta hainbat hildako suertatu ziren[22]. Irailaren 26an, Santiago López Ruiz markinarra zendu zen Arraten (Eibar). Santiago (1910 - 1936), Solaresekoa jaiotzez, Markinan bizi zen. Arotza zen, ezkondua zegoen eta seme bat zuen. Boluntario joan zen frontera batailoiak eratu aurretik, eta gero Amuategi batailoian borrokatu zuen (Gutierrez, 2007: 262). Nire datuen arabera, gerran hil zen hirugarren markinarra izan zen, eta frontean borrokatzen hil zen lehena.

Irailaren 23tik aurrera, ia aste betez, etengabe borrokatu zen Kalamua, Arrate, Urkaregi eta San Migel inguruan, baina, azkenean, errepublikarrek atzera egin behar izan zuten. Irailaren 27ko eta 28ko frankisten erasoak oso gogorrak izan ziren, eta soldadu errepublikarrak Markinan agertu ziren beldurtuta, Kalamuako posizioei eutsi ezinda[23]. Sei egun bortizki borrokatzen aritu ostean, errepublikarrek posizioak bertan behera utzi behar izan zituzten[24]. Agintariek berehala behartu zituzten posizioetara bueltatzera, baina, ordurako, militar frankistek Kalamutik Arnoate arteko gain guztiak hartuta zeuzkaten. Irailaren 28an, frankistak jaun eta jabe ziren Kalamuan, Urkaregin, San Migelen eta Arraten (Barruso, 1996: 266).

Irailaren 28an, astelehenean, Errepublikaren aldeko soldaduek posizioak utzi zituzten egunean, jendeak pentsatu zuen frontea berehala apurtuko zela; eta frankistak momentu batetik bestera sartuko zirela. Beldurtuta, hainbat gaztek ihesari ekin zioten, aste bat aurretik egin bezala.

Patxi Cazalis eta bere neska lagun Mikaela Ibarrolaza (1913 - 2010) sozialistak ziren, eta Patxi asko inplikatu zen frontea antolatzen eta milizianoentzako janaria eta arropak biltzen, 1936ko uztailean, abuztuan eta irailean zehar. Tiro bat ere hartu zuen hankan, gazteak entrenatzen ari zela (Garaian, 2008). Patxik anaia pilotariak zituen Bartzelonan, eta bere neskalagunarekin bertara ihes egitea erabaki zuen, 1936ko irailaren azkenetan (nire ustez, irailaren 28aren bueltan), frontea berehala apurtuko zela pentsatuta. Patxik eta Mikaelak Ondarroan itsasontzi bat hartuta ihes egin zuten.

1936ko irailaren azkenetan, Jose Antonio Oar-Artetak, Xemeingo parrokiako abadeak ere ihes egin zuen Markinatik. Bere iloba Segundo Oar-Artetak dioen legez: «Osaba Jose Antoniok 1936-ko udagoienean iheska alde egin eban Markinatik, Kalamuako euskal guda-lerroa, Francotar gudarien erasoaz, une batetik bestera etengo zan bildurrez;

---

[22] Irailaren 25ean, Jose Txintxurreta Zamakona (Arana Goiri) eta Felipe Elorriaga Larrea hil ziren.

[23] Irailaren 27an, Felix Aiestaran Tolosa (Herri Miliziak), Pedro Llosa Revuelta (Octubre batailoia), Benjamin Urbistondo Osante (Herri Miliziak) eta Felix Urkijo Bravo (Octubre) hil ziren. Irailaren 28an, Desiderio Alonso Arnaiz (Octubre batailoia) (Egaña, VII. tomoa: 248), Galo González Sanchez (Largo Caballero), Demetrio Lluvia Rodriguez (Amuategi batailoikoa, Arraten zendu zen) eta Jose Moreno Yuba (Largo Caballero). Irailaren bukaeran gure herriko lurretan hil ziren gehienak Octubre, Largo Caballero, Barakaldo eta Arana Goiri batailoikoak ziren.

[24] Borroka hauen ondorioz, Karlos Borbon Orleans (1908 - 1936) hil zen, 1936ko irailaren 27an, Morkaiko mendiaren inguruan. Tolosako hilerrian lurperatu zuten. Karlos Borbon Orleans Don Joan de Borbon printzearen emaztearen neba zen, eta, beraz, Joan Karlos I. gaur eguneko Espainiako erregearen osaba. Heriotza honen oroimenez, gurutze erraldoi bat dago Morkaiko mendi puntan. Talonek dioenez, Akondia eta Kalamua inguruan hil zen 1936ko irailaren 27an (Talon, 1988: 558). Mikel Errazkinek dio irailaren 28an hil zela (Errazkin, 2011: 250): «Aipatzekoa da borbondar erregegaiaren familia-kide bat ere hobiratua egon zela Tolosako hilerrian, Karlos Borbon Orleans, hain zuzen ere. Don Joan printzearen emaztearen anaia zena, 1936/09/28an Elgoibarko frontean hil eta hurrengo egunean Tolosako hilerriko Elosegi markesaren panteoian hobiratu eta han egon zen harik eta haren gorpuzkinak 1941/06/07 Sevillara eraman zituzten arte. Badirudi tarte horretan espainiar aristokraziaren bisita ugari burutu zirela Tolosako hilerrira».

noizbehinka egiten ebezan sartualdiek arrisku hori erakusten ebelako. Gernikan egon zan aldi labur baten, gero Bilborantz atzera egin beharra etorri zan, hurrengo Santoñara, eta beste askogaz batera Santanderreko portutik Frantziarantz abiatu zan itsasuntziz, 1937-ko uztailean. 1937-ko uztailaren 6an ailegatu zan Bordelera, Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Erri-Zaintza Sailak beraren izenean luzaturiko pasaportean itsatsitako sarrera-zigiluak iragartzen dauanez» (Oar-Arteta, 1991: 18).

Etxebarriako hiru abadeek, Frantzisko Etxebarria, parrokoak, eta Martzelino Ibarzabal eta Jose Peñagarikano abade laguntzaileek ere ihes egin zuten, irailaren 28an, Kalamuako posizioak galdu ostean, milizianoak Etxebarrian agertu zirenean[25].

Jose Peñagarikano (Etxebarria, 1872 - Oiartzun, 1936) bere ahaide batzuen baserrian ezkutatu zen; herritar batzuen arabera, Etxebarriako Arnoriaga baserrian. Irailaren bukaeran, baserri hori frankistek kontrolatzen zuten aldean gelditu zen, eta urriaren hogeian, Etxebarriako abadea Eduardo Gortazar kapitain frankistaren aurrean aurkeztu zen, Urkaregi inguruan. Eduardo, Maria Dolores Prado Uhagonen senarra zen, oso ezaguna Markinan eta inguruetan. Josek ondo ezagutzen zuen. Eduardok aholkatu zion Jose Peñagarikano abadeari frontea uzteko, arriskutsuegia zelako, eta Zelestino Onaindiarekin Elgoibarrera bizitzera joateko; eta horrela egin zuen. Kapitainak berak eraman zuen Elgoibarrera (Gallego eta Pazos, 2001: 275-277). Dena dela, biharamunean, 1936ko urriaren 21ean, militar batzuk etorri ziren Elgoibarrera, eta atxilotuta eraman zituzten bi abadeak. Jose urriaren 27an fusilatu zuten, Oiartzunen, eta Zelestino urriaren 28an, Hernanin (Onaindia, 1980: 39, ikusi ere Onaindia, 1988: 204).

Etxebarriako parrokoa, Frantzisko Etxebarria, eta honen beste abade laguntzailea, Martzelino Ibarzabal, inguruko basoetan ezkutatu ziren irailaren 28an; eta, gero, frankisten aldera pasatu ziren. Frantzisko Etxebarriak honela azaltzen zuen gertatutakoa, Valladolideko Unibertsitatean gerrako gertaerak ikertzeko sortutako batzordera bidali zuen txostenean: «Que el pueblo fué dominado por los rojo-separatistas hasta el día 27 de Abril del corriente año; en los primeros momentos la vida fué bastante normal, hasta que el 28 de Septiembre, al bajar los milicianos derrotados del alto de Urcarregui, comenzaron a cometer toda clase de desmanes: forzaron la puerta de la Iglesia y cometieron algunos destrozos en su interior, sobre todo en los ornamentos sagrados y Crucifijos, profanando imágenes, etc. Estos milicianos siguieron hacia Marquina y más tarde, en el mes de Octubre, o sea después de constituirse el 'gobierno de Euzkadi', fué ocupada la Iglesia por nuevos milicianos que la transformaron en cuartel durante mes y medio, continuando los destrozos y desperfectos en el material de la misma (desaparición del palio, rotura de arañas y sillones del presbiterio, etc.). Los sacerdotes tuvieron que refugiarse a partir de Septiembre en varios lugares, pues corrían peligro sus vidas, escondiéndose 10 días en un pinar, 18 en un caserío y 2 en un hoyo, sin comer ni beber, y viéndose a punto de caer en manos de los milicianos que les perseguían; la casa del Sr. Párroco fue totalmente saqueada» (Valladolideko Unibertsitatea, 1938: 182).

Badirudi, Frantzisko Etxebarria parrokoa eta bere laguntzailea Olua baserrian egon zirela ezkutatuta 18 egunetan, 1936ko urrian. Bere etxean hartzeagatik eta bi abadeei frontearen beste aldera ihes egiten laguntzeagatik, Oluako gizona, Pantxiko Mendibe harri jasotzailea, atxilotu egin zuten, urriaren amaieran edo azaroaren hastapenean, eta Erdotzako jauregian sartu zuten preso. Hala ere, laster atera ei zen kartzelatik.

---

[25] Hiru abade hauek Etxebarrian zeuden lanean, gutxienez 1928. urtetik (Zubikarai eta Fernandez Egiguren, 1989: 28)

Matxinatuak San Migel, Kalamua eta Urkaregi ingurura heldu ziren irailaren 21ean. Dena dela, Ondarroak eta Mutrikuk errepublikarren eskuetan jarraitu zuten egun batzuetan. Irailaren 24an, frankistek eraso egin zuten Mutriku hartzeko helburuarekin, baina arrakastarik gabe. Eraso honetan, Cayuelaren soldadu frankistek baja asko izan zituzten. Pedro Barrusok dioen bezala, «La resistencia republicana frente Motrico obliga a realizar diversas operaciones. El ataque de Latorre el día 24 se salda con un fracaso y 31 bajas. Esto obliga a que González Unzalu, al frente de las tropas de reserva de la columna, se sitúe en el monte Arno para presionar Motrico desde el sur» (Barruso, 1996: 269). Egunetan borrokan aritu ostean, frankistek Mutriku hartu zuten, 1936ko irailaren 27an.

Gipuzkoa, ia osoa, bereganatu ostean, bazirudien frankistek berehala hartuko zutela Bizkaia. Hori eragozteko, 1936ko irailaren bukaeran, Itsasalde konpainia eratu zen; zehatzago esateko, Itsasalde batailoiaren hazia izan zenaren Itsasalde konpainia. Konpainia hau kostaldean jatorria zuten boluntarioekin osatu zen, nagusiki Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka edo Bermeoko gazte abertzaleekin, baina baita barneko herrietako gazteekin ere (berbarako, muxikarrak, gernikarrak, markinarrak edo xemeindarrak). 1936ko irailaren azkenetan, Itsasalde konpainiakoak Asterrika inguruan borrokatzen hasi ziren, tropa frankisten aurrerapena gelditzeko asmoz, eta bertan egon ziren, gutxienez 1936ko azaroaren azken egunetara arte (Vargas Llosa, 2001: 314-315)[26].

Arestian esan bezala, 1936ko uztaila, abuztua eta iraileko lehen hiru asteak nahiko lasaiak izan ziren, baina San Migel egunaren bueltan, bi herriak militartuak zeuden. Bizilagunen bizimodua eta herrion itxura aldatuta zeuden: soldaduz beteriko kaleak, kamioiak atzera eta aurrera, blindatuak bideetan, jende armatua bazter guztietan, milizianoen kontrolak, karga eramateko mandoak nonahi… Jose Mari Rekaldek zera zioen: «1936ko San Migel egunean… soldaduak egozan gure etxean, denak gerrako kapelekin eta fusilekin, jaten… Soldadu batek esan eutsan gure amari manta bat emongo eutsala, ortuan kaka egiteko eta porru batzuk hartzeko baimena emoten baeutsen. Gure etxean manta baltz hori urte askoan ibili zan bueltaka» (Garaian, 37, 2005).

Testuinguru istilutsu honetan, eskuindar eta tradizionalistak gertatu ahal zitzaienaren beldur ziren, eta ia ez ziren kalera ateratzen. Markinako epaitegian lanean ari zirenak ere urduri zeuden, milizianoek tradizionalistak atxilotzen zituztelako, eta Santiago Meabek hauek epaitzeko eta kartzelaratzeko presionatzen zituelako.

San Migel bezperan, 1936ko irailaren 28an, Javier Sanchez del Campo, Markinako lehen instantziako epailea, Pedro Onaindia Zuluagaren etxean agertu zen, pistola eskuan, Onaindiatarrak bera ezkutatzera behartzen, eta bertan gelditu zen «apopilo», hamabost egunez. Gero hanka egin zuen[27]. Bere idazkariak, Rafael Enríquez de Salamanca Dávilak, eta, Emilio Ruizek, Xemeingo Instrukzio Epaileak, ere ihes egin zuten beldurtuta.

---

[26] Gerora, batailoi honek bost konpainia izan zituen: 1. Matxitxako, 2. Boga-Boga, 3. Tellería, 4. Matxin eta 5. Gaztelugatxe (metrailadoreak) eta bere komandantea Viktor Erkiaga lekeitiarra izan zen. Bere kuartel nagusia Deustuko ikastetxe batean zegoen. 1937ko urtarrilean, batailoiak 612 gudari zituen eta 20 gudari kuarteleko zerbitzuetan zeuden. Markinako, Xemeingo eta inguruetako gazte askok borrokatu zuten batailoi honetan, eta hauetariko batzuk aginte postuak ere izan zituzten. Julian Etxaniz «OIazar», adibidez, kapitain izatera heldu zen (Munitibar, 1983-10-8), eta Jose Maguregi «Laitxu» teniente.

[27] 1937ko maiatzaren 7an, Justizia eta Kultura sailburuak, Jesus Maria de Leizaolak, emandako aginduaren arabera (Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan, 223. zenbakia, 1677. orrialdea), Javier Sanchez del Campo epailetzatik kanporatu zuten, eta epaile gisa zituen eskubide guztiak kendu zizkioten (http://www.osanet.euskadi.net/bopv2/datos/1937/05/3701863a.pdf).

Irailaren bukaeran, Xemein eta, batik bat Markina «plaza militarrak» ziren. Beraz, frankisten helburu militar bihurtu ziren. 1936ko irailaren 29an, San Migel egunean, hegazkin frankistek lehen obusak bota zituzten xemeindarren eta markinarren aurka.

Jendea ez ei zen lehen leherketa hauekin konturatu ere egin, zarata gutxi egin zutelako, baina zulo izugarriak egin omen zituzten. Bonba bat karmeldarren ortuaren atzean jausi zen, eta beste bat Itxurraldekoa inguruan, Laitxuren ferratokiaren alboan (Onaindia, 1937: 9). 1936ko irailaren 29tik 1937ko apirilaren 25era, frankistek milaka bonba bota zituzten markinarren eta xemeindarren aurka. Zibilen aurkako bonbardaketa hauen helburua zen, herriak suntsitzea, morala jaisteko eta erresistentzia ahultzeko.

Irailaren azken egunetan, borroka latzak izan ziren Kalamua inguruan. Diez de Rivera komandante matxinatuak Kalamua eta Arrate hartu zituen irailaren 28an, baina biharamunean, 29an, Errepublikaren aldekoek eraso egin zuten galdutako posizioa berreskuratzeko asmoarekin[28]. Barrusok dioen bezala: «Díez de Rivera mejora sus posiciones en torno a Eibar y logra ocupar el día 28 el monte Kalamua y Arrate. Esta última posición, el 29 de septiembre, sufrirá un sangriento asalto por parte de los republicanos» (Barruso, 1996: 266).

Irailaren 29ko eraso honetan, Lesaka tertzioko 2. konpainiako errekete asko ere hil ziren. Erreketeen web orrian irakurri daitekeen bezala (http://www.requetes.com/lesaca.html): «El 29 de Septiembre fue el día más crítico para la 2ª Compañía, donde al establecer la luego llamada Posición nº2 de Calamúa, pierde a su Capitán Arocena». Hara zer zioen Lesaka Tertzioko errekete batek Arrate inguruan izan zuten borrokaldiari buruz: «Nuestra llegada a la Ermita y Monte Arrate. No puedo olvidar aquella noche. Teníamos en frente el pico de Urco. Ocupado por los rojos, desde cuya cumbre se domina perfectamente Éibar y toda su Comarca. ¡Cuanta sangre Navarra y Pamplonica!, nos costó la Ermita. En la misma noche de llegada, una fuerte columna formada por elementos comunistas de la zona de Castro Urdiales, nos subio al asalto. En la Ermita, en su casa adyacente, se hallan los restos del diezmado Tercio de Lesaca. Fuerzas de F.E. ocupan las Escuelas y en una pequeña avanzadilla, junto a la cruz, dominando Eibar, una decena de soldados. Una trinchera, única fortificación, habíamos hecho los Requetés. Se hallaban con nosotros fuerzas del LACAR. Parte del LESACA, sin embargo, había quedado guarneciendo la Loma de la Hayas. Llovía y hacia mucho frío.

Los rojos llegaron a subir y rodearnos, entraron en la Ermita; sin una sola luz, se mezclaron con nosotros, nos vimos revueltos. El Teniente Torres me ordenó que viera si quedaban Requetés dentro de la Ermita y, antes de cerrar la puerta, di una voz para averiguarlo. Como respondieran les dije: -- ¡Venga salid! ¡Han dicho que salgamos todos! -- Salieron. Yo, desde la puerta, les animaba, les daba palmadas en la espalda, en medio de la más completa oscuridad.

Eran los rojos que habían entrado por una puerta secundaria a la Sacristía y salían hacia el atrio por la principal, siguiendo mis indicaciones, ¡No nos habíamos percatado, ni nosotros ni ellos, de que andábamos mezclados! Solo cuando el Teniente Torres comenzó a animarnos con gritos de: ¡Vamos Requetés, Valientes! ¡Viva Cristo Rey! ¡Viva España!, nos dimos cuenta de lo que ocurría y los aceros - pocos de reglamento -, los puños - estos de suficientes libras - por fortuna, comenzaron a situar a cada uno en su puesto, lo que no fue fácil - (Día de San Miguel de 1936)».

---

[28] Irailaren 29ko borroketan hil ziren, besteak beste, Eulogio Cuenca Redondo (Herri Miliziak), Jose López Rodriguez (Herri Miliziak), Julian Pérez Samperio (Herri Miliziak) eta Bizente Velarde Uralde. Biharamunean, irailaren 30rean, Francisco Tizon Gozategi (Herri Miliziak) hil zen Kalamuan.

1936ko urriaren 1ean, Markinako, Xemeingo eta Etxebarriako mendietan borroka latzak gertatzen ari ziren momentuan, Espainiako Parlamentuak Euskal Autonomi Estatutua onartu zuen. Estatutu honi Elgetako Estatutua ere deitzen zaio, erabakigarriak izan zirelako, Intxorta mendietan, Elgetako lurretan, tropa nazionalen aurrerabidea gelditzeko, gudariek eta milizianoek egin zituzten borrokak[29].

Estatutua onartu eta biharamunean, 1936ko urriaren 2an, Bittor Jose Alegria Uriarte (Lekeitio, 1911 – Bilbo, 1936) markinarra fusilatu zuten errepublikarrek, Bilbon. Bittor Jose lekeitiarra zen jaiotzez, baina gaztetan atera zen Lekeitiotik, abade ikasketak egitera. Bere ama eta anai-arrebak Markinara etorri ziren bizitzera 1933an, eta Bittor ere askotan etortzen ei zen bere familia bisitatzera, eta, ofizialki, markinarra zen. Garai hartako dokumentu eta liburu guztietan, markinar bezala agertzen da.

Gerra hasi zenean, Maroñoko (Araba) ekonomoa zen, baina errakuntza bat medio, atxilotu, eta Cabo Quilates itsasontzian sartu zuten preso (Jiménez de Aberasturi eta Jiménez de Aberasturi, 1978: 197). 1936ko urriaren 2an, Bilboren aurka hegazkin bidez egindako frankisten bonbardaketa baten ostean, Jaime I. gerraontziko eskifaia bere onetik aterata, Cabo Quilates eta Altuna Mendi barku kartzeletara igo zen, eta 39 pertsona hil zituzten. Cabo Quilates itsasontzian hil zituztenen arteko 16 elizgizonak ziren (12 abade, bi fraide dominikar eta fraide marista bat). Horietariko bat Bittor Jose Alegria Uriarte abade markinarra zen. Familia abertzalekoa zen, eta 25 urte zituen hil zutenean.

Bittor Jose Alegria hil zuten egunean, borrokak gogortu ziren Kalamuako frontean. Urriaren 2tik 8ra, tropa errepublikarrak saiatu ziren berriro ere Kalamua gaineko posizioa hartzen, baina oraingoan ere ezin izan zituzten matxinatuak garaitu (Arostegi, 1991, I. tomoa: 100). Pedro Barrusok dioen bezala: «Entre Arrate y el monte Kalamua se forma una línea que sufre constantes ataques entre los días 2 y 8 de octubre. Esto motiva que se precisen refuerzos provenientes de la zona de la costa, que se establecen el día 5 en el monte Urkaregi, al norte del Kalamua. De esta forma se estabilizaba el frente tras el contacto entre las fuerzas de Cayuela y el Grupo Díez de Rivera. Las posiciones de Díez de Rivera se establecen definitivamente en la línea Urkaregi – Kalamua - San Pedro - Arrate.

A partir de este momento las operaciones en la zona se detuvieron. La actividad en otros frentes y el rumbo de los acontecimientos hicieron que el frente del norte pasara a un segundo plano hasta la primavera de 1937, fecha en la que se reanudaría la ofensiva que tendría como objetivo final la toma de Bilbao» (Barruso, 1996: 266).

Urriaren hasierako borroka odoltsu horietan, hainbat miliziar eta errekete hil ziren Kalamua inguruan eta Arraten[30]. Kalamuan zeuden erreketeen kapilauak, Andres

---

[29] Frankistek Intxorta mendietan egin zuten lehen eraso zuzena 1936ko urriaren 4an izan zen, lehen Euskal Estatutua onartu eta hiru egunera, eta azkena 1937ko apirilaren 24an (Beldarrain, 1980). Bizkaiak eta Gipuzkoak bederatzi hilabetez izan zuten indarrean Autonomia Estatutua: 1936ko urriaren 1etik 1937ko ekainera (Granja, 1990: 27).

[30] Hildako errepublikarren artean zeuden Jose Calabia Ruiz (Herri Miliziak) eta Anjel García López (Barakaldo), biak urriaren 2an hildakoak (Egaña eta http://egoibarra.com). Urriaren 4an, Jose Luis Lorenzo Gutierrez (Herri Miliziak) hil zen. Urriaren 5ean, 26 urteko Anastasio Uribe Azpitarte «Kakatza», 32 urteko Generoso Setien Ortiz eta Jose Maria Zubia Atxa miliziar durangarrak hil ziren, frankisten artilleriak egin zuen bonbardaketan. Hirurak Fulgencio Mateos Batailoikoak ziren, eta Etxebarriako Aulesti baserriaren inguruan jausi zen obus batek hil zituen. Lehenengo biak obusa jausi zenean, urriaren 5ean, hil ziren, eta hirugarrena aste betera, Durangoko ospitalean (Iturria: Markinako Erregistro Zibila eta http://www.durango1936.org). Urriaren zortzian, Domitilio García Aparicio (González Peña) eta Tomas Beriain Ugalde (Dragones, http://egoibarra.com) hil ziren. Frankisten partetik

Algarrak, zioen bezala, 1936ko azarora orduko, Kalamuako bigarren posizioa babesten zuten hiru konpainietako 200 errekete baino gehiago hil ziren (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 448). Egia esan, Kalamuako posizioetan 100 metroko distantzia zegoen batzuen eta besteen artean, eta fusilen bidez egindako erasoak etengabekoak izan ziren[31]. Gainera, 1936ko urriaren 1etik hogeira, hegazkin frankistek ia egunero bonbardatu zituzten Kalamuaren oinak. Halaber, artilleria errepublikarrak eta frankistak bonba ugari botatzen zizkioten elkarri[32]. Inguruko baserritarrek gogoratzen dutenez, bonbardaketen ondorioz, zeruak gris kolorea hartzen zuen, eta haizeak bolbora usaina ekartzen zuen Aginaga eta Barinaga ingurura. Joan Joxe Arrizabalaga «Markiña-k» bere *Markiña Zarra Kontu Kontari* (1978: 44) liburuaren «Illen Besarkadie» idazkian ondo azaltzen du Kalamuaren oinetan bizi izan zena: «Kalamua mendixe nik egunero ikusten dot, eta egun barruen beti. Aurrez-aurrez dauket. Mendi aundixe eta zabala da, asi bere tontorretik eta mendi ondora jo arte. Izenez zaill guzti ori, Max. Bere gonetan Baltzola, Zatzu, Lexardi… basarrixek. Baltzolatarra'k barritz, neure lengosuek.

Egun egunero beti begire nago Kalamua'rutz. Esat'otst, bai, neure seme gasteari:

– Joan Joxe, an, or mendi eder orretan, gizon asko dagoz ixill-ixillik, illde…
– Zelan ba, aitxe…?
– Ara, oraiñ ixeixe berrogei urte, gizonak borroka gogor-gogorra eduki eben, emen, bai Markiñ'en be. Zazpi illebete luze, bai luziek, Akarrei'n, Egixar'en, Mandiola'n…eta Kalamua'n burrukan odol bardiñeko gizonak. Bai alderdi batetik, bai bestetik, ama lurrek artzen zitxun gizonak illtxen, euskeraz errezetan…: Ama, Karmengo ama…artu naizu…!

Gipuzkoarra'k, naparrak, bizkaitarrak, makiña bat mutill eder dagoz Kalamua'n ixill-ixillik.

Euskal erriko lur amak, Kalamua'n, besuok zabal-zabalik eduki zitxun oiñ berrogei urte inguru, bere seme gaste ederrak burruken ibilli zienien.

Morkaiko, Baltzola goiko pagarixen, Lexardi'ko landetan…, ama lurran epeltasunien, bere seme maitxiek ixill-ixillik dagoz…

Kalamua'tik aixie datorrenien gure etxeruntz, zurru-murru eder bat dakar: Aiñbeste mutil ederren euskal berbeta gozue…Eurek, batzuk andik, beste batzuk emendik, il ziran burrukan. Gaur, alkarraz, gutzet illuntasunien, baiña eurentzat argi eder-ederrien, ama lur barru barruen emon dabe, Joxe Artetxe'k esan'bana, bera be eurena juen aurretxuen: ILLEN BESARKADIE…»

Nafarroako Tertzioetako hirugarren eta 4. konpainiako hainbat soldadu hil ziren (Arostegui, 1991, I. tomoa: 100).

[31] Andres Algarrak, erreketeen kapilauak zera zioen: «Las posiciones eran muy peligrosas, en particular la número 2, con el enemigo a menos de cien metros. Enfrente teníamos a los que probaban de oficio los morteros de Marquina y las armas que hacían en Eibar. Entre los rojos había tidarodes magníficos, y los morteros eran un peligro continuo. Nos costaron muchas bajas aquellas posiciones, para noviembre llevábamos más de doscientas entre las tres compañías, y murieron cantidad de chicos por tiros en la cabeza. En la 2 era preciso hacer la guardia con dos espejos, y de día no se podía asomar ni un dedo» (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 448)

[32] ABC egunkariaren 1936ko urriaren 13ko alean zera irakur daiteke: «Sector de Marquina: Duelo de artillería, sin bajas de nuestra parte» (ABC, 1936-10-13: 8). Badirudi urriaren 12an ez zela errepublikarrik hil, baina urriko lehen 20 egunetan, hainbat miliziar eta gudari hil ziren bonbardaketen ondorioz.

Erreketeen abesti honek ere ondo adierazten du Gerra Zibilean Kalamuan izan ziren sarraskiak (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 451):

En el monte Calamúa,
hay una fuente que mana,
sangre de los requetés,
que murieron por España.

1936ko irailaren 27an, Mutriku hartu zuten frankistek, eta egunetan borrokan aritu ostean, 1936ko urriaren 4an, tropa errepublikarrek atzera egin behar izan zuten kostaldetik, tropa frankistek atzeko mendietatik inguratuko zituztenaren beldurrez. 1936ko urriaren 4ko goizean (Arrosarioko Domeka), frankistak Ondarroako Burgo baserria eta Santa Gurutz ermita, eta Berriatuko Tontorramendi, Berrosasi baserria, Armetxa baserria, Itxurriño baserria, Legarrei baserria, Arantzei baserria, Pertike baserria, Legarreimendi, Txindurrimendi eta Madalenako ermita hartu zituzten. Larruskain eta inguruko mendiak eta baserriak (Amulategi, Kostola, Amallogarai Goikoa, Mandiola Goikoa…) ere hartu zituzten. San Inazio erreketa tertzioko soldaduak ziren posizio horietan agertu ziren aurrenengotarikoak (Arostegui, 1991, II. tomoa: 70). Ondorioz, Ondarroa eta Berriatu inguruan zeuden soldadu errepublikarrek atzera egin behar izan zuten, batzuek Amallo inguruko mendi eta baserrietaraino eta, beste batzuek, Kalamendi eta Asterrikaraino. Eizagirre (Eizar) eta Agarre baserrietan, esaterako, urriaren 4an agertu ziren milizianoak, eta berbertan gelditu ziren apirilaren 26ra arte. Pareko mendi eta baserriak, hau da, Amallo erreka aranaren beste aldea (Arantzaei, Pertike, Itxurriño…), frankisten eskuetan gelditu ziren. Pedro Barrusok dioen bezala, (1996: 269): «Una vez más, los milicianos ante la posibilidad de quedar cercados, se retiran mientras la escuadra republicana - por medio del 'Jaime I', 'Cervantes' y 'Libertad'- bombardea Deva y las posiciones de González Unzalu. Finalmente, la costa guipuzcoana es ocupada deteniéndose las operaciones hasta el día 4 de octubre. Ese día se ocupa la ermita de Santa Cruz, en el límite entre Gipuzkoa y Vizcaya estabilizándose definitivamente el sector norte del frente». Frankisten aurrerabidea galarazteko, errepublikarrek Plazakolako zubia lehertu zuten. Milizianoek arma eta munizio ugari galdu omen zuten leherketan.

Urriaren 4ko arratsaldean, soldadu frankisten artilleri bateriek lehen obusak bota zituzten Arnoatetik, eta horietariko batzuk Ibarrazpi eta Intxauspe baserrien inguruan lehertu ziren. Artilleria bitartez egindako lehen bonbardaketa honek beldur asko sortu zuen herritarren artean.

Erreketeak Amallo erreka inguruko mendietan agertu osteko egunetan, markinar eta xemeindar batzuk, tartean Periko Lejardi eta Manuel Alzibararetxuluaga xemeindarrak, frankisten partera pasatu, eta eurei laguntzen hasi ziren, bideak erakutsiz eta informazioa emanez (Gorosabel, 2006: 115).

Urriaren 4tik aurrera, frankistek Ondarroa eta Berriatuko mendiak kontrolatzen zituzten (Legarreimendi, Txindurrimendi, Arantzei baserria, Pertike baserria…), baita Arrate, Urkaregi Gaina, San Migel Gaina eta Kalamua tontorra ere. Errepublikarrek, aldiz, Milloi auzoa, Asterrika, Kalamendi, Itoiñomendia, Markina, Xemein, Akarregi mendia, Etxebarria, Barinaga, Kalamuaren oinak, Akondia eta Urko.

Urriaren 6an, Bizkaiko konkistarekin aurrera egin nahi izan zuten erreketeek, eta mendietatik Berriaturaino jaitsi ziren. Dena den, soldadu errepublikarrek aurre egin zieten, eta berehala igo behar izan zuten mendietara. Borroka hauetan, Francoren aldeko soldadu asko hil ei zen (Bidasoa, 2005: 677). Hemendik aurrera, Berriatu bi suren erdian gelditu zen: Asterrikan, Milloi inguruan eta Amalloko mendietan errepublikarrak zeuden, eta Legarreimendin, Arantzein eta Madalenan matxinatu frankistak.



Argazkia: GureGipuzkoa.net © CC BY-SA: Indalecio Ojanguren (1937)
Akondiako Lubakiak

Frankistek Gipuzkoa nola hartu zuten ikusita, eta Intxortetan edota Markinako Frontean gertatzen ari ziren borroka latzak kontuan hartuta, bazirudien erreketeek berehala hartuko zutela Bizkaia, eta baita Bilbo ere. Beraz, 1936ko urriaren 5ean, Bilboko Burdinazko Gerrikoaren eraikuntza hasi zen[33]. Hala ere, uste guztien aurka, urriaren lehen astetik aurrera, eta zazpi hilabetez, frontea mugitu gabe egon zen, eta markinarrek eta xemeindarrek gerraren mingostasuna gertutik bizi behar izan zuten. Errepublikarren eta frankisten arteko batailen, tiroen edota airez eta artilleria bidez egindako bonbardaketen ondorioz, soldadu eta zibil asko hil, eta hamaika izan ziren kalte ekonomiko, ekologiko, psikologiko eta sozialak.

2.3. **1936ko urriaren 20a: Jose Sagarna fusilatu zuten**

Frontea egonkortu zenean, 1936ko urriaren hasieran, faxisten hegazkinak sarriago agertzen hasi ziren, eta ordura arte ezezaguna zen gerra egiteko modu berri bat esperimentatzeari ekin zioten: hegazkinen bidez egindako zibilen aurkako bonbardaketak, atzeguardia ahultzeko helburuarekin. Alberto Onaindiak dioen bezala: «Al formarse los frentes en el sector de Markina, comenzaron a llegar los aviones de bombardeo fascistas. Los primeros días de Octubre venía un Caproni, que volaba a placer sin enemigos de ninguna clase. Por el ruido característico de sus motores se le denominó el RUMRUM» (Onaindia, 1937: 9).

---

[33] Burdinazko Gerrikoa da Bilbo inguruko kostan eta mendietan (Gaztelumendi, Artxanda…) eraiki zen tunelez, bunkerrez eta lubakiz osatutako gotorlekua. Bere helburua zen Bilbo tropa frankisten erasotik babestea. Eraikuntza lanetan etengabe aritu ziren 8.500 langile, baina, orotara, eraikuntza prozesuko momentu desberdinetan, 100.000 pertsonak parte hartu zuten, tartean baita markinar eta xemeindar batzuek ere.

Egia esan, herritar askoren memorian gelditu da Caproni markako hegazkin ezagun hark egiten zuen *rumrum*-a. Tomas Gerrikagoitiak «Beesik» (Beresik) ere onomatopeia bera erabiltzen du hegazkin hau deskribatzerakoan: «Egunik geienetan pasetan zan gure gañetik Bilbo alderaño Franco-ren egazkin bat errekonozimentuen, run…run…»Diario de Irún» geunken bere izena ipinite. Lantzien bein, or, euren korotz batzuk be soltetan zituen. Lantzien bein urteten eutsen Bilbotik kazako txiki bik, gobernukuek Madrillerata joan biar ebenerako eukezanak. Onek kontra urtetiagaz gu asko pozten giñan, bildurtu egiten eben da» (Gerrikagoitia, 2000: 65).

Markinako Frontean etengabe borrokatzen ari ziren garaian, zehatzago esateko, 1936ko urriaren 7an, Euzkadiko Jaurlaritza sortu zen, gerra gobernu gisa, eta Jose Antonio Agirre aukeratu zuten Lehendakari. Bere lehen eginkizunetako bat izan zen frontea hobeto antolatzea. Beraz, Gernikan izendatu zutenetik lau egunetara, 1936ko urriaren 11n, igandean, Markinako Frontea ikuskatzera etorri zen. Euzko Gudarosteko goi agintari militar batzuek eta jeneral errusiar batek lagunduta agertu zen Markinan (Onaindia, 1937). Kontatu didatenez, Lehendakaria ailegatu zenean, frankisten bonbardaketa hasi zen, eta Lehendakariak Zelaiko arbola baten ostean babestu behar izan zuen. Orduan ere, Bosgarren Zutabearen espioitza sareek ondo funtzionatu zuten, eta erreketeek Lehendakariaren mugimendu guztien berri izan zuten.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Agirre Lehendakaria, Alberto Onaindia eta beste batzuk Arretxinagan, 1936ko urriaren hamaikan. Agirre Lehendakaria Markinako Frontea ikuskatzera etorri zen, eta Arretxinaga bisitatu zuen.

Agirrek eraikuntza militarrak, ospitaleak eta komandantziak bisitatu zituen, eta gudariekin eta Patrokua jauregiko medikuekin, praktikanteekin eta erizainekin elkartu zen. Arretxinagako baseliza ere ezagutu zuen, Alberto Onaindiak eta Xemeingo abade batek lagunduta (nire ustez, Markos Espillakin). Gero, igandea izanik, meza entzun zuen Agarre baserrian (Xemein), posizio horretan zeuden gudariekin batera. Askurrinaga Goikoa baserriko Luis Zelaia akolito lanetan aritu zen.

Frontea hobeto antolatzeaz gain, Euzkadiko Jaurlaritzak segurtasunarekin zerikusia zuten gai guztien ardura hartu zuen. Beraz, Jaurlaritza eratu eta gutxira, Begoñako karmeldarren komentua atxilotzen zituzten eskuindarrentzako kartzela bihurtu zuten. Garai hartan, komentuko priorea Txaraka baserriko (Xemein) Bernardino Arroitajauregi – Teodoro Karmengo Ama Birjinarena (Xemein, 1902 – Buenos Aires, 1984) zen. Kartzela horretan egon zen, besteak beste, Migel Baskaran, Barinagako Illaizpe baserrikoa. Bera eta beste hiru lagun, milizianoek atxilotu zituzten, frontearen alde batetik bestera jendea pasatzen zutela salaketapean[34].

Euzkadiko Jaurlaritzaren eginkizun garrantzitsuenetarikoa ere izan zen Euzko Gudarostea antolatzea. Horrela, 1936ko urriaren 16an, 1932tik 1935erako kintak deitu zituen. Dena dela, azarora arte, Jaurlaritzak bakarrik boluntarioak eskatzen zituen. Boluntario joanez, edozein batailoi aukeratu ahal zen, eta gazte abertzale batzuek gobernutik deitu aurretik aurkeztea erabaki zuten, EAJ-ko batailoietan borrokatzeko helburuarekin.

Dakigunez, frontea 1936ko urriaren 4an, Arrosarioko domekan, iritsi zen Berriatuko eta Larruskain inguruko mendietara, eta Joseba Andoni Urresti abade abertzaleak, beldurtuta, ihes egin zuen Frantziara.

Jose Sagarnak ere pentsatu zuen ihes egitea, baina Berriatuko Don Domingo abadeak gelditzeko konbentzitu zuen, ezer ez zuela egin, eta ez zitzaiola ezer gertatuko esanez. Honenbestez, 1936ko urriaren 8an, Jose Sagarnak Larruskaingo parrokiaren ardura hartu behar izan zuen berriro, eta, urriaren 8aren bueltan, Larruskainera joatea pentsatu zuen. «Berriatutik Amallora juateko erabagixa hartu zeban ba Sagarnak, eta haruntz abixatu zan. Artian frenteko posiziñuak finkatu barik zeguazen, eta ezin izan zan aurrera pasatu Pertika basarritik; hango familixia ezaguna zeban, eta eurekin egon zan 9 egunian. Frentia estabilizatu zanian, Pertikan golpistak geratu ziran eta Don Josek Amallora pasatzeko salbokonduktua eskatu zetsen: bera abadia zala, Larruskaiñeko parrokixian arduria hartu bihar zebala, eta… Militarrak salbokonduktuori emon, eta bidia segitu ahal izan zeban» (Gorosabel, 2006: 115).

Bederatzi egun Berriatuko Pertika baserrian egin ostean, Jose Sagarna abadea urriaren 17an, zapatu iluntzean, heldu zen Larruskainera, eta biharamunean, urriaren 18an, igandean, goizeko zortzietan, meza eman zuen Larruskaingo elizan.

Gerra hasi aurretik, Larruskain Errota baserrian egon zen apopilo, baina etxe hau jendez gainezka zegoenez, Amallogarai Goikoa baserrira joan zen, lo egitera. Larruskain Errota baserrian Amulategi baserrikoak zeuden, Zabala familiakoak. Familia honek ihes egin behar izan zuen Amulategi baserritik, matxinatuek aginte postua eta sektoreko komandantearen etxebizitza jarri zituztelako bertan (Gorosabel, 2006: 115 eta Euzko Apaiz Taldea, 1981: 282).

Urriaren 19an, astelehenean, Jose Sagarna atxilotu egin zuten, Molina komandante galiziarraren aginduz, eta Mandiola Goikoa aginte postura eraman zuten lotuta. Abadearekin batera eraman zituzten atxilotuta Sagarnak lo egin zuen baserriko gizonak: Amallogarai Goikoa baserriko Frantzisko Txurruka Arriola eta honen emaztearen osaba, Inazio Etxaniz Jemein. Amallogarai Goikoa baserrian Frantziskoren emaztea, Josefa Etxaniz, eta hauen lau seme-alabak gelditu ziren.

Jose Sagarna abadea Mandiola Goikoa baserriko kortan sartu zuten lotuta, eta berbertan pasatu zuen urriaren 19tik hogeirako gaua. Kortan zegoela, Manuel Alzibarare-

---

[34] Frankistek Bilbo hartu zutenean, komentua presondegi izaten jarraitu zuen, eta hainbat markinar eta xemeindar kartzelaratu zituzten bertan, bereziki fraide eta abadeak (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 383).

txuluaga joan zitzaion ikustera, eta orduan jakin zuen Josek nor zen bere salatzailea, eta zergatik zegoen preso. Gorosabelek kontatzen duen bezala: «Larruskain Goikua basarrixan Manuel Alzibararetxuluaga bizi zan. Diruduna, ezkonduta baiña seme-alaba barik, auzoko jauntxo modura jokatzen zeban: elizan aparteko jarrilekua zeuken, auzoko maistra eta abadia eurenian hartzeko pribilejixua izaten zeben… Sagarna baiño lehenago Etxebarrieta mendatarra egon zan Amallon abade, eta ohitturiari jarraituta Larruskain Goikuan sartu zan. Kontua da, Manuel eta maistriak, etxekojaun eta apopilluan artekua baiño harreman 'estuagua' ei zeukela (maistria haurdun geratu zan). Pentsatu leike, 1935ean eta auzo txiki baten, nahikua egoera eskandalosua izango zala: etxejoauna, emaztia, maittalia eta auzoko abadia danak etxe baten.

Etxebarrietak hanka egin zeban etxe hartatik, jakiña. Gaiñera, ordurarte sakristau biharrak Manuel Alzibararetxuluagan loba batek egitten bazittuazen be, eliztarrak ez zeguazen oso pozik berakin; arduriori kendu eta Larruskain Errotako Jesus Soraluze eta Florencia Ansolari emon zetsen. Azkenik, maistra hori nahikua txarto konpontzen ei zan auzotarrekin. Batetik umiak gogorregi jo egiten zittuan (guraso batzuk nahixago zeben umiak Urkaregiko eskoletara bialdu, urriñago egon arren), eta bestetik 'elizian kontrakua' ei zan. Honek zirala eta, parrokixako jentiak, Etxebarrieta abadia buru zeukela, Diputaziñora jo eta maistrihori kentzia lortu zeban.

Gauza guzti honekin, Manuel Alzibararetxuluaga nahikua amorratu zan. Hain da eze, pentsaera politikoz aldatu egin zeban. Euskal abertzale izatetik, hurrengo hauteskundietan Jose Luis Gaitan de Aiala españolistiandako botua eskatzera pasatu zeban» (Gorosabel, 2006: 114 eta Euzko Apaiz Taldea, 1981: 278-301).

Gaua Mandiola Goikoa baserrian egin ostean, urriaren hogeiko goizean, martitzenean, fusilatu zuten erreketeek 24 urteko Jose Sagarna abadea, Amulategi baserriaren inguruan. Fusilatzeko Amulategi baserrira jaitsi zuten, Joseren azken nahia izan zelako Larruskaingo elizara begira hiltzea. Ostean, Larruskaingo kanposantura jaitsi zuten, manta batekin estalita. Amallogarai Goikoa baserrikoek ikusi zuten hildako norbait manta batekin tapatuta jaisten, baina ez zuten ezagutu. Alboko baserriko gizonak, Jose Maria Lizundiak, oinetakoengatik ezagutu omen zuen defuntua.

Soldadu frankistek eurek lurperatu zuten abadea, Larruskaingo kanposantuan, eta egurrezko gurutze xume bat jarri zioten (Gorosabel, 2006: 116).

Jose Sagarna abade euskaltzalea zela badakigu (euskaraz irakurtzen zuen, euskaraz ematen zuen predikua eta dotrina…), eta pentsatzekoa da abertzalea ere bazela. Errepublikarren alde espioitza lanak egiten zituela esan zien Manuel Alzibararetxuluagak miliziar frankistei, baina benetako arrazoia mendekua zen. Jose Sagarnak bere etxean bizitzeari uko egin ziolako eta bere ilobari sakristau lana eman ez ziolako salatu zuen Manuelek. Urteetan auzoko jauntxoa izandakoak horrela mendekatu nahi izan zuen abadeak egindako mesprezua (Gorosabel, 2006: 112-117).

Sagarna hil zuten egunean, urriaren hogeian, herritarren artean «Egoker» ezizena zuen hegazkinak 13-14 bonba bota zituen Esperanza fabrikaren inguruan, Xemeingo Elizan, karmeldarren elizaren atzean eta Leonet-en etxearen teilatuan. Bonbardaketa honetan, Agustin Furundarena Etxaniz «Agustin Buztarri» (Mutriku, 1866 – Bilbo, 1936) zendu zen. Agustin bere etxe osteko ortuan sagarrak biltzen zegoen, eta metrailak hanka kendu zion orkatilatik. Bilboko ospitale Zibilera eraman zuten berehala, baina handik gutxira hil zen, ospitalean bertan.

Biharamunean, 1936ko urriaren 21eko goizeko zazpietan, eguaztenean, militar matxinatuak gosaltzen zeuden Mandiola Goikoa aginte postuan. Egixarreko bataila prestatzeko, errepublikarrek obusak bota zituzten, Beide baserritik, eta horietariko obus bat

Mandiola Goikoa baserriko horma zulatu eta sukaldera sartu zen. Eztandak Jose Sagarnaren heriotza agindu zuen Molina komandantea hartu zuen bete-betean, eta izterra eta mokorra apurtu zizkion. Azpeitiko ospitalera eraman zuten zaurituta, baina laster hil zen. Ospitalean hiltzen zegoela, Bittori Muniozguren Larrañagak ikusi zuen. Bittori Elordi baserrian bizi zen, eta egun batzuk aurretik, baserrian bertan, tiro batek zauritu zuen bere bost urteko iloba, Pedro Txurruka Muniozguren (1931 - 2008), zaintzen zegoen.

Molina hil zen egunean, urriaren 21ean, jakin zuen Amallogarai Goikoa baserriko andreak bere senarra eta osaba Elgoibarren zeudela atxilotuta. Handik hilabetera agertu ziren etxean.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Agarre baserrian (Amallo) gudariei eta erizainei emandako meza, 1936ko urriaren hamaikan. Tartean Agirre Lehendakaria.

2.4. **1936ko urriaren 21a: Egixarreko bataila**

Gerra Zibileko borroka garrantzitsuenak Espainiaren eta Frantziaren arteko mugan (Bidasoan, 1936ko uztailaren amaieran eta abuztuan), Altzibarren (Oiartzunen, 1936ko uztailaren 23tik 28ra), Aiako Harrietan (Erlaitzen, 1936ko abuztuaren 10etik 15era), San Martzialen (1936ko abuztuaren 18tik irailaren 3ra), Gorbeian (1937ko apirilaren 31n), Intxortan (1936ko urriaren 4tik 1937ko apirilaren 24ra), Sabigainen (1937ko apirilaren 11tik 14ra), Bermeon (1937ko maiatzaren 1etik 3ra), Solluben (1937ko maiatzaren 7tik 14ra), Bizkargin (1937ko maiatzaren 11tik 15era) eta Lemoa Haitzean (1937ko maiatzaren 25etik 1937ko ekainaren 5era) izan ziren. Dena den, Gerra Zibilari buruzko liburuetan gutxitan agertzen da Markinako lurretan izan zen bataila garrantzitsu bat: Egixarreko bataila.

Bataila hau oso entzutetsua da markinarren eta xemeindarren artean, ingurune honetan izan zen gudaldi gogorrenetarikoa eta odoltsuenetarikoa izan zelako. Egixarren gertatutakoak markinarren eta xemeindarren artean urteetan izan zuen oihartzunaren

erakusle da, gerraostean ere, frankistek bataila hau gogoratzeko eta bertan hil ziren erreketeen oroimena bizirik mantentzeko omenaldi ekitaldiak antolatzen zituztela, Egixarreko zelaian berbertan.

Bataila honetan parte hartu zuten miliziar eta gudari errepublikarrak 1936ko urriaren 19an iritsi ziren Markinara. Fulgencio Mateos batailoi sozialista (aurretik UGT 1.a batailoia) irailaren bukaeratik zegoen Markinako Frontean, baina Oldargi konpainia (Otxandiano batailoiko konpainia) eta Ertzaintzaren konpainia bat gudaldi horretarako etorri ziren. Guztiak moja karmeldarren komentuan koarteleratu ziren. Helburu bat zuten batailoi eta konpainia hauek: erreketeen eskuetan zeuden posizioak hartzea. Besteak beste, Mandiola Goikoa baserria (Komandantzia), Mandiola Behekoa, Amallogarai (erreketeen eta falangisten hiru konpainia), Oreguntza (Oruntze) eta Amulategi (erreketeen aginte postua eta sektoreko komandantearen etxebizitza). Posizio horiek oso garrantzitsuak ziren ikuspuntu militarretik, Bizkaitik Gipuzkoara sartzeko pasabide naturala hor dagoelako. Pasagune hura hartuta, posible zen Urkaregi Gainean zeuden erreketeak erasotzea, eta Gipuzkoan sartzea.

Urriaren 21eko goizaldean hasi ziren milizianoen eta gudarien prestaketak. Oldargi batailoiko gudariek eta Ertzaintzakoek meza entzun zuten moja karmeldarren komentuko San Jose elizan, eta Akarregi ingurura igo ziren goizaldean. Bi konpainia hauek atzeguardian gelditu ziren. Mateos batailoiko milizianoak fronteko lehen lerroan jarri ziren, borrokarako prest.

Goizeko seiak eta erdietan, eusko gudarosteko artilleria hasi zen matxinatuen trintxeren aurka obusak botatzen, baina hauek ez ziren heldu matxinatuen trintxeretara 11k arte (hauetariko obus batek hil zuen Molina komandantea). Artilleria txar honekin hasi zen Mateos batailoiaren erasoa. Gainera, badirudi erreketeek bazekitela aurretik erasoa gertatuko zela, eta prest zeudela borrokarako (gogoratu Ledesma abizeneko Guardia Zibilen tenientea Egixarreko bataila antolatzen aritu zela, eta 1937ko otsailaren 19an, frankisten aldera pasatu zela, Markinako Fronteari buruzko informazio pila eramanez (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 78)).

Milizianoek orduetan gogor borrokatu arren, ezin izan zien erreketeei garaitu, eta, atzera egitean, izugarrizko «pasada» hartu zuten. Batzuen aburuz, gudaldi honetan 60 soldadu Errepublikar baino gehiago hil ziren (Talon, 1988: 913). Beste batzuek diote 40 soldadu Errepublikar hil zirela (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 80). Egixarren zauritu ostean zendu zen Fulgencio Mateos buruzagi sozialista[35]. Herritarren arabera, erreketeek ere hildako ugari izan zituzten. Jasaten ari ziren sarraskiaren ondorioz, borroka lekua utzi, eta ihes egitekotan ere egon ei ziren.

---

[35] Fulgencio Mateos Redondo Bizkaiko UGTko buruzagia zen, PSOEra afiliatua zegoen eta 1934ko altxamendua antolatu zuen Batzorde Iraultzaileko kidea zen. Bilboko miliziak zuzendu zituen matxinada honetan. Gerra hasi zenean, Bilboko zinegotzi sozialista zen, eta milizianoen lehen zutabeak antolatu zituen. Hain zuzen ere, Deustuan boluntarioekin sortu zen UGT 1. batailoiaren buruzagia izan zen. Arabako frontean eta Gipuzkoan borrokatu zuen. Egixarreko batailan zauritu zuten, eta lau egun geroago, urriaren 25ean, hil zen Bilbon. Bere omenez, UGT 1. batailoiak Fulgencio Mateos izena hartu zuen. Heriotza honek eragin handia izan zuen gizartean. Bere hilotza Bilboko Udaletxean egon zen urriaren 27an, eta erakunde ofizial guztietako ikurrinak masta erdira egon ziren. 1936ko urriaren 27an lurperatu zuten. Lurperatzerakoan, Agirre lehendakariak zera esan zuen: «…cuando se bate y se muere luchando heroicamente, como Fulgencio Mateos, en todos los corazones tiene entrada el dolor y desaparecen todas las diferencias ideológicas y doctrinales, para rendir sólo el homenaje a que se hizo acreedor» (ABC egunkaria, 1936ko urriaren 28an, 14. orrialdea). 1983ko apirilean, omenaldi bat egin zioten Derioko hilerrian.

Ekintza oker hau Antonio Naranjo Limon Guardia Zibilen komandanteak zuzendu zuen (Talon, 1988: 913; Onaindia, 1937: 16 eta ABC, 1936-10-22). Ledesma abizeneko Guardia Zibilen tenienteak ere parte hartu zuen bataila honen antolaketan (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 80). Antonio Naranjo Limon Markinako sektoreko komandantea zen, eta bere ostean Ledesmak hartu zuen agintea. Geroago, Ledesmak Lekeitioko Sektoreko agintea ere izan zuen. Biek desertatu zuten armada Errepublikarretik.

Egixarreko gudaldia negargarria izan zen. Izugarria izan omen zen Xemeingain baserritik behera milizianoak eta gudariak Markinara nola heltzen ziren ikustea. Herritar askok igo behar izan zuten Akarregira zaurituak eta hildakoak jaisten laguntzera[36]. Zaurituak Patrokua Jauregira eta Munibe Jauregira eraman zituzten lehenengo, eta larrien zeudenak Bilboko ospitaletara.

Zorigaitza areagotzeko, egun horretan bertan, zaurituetariko asko Patrokua jauregian hil ziren, baina ez batailan izandako zauriengatik, baizik eta, arratsaldean, hegazkin frankistek eraikina bonbardatu zutelako (Talon, 1988: 913). Frankistek berehala mendekatu nahi izan zituzten goizean izan zituzten hildakoak. Patrokuako Odol Ospitalearen aurkako bonbardaketa honetan hil zen Andres Lorez Uranga Euskal Milizietako medikua. Andres tolosarra zen, eta Egixarreko batailan zauritutakoak osatzen zegoen, hil zutenean (Untzeta, 1937)[37].

Egixarreko batailan, Mateos batailoi sozialista, eta Oldargi (Otxandiano batailoiko konpainia) eta Ertzaintzaren konpainia abertzaleak parte hartu zutela esan dut. Frankisten aldetik, San Ignazio Errekete Tertzioak borrokatu zuen. San Ignazio Errekete Tertzioa mugitu gabe egon zen gure herriko mendietan, frontea geratuta egon zen zazpi hiletan.

2.5. **1936ko urriko azken egunak: atxiloketa eta heriotza gehiago**

Egixarreko gudaldia gertatu zen egunean, 1936ko urriaren 21ean, Zelestino Onaindia eta Jose Peñagarikano atxilotu zituzten Elgoibarren. Biak fusilatu zituzten urriaren bukaeran. Alberto Onaindiak dioen bezala: «El frente militar se adelantó hasta quedar Marquina-Echevarría entre los dos fuegos, por lo cual el sacerdote Peñagaricano se retiró a un caserío de unos primos suyos que también quedó en poder de los militares. Allí

---

[36] Bataila honetan hil zirenetariko batzuk izan ziren Timoteo Alvarez Arroyo (Fulgencio Mateos) (Egaña, VII. tomoa: 240), Bartolome Arguilea Dominguez (Fulgencio Mateos), Santiago Garin Ugarte (Euzko Indarra), Valentin Lezarzegi Lauzirika (Herri Miliziak), Teodoro Basauri Yarza (Herri Miliziak), Andres López Uranga (Euskal Miliziak) eta Saturnino Nogal Zabala (Fulgencio Mateos). Ikusten den bezala, hildakoak Fulgencio Mateos (PSOE/UGT) batailoikoak, Herri Miliziak batailoikoak eta Euzko Indarra (ANV 2) batailoikoak ziren, nagusiki. Hurrengo egunetan ere bataila honetan borrokatu zuten asko hil ziren. Urriaren 22an, Eleuterio Alfaro Benito (Egaña, VII. tomoa: 248) eta Heliodoro Morillo Santos hil ziren, biak Herri Miliziak batailoikoak. Urriaren 23an, Fernando Torrealdai Zabala (Stalin) hil zen, urriaren 25ean Domingo Del río Leal (Dragones), Julio Rey Navazo (Artilleria Donostia) eta Fulgencio Mateos bera (Fulgencio Mateos batailoia) hil ziren.

[37] Andres López Uranga Gipuzkoakoan zauritutakoekin lan egin zuen lehenengo, eta, Gipuzkoa frankisten eskuetan jausi zenean, Markinako Frontera etorri zen. Markinako Erregistro Zibilaren arabera, Patrokua jauregiko ospitalean hil zen, urriaren 22an, metrailak eragin zizkion zaurien ondorioz. Markina-Xemeingo kanposantuan lurperatu zuten. Untzetak dioenaren arabera, urriaren 21eko arratsaldean hil zen (Untzeta, 1937). Bonbardaketa honek Jauregiaren barnean eragin zituen kalteak ikus daitezke Untzetaren liburuan.

se encontró con el capitán Eduardo de Gortazar, marido de María Dolores Prado de Gortazar, los dos bien conocidos en Marquina. Eduardo recomendó a D. José Peñagaricano que se alejara del frente yendo a residir en casa de mi hermano Zelestino, en Elgoibar. Allí estuvieron los dos en paz y tranquilidad, sin que nadie les molestara para nada, dedicado mi hermano a las labores normales y ordinarias de su parroquia. Pero el 21 de octubre llegaron a Elgoibar unos militares que detuvieron a los dos sacerdotes y los llevaron a la cárcel de Ondarreta, en San Sebastián. El 27 fue fusilado D. José Peñagaricano; el 28 mi hermano Zelestino» (Onaindia, 1980: 39, ikusi ere Onaindia, 1988: 204 eta Pérez Esteban, 2008: 158-159). Guztira, gerratean, 75 fraide eta abade fusilatu zituzten Hego Euskal Herrian. Horietatik 49 ezkerreko milizianoek hil zituzten, eta 16 Francoren tropek. 16 horien artean daude Zelestino Onaindia, Jose Peñagarikano eta Jose Sagarna abadeak (Esnaola eta Iturraran, 1994: 15-17).



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Agarre baserrian (Amallo) gudariei eta erizainei emandako meza, 1936ko urriaren hamaikan.

1936ko urria atsedenik gabeko hila izan zen. Bonbardaketak, borrokak eta heriotzak bata bestearen atzetik etorri ziren, eta jendea lur jota zegoen; gertatzen ari zena sinistu ezinda. Kontuan izan urriaren hogeitik aurrera, hegazkin frankistek, ia egunero, bi aldiz bonbardatzen zituztela Markina eta Xemein, goizean eta arratsaldean, eta bizimodu normala egitea ezinezkoa zela.

Zelestino eta Jose atxilotu osteko egunean, 1936ko urriaren 22an, Isidra Ugartetxea Ugarteburu (Xemein, 1896 – Xemein, 1936) xemeindarra hil zuten Meabeko bidean, uren biltegi zaharra dagoen inguruan. Bere amarekin zihoan paseatzen, eta, hegazkin frankistak ikusi zituztenean, ezkutatzen saiatu ziren, baina bonben metrailak zauri larriak eragin zizkion Isidrari buruan, eta bertan zendu zen. Markinako kanposantuan lurperatu zuten.

Biharamunean, 1936ko urriaren 23ko bonbardaketan, Dolores Garate Bru hil zuten faxistek.

Santiago baserriaren alboan, Kalamuara begira, milizianoen kanoiak zeuden. Hegazkinek kanoi horien aurka lau bonba bota zituzten, eta metrailak Erdotza Jauregian bizi zen Lolita hil zuen. 16 urte zituen hil zutenean. «Erdoza Mayor» (Etxebarria, 1887 – Bartzelona, 1932) pilotariaren alaba zen, eta «Erdoza Menor» pilotariaren (Etxebarria, 1889 – Bartzelona, 1942) iloba. Bonbardaketa honetan, beste bost pertsona ere zauritu zituzten: besteak beste, Donostiatik etorri zen Erdozatarren ahaide bat eta neskame bat (Euzkadi, 1936-10-24, herritarrek emandako informazioa eta Markina-Xemeingo Erregistro Zibila).

Heriotza ugari eragiteaz gain, frankistak euren aldean gelditu ziren euskaltzale eta abertzaleak atxilotzen segitu zuten. Urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran, Pertika baserriko hiru gizon atxilotu zituzten: Agustin Ugartetxea Zabala «Agustin Goitxi» (Xemein, 1909 – Markina-Xemein, 1991), honen aitaginarreba, Azumendi abizenekoa, eta Pertika baserriko alboko etxebizitzako gizona.

Francoren tropak Berriatu inguruko mendietan agertu zirenean (1936ko urriaren 4an), Pertika baserria frankisten aldean gelditu zen. Urriaren 8tik 17ra, Sagarna abadea egon zen eurekin bizitzen. Handik gutxira (nire ustez, urriaren amaieran edo azaroaren hastapenean), Markinako bi gizon eta Berriatuko beste bat agertu ziren erreketeekin baserrian, eta Agustin Ugartetxea, Agustinen aitaginarreba eta auzoko beste gizon bat atxilotu zituzten, abertzaleak zirelako, eta, agian, hipotesi bat da hau, Sagarna abadea beraiekin eduki zutelako (kontuan izan Amallogarai Goikoa baserriko Frantzisko Txurruka Arriola eta Inazio Etxaniz Jemeinen ere atxilotu zituztela, Sagarnak hil aurreko gauean hauen etxean lo egin zuelako). Pertika baserriko hiru gizonak Debako eskoletan frankistek ireki zuten kartzelan sartu zituzten preso[38].

Beldur izugarria pasatu zuten kartzelan egon ziren hiru hilabeteetan, kartzelako zaindariek behin baino gehiagotan esaten zietelako biharamunean fusilatuko zituztela. Egun batean, baina, Agustinekin soldaduskan ibilitako pertsona batek ikusi zituen, eta Deba inguruko herri bateko alkate frankista izanik, kartzelatik ateratzea lortu zuen. Pertikara bueltatu ziren hirurak, eta Agustinek bere emaztea eta seme jaioberria ikusi ahal izan zituen. Dena den, 27 urte zituenez, Francok gerrara eraman zuen, 1937aren hasieran, bere kintako beste askorekin batera.

2.6. **1936ko urriaren bigarren erdia: Errepublikaren Defentsarako Herri Batzorde eta Ordena Publiko berriak**

1936ko urria hil gogorra izan zen, baita abertzaleen eta ezkertiarren arteko harremanei dagokionez ere. Batzuk eta besteak elkarrekin ari ziren faxisten aurka borrokatzen, baina arazoak zituzten elkar ulertzeko eta estrategia bateratuak sortzeko; ideologia, ikuspuntu eta gerra egiteko modu desberdinak zituztelako. EAJ-koak ez zeuden ados Santiago Meaberen agintzeko moduarekin, ezta Ordena Publikoko milizianoek zuten jarrerekin eta portaerarekin ere. 1936ko uztailetik urrira, hainbat liskar eta eztabaida izan zituzten Santiago Meaberekin eta milizianoekin, eta harremanak txarrak ziren.

---

[38] Debara eraman zituzten, bertan zegoelako Nafarroako Bigarren Brigadaren kuartel nagusia. Bigarren Brigada hau Ondarroa inguruan hasi eta Akarregi ingurura arte egon zen borrokatzen (Lezamiz eta Tabernilla, 2002; http://www.sanchodebeurko.org).

1936ko urriaren bigarren erdian, Markinako EAJ-koak Bizkaiko Gobernadore Zibilarekin eta Santiago Meaberekin elkartu ziren, eta, bileran berbertan, Gobernariak Santiago Meabe Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordeko lehendakaritzatik kendu zuen.

Ondorengo egunetan, EAJ-koek Santiago Meaberen mende zeuden ordena publikoko milizianoei herritik joan egin behar zutela, eta ordena publikoa batzorde berri baten eskuetan gelditzen zela jakinarazi zietenean, liskar izugarria sortu omen zen abertzaleen eta milizianoen artean. EAJ-ko gazteak eta milizianoak kale erdian ia-ia elkar tirokatzen bukatu zuten, milizianoek ez zutelako nahi alde egiterik (Onaindia, 1937: 5-6).

Behin Santiago Meabe Batzordeko agintaritzatik kendu eta milizianoen batzordea desegin ostean, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzorde berria eratu zen, baita Isunen Azpibatzordea, Hornidura Azpibatzordea, Ikerketa Azpibatzordea, Emakumeen Zuzendaritza eta Langileen Kolokaziorako Ikuskaritza Batzordea ere. Batzorde eta azpibatzorde hauetan Etxebarriako, Markinako eta Xemeingo EAJ-ko eta Herri Fronteko (Sozialistak eta Izquierda Republicanakoak) kideek parte hartu zuten, eta euren zeregina zen ordena ziurtatzea, herriko ondarea zaintzea, elikagaien hornikuntzak eta banaketak prestatzea, defentsarako eraikuntzak egitea eta bizikidetza ziurtatzea[39]. Honako pertsona hauek osatzen zituzten batzordeok:

Errepublikaren Defentsarako Herri Batzorde berria

1. Ignazio Azkue Goia (sozialista)
2. Benito Muñoz Azpeitia (Markinako Batzorde sozialistako lehendakaria)
3. Anbrosio Mallukiza Aldaolea (Izquierda Republicana)
4. Txomin Aretxabaleta Arriola (EAJ)
5. Anjel Aretxabaleta Aizpuru (Izquierda Republicana)
6. Anastasio Barrenetxea Artamendi (EAJ)
7. Tomas Duralde Kerejeta (EAJ)
8. Bernardo Aretxabaleta Arriola (EAJ)
9. Manuel Cazalis Sarasua (sozialista)
10. Joan Cazalis Areitio (sozialista)
11. Joan Loiola eizagirre (EAJ)
12. Frantzisko Cazalis Areitio (sozialista)
13. Hilario Aretxabaleta Arriola (EAJ)
14. Gregorio Duralde Kerejeta (EAJ)

Isunen Azpibatzordea

1. Anastasio Barrenetxea Artamendi (EAJ)
2. Hilario Aretxabaleta Arriola (EAJ-ko Bizkaia Buru Batzarreko ordezkaria Markinan)
3. Bernardo Aretxabaleta Arriola (EAJ)
4. Txomin Aretxabaleta Arriola (EAJ)

---

[39] Frankistak herrian sartu ostean (1937ko apirilaren 27an), batzorde hauetako kideen, gerratean sortu zen Udal Batzordeko partaideen eta edonolako erantzukizun politikoak izan zituztenen aurka zuzendu zen, batez ere, errepresioa. Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean, Xemeingo eta Markinako Udal Batzordeetan, epaile eta fiskal lanetan edo erantzukizun politikoetan aritu zirenetariko askok ihes egitea lortu zuten, baina beste asko atxilotu zituzten, eta kartzelan sartu. Hauetariko hiru kartzelan hil ziren: Benito Muñoz, Benito Aginaga eta Ignazio Ugarteburu. Beste hiru fusilatu egin zituzten: Joan Loiola, Anbrosio Mallukiza eta Hilario Aretxabaleta.

5. Anbrosio Mallukiza Aldaolea (Izquierda Republicana)
6. Manuel Cazalis Sarasua (Alderdi Sozialista)
7. Martin Laka Mandiola (Izquierda Republicana)
8. Kasimiro Allende (ezkertiarra)
9. Joan Loiola eizagirre (EAJ)

Ikerketa Azpibatzordea

1. Tomas Duralde Kerejeta (EAJ)
2. Bernardo Aretxabaleta Arriola (EAJ, Markinako Alkatea gerratean)
3. Pedro Onaindia Zuluaga (EAJ)

Emakumeen Zuzendaritza

1. Elixabete Aginaga Garate (EAJ)
2. Purificacion (Purita) Foruria Zelaia (EAJ)
3. Eufemia Ugalde (EAJ)

Langileen Kolokaziorako Ikuskaritza Batzordea:

1. Joan Alzaa Berra «Joan Portal»[40] (EAJ)
2. Fernando Oliver Lakasta (Sozialista)
3. Anastasio Barrenetxea Artamendi (EAJ)
4. Anjel Aretxabaleta Aizpuru (Izquierda Republicana)



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Agarre baserrian (Amallo) gudariei eta erizainei emandako meza, 1936ko urriaren hamaikan.

[40] Joan Alzaa (1895 - 1970) Lanbidez igeltseroa zen, eta ideologia abertzalea zuen. Errepublika garaian, Batzokian antolatzen ziren antzerki emanaldietan parte hartzen zuen.

Santiago Meaberi Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordearen aginpidea kendu, eta ordena publikoaren ardura zuten milizianoak bota ostean, ordena publiko berria sortu zen, 1936ko urriaren 18tik 22ra. Oraingo honetan, eginkizun hau elgoibartarren eskuetan gelditu zen. Kontuan izan, 1936ko irailaren 21ean, Elgoibar frankisten eskuetan jausi zela, eta Elgoibarko gazte abertzale asko etorri zela Markinara ihesean.

Hasieran, elgoibartar gazteak herriko jendearen etxeetan sakabanatuta bizi ziren, baina, geroago, Euzko-Etxeako (Zehar kaleko bederatzigarren zenbakidun etxea) lehen solairura pasatu ziren, bertan bizi zirenak Esperanza fabrikarekin Zamudiora lanera joanak zirelako. Talde honek kaleak eta plazak zaintzen zituen gauez eta egunez, eta ordena publikoa ziurtatzen zuen. Euskaldunak kaleak zaintzen ikusteak konfiantza asko ematen zien herritarrei.

Badirudi jendea lasaiago zegoela elgoibartarrekin, baina, egia esan, hauen lana ez zen erraza. Egoera istilutsu hartan, ordena publikoko zaintzaileen eginkizuna arriskuz beterik zegoen, eta, arrazoi desberdinengatik, talde honetako bi pertsona hil ziren gure herrian: Domeka Gabilondo Olañeta eta Julio Gabilondo Agirre.

Domeka Gabilondo urriaren 26ko bonbardaketan hil zen. Bonbetariko bat Tate gozotegiaren parean jausi zen, eta kalte asko eragin zizkion etxeari. Beste bonba bat Karlos Salazarren etxean lehertu zen. Hirugarren batek Mesedetako mojen elizaren ate aurrean eztanda egin zuen, eta metrailak 43 urteko Domeka Gabilondo Olañeta elgoibartarra zauritu zuen. Basurtuko ospitalera eraman zuten berehala, baina handik hiru egunetara hil zen[41] (Onaindia, 1937: 10; herritarrek emandako informazioa, 1936ko urriaren 30reko Euzkadi egunkaria eta http://www.elgoibar1936.com/).

Biharamuneko bonbardaketan, 1936ko urriaren 27koan, Etxebarriako Joan Jose Idoeta (Etxebarria, 1875 – Etxebarria, 1936) hil zen.

Beide baserriaren alboan, errepublikarrek kanoi bateria bat jarri zuten, eta erreketeek kanoi horren aurka bonbak bota zituzten. Bonbardaketa horretan, Joan Jose Idoeta Solozabal, Amoto-txiki hil zen, eta Etxebarriako Beide Baserria ere erre egin zen. Amoto-txiki Beide baserrikoei sua amatatzen laguntzera joan ei zen, baina bonba gehiago bota zituzten, eta metrailaren ondorioz zendu zen. Martzel Monterrei eta beste pertsona bat ere zauritu ziren (ABC egunkaria, 1936-10-30: 11, Markina-Xemeingo Erregistro Zibila, eta Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1989: 137). Aipatzekoa da Beidetik errepublikarrek jaurtitako bonbek Etxebarriako Mandiola Beheko baserria erre zutela (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1989: 161).

Bonbardaketek eta erasoek eragiten zituzten triskantzekin beldurtuta, frontetik hurbil edota su biren artean gelditu ziren baserritarrek euren etxeak utzi eta beste nonbaitera ihes egiten hasi ziren. Kasu batzuetan horrela nahi zutelako eta beste batzuetan milizianoek behartuta, Larruskain, Amallo erreka, Akarregi, Urkaregi, Etxebarri, Kalamua eta Barinaga inguruko baserritar asko, ahal zutena gurdietan sartu, abereak bildu eta beste nonbaitera joan ziren bizitzera. Arriskutsuegia zen euren etxeetan jarraitzea.

2.7. **1936ko urriaren 27an eta 28an: Jose Peñagarikano eta Zelestino Onaindia fusilatu zituzten**

Etxebarriako Joan Jose Idoeta hil zuten egunean, 1936ko urriaren 27an, Jose Peñagarikano fusilatu zuten Oiartzunen (Onaindia, 1980: 39, Gallego eta Pazos, 2001:

[41] Bonbardaketa horretan, Silbin Gabilondo eta Iñaki Konde Isasmendi ere zauritu ziren.

275-277 eta Onaindia, S., 1988: 204). Biharamunean, urriaren 28an, Zelestino Onaindia Zuluaga ere fusilatu zuten, Hernanin (Onaindia, 1980: 39, ikusi ere Onaindia, S., 1988: 204).

Fusilamendu hauekin, badirudi abade abertzaleak eta errepublikazaleak zigortu eta beldurtu nahi zituztela, hauen jarrera aldatzeko. Pérez Esteban-ek dioen bezala: «Como escarmiento y aviso al nacionalismo vasco y a sus curas leales a la República, el banco fascista decidió a mediados de octubre el fusilamiento de *unas docenas de sacerdotes vascos acusados de actividades políticas*» (Pérez Esteban, 2008: 146). Zelestinoren kasuan, gainera, badirudi Alberto Onaindiaren anaia izateak eragina izan zuela bere atxilotze eta fusilamenduan. Pérezek dioen bezala: «Celestino Onaindia Zuloaga, natural de Markina, fue ejecutado el 28 de octubre de 1936, también en Hernani. Segun su sobrina, Miren Onaindia, de 74 años, '…apenas lo traté, pero en su casa siempre se ha hablado del tío Celestino, el que mataron los franquistas. Tenía 38 años y volvía de oficiar un entierro. Le esposaron y llevaron a la cárcel de Ondarreta, donde estuvo ocho días. Le fusilaron sin juicio, sólo por ser un sacerdote vasco; la orden de ejecución apareció después en un archivo de Galicia. Murió entonando un *Tedeum* bajo las balas'.

Celestino era hermano de Alberto Onaindia Zuloaga, el padre Olaso, figura clave en la iglesia nacionalista vasca, y seguramente fue este parentesco el motivo real de su fusilamiento» (Pérez Esteban, 2008: 158-159).

1936ko urria gerrateko hil gogorrenetarikoa izan zen markinarrentzat eta xemeindarrentzat.

2.8. **1936ko urriaren 26tik 30era: bonbardaketen aurkako babesleku publikoen eraikuntza**

Eraso, bonbardaketa eta borroka bortitzak izan ziren inguruko mendietan, eta alde bateko zein besteko hainbat soldadu hil ziren, baita zibil asko ere.

1936ko urriaren 30reko bonbardaketan, Eusebio Areitio Gabilondo hil zen, metrailaren ondorioz, Ibaibarreneta inguruan, fraideen komentuan zegoen babeslekura zihoala. Bilbotarra jaiotzez, Donostian bizi zen. Tren gidaria zen, eta, hil zenean, 39 urte zituen. UGT-ko milizietako kidea zen (Markina-Xemeingo Erregistro Zibila eta Egaña, 2000, VII. tomoa: 253).

Gure herriko lurretan soldadu Errepublikar asko hil ziren. Ahal zen kasuetan, gorpuak euren herrietara eramaten zituzten, baina kanpokoak Xemeingo kanposantuan lurperatzen zituzten. Eusebio Areitio donostiarra zenez, Xemeinen lurperatu zuten[42].

Miliziar eta gudari ugari zebilela kontuan izanik, bi herriok frankisten jomuga ziren, eta, hegazkinen bidez, zein Arnoate, Urkaregi edo Madalena (Berriatu) inguruko kanoi bateriekin, tropa nazionalek obus asko botatzen zituzten herriko etxeen aurka, batez ere milizianoak koarteleratuta zeuden inguruetara: Karmengo fraidetxera, Markinako alde zaharrera eta Urberuagako bainuetxera.

---

[42] Xemeinen lurperatu zituzten beste soldadu Errepublikar batzuk dira: Andres López Uranga (1936-10-21), Manuel Minguez Barros (1936-10-16), Julio Gabilondo Agirre (1936-11-8) eta Santiago Garin Ugarte (1936-10-21). 1937ko apirilaren 27tik aurrera, behin frankistak sartu ostean, 52 soldadu frankista lurperatu zituzten Xemeingo kanposantuan; besteak beste, Jesus de Pablo Alonso (1937-5-15) (Iturria: Markina-Xemeingo erregistro zibila).



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Agarre baserrian (Amallo) gudariei eta erizainei emandako meza, 1936ko urriaren hamaikan.

Gerraren hasierako hiletan (1936ko uztailetik urrira arte), jendea ez zen jabetzen bonbardaketen arriskuez, eta asko ziren hegazkin frankistei begira gelditzen zirenak (Onaindia, 1937). Leherketak hasten zirenean, gutxi ziren etxetik atera eta ezkutatzen zirenak, eta jendeak pentsatzen zuen atarian sartzea nahikoa zela, bonbetatik eta metrailatik babesteko. Urriaren bukaerara arte, Markinako eta Xemeingo hiriguneetan ez zen babeslekurik eraiki.

Dena dela, 1936ko urriaren hogeitik 26ra izan ziren bonbardaketek eragindako heriotzen ondorioz[43], jendea beldurtu egin zen, eta Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordeak babeslekuak eraikitzea erabaki zuen. Heriotza hauen ostean konturatu ziren agintariak zein herritarrak bonbardaketak oso arriskutsuak zirela, eta hauengandik ondo babestu beharra zegoela. 1936ko urriaren 26tik 31ra, babesleku publiko hauek eraiki ziren Markinan:

1. Zelaiko babeslekua: lehenengo eraiki zen babeslekua izan zen. Zulo izugarria egin zen iparretik hegora. Iru-zubi kafetegi parean zuen sarrera. Alabaina, ez dirudi babesleku legez denbora askoan erabili zenik, umelegia eta zikinegia zelako. Gainera, ez zen oso segurua, bonbardaketen bidez erraz apurtu zitekeelako.
2. Herriko erlojuaren kanpandorrearen azpian, Erdiko Kalean.
3. Gaur eguneko postetxearen aurrean dagoen aparkalekuan, Irarraga auzora joateko bidean.
4. Frontoi txikiko ezkerreko horman egindako zulo batean.
5. Ituarteko zubiaren azpian.
6. Xemeingo elizan.

[43] 1936ko urriaren hogeian, Agustin Furundarena hil zuten; urriaren 21ean, Isidra Ugartetxea; urriaren 23an, Dolores (Lolita) Garate; urriaren 26an, Domeka Gabilondo Markinako Ordena Publikoko gudari elgoibartarra eta urriaren 30rean, Eusebio Areitio Gabilondo.

Babesleku publikoetatik edo kobazuloetatik urrun bizi zirenek euren etxeetan edo inguruetan ere egiten zituzten ezkutalekuak: etxe barruan, mendian… markinar eta xemeindar askok Espainiako banderak jartzen omen zituzten euren etxeetako teilatuetan, hegazkin frankistei bertan matxinadaren aldekoak bizi zirela adierazteko, eta bonbardaketak saihesteko.

Oso ohikoa ere bazen kobazuloetan ezkutatzea (Osolon, Axpen edo Montemarren). Aita Zezilio fraide karmeldarrak bere kroniketan zioen legez: «…batzuk aurreratu eta besteek atzeratu gabe Markinako herri honetan izan genituen bederatzi hilabeteak, guretzat etenik gabeko ikaraldiak eta amairik gabeko arrisku aldiak izan ziren, ordu batzutan gure buruen gainetik obus zaparrada iragaten zelako. Meza eskaini eta gosaldu ondoren, Montemar baserri azpialdean zegoen kobazulo batetara joaten nintzen eta hegazkinak iragatean bertara sartzen arriskutik aldentzeko. Baina ez genituen gure buruak hegazkinen erasoaldietatik babestu behar bakarrik; hori beraien etorrera kanpai hotsek iragartzen zutenez errazagoa gertatzen zen; kanoiek jaurtitzen zituzten obusek, isilak zirenez, heriotza arrisku handiagoa ekartzen zuten…» (Urkiza, 1992: 289).



Argazkia: GureGipuzkoa.net «Markina. Ametrailadore etxea» © CC BY-SA: Indalecio Ojanguren. Ezkurrandiko metrailadore etxea. 1936ko urritik 1937ko apirilera bitartean eraiki zen.

Erdiko kalean dagoen erlojuaren dorrean[44], Xemeingo kanpandorrean edo Zapola mendian zainketa lanetan ari ziren miliziar eta gudariek, alarmak pizten zituzten, hegazkinen etorreraren berri emateko, eta jendea arrapaladan joaten zen babeslekuetara, edo bakoitzak ahal zuen tokira. Kanoi baterien bonbetatik ihes egitea zailagoa zen, leherketak momentu batetik bestera hasten zirelako, eta inork ez zuelako abisurik ematen. Konturatu orduko, bonbak buru gainean izaten ziren.

[44] Luis Vivanco bilbotarra Markinako udal kanpandorrean zainketa lanak egiten egon zenetariko bat izan zen. Hauen lana zen hegazkinen etorrera kanpaien bidez iragartzea.

Frontean babeslekuak eta lubakiak eraikitzeaz aparte, 1936ko urrian, Errepublikaren Aldeko Batzordea babeserako bigarren lerro bat eraikitzen hasi zen, Etxebarriako, Markinako eta Xemeingo lurretan. Bigarren lerro hau hiru herri guneen atzetik egina zegoen, eta Itoiñomenditik Urko mendira arte zihoan. Bigarren lerro honetan, hainbat lubaki eta metrailadore etxe (Itoiñomendi, Igoz, Zapola, Ezkurrandi, Iparragirre, Sakoneta, Iturreta, Arando…) eraiki zituzten, guztiak alanbrada bitartez lotuak. Oreinzarren, Iparragirren, Eskurraundi gainean, Igozen edo Zapola azpian oraindik ere zutik daude orduan eraikitako metrailadore etxeak. Zapola mendiko gotorlekuak eta beste batzuk egiten, Benito Muñoz markinarra ibili zen, beste luebakitzaile batzuekin batera. 1936ko urrian hasi ziren bigarren lerro honen eraikuntza lanak, eta azaroan jarraitu zuten.



Argazkia: Felipe Amutxastegi
Itsasalde batailoian borrokatu zuten Santi Zelaia, Migel Ibarluzea eta Luis Foruria markina-xemeindarrak

Dakidanez, Santiago Meabe ez zen EAJ-koen gustukoa, eta Bizkaiko gobernaria presionatu ostean, Meabe Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordeko buruzagitzatik kentzea lortu zuten. Hala ere, urriaren bukaeran, Bizkaiko Gobernadore Zibilak bere delegatu egin zuen Markinako Barrutian. Oraingo honetan, baina, idazkari lanetan, Patxi Iturrioz, Ordiziako alkate ohia, jarri zion, eta epaile militar bezala, Frantzisko Carnicero[45], Gorozikako maisua. Alberto Onaindiak dioen bezala, Iturriotz eta Carnicero alboan jarriz, Gobernadoreak ziurtatu nahi zuen Meabek zuhurtasunez hartzen zituela erabakiak (Onaindia, 1937: 15).

2.9. **1936ko azaroa: bizimodua goitik behera aldatuta**

1936ko azaroaren 2an, Euzkadiko Jaurlaritzak Euzkadiko Armadako soldaduen soldatak zehaztu zituen dekretu bidez: eguneko hamar pezeta soldaduentzat, kaboek soldaduek baino 30 pezeta gehiago irabazten zituzten hilean, eta sarjentuek eta subofizialek soldaduek baino 60 eta 100 pezeta gehiago. Alferezek, tenienteek eta kapitainek

[45] Francisco Carnicero, 1937ko uztailaren 9an, Francok maisutzatik bota zituen Bizkaiko maisu-tariko bat izan zen (Egaña, 2000, VII. tomoa: 208).

5.000, 6.000 eta 7.000 pezeta irabazten zituzten urtean (Gutierrez, 2007: 75). Errepublika garaian, langile arruntek, urtean, 300-400 pezeta inguru irabazten zituztela kontuan hartuta (1936an, Esperanzako langile arrunt batek zazpi pezeta irabazten zituen astean), Euskadiko Armadak aldi hartan ohikoak zirenak baino soldata hobeagoak ordaintzen zituen.

Soldata ona izan arren, ordena publikoa ziurtatzen zuten elgoibartarren lana arriskuz beterik zegoen. Bosgarren Zutabearen sabotajeak zaindu, lapurretak ekidin eta iskanbilak galarazteaz gain, milizianoek eta gudariek behar bezalako portaera zutela ziurtatu behar zuten, gauez eta egunez.

1936ko azaroaren 8an, iskanbila larri bat izan zen milizianoen eta Markinako Ordena Publikoko zaintzaileen artean. Errepublikako teniente batek (ANV-ko bataiioiren batekoa) Xemeingo neskatila bat bortxatu nahi izan omen zuen, eta Ordena Publikokoak atxilotzera joan zirenean, iskanbila izugarria sortu zen, eta Julio Gabilondo Agirre, ordena publikoko gudari elgoibartarra, hilda suertatu zen. Juliok 31 urte zituen hil zenean, eta Xemeingo kanposantuan lurperatu zuten. Erregistroko informazioaren arabera, su armak eragindako zauriengatik zendu zen[46] (Markina-Xemeingo erregistroa eta http://www.elgoibar1936.com).



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Agarre baserrian (Amallo) gudariei eta erizainei emandako meza, 1936ko urriaren hamaikan.

Miliziar, gudariek eta Errepublikaren Aldeko Batzordeko kideek babeslekuak eta lubakiak eraikitzen zituzten, eta atsedenik gabe aritzen ziren frontea zaintzen. Dena den, guda lerroa apurtu eta frankistak sartuko ziren beldur handia zegoen. 1936ko azaroaren 13an, Euzkadiko Jaurlaritzak erabaki zuen Esperanza arma fabrika Zamudiora eramatea,

[46] Juliori bere anaia Asentsio ere hil zitzaion Gerra Zibilean. Amuategi bataiioikoa zen, eta 1937ko apirilaren 30rean hil zen, Zugaztietan.

frontetik urruntzeko eta frankisten erasoengandik hobeto babesteko (Uriarte, 1976: 73). Zehatzago esateko, lantegiaren zati bat Bilboko San Mames futbol zelaiko tribuna azpira eraman zuten, eta bestea 1932an eraikitzen hasi ziren Zamudioko ospitale psikiatrikora (Steer, 2002: 84 eta 116)[47].

Fabrikarekin batera, markinar eta xemeindar asko joan ziren Zamudiora edo Deriora bizitzera. Zuzendari-gerentea, Castor Uriarte, eta bere familia ere Markinako etxea utzi, eta Bilbora joan ziren.

Hasieran, Esperanzarekin joan zirenek lasaitasuna ezagutu zuten, Zamudio frontetik urrunago zegoelako, eta Markina baino gutxiago bonbardatzen zutelako; hala ere, 1937ko apirilaren bukaeratik ekainaren erdi ingurura arte, hau da, Bilboko Burdinazko Gerrikoa apurtu zuten arte, langileek bonbardaketa ugari jasan zituzten, eta gorriak pasatu. Esperanza errepublikarrentzako armak egiten ari zen neurrian, frankisten helburu militar bihurtu zen, eta hamaika aldiz zigortu zituzten.

Zamudiora lan egitera joan behar izan zutenetariko asko emakumeak ziren (Kasilde Aginaga, Trinidad eta Josefa Maguregi Amezti…). Nik dakidala, gure herriko emakumeek ez zuten armarik hartu guda zibilean, eta ez ziren frontean ibili borrokatzen, ezta lubakiak egiten ere. Dena den, atzeguardian lan asko egin zuten. Bereziki Esperanza fabrikan aritu ziren emakumeek lan asko egin behar izan zuten, baldintza oso txarretan.

Esperanza lantegian militartu zituzten andrazkoez gain, Markinako Elixabete Aginaga Garatek (1901 - 1952), Purificación Foruria Zelaiak eta Eufemia Ugaldek Emakumeen zuzendaritza batzordea osatu zuten, 1936ko urriaren azkenetan, eta lan asko egin zuten emakumeen, umeen eta errefuxiatuen alde. Hiru emakume hauek Emakume Abertzale Batzakoak ziren, eta asko lagundu zizkien herrira bizitzera etorri ziren errefuxiatuei, elikagaiak, bizitokia eta arropak lortzen.

Emakume ezkertiarrak ez ziren asko Markinan eta Xemeinen; hala eta guztiz ere, hauetariko batzuek behar asko egin zuten atzeguardian. Mikaela Ibarrolazak (1913 - 2010), adibidez, Bartzelonara ihes egin zuen 1936ko irailaren azkenetan, eta soldaduentzako uniformeak egiten aritu zen, 1939ko urtarrilaren bukaerara arte, hau da, Bartzelona jausi zen arte. Gero, Frantziara pasatu zen, eta Gurs-eko kontzentrazio eremuan sartu zuten.

Frontea gure herriko lurretan kokatu zenean, Zirkulu Tradizionalista milizianoek bahitu zuten, eta tradizionalistak klandestinitatera pasatu ziren, baita margaritak ere. Dena den, margaritak eta andrazko tradizionalista batzuk espioitza lanetan aritu ziren, errepublikarrei kalte egiteko helburuarekin. Donostiako Margaritek ere lan asko egin omen zuten Markinako Frontean zazpi hiletan borrokatzen aritu ziren errekete nafarren alde[48].

---

[47] Esperanza fabrikak 50 milimetrotako (70 kilokoak) eta 81 milimetrotako (74 kilokoak) Valero morteroak, morteroentzako granadak, hegazkinentzako bonbak eta beste arma eta munizio batzuk egiten zituen Markinako lantokian, eta gune estrategikoa zen gobernuarentzako (Talon 1988: 676-679).

[48] Esker ona adierazteko, errekete nafarrek eskutitz hau idatzi zuten, 1936ko azaroaren 15ean (http://www.requetes.com/lesaca.html): «Agradecimiento de los requetés navarros a las Margaritas donostiarras.

Jamás podremos agradecer, como se merecen, a esas «Margaritas» donostiarras el desvelo e interés que demuestran por los Requetés navarros del frente de Marquina. Lejos de nuestros hogares, privados de la vista y caricia de nuestras madres, sin la comodidad de nuestras casas... encontramos, sin embargo, manos amigas, manos de madre, que nos cuidan, que nos visten y abrigan contra el frío y la lluvia y han cubierto nuestras necesidades materiales. Son varias las ocasiones en las que nos han visitado en nuestras mismas posiciones; y esas valientes «Margaritas» no les amedra nada, ni la distancia del camino, ni la lluvia, ni el aire, ni el contínuo fuego de la artillería y fusilería enemiga. Mil gracias por todo: los

Esperanza fabrikan lanean, zelatatzen edo soldaduei eta errefuxiatuei laguntzen inplikatu ziren emakumeen bizimodua ez ezik, emakume arruntena ere goitik behera eraldatu zen.

Pakita Ugarte (Markina, 1910 - 1995) «Euzko Ikastola Batzako» irakaslea izan zen 1935etik 1937ra, eta, 1937ko ekainetik aurrera, hil batzuetan, ume errefuxiatuak zaintzen aritu zen Euzkadiko Jaurlaritzak Donibane Garazin ireki zuen kolonian. Gero Belgikan errefuxiatu zen.



Argazkia: Ane Zelaia
Miliziar bat Askurrinaga Goikoa baserri inguruan (Amallo), Maria Zelaia, Angelita Garate eta Ane Zelaiarekin (1936ko urria-azaroa).

Markinako frontera, *Euzko Gexozain Bazpatza* taldeko erizainak etorri ziren 1936ko irailean (Untzeta, 1937). Lan asko egin zuten Munibe jauregiko eta Patrokua jauregiko ospitaleetara ekartzen zituzten gaixoak zaintzen. Frankistek Azpeitian edo Alzolako bainuetxean zabaldu zituzten ospitaleetan ere emakume asko aritu zen Markinako frontean zauritutako errekete eta falangistak zaintzen (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 480).

Frontetik gertu zeuden baserrietako emakumeek ere lan ugari egin zuten soldaduentzat. Askonabieta baserriko Benantzia Muguruzak, Arizmendi Errota baserriko Erramona Iriondok, Askurrinaga Goikoako etxekoandreak eta beste askok arropak garbitzen zizkieten soldaduei eta baita jaten eman ere. Momentu zail hartan, diru pixka bat ateratzen zuten. Izan ere, hilak aurrera zihoazen heinean, gero eta eskasia handiagoa zegoen, eta emakumeek ahal zutenarekin elikatu behar izaten zituzten familiak (Onaindia, 1980: 130). Gainera, hainbat soldadu eta errefuxiatu bizi zen herritarren etxeetan, eta hauei ere jaten eman behar izaten zitzaien. Goserik ez zegoen, baina ogi zuriaren, olioaren eta oinarrizko beste elikagai batzuen falta sumatzen zen. Gogoan hartzekoa da, 1936ko

---

navarros no tenemos para vosotras más que una palabra, pero que sale del corazón de todos y esa palabra es GRACIAS. Dios y la Patria, por quienes luchamos os bendigan y agradezcan como de corazón lo hace en nombre de todos los Requetés navarros de la columna Cayuela.

El Capellán y Oficiales de la Compañía de Requetés del Capitán Fernández.

Caserío «Añoriabal» 15 de Noviembre de 1936.

irailaren 23tik aurrera, gobernu errepublikarrak errazionamendu kartilen sistema ezarri zuela, eta herritarrek ilarak egin behar izaten zituztela elikagaiak lortzeko[49].

Hornikuntzaren arduradunek elikagaiak ekartzen zituzten kamioietan, Bilbotik edo gobernuak esaten zuen tokietatik, eta gero jendearen artean banatzen zituzten errazionamendu kartilen eta kupoien arabera. Banaketak hamabost egunean behin egiten ziren.

Gerra Zibilarekin, bizimodua asko aldatu zen, eta horrek eragin izugarria izan zuen garaiko andrazkoen egunerokotasunean. Elikagaien eskasiak, urduritasunak eta beldurrak bizimodua asko zaildu zuten. Halaber, emakumeak etxeko lanez eta umeen zainketez arduratzen ziren, eta, gerragatik, lan hauek baldintza oso txarretan egin behar izaten zituzten. 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte, frankistek obus asko bota zituzten herriko etxeen aurka, eta umeak eta bazkaria hartuta, arrapaladan joan behar izaten zuten babeslekuetara. Hainbat alditan, egun guztia egin behar izan zuten babeslekuetan. Hala ere, aisialdirako momentuak ere izaten ziren, eta herriko neska gazte batzuek gudariekin eta milizianoekin harremanetan hasteko aukera izan zuten. Dena dela, hauetariko harreman gutxi atera zen aurrera.

Emakumeen bizimodua ez ezik, gerrako adinean zeuden mutil gazteena ere goitik behera eraldatu zen. Gerra piztu eta 1936ko azarora arte, Euzkadiko Jaurlaritzak boluntarioak eskatzen zituen fronterako, eta gazte ezkertiar eta abertzale batzuk boluntario aurkeztu ziren, zapadore edo luebakitzaile lanetarako, zein matxinatuen aurka egiteko.

Francoren alde borrokatzera ihes egin zuten gazte errekete gutxi batzuk ere egon ziren. Hasieran, frontea zehaztu gabe zegoenean, oso erraza ei zen frankisten aldera pasatzea, eta familia tradizionalistetako gazte batzuk erreketeen tertzioetan sartu ziren boluntario. Nire kalkuluen arabera, 10-15 gaztek hartu zuten erabaki hori.

Azaroaren 19an, egoera zeharo aldatu zen gizon gazteentzat: 1932tik 1935erako kintak deitu zituen Euzkadiko Jaurlaritzak (abenduan, 1931ko eta 1936ko kintoak ere bai). Beraz, azaroan zehar, bi herriotako aguazilak etxez etxe ibili ziren, hurrengo egunean manta bat hartuta, Markinako udaletxe azpira joan behar zuten kintoei abisatzen. 1936ko azarotik 1937ko apirilera bitartean, hainbat izan ziren Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuten mutil gazteak[50].

Elizgizon eta mojen bizimodua ere goitik behera eraldatu zen. Fraideek eta mojek euren komentuak utzi behar izan zituzten 1936ko irailaren 22an, eta beste nonbaitera joan behar izan zuten bizitzera (Urkiza, 1992: 287-289). Gainera, abade eta fraideak sotanarik gabe ibiltzen hasi ziren hasieran, eta gaixoei, ezkutuan, askotan autoetan, eramaten zitzaien Gure Jauna (Onaindia, 1937: 14). Milizianoek kleroaren aurka agertzen zituzten jarrerek eragin zituzten portaera aldaketa hauek. Dena den, frontea gure herriko lurretan mugitu gabe egon zen zazpi hiletan, ez zen elizkizunik galarazi, eta arazorik

---

[49] Hiru motatako razionamendu kartilak banatu ziren: horia, anoa bat edo bi behar zituzten familientzat, morea hiru anoa behar zituztenentzat eta arrosa laukoentzat. Kartila hauek elikagaiengatik trukatzen ziren kupoiak zituzten. Lehen kupoiarekin, olio laurden bat lortzen zen; bigarren kupoiarekin, 500 gramo azukre; eta hirugarrenarekin, 500 gramo patata.

[50] Hauetariko asko atxilotu zituzten 1937ko ekainetik abuztura, eta, gero, langileen batailoietara bidali. Beste batzuk, atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatzera behartu zituzten. Horrela, markinar eta xemeindar askok borrokatu zuten bi aldeetan. Bat edo beste frankistengandik errepublikarren aldera ere pasatu omen zen (Ramon Murua, adibidez, hori egiten harrapatu, eta frankistek fusilatu egin zuten). 1937ko apirilaren 27an, Francoren tropak Markinan eta Xemeinen sartu ziren, eta ordutik aurrera gazteak Francoren alde borrokatzera eraman zituzten. Guztira, Markinako eta Xemeingo 400 gazte baino gehiago joan ziren frontera, gehienak adinagatik soldaduskara joatea tokatzen zitzaielako. Boluntario gutxi joan ziren gerrara.

gabe ospatu ahal izan ziren mezak eta erritu erlijiosoak (Onaindia, 1937: 14). Bestalde, 1936ko urriaren hasieran, gudarien batailoi ugari etorri ziren Markinara eta Xemeinera, eta, ordutik aurrera, abade eta fraideak berriro ere sotanak janzten hasi ziren. Are gehiago, gudarien etorreragatik, mezak ugaldu egin ziren. Horrez gainera, azaroaren 28an, Santiago Meabek, Markinako Sektoreko Delegatuak, eta Patxi Iturriotzek, Sektoreko Idazkariak, sinatu zuten agindu batek zioen mezak, komentuak eta elizak errespetatu egin behar zirela. Hala ere, badaezpada, abade eta fraide batzuek ihes egitea erabaki zuten. Denek zekiten frankistek Jose Sagarna, Zelestino Onaindia eta Jose Peñagarikano abadeak atxilotu eta fusilatu zituztela, eta horrek izu asko eragiten zuen elizgizon abertzale eta euskaltzaleengan.



Argazkia: Patxi Juaristi
Jose Eizagirre «Albitxu» (Markinan jaioa, 1913an, 1934ko kintoa) Euzko Gudarosteko Ibaizabal Batailoian borrokatu zuen, eta, gero, Francoren Nafarroako Lehen Dibisioko 22. San Martzialen Bigarren Batailoian. Bi urte eta zazpi hilabete ibili zen hara eta hona gerragatik.

Andrazko, mutil gazte eta abade eta fraideen bizimodua ez ezik, erantzukizun politikoak edota alderdi abertzale edo ezkertiarretako militanteen eta hauen familien bizimoduak ere zeharo aldatu ziren. Alde batetik, 1936ko urriaren azkenetan, militante ezkertiar eta abertzaleek Errepublikaren Defentsarako Herri Batzorde berria osatu behar izan zuten, eta gerran inplikatzea beste aukerarik ez zuten izan. Bestetik, 1936ko azaroaren 26an, Udal Batzorde berriak eratu behar izan zituzten, Markinako alkateak, Jose Luis Gaitan de Aialak, hanka egin zuelako, eta Xemeingoak utzi egin zuelako alkatetza. Markinako Udal Batzordea honako pertsona hauek osatu zuten:

1. Tomas Duralde, alkatea, 1936ko azaroaren 26tik abenduaren 6ra (EAJ)[51]
2. Bernardo Aretxabaleta, zinegotzi lehenengo, eta alkate abenduaren 6tik aurrera (EAJ)
3. Ignazio Ugarteburu (EAJ)
4. Jose Ibarzabal Arrieta (EAJ)
5. Manuel Garetxana Uriguen (EAJ)

[51] 1936ko azaroaren 26an sortutako Udal Batzordeak (EAJ-ko eta Herri Fronteko kideez osatua) Tomas Duralde izendatu zuen Markinako alkate. Ez dakizkidan arrazoiengatik, abenduaren 6an, Tomas alkate postutik kendu eta Bernardo Aretxabaleta «Tate» jarri zuten. Bernardo Markinako alkate izan zen, 1937ko apirilaren 27ra arte, hau da, frankistak sartu ziren arte.

6. Pedro Onaindia Jaio (EAJ)
7. Anjel Aretxabaleta Aizpurua (Herri Frontea, Izquierda Republicana)
8. Manuel Cazalis Sarasua (Herri Frontea, Alderdi sozialista)
9. Anbrosio Mallukiza (Herri Frontea, Izquierda Republicana)

Xemeingo Udal Batzordea honela gelditu zen osatua:

1. Joan Ugartetxea Olasolo, alkatea (EAJ)
2. Lorenzo Garate Ibarzabal, lehen alkate ordeko (EAJ)
3. Nemesio Aldazabal Eizagirre, bigarren alkate ordeko (Sozialista)
4. Pedro Maria Arriola Markuerkiaga (EAJ)
5. Pedro Agirreamalloa Solozabal (EAJ)
6. Antonio Oregi Olalde (EAJ)
7. Joan Barruetabeña Basterretxea «Zamora» (EAJ)
8. Jose María Aransolo Barinagarrementeria «Gerriketxe» erregidore sindikoa (Herri Frontea, Izquierda Republicana)
9. Jose Domingo Balentziaga Maguregi (Herri Frontea, Alderdi Sozialista).



Argazkia: familiakoek emandakoa
Migel Iturraran (Xemein, 1918 - Paracuellos del Jarama, 1936): Escorialeko Agustindarren komentuan bizi zen. Paracuellos del Jaraman fusilatu zuten errepublikarrek 1936ko azaroaren hogeita hamarrean.

Emakumeen, gazteen, elizgizonen edota erantzukizun politikoak zituztenen bizimodua ez ezik, Euskal Herritik kanpo bizi ziren herritarrena ere zeharo aldatu zen. Hainbatek momentu larriak pasatu zituen, eta batzuk atxilotu eta fusilatu ere egin zituzten. 1936ko azaroaren 30rean, errepublikarrek Migel Iturraran Lauzirika (Xemein, 1918 - Paracuellos del Jarama, 1936) xemeindarra fusilatu zuten. Migel Iturraran anaia agustindarra Axola baserrian (Xemein) jaio zen 1918. urtean, eta El Escorialeko Agustindarren komentuan bizi zen, Gerra Zibila piztu zenean. Errepublikarrek Madrilen eta inguruetan ehunka elizgizon atxilotu zituzten, tartean Migel Iturraran, eta ostean fusilatu. Paracuellos del Jaraman berarekin batera hil zituzten beste fraide agustindarrak bezala, Migel Iturraran Lauzirika beatifikatu egin zuten Erroman, 2007ko urriaren 28an, beste 497 martirirekin batera.

Migel Iturraran hil zuten garaian, 1936ko azaroaren bukaeran, Gipuzkoako ekialdeko frontea lau sektoretan banatua zegoen: Lekeitioko Sektorea, Markinako Sektorea, Eibarko Sektorea eta Elorrioko Sektorea. Francoren Kuartel Nagusiaren txosten baten arabera, Markinako Sektorea txarto babestua zegoen: «Sección de Marquina: La posición táctica de las tropas en esta sección es francamente desfavorable, tanto por lo que a la fortificación afecta como por la misma situación topográfica, de absoluta combinación desde las crestas de Kalamua y de Acarregui. Debo indicar al mando que dispuesta por el Estado Mayor rojo se inició ya en octubre una segunda línea en este frente de Marquina que fue trazada desde Ituiño-Mendi hasta el Urko pero a pesar del tiempo

transcurrido esta obra puede evitarla y ha sido en éstos últimos días cuando se ha querido imprimir un ritmo acelerado a esta obra y efectivamente allí se han concentrado elementos que están actualmente, suponemos, que en plena actividad. Se proyectan algunos nidos de ametralladoras y alambradas repetidas que cierran el boquete natural formado entre el monte Zapola y el Iturreta» (Barruso, 1996: 276-277).

Agirre Lehendakariak 1936ko urrian egin bezala, Indalezio Prieto etorri zen Markinara, soldaduak bisitatu eta frontea ikuskatzera. Jose Maria Rekaldek zihoen legez: «Anjel Lonjaren alboan, *Laubegi* egoan, eta etxe haretan 'Reparación' esaten eutsena. Han gelditzen ziran kotxe danak, kotxeak konpondu eta soldaduak egoten ziran kontrola egiten. Bat-batean atera nintzan etxetik, eta etxe aurrean gizon bat topau neban. Berak esan eustan 'Oye niño, ¿dónde está aquí la Reparación?' Nik esan neutsan 'yo voy a casa de mi tío y le acompaño'. Beragaz joan nintzan eta Prieto zan, bere pistola, zapata gorrixka eta tozinodun azpiekin, buru zabala, lodia, tripaduna… Ailegau ginanean propinea emon eustan eta soldadu danak *kuadrau* ziran. Gero, aitari eta amari esan neutsen Prieto ikusi nebala» (Garaian, 37, 2005).

Hainbat bonbardaketaren, borroken eta Egixarreko eraso zapuztuaren ostean, Markinako Fronteak mugitu gabe jarraitzen zuen 1936ko azaroaren bukaeran. Dena den, beste fronte batzuetan mugimenduak zeuden. 1936ko azaroaren 30rean eta abenduaren lehenengo egunetan, Euzko Gudarosteak Legution eraso egin zuen, Gasteiz berreskuratzeko asmoz, baina ez zuen arrakastarik izan. Guztira, Legutioko erasoan, 800 hildako eta 400 zauritu izan zituen euskal armadak. Berbertan hil zen, 1936ko abenduaren 1ean, Axola baserriko (Xemein) Martin Iturraran Lauzirika (Carros de Combate batailoia). Martin, Paracuellos del Jaraman hil zuten Migelen anaia zen. Axolako bi anaia hauei hirugarren bat ere hil zitzaien, 1938an, Teruelgo Frontean, frankistekin borrokatzen ari zela: Florentzio Iturraran Lauzirika.

2.10. **1936ko abendua: giro istilutsuak jarraitzen du**

Urrian eta azaroan bezala, abenduan ere giro nahasia bizi zen. Hala ere, agintarien asmo garrantzitsuena zen anarkia saihestea, ordena ziurtatzea eta normaltasun itxura ematea. Bi herriotan zinegotziak eta alkateak izendatzeaz aparte, abenduaren 9an, Markinako udal epaile eta fiskal berriak eta hauen ordezkoak izendatu zituen Jesus Maria Leizaolak, Justizia eta Kultura Sailburuak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua: 1936062 – 1936/12/9). Kontuan izan Markinako udal epailea eta fiskala ihes eginda zeudela. Lau pertsona izendatu zituzten lan hauetarako[52]:

– Markinako udal epaile titularra: Benito Aginaga Ugalde.
– Markinako udal epaile ordezkoa: Inazio Azkue Goia.
– Markinako udal fiskal titularra: Gregorio Duralde Kerejeta.
– Markinako udal fiskal ordezkoa: Txomin Aretxabaleta Arriola.

Xemeinen ere udal epaile eta fiskal berriak izendatu zituzten, baina geroago, 1937ko otsailaren 17an. Ihes egindakoen tokian, pertsona hauek jarri zituzten (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua: 1937132 - 17/02/193):

---

[52] Francoren tropak Markinan eta Xemeinen sartu ostean, guztiak atxilotu zituzten, eta, epaiketa egin ostean, urte asko egin behar izan zituzten kartzelan. Benito Aginaga Gasteizko kartzelan hil zen gaixorik, 1937an.

– Xemeingo udal epaile titularra: Toribio Larruskain Arriaga.
– Xemeingo udal epaile ordezkoa: Frantzisko Larrinaga Jaio.
– Xemeingo udal fiskal titularra: Akilino Egiraun Arza.

1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Beraz, abenduan zehar, 1910ean eta 1915ean jaiotako hainbat mutil gazte eraman zituzten gerrara.

1936ko abenduaren 12an, Urkaregin zeuden kanoi bateriek Markinako alde zaharra bonbardatu zuten ordu askotan eta etengabe. Obusak zelaian, plazan eta Goiko Portaleko iturriaren inguruan jausi ziren, batez ere. Biharamunean, 1936ko abenduaren 13an, ere bonbardaketa gogorra izan zen Markinaren aurka. Eguerdian hasi zen kanoikadak, eta alde zaharrean bizi zirenek ihes egin behar izan zuten arrapaladan. Obusetariko bat Artibai kalean zegoen umeen eskolan jausi zen. Eskola intendentzia lanetarako erabiltzen zuten soldadu errepublikarrek, eta bonba jausi zenean, intendentziaren arduradunak lanean ari ziren, eguneko elikagaien banaketa prestatzen. Susto handia hartu zuten, baina inori ez omen zitzaion ezer gertatu (Onaindia, 1937).

1936ko abenduaren 14an, borrokaldi gogorrak izan ziren Kalamuaren oinetan. Markinako lurretan izan zen bigarren bataila garrantzitsua izan omen zen. Erreketeak lubakietatik atera ziren errepublikarren frontea apurtzeko helburuarekin, baina Avellanedako gudariek frente egin zieten, eta ezin izan zuten aurrera egin. Avellanedakoek 60 defuntu baino gehiago zenbatu ei zituzten Lexardi baserriaren inguruan. Borroka honetan izandako galerak mendekatzeko, frankistek modu bortitzean bonbardatu zuten Markina (Onaindia, 1937: 15). 100 obus baino gehiago bota ei zituzten alde zaharraren aurka, eta inguru horretako hamaika etxe txikituta gelditu ziren.

Kalamuaren oinetan borrokan ari ziren bitartean, Euzkadiko Gobernuak 1931ko eta 1936ko kintoak (1910ean eta 1915ean jaiotakoak) mobiliziatu zituen. Abenduaren 14an, Euzko Gudarostean izena ematera Bilbora joan zirenetarikoen artean zegoen Jose Maria Arizmendiarrieta abadegaia: «Jose Maria 1936ko kintakoa zen, eta dekretua jakin bezain laster abiatu zen. EAJren batailoi bat aukeratu nahi zuen, eta bere ideologia bereko gazteekin partekatu, gerra denbora. Ohitua zen Seminarioan era guztietako jarduerak (antzerkiak, musika emanaldiak…) antolatzen, eta berak koordinatu eta gidatu zuen Markinako kintoen bidaia. Kamioiz heldu ziren Bilboko Plaza Eliptikora, eta Jose Maria euskal milizietan sartu zen» (Molina, 2005: 141-142). Joan Zubialdea Kortabitarte xemeindarra ere Jose Arizmendiarrietarekin joan zen Bilbora, eta Gordexola batailoiko Mentxaka konpainian eman zuen izena. Jose Maria Arizmendiarrieta bizirik atera zen, baina Joan Zubialdea Sollubeko borroketan izan zituen zauriengatik hil zen, 1937ko maiatzaren 18an.

Markinako alde zaharrean bizi zirenek ez ezik, barinagarrek ere asko sufritu zuten, gerratean. Barinagako baserri asko Kalamuaren oinetan daudenez, nahi baino bonbardaketa, tiro eta txikizio gehiago pairatu behar izan zituzten, eta hainbat izan ziren auzo honetan hil ziren zibilak. Horietariko bat Benantzia Muguruza Arriaga izan zen (Markina, 1898 – Markina, 1936). Benantzia Azkonabieta baserrian bizi zen, bere familiarekin. Azkonabieta Barinagako azken baserria da, eta Kalamua tontorretik (erreketeen eskuetan zegoena) oso gertu dago. Baserriaren goiko maldetan, baserritik metro gutxira, soldadu frankistak zeuden, baina Azkonabieta baserria Errepublikaren partean zegoen. Frontearen erdi-erdian zegoen, beraz, baserria, eta, horregatik, Azkonabietakoak gutxi ateratzen ziren etxetik, egun argiz. Egoera baketzen zenean, milizianoekin ere egoten ziren hitz egiten, baina, tiroketak hasten zirenean, egunak egiten omen zituzten atera

gabe, tiroen beldurrez. Baserriko lanak egiteko arazoak izaten zituzten, frankistek, mugimendu txikiena sumatzen zutenean, tiro egiten zutelako, eta bala galdu asko izaten zirelako inguruan. Arrisku askorekin bizi ziren Muguruzatarrak, eta, horregatik, baserriko lanak ilunetan edo erdi ilunetan egiten zituzten. 1936ko abenduaren hogeian, beti bezala, Azkonabietako etxeko jauna, Andres Maria Muguruza, eguna argitu orduko abiatu zen abereei jaten ematera, baserri alboko bordara. Benantzia bere aitari gosaria eramatera joan zen. Eguna argitzen zegoela, soldadu frankistek mugimendua sumatu baserrian, eta tiro egin zuten. Tiro batek tripan jo zuen Benantzia, eta bala gorputzaren alde batetik bestera pasatu zitzaion. Bizirik gelditu zen, eta etxekoek Markinara deitu ostean, milizianoak Basurtuko ospitalera eraman zuten, baina berehala hil zen.



Argazkia: Benantzia Muguruzaren familia.
Benantzia Muguruza (Markina, 1898 – Markina, 1936) miliziarrei jaten ematen, Azkonabieta baserriaren inguruan (1936ko urritik abendura). Frankisten balek hil zuten 1936ko abenduaren hogeian.

Bonbardaketen, milizianoen joan etorrien, eta, oro har, giro istilutsuaren eraginez, Markina eta Xemein oso aldatuta zeuden, 1936ko abenduan. Jendea beldurtuta zegoen, eta gutxiago ateratzen zen kalera. Gainera, Gipuzkoa matxinatuen eskuetan gelditu zenean (1936ko irailaren amaieran eta urriaren hasieran), errefuxiatu asko etorri zen, eta bi herriok beste bat ziruditen. Jendeak kontu handia zuen norekin hitz egiten zuen. 1936ko abenduaren hogeian, Gipuzkoako eta, oro har, faxisten eskuetan jausi ziren herrietako 224 errefuxiatu bizi ziren Markinan eta 124 Xemeinen (Euzkadi, 36-12-20). Hau da, gerra hasi eta bost hilera, 3.593 pertsona bizi ziren bi herriotan: 3.245 markinar eta xemeindar eta 348 errefuxiatu. Hilak aurrera zihoazen heinean, kopuru hau handitzen joan zen. Markinar eta xemeindar asko mesfidati agertzen ziren errefuxiatuekin, baina beste batzuek abegikor eta eskuzabal jokatu zuten, hauei bizitzeko tokiak, elikagaiak eta arropak eskaintzen.

Errefuxiatuen etorreragatik ez ezik, sorrarazi zen giro nahasiak ere asko aldatu zuen herri bizitza. Frontea geldirik egon zen zazpi hiletan, abertzaleak, tradizionalistak, errepublikazaleak eta sozialistak elkar zelatatzen eta kontrolatzen aritu ziren, eta gizarte kohesioa txikitua zegoen. Egia esan, herriko lau alderdi politikoetako militanteak asko inplikatu ziren gerratean. Abertzale eta ezkertiarrak Errepublikaren Aldeko Batzordeko

edo Udaleko Batzordeko erantzukizunak hartzen zituzten bitartean (gehienetan, egoerak behartuta), tradizionalistak Bosgarren Zutabean antolatzen ziren, errepublikarrei kalte egiteko. Fronteko lubakietan ez ezik, herrian berbertan ere borrokatu zen.

Markinar eta xemeindar tradizionalistak oso ondo antolatu ziren, espioitza sare eraginkorra sortzeko, erreketeei informazioa helarazteko, frontearen alde batetik bestera eskuindarrak pasatzeko, eta, oro har, Errepublikaren aldeko armadari kaltea eragiteko. Badakigu, berbarako, markinako tradizionalista batek informazioa pasatzen ziela erreketeei irrati bidez. Erreketeek milizianoen baterien kokapenak edo hauen mugimenduak adierazten zizkieten Francoren agintari militarrei, eta horrek kalte asko eragiten zien Errepublikaren aldeko guda taldeei eta prestatzen zituzten estrategia militarrei.

Herritarrek diotenez, irrati bidez erreketeei informazioa pasatzen zienetariko bat harrapatu zuten ordena publikoa zaintzen zuten elgoibartarrek, baina informazioa pasatzen zuena ere elgoibartarra zenez jatorriz, libre utzi zuten.

Aipatzekoa ere bada, 1936ko urrian edo azaroan, Kalamuan zeuden erreketeei Irarragan (gaur egun Etxano tabernaren parean) zegoen errepublikarren kanoiaren kokapena zehazteko, herriko erreketeek (Barinagako parrokoa, tarteko) poste bat zuritu zutela Zapola mendiko harrobiaren azpian, Ugarte baserria baino gorago. Erreferentzia horrekin, errazagoa zen nazionalentzat kanoiaren tiroa ondo zuzentzea eta milizianoen bateriei kalte egitea.

Badakigu ere tradizionalistek frontearen alde batetik bestera jendea pasatzeko sare egonkor bat zutela. Barinagatik edo Urberuagatik zehar, tradizionalista eta eskuindar asko pasatu omen zuten frankisten aldera. Gutierrez-ek dioen bezala: «También era ordinaria la vigilancia sobre los caseríos que estaban cercanos al frente. El 23 de diciembre se detiene a cuatro individuos acusados de servir de guías para pasarse de líneas. En otra ocasión, el Agente de Vigilancia Lucio Sarasqueta informaba que junto a otros compañeros de Orden Público vio que desde unos caseríos de Barinaga se hacían señales con una linterna azulada, señales hechas en dos días consecutivos desde el caserío Iriguen-Aldecoa por Vicente Vergara, quien negó los hechos. Se conformó una red para pasar al campo fascista en la que colaboraban varios caseros de la zona cercana al frente. Así el 18 de febrero compareció ante la Comisaria de Orden Público Antonio Arizmendiarrieta, que relató que Etxarri Erreka era el lugar más fácil para pasar las líneas, y que había sido preguntado sobre la cuestión por varios vecinos de la zona. Dijo que había oído que por pasar gente se cobraban entre 150 y 1.000 pesetas, y que incluso en algunos casos se negociaba en trigo en lugar de dinero» (Gutierrez, 2007: 90).

Ez nago ziur, baina baliteke 1936ko abenduaren 23an atxilotu zituzten lau pertsona hauek Barinagako Illaizpe baserriko Patxi Baskaran Arrillaga, bere anaia, Migel, Illaizpe baserriko morroia, Ramon Zuazo Otalora eta Armistegi baserriko Matias Amillategi izatea. Hori pentsatzeko arrazoia da pertsona hauek 1936ko abenduaren bueltan atxilotu zituztela, frontearen alde batetik bestera jendea pasatzeko sare batean nahastuta egon zitezkeelakoan.

Itxura denez, Patxi Baskaran «Illaizperen» morroia, Ramon Zuazo Otalora, atxilotu egin zuten, frontearen alde batetik bestera jendea pasatzen ari zela, eta honek bere nagusia, Patxi, eta Matias Amillategi salatu zituen. Ostean, Patxiren anaia, Migel Baskaran, ere atxilotu zuten. Patxi Angeles Custodios-eko kartzelan sartu zuten, eta 1937ko urtarrilaren 4an, kontrolik gabeko milizianoek hil zuten, komentuan bertan. Bere anaia Migel Baskaran Begoñako Karmeloko Komentuko kartzelan sartu zuten. Ramon Otalora morroia atxilotu egin zuten hasieran, baina gero aske utzi omen zuten. Hala ere, frankistek Bizkaia hartu zutenean fusilatu egin zuten. Ez dakit Armistegi baserriko Matias Amillategiri zer gertatu zitzaion.

Milizianoak eta gudariak ere zelatan aritzen ziren denbora guztian, eta mugimendu guztien kontrol zorrotza egiten zuten. Susmagarriren bat aurkitzen bazuten, atxilotu egiten zuten, bi aldiz pentsatu gabe. 1936ko abenduan, profesa egina zuten anaia karmeldar bi, Manuel Gomez Frande - Wenceslao Pilareko Ama Birjinarena (Santander, 1900 – 1968) eta Jose Maria Diaz Alzola – David Jesusen Bihotz Sakratuarena (Vitoria, 1919 – Santander, 1985), atxilotu zituzten Amorotoko baserri batean, eta Markinara ekarri. Behin nortzuk ziren jakin ostean, Santiago Meabek gazte haiek handik urruntzeko eskatu zion Aita Martini, Karmengo komentuko prioreari. Bi gazteak Larreako karmeldarren komentura bidali zituzten (Aita Rafael: 2005: 177).

Errepublikarrek ez ezik, erreketeek ere atxilotzen zituzten eurentzat susmagarriak zirenak edo frontearen alde batetik bestera pasatu nahian zebiltzanak. Elgoibarko Gotzon Osoro «Aberri» (1894 - 1936), berbarako, Larruskain inguruan preso hartu zuten frankistek, errepublikarren aldera pasatu nahian zebilela, eta Donostian fusilatu zuten 1936ko abenduan, 42 urte zituela[53]. Frontea zegoen tokian bizi ziren baserritarrak ere frontearen alde batetik bestera ibiltzen ziren, euren lur eta belardiak alde bietan zituztelako, eta sarritan gelditzen edota atxilotzen zituzten; askotan, momentu txarrak pasaraziz.

2.11. **1936ko abenduaren 26a: San Esteban eguneko bataila**

Gerra Zibila oso krudela izan zen frontera joan behar izan zutenentzat, baina Barinagako eta Markina-Xemeingo hainbat herritarrek diotenaren arabera, Kalamua inguruan, errepublikarrek eta erreketeek elkarrekin ospatu zuten 1936ko Natibitate eguna. Gerra basati hartan, horrelako zerbait gertatzea sinestezina badirudi ere, garai hura bizi izan zuten markinar eta xemeindar askok aipatzen dute jazoera. Alberto Onaindia berak ere idatzi zuen gertaera honi buruz: «Según me contaron, el día de Navidad numerosos grupos de combatientes de ambos bandos se reunieron cerca de Kalamua, en terreno situado entre las dos líneas de trincheras, a celebrar la festividad; comieron y bebieron juntos, cantaron y bailaron con gran alegría y regocijo para, horas más tarde, retirarse a sus parapetos respectivos y luchar a muerte» (Onaindia, 1980: 130).

Egia esan, Kalamuako posizioetan eta, oro har, Markinako Frontean zeuden alde bateko eta besteko soldaduek askotan hitz egiten zuten, eta, noizean behin, egunkariak eta tabakoa ere elkartrukatzen zituzten. Izan ere, toki batzuetan, 100 metro inguruko distantzia zegoen lubaki batetik bestera (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 448-451; 449-550; 650-651 eta 842). Salbador Leyun-ek, Erriberriko, Lacar Tertzioko, 2. konpainiako, erreketeak, zera zioen: «Durante la campaña de Guipúzcoa me tóco vivir casos curiosos. Resultó que nuestro capitán Ureta, que estaba más loco que una cabra,

---

[53] Gotzon Osoro Mutrikun jaio zen, baina Elgoibarren bizi zen. Kirikiñoren garaietako berriemailea zen Euzkadi egunkarian. EAJ-ko eta ELA-ko afiliatua. Xabier Altzibarrek bere «Lauaxeta eta Euzkadi Egunkariaren Euskal Atala» artikuluan dioen bezala, (Euskera, 2005-2: 592): «Gerran euskal idazle eta kazetari abertzale mordoxka fusilatuak, erailak izan ziren. Ezagunenak Lauaxeta eta Aitzol dira baina horiez gain ondokoak aipatzea tokatzen da: Martin Lekuona Oiartzungoa; Jose Markiegi Debakoa (Lizardiren Itz-lauz liburuaren prestatzailea), Arrasaten fusilatua; Elgoibarko Gotzon Osoro 'Aberri', sortzez mutrikuarra, Kirikiñoren garaietako berriemailea Euzkadin, 1933an omendua, erreketeek Larruskainen (Markina) harrapatu eta Donostian fusilatu baitzuten, (Euzk 7487, 1936-12-25)» (http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/65856.pdf). Euskarazaintzakoek argitaratu zuten *36'ko Gudaldian Su-Izkillatutako Idazle Gazteak* liburuaren (2002: 57) arabera, Elgoibarren fusilatu zuten, Basauri izeneko tokian.

era muy amigo del capitán que estaba en el otro lado, de apellido Centeno, ya que los dos habían estado en la misma academia. Estando de posición en Calamúa empezaron a hablarse: 'Centeno, oye, ¿qué tal si hacemos una cosa esta tarde? Mira, vamos a poner a los chicos a sentarse en el parapeto, y yo respondo de que los míos no van a tirar un tiro y hacemos intercambio de prensa'. El de los rojos aceptó, así que Ureta nos mandó: 'Todos en el parapeto' y ellos hicieron lo mismo. 'Ahora que salgan a mitad del camino cinco voluntarios de cada lado', y salieron. Se intercambiaron la prensa, echaron unos tragos de vino de una bota que llevaban unos y después de la de los otros, todos observándolos y cada uno para su sitio. A mí aquello aunque me parecía bien, era un disparate, media hora después podíamos estar matándonos y esas cosas daban desánimo y desconcierto entre la gente. Le dije a Ureta: 'Mi capitán, después de esto ¿no es mejor que dejásemos esto y nos marcháramos todos, ellos y nosotros, cada cual a su casa)'. El me contestó: 'Pues sí, sería mejor… pero es que estamos en guerra» (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 714).

Fulgencio Mateos batailoiko Paco Barreñak ere antzerako zerbait kontatzen du: «Empezabamos, no sé quienes los primero, ellos o nosotros, al oscurecer. Nosotros decíamos: '¡Requetes!'. Eran de muerte los tiros, pero para ir donde ellos tenías que pasar un barranco. Y no pasábamos. '¡A no tirar, eh!' '¡A no tirar!' '¡Vale!' '¡Palabra, eh!' '¡Palabra!' Oye, se confiaba en la palabra. Nosotros en la posición nuestra, y ellos en la suya, con el cuerpo entero fuera de las trincheras, en grupos. Yo siempre me sentaba un poquitín escondido, por si acaso… No me fiaba mucho. ¡y a cantar! Nosotros les cantábamos: 'Eusko gudariak gara…'. Ellos: 'Por Dios, por la patria y el rey…'. Allí oí por primera vez el himno de la Falange. 'Bueno, ¿mañana qué? ¿Lo mismo a esta hora?' '¡Vale!'.

Igual nos llamaban: '¡Gudaris! ¡A no tirar!'. '¡A no tirar!' '¡Palabra, eh!' '¡Palabra' Lo menos estuvimos así más de una semana» (Azurki, 2011: 341).

Gerra Zibila *anai-arreben arteko* gerra izan zen. Euskaldunek euskaldunen aurka borrokatu zuten, herritarrak herritarren aurka, nafarrek eta arabarrek gipuzkoarren eta bizkaitarren aurka eta errekete karlistek gudari eta milizianoen aurka (Granja, 1990: 28).

Abenduaren 25ean, errekete eta errepublikarrek elkarrekin ospatu zituzten Gabonak, baina abenduaren 26an, aurreko egunean elkarrekin bazkaldu zutenek inguru honetako batailarik gogorrenetarikoa egin zuten.

Egixarreko gudaldiarekin batera (1936ko urriaren 21ean), markinar eta xemeindar zaharrenek ondo gogoratzen dute abenduaren 26an, San Esteban egunean, Kalamuan izan zen bataila. Erreketeek eraso gogorra egin zuten (Gerrikagoitia, 2000: 64), eta alde bateko zein besteko hainbat soldadu hil ziren (Onaindia, 1980: 130)[54]. Erreketeen web orrian (http://www.requetes.com/lesaca.html) irakurri daitekeen bezala: «…el 26 de Diciembre fue la fecha más señalada para la 1ª Compañía (Lesaka Tertzioari buruz ari da), pues pierde a casi todos sus Oficiales y Requetés en un avance en dirección a Marquina que hacía junto a las 1ª, 2ª y 3ª Compañías del Lacar. Nos cuenta Revilla Cebrecos en su libro TERCIO DE LACAR: 'Nuevo intento de rectificación el día 26, después de haber pasado los días anteriores en las mismas posiciones, con las bajas del Alférez don Fermín Balda y cinco Requetés, todos heridos. Por la mañana de este día la 1ª, 2ª y 3ª Compañía, protegidas por las ametralladoras del Teniente Rusell, se lanzan al asalto de

[54] Besteak beste, Manuel Agete Lino (Rosa Luxenburgo) (Egaña, VII. tomoa: 246), Leandro Plazaola Zubizarreta eta Joan Pérez Mariño (Galizia) soldadu errepublikarrak hil ziren (http://egoibarra.com). Abenduaren 31n, Artilleria Parkeko Fermin Alberdi Peña ere zendu zen Markinako Frontean (Egaña, VII. tomoa: 247). Erreketeen Lesaka eta Lacar errekete tertzioetako hainbat soldadu ere hil ziren.

las posiciones rojas, sosteniéndose un durísimo combate con el enemigo, que incluso empleó aviación bombardeando a los Requetés'».

Erreketeen abesti honek ere ondo adierazten du erreketei gertatutakoa (Larraz eta Sierra-Sesúmaga, 2010: 478):

En 26 de diciembre, la vergüenza que nos daban
en el monte Calamúa, al hacer la retirada.

Jose Aseginolazak, Saseta metrailadoreak batailoikoak, zera aipatzen du bataila honi buruz (Bidasoa, 2005: 677): «En una conversación que sostuve en la prisión con un muchacho nacionalista navarro que estaba detenido por intento de evasión de las filas facciosas, hablándome de uno de los combates del Kalamua, me decía: «Yo pertenecía a la brigada navarra llamada 'Montejurra'. Mi compañía recibió la orden de atacar el Kalamua, y de 150 hombres de que se componía, volvieron ilesos del combate al cuartel establecido en Elgoibar 37 soldados».

San Esteban eguneko bonbek eta borrokek sortu zuten zalapartak eraginda, markinar eta xemeindar askok pentsatu zuten frontea mugitu egin zela. Gainera, hegazkin frankistek bonbak bota zituzten Arretxinagan, Olabe baserriaren inguruan, Akarregin eta herriko beste hamaika tokitan, jendearen beldurra areagotuz. Hala ere, frontea lehengo tokian gelditu zen. Zalaparta guztiak alferrikakoak izan ziren. Tomas Gerrikagoitiak «Beesik» dioen bezala: «Abenduaren 26an, Akarregin, Markiña ganian, eta Kalamuan, atake ikaragarriak izan ziran egun argi guztian. Bakotxak belarriak eta begiak zur genduzan, noz gañian ikusiko, baña leengo lekuan geratzen ziran, eta arnasa pixka bat artzen zan» (Gerrikagoitia, 2000: 64).

2.12. **1936ko Gabonak: egoera negargarria herrian**

Borroka bortitzak, heriotzak, atxiloketak, bonbardaketak… 1936ko Gabonak oso gogorrak izan ziren. Alberto Onaindia 1936ko abenduaren 26an iritsi zen Markinara, gabon jaiak etxekoekin ospatzera, eta egoera negargarria aurkitu zuen: «El pueblo ofrecía un espectáculo triste y casi deprimente. Las casas eran inhóspitas, pues los bombardeos que se habían ido sucediendo desde fines de septiembre destrozaron todos los cristales y, para resguardarse del frío y de la humedad, era preciso cerrar las contraventanas y vivir en perpetua oscuridad, o con luz eléctrica, incluso durante las horas del día. El frío y la humedad penetraban toda la casa. Los tres conventos – Padres Carmelitas, Madres Carmelitas y Madres Mercedarias - estaban convertidos en cuarteles debido a la proximidad de los frentes, que distaban menos de una hora de pie» (Onaindia, 1980: 129-130).

Hala eta guztiz ere, markinar eta xemeindar gehienak herrian bizitzen jarraitzen zuten[55], eta ahal zuten bizimodu normalena egiten saiatzen ziren: «La gente vivía habi-

[55] Hala ere, egon ziren beste nonbaitera joan ziren herritarrak. Onaindiatarrak, berbarako, Aulestira joan ziren bizitzera, Markinaren kontra Kalamuatik eta Urkaregitik botatzen zituzten bonbetatik ihesi. Aulestin zegoen Onaindiatarren ama, Josefa Matea Zuluaga, bere alaba Joanita eta Karmenekin batera; baita Maria Cruz Elorriaga (Pedro Onaindia Zuluagaren emaztea) eta hauen lau seme-alabak: Jon (Markinan jaioa 1932an), Miren (Markinan jaioa 1933an), Josu (Markinan jaioa 1934an) eta Sorne (Aulestin bertan jaioa, 1936an). Felipe García Maguregiren emaztea, Santa Iriondo Irusta, eta hauen seme-alaba gazteenak ere Aulestin babestu ziren. Frankistak herrian sartu aurretxoan, Bilbora ihes egin zuten guztiek.

tuada a los frecuentes bombardeos de cañón, los niños no interrumpían sus juegos más que para trasladarse de la zona cañoneada a otra más segura, y si el tiro apuntaba el distrito de la iglesia parroquial, ellos seguían jugando a la pelota en el frontón municipal, situado al otro extremo de la villa. No escaseaban los alimentos, gracias a la presencia de los batallones los cuales siempre disponían de abundantes artículos alimenticios. El culto se celebraba todos los días en la iglesia parroquial. Los frailes y las monjas que hubieron de evacuar sus conventos, pasaron a hospedarse en familias particulares de la localidad o en pueblos vecinos. Se abrieron dos hospitales militares. El cine estuvo diariamente muy frecuentado por los soldados, incluso durante los cañoneos. En realidad, Marquina era una plaza militar. Allí pasé parte de las vacaciones de Navidad, tristes, como es natural, viviendo como se vivía la guerra con extraordinaria intensidad. A pesar de todo, la población no pensó jamás en abandonar sus casas y evacuar la villa» (Onaindia, 1980: 130).

1936ko Gabonak goibelak izan ziren guztientzat, baina beregainki garratzak izan ziren senideren bat hil zitzaienentzat. Zentzu honetan, kontuan hartu behar da, 1936ko uztailetik abendura, Markinako eta Xemeingo hamalau pertsona hil zirela gerra ekintzen eraginez. Bonbardaketetan hiru pertsona hil ziren, fusilatuta sei pertsona, frontean izandako tiroketetan pertsona bat eta frontean borrokatzen lau pertsona:

1. Uztailaren 31n, Torremotxo baserriko Bizenta Atxurra Gojenola moja karmeldarra fusilatu zuten errepublikarrek, Bartzelonan.
2. Irailaren 8an, Barinagako Odiaga Nagusi baserriko Domingo Ibarluzea Oregi jesuita fusilatu zuten errepublikarrek, Las Casas-en (Ciudad Real).
3. Irailaren 26an, Markinan bizi zen Santiago López Ruiz (1910 - 1936) hil zen Arrateko frontean, Errepublikaren alde borrokatzen ari zela.
4. Urriaren 2an, kontrolik gabeko errepublikarrek Bittor Alegria Uriarte abadea fusilatu zuten Bilbon, Cabo Quilates itsasontzian atxilotuta zegoela.
5. Urriaren hogeian, frankistek Jose Sagarna fusilatu zuten, Larruskainen.
6. Urriaren hogeiko bonbardaketan, Agustin Furundarena hil zuten frankistek.
7. Urriaren 22ko bonbardaketan, Isidra Ugartetxea hil zuten frankistek.
8. Urriaren 23ko bonbardaketan, Dolores Garate Bru hil zuten frankistek.
9. Urriaren 28an, frankistek Zelestino Onaindia abadea fusilatu zuten, Hernanin.
10. Azaroaren 13an, Mariano Ugalde Goenaga (1910 - 1936) zendu zen, Asturiaseko frontean, errepublikarrekin borrokatzen ari zela.
11. Azaroaren 30rean, Xemeingo Eizagirre baserriko (Eizar) Jose Maria Garramiola Garmendia hil zen, Gorbeiako frontean, fusilen balek eragindako zauriengatik.
12. Azaroaren 30rean, errepublikarrek Migel Iturraran Lauzirika anaia agustindarra fusilatu zuten, Paracuellos del Jaraman.
13. Abenduaren 1ean, Xemeingo Axola baserriko Martin Iturraran Lauzirika (1900 - 1936) (Errepublikaren aldeko Carros de Combate batailoia) hil zuten, Ubidean, Legutioko erasoan parte hartu ostean.
14. Abenduaren hogeian, Barinagako Azkonabieta baserriko Benantzia Muguruza Arriaga hil zuten frankistek.

Etxebarriako hiru pertsona ere hil ziren 1936an:

1. Urriaren 27an, frankistek Jose Peñagarikano abadea fusilatu zuten, Oiartzunen.
2. Urriaren 27ko bonbardaketan, Joan Jose Idoeta hil zuten frankistek.
3. Urrian edo azaroan, Jose Ramon Belaustegi Arrillaga hil zuten milizianoek.

III
1937: FRANKISTAK HERRIAN SARTU ZIREN URTEA

> «Se vive una situación de miedo e inseguridad constante, porque todos los días hay hombres y mujeres que son humillados por sus semejantes, ante la falta absoluta de libertad para expresar las ideas y sentimientos de cada cual. Como venimos diciendo es un año de guerra»
>
> MIGEL ANJEL BILBAO
> *Garaian*, 1, (1987)

1936ko urritik abendura arteko hiletan bezala, 1937ko urtarrilean, Markina, Xemein eta Etxebarria plaza militarrak ziren, eta herritarrek tiro hotsak, soldadu errepublikarren joan-etorriak eta hegazkinen eta kanoien bonbardaketak jasatea beste aukerarik ez zuten izan. 1937ko urtarrila aurreko hiru hilen jarraipena izan zen. Hala ere, badirudi, 1936ko gabonetatik aurrera, hegazkinen txikizioak ugaritu egin zirela. Ziortza-Bolibarko Tomas Gerrikagoitiak «Beesik» adierazi bezala: «…egazkiñak bat edo bika agertzen baziran be, Gabon ingurutik aurrera, laster asi ziran amar da geiagoko taldeak agertzen, triskantza gogorrak or-emen egiten» (Gerrikagoitia, 2000: 67). Tentsio izugarria zegoen Markinako Frontean, baina batzuk zein besteak ez zeuden atzera egiteko prest.

3.1. **1937ko urtarrila: tentsioa Markinako Frontean**

1937ko urtarrila heriotza mingarri batekin hasi zen. Urtarrilaren 4an, Barinagako Patxi Baskaran Arrillaga «Illaizpe» hil zuten, Bilbon.

Patxi eta beste hiru barinagar 1936ko abenduan atxilotu zituzten, frontearen alde batetik bestera jendea pasatzeko sare batean nahastuta zeudela salaketapean. Patxi «Illaizpe» kontrolik gabeko milizianoek hil zuten, Angeles Custodioseko kartzelan, 1937ko urtarrilaren 4an. Heriotza honek samin asko sortu zuen herritarren artean, batez ere, barinagarren artean.

Patxi Illaizperekin batera, beste asko hil zituzten Bilboko kartzelatan, tartean Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz, Donostiako alkate ohia. Joan Jose, Maria Dolores Prado Uhagonen aita zen. Denboraldi luzeak egiten zituen Markinako Uhagon etxean, eta, beraz, ezaguna zen inguruotan (Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 2007: 161 eta Onaindia, 1980: 131).

Giroa latza zen, 1937ko urtarrilean. Alde bateko zein besteko heriotzak pilatzen ari ziren, erasoak etengabekoak ziren, eta herritarrak saminduta eta nazkatuta zeuden. Hala ere, Markinako Frontea ez zen mugitzen.

Soldadu errepublikarrak tinko zeuden kokatuta Markinako, Xemeingo eta Etxebarriako hainbat baserritan. Etxebarrian, baserri eta toki hauetan zeuden: Zulueta Goikoa eta Behekoan, Goiko Etxebarrin, Kortabitxin, Aldazkoan, Aulestin (Saseta batailoiko metrailadoreak eta Cultura y Deporte batailoia), Osolon, Urkaregirako bidean (CNT-ko blindatuak), Lejardin, Max Ubei-n (ospitalea), Euzkitzen, Eluan (16 gudarik lo egiten zuten bertan), Satzibarren, Satzibar Beñen eta Satzibar Errotan (Zubikarai eta Fernandez Egiguren, 1989: 161 eta 168; eta Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 65-69). Markinan eta Xemeinen ere hainbat posizio hartzen zituzten: Akarregi mendian, Agarren (Xemein), Eizagirren (Xemein), Laka Goikoa baserrian (Berriatu), Kalamendin eta Asterrikan (Berriatu). Soldaduek bi edo hiru egun egiten zituzten fronteko lehen lerroan, eta gero beste bi edo hiru deskantsatzen aritzen ziren (Azurki, 2011: 51).

Erreketeak, aldiz, Egixarren, Mandiola Goikoa baserrian (Komandantzia), Mandiola Behekoan, Elordin, Amallogarain (erreketeen eta falangisten hiru konpainia), Amulategin (erreketeen aginte postua eta sektoreko komandantearen etxebizitza), Oruntzen eta Urkaregin zeuden.

Frontea geratuta zegoen, baina errepublikarren ahultasuna nabaria zen. Frankistek baino arma, munizio eta hegazkin gutxiago zituzten, eta, horrez gainera, asko ziren matxinatuen aldera informazioa pasatzen zuten militarrak zein zibilak, errepublikarren garaipen aukerak murriztuz. Horren lekuko da, 1937ko urtarrilaren 14an, Markinako sektoreko buru militarraren laguntzailea frankisten aldera pasatu zela (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 67). Badirudi desertatu zuenak informazioa pasatzen ziela matxinatuei, eta harrapatu aurretik, badaezpada, ihes egin zuela beste aldera (Onaindia, 1937: 17). Egun horretan, Avellaneda batailoiko gudari bat hil zen borroketan, eta beste bat zauritu zuten.

Tentsio, gorroto eta aurkakotasun izugarria zegoen frontearen alde bateko eta bestekoen artean. Hala ere, San Esteban egunean gertatu bezala, 1937ko otsailaren hogeian, Gerra Zibila anaien arteko guda izan zela erakusten duen zerbait gertatu zen Akarregiko frontean. Alberto Onaindiak honela bizi eta kontatu zuen gertaera bere *Hombre de Paz en la Guerra* liburuan (Onaindia, 1980: 143-144): «El día 19 del mismo mes de enero, me encontraba en mi pueblo natal de Marquina, y vinieron a verme dos gudaris que me invitaron a decirles la Santa Misa al día siguiente, fiesta de San Sebastian, en las trincheras. Venían en nombre de unos donostiarras, naturales de San Sebastián, pues deseaban celebrar el día de su santo patrono con alguna solemnidad religiosa. Naturalmente, les dije que sí, y quedamos en que a la mañana siguiente vendrían temprano a recogerme. Muy de mañana me levanté y, a eso de las seis y media, comenzamos a subir por Xemein-Gañe, por el camino de carro de bueyes que tantas veces había yo recorrido en mis años infantiles. A los tres cuartos de hora llegamos a la zona de trincheras, cerca de Egixarre en Akarregi, sobre Amalloa-Larruskain. Los jóvenes me dijeron que el ara del altar se iba a colocar sobre la trinchera misma, mostrando el celebrante su medio cuerpo por encima del parapeto, pues habían convenido con los muchachos del frente enemigo en observar una tregua durante la celebración de la misa. Había muchachos donostiarras en los dos frentes, cara a cara, y a todos les pareció magnífica la idea. Me revestí con los ornamentos sagrados, subí al altar y di comienzo al Santo Sacrificio. Con gran sorpresa mía, la misa fue cantada; aquellos simpáticos *gudaris* entonaron el Kyrie y luego el Gloria de la Misa de Angelis. La ceremonia se desarrollaba en medio de una gran emoción. Aquel acto de oración en común, aquella plegaria de 'Paz a los hombres de Buena Voluntad' rezada sobre una trinchera y de cara al llamado *enemigo* adquirían una significación verdaderamente dramática. No era fácil contener las lágrimas oyendo cantar

con fe y sincera devoción a nuestros jóvenes, tan buenos y tan sanos, tan sencillos y tan valientes, como si fuera un día de fiesta de su pueblo, cuanto en realidad vivían expuestos a la muerte en cada instante del día y de la noche. Recé el ofertorio, canté el prefacio y en el silencio elocuente y patético de un amanecer de enero sobre una montaña fría y descarnada comencé a pronunciar las palabras de la consagración. El silencio se hizo más acentuado, más intenso, más recogido y sagrado. Doblé la rodilla y levanté la sagrada Hostia, cuando una ráfaga de ametralladora rasgó la callada mañana. Todos levantamos la cabeza como movidos por un resorte de defensa, queriendo con el gesto inquirir e interrogar. Nuevo silencio, no se oía respirar. Consagración del Cáliz, otra genuflexión y elevación, y renovada descarga de tiro de ametralladora, seco, instantáneo, cortado, seguido de más silencio. Inmediatamente se cantó el Benedictus como si nada hubiera ocurrido; tal vez con mayor entusiamo y fervor. Comulgaron muchos de aquellos jóvenes. Sus caras y sus miradas no revelaban afanes de guerra, pero sí decisión, firmeza y disciplina. Terminada la santa misa, todos comentábamos con el mayor interés las dos interrupciones de la ametralladora enemiga. Uno de nuestros gudaris con un altavoz de embudo habló a la línea de enfrente inquiriendo la causa de los sorprendentes tiros, y una voz amiga, alegre y juvenil le respondió: «¡Ha sido la campanilla de la Consagración. También nosotros hemos oído vuestra misa y la hemos cantado!». Minutos más tarde se reanudaba la guerra, el fusil, la ametralladora y el mortero tiraban a matar».

Akarregin zeudenek ez ezik, Etxebarriako posizioetan edo Akarregi inguruan zeuden gudari eta miliziar gipuzkoarrek ere ospatu zuten San Sebastian eguna. Aparteko afaria egin, Donostiako bandera jaso, eta danborra ere jo zuten, gaueko 12:00etan (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 69). Abagune dramatiko hartan, soldaduek gizatasun eta normaltasun apur bat bilatzen zuten. Biharamunean, baina, borrokek jarraitu zuten[1].

Errepublikarren alde ari ziren alderdi eta agintariek bazekiten ahul zeudela matxinatuei behar bezala aurre egiteko, baina, hala ere, Euzkadiko Jaurlaritzak ahalegin guztiak egiten zituen indarrak bildu, fronteak sendotu eta aurkarien aurrerapena galarazteko. 1937ko urtarrilean, 1937ko kintoei dei egin zien frontera joateko, eta, urtarrilaren 27an, 18 eta 45 urte bitarteko gazteei Defentsa Sailaren kontrolpean zeudela adierazi zieten, dekretu bidez. Errealitatean, 18-45 urte bitarteko gizonen mobilizazio orokorra zen, eta horrek gizonezko gazteei Bizkaitik ateratzea galarazten zien.

Dekretu honen ostean, ideologia tradizionalistako gazte batzuk ezkutatu edota frankisten aldera pasatu ziren, Errepublikaren alde ez borrokatzeagatik. Boluntario sartu ziren Nafarroako Bigarren Brigadan, batez ere, San Ignazio Errekete Tertzioan[2], eta Akarregi eta Ondarroa inguruan gudukatu zuten, 1937ko apirilaren 27ra arte, hau da, Markinako Frontea apurtu zen arte.

---

[1] 1937ko urtarrilaren 21ean, Paulo Lejarreta Andonegi soldadu errepublikarra hil zen Kalamuako oinetan (http://egoibarra.com).

[2] Nafarroako Bigarren Brigadaren kuartel nagusia Deban zegoen, eta bertan destinatutako soldaduek Ondarroa inguruan hasi eta Akarregi ingurura arte borrokatu zuten. Bigarren brigadak bi Brigada erdi zituen. Lezamiz eta Gilermo Tabernillaren arabera (http://www.sanchodebeurko.org), 1937ko martxoaren 31n, lehen brigada erdiak Arapiles 7. zenbakia zuen mendiko bataiioiko zortzi konpainia zituen, Falangeko laugarren bandera eta Nuestra Señora del Caminoko bi konpainia. Bigarren brigada erdia Tutor teniente koronelaren agindupean zegoen eta San Migel Errekete Tertzioak, San Inazio Loiolakoa Errekete Tertzioak (Nuestra Señora del Camino Errekete Tertzioaren konpainia batekin) eta Falangeko lehen eta hirugarren banderak osatzen zuten. Bigarren Brigada erdi honek bat egin zuen Nafarroako Lehen Brigadarekin eta hauek zeuden posizioetara Piazzoni Jeneralaren Gezi Beltzak Brigada Italiar mistoa bidali zuten 1937ko apirilaren 2an. Brigada italiar misto honek sei bataiioiko bi erregimentu zituen.

Gazteek ez ezik, ideologia tradizionalista edo monarkikoa zuten batzuek ere ihes egin zuten frontearen beste aldera, 1937ko urtarrilean. Alejandro Gaitan de Aiala, Jose Luis Gaitan de Aiala Markinako alkatearen aita, eta Dolores Alkorta Zulueta, Margariten burua, 1937ko urtarrilean pasatu ziren frankistengana. Dolores Alkorta Markinan bizitzen zegoen ihes egin zuenean, baina Alejandro Gaitan de Aiala 1936ko abuztutik ezkutatuta zegoen Txepetxabixe inguruan.

Frontea mugitu gabe zegoenez, alde bateko zein besteko soldaduak, batailoiak eta konpainiak joan eta etorri egiten zuten. Fronteko lehen lerroan denboraldi bat egiten zuten, eta gero errelebatu egiten zituzten, deskantsatzeko; edota beste fronte batera bidaltzen zituzten borrokatzera. Beraz, hainbat izan ziren Markinako Frontetik pasatu ziren soldaduak, batailoiak eta konpainiak.

1937ko otsailaren 3an, Otxandiano batailoiak Avellaneda batailoiaren tokia hartu zuen, Kalamuaren oinetako posizioan eta Etxebarriakoan. Egun berean, hiru hegazkinek erregimen frankistaren aldeko paperak bota zizkieten Kalamuaren oinetan borrokatzen ari zirenei (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 74). Frankistek askotan erabili zuten estrategia hau, errepublikarrak psikologikoki ahultzeko.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Jose Martinen etxea, 1937ko otsailaren zazpiko bonbardaketaren ostean.

1936ko urritik, bonbardaketak eguneroko kontua ziren, baina, 1937ko otsailean, Markinak bonbardaketa bortitz asko jasan behar izan zituen. Bereziki gogorra izan zen 1937ko otsailaren 7koa, hau da, inauteri igandekoa. Urkaregitik frankistek botatako obusek Markinako alde zaharreko hainbat etxe kaltetu, eta Jose Martinen etxea eta albokoa (gaur egun, Toldope taberna dagoen eraikina, garai hartan Vega izenekoa) erre zituzten (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 75). Alberto Onaindiaren hitzetan, gure herriak ezagutu zuen bonbardaketarik beldurgarriena izan zen (Onaindia, 1937): «El bonbardeo más horroroso fué el ocurrido el día 7-2-37, Domingo de Carnaval. Comenzó

a actuar la artillería enemiga algo antes del mediodía. Lanzaron bombas incendiarias que prendieron fuego a la casa de José Martín y Café Vega, a la de Katalintxu y alguna más. Destrozó, además, las casas de Patxua, Abarketerukua y Foruria, Etxetxiki, haciendo grandes destrozos en otras más. Llegaron los bomberos de Durango a apagar los incendios de las casas de José Martín y Vega, logrando localizar el fuego, que en otro caso se hubiera extendido a otras casas, por el viento reinante».

Katalintxu etxean, gaur egun Batzokia dagoen eraikinean, ideologia tradizionalista zuen Eibartar bat zegoen ezkutatuta. Bere emazteak ahaideak zituen Markinan, eta haiek gorde zuten bertan. Etxea sutan hasi zenean, koltxoia buruan hartuta atera ei zen arrapaladan, beste nonbaiten ezkutatzera.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Karmengo komentuko eliza, 1937ko otsailaren zazpiko bonbardaketaren ostean.

Ez nago ziur, baina iruditzen zait egun honetako bonbardaketan kaltetu zutela Karmengo komentuko elizaren fatxada. Elizak jasan zituen kalteen argazkia Euzkadi Egunkarian agertu zen 1937ko otsailaren 17an, hau da, bonbardaketa gertatu eta hamar egunera. Obus bat komentuko elizaren aurreko horma dagoen ama birjinaren nitxotik sartu zen, organoari kalteak eragin zizkion, eta pulpituaren aurrean lehertu zen. Gaur egun ere elizaren aurreko horman igartzen da obusak egin zuen zuloa (Urkiza, Unzueta, eta Fernandez de Mendiola, 2005: 380). Bonbardaketan, elizaren fatxadan dagoen Ama Birjinari eskua apurtu zitzaion, eta Pedro Burgoa igeltseroak (Ondarroa, 1912 - Markina-Xemein, 1972), bere eskua eredutzat hartuta, esku berria egin zion. Argi ikus daiteke eskua ez dela jatorrizkoa, eta, proportzioan, Ama Birjinaren irudia baino pixka bat handiagoa dela.

Otsailaren 7ko bonbardaketa oso gogorra izan zen, baina biharamunekoa, hau da, otsailaren 8koa, ez zen leunagoa izan. Etxebarriako frontean, Kortabitxi baserrian, obus

bat sartu zen etxe barrura, behi bat hil zuen eta amona zauritu (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 75).

Bonbardaketak, heriotzak, soldaduen kontrolak… Frontean tentsio izugarria zegoen, eta ez zen erraza alde batetik bestera pasatzea. Errepublikako partean gelditu ziren eskuindarrak, baina, beldurrak jota zeuden, eta etengabe saiatzen ziren frankisten aldera pasatzen. Arriskua izugarria zen, baina askorentzat arriskutsuagoa zen Errepublikaren aldean bizitzen jarraitzea. Hori pentsatuko zuen, ziur aski, Jenaro Omaetxebarria abadearen anaiak.

Otsaileko lehen egunetan, Markinako abade laguntzaile izandako Jenaro Omaetxebarria Atxikallenderen[3] anaia atxilotu zuten Akarregi inguruan, frankisten aldera pasatu nahian zebilela. Jenaro Xemeingo abade laguntzailea izan zen 1922tik 1930era, eta gero Kortezubiko ekonomo egin zuten.

Atxiloketa honek atxiloketa gehiago ekarri zituen. Omaetxebarria galdekatu ostean, Gonzalo Goiogana Elordi markinarra preso hartu zuten. Itxura denez, Omaetxebarria Atxikallendek esan zuen, frontea pasatzen saiatu aurretik, Gonzaloren etxean egon zela ezkutatuta. Atxilotutakoaren anaia, Jenaro Omaetxebarria abadea, Gonzalo Goiogana-ren etxean egon zen apopilo, Markinako abade izan zen urteetan, eta, pentsatzen dut, horregatik ezkutatu zuela bere anaia, eta ihes egiten lagundu.

Ondoren, Hilarion Amutxastegi Eraso atxilotu zuten, Kortezubira joan zelako Jenaro Omaetxebarria abadeari Jose Luis Gaitan de Aiala ezkutatzeko etxe bat eskatzera.

Ostean, frontearen beste aldera ihes egin zuen 20 urteko gazte baten aita atxilotu zuten: Alejandro Duralde Barrenetxea (Markina, 1886 – Markina-Xemein, 1957)[4]. Urtarrilean ihes egin zuen Dolores Alkortaren senarra ere, Jose Urkiza Arriaga (Markinan jaioa 1885ean), preso hartu zuten.

Gonzalo Goiogana Elordik, Hilarion Amutxastegi Erasok, Alejandro Duralde Barrenetxeak eta Jose Urkiza Arriagak tratu oso txarrak jasan omen zituzten kartzelan egon ziren bitartean. Herritarrek diotenez, hiru gautan kartzelatik atera zituzten, fusilatzeko saioak egin zizkieten, eta gero berriro kartzelara sartu zituzten, fusilatzeko arazoak zeudela esanez. Beldur izugarria pasatu zuten, eta psikologikoki lur jota gelditu ziren. Dena den, denbora gutxi egin zuten kartzelan.

Lau pertsona hauez gain, Jose Txopitea**,** Txepetxabixe baserrikoa, Jose Maria Ibarluzea, Gabaro Baserrikoa, Ibarluzea, Lauzirike baserrikoa, Jose Maria Aranbarri, Larrus baserrikoa, Axola baserriko gizona, Lezaran baserriko gizona, Barbaixola (Aulestia) baserrikoa eta Koba (Aulesti) baserriko semea atxilotu, eta Markinako kartzelara ekarri zituzten, frontearen beste aldera pasatzeko zegoen sareari buruz informazioa lortzeko asmoarekin; gehienbat, Gaitandarren ezkutalekuak ezagutu nahi zituzten milizianoek. Hauek bazekiten Gaitandarrak, tartean Jose Luis Gaitan de Aiala alkatea, baserri hauetan zeudela ezkutatuta, eta bertako gizonak hainbat aldiz galdekatzeaz gain, baserriak

---

[3] Inazio Larragan Iturbek eta Jenaro Omaetxebarriak errepublika etorri aurretxoan utzi zuten Xemeingo Andre Mariaren parrokia, eta, hauen ordez, Domingo Onaindia eta Jose Antonio Oar-Arteta etorri ziren abade laguntzaile lanetara. Inazio Larragan Iturbe Durangon jaio zen, 1872an. Abade egin zen 1898an. Markinako abade laguntzaile izan zen 1901etik 1931ra arte, eta, gero, Durangora joan zen. Jenaro Omaetxebarria Atxikallende Muruetan jaio zen, 1891n. Abade egin zen, 1915ean. Abade laguntzaile izan zen Markinan 1922tik 1930era, eta 1930ean Kortezubiko ekonomo egin zuten.

[4] Pentsatzen dut, hanka egin zuena bere seme Jose Maria Duralde Madariaga (Markinan jaioa 1917an) izan zela. Markinako Frontean aritu zen borrokan San Inazio errekete tertzioan, eta gero ere tertzio honetan egin zuen gerra.

goitik behera arakatu zituzten. Gainera, informazioa ematera ukatu zirenak gogor jo ei zituzten. Gehienek argi adierazi zuten Gaitandarrak euren baserrietan egon zirela ezkutatuta, baina milizianoek ez zituzten bertan aurkitu (Onaindia, 1937: 23).

Atxiloketa hauek gertatu zirenean, 1937ko otsailean, Jose Luis Gaitan de Aiala Koba baserrian zegoen ezkutatuta, baina bertako semeak ukatu egin zuen euren etxean zegoenik. Hala ere, Jose Luisek bere burua preso ikusi zuen, eta milizianoen eskuetan jausi baino nahiago izan zuen Gernikan zeuden Ertzainei deitzea; beraz, 1937ko otsailean, entregatu egin zen Aulesti inguruan, eta Bilboko Larrinagako kartzelara eraman zuten (Onaindia, 1980: 234). Egun batean, Markinako epaitegira ere ekarri ei zuten deklarazioa hartzera. Larrinagako kartzelan egon zen preso, 1937ko ekainaren 18an, aske utzi zuten arte.

Bonbardaketak, tiroak, heriotzak, atxiloketak… giro hartan, jai egiteko edota edonolako ekitaldi kulturalak antolatzeko gogo gutxi zegoen. Frontea geldirik egon zen zazpi hiletan, bi herriotako bizitza soziala eta kulturala erabat gelditu zen. Hala ere, Zehar kaleko bederatzigarren zenbakian, «Eusko-Etxeako» beheko trinketean, «Cine Marquinés» (gaur egun, Zine Zaharra izenarekin ere ezagutzen da) zegoen 1935. urtetik, eta gerrako hiletan, egunero izaten zen zine emanaldia. Egoera istilutsuarekin ahazteko edota denbora pasatzeko soldaduek zuten aisialdi aukera bakarrenetarikoa izanik, asko izaten ziren mendietatik zinea ikustera jaisten zirenak. Zine aretoa bete-beteta egoten ei zen; eta bonbardaketak izaten zirenean ere, soldaduak ez omen zuten zirkinik ere egiten (Onaindia, 1980: 130). Jose Manuel Mendizabalek «Mañul-ek» (Saseta batailoiko Aitzol konpainiako bigarren sekzioko tenientea) bere egunerokoan kontatzen du, 1937ko otsailaren 10ean, «El Zarevitch» pelikula ikusi zuela «Cine Marquinesen». Ez zitzaion gehiegi gustatu (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 76).

Egun horretan, soldaduak zinea ikusten ari zirela, gudari bat erreketeen aldera pasatu zen, Akondia mendiaren inguruan (Gutierrez, 2007: 69). Hamar egunera, 1937ko otsailaren 19an, Ledesma Lekeitioko sektoreko buru militarrak gauza bera egin zuen. Berarekin, Markinako eta Lekeitioko Fronteari buruzko informazio pila eraman zuen frankistengana (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 78).

Karrerako militar errepublikarrek ikusten zuten frontea momentu batetik bestera apurtuko zela, eta morala oso baxua zen. Euren buruak seguruago ikusten zituzten frankisten aldean. Hortaz, Ledesma tenienteak ihes egin eta zortzi egunera, otsailaren 27an, 41 urteko Alejandro Goikoetxea ingeniari elorrioarrak ere hanka egin zuen Francoren partera, fronteei buruzko datu ugari eramanez. Burdinazko Gerrikoari buruzko informazioa ez ezik, Bizkaiko frontean zeuden babesleku eta soldaduen berri eman zien militar matxinatuei. Bere txostena Asterrika, Kalamendi, Itoiñomendi, Urkaregi eta Markinako Fronteari buruzko deskripzioekin hasten zen (Talon, 1988: 539). Ledesmak zein Goikoetxeak emandako informazioarekin, errazagoa izan zen frankistentzat Markinako Frontera apurtzea, eta, ostean, Bizkaia osoa konkistatzea.

Egia esan, ez da harritzekoa soldaduak eta buru militarrak alde batetik bestera pasatzea, kontuan hartzen badugu, askotan, frontearen alde bietan zeudenak elkar ezagutzen zutela, militar errepublikar batzuek informazioa pasatzen zietela frankistei eta, kasu batzuetan, lubaki batetik bestera elkar zirikatzen eta hitz egiten aritzen zirela. Jose Luis Lasak dioen bezala: «Otaitz nos habla desde la trinchera de enfrente. Otaitz era uno que había sido de Euzko Gaztedi como nosotros, que se quedó en Donostia y fue alistado como requeté. Al llamarle traidor desde nuestras filas, nos contestó que el fin de semana pensaba ir de permiso a Donostia, y a ver (…) cuando iríamos nosotros. Esta anécdota la recuerdo yo como sucedida en febrero en la posición de Akarregi, en el frente de Markina-Etxebarria» (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 92-93)

Hala ere, momentu gehienetan, kanoi eta fusilek pertsonek baino gehiago hitz egiten zuten. Horrela, 1937ko otsailean, txikizio eta heriotza asko eragin zituzten bonbardaketa gogoangarri asko izan ziren gure lurrean:

1937ko otsailaren 13ko bonbardaketan, Etxebarriako Aulesti baserriaren inguruan, bi obus lehertu, eta errepublikarren posizioa oso kaltetua gelditu zen (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 78).

1937ko otsailaren 22an, frankistek kanoikada ugari bota zituzten Markinaren, Otzoloko posizioaren (Etxebarria) eta Akarregiko frontearen aurka (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 79-80).

1937ko otsailaren 23an, hegazkin frankistek Urberuaga bonbardatu zuten, eta lau hildako eta bost zauritu eragin zituzten (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 81). Bonbek Buena Vista etxea apurtu zuten, eta kalte handiak eragin zituzten Azpiltzan eta bainuetxeko etxe Frantsesean. Bonbardaketa honetan, Jose Maria Urriolabeitia Garramiola (1882 - 1937) zauritu zuten, eta handik bi egunetara, otsailaren 25ean, zendu zen (Egaña, VI. tomoa, 1999: 295). Bonbardaketa horretan, Rosa Luxenburgo batailoiko miliziar gehiago ere hil ziren, eta Xemeingo kanposantuan lurperatu zituzten. Horietariko bat Francisco Hejido Pérez izan zen. Alberto Onaindiak dioen bezala, «En Urberuaga hubo un bonbardeo por Febrero, aproximadamente, que destrozó la casa llamada Buena-Vista, hizo grandes perjuicios materiales en la Francesa, y en Aspilza. Hubo varias víctimas entre ellas José Maria el de Lariz, padre de ocho hijos, y un miliciano del Rosa Luxemburgo. El miliciano fue enterrado en Markina y cuando su cadáver estaba en el campo santo, llegó un piquete del Rosa que se cuadró ante el cadáver, permaneciendo algunos minutos en esta actitud. Luego le saludaron diciendo 'salud, camarada' terminando de este modo el original funeral del pobre comunista» (Onaindia, 1937: 10).

Otsailaren 23an, bestalde, Urkaregiko frankisten bateriek hainbat kanoikada bota zituzten Akarregi eta Otzoloko posizioen aurka (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 81).

Heriotza hurbil ikusteak beharrizan espiritualak areagotzen zituen, eta erlijioak garrantzi asko zuen gudarien artean. Beraz, elizgizonek nahiko zeregin izan zuten Markinako Fronteak iraun zuen zazpi hiletan. Alde batetik, 1936ko urriaren hasieran, gudarien batailoiak etorri zirenean, mezak ugaritu ziren. Bestalde, milizianoak erritu zibilen bidez lurperatzen bazituzten ere, gudariak eta zibilak erritu katolikoekin agurtzen zituzten, eta, horrenbeste heriotzekin, elizgizonek hileta elizkizun asko ospatu behar izaten zituzten. Gainera, herritik kanpo hiltzen zirenen aldeko mezak ere ateratzen zituzten defuntuen senideek. Berbarako, 1937ko otsailaren 28an, igandean, frankistek fusilatutako Jose Peñagarikanoren aldeko meza ospatu zuten etxebarritarrek eta bertan zeuden gudariek. Jose Manuel Mendizabal «Mañul»-ek meza horretan parte hartu zuen (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 83).

1937ko martxoa ere heriotzekin hasi zen. 1937ko martxoaren 6an, Migel Ibarzabal Arrieta (Markina, 1910 – Bilbo, 1937) hil zuten. Migel Markinako Barinaga auzokoa zen, Aranzeta (Asta) Guena edo Goikoa Baserrikoa. San Andres batailoiko gudaria zen, eta postari lanak egiten zituen bizikletaz Barinagatik Markinara. Bizikletan zihoala, Etxebarria, Barinaga eta Markinako bide gurutzean, Mandiola baserrian zeuden erreketeek tirokatu zuten buruan. Basurtuko Ospitalera eraman zuten zaurituta, baina berehala hil zen.

Handik bi astetara, 1937ko martxoaren 22an, Plazida Mandiola (Markina, 1929 – Markina, 1937) zortzi urteko umea hil zuten. Plazida Barinagako Koastei (Gorostidi) baserrian bizi zen. Erreketeen bala galdu batek abdomenean zauritu ostean, bere etxean hil zen, eta Barinagako kanposantuan lurperatu zuten (turria: barinagarrek emandako informazioa eta Markina-Xemeingo Erregistro zibila).

Plazida hil osteko egunetan, 1937ko udaberriaren hasieran, Bizkaia menderatzeko matxinatu frankistak azken prestaketak egin zituzten. Ledesma tenienteak eta Goikoetxea ingeniariak emandako informazioak oso erabilgarriak izan ziren horretarako.

3.2. **1937ko otsaila - martxoa: Bizkaia menderatzeko frankisten prestaketak**

1936ko urriaren 4tik aurrera, frankistek erreketeen konpainia bat (150 bat soldadu) eta artilleria bateria bat jarri zituzten Berriatuko Arantzei baserrian (Madalena ermitaren alboan). Arantzeitik hamaika aldiz bonbardatu zituzten Akarregi mendian, Agarren (Xemein), Eizagirren (Xemein), Laka Goikoa baserrian (Berriatu), Kalamendin eta Asterrikan (Berriatu) zeuden soldadu errepublikarrak. Errekete frankistek inguru honetako baserri gehienak ere hartu zituzten, komandantzia militarra jartzeko, frontea antolatzeko edota soldaduei bizitokia emateko. Hasieran, Legarrei, Pertike, Itxurriño eta Urdiñoleta baserrikoak soldadu frankistekin batera bizi ziren; baina, 1937ko otsailean, Bizkaiaren aurkako erasoa laster hasiko zela eta borrokak asko gogortuko zirela kontuan hartuz, baserriak husteko agindua eman zuten militarrek, eta baserritarrek ahal zutena gurdietan hartu, eta Gipuzkoa ingurura, edo bakoitzak ahal zuen tokira, joan behar izan zuten bizitzera.

Berriatun ez ezik, frankistek Amallo, Akarregi, Etxebarria eta Urkaregiko frontetik gertu zeuden baserriak ere hustu zituzten, Bizkaia menderatzeko erasoa oztoporik gabe egiteko helburuarekin. Horrez gain, espioien, desertoreen eta hegazkinen bidez lortutako informazioarekin, errepublikarren gotorleku eta indarrei buruzko hainbat txosten idatzi zituzten. 1937ko martxoaren 24an, erasoa hasi baino aste bat lehenago, Francoren Kuartel Nagusiak Bizkaiko babeslekuei eta soldaduei buruzko txosten bat idatzi zuen, estrategia militarrak prestatzeko asmoarekin (Talon, 1988: 384). Txosten horren arabera, Euskal Armadaren kuartel nagusia Iurren (Arratia) zegoen eta bere menpe zeuden Bizkaia babesten zuten hiru fronteak:

– Gipuzkoako frontea: Lekeitio, Markina, Eibar, Elgeta eta Elorrioko sektoreek osatzen zuten, agintaritza Amorebieta-Etxanon zegoen, eta Joakin Vidal Munarriz zen koronela. Gipuzkoako Frontea Lekeitio ingurutik Aramaio ingurura arte zihoan.
– Arabako frontea: Otxandio, Mekoleta, Ubidea eta Gorbeiako sektoreek osatzen zuten, kuartel nagusia Ubidean zegoen – edo Otxandion - eta agintaritza aurrenengo Aizpuru koronelaren menpe egon zen, eta gero Joan Ibarrolaren menpe. Arabako Frontea Aramaiotik Gorbeia mendiaren mendebalderaino zihoan.
– Burgoseko frontea: Baranbio, Urduña, Amurrio, Artziniega - Respaldiza eta Balmasedako sektoreek osatzen zuten, kuartel nagusia Amurrion zegoen eta koronela Daniel Irezabal zen. Burgoseko Frontea Gorbeia ingurutik Enkarterriraino zihoan.

Aipatutako txostenaren arabera, martxoaren 24an, Markinako Frontean zeuden San Andres batailoia, Otxandiano batailoia, Castilla batailoiko konpainia bat eta Cultura y Deporte batailoiko beste konpainia bat. Txostenak ez ditu aipatzen, baina, garai hartan, Irrintzi batailoiko 2. konpainia eta Rosa Luxenburgo batailoia Urberuagako bainuetxean zeuden koarteleratuta. Batailoi eta konpainia hauek Markinako Frontea jausi zen arte, 1937ko apirilaren 27ra arte, aritu ziren gure herriko lurretan borrokatzen.

Egia esan, frontea mugitu gabe egon zen zazpi hiletan, milaka soldaduk eta hainbat batailoi errepublikarrek borrokatu zuten Markinako sektorean. Batailoiak errelebatu egiten zituzten, eta, beraz, asko izan ziren Fronte honetatik pasatu zirenak. Hona hemen hauetariko batzuen izenak:

4. batailoia, Rosa Luxenburgo (PCE): Alderdi Komunistaren beste batailoiak bezala, Rosa Luxenburgo batailoia Gipuzkoan borrokatzen aritutako konpainia komunisten batasunetik eratu zen. Irungo gudaldian, Tahelman Zutabea sortu zen, eta hortik Rusia, Rosa Luxenburgo eta Larrañaga batailoiak eratu ziren. Gerra bizi izan zuten markinarrek ondo gogoratzen dute Rosa Luxenburgo batailoia, kuartel nagusia Urberuagako bainuetxean izan zuelako, eta Markinako Frontean hil asko egin zituelako. Markinarrek eta xemeindarrek gogoan dute batailoi honetako komandantea, Manuel Kristobal Errandonea, nola ibiltzen zen, gora eta behera, zaldi zuri baten gainean[5]. 1936ko abendutik 1937ko apirilaren 26ra, egon ziren Urberuagan koarteleratuta. Arrazoi horrengatik, hegazkin frankistek askotan bonbardatu zituzten Urberuagako bainuetxea eta inguruneak. Batailoi honetako hainbat soldadu hil ziren gure herriko lurretan.

6. batailoia, ANV 1. Olabarri (ANV): batailoi honek Akarregi inguruan borrokatu zuen, 1936ko irailean, urrian eta azaroan, eta Urberuagako bainuetxean egon zen koarteleratuta. Frantzisko Manuel Vargas Alonsok dioen bezala, «En Lequeitio el batallón instaló su cuartel en el palacio de Zubieta, pasando luego a acuartelarse en el Balneario de Urberuaga (Marquina), ocupando posiciones en la zona de Akarregi. Allí sufrió algunos incidentes incruentos, como la llegada a sus líneas de un evadido navarro, y el bombardeo aéreo sin víctimas realizado por un aparato enemigo sobre la plaza de Marquina» (Vargas, 2002: 523).

9. batailoia, Fulgencio Mateos (PSOE/UGT): batailoiaren lehen izena UGT 1. izan zen, eta Deustuan sortu zen boluntarioekin, 1936ko abuztuaren bukaeran (Talon, 1988: 352 eta 628). Bere buruzagia Fulgencio Mateos zen. Markinako frontera etorri zen 2. batailoi formatua izan zen (lehenengoa ANV-ko Euzko Indarra). 1936ko irailaren azkenetan agertu ziren Markinan, eta urrira arte egon ziren (Azurki, 2011: 342). Urriaren azkenetan, Otxandiora eraman zituzten, eta azaroaren bukaeran eta abenduaren hasieran, Legutioko batailan parte hartu zuten. Markinako Frontean egon ziren garaian, batailoiaren konpainia batzuk Akarregiko posizioetan egon ziren, eta beste batzuk Akondian eta Kalamuan. «El batallón se situó en Markina-Etxebarria, donde se dividió en dos: tres compañías quedaron en la localidad, mientras la otra mitad tomó rumbo al término de Usartza, entre los montes Akondia y Kalamua (Azurki, 2011: 338). Akarregiko posizioetan egon zirenek Egixarreko gudaldian parte hartu zuen. Bataila honetan, 40-60 soldadu errepublikar inguru hil ziren[6], asko eta asko Fulgencio Mateos batailoikoak. Batailan izan zituen zauriengatik hil zen batailoiko burua, Fulgencio Mateos buruzagi sozialista. Heriotza honen ostean, batailoiak hildako buruzagiaren izena hartu zuen.

23. batailoia, ANVren bigarrena/Euzko Indarra (ANV): 1936ko urrian, Euzko Indarra batailoia Larreako Komentuan (Amorebieta-Etxano) zegoen koarteleratuta. Hemendik, Markinako Frontean borrokatu zuen, Akarregiko frontean. Egixarreko batailan ere parte hartu zuen, 1936ko urriaren 21ean (Vargas, 2002: 527).

24. batailoia, Irrintzi (EAJ): Batailoi honek morteroak eta karroen aurkako artilleria zeuzkan, eta bere konpainiek fronteko hainbat lekutan borrokatu zuten, baita Markinako Frontean ere. 1937ko apirilean, Irrintzi batailoiko 2. konpainiaren aginte postua Urberuagan zegoen, eta Kapitaina Eusebio Ortuondo zen. Konpainia honek babesten zituen posizioak ziren: Belaustegi baserriaren ingurua (Domingo San Agustin zen sar-

---

[5] Batailoi honen gora beherei buruz gehiago jakiteko, ikusi Aitor Azurkiren *Maizales bajo la lluvia* liburua (2011).

[6] Talonek dionez, 60 soldadu errepublikar hil ziren (Talon, 1988: 913). Beste batzuk diote 40 soldadu Errepublikar hil zirela (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 80).

jentua) eta Kalamua ingurua (Gregorio de Alkubilla zen sarjentua). 1937ko apirilaren 26an, Markinako Frontea uzteko agindua hartu zuen, eta 27an ihes egin zuen (Azkue, 2007: 44).

27. batailoia, Castilla (JSU - Juventud Socialista Unificada): batailoi hau Gaztelan jatorria zuten etorkinez osatua zegoen. Etxebarria eta Kalamua arteko posizioak babestu zituen, 1937ko urtarriletik apirilera, eta Celta batailoiak utzitako tokia hartu zuen. Karmengo komentuan koarteleratu zen. 1937ko apirilaren 22an, 599 gudari zituen Markinako Frontean (Gutierrez, 2007: 128)

30. batailoia, Celta (CNT 6): Etxebarria eta Kalamua arteko posizioak babestu zituen 1937ko urtarrilean, eta bere tokia Castilla batailoiak hartu zuen. Celta izena hartu zuen batailoi honek, Pasaiako (zehazki, Trintxerpe auzoko) gailego askok osatzen zutelako.



Argazkia: Garaian aldizkaria, 1994-15:24-25
Lenago II batailoiko bi gudariren hileta elizkizuna Barinagan, 1936ko azaroaren hogeita bian.

33. batailoia, Lenago II (Jagi-Jagi): 1936ko azaroan, Kalamua inguruan borrokatu zuen. 1936ko azaroaren 22an, batailoi honetako bi gudari hil ziren Kalamuako frontean. Barinagan egin zituzten hileta elizkizunak. Bat 19 urteko tolosarra zen, eta bestea Pasaiakoa. Garaian aldizkariaren 15. zenbakian daude hileten argazkiak (1994: 24-25).

37. batailoia, Otxandiano (EAJ): batailoi honek bost konpainia zituen: Alberdi, Aurrera Beti, Fano, Oldargi eta Artagan. Komandantea Koldo de Larrañaga izan zen, baina, Malmasingo borroketan, 1937ko ekainean, hil egin zen, eta gero Pio Maidagan Irakulis-ek ordezkatu zuen (Vargas Alonso, 2001: 322-323). Otxandiano batailoiko Oldargi konpainiak Egixarreko gudaldian parte hartu zuen 1936ko urrian. 1937ko otsailaren 3an, batailoia Markinako Frontera etorri zen, eta Avellaneda batailoiaren tokia hartu zuen, Kalamuaren oinetako frontean. Markinako Frontean egon zen, guda lerroa apurtu zen arte, 1937ko apirilaren 27an (Mendizabal, Lasa, eta Agirre, 2006: 74). Otxandiako batailoiak babestu zuen soldadu errepublikarren atzeraldia Markinako eta Lekeitioko fronteetatik. Otxandiano batailoiaren komandantzia Urberuagan egon zen aurrenengo, eta gero Munibe jauregian. Intendentzia Uhagon etxean jarri zuten. 1937ko apirilaren 22an, 626 gudari zituen Markinako Frontean (Gutierrez, 2007: 128)

38. batailoia, Avellaneda (EAJ): Batailoi honen lehen destinoa Markinako Frontea izan zen. 1936ko azaroaren 18an heldu ziren Markinara, eta otsailaren 2ra arte egon ziren gure herrian. Batailoiaren komandantzia Urberuagako Bainuetxean egon zen, eta

intendentzia Uhagon etxean (Onaindia, 1937: 19). Avellanedako gudari gehienak Enkarterrikoak ziren (Vargas Alonso, 2001: 323-325).

39. batailoia, Arana Goiri (EAJ): EAJ-k antolatu zuen1. batailoia izan zen. Lau konpainia zituen: Kortabarria, Etxeberria, Garaizabal eta Zubiaur. 1936ko irailaren 24an, Arana Goiri batailoiko gudariek Bilbon desfilatu zuten, eta, egun horretan berbertan, batailoiko bi konpainia (Garaizabal eta Zubiaur konpainiako bi sekzio) Markinako frontera bidali zituzten (Vargas Alonso, 2001: 325-326). San Migel Gainera igo ziren, erreketeei aurre egitera. San Migelen eta Urkaregin bat egin zuten konpainia sozialista batzuekin, Garellanoko soldaduekin, Asaltoko guardiekin eta beste gudari batzuekin (Beldarrain, 1980: 29). Egun horretan, Arana Goiri batailoiak sei hildako eta zazpi zauritu izan zituen (Berazategi eta Dominguez, 2006: 94-95). 1937ko urtarrilaren hasieran, batailoi honen Gorbea konpainiak Avellaneda batailoiak Markinako Frontean utzitako posizioak hartu zituen, eta bertan egon zen urtarrilaren hogeira arte (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 67-69).

43. batailoia, Cultura y Deporte (Juventud Socialista Unificada): Gaztelan jatorria zuten etorkinez osatua zegoen. Etxebarria eta Kalamuaren artean zeuden posizioak babesten hasi zen 1937ko urtarrilaren hogeian (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 69).

50. batailoia, San Andres (ELA/STV): 1937ko urtarrilean, Markinako Frontean zegoen, Urberuagako bainuetxean koarteleratuta. Batailoi honen bi konpainia Kalamuako frontean zeuden eta beste bi Bermeokoan. Batailoi hau apirilaren bukaerara arte egon zen Markinako Frontean. Hain zuzen ere, fronte honetan zeuden tropen atzeraldia babestu zuen (Vargas, 2002: 544). 1937ko apirilaren 22an, 627 gudari zituen Markinako Frontean (Gutierrez, 2007: 128). Migel Ibarzabal Arrieta markinarra (1910 - 1937), San Andres batailoikoa zen, eta 1937ko martxoaren 6an zendu zen Etxebarriako bidegurutzean.

53. batailoia, Saseta (EAJ): metrailadoreen batailoia izanik, fronte guztietan egon zen, beste batailoi batzuei babesa eta laguntza ematen. Markinako Frontean hil asko egin zituen, bereziki Akarregi eta Kalamua inguruan (Bidasoa, 2005: 677). Berriatu, Kalamendi, Milloi eta Asterrikako frontean ere egon zen. Jose Manuel Mendizabal «Mañul», Saseta batailoiko Aitzol konpainiako bigarren sekzioko tenientea, Markinako Frontean egon zen borrokatzen, 1937ko urtarrilaren 10etik martxoaren 3ra, eta, gero, Berriatu inguruan, apirilaren 27ra arte (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 65-85). Jose Mari Arandiak dioen bezala: «El nuestro era un Batallón de ametralladoras con 48 máquinas de cuyo mantenimiento se ocupaban los armeros, que eran gente de Eibar. Nuestra función era apoyar con nuestras máquinas a otros batallones, por lo que estábamos desplegados en todo el frente. Cada compañía ocupaba un sector muy grande. En diciembre del 36 estuvimos en unas posiciones en Akondia, que es un monte que está cerca de Eibar. La distancia entre nuestras líneas y la de los franquistas era de unos 100 metros escasos. A veces se les podía oir cómo hablaban, y otras veces nos dedicábamos a decirnos burradas los unos a los otros (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 53).

Ertzainaren konpainiak: Egixarreko batailan parte hartu zuen, eta Kalamua inguruan ere destakamendu bat izan zuen.

Markinako Frontean borrokatzen aritu ziren batailoi hauek guztiek zapadoreen edo luebakitzaileen, transmisio unitateen, osasun taldeen eta artilleria unitateen laguntza zuten.

Alde errepublikarrean bezala, Markinako Fronteko alde frankistan ere milaka soldaduk eta hainbat batailoik borrokatu zuten.

Santxo de Beurko Elkarteko Julen Lezamiz eta Gilermo Tabernillaren arabera (Lezamiz eta Tabernilla, 2002; http://www.sanchodebeurko.org), Durangoren aurkako

bonbardaketa gertatu zen egunean, 1937ko martxoaren 31n, lau ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako fronteetan zeuden Nafarroako Brigadak. Lau brigadok Iparraldeko Armada Nazionaleko seigarren dibisioko (López Pinto zen jenerala eta kuartel nagusia Burgosen zegoen) lehen taldearen (Soltxaga zen jenerala eta kuartel nagusia Burgosen zegoen) parte ziren. Markina inguruan lehen eta bigarren brigadak borrokatu zuten, nagusiki.

Lehen Brigada: Lehen Brigadaren teniente koronela Rafael García-Valiño Marcén zen, eta bere kuartel nagusia Bergaran zegoen. Lehen Brigada honen parte zen Diez de Rivera teniente koronelaren Brigada erdia. 1937ko martxoaren 31n, Brigada erdi honen parte ziren San Fermin Errekete Tertzioa, Lakar Errekete Tertzioa, Roncesvalles Errekete Tertzioa eta Zazpigarren Arapiles mendiko batailoia. Brigada erdi hau Kalamua, Arrate eta Etxebarri inguruan aritu zen borrokan (Arostegi, 1991, I. tomoa: 100).

1937ko martxoan, Markinako Guda lerroa apurtu aurretxoan, Lesaka Errekete Tertzioko 2. konpainia San Fermin Errekete Tertzioko 2. konpainia bihurtu zen (http://www.requetes.com/lesaca.html). Desagertu aurretik, Lesaka Errekete Tertzioak Kalamua, Urkaregi eta Arrate inguruan borrokatu zuen. Lesaka zein Lakar Tertzioek soldadu galera asko izan zituzten ingurune horretan.

1937ko apirilaren 27an, Errepublikaren aldeko soldaduak Markinako Frontea utzi zutenean, Lakar Errekete Tertzioko erreketeak izan ziren Markinako zelaia zapaldu zuten lehenak. Kalamua eta Urkaregin zeuden kokatuta, eta Etxebarriako bidetik sartu ziren Markinara.

Bigarren Brigada: Bigarren Brigadaren koronela Cayuela zen, eta kuartel nagusia Deban zegoen. Brigada honek Ondarroa inguruan hasi eta Akarregi ingurura arte borrokatu zuen. Bi Brigada erdi zituen. Lezamiz eta Tabernillaren arabera (Lezamiz eta Tabernilla, 2002; http://www.sanchodebeurko.org), 1937ko martxoaren 31n, lehen brigada erdiak zazpigarren Arapiles mendiko batailoiko zortzi konpainia zituen, Falangeko laugarren bandera eta Nuestra Señora del Caminoko bi konpainia. Bigarren brigada erdia Venancio Tutor teniente koronelaren agindupean zegoen eta San Migel Errekete Tertzioak[7], Loiolako San Inazio Errekete Tertzioak[8] (Nuestra Señora del Camino Erre-

---

[7] Migel de Legarra eta Belastegik dioen bezala: «Fue en Ondarroa donde se constituyó oficialmente el 4º Tercio de Requetés de Navarra, al que la Junta Central Carlista de Navarra le dio el nombre de Tercio de San Miguel… El Tercio de San Miguel contaba con cuatrocientos cincuenta hombres, y hasta ese momento las bajas sufridas desde que sus requetés salieron de Leiza contabilizaban veinticinco muertos y setenta y cuatro heridos. Otras novedades registradas durante la estancia en Ondarroa fueron el ascenso a teniente coronel de Venancio Tutor, al que dieron el mando de una Agrupación compuesta por el Tercio de San Miguel, dos compañías de falangistas mandadas por el comandante Carlos Ruiz, unidades que dieron origen a la Primera Bandera de Falange de Navarra, y otras unidades de falangistas también navarros que al mando del comandante Gómez formarían más adelante la Tercera Bandera de Falange de Navarra. El 31 de marzo de 1937 las tropas del general Mola iniciaron la ofensiva en el frente de Vizcaya. Previamente, el Tercio de San Miguel fue relevado y trasladado de Ondarroa a Escoriaza, al sector en el que confluyen las tres provincias vascongadas, al haber sido agregada circunstancialmente la Agrupación de Tutor a la Primera Brigada de Navarra, cuyo jefe era el coronel García Valiño» (Legarra eta Belastegi, 2008: 348-349).

[8] Tertzio hau Urola araneko herritarrez osaturik zegoen, nagusiki. Gobernuaren aurkako altxamenduan, Azkoitiko erreketeek, herriko Guardia Zibilen laguntzarekin, herria hartu nahi izan zuten, baina ez zuten euren helburua lortu, eta atxilotu egin zituzten. 1936ko irailaren hogeian, Soltxaga Koronelak zuzentzen zituen tropak herrian sartu aurretik, atxilotutako erreketeak fusilatu egin zituzten. Egun batzuen ostean, eta behin herria frankisten eskuetan zegoela, erreketeen hiru konpainia sortu ziren, eta San Inazio Errekete Tertzioa osatu zuten. Berehala, Mutriku ingurura eta Zarautzera bidali zituzten. Nafarroako karlista asko elkartu zitzaizkien. San Inazio errekete tertzioak Ondarroa hartzen parte hartu

kete Tertzioaren konpainia batekin) eta Falangeko lehen eta hirugarren banderak osatzen zuten. Bigarren Brigada erdi honek Nafarroako Lehen Brigadarekin bat egin zuen, eta martxoaren bukaeran eta apirileko lehen egunetan, Eskoriatza ingurura eraman zuten. Hauek zituzten posizioetara Piazzoni jeneralaren Gezi Beltzak Brigada italiar-espainiarra bidali zuten (Legarra eta Belastegi, 2008: 349). Brigada misto honek sei batailoiko bi erregimentu zituen.

Francoren aldeko frontean gelditu ziren baserritarrek ondo gogoratzen dituzte errekeeteen tertzioak zein falangeko banderak, baita martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran agertu ziren italiarrak ere. Gehienbat, San Inazio Errekete Tertzioko soldaduak gogoratzen dituzte. Izan ere, 1936ko urriaren hasieratik apirilaren ia hasierara arte, tertzio hau mugitu gabe egon zen gure herriko mendietan, eta, gainera, markinar eta xemeindar errekete gazte batzuk tertzio honetan aritu ziren borrokatzen.

Errepublikaren aldeko batailoiek bezala, Nafarroako erreketeen brigadek ere zapadoreen eta transmisio, osasun eta artilleria unitateen laguntza zuten. Horrez gain, hegazkin pila zituzten Lasarte, Gasteiz, Logroño, Burgos eta Soriako aerodromoetan. Hauen bidez, errepublikarren posizioak zein atzeguardia bonbardatzen zituzten etengabe.

3.3. **1937ko martxoaren 31: Bizkaia menderatzeko matxinatuen ofentsibaren hasiera**

1937ko martxoaren bukaeran, Bizkaia menderatzeko matxinatu frankisten ofentsiba hasi zen. Eraso honen baitan, hegazkinez egindako lehen bonbardaketa handia Durangoren aurka izan zen, 1937ko martxoaren 31n. Hegazkin italiarrek 259 zibil hil zituzten. Horietatik hiru markinarrak ziren (Antonia Aldazabal Gabioleta, Jose Aulestiarte Ikaran eta Nikasio Pérez Argoitia); bat xemeindarra (Manuel Kintana Azurmendi); eta beste bat Ziortza-Bolibarrekoa (Patxi Bustindui Elordui, «Patxiko Errota»[9]). Guztira, inguruko bost pertsona hil ziren bonbardaketa horretan[10]. Durangoko bonbardaketa gertatu eta bi egunetara, 1937ko apirilaren 2an, Piazzoni jeneralaren Gezi Beltzak Brigada italiar-espainiar mistoa Markinako eta Xemeingo mendietan agertu zen. Gezi Beltzek sei batailoiko bi erregimentu zituzten, eta Nafarroako Bigarren Brigadaren tokia hartu zuten, Ondarroa ingurutik Kalamura arteko frontean, Bizkaiko erasoan lehen lerroan parte hartzeko helburuarekin. Gezi Beltzekin, Berriatuko bandera errepublikarra hartu zuen Gianni Annoni militar italiarra zetorren.

Durangon hasi zen ofentsiba basatiarekin beldurtuta, badaezpada, 1937ko apirilaren 9an, Donostiako Ramos abizeneko liburu saltzaileak Markinako Udal Artxiboa eta Akten Liburuak eraman zituen Gorlizko eritegira. Bonbardaketetatik babestu nahi zuten

---

zuen, urriaren hasieran, eta Markinako eta Xemeingo mendietaraino heldu ziren. 1936ko azaroan, Cayuela Elkartean (gero Nafarroako Bigarren Brigada) sartu ziren, eta Ondarroan eta Urkaregin borrokatu zuten. Markinako eta Xemeingo errekete gazte askok borrokatu zuten tertzio honetan.

[9] Markina-Xemeingo Erregistro Zibilean dagoen informazioaren arabera, 1937ko martxoaren 30rean hil zen, gerrako ekintza batean izan zituen zauriengatik, 28 urte zituela. Zornotzan lurperatu zuten. Herrikoek diote Durangoko bonbardaketan hil zela, baina Durangoko bonbardaketa 1937ko martxoaren 31n izan zen, eta erregistroaren arabera Patxi martxoaren 30ean hil zen (Iturria: Herritarrak emandako informazioa eta Markina-Xemeingo Erregistro Zibila).

[10] Bost hauetatik, Manuel Kintana Azurmendi Xemeinen bizi zen, eta Patxi Bustindui Ziortza-Bolibarren. Beste hirurak markinarrak edo xemeindarrak ziren jaiotzez, baina Durangon bizi ziren.

artxiboa. Frankistek Gorliz hartu baino bi egun aurrerago, dokumentu hauek guztiak Santurtziko biltegi batera eraman zituzten (Mugartegi, 1937, Garaian, 15: 30).

Bitartean, alde bateko eta besteko gazteak hiltzen jarraitzen zuten fronteetan. Bizkaia menderatzeko erasoaren baitan, 1937ko apirilaren 11n, Saibigaineko borrokak hasi ziren, eta 1937ko apirilaren 14ra arte iraun zuten. Borroka hauetan, Xemeingo Elorradi baserriko Lorenzo Barinagarrementeria Totorikaguena (Xemein, 1913 – Saibigain, 1937) hil zen.

1937ko udaberrian, frankistek tropen mugimendu, bonbardaketa eta eraso asko egin zituzten, Bizkaia menderatzeko helburuarekin. Gipuzkoako, Arabako eta Burgoseko Fronteak kosta ala kosta gainditu nahi zituzten.

Dena den, Francok bazekien, militarki irabazteaz gain, garaipen politikoa eta soziala ere behar zituela, bere erregimena finkatzeko. Honenbestez, 1937ko apirilaren 19an, Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista (FET-JONS) alderdia sortu zuen. Alderdi politiko berrian, Falangea eta Komunio Tradizionalista alderdi politikoak elkartu zituen (Payne, 1985: 174). Francoren Espainiako alderdi bakarra izan zen, eta «Buruzagia» babestu zuten familia politiko guztietako ideiak nahastu zituen. FET-JONS alderdiak muturreko ideologia nazionalista espainiarra, militarista, tradizionalista, kontserbadorea, katolikoa eta monarkikoa zuen (Payne, 1985: 201 eta hurrengo orriak)[11]. 1937ko apirilaren 27tik aurrera, hainbat markinar eta xemeindar afiliatu ziren alderdi sortu berrira.

Saibigainen garaitu ostean, frankistak indartsu zetozen Bizkaia konkistatzera, eta errepublikarrak oso ahul zeuden erasoa gelditzeko. Zazpi hilabetez gogor borrokatu zuten, baina eraginkortasun handirik gabe. Euzkadiko Jaurlaritzak arma eta munizio gutxi lortu zuen Gobernu Errepublikarretik, eta matxinatuak hiru aldiz boteretsuagoak ziren. Horrez gainera, militar errepublikar batzuek zein tradizionalistek informazioa pasatzen zieten matxinatuei, eta hauek berehala jakiten zuten non zeuden kanoi bateriak, eta tiroa nora zuzendu behar zuten (Onaindia, 1937: 17). 1937ko apirilean armada errepublikarrak zuen ahultasunaren erakusle da Erlatx baserriko Joan Ibarzabal «Buztarrik» kontatzen duena: «Egun batean miliziarrak gure etxe aurrean jarri ziran euren kainoi eta guzti, eta botatzen hastera joiazala beste aldekoak bota eben eta baita kanoiari bota be. Pozik lehertu ez zanean, bestela danak hilgo ziran. Orduantxe alde egin eben miliziarrak euren kainoiak hartuta» (Ibarzabal, 1998: 14).

Errepublikarren ahultasunaren ondorioz, 1937ko apirilaren 24an, armada frankistak Intxorta mendietako babes lerroa gainditu zuen (Beldarrain, 1980: 29), eta gauean, Zaldibarrera iritsi zen. Apirilaren 24tik 25erako goizaldean, Ganguren mendi puntan, Santa Marina Zahar ermita zegoen tokian, Abellaneda, Rebelion de la Sal, Arana Goiri eta Zabalbide batailoiek aurre egin zieten soldadu frankistei, eta borrokan berrogei miliziar eta gudari hil ziren[12]. Meabe auzoko Ormetxe baserriko (Xemein) Jose Maria Arrillaga Zuazo (Xemein, 1914 – Zaldibar, 1937) bertan hil zen. Rebelion de la Sal batailoiko gudaria zen.

---

[11] FET-JONS alderdi berriaren ikurra uztarria eta geziak ziren, Errege Katolikoen ikur zaharra. Alderdiko kideak falangisten alkandora urdinarekin, erreketeen txapel gorriarekin eta, Jose Antonio Primo de Riveraren heriotzagatik, lutoa adierazten zuen gorbata beltzarekin janzten ziren. Euren ereserki garrantzitsuena «Cara al Sol» zen, baina baita «Oriamendi» abestia ere. Besoa gora altxatuta agurtzen zuten, ¡Arriba España! edo «España, Una, Grande y libre» bezalakoak esanez. FET-JONS alderdiak ez zuen benetako egitura ideologikorik, eta Francoren gurtza bideratzeko tresna soila bihurtu zen (Payne, 1985).

[12] Tartean, Abellaneda batailoiko Enrike Castet Arrieta-Maskarua kapitaina eta Zubeltzu tenientea.

Frankistak garaile atera ziren Ganguren mendi puntan, eta, apirilaren 25ean, arazorik gabe sartu ziren Zaldibarren eta, ostean, Berrizen. Frankistak gero eta hurbilago zeuden Markinatik eta Xemeindik.

Apirilaren 24tik 25erako gauean, Markinako udalean erantzukizun politikoak zituzten Markinako abertzale bi agertu ziren Alberto Onaindiaren etxean, eta, Agirre Lehendakariaren izenean, Akarregiko eta Kalamuako fronteak apurtu egin zirela, eta ihes egiteko aholkatu zioten. «Ya estábamos todos acostados cuando, muy cerca de la medianoche, llamaron a la puerta. Dos nacionalistas del pueblo que ocupaban puestos de responsabilidad municipal, vinieron a comunicarme de parte del presidente, que se habían roto los frentes próximos, Akarregui, Kalamua y me aconsejaba ponerme a salvo lo más pronto posible. No era un asunto de horas, pero sí algo definitivo y grave. En el reducido grupo acordamos no alarmar a la población en aquellas horas, y prevenir únicamente a los que pudieran tener alguna responsabilidad política para que tomaran las precauciones necesarias en defensa de sus personas. Nuestra situación de ánimo no era muy optimista que digamos, pero todos coincidimos en que era menester evitar el éxodo de las aldeas. Habíamos presenciado el triste peregrinar al exilio de innumerables familias guipuzcoanas, muchas con su ganado, sus aperos y algunos muebles indispensables. Tampoco convenía dar la voz de alarma, porque sería difícil controlar el pánico si la población civil se percataba del peligro» (Onaindia, 1980: 234).

Apirilaren 25a igandea zen, eta goizeko seietan, Alberto Onaindiak meza eman zuen Xemeingo parrokian. Etxekoak agurtu ostean, Bilbora ihes egiteko prestatzen hasi zen. Igandero bezala, eliztarrak meza entzutera zihoazen, eta inork ez zuen ezer apartekorik igarri. Herritar gehienek ez zekiten Markinako Frontea momentu batetik bestera mugituko zela, ezta Alberto Onaindia ihes egiteko prestatzen ari zela ere. Honela kontatzen du bere bizitzako pasarte hau (Onaindia, 1980: 235): «Salí de Marquina aquella misma mañana, a eso de las once, con un sol espléndido. Era domingo, la gente había seguido asistiendo a misa como cualquier otro día festivo del año. No se percibía la menor alteración o inquietud. Fuera de mis propios hermanos, nadie se dio cuenta de que probablemente era mi partida definitiva».

Markinako Frontean zeuden gudari eta milizianoek bazuten Intxorta mendietan edo Zaldibarren frankistek lortutako garaipenen berri, eta, ondorioz, tropen morala oso baxua zen. Agintari errepublikarrek bazekiten guda lerroa momentu batetik bestera apurtuko zela, eta gauzak biltzeko eta frontea uzteko aginduak ematen hasi ziren. Frankistak, bitartean, gero eta modu bortitzagoan erasotzen ari ziren Markinako Frontea.

Apirilaren 25eko arratsaldean, frankistek Markina bonbardatu zuten hegazkinen bidez. Azken bonbardaketa izan zen. Jose Mari Rekaldek dioen bezala: «Apirilaren 25ean izan zan. Domekea. Akordetan naz oso denbora ona egiten ebala, eguzkitsua. Gu Bolunbarrin ginen. Kalteen artean akordetan naz zelan plaza zaharra apurtuta gelditu zala[13]. Biharamunean, 26an, Gernika bonbardatu eben. Eta hori egun hori be gogoan daukat. Izan be, Bidaurretako etxe-buruan jan eta handik Osoloko kobaura joan ginan arratsaldez, eta handixeik ikusi genduzan Gernika suntsitzera joiazan hegazkinak. Eta jendea eskapaka joiala be bai, zelan joiazan Meaben gora ihesi, Aulestira edo batek jakin nora» (Garaian, 2005, 37)[14].

---

[13] Plaza Zaharrak burdinazko estalki bat zuen, eta guztiz txikituta gelditu zen. Hondakinak txatarra gisa saldu zituen Markinako Udalak, 1941ean (Garaian, 1991-9: 41).

[14] Apirilaren 25ean, Joan Agustin Aiesta Aiesta (Otxandiano batailoikoa) eta Andres Sagastui García (Pablo Iglesias batailoikoa) hil ziren gure herriko lurretan.

Apirilaren 25eko iluntzean, Basalgotik Azkonabietara bitartean (Bergara gainean) zeuden Kirikiño batailoiko gudariek ere atzera egiteko agindua jaso zuten. Batailoi honen kapilaua Santiago Onaindia karmeldarra zen. Lehenengo Eibarrera jo zuten, eta handik Ermura, Gernikatik zehar Algortara heltzeko asmoarekin; Kirikiño batailoikoek Algortako Igeretxen baitzuten kuartela. Santiago Onaindiak dioen bezala, atzeraldiko anabasa izugarria zen. Trabakuatik Iruzubietara heldu zirenean, gaua zen, baina Santiagok, batailoia utzi, eta hiru lagun hartuta, Markinan bizi ziren bere gurasoak agurtzea erabaki zuen. Hara nola kontatzen duen gertaera: «Troka goibel zear jatxirik, Iruzubieta'n gagoz. Abots batek emen be: 'Goazen Gernika'ra'. Ni, barriz, Markiña'ra lenengo; emen neukazan neure gurasoak eta iru gudari, adiskide miñak, lagun arturik, etxekoai agur egiten joan nintzan. Erriko erlojuak amabiak kraskatzen, eta bertatik ni gurasoen pisuan ate-joka. Kezkaz egoan aitak edegi eustan atea. Ordu lauren bat emon neban gurasoakaz, iru urtetan – ama behintzat - ikusiko ez nebazanai agur luze samurra egiten. Leengo bidera biurtuz eta Karmen'go eleiz aurretik igarotean, berez egaz egin eustan biotzak Karmen'go Amagana neuretzat eta etxekoentzat laguntasuna eskatuz. Momentu bigun, negar-berak!

Gazte ta erabagitsu, Erdotza'n gora. Illargia geunkan ezkerretik, urten-barri. Bolibar'en batu gintzazan aurrera egin ebenakaz; amerikar Errepublika askoren askatzaille izan zan gizaseme kementsu aundiaren jatorrizko seaska lerdenean, gorputz-atal arminduari bear ebena emonaz, atseden-aldi ederra artu genduan: kerizak aillen ailla joten, baita guk gudariok be. Ez giñan gu bakarrik an batu giñanak; an ziran Markiñaldetik etozanak be, Berriatu, Milloi, Plazakola, Amalloa, Urkaregi, Kalamua, eta Urko'raiñoko asko. Aurreko egunean sakabanatuak, ez ekian norantza jo» (Onaindia, S., 1988: 233 eta Onaindia, S., 1987: 71-72)



Argazkia: GureGipuzkoa.net © CC BY-SA: Indalecio Ojanguren (1937)
Urkaregi Gaina

Apirilaren 25eko gauean, Manuel Kristobal Errandonearen aginduetara zeuden Rosa Luxemburgeko milizianoek Oiz punta babesteko agindua hartu zuten Urberuagako kuartelean, frankistak Zaldibarren eta Durango inguruan zeudelako. Infanteriako bi konpainia eta metraileten konpainia erdi bat Ziortzara abiatu ziren kamioietan. Apirilaren 26ko goizeko lauretan iritsi ziren Oiz puntara. Gaua bertan pasatu ostean, posizioa uzteko agindua hartu zuten, frankistak gelditu gabe zetozelako, eta inguratuta gelditzeko arriskua zutelako (Talon, 1988: 418). Egun horretan bertan, apirilaren 26an, hartu zuten frankistek Oiz mendi punta (Steer, 2002: 310; eta Lizarza, Nagore, Salas, García eta d'ors, 2006: 212-213).

Zaldibar, Berriz eta Oiz punta konkistatu ostean, tropa frankistak Trabakuatik behera jaitsi, eta Ziortza-Bolibarren sartu ziren, apirilaren 26an. Iruzubietara arte ailegatu ziren, eta bertan gelditu. Posizioak sendotu zituzten, eta bidea itxi.

Apirilaren 25ean eta 26an, frankistak sartu aurretxoan, hainbat bolibartarrek ihes egin zuten Bilbo aldera. Erantzukizun politikoak zituztenak edo Ziortza-Bolibarko Errepublikaren Aldeko Batzordean parte hartu zutenek ihes egin zuten, batez ere[15]. Talde honetako kidea zen Estakua baserriko Kandido Zenarrutzabeitia Urionabarrenetxea[16].

Apirilaren 26an, Markinako Frontean zeuden soldadu errepublikarrek bazekiten, momentu batetik bestera, frankistek guda lerroa apurtuko zutela, eta inguratuta gelditzeko beldurra zuten. Tropa frankistak Iruzubietan zeuden bidea zarratzen. Plazakolako zubia errepublikarrek apurtu zuten 1936ko urriaren 4an, frankistei pasabidea galaraztekо, eta, gainera, Artibai errekaren beste aldean soldadu italiarrak zeuden zaintzen. Horregatik, apirilaren 26an, Akarregin, Etxebarrin eta Kalamuako posizioetan gelditzen ziren soldadu errepublikarrek Markinako Frontea uzteko prestaketak bukatu zituzten. Armak eta munizioak bildu zituzten, eraikuntza militarrak apurtzen ahalegindu, eta ihes egiten hasi ziren, inguratuta gelditu baino lehen. Gernika bonbardatu zuten egunean, apirilaren 26an, Rikardo Alvarez Royuela, Errepublikako armadako ofiziala, garabi batekin Markinako Frontera etortzeko agindua hartu zuen, 12,7 milimetrotako artilleria pieza bat ateratzera. Errepublikarrek ez zuten nahi frankistei armarik oparitzea (Alvarez, 2007: 69).

Apirilaren 26an eta 28an, Akarregin, Etxebarrian, Barinagan eta Kalamuan zeuden ehunka gudari eta miliziar pasatu ziren Markinatik eta Xemeindik Aulestirantz edo Munitibarrerantz, Bilbo ingurura heltzeko helburuarekin. Zaharrenek ondo gogoratzen dute milizianoek eta gudariek armak nola botatzen zituzten Ituarteko zubipera, pisua arindu asmoz. Ez zuten nahi arma horiek frankisten eskuetan uztea, eta uretara botatzen zituzten, matxuratzeko asmoz. Izugarria izan zen ihesaldia: ehunka soldadu, armaz kargaturiko abereak, autoak, blindatuak, kamioiak… guztiak ihesean, ordenarik gabe, anarkia osoan, arrapaladan.

Apirilaren 26an, Belaustegiko posizioan zeuden Irrintzi batailoiaren 2. konpainiako kideek posizioa utzi eta Urregarai mendirantz (Santa Eufemia) abiatu ziren, Lekeitiotik zehar Zornotzara heltzeko helburuarekin (Azkue, 2007: 44).

Otxandiano (EAJ) eta Castilla batailoiak izan ziren Markinako eta Lekeitioko frontetan zeuden soldaduen atzeraldia babestu zutenak. Apirilaren 26an, Castilla batailoiko hainbat miliziar hil ziren gure herriko lurretan[17].

Milizianoek eta gudariek ez ezik, apirilaren 26an, hainbat markinarrek eta xemeindarrek ere ihes egin zuten. Nolabaiteko inplikazio politikoa zuten euskaltzale, abertzale,

---

[15] Batzorde hau zazpi pertsonak osatzen zuten: Martzelino Andriñoa Meabebasterretxeak, Jose Martin Argoitiak, Joan Jose Barruetabeña Urkiolak, Klaudio Jaio Solozabalek, Bizente Longarte Arratek, Tomas Olabe Arrietak eta Kandido Zenarrutzabeitia Urionabarrenetxeak.

[16] Kandido Zenarrutzabeitia (Ziortza-Bolibar, 1905 – Ziortza-Bolibar, 1985) nire emazte Maite Navas Zenarrutzabeitiaren aitaita zen. Francoren tropak sartu aurretxoan ihes egin zuen Bilbo ingurura, eta bertan atxilotu zuten 1937ko ekainean. Deustuko Unibertsitatean eta Larrinagako kartzelan edo Karmelokoan Bilbon atxilotuta egon ostean, epaiketa militarra egin zioten, eta Puerto de Santa Mariako (Cadiz) kartzelan bidali zuten. Hiru urtez egon zen kartzela horretan, 1937tik 1940ra, eta aske utzi zutenean, oinez etorri zen Cadiztik Ziortza-Bolibarrera. Etxera etorri eta gero, astero joan behar izaten zuen Markinako Guardia Zibilengana sinatzera.

[17] Hona hemen hauetariko batzuen izenak: Viktor García Ortega, Jesus González, Jose Laskurain Galarza, Hilario Mendez Caño, Felix Rivas Lazaro eta Jose Zamora Fernandez.

ezkertiar edo errepublikarrekin batera, politikoki inolako inplikaziorik ez zuten askok ere hanka egin zuten. Gipuzkoan gertatutako fusilatzeak eta errepresioa zituzten gogoan, eta erreketeei eta Francoren tropei beldur izugarria zieten.



Argazkia: Elisabete Aretxabaleta
Otxandiano batailoia Bilboko Eskolapioetan. Batailoi honetako Oldargi konpainiak Egixarreko batailan parte hartu zuen, 1936ko urrian. Gero berriro etorri zen Markinako Frontera, 1937ko otsailaren hiruan, eta guda lerroa apurtu zen arte, 1937ko apirilaren hogeita zazpira arte, egon zen Kalamua inguruan.

Ez zen erraza Markinatik ateratzea. Ihes egiteko bide bakarra zegoen: Aulestiko bidea. Esan bezala, Plazakolako zubia apurtu egin zuten milizianoek 1936ko urriaren 4an, eta, gainera, Artibai errekaren beste aldean italiarrak zeuden zaintzen. Lekeitioko bidea ere arriskutsua zen, arerioak oso hurbil zeudelako. Iruzubietan ere bidea itxi zuten frankistek, eta tiro egiten zuten Aulestiko bidera, Meaben gora, ihesean zihoazenen aurka. Arriskutsua zen Meabetik gora ihes egitea, baina autoz ihes egiteko bide bakarra izanik, jende asko arriskatu zen, erreketeen eskuetan jauztea txarragoa izan zitekeelako. Markinatik ateratzeko tiro artean pasatzea beste aukerarik ez zegoen. Aulestiko bidean, Ugartetxe baserriaren parean, blindatu bat matxuratu zen ihesaldia gertatzen ari zen momentuan, eta, bidea zabaltzeko, goitik behera bota behar izan zuten.

Gerra Zibilean, markinarrek eta xemeindarrek hiru alditan ihes egin zuten Francoren tropen beldurrez: 1936ko irailaren 21etik 22rako goizaldean, irailaren 28an eta, azkena, 1937ko apirilaren 26an. Hiru ihesaldiak astelehenetan izan ziren. 1937ko apirilaren 26koa izan zen azkena eta behin betikoa askorentzat.

Nire kalkuluen arabera, egun horretan, 138 bat markinar eta xemeindarrek ihes egin zuten. Gehienak Aulestira edo Munitibarrera heldu ziren, eta handik Bilbo ingurura edo bakoitzak ahal zuen tokira. Beldurrak hanka arinak zituen.

Hauetariko batzuk denboraldi bat kanpoan egin ostean bueltatu ziren; hau da, euren aburuz, gauzak apur bat lasaitu zirenean; gehienak, Bilbo hartu osteko egunetan (1937ko ekainaren 19tik aurrera). Beste batzuk atxilotu egin zituzten Bilbon edo Santoña ingu-

ruan, eta kartzelan edo langileen batailoietara bidali zituzten. Hainbat izan ziren Frantziara ihes egin zutenak, eta gero, urteetan, Frantzian bertan edo Hego Amerikan errefuxiatu zirenak.

X. Taula. **Francoren tropetatik ihes egin zutenen berezitasunak (Ikus II. eranskina)**

	Ihes egin zutenak	**Ihesean aste edo hil batzuk egin ostean, bueltatuak**	**Ihesean ibili ostean atxilotuak**	**Atzerrian, urte bat baino gehiago, errefuxiatu zirenak**	**Atxilotutakoak guztira**
Gizonak	63	29	18	24	89
Emakumeak	37	15	3	24	18
Umeak eta gaztetxoak	38	20	2	118	1
Guztira	138	64	23	55	108

Iturria: nik neuk egina.

3.4. **1937ko apirilaren 26a: Munitibarren eta Gernikaren aurkako bonbardaketak**

Bizkaia menderatzeko ofentsibaren baitan, frankistek Markina bonbardatu zuten apirilaren 25ean. Biharamunean, apirilaren 26an, eguerdi ostean, Heinkel 51 markako ehiza hegazkin alemaniarrek Munitibar bonbardatu zuten, eta ihesean zihoazen markinarrek eta xemeindarrek zein soldaduek bonbardaketa honen ondorioak jasan zituzten.

George Lowther Steer kazetari hegoafrikarra Gernikan egon zen goizean, eta handik Markinako bonbardaketaren ondorioak ikustera zihoala, Munitibarren aurkako bonbardaketak harrapatu zuen, bete-betean. Gertatutakoa oso ondo azaldu zuen bere *El Arbol de Gernika* liburuan: «Aquella tarde nos habían comunicado por medio del Estado Mayor Vasco, el bombardeo de Markina, Bolívar, Arbazegi y Guerrikaiz. Todos los pueblos, en el camino de nuestro regreso habían sido arrasados.

La destrucción de Arbazegi obstaculizaba nuestra vuelta a Markina. Cerca de la iglesia había cuatro muertos. A lo largo de la carretera, dos caseríos habían quedado esparcidos en escombros humeantes. Pasamos sobre ellos y descendimos por el otro lado, en dirección al campo, donde vimos los hoyos de las bombas más enormes que habíamos visto en nuestra vida, aún calientes y apestando a metal fundido. Tenían siete metros de profundidad y catorce de diámetro. Eran verdaderos cráteres lunares. Nos quedamos atónitos mirándolos. De repente, en la pequeña iglesia de la ladera del monte comenzó a repicar la campana.

Dos viejos sacerdotes y algunos habitantes del pueblo corrían a trompicones sobre los escombros y cuajos de hierba verde arrancados por las bombas. Se refugiaron bajo la torre de la iglesia. Se hizo el silencio en el pueblo. No se veía a nada ni nadie: solo las llamas que consumían algunas casas y, en las paredes, los manchones grises del fuego.

De repente sobre la colina del noroeste, procedentes de Gernika, venían seis cazas en formación. Se acercaban muy rápidos, en vuelo horizontal en línea recta. Sus motores producían un ruido que significaba guerra relámpago. A los pocos segundos estaban sobre el pueblo. Volaban tan bajo que se podía ver a los pilotos y advertir, a simple vista, toda clase de detalles, incluso las ruedas separadas, y el morro espigado, característico y exclusivo del caza alemán Heinkel 51.

Christopher Corman y yo pensamos que el mejor refugio eran los embudos de las bombas, y nos metimos en uno, llegando al fondo en dos zancadas. Desde dentro, el agujero parecía menos seguro: era muy ancho y dejaba ver demasiado cielo. Pero, al fin de cuentas, era un agujero y nos tendimos en su parte sombreada, entre terrones de arcilla y fragmentos de bomba.

No había movimiento humano visible en el pueblo, ni trafico, ni vehículos estacionados en él, excepto nuestro automóvil. No obstante, lanzaron unas cuantas bombas ligeras y ametrallaron a su antojo el lugar hasta que pensaron, por lo visto, que habían sacudido el polvo de los tejados que aún quedaban.

Dieron varias vueltas y se fijaron en nosotros. Durante quince o veinte minutos se dedicaron a hacernos pasadas a todo gas, lanzándose en picado sobre el embudo, haciendo cantar a sus ametralladoras desde 200 pies de altura. La única salvación, para nosotros, era hacernos los muertos, y nos preguntábamos a veces si no lo estaríamos de verdad. El viejo Corman me estaba contando una larga historia. A mí me hirió en mi dignidad de ciudadano inglés el tener que morder tierra ante la aviación alemana aunque en la cola llevaban el aspa de San Andrés, sobre fondo blanco, distintivo de la «Aviación Nacional» de Franco, pero la verdad es que no se me ocurría otra alternativa de salvación. Era incluso muy difícil pensar.

Había tenido, antes y después, esa misma experiencia de estar bajo el fuego de las ametralladoras, pero jamás fui un blanco tan fácil. Estaba terriblemente impresionado. Mi experiencia debió ser idéntica a la de cualquier joven gudari. El acoso continuo desde el aire no asusta: paraliza. Salimos del hueco muy lentamente, sin mirar demasiado a nuestro alrededor, sin intentar siquiera pensar en el futuro o en el presente. Estábamos listos para cualquier sorpresa.

El terror de la gente del pueblo era real y no medio embrujado pero, sobrehumano, como el nuestro. Dimos la vuelta con nuestro coche, ante el muro en llamas y pudimos comprobar que el coche tampoco había sido alcanzado. Pedimos al chofer que nos condujera rápidamente a Bilbao.

En el camino de regreso tuvimos que detenernos dos veces y esperar a que pasasen aviones enemigos. Ahora se trataba de bombarderos ligeros Heinkel 111 y vimos varios a nuestra derecha, en dirección al valle de Gernika. Al cruzar el paso a nivel oímos el estruendo de un bombardeo más hacia el norte, donde el mar termina y comienza el verde valle. No podíamos ver nada, se interponían unas colinas. Las bombas debían ser lanzadas por los aviones Heinkel 111 que habíamos visto pasar sobre nosotros. Estábamos hartos de impresiones por aquel día y proseguimos nuestro camino a Bilbao sin detenernos, para poder escribir nuestros reportajes. No sabíamos, no nos imaginábamos que el objetivo de la aviación alemana podía ser Gernika» (Steer, 2002: 287- 289).

Munitibarren aurkako bonbardaketak sorrarazi zuen anabasan, Jose Antonio Zuberogoitia Uribe (Berriatu, 1930 - Villeneuve du Pareage, Frantzia, 1991) zazpi urteko ume markinarra bide ondoan gelditu zen bakarrik, zaurituta eta burua nahastuta. Gurutze Gorrikoek Bilboko erietxera eraman zuten identifikatu gabe, eta, gero, umezurtza zelakoan, Belgikara, *shock* egoeran, berba egin ezinik zegoelako. 1937tik 1942ra egon zen

Belgikan, bertako familia batekin bizitzen. Bitartean, pare bat urte pasatu zirenean (1939an), ume desagertua hildakotzat eman zuten familiakoek, eta hileta elizkizuna ere egin zioten Karmengo elizan. Hamaika urte zituela, 1941ean, bueltatu zen Markinara.

Munitibarko bonbardaketa eguerdi ostean izan zen. Baina hor ez ziren bukatu alemaniarren txikizioak. Arratsaldeko lau eta erdiak inguruan, markinarrek eta xemeindarrek hainbat ehiza hegazkin ikusi zituzten pasatzen. Hegazkinek Artibai errekaren bidea jarraitzen zuten Ondarroara arte, itsasoan bira egin, eta Gernikako errekan zehar sartu ostean, Gernikako norabidea hartzen zuten (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 104). Jendeak ez zuen pentsatu ere egin Heinkel 111 ehiza hegazkinek hurrengo hiru orduetan Gernikan egin behar zuten txikizioa.

Arratsaldeko bostak inguruan, Francori laguntzeko Hitler-ek bidali zituen *Kondor Legioko* 43 hegazkinek 10.000 kilo bonba lehergai eta beste 30.000 kilo bonba su eragile jaurti zituzten Gernikaren aurka, eta guztiz suntsitu zuten. Hori gutxi balitz legez, izututa ihesi zihoazenak metrailatu zituzten hegazkinetatik, lurretik oso hurbil egindako hegaldien bidez. Hiru ordutan, hogei minututik behin iristen ziren hegazkin andanak, eta guztira 2.000 hildako eta 1.000 zauritu eragin zituzten (Atxaga: 2007). Defuntuen artean, xemeindar bat zegoen: Pantxike Urkidi Laka (Xemein, 1913 – Gernika, 1937). Nire ikerketen arabera, bera izan zen Gernikako bonbardaketan hil zen xemeindar edo markinar bakarra. Pantxike Xemeingo Saratsua Zabala baserrikoa zen, hil zenean 24 urte zituen, eta Gernikako etxe batean zerbitzari lanak egiten zituen.

Esperanza fabrikako zuzendari-gerentea eta, aldi hartan, Gernikako arkitektoa, Castor Uriarte, ere bertan zegoen bonbardaketa gertatu zenean. Markinan bizi zenean, zein Esperanza Zamudiora eraman zutenean, astelehenero joaten zen Gernikara, udal arkitektoa zelako (Uriarte, 1976: 73). Bonbardaketaren lekuko pribilegiatua izan zen, eta ondo azaldu zuen bizitakoa bere *Bombas y Mentiras sobre Guernika* liburuan (1976): «Era el primer ensayo de guerra total, el primer crimen horrendo que recuerda la historia, pues, además, no se contentaron con bombardear y quemar Guernica, sino que los cazas ametrallaban a las personas que, llenas de pavor, escapaban de Guernica por las carreteras y por la vía del ferrocarril. Era horrendo el espectáculo que presentaba la villa foral, ardiendo toda su zona urbana central y encontrándonos con personas conocidas, llenas de terror, corriendo de un lado para otro, buscando a sus familiares y pretendiendo sacar lo que podían de sus viviendas, sin darse cuenta del peligro que con ello corrían, sobre todo por los estallidos retardados de las bonbas explosivas, por lo que tuve que ordenar, con la conformidad del Alcalde, que no se circulase por las calles centrales las más afectadas por la destrucción» (Uriarte, 1976: 80).

Alberto Onaindia ere gertatutakoaren lekuko izan zen, eta hainbat tokitan azaldu zuen ikusitakoa. Bernardo Atxagak bere *Markak. Gernika 1937* liburuan bildu du Alberto Onaindiaren (1902 - 1988) testigantza (Atxaga, 2007: 86-89): «Lehengo astearen bukaeran, Bilbon nengoela, Euzko Gobernua Gernika ebakuatzeko asmotan zela jakin nuen. Hirian familiakoak ditudanez, hara joatea erabaki nuen. Apirilaren 26an, arratsaldeko bostak hamar gutxitan iritsi nintzen Gernikara. Oso egun garbia zen, kontrakoa zabaldu bada ere. Autoa utzi nuen, eta orduantxe hasi zen aireko erasoa.

Lehenengo bonbak hiru bizitzako eraikuntza bat suntsitu zuen eta hiriko etxe guztietako kristalak txikitu zituen. Azoka eguna zenez, baserritar asko zeuden inguruko herrietatik etorrita. Bonbardaketa hasi zenean jendeak soroetara jo zuen izuturik, abereak atzean utzita.

Konturatu nintzen hegazkinak txandaka etortzen zirela: lehendabizi bat bakarrik azaltzen zen, atzetik beste hiru, gero zazpi eta azkenean sei hiru motorreko.

Hiriaren bonbardaketa zortziak laurden gutxi arte luzatu zen. Denbora horretan guztian hiltzaileak hiri gainean ibili ziren etengabe. Eraso sistema beti berbera zen. Lehendabizi jendea metrailatu, gero lehergaiak bota eta azkenik su-bonbak.

Hegazkinek oso baxu egiten zuten hegan, amorruz metrailatuz otoitz egiten zuten emakumez, umez eta adineko jendez betetako basoak, soroak eta errepide bazterreko zangak.

Iluntze aldera ez zen bostehun metrotik harago ezer bereizten, ke beltz lodiak, suaren eta bonben ondorioak, hiri osoa estaltzen zuen eta.

Ez zen hasperenik edo aienerik entzuten. Jendea beldurrak paralizatuta zegoen: batzuek otoitz egiten zuten, beste batzuek gurutzea eginez luzatzen zituzten besoak zeruari errukia eskatu nahian bezala. Hegazkinetako bat nire autotik 200 bat metrora jartzeraino jaitsi, eta metrailatu egin zuen. Nik neuk ere harizti txiki batean babestu behar izan nuen, eta gero miliziar batzuekin elkartu nintzen. Zazpietan Gernika garretan zegoen.

Bilboko suhiltzaileak berehala etorri, eta erabat erre gabeko etxeetan hasi ziren jo eta ke. Suaren distira Lekeitiotik ere ikusten zen, handik hogeita bi kilometrora.

Babeslekuetan sartutako jendea ere ez zen salbatu, ezta ospitaleetako gaixoak edo zaurituak ere. Gernikak ez zeukan hegazkin aurkako armarik edo inolako bateriarik; ezta metrailadorerik ere, ez zeukan.

Gaueko lehen orduetan ikuskizuna edonor izutzeko modukoa zen benetan: gizonak, emakumeak eta umeak basoetan gora eta behera, senide bila, zer eta gehienetan balaz jositako gorpuak aurkitzeko.

Zuhaitz historikoa gain batean dago, eta haren ondoko eraikuntzek osorik iraun dute. Baina udaletxea, bere artxibo eta dokumentu baliotsuekin, erraustuta geratu da.

Apaiz katoliko gisa, esan behar dut elizaren aurkako irainik okerrena izango litzatekeela Bilboko suhiltzaileen ahalegin heroikoari esker salbatutako Gernikako Santa Maria elizan *Te Deum* bat kantatzea noren eta Francoren eta Molaren gorazarrez, basakeriarik gordinenaren ikur baitira».

Pantxike Urkidi Laka, Castor Uriarte edo Alberto Onaindia ez ezik, Gernikan edo inguruetan ziren Markinatik eta Xemeindik ihes egin zuten hainbat pertsona: Inazio Etxaniz Laka, Eusebio Sololuze Olasolo, Maria Luisa Aretxabaleta eta bere hiru umeak, Joan Loiola eizagirre, Joan Ugartetxea eta beste asko. Guztiek ikusi zuten Gernika bonbardatzen edota erretzen.

1937ko apirilaren 26a egun beltza izan zen gernikarrentzat eta munitibartarrentzat, baina baita markinar eta xemeindar askorentzat ere. Meaben gora eta Urregarai eta Zapola mendietatik zehar ihes egin zutenak izututa zeuden tiro artean atera behar izan zirelako, eta nora ailegatuko ziren edo zer gertatuko zitzaien ez zekitelako. Askok, gainera, Munitibarren eta Gernikaren aurkako bonbardaketen ondorioak ikusi zituzten, eta horrek atsekabea areagotzen zien. Iheslarien memorian betirako geldituko ziren bi bonbardaketen txikizioak, hildakoak eta, oro har, egun horretan ikusi eta bizitakoak.

Gelditzea erabaki zuten abertzale, ezkertiar edo euskaltzaleek ere larri pasatu zuten apirilaren 26ko gaua. Senideak eta lagunak ihesean ikusteak sortzen zuen saminarekin batera, frankistek egin ahal zietenaren beldur ziren. Bazekiten arrisku bizian zeudela, baina askorentzat euren ondasunak, lagunak, familia… uztea gogorregia zen. Badaezpada, hauetariko asko gau guztia aritu ziren kutsu abertzalea edo ezkertiarra zuten egunkariak eta liburuak erretzen. Askurrinaga Goikoa baserrian, adibidez, tximinia erre egin zen, abertzaletasunarekin zerikusia zuten paper guztiak batera erretzen saiatu zirelako. Gau horretan (eta ondorengo gauetan), asko izan ziren etxetik kanpo lo egin zutenak, badaezpada.

Dena den, batzuek etekina ere atera zioten aginte gabeziari eta anabasari. Hiru komentuak soldaduz hustu zirenean, herritar batzuk milizianoek utzitako gauzak eta abereak hartzera abiatu ziren hiru komentuetara, arrapaladan: arropak, oinetakoak, lanerako tresnak, elikagaiak, etxeko baxera, astoak… ostutakoak oso ondo etorri zitzaizkien batzuei gerraondoan. Beste batzuk, ihes egindako ezkertiar eta abertzaleen etxeetan edota komertzioetan sartu ziren, eta ahal izan zuten guztia lapurtu zuten. Karmengo elizako alfonbrak eta Batzokiko pianoa ere egun horretan lapurtu zituzten. Gerraostean, askok zekiten euren alfonbra, altzari, izara edo baxera zein etxetan zeuden, baina ezin ezer esan.

XI. Taula. **Frankistek hil zituzten zibilak (ikusi VIII. eranskina)**

	Bonbardaketetan hildakoak Markinan eta Xemeinen	**Bonbardaketetan hildakoak Markinatik eta Xemeindik kanpo**	**Tiroen ondorioz hildakoak**	
Gizonak	2	4	1	**7**
Emakumeak	2	4	2	**8**
Guztira	**4**	**8**	**3**	**15**

Iturria: nik neuk egina.

3.5. **1937ko apirilaren 27a: frankistak Markinan eta Xemeinen sartu ziren**

Apirilaren 27ko goizean, gudari eta miliziar asko zegoen oraindik Kalamua, Akondia eta Urko mendietako posizioetan. Dena den, goiz horretan, gelditzen ziren guztiek babeslekuetatik eta lubakietatik alde egin zuten.

Azkonabieta, Akondia eta Urko inguruan zeuden Irrintzi batailoiko 2. konpainiakoek armak bildu eta posizioak utzi zituzten, eta San Roman inguruan zegoen «antitanke» bat Markinara jaitsi zuten (Azkue, 2007: 44-45).

San Andres, Rosa Luxenburgo eta Kalamua eta Urko inguruan zeuden beste batailoi batzuek ere guda lerroa uzteko agindua hartu zuten.

Erreketeen aurrerabide azkarraren ondorioz, Itxarkundia batailoia inguratuta gelditu zen Kalamua azpian, Markina eta Etxebarriaren parean. Irrintzi batailoikoek, euren antitankearekin, tiro egin zieten frankistei lepotik, eta Itxarkundiakoek inguruketa apurtu eta ihes egitea lortu zuten (Azkue, 2007: 45)[18].

Errepublikaren aldeko soldaduek ihes egin zutenean, eguerdi aldean, sartu ziren tropa frankistak Etxebarrira, Markinara eta Xemeinera.

Luis Lachapelle komandantearen agindupean zegoen Lakar Tertziokoak izan ziren Markinako hirigunera sartu ziren lehen soldadu frankistak. Kalamua eta Urkaregi inguruan borrokatzen aritutako erreketeak ziren, eta Etxebarriako bidetik sartu ziren. Horregatik, Markinako tradizionalista batzuek esan zuten Abesua kaleari «Lakar Tertzioaren Etorbidea» izena jarri behar zitzaiola. Tradizionalistaren batek izen hori zuen paperezko kartel bat ere jarri omen zuen.

---

[18] Apirilaren 27an, Luziano Alonso Santos soldadu errepublikarra zendu zen, Markinako lurretan (Egaña, VII. tomoa: 249).

Frankistei bideak erakusten, aurreko hiletan frankisten aldera pasatu ziren bi herriotako errekete gazteak etorri ziren. Zaldi gainetan, harro eta boteretsu sartu ziren, txapel gorria jantzita eta ogi zuria banatzen, markinarren eta xemeindarren begirunea lortzeko. Hurrengo egunetan, hauetariko batzuek abertzaleen eta ezkertiarren aurkako errepresioan ere parte hartu zuten, susmagarrien etxeak arakatzen eta bahitzen, zainketa lanak egiten, emakume abertzale eta ezkertiarrei ilea mozten edota herritarrak atxilotzen. Markinan sartu aurreko borroketan hildako soldaduen gorpuak ere eurek ekarri eta lurperatu zituzten Xemeingo kanposantuan. Herritar askok ikusi zituzten gorpuzkinez betetako kamioiak kanposantuan sartzen eta hobi komunetan lurperatzen[19].

1937ko apirilaren 27an, markinar eta xemeindar asko atera zen kalera, erreketeak nola sartzen ziren ikustera. Herritar ia erdiak tradizionalistak ziren, eta asko izan ziren frankisten etorrera ospatu zutenak. Rikardo Urkietak, gero alkate frankista izango zenak, erreketeei eskerrak emanez, zera esan omen zuen hauen aurrean: «Se ha conquistado un pueblo para Dios». Tradizionalista eta eskuindar askorentzako Gerra Zibila Espainiaren eta eskuindarren eta jauntxoen aldeko altxamendua ez ezik, erlijioaren aldeko «gurutzada» ere izan zen.



Argazkia: herritar batek emandakoa
Francoren tropak Markinan sartu ziren unea, 1937ko apirilaren hogeita zazpian.

Iluntzean, jai handia egin zen Zelai inguruan eta pareko arkupean: tradizionalistek kanpaiak jo zituzten, bolanderak bota, eta erromeria antolatu zuten soldaduentzako. Neska tradizionalistek dantza ugari egin ei zuten errekete gazteekin, hauen balentria eskertzeko.

Karmeldarrak apirilaren 27an bueltatu ziren komentura. Dena hankaz gora eta hainbat gauza lapurtuta zeuden, baina Aita Martin Uriarte priorea eta beste fraideak berehala hasi ziren komentua eta eliza garbitzen (Urkiza, 1991: 289 eta Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 380). Ez zekiten asko euretariko batzuk hurrengo

[19] Xemeingo kanposantuan, gutxienez 52 soldadu frankista lurperatu ziren. Horietariko sei, gutxienez, Erorien Haranera (Valle de los Caídos, Madril) eraman zituzten 1959ko martxoaren 15ean (Iturria: Erorien Haraneko Abadiako Beneditarren Artxiboa, Aranzadi Zientzia Elkarteak emandako informazioa). 1936ko gerran, Hego Euskal Herrian hil ziren 1.200 pertsonaren gorpuak, lurperatuta zeuden hobi komunetatik atera, eta Erorien Haranera eraman zituzten, 1941. eta 1959. urteen artean. Hego Euskal Herrian erregistratuta dauden 108 hobi komunetatik 40tan hildakoen gorpuak atera zituzten 18 urte haietan. WWW.berria.info

egunetan atxilotuko zituztela, eta hurrengo urteetan gorriak pasatu beharko zituztela kartzelan edo atzerrian.

Erreketeak Markinan eta Xemeinen sartu ostean, arratsaldeko seietan, Asterrika, Kalamendi eta Laka Goikoa inguruan zeuden Saseta batailoikoek posizioa uzteko agindua hartu zuten. Dena bildu zuten, eta Gernikara abiatu ziren gaueko bederatzietan (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 75). Egun batetik bestera, Markinako eta Lekeitioko guda lerroak desagertu egin ziren.

Nafarroako IV. Brigadak Markina, Xemein eta Etxebarria konkistatu zituen egunean, Gezi Beltzak Brigada italiar-espainiar mistoak Berriatu hartu zuen. Egun horretan, Gianni Annoni militar italiarrak udaletxeko bandera errepublikarra harrapatu zuen, gerra garaikur gisa[20].

Markinan eta Xemeinen sartu osteko egunean, 1937ko apirilaren 28an, Luis Lachapelle komandanteak Markinako Batzorde Kudeatzailea eratu zuen[21]: Fermin Alberdi alkate egin zuten, eta Rikardo Urkieta, Jose Urkiza eta Alejandro Duralde, zinegotzi (Garaian, 1, 1987: 29). Dena den, kontuan hartzekoa da, Bernardo Aretxabaletaren agindupean, Errepublikako udal legitimoak lanean segitu zuela, 1937ko ekainaren 19ra arte, Bilboko Carlton hotelean. Beraz, 1937ko apirilaren 27tik eta Bilbo frankisten eskuetan jausi zen arte (1937ko ekainaren 19an), Markinak bi udal izan zituen: bata, Errepublikaren zilegitasuna defendatzen zuena (Bernardo Aretxabaleta, alkatea), eta bestea, militar frankistek kontrolatzen zutena (Fermin Alberdi, alkatea).

Xemeinen, Errepublika garaiko Julian Ituarte berrezarri zuten alkatetzan, eta Jose Maria Rekalde, Rafael Urbieta, Jose Luis Iriondo, Manuel Alzibararetxuluaga eta Domingo Larruskain zinegotzi postuetan.

1937ko apirilaren 28tik 30era, Markina eta Xemein goitik behera aldatu ziren. Gerrako fronte izatetik frankistek hartutako herriak bihurtu ziren. Militar frankistek hainbat eraikuntza hartu zituzten euren erabilpenerako:

1. **Zabala jauregia**: komandantzia militarra antolatu zuten bertan. Lehenengo pisuan, jazarraldia zuzendu zuen Jose Seva komandantearen[22] bulegoa jarri zuten, eta bigarrenean, atxiloketak egiten zituzten Asaltoko Guardiak kokatu ziren. Jose Sevak Zabala jauregitik zuzendu zuen errepresioa. Egia esan, Seva komandanteak Zabala jauregian baino denbora gehiago egiten omen zuen Vega tabernan.

---

[20] 35 urte geroago, 1972an, bere azken nahia beteaz, Gianni Annoni jeneralaren abokatuak egurrezko kaxa batean bidali zuen lapurtutako bandera Berriatura. Kaxaren tapako plakak zera dio: «*1937. Arrebatada sin odio. 1972. Devuelta con cariño al pueblo de Berriatua*». 2009ko apirilean, gertaera hau gogoratzeko eta gerran sufritu zuten guztiak gogoratzeko ekitaldia egin zen Berriatuko udaletxean, Berriatuko Udalak eta Ahaztuak 1936 - 1977 elkarteak antolatuta (http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com/2009/04/acto-en-berriatua-la-bandera.html)

[21] Luis La chapelle Lacar tertzioko komandantea zen, eta Markinan sartu zen lehen komandante frankista izan zen. Berak sortu zituen gerraosteko Markinako eta Xemeingo lehen batzorde kudeatzaileak. Dena dela, denbora gutxi egin zuen Markinan. Bizkaia hartzeko ofentsiban jarraitu zuen, eta maiatzaren 9an, Muxika inguruan zegoen, Lacar Tertzioarekin borrokatzen (Revilla Cebrecos, 1975: http://www.requetes.com/navarra.html).

[22] José Seva Ivorra (1876 - 1957) infanteriako komandantea, ingeniaria eta irakaslea izan zen. Primo de Riveraren diktadura garaian, gobernuaren delegatua izan zen Alacanten. Gerratean, Markina inguruko komandante egin zuten, eta hemen bizi izan zen denboraldi batez (iturria: Alfredo Campello Quereda, Lloixa kultur elkartearen bloga: http://aclloixa.blogspot.com).

2. **Batzokia**: maiatzaren hasieran, batzokiko altzariak eta balioko gauza guztiak lapurtu zituzten, eta gero militarren erabilpenerako hartu zuten (Egaña, 2000, VII. tomoa: 213).
3. **Munibe jauregia**: armada errepublikarrarekin bezala, kuartel, kartzela eta odol ospitale izaten jarraitu zuen. 1937ko apirilaren 27tik aurrera, hamaika soldatu frankista egon ziren ospitale honetan. Berbertan hil zen, 1937ko maiatzaren 29an, Demetrio Valisa Uztarrotz, San Fermin Tertzioko 4. konpainiako soldadua.
4. **Urberuagako bainuetxea**: militar frankistek euren kuartel bihurtu zuten, eta inguruetako baserrietako andrazkoak eraman zituzten garbiketak egitera; hauetariko batzuk ilea zerora moztu ostean. Bigarren Mundu Gerra piztu zenean, bainuetxea kontzentrazio eremu bihurtu zen, 1943. urtera arte. Bertan bildu zituzten Frantziatik ihesean zetozen zibilak (Rodrigo, 2005: 243 eta López Jiménez: http://www.ciere.org).
5. **Euzko-Etxea**: Zehar kaleko bederatzigarren zenbakia zuen etxe hau, abertzaleen ekimenez egina zegoen, eta frankistek bahitu ostean, Guardia Zibilen bizitoki bihurtu zen (Egaña, 2000, VII. tomoa: 213).
6. **La Caixa banketxea dagoen eraikineko bigarren edo hirugarren solairuko pisua** Komandantearen, Jose Sevaren, bizitoki bihurtu zen (Garaian, 1997-20: 17-21).



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Jose Martinen etxea, 1937ko otsailaren zazpiko bonbardaketaren ostean.

Hainbat ezkertiarren eta abertzaleren etxeak ere bahitu zituzten, Francoren alde borrokan ari zirenen familiei edo soldaduei emateko.

Markinako alde zaharreko etxe eta kale asko apurtuta zeuden, eta herria hankaz gora zegoen, apirileko azken egun horietan. Herritarrak, beraz, konponketak egiten hasi ziren. Besteak beste, Zelaia txukundu zuten; erabat hondatua baitzegoen, bonbardaketengatik eta, batez ere, babesleku bat egin nahirik, zulo handi bat egin zelako bertan (Garaian, 1, 1987: 29).

Frontean egon ziren soldadu errepublikarrak ihes eginak zeuden, baita hainbat abertzale, errepublikazale eta ezkertiar ere. Aldiz, ugariak ziren gora eta behera zebiltzan Francoren soldaduak, asko eta asko italiarrak eta txapel gorridun errekete nafarrak eta gipuzkoarrak. Herritar askok ere erreketeen txapel gorria zeramaten. Markinan zein Xemeinen asko baitziren ideologia tradizionalista zutenak, eta Francoren tropen babesean, harrotasunez euren ideologia tradizionalista erakusten zutenak. Gainera, tradizionalistak txapel gorriak banatzen aritu ziren, eta hainbatek txapel gorria janztea erabaki zuen, militarren eta tradizionalisten begirunea jasotzeko. Txapel gorriarekin zeozelango immunitatea lortu nahi zuten.

Apirileko azken egunak oso gogorrak izan ziren markinarrentzat eta xemeindarrentzat. Bonbardaketak, senideen ihesaldiak, beldurra… gehienbat abertzaleak eta ezkertiarrak lur jota zeuden, zer zetorkien ez zekitelako. Gauza on bakarra gertatu zen guda lerroa mugitu zenean: Markinak eta Xemeinek helburu militar izateari utzi zioten. Aurrerantzean, beraz, herritarrek ez zituzten bonbardaketa gehiago jasango, eta lasaiago biziko ziren. 1937ko apirilaren 25ekoa izan zen azken bonbardaketa. Maiatzaren hasieran, beraz, Amallo erreka, Larruskain, Akarregi, Etxebarri eta Barinaga inguruko baserritarrek euren etxeetara bueltatu ahal izan zuten. Etxeak hondatuta edota hankaz gora aurkitu zituzten, eta, gehienetan, gauzak lapurtuta, baina pozik zeuden, hainbeste hilen ostean, euren baserrietan zeudelako.

Frontea mugitu, eta bonbardaketak bukatu egin ziren, baina arriskuak hor jarraitzen zuten. Zazpi hilabetez soldadu errepublikarrak zein erreketeak gure herriko mendietan gotortuta egon ostean, nonahi aurkitzen ziren armak eta munizioa. Gainera, soldadu errepublikarrek ihes egin zutenean, 1937ko apirilaren 25etik 27ra, arma eta munizio ugari bota zituzten bide bazter eta erreketara, pisua arintzeko asmoz. Hurrengo hiletan, umeak armekin, bolborarekin edo esku bonbekin jolasten aritu ziren: lurrean zuloak egiten zituzten, hormak apurtu edota amuarrainak arrantzatu. Horrelako jolasetan, Txokorrekua baserriko Joan Aldazabalek (9 urte) esku bateko atzamarrak galdu zituen, eta Oruntze baserriko Migel Maguregik (7-8 urte) esku osoa. Lomiño (Lobiano) baserriko Benito Agapito Bereziartua Egiak (Etxebarria, 1924 – Etxebarria, 1937) zorte txarragoa izan zuen. 1937ko maiatzaren 1ean, zapatuan, amak Markinara bidali zuen ogia erostera. Badirudi esku bonba bat aurkitu zuela bidean, eta gorde egin zuela. Ogia erosi ostean, bueltan zihoala, Markina eta Etxebarriaren arteko mugan, aurkitutako esku bonba lehertu egin zitzaion eskuetan, eta berbertan hil zen.



Argazkia: herritar batek emandakoa
Francoren tropak Markinako kaleetan, 1937ko apirilaren hogeita zazpian.

3.6. **1937ko maiatza: abertzale, ezkertiar eta errepublikazaleen aurkako errepresioaren hasiera**

Inguruan zeuden armek eta munizioek arriskua sortzen zuten, baina, zalantza gabe, arriskutsuagoa zen militarrak eta FET-JONS-eko kideak prestatzen ari ziren jazarraldia. Maiatzaren hasieratik aurrera, gauzak asko okertu ziren abertzaleentzat, ezkertiarrentzat, errepublikazaleentzat, euskaltzaleentzat eta, oro har, herritar guztientzat. Eskuak garbi zituela pentsatzen zutenek ere nahigabe asko pasatu beharko zituzten aurrerantzean.

Zabala jauregian kokatu zen Jose Seva infanteriako komandanteak jakinarazi zien alkate eta zinegotzi berriei eta FET-JONS-eko kideei, beharturik zeudela herriko mugimendu «gorri-separatistaren» buruzagi guztien izenak justizia militarrari ematera, baita alderdietako militanteen izenak ere. Militarrek hasieratik bultzatu zuten herritarren errepresioa, eta FET-JONS-eko kideak erabat inplikatu ziren militarrek agindutako errepresioa gauzatzen, eta lan asko egin zuten abertzaleak, euskaltzaleak, ezkertiarrak edota errepublikazaleak salatzen eta kartzelaratzen. Tradizionalistek atxilotu behar ziren herritarren, bortxazko lanak egin behar zituztenen, ilea zerora moztu behar zitzaien emakumeen edota isunak ordaindu behar zituztenen zerrendak prestatu zituzten, gero militarren eskuetan uzteko. Aurretik politikoki definitu gabe zeuden markinar eta xemeindar askok txapel gorria jantzi zuten edota FET-JONS-era afiliatu ziren, badaezpada; eta 1937ko maiatzetik aurrera ezkertiarren eta abertzaleen kontrolatzaile eta salatari bihurtu ziren, gizarte bizitza hankaz gora jarriz.

Zoritxarrez, Mola jeneralak, matxinada hasi osteko egunean, 1936ko uztailaren 19an, eman zituen aginduak egia bihurtu ziren markinarrentzat eta xemeindarrentzat, 1937ko maiatzetik aurrera: frankistek izua zabaldu zuten, galtzaileak modu bortitzean menperatu eta aurkari politiko eta ideologikoak desagerrarazteko ahalegin sendoak egin zituzten.

FET-JONS-eko kideek sortutako aurkarien zerrendetan, aurrenengo «susmagarriak» elizgizon abertzale eta euskaltzaleak ziren. Diktaduretan gertatzen den bezala, jazarraldia intelektualekin hasi zen, eta, garai hartan, herriko intelektualak abadeak eta fraideak ziren. Egia esan, elizgizon euskaltzale eta abertzaleen aurkako errepresioa bortitza izan zen. Esnaolak eta Iturraranek dioten bezala: «No hubo, bajo Franco, colectividad alguna, ni política, ni sindical, ni profesional, ni cultural, que hubiera padecido persecución equiparable a la que padeció el Clero Vasco. Ni ingenieros, ni arquitectos, ni abogados, ni maestros, como colectividad, fueron perseguidos con tanta saña… Más de 800, desaparecidos o dispersos, en un colectivo de DOS MIL sacerdotes, es más que suficiente para que podamos decir que el Clero Vasco quedó diezmado y desarticulado en Euzkadi» (Esnaola eta Iturraran, 1994: 15-16).

Errepublikako urteetan, Xemeingo parrokiako abadeak eta Karmengo komentuko fraide batzuek euren euskaltzaletasuna eta ideologia abertzalea modu agerian erakusten zuten, eta hori ez zen tradizionalisten eta jauntxoen gustukoa. Hauek uste sendoa zuten abade eta fraide hauek zirela bi herriotan gertatutako abertzaletasunaren hedakuntzaren eta tradizionalismoaren ahultzearen errudunak, eta areriotzat zeuzkaten (Oar-Arteta, 1991: 15-16). Beraz, abade eta fraide euskaltzale eta abertzale gehienek ihes egin zuten Francoren tropak sartu aurretik[23]. Denek zuten gogoan erreketeek Zelestino Onaindia, Jose Peñagarikano eta Jose Sagarna abadeak fusilatu zituztela.

---

[23] Jose Anizeto Urrutia Esteibarlanda Xemeingo parroko-artzapezak ihes egin zuen Markinatik, 1936ko udazkenean. Domingo Onaindia Zuloaga Xemeingo parrokiako abade laguntzailea zen, eta ihes egin zuen 1937ko apirilaren 27an, Francoren soldaduak Markinan sartu ziren egunean bertan. Jose

Gelditu ziren abade eta fraideek pentsatu zuten ezer ez zutela egin, eta ezer ez zitzaiela gertatuko. Berehala ohartu ziren erratuta zeudela, eta frankistek abertzale eta euskaltzale guztien, eta beregainki elizgizonen, aurkako mendekua bilatzen zutela.

Maiatzaren lehenengo egunetan, Martin Uriarte (Aita Martin), Karmengo priorea, atxilotu zuten, euskaltzalea eta abertzalea zelako, eta Begoñako karmeldarren komentura eraman zuten preso; eta hemendik Gasteizko karmeldarren komentura. Bertan, fraide eta abade lagunak aurkitu zituen, bera bezala, atxilotuta: Aita Jose Domingo eta Aita Abelino karmeldarrak, Felix Bustindui, Berriatuko parrokoa, Markos Espilla, Markinako abade laguntzailea, eta Domingo Ugartetxea, Bolibarko parrokoa (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11 eta Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182)[24].

Aita Martinekin batera, 1937ko maiatzaren hasieran, Eujenio Legarra Maguregi (Aita Bautista) (Aulesti, 1902 - Palmira, Kolonbia, 1986) fraide karmeldarra ere preso hartu zuten, eta Begoñako Karmeloko kartzelan sartu, beste fraide eta abade batzuekin batera[25].



Argazkia: herritar batek emandakoa Francoren tropak Markinan sartu ziren unea, 1937ko apirilaren hogeita zazpian.

Markos Espilla Ugartetxea (Markina, 1876 – Markina-Xemein, 1966) ere egun horietan atxilotu zuten[26]. Atxiloketaren arrazoiak ziren euskaltzalea zela arrosarioa euskaraz egiten zuela eta, militarren ustez, «¡Viva Rusia!» esan zuela. Itxura denez, goizean

---

Antonio Oar-Arteta Undabeitia Xemeingo abade laguntzailea zen, eta ihes egin zuen Markinatik, 1936ko udazkenean. Alberto García Maguregi Markinako abade laguntzailea zen, eta ihes egin zuen, frankistak Markinara sartu aurretxoan. Jose Mari Ugartetxea Ugarteburu Barinagako abade laguntzailea zen, eta ihes egin zuen Mexikora, 1937an, Francoren tropak sartu aurretxoan. Karmeldarren artean, ihes egin zuten Felipe Etxebarriak (Aita Pio), Joan Martin Garate Zubillagak (Aita Joan Martin), Urbano Manzisidor Atutxak (Aita Urbano) eta Pio Ibaibarriaga Oregik (Aita Apolinar).

[24] 1937ko uztailaren 17an, Aita Martin Bilboko Karmeloko komentuko kartzelara ekarri zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Urte bat eta bost hilabete egin zituen preso, eta, gero, Cadizko San Fernando hiriko karmeldarren komentura desterratu zuten (Urkiza, 1992: 289 eta 404-405 eta Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 380).

[25] Hemendik Larrinagako kartzelara eraman zuten, eta, 1937ko uztailaren 7an, Iruñako (Langraiz Oka) kartzelara. Epaiketa egin zioten 1937ko uztailaren 30rean, eta epaileak heriotza sententzia eskatu zuen, abertzale sutsua izateagatik eta Rosa Luxenburgo batailoiaren komandanteari eskerrak emateagatik, Etxanoko parrokian zeuden fraide zaharrei tratu ona eman zielako. Epaileak abuztuaren 15ean atera zuen sententzia: 30 urteko kartzela zigorra. Geroago, baina, epai hau sei urteko kartzela aldiagatik aldatu zioten (Airmn, 250-37 txostena eta Martínez, 2007: 66). Arabako kartzelatik Carmonako (Sevilla) kartzelara eraman zuten, eta hemendik 1940ko urriaren 10ean atera zen libre. 1953an, Kolonbiara bidali zuten, eta Palmiran (Kolonbia) hil zen.

[26] Markos Espilla abadeari epaiketa militarra egin zioten, eta hainbat kartzelatan egon zen atxilotuta, 1937an zehar: San Jose babes etxean zabaldu zen kartzelan (Ategorrieta, Donostia), karmel-

goiz, meza eman ostean, Eduardo Gortazar kapitainak (Uhagon etxeko jabearen, Maria Dolores Prado Uhagonen, senarra) eta soldadu errekete batzuek gelditu zuten kalean, eta hizketan aritu ostean, haserretu egin ei ziren, eta, errusiarren aldeko adierazpenak egin zituela aurpegiratu ostean, Gortazar kapitainak atxilotzeko agindu zuen (Gallego eta Pazos, 2003: 386). Badirudi, Eduardo Gortazar komandanteak abadea nahastu egin nahi izan zutela hizketaldian, gero atxilotzeko. Hara nola azaltzen duen Pedro Onaindiak Markos Espillari gertatutakoa: «D. Marcos Espilla, coadjutor, se le acusa de haber rezado el rosario en euzkera y de haber gritado ¡Viva Rusia! Esta acusación necesita una explicación. Un día en conversación particular el comandante de la plaza se permitió decirle, que había que fusilar a todos los separatistas. El Sr. Espilla arguyó que no se puede fusilar a los inocentes. Añade el comandante: ¿cómo no? Luego tampoco se puede matar a los rusos. –No, si son inocentes, respondió el sacerdote. – Detengan a este sacerdote – ordenó el Comandante - porque ha gritado ¡Viva Rusia! Y allí está el pobre D. Marcos esperando la sentencia» (Bidasoa, 2005, Pedro Onaindiaren txostena, 129. txostena (1937-9-3): 715)[27].

Domingo Ugartetxea Urkieta abadea (Markina, 1885 – Lamiako, 1958) ere preso hartu zuten, maiatzaren hasieran. Domingo, Aita Jose Domingo Ugartetxea Urkieta karmeldarraren anaia zen, eta Bolibarko parrokoa[28].

Bolibarko abade laguntzailea, Pedro Zenarrutzabeitia Urionabarrenetxea (Ziortza-Bolibar, 1901 – Bilbo, 1987), ere preso hartu zuten maiatzaren hasieran[29], eskuindarren arabera, abertzale sutsua izateagatik, Bolibarko baserritarrak EAJn sartzera bultzatzeagatik eta militarrek baino komunistek irabaztea nahiago zuela esateagatik (Martínez, 2007: 68)[30].

---

darren Komentuan (Gasteiz) eta Ondarretako kartzelan (Donostia). 1937ko abuztuaren 23an egin zioten epaiketa, eta libre atera zen. Beraz, ia lau hilabete egin zituen kartzelan.

[27] Joan Usobiaga fraideak ere azalpen hau ematen du Markos Espilla abadearen kasuari buruz: «Claro que él dijo Viva Rusia en el mismo sentido que Viva España o Viva Alemania, para significar que deseaba el bien y la existencia para los rusos como para todos los demás mortales, de ninguna manera para que perdure o se extienda el comunismo, que aborrece con todas las fibras de su corazón. ¿Pero cómo llegar a convencerles de esto a los militares?» (Bidasoa, 2005: 233).

[28] Hainbat kartzelatan egon zen 1937an zehar: lehenengo Donostiako San Jose babes etxeko kartzelan sartu zuten. Bertan, bat egin zuen Markos Espilla eta Joan Narbaiza abadeekin. Gero, Gasteizko karmeldarren komentuan egon zen atxilotua, eta bere anaia Jose Domingo karmeldarrak (Frantzisko Maria Ugartetxeak) berbertan topatu zuen Gasteizko komentuan kartzelaratu zutenean, 1937ko maiatzaren 22an (Unzueta, 1997). Gero, abuztuaren 10ean, Domingo Ugartetxea Bilboko Karmeloko komentuko kartzelara ekarri zuten (Martínez, 2007: 51). Beste abade batzuekin batera (tartean Pedro Zenarrutzabeitia Urionabarrenetxea), epaiketa egin zioten Bilbon, 1937ko abuztuaren 31n, eta libre gelditu zen. Beraz, 1937ko maiatzaren hasieratik 1937ko abuztura arte, egon zen kartzelan. Kartzelatik atera ostean, Lamiakoko abade egin zuten, eta bertan zendu zen, 73 urte zituela.

[29] Hainbat tokitan atxilotuta egon ostean, abuztuaren 10ean, Bilboko Karmeloko komentuko kartzelara ekarri zuten (Martínez, 2007: 51). 1937ko abuztuaren 31n epaitu zuten, Domingo Ugartetxea Urkieta eta beste abade batzuekin batera, eta gero aske utzi. Salamancara bidali zuten, gero Asturiasera, handik Gasteizera, eta, azkenik, Berrizera bueltatu zen.

[30] Pedro Zenarrutzabeitiak 36 urte zituen atxilotu zutenean, eta Ziortza-Bolibarko Estakua baserrikoa zen. Bere anaia gazteagoa, Kandido ere atxilotu egin zuten, eta hiru urte egin zituen Puerto de Santamariako kartzelan. Bere anaia Santiago (Ziortza-Bolibar, 1911 – Salta, Argentina, 1994), agustindar ordenakoa zen, Oñatin, eta ihes egin zuen Bartzelonara, frankistak Ziortza-Bolibarren sartu aurretxoan. Handik Frantziara joan zen, eta gero Argentinan erbesteratu zen. Argentinan Lateranenseen ordenako kanoniko erregularra egin zen. Argentinan bertan hil zen 1994. urtean. Azkenik, anaia gazteenak, Kristobalek Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 404), eta atxilotu



Argazkia: Julen Urkiza
Frantzisko Maria Ugartetxea Urkieta - Aita Jose Domingo Santa Teresarena (Markina, 1888 – Markina-Xemein, 1980). Bi urte eta erdi egin zituen kartzelan, eta beste hiru Euskal Herritik kanpo.

Maiatzaren hasieran, Berriatuko parrokoa, Felix Bustindui, ere atxilotu zuten[31].

Karmengo fraide asko ez zituzten kartzelan sartu, baina Markinako komentutik kanpora bidali zituzten. Hiazinto Artalarrea (Aita Hiazinto) salatu egin zuten, abertzalea izateagatik, eta karmeldarren probintzialak Gasteizko karmeldarren komentuan bizitzera zigortu zuen (Urkiza, 1992: 287-290).

Leandro Jauregi Altunak (Aita Zezilio) (Aramaio, 1872 - Markina, 1951) salaketa berdina izan zuen, eta karmeldarren probintzialak Gasteizko karmeldarren komentuan bizitzera zigortu zuen. 1937tik 1939ra egon zen bizitzen Gasteizen.

Pedro Ormaetxea Aldana (Aita Leoncio, «Lontzi») (Zornotza, 1891 - Txile, 1949) Txilera bidali zuten, eta Txileko Viña de Mar-eko komentuan hil zen (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 453-454).

Jose Mateo Ugartetxea Urkieta (Aita Jose Mateo) abertzalea izateagatik salatu zuten, eta karmeldarren probintzialak Logroñoko karmeldarren komentuan bizitzera bidali zuen (Urkiza, 1992: 287-290).

Azkenik, Frantzisko Ortuzar Atxirika, Ziortzako parrokoa, Euskal Herritik alde egitera behartu zuten, 1937ko uztailean edo abuztuan (Martínez, 2007: 54).

---

ostean, hainbat urte egin behar izan zituen kartzelan eta langileen batailoietan. Hauen guztien bi osaba ere erbesteratu ziren Frantziara. Bruno Zenarrutzabeitia Ispizua (1885. urtean jaioa Ziortzan, eta 1910ean abadetua), Ondarroan zegoen abade, eta Frantziara ihes egin zuen (Martínez, 2007: 61), eta Ponteaux les Forges-en (Landak) egon zen bizitzen, gutxienez 1939ra arte. Honen anaia, Jose Ramon, ere Ondarroan zegoen abade, eta Hazparnen erbesteratu zen, gutxienez, 1939ra arte.

[31] Felix Berriatun jaio zen, eta 1909an abadetu zen. Teologian Doktorea zen, eta Berriatuko parrokoa. Frankistak Berriatun sartu osteko egunetan, Amorotora joan zen ume bat bataiatzera, Amorotoko abadea ihes egina zegoelako, eta bertan atxilotu zuten. Ondarroara eraman zuten lehenengo, eta handik Gasteizko karmeldarren komentura, eta Aita Jose Domingo eta Aita Abelino fraideekin eta Markos Espilla eta Domingo Ugartetxea abadeekin batera giltzaperatu zuten (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11 eta Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182). 1937ko abuztuaren 5ean, Begoñako Karmeloko komentuko kartzelara ekarri zuten epaiketa egiteko (Martínez, 2007: 51).

XII. Taula. **Markinako eta Xemeingo elizgizonen aurkako frankisten errepresioa**

	Frankistak sartu aurretik ihes egin zutenak	Atzerrian errefuxiatuak	Ihesean ibili ostean desterratuak	Markinan atxilotuak	Markinatik kanpo atxilotuak	Markinan atxilotu ostean fusilatuak	Markinatik kanpo atxilotu ostean fusilatuak
Abadeak	6	6	–	2	2	1	1
Fraideak	8	4	4	2	3	–	–
Guztira	**14**	**10**	**4**	**4**	**5**	**1**	**1**

Iturria: nik neuk egina.

Markinako, Xemeingo eta Etxebarriako abade eta fraide gehienak ihes eginda, atxilotuta, fusilatuta edo desterratuta zeuden 1937ko maiatzaren bukaeran. Karmengo komentuan fraide gutxi batzuk gelditzen ziren, eta Xemeingo parrokia abade bakarraren ardurapean zegoen: Valentin Zuluetaren eskuetan (Markina, 1865 – Markina, 1944). Barinagan, Joan Barquin Trueba zegoen parroko.

1937ko maiatzean, Markos Espilla kartzelaratu eta gutxira, Gotzaindegiak Elias Lasuen «Don Elias» (Berriz, 1905 - Bilbo, 1997) bidali zuen Xemeingo parrokiara, Valentin Zulueta abadeari laguntzera. Zazpi hilabetez egon zen lanean, inolako izendapenik gabe (Garaian, 1997-20: 17-21). 1937ko azaroan, Markina utzi egin zuen, Bergarako Seminariora joateko deia hartu zuelako, bertan irakasle lanetan aritzeko[32]. *Garaian* Aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean, ondo azaldu zuen 1937ko maiatzetik azarora bitartean gure herrian bizi zen une lazgarria: «Fueron siete largos y penosos meses. Meses muy duros, sin conocer a nadie, en unos momentos en que, por lo que me constaba y lo que me decían, me vigilaban por todas partes. Hasta llegaron a decirme que vigilaban a qué personas oía en confesión… La segunda vez que subí al púlpito en Markina y comencé el sermon en euskera, salieron de la iglesia todos los 'Flechas' y 'Pelayos' que estaban allí en formación y fuera, aunque yo no les oí, sé que 'me pusieron bien'. Al día siguiente, al doblar para Xemein, un soldado que salió de la casa donde ahora están las oficinas del butano, residencia del comandante de la zona, me entregó una carta en la que se me prohibía rezar, predicar y cantar en euskara. Acompañado de D. Valentin, subí a hablar con el comandante, un Tte. Coronel que vivía en el 2º o 3º piso.

–Mire Vd., acabamos de recibir este oficio. Yo pienso que igual es consecuencia del incidente de ayer.

–No, no, es una orden del mando superior, –me contesto con mucha educación.» (Bilbao, 1997: 17-21).

FET-JONS-eko kideek zein militarrek kontrol zorrotza jarri zuten abade eta fraideengan. Norekin hitz egiten zuten, nor konfesatzen zuten edota sermoietan zer esaten zuten zelatatzen zituzten. Horrez gainera, gotzaindegitik ordena iritsi zitzaien abadeei mezatan euskara ez erabiltzeko, eta, «Espainiaren aldeko otoitza» egiteko. Arlo politikoan eta sozialean ez ezik, 1937ko maiatzean, arlo erlijiosoan ere gauzak asko aldatu ziren Markinan eta Xemeinen, gehienbat abertzale eta ezkertiarrentzat.

[32] Bergaran bi kurtsotan aritu zen klaseak ematen (1937-1938 eta 1938 - 1939), eta gero Gasteizko apaiztegira bidali zuten, beste ikasturte bi egitera (1939 - 1940 eta 1940 - 1941).

Behin elizgizon abertzaleak kartzelaratu edota desterratu ostean, gelditu ziren elizgizonak kontrol sozialerako eta politikorako tresnak bihurtu ziren, eta pulpituak Francoren aldeko propaganda politikorako talaiak. Elizgizonak Francoren «gurutzadaren» alde jarri ziren. Pedro Onaindiak zioen bezala, Jesusen Lagundiko Andres de Askondo abadeak frankisten alde hitz egin zuen Markinan parte hartu zuen hirurren batean: «El P. Ascondo S. J. ha predicado un triduo en Markina. Uno de los días se quejó ante las M.M. Mercedarias de que al parecer no gustaban sus sermones. Una religiosa le contestó: Padre, aquí el pueblo está acostumbrado a sermones espirituales. –Pero ¿es que mis sermones no son espirituales? –No, padre… y otra de las presentes continuó: ¡Ah, nuestros sacerdotes… aquellos predicaban el amor hasta a los enemigos… ahora no se predica el amor! El P. Ascondo comido ante la advertencia salió» (Bidasoa, 2005: 716).



Argazkia: herritar batek emandakoa
Francoren tropak Markinan sartu ziren unea, 1937ko apirilaren hogeita zazpian.

Abade eta fraideek mezatan esaten zituztenek eliztar askoren haserrea eragiten zuten; hainbat ziren ideologia abertzalea zutenak edota ahaideak ihes eginda, kartzelan edo Errepublikaren alde borrokatzen zeuzkatenak. Berriro ere Pedro Onaindiaren berbak hartuz: «Un joven de Markina encomiaba a su padre, que no entraba más en la Iglesia, porque había oído decir desde el púlpito que había que matar a todos los rojos y separatistas. Un anciano me decía: 'seguiré yendo a la Iglesia porque tengo fe; pero no creeré más en los curas, que predican caridad y practican el odio'. Un padre de familia: 'no voy más a la Iglesia porque la religión ha cambiado'» (Bidasoa, 2005: 716).

Elizgizonek pulpituetatik esaten zituztenak jende asko mintzen zuten, baina agoantatzea beste aukerarik ez zegoen. Are gehiago, elizaren eta gobernu berriaren harreman estuen ondorioz, aurretik mezetara joaten ez zirenak ere mezetara joaten hasi ziren, erregimen berriarekin ados ez egotearen susmoak uxatzeko; edozein aitzakia ona baitzen jendeari kartzela zigorra, isunak edo bortxazko lanak ezartzeko.

Elizgizon abertzaleak begien bistatik kentzen eta eliza Francoren zerbitzura jartzen ari ziren bitartean, FET-JONS-eko kideek atxilotu behar ziren abertzaleen eta ezkertiarren zerrendak prestatu zituzten. Maiatzaren hasieran, beraz, Asaltoko Guardiek eta militarrek gizon, andrazko eta, kasu batzuetan, baita umeak ere atxilotzen hasi ziren (15 urte zituen Jose Mari Arakistain, adibidez). 1937ko maiatzean, hainbat pertsona hartu zituzten preso: Benito Aginaga Ugalde «Mendaro», Jose Andres Aginaga Ugarteburu «Buru-biribil», Kasimiro Aliende, Jose Maria Arakistain Maguregi «Zestero», Enrike

Arriaga Lejardi «Kurutzebarri», Viktor Barinagarrementeria «Katxo», Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpas», Maria Luisa Belaustegi Galdos, Basilio Bollar Salazar, Jesus Egia Torrealdai, Manuel Garetxana Uriguen, Teresa Gisasola Salegi, Jose Ibarzabal Arrieta, Martin Laka Mandiola, Migel Larrinaga Aldazabal «Migel Bolu», Zipriano Maguregi Urkidi «Laitxu», Anbrosio Mallukiza Aldaolea, Jeronimo Sanchez Pesado, Bitoriano Ugarte Mendibe, Alberto Urbieta Elizgarai «Albetin» eta Jesusa Urreta Barinaga.

Lehenengo Markinako kartzelan sartu zituzten, eta, egun batzuk bertan eduki ostean, ia denak Gasteizko, Donostiako edo Bilboko kartzeletara eraman zituzten.

Kanpoko kartzeletara eramaten zituztenei epaiketa egiten zieten, eta, kasurik onenean, isuna ordaindu ostean ateratzen ziren kalera. Askotan, isuna ordaintzeaz gain, frankistentzako doako lanak egitera behartzen zituzten edota desterratu egiten zituzten denboraldi baterako. Gehienetan, Estatuko kartzeletan zehar sakabanatu zituzten, eta batzuk fusilatu ere bai (1937ko maiatzean atxilotutakoen artean, Anbrosio Mallukiza Aldaolea eta Jeronimo Sanchez Pesado fusilatu zituzten).

Asko izan ziren frankistak sartu ostean etxean gelditu ziren ezkertiarrak eta abertzaleak; euren aburuz, eskuak garbi zituztelako eta pentsatzen zutelako ezer ez zitzaiela gertatuko. Dena den, uste txarrenak bete ziren 1937ko maiatzaren hasieran. Frankistek agintea hartzeaz bat, sarekadak bata bestearen atzetik etorri ziren. Ezkertiarrak, abertzaleak eta errepublikazaleak inolako errukirik gabe preso hartzen zituzten.

Atxiloketekin batera, Fletxen eta Pelaioen[33] desfileak hasi ziren. 1937ko maiatzean, FET-JONS-eko kideek bi herriotako ume eta gazteak Fletxen eta Pelaioen taldeetan antolatu, eta, formazio militarrean, desfilatzera behartzen zituzten, jai egunetan eta igande goizetan.

Ume eta gaztetxoak udaletxe zaharraren parean, Zehar kalean, elkartzen zituzten, eta egurrezko fusilak lepoan hartuta, desfilatzen joaten ziren Xemeingo elizara, meza nagusia entzutera. Mezatan lehen lerroan jartzen ziren, tente, hiru ilaratan, fusilak eskuetan zituztela. Erreketeek zuzentzen zituzten desfileak, eta haiek ematen zizkieten aginduak: «¡Vista a la izquierda! ¡Vista a la derecha!». Dena erdaraz, nahiz eta gidariak zein umeak euskaldunak izan.

Diziplina gogorra ezartzen zitzaien Fletxa eta Pelaioei. Berandu etortzen zirenei edo egun batean piper egiten zutenei zigor izugarriak jartzen zitzaizkien: errizinolioa edatera behartzen zituzten edota igande osoan etxetik irten gabe egotera zigortzen.

Indar erakusketa hauek oso garratzak ziren abertzaleentzat eta ezkertiarrentzat, baina agoantatzea beste aukerarik ez zegoen. Herriko giroa nabarmen frankisten aldekoa zen, eta galtzaileek isilik egotea beste aukerarik ez zuten, bortxazko lanak egin, isunak ordaindu edo kartzelara joatea nahi ez bazuten. Are gehiago, 1937an zehar, aurretik abertzaleen edo ezkertiarren aldeko botoa ematen zuten herritar batzuk FET-JONS alderdi politiko berrira afiliatu ziren, agintarien begirunea lortzeko eta errepresioa saihesteko. Beldurraren beldurrez, markinarrek eta xemeindarrek oso ondo ikasi zituzten eskua altxatuta agurtzen, «Cara al Sol» abesten eta FET-JONS-eko kideei men egiten.

Ezkertiarren eta abertzaleen aurkako mendekua borobiltzeko, 1937ko maiatzaren 5aren eta 6aren bueltan, emakume ezkertiarrak eta abertzaleak frankistek bahitu zituzten eraikinak (Zabala jauregia, Euzko-Etxea, Batzokia, Urberuagako bainuetxea…) garbi-

[33] Pelaioak eta Fletxak dira FET-JONS alderdi politiko berriak Gerra Zibilean eratu zituen gazte erakundeak. Hitlerren *Hitlerjugend* taldeen edo Mussoliniren *Balilla eta Arditi* bezalakoak ziren.

tzera behartu zituzten[34]. Hamaika emakumeri ilea ere moztu zieten, eta gero garbiketak egitera behartu[35].

Ideologia abertzalea edo ezkertiarra zuten gizonak eta mutil gazteak ere behartu zituzten bortxazko lanetara; besteak beste, militar frankistentzako ordenantza lanak egiten (militarrei mandatuak egiten edo atxilotu nahi zituztenak komandantziara deitzen, adibidez), kaleak edota eraikuntzak garbitzen, bonbardaketetan apurtutako etxeak konpontzen edota zainketa lanak egiten jarri zituzten, 1937ko maiatzetik aurrera. Hainbat izan ziren militarren uniformeak jantzita herriko sarrerak eta irteerak edo Zabala jauregiko komandantzia zaintzera behartu zituztenak[36].

Abertzaleak, ezkertiarrak eta hauen familiak iraintzeko beste modu bat ere izan zen Francoren garaipenak handikiro ospatzea, eta jendea ospakizun horietan parte hartzera behartzea.

1937ko apirilaren 27ko arratsaldean, erromeria egin zuten Markinan, tropa frankisten sarrera ospatzeko. Handik aurrera, Francoren matxinoek hiri garrantzitsuren bat hartzen zuten bakoitzean, FET-JONS-ekoek festa egiten zuten Zelai pareko arkupe aurrean. Lehenengo manifestazioa antolatzen zuten, eta herritar guztiak behartzen zituzten ekitaldi horretara joaten. Ostean, tradizionalistek hitzaldia eskaintzen zuten udaletxeko balkoitik, erreketeak eta Franco goraipatzen (Barinagako parrokoak sarritan hitz egiten omen zuen). Amaieran, erromeria izaten zen. Jende asko hurbiltzen zen Arkupe aurrean egiten ziren erromerietara. Dena den, abertzale eta ezkertiarren seme-alaba eta senideei erromerian parte hartzea debekatzen zieten.

Markinan eta Xemeinen errepublikazale, abertzale eta ezkertiarrak atxilotzen eta iraintzen ari ziren bitartean, Bizkaiko beste toki batzuetan borrokek jarraitzen zuten. 1937ko apirilaren 30retik maiatzaren 4ra, Bermeoko guda izan zen. Gogor gudukatu ostean, Gezi Beltzak Brigada italiar-espainiar mistoak Bermeo hartu zuen, eta errepublikarrek Mundakako itsasadarra galdu zuten.

---

[34] Besteak beste, bortxazko lanetara behartu zituzten Begoña Olabarria (Gregorio Duralderen emaztea), García ahizpak (Felipe García alkate ohiaren arrebak), Nikasia Duralde, Ibaseta baserriko Martzelina, Arizmendi Errota baserriko Erramona Iriondo, Maria Luisa Belaustegi Galdos (Joakin Kalberren emaztea), Maria Garate Gallastegi (Benito Aginagaren emaztea), Klementina Korta Larruskain (Erdiko kalean denda zuena), Jenobeba Lizundia Ugartetxea (Olabarriren alarguna), Eloisa Maguregi Solozabal, Paulina Amalia Santiago García (Cazalisen emaztea), Maria Unamuno Alberdi (Urlokoa), Teresa Gisasola Salegi (Migel Boluren emaztea) eta bere alaba Maria Paz Larrinaga (Maria Paz Larrinagak (Markina, 1924 -) hamahiru urte zituen 1937an, eta, bere aita eta ama kartzelan zeuden bitartean, Munibe jauregira bidali zuten hiru egunez, gaixoak zaintzera eta etxeko lanak egitera. Munibe Jauregian zaurituentzako ospitalea zegoen), Lorenza Ugartetxea Zabala (Goitxi baserrikoa) (Lorenza abertzalea zen, eta zortzi hileko haurdunaldia zuen 1937ko maiatzean, horregatik ez zioten ilea moztu. Dena dela, Urberuagako bainuetxea garbitzera behartu zuten), eta zerrenda honetan falta diren beste asko.

[35] Hauek dira ilea moztu zieten hamaika emakumeak: Antonia Balentziaga, Maria Luisa Belaustegi, Nikasia Duralde, Rosario Garate, Maria Garate, Erramona Iriondo, Klementina Korta, Jenobeba Lizundia, Eloisa Maguregi, Paulina Amalia Santiago eta Maria Unamuno. Esan didatenez, Joanita Urkidiri ere ilea moztu omen zioten, «Cara al Sol» abestu behar zuenean hitz egiten egoteagatik. Baina ez dakit hori noiz gertatu zen, eta etxekoek ez dakite ezer horri buruz.

[36] Berbarako, Felipe García, Errepublika garaian alkate abertzalea izandakoa, Basilio Bollar edo Klaudio Barrenetxea komandantzia zaintzera behartu zituzten, militarren uniformeak jantzita. Herria garbitzen eta eraikuntzak konpontzen jarri zituzten, adibidez, Basilio Bollar eta Benedikto Amutxastegi. Ordenantzan lanak egitera behartu zituzten Imanol Ibarluzea eta Julian Maguregi, gaztetxoak. Biak ere errepresioa jasan zuten abertzaleen semeak ziren. Bortxazko lan hauekin, debaldeko eskulana lortzen zuten frankistek, eta, bide batez, aurkariak iraintzen zituzten.

1937ko maiatzaren 5ean, guda gelditu egin zen, baina maiatzaren 6an, berriro ere frankisten erasoa hasi zen Solluben. 1937ko apirilaren 30retik maiatzaren 14ra egin ziren borroketan, 5.000 pertsona zauritu ziren, eta horietatik mila bat hil[37].

Mila defuntu hauen artean, bi xemeindarrak ziren eta beste bi markinarrak. 1937ko maiatzaren 2an, Frantzisko Gunetxea Agirrebengoa markinarra hil zen, Gernika inguruan. Maiatzaren 8an, Domingo Apalategi Dorronsoro markinarra (Vargas Alonso, 2007: 448 eta Egaña, VII. tomoa: 251) eta Jose Martin Arrieta Ikaran (Markina, 1915 – Bermeo, 1937) xemeindarra hil ziren. Maiatzaren 11n, hegazkin batetik botatako bonba batek Joan Zubialdea Kortabitarte xemeindarrari (1914 - 1937) bi hankak kendu zizkion, eta maiatzaren 18an hil zen, Barakaldon.

3.7. **1937ko maiatza - ekaina: iheslariek bizimodu kaxkarra**

Ihes eginda zeuden markinarrek eta xemeindarrek bazuten euren herrian gertatzen ari ziren izugarrikerien berri. Beraz, hauen asmo bakarra ihes egitea zen. Solluben frankisten erasoa hasi zen egunean, 1937ko maiatzaren 6an, hainbat herritar Frantziara abiatu ziren, *Habana* itsasontzian.

Itsasontzi honek sei ebakuazio egin zituen Santurtziko portutik[38]. Lehenengoan, maiatzaren 6koan, Frantziara (La Pallice-ko portura) abiatu zen. Bertan zihoazen Xemeingo idazkariaren, Pedro Onaindiaren, emaztea, Maria Kruz Elorriaga Dañobeitia eta bere lau seme-alabak (Jon, Miren, Josu eta Sorne), baita Pedroren ama, Matea, eta arreba Joanita ere. Pedro ere saiatu zen ontziratzen, baina ez zioten utzi, gerrara joateko adinean zegoelako. Beraz, Pedro bere arreba Carmen Onaindiarekin gelditu zen Areetan ezkutatuta.

Onaindiatarrekin batera, Castor Uriarteren familiak ere ihes egin zuen Frantziara, maiatzaren 6an. Bere *Bombas y Mentiras sobre Guernika* liburuan dioen bezala: «A las seis y veinticinco de la madrugada del día 6 de mayo, salían para Francia todos mis familiares desde Bilbao, en el Barco Habana (en el que iban 2.300 niños) custodiado por el destructor Ciscar y por los bous Bizcaya y Gipuzcoa a retaguardia, quedando yo solo en nuestra casa de Bilbao, con mi chófer y 30 refugiados de Guernica; pues nosotros estábamos en edad militar y no podíamos salir» (Uriarte, 1976: 82). Uriartetarrak eta Onaindiarrak Azkaineko etxe berean errefuxiatu ziren.

Habana itsasontziak egin zuen bigarren ebakuazioan, 1937ko maiatzaren 16koan, Carmen Onaindiak ihes egin zuen, eta Azkainen errefuxiatu zen, bere familiakoekin batera.

Habana itsasontziaren hirugarren ebakuazioa 1937ko maiatzaren 21ean abiatu zen Santurtziko portutik, eta maiatzaren 23an heldu zen, Southampton-eko portura (Erresuma Batua). Oraingo honetan, 3.861 ume eraman zituen. Bidaia oso gogorra izan zen, eta umeetariko asko zorabiatuta iritsi ziren, baina guztiak onik (http://www.basquechildren.org).

---

[37] Francisco Manuel Vargas Alonsok dioen bezala, (Vargas Alonso, 2007: 329-430): «Si tenemos en cuenta que sólo entre combatientes muertos y heridos la Campaña de Bizkaia costó unas 40.000 bajas a los ejércitos en liza, con más de 8.000 muertos entre el día último de marzo y los primeros días de julio, las operaciones del Sollube y sus inmediaciones, con las bajas ya reseñadas, ocupan un lugar destacado en el marco de la Campaña de Bizkaia».

[38] 1. ebakuazioa (1937-05-06): 3.796 ume eta nagusi (2.273 ume), 2. ebakuazioa (1937-05-16): 2.185 ume, 3. ebakuazioa (1937-05-21): 3.861 ume, 4. ebakuazioa (1937-06-01): 2.318 ume, 5. ebakuazioa (1937-06-06): 2.337 ume eta 6. ebakuazioa (1937-06-13): 4.500 ume.

Umeekin batera, laurogei irakaslek, ehun eta hogei laguntzailek, hamabost abadek eta bi medikuk ihes egin zuten. Abadeetariko bat Alberto García Maguregi markinarra izan zen (Etxebarria, 1878 - Markina, 1948)[39]. Alberto García Stonehameko kanpalekuan egon zen aurrenengo, eta gero Southhampton-eko St. Mary's College Bitterne Park-en, ume errefuxiatu batzuen arduradun espiritual bezala (Arrien, 1991: 89). 1937ko azaroa baino aurretik heldu zen Southhamptoneko komentura (Monferrer, 2007: 32). Bertan egon zen bizitzen 1946ra arte, eta 1946an Azkainera etorri zen, gaixorik. Azkainen, bere familiakoak bizi ziren, Onaindia Zuluagatarrak. Urte horretan berbertan iritsi zen Markinara, eta bi urte geroago zendu zen, 1948. urtean.

Alberto Garcíarekin batera, *Habana* itsasontzian ihes egin zuten Erresuma Batura Keltse Altunak (Bilbo, 1928 - Markina-Xemein, 2011) eta bere ahizpa Ibonek eta Mirenek, (Arrien, 1991: 170). Hiru ahizpok Bilboko alde zaharreko Postari kalean bizi ziren, euren gurasoekin. 1937ko maiatzean, bizi ziren etxea apurtuta gelditu zen bonbardaketa batean, eta gurasoek erabaki zuten hiru alaba gazteenak Erresuma Batura bidaltzea. Keltse eta bere ahizpak 1938ko irailaren 13an bueltatu ziren Erresuma Batutik (Arrien, 1991: 170 eta Bedialauneta, www.lea-artibaietamutriku.hitza.info).

Jendea ihes egiten ari zen bitartean, borrokaldi gogorrak gertatzen ari ziren Bizkaian. Herrialde hau menderatzeko erasoan, erabakigarriak izan ziren maiatzaren 11tik 14ra gertatu ziren Bizkargiko borrokak. Gain honen konkista garrantzitsua izan zen frankistentzat, beste gain batzuk hartzeko aukera eman zielako, eta, ostean, Burdinazko Gerrikoa erasotzea errazagoa izan zelako. Bizkargin, Viktor Goikoetxea Azpiazu xemeindarra (1916an jaioa) hil zen, Errepublikaren alde borrokatzen ari zela. Etxebarriako Goenaga Zelaia anaiak, Joan (1912 - 1937) (Celta batailoia, osasun sekzioa) eta Severo (Celta batailoia), ere Bizkargiko borroketan hil ziren, 1937ko maiatzaren 12an.

Bizkargiko borrokak hasi osteko egunean, 1937ko maiatzaren 12an, Agarre baserriko Pedro Erkiaga Agirreamalloa xemeindarra (Xemein, 1894 – Xemein, 1937) hil zen etxeko solo batean, baserritik gertu. Benito Agapito Bereziartua umearekin gertatu bezala, Pedro Erkiaga Agirreamalloa ere esku bonba batek hil zuen. Pedro behientzako naboak biltzen ari zen Agarre baserriaren (Xemein) inguruan, eta, itxura denez, esku bonba bat hartu zuen esku artean, eta lehertu egin zitzaion. Berbertan hil zen, 42 urte zituela.

Zibilak ihes egin nahian eta errepublikarrak eta frankistak Bizkaian zehar etengabe borrokan ari ziren bitartean, maiatzaren 15ean, Pentekoste egunaren bezperan, fraide karmeldarrek berriro ireki zuten Karmengo elizako gurtza, ospe handitan, Salbea abestuz; biharamunean, lehen meza nagusia eman zuten (Urkiza, 1992: 290). Aita Martin priorea eta beste fraide asko kartzelan edo ihes eginda zeuden, baina gelditu ziren karmeldar apurrek, eta kanpotik etorri ziren beste batzuek, normaltasuna ezarri nahi zuten komentuko bizitzan[40], eta handitasunean hasi garai politiko berria.

Karmeldarren beste komentu batzuetan, baina, egoera desberdina zen. Larreako edo Gasteizko komentuetako bizimodua goitik behera aldatua zegoen.

---

[39] 2007ko maiatzaren 26an, 1937ko maiatzaren 21ean Santurtziko portuan ontziratu eta Southamptonera (Erresuma Batua) heldu ziren «gerrako umeak» omendu zituzten.

[40] Fraide karmeldarrek 1936ko irailaren 22an hartu zuten komentua uzteko deia; errepublikaren aldekoek intendentzia eta milizianoen kuartela jarri nahi zituztelako bertan. Egun horretan, erlijiosoek eskatuta, Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordekoek eliza, sakristia, korua eta biblioteka itxi eta zigilatu zituzten (Urkiza, 1992: 288). Beraz, eliza itxita egon zen, kulturik gabe, 1936ko irailaren 22tik 1937ko maiatzaren 15era, eta fraideek San Hiazintoko baselizan eta San Jose komentuko elizan ematen zuten meza.



Argazkia: Julen Urkiza
Martin Uriarte Odriozola - Aita Martin Mariaren Bihotz Garbiarena (Zeanuri, 1879- Larrea, 1960). Urte bat eta bost hilabete egin zituen kartzelan. Gero Euskal Herritik gutxienez 500 kilometrotara bizitzera behartu zuten.

1937ko maiatzaren 18an, frankistak Larreako karmeldarren komentuan (Amorebieta-Etxano) sartu ziren. Biharamunean, maiatzaren 19an, Aita Jose Domingo fraide karmeldarra atxilotu zuten, Aita Rafael San Joserena, Aita Abelino, Aita Bizente eta anaia Eujeniorekin batera, eta Begoñako basilikako parrokoa tartean sartu ez balitz, anaia Eujenio kenduta, beste guztiak fusilatuko zituen Lastra Koronelak.

Maiatzaren hogeian, Gasteizen kartzelaratu zituzten atxilotutako fraideak, zaldientzako korta batean. Bi egun geroago, 1937ko maiatzaren 22an, Julian Etxeberria Barrena (Aita Amalio) (Arlegi, 1889 – Gasteiz, 1972) Gasteizko karmeldarren komentuko priorearen ahaleginei esker, Gasteizko karmeldarren komentura eraman zituzten atxilotuta[41].

Aita Jose Domingo eta Aita Rafael atxilotu zituzten egunean, maiatzaren 19an, Kondor legioko hegazkinek Galdakaoren aurkako bonbardaketa bortitza egin zuten, eta 23 pertsona hil zituzten. Aurreko bonbardaketa guztiekin bezala, honekin ere herritarren morala jaitsi nahi zuten, eta, batez ere, Burdinazko Gerrikoa ahuldu.

Bermeon, Solluben edo Bizkargin borrokatu ostean, frankistek Bizkaiko gero eta zati handiagoa kontrolatzen zuten. Lemoa Haitzeko borrokak 1937ko maiatzaren 25etik ekainaren 5era izan ziren, eta hemen ere frankistak garaile. Borroka honetan zendu zen, ekainaren hasieran, Felix Urriolausokoa Lauzirika, Lezaran baserrikoa (Xemein, 1916 – Lemoa Haitza, 1937), San Inazio Errekete Tertzioan borrokatzen ari zela.

Bizkaian etengabe gudukatzen ari ziren bitartean, gero eta errefuxiatu gehiago pilatzen ari zen Bilbon eta alboko herrietan, handik nonbaitera ihes egiteko asmoarekin.

---

[41] Aita Jose Domingoren ziega berean egon ziren Aita Rafael (Larreako karmeldarren komentuko priorea), Aita Abelino, Aita Martin (Markinako Karmengo komentuko priorea), Felix Bustindui (Berriatuko abadea), Markos Espilla (Markinako abade laguntzailea), eta Domingo Ugartetxea (Bolibarko parrokoa eta Aita Jose Domingoren anaia) (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11; Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182; eta Unzueta, 1997).

Hauetariko gehienen bizi baldintzak oso txarrak ziren. Elikagai falta izugarria zegoen, eta horrenbeste errefuxiaturi bizitzeko tokia ematea zaila zen. Gainera, frankistek etengabe bonbardatzen zituzten airez Bilbo eta inguruko herriak.

Bilbon senideak edo lagunak zituztenek zortekoak izan ziren, non gelditu bazutelako. Bizitokirik ez zutenak Euzkadiko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako prestatutako etxe, babesleku eta egoitzetan sartu zituzten. Hainbat izan ziren tokirik aurkitu ezinik, kale gorrian, baldintza oso txarretan gelditu zirenak.

Une latza bizi zen Bizkaiko hiriburuan. Jendeak bazekien frankistak oso hurbil zeudela, eta beldur izugarria zuen. Hala ere, errefuxiatuetariko asko prest zeuden azken ahalegina egiteko, eta kuartel militarretik pasatu ostean, zapadore lanetan hasi ziren, Burdinazko Gerrikoan[42].



Argazkia: Aranzadi Zientzia Elkartea
Patxi Etxaniz «Olazar» Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Atxilotu egin zuten, eta hiru urte egin zituen Gasteizko kartzelan.

Zortea izan zutenek Frantziara ihes egitea lortu zuten, Santurtziko zein Santanderreko portuetatik, «Burdinazko Gerrikoa» apurtu aurretxoan[43].

Beste batzuek, aldiz, Bilbo ingurutik Bartzelonara edo Katalunia ingurura ihes egin zuten 1937ko maiatzean eta ekainean, eta bertan gelditu ziren bizitzen. Dena den, 1939ko urtarrilaren bukaeran eta otsailaren hasieran, frankistak Katalunia hartu aurre-

---

[42] Besteak beste, trintxerak egiten aritu ziren Artxanda inguruan, 1937ko maiatzean eta ekainean zehar, Inazio Etxaniz Laka «Olazar», Eusebio Sololuze, Joan Ugartetxea «Padarra», Joan Loiola «Joan Zumarra», Jose Maria Arrarte «Txato», Jose Maria Azpiri «Lopetxa», Gregorio Azpiri «Lopetxa», Jose Maria Epelde eta Evaristo Arrate «Txorixe».

[43] Besteak beste, maiatzean eta ekainean zehar, Frantzian errefuxiatu ziren Frantzisko Abaitua, abadea, Aretxabaleta - Izaola familia, Elixabete Aginaga Garate «Ete», Klara Arregi Kareaga «Klara Foruria», Anastasio Barrenetxea «Txirget», Epelde - Iruetaguena familia, Maguregi Amesti familia, «Laitxutarrak», Onaindia - Elorriaga familia, Onaindia - Zuluaga familia, Alberto Onaindia Zuluaga eta bere anaia Domingo Onaindia Zuluaga «Txomin», abadeak, Jose Antonio Oar-Arteta Undabeitia, abadea, Maria Luisa Zelaia Kareaga eta bere alaba Purificacion «Purita» Foruria Zelaia eta Maria Zelaia Balentziaga, Askurrinaga Goikoa baserrikoa.

txoan, Frantziara ihes egin behar izan zuten[44]. Hauetariko asko kontzentrazio esparruetan sartu zituzten (Patxi Cazalis, Mikaela Ibarrolaza, Ines eta Anjelita Azpiri, Rikardo Cazalis, Segundo Cazalis…). Izan ere, gobernu frantsesak begi txarrez ikusten zituen ihesean zebiltzan errepublikarrak (Chueca, 2007).



Argazkia: Patxi Juaristi
Mikaela Ibarrolaza (Xemein, 1913 – Lekeitio, 2010). Bartzelonara ihes egin zuen, 1936ko irailean. Bartzelonatik Frantziara hanka egin zuen 1939an. 1941ean, Polizia frantsesak Gurs-eko kontzentrazio eremuan sartu zuen, 1942ko irailera arte.

Hirugarren talde bat Frantziatik Europako beste herrialde batzuetara ihes egitea lortu zuen[45]. Laugarren talde bat, denboraldi batez Frantzian errefuxiatuta egon ostean, Amerikara abiatu zen, Bigarren Mundu Gerratik eta naziengandik ihesi[46]. Joera abertzaleko hainbat fraide karmeldar ere Hego Amerikara destinatu zituzten[47].

Bilbotik ihes egitea lortu zuten errefuxiatuak pozik egoteko moduan zeuden, kontuan hartzen badugu errefuxiatuetariko asko Bilbotik atera ezinik gelditu zirela. Gainera,

---

[44] Kataluniatik Frantziara ihes egin zutenen artean zeuden Bernardo Aretxabaleta Arriola, «Tate», gerra denboran Markinako alkatea izan zena, Azpiri - Aldazabal ahizpak, Anjelita eta Ines, Rikardo Cazalis Areitio «Cazalis Mayor» eta bere familia, Segundo Cazalis Areitio «Cazalis Menor» eta bere familia, Patxi Cazalis Areitio «Patxiko Lentes», Joan Cazalis Areitio, Mikaela Ibarrolaza Gastiasoro eta Santiago Meabe Bilbao.

[45] Berbarako, Jose Anizeto Urrutia Esteibarlanda, parroko-artzapezak, eta Pakita Ugartek Frantziatik Belgikara ihes egin zuten. Alberto Onaindia Zuluaga lehenengo Frantzian errefuxiatu zen, baina Alemaniarrek Frantzia hartu zutenean, Erresuma Batura hanka egin zuen. Jose Antonio Zuberogoitia Uribe umea ere Belgikara eraman zuten.

[46] Jose Maria Barrenetxea Artamendik, «Txirgetek», Frantziara ihes egin zuen 1939an, Bartzelona jausi zenean, eta handik Venezuelara joan zen. Tomas Duralde Kerejeta, bere alaba Feliziana Duralde Kerejeta, Dolores Garate Zabala, bere senarra eta urte beteko umea ere Frantziatik Venezuelara joan ziren. Jose Maria Ugartetxea Ugarteburu, Barinagako abade laguntzailea, Mexikora joan zen 1937an, bere bi ilobekin. Mallukiza - Legarra familiak, Frantzian kontzentrazio esparru batean egon ostean, Belgikara ihes egin zuen, eta handik Kubara.

[47] Hauetariko hiru Frantziatik Txilera bidali zituzten: Urbano Manzisidor Atutxa (Aita Urbano), Pedro Ormaetxea Aldana (Leoncio «Lontzi») eta Joan Martin Garate Zubillaga (Aita Joan Martin). Markinako komentuko beste fraide karmeldar bi Perura bidali zituzten: Felipe Etxebarria Alakano (Aita Pio) eta Pio Ibaibarriaga Oregi (Aita Apolinar).

gizonezkoei ez zieten uzten itsasontzietara sartzen, borrokarako soldaduak behar zirelako. Beraz, hauetariko askok, hiruzpalau aste (batzuk hilak ere) ezkutuan eta ihesean ibili ostean, herrira bueltatzea erabaki zuten. «Garbi» zeudela uste zutelako bueltatzen hasi ziren, 1937ko maiatzaren bukaeran, ekainean eta uztailean zehar. Hauetariko gutxi batzuei ez zitzaien ezer gertatu; baina ia gehienek isunak ordaindu behar izan zituzten, frankistentzako bortxazko lanak egin (Bonifazio Barrenetxea Beraza, Felipe García Maguregi eta Akilino Egiraun Arza, berbarako) edota kartzelan sartu zituzten[48]. Guztien gainetik, aipagarriak dira Hilario Aretxabaletaren eta Joan Loiolaren kasuak. Hilario eta Joan 1937ko ekainean bueltatu ziren, ezer txarrik ez zutela egin eta ezer ez zitzaiela gertatuko pentsatuta. Berehala atxilotu zituzten, eta, ostean, fusilatu: Hilario 1937ko uztailaren 21ean, eta Joan irailaren 9an.

Iheslarien eta atxilotutakoen egoera oso txarra zen, baina, egia esan, Esperanzarekin Zamudiora lanera joandakoena ez zen hobea.

1937ko apirilaren amaieran, maiatzean eta ekaineko lehen asteetan, hau da, Nafarroako Bosgarren Brigada Bilbon sartu aurretik, Zamudiok, Deriok eta, oro har, Txorierriko eta Bilbo inguruko herriek Kondor Legioaren bonbardaketa anitz jasan zituzten, Burdinazko Gerrikoa apurtzeko helburuarekin. Gainera, frankistek bazekiten Zamudioko Esperanza fabrikan Errepublikarentzako armak egiten zirela, eta are eta amorru gehiagorekin bonbardatzen zuten fabrika ingurua. Langileek une latzak pasatu zituzten 1937ko apirilaren bukaeratik ekainaren erdi ingurura arte. Hauetariko bonbardaketa bat Gernika suntsitu osteko egunetan gertatu zen. Castor Uriartek idatzi bezala: «A los pocos días, enterados por los guerniqueses franquistas de la situación de nuestra fábrica de material de guerra en Zamudio, nos la bombardearon sañudamente, pero no consiguieron destruirla, porque la protegían varias capas de hormigón armado que tenían los pisos superiores» (Uriarte, 1976: 81-82). Badirudi, egun horretako bonbardaketan, ez zela inor hil, baina 1937ko ekainaren 11koan, Antonio Arregi Arrizabalaga (Etxebarria, 1913 – Bilbo, 1937) hil zen. Antonio p*iko arbola baten azpian ezkutatu zen erasoa hasi zenean, eta bonba baten metrailak zauritu egin zuen. Bilboko ospitale zibilera eraman zuten, baina biharamunean hil zen*. Markina, Xemein eta Etxebarria frankisten eskuetan zeudenez, *Vista Alegreko kanposantuan lurperatu zuten* (Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostena).

Antonio Arregi hil eta bi egunetara, 1937ko ekainaren 13an, frankistek Burdinazko Gerrikoaren zati bat apurtzea lortu zuten, eta Derion eta Zamudion sartu ziren. Zamudioko Esperanza fabrika frankisten eskuetan gelditu zen. Ordurako, Castor Uriarte, enpresako zuzendari-gerentea, eta baita langile asko ere ihes eginda zeuden. Gelditu zirenetariko bi lantegian berbertan atxilotu zituzten hurrengo hiletan: Hilario Arakistain Urriolabeitia «Zestero» 1937ko uztailetik irailera bitartean atxilotu zuten, eta Kasilde Aginaga 1938ko maiatzaren 27an.

Ekainaren erdi inguruan, Bilbo babesten zuen Burdinazko Gerrikoa oso ahul zegoen. Soldadu errepublikarren morala baxua zen, bazekitelako frankistak momentu batetik bestera erasoko zutela, Bilbo hartzeko helburuarekin. Hortaz, 1937ko ekainaren 16an, Agirre Lehendakariak Artxanda zaintzen ari ziren gudariak bisitatu zituen. Artxanda zaintzen ari ziren gudarien artean, Itsasalde batailoiko hainbat markinar eta xemeindar zeuden, eta Agirre lehendakaria agurtu ahal izan zuten.

---

[48] Ihesean ibili ostean bueltatu eta atxilotu zituztenen artean zeuden, berbarako, Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpas» (1895 - 1947), Hilario Aretxabaleta Arriola, Erramona Arroitajauregi Totorikaguena, Benito Muñoz Azpeitia eta Joan Loiola eizagirre.

Bitartean, Bilbon anabasa izugarria zegoen; herritarrek ez zekiten zer gertatzen ari zen Artxandan zein Burdinazko Gerrikoaren beste posizioetan, eta beldurra eta urduritasuna ziren nagusi. Luis Bernaola Txurruka (Markina, 1905 - Bilbo, 1981) markinarra izututa zegoen, abade josulaguna izanik, giro anarkiko hartan zerbait gertatu ahal zitzaiolako. Laguntza eskatu zion, beraz, Bilbon bizi zen Maria Ansola elgoibartarrari. Mariak laikoen arropak lortu zizkion, eta Deustuan zituen ahaide batzuen etxean ezkutatu zuen, gauzak lasaitu bitartean. Behin Francoren tropak Bilbon sartu zirenean atera zen ezkutalekutik.

Gudariek Artxanda galdu zuten, baina 1937ko ekainaren 17an, Kirikiño, Itsasalde eta Itxarkundia batailoiek, beste unitate batzuen laguntzarekin, Artxanda berreskuratu zuten ordu batzuetan, baita Fuerte Banderas, Artxandasarri eta Artxandako kasinoa ere. Borroka hauetan, hainbat gudari eta miliziar hil ziren. Hala ere, handik ordu batzuetara, irabazitako posizioak berriro galdu zituzten. Honen ostean, inork ez zuen zalantzan jartzen frankistak berehala sartuko zirela Bilbon.

Ekainaren 17an, Artxandan borrokaldi gogorrak gertatzen ari ziren bitartean, Castor Uriartek Bilbotik irten, eta Santanderrera heltzea lortu zuen. Handik Frantziara hanka egin zuen, eta bere familiarekin elkartu zen Azkainen: «…la antevíspera de la entrada de las tropas de Franco en Bilbao, logramos huir a Santander, embarcados en un buque inglés, escondidos en sus bodegas, hacia Burdeos; reuniéndome con mi familia que estaba instalada en Azcain, y allí terminó nuestra odisea, como la de otros muchos vascos» (Uriarte, 1976: 82).

Pakita Ugarte eta Libe Altuna andereñoek ere ekainaren 15ean edo 16an ihes egin zuten Bilbotik Santanderrera, eta Donibane Garazin errefuxiatu ziren. Gregorio Arrienek modu honetan azaltzen du Libe Altunak, Pakita Ugartek eta beste hainbat irakasle, ume eta laguntzailek 1937ko ekainaren 22an Santanderretik Ipar Euskal Herrira egin zuten bidaia (Arrien, 1983: 169-170): «Por fin, el día 22 de junio pudieron partir para Francia, a bordo de un barco carguero francés. Era un buque carbonero, muy poco cómodo, pero aún así ellos podían considerarse unos privilegiados, ya que podían salir, cuando había en Santander muchísimos vascos que esperaban ansiosamente la oportunidad de huir y cruzar el mar; pero, aunque lo deseaban no lo podían hacer. Después, saldrían de Santander más barcos hacia Francia. La tripulación francesa se portó muy bien con ellos; pudieron comer de todo, a bordo. Tenían pan blanco en abundancia, queso y mortadela. Todo lo que había en Francia. La travesía se hizo con toda felicidad. Y aunque les salió al encuentro el 'Cervera', a las cuatro o cinco horas de navegación, no pasó nada de particular. El barco no era muy grande, y los niños con las maestras, hubieron de acomodarse en las bodegas, mientras sus maletas y sus atados de ropa iban en la cubierta. Se dormía en el suelo, en las habitaciones, donde se podía. Eran sólo 24 horas de travesía, al cabo de las cuales llegaron a Pauillac; allí desembarcaron. Desde allí a la colonia de Donibane Garazi el recorrido se hizo por ferrocarril. Llegaron a su nueva residencia el día 24 de junio; el pueblo de Donibane Garazi estaba de fiestas. El recibimiento no fue muy cordial, sino todo lo contrario. Lo recuerdan bien: ellos los niños, pasaban por las calles del pueblo de Garazi en filas, camino de la 'Citadelle', situada en un lugar alto del pueblo. El recibimiento y el primer encuentro con aquel pueblo euskaldun no fue todo lo cordial que se esperaba. También allí se les tachaba de 'rojos'. Pero eso sería por poco tiempo. Eran más de 500 niños, con ellos iba el Director D. Vicente Amézaga y el resto del personal docente auxiliar».

Txomin Onaindiak, Jose Antonio Oar-Artetak eta beste 34 abade eta elizgizonek ere ekainaren 18an ihes egin zuten Bilbotik Santanderrera, eta uztailaren 3an, Molton

itsasontzian ontziratu ziren. Uztailaren 6an jaitsi ziren itsasontzitik Pauillac-eko portuan (Oar-Arteta, 1991: 18, ikusi ere Ispizua, 1986: 31-36). Bi abadeok urteak iraungo zuen erbestealdia hasi zuten egun horretan.

Herrian gelditu ziren senideei buruzko ardura, etorkizunari buruzko zalantzak, bizitza berri bat hasi beharra… iheslariek oso momentu latzak bizi izan zituzten 1937ko udaberrian. Horregatik, Frantzian errefuxiatu ziren markinarrek eta xemeindarrek harreman estuak izan zituzten euren artean. Iparraldean errefuxiatu ziren Jose Antonio Oar-Arteta (Ziburun), Segundo Olaeta (Donibane Garazi), Castor Uriarte (Azkaine) eta Onaindia familia (Azkaine) askotan egoten ziren elkarrekin (Oar-Arteta, 1991: 23). Bernardo Aretxabaleta, bere koinatu Joan Martin Garate fraide karmeldarra, Anastasio Barrenetxearekin «Txirget» eta Tomas Duralde elkarren alboan bizi ziren Akizen (Dax), eta harreman estua zuten Elixabete Aginagarekin «Ete-rekin», Alberto Onaindiarekin eta Markinako eta Xemeingo beste errefuxiatu batzuekin. Sare txiki hauek ziren atzerriko bakardadean errefuxiatuek zuten babes bakarra.

Castor Uriarte, Pakita Ugarte, Libe Altuna, Txomin Onaindia, Jose Antonio Oar-Arteta eta Frantzian errefuxiatu ahal izan zuten guztiak zorteko izan zirela esan daiteke. Beste markinar eta xemeindar batzuek ere Bilbotik ateratzea lortu zuten, ekainaren 17tik 19ra, baina Santanderren, Santoñan, Limpiasen edo Laredon atxilotu zituzten abuztuaren bukaeran, eta frankisten errepresio gordinena jasan behar izan zuten.

1937ko ekainaren 18an, Francoren tropak Burdinazko Gerrikoa apurtu eta Bilbon berehala sartuko zirela pentsatuta, Euzkadiko Jaurlaritzak Larrinagako kartzelan eta Karmeloko komentuko kartzelan zeuden tradizionalista, eskuindar, militar edo Francoren aldekoak libre uzteko agindua eman zuen. Itsasalde batailoiak burutu zuen ekintza hau, eta batailoi honetako gudariek askatu eta eskoltatu zituzten atxilotuak Bilboko Santo Domingoko gainera (Vargas Llosa, 2001: 315). Preso ohiek Derion egin zuten bat Francoren tropekin. Libre gelditu ziren eskuindarren artean zegoen Jose Luis Gaitan de Aiala, Markinako alkatea. Jose Luis Gaitan de Aiala 1937ko otsailean atxilotu zuten Aulesti inguruan (Onaindia, 1980: 234), eta Larrinagako kartzelan egon zen preso 1937ko ekainera arte.

Atxilotuak askatzen zituzten bitartean, Itsasaldeko konpainia batek, Julian Etxaniz «Olazar» xemeindarraren agindupean, San Antongo zubia zaindu zuen. Ez zuten nahi inork zubia lehertzea eta preso eskuindarren askapena zapuztea.

3.8. **1937ko ekainaren 19a: frankistak Bilbon sartu ziren**

Ekainaren 19an, Nafarroako Bosgarren Brigada Bilbon sartu zen. Markinatik eta Xemeindik ihes egin zuten zibil batzuek ez zuten nahi izan aurrera egiterik, eta Bilbon bertan hartu zituzten preso. Ekainaren 19an eta osteko egun eta asteetan Bilbon atxilotu zituztenen herritarren artean zeuden: Doroteo Etxebarrieta Belaustegi, Domingo Urbieta Elizgarai, Txomin Aretxabaleta Arriola, Inazio Azkue Goia, Jose Cazalis Sarasua, Manuel Casaliz Sarasua, Agustin Arrate Elordi eta Julian Azkarate (Karioka). Haueta-riko asko Deustuko Unibertsitatean edo Larrinagako kartzelan sartu, eta, epaiketa militarra egin ostean, Estatuko kartzeletan edo kontzentrazio esparruetan sakabanatu zituzten.

Zibilekin batera, hainbat miliziar eta gudari ere atxilotu zituzten Bilbon bertan; besteak beste, Julian Etxaniz «Olazar» eta Migel Ibarluzea Madinabeitia «Itsulapiko»; hurrenez hurren, Itsasalde batailoiko kapitaina eta gudaria.

Milaka izan ziren Bilbon atxilotutakoak, baina batzuk ezkutatu egin ziren, eta atxiloketa ekidin ahal izan zuten. Donato Ugartetxea Zabala, Goitxi baserrikoa (Xemein), berbarako, Bilbon zegoen frankistak sartu zirenean, baina handik ihes egitea lortu zuen, eta Angostoko (Araba) pasiotarren monasterioan ezkutatu ahal izan zuen, pare bat urtez. Morroi lanak egiten zituen bertan, Joan Zabala izenarekin. Donato 1939an bueltatu zen Donostiara, baina bi urte egin zituen etxetik atera gabe, beldurtuta.

Bruno Alkorta Arroitajauregi xemeindarra ere ezkutatu egin zen, Bilbo inguruan, eta, baldintza oso txarretan bizi izan bazen ere, atxiloketa saihestea lortu zuen.

Jerardo Ibarluzea Iriondok «Itsulapikok» (Markina, 1887 – Markina, 1951) Markinatik ihes egin ostean, bi urte egin zituen Bilbon bizitzen, Markinara etorri gabe. Gehiegi nabarmendu gabe, atxiloketa saihestea lortu zuen.

Pedro Onaindia, Xemeingo idazkaria, ezkutatu egin zen frankistak Bilbon sartu zirenean, eta abuztuaren 12an, Donostiara heltzea lortu zuen falangista jantzita. Gero, mugalari baten laguntzaz, Biriatutik zehar, Azkainera heldu zen, 1936ko abuztuaren 15ean.

Bilbo hartu ostean, soldadu frankistak Enkarterrira abiatu ziren, Bizkaia osoa konkistatzeko asmoarekin. Ondorioz, ekainaren bukaeran, borrokaldi gogorrak izan ziren Bizkaiko mugan, ihesean zihoazen soldadu errepublikarren eta frankisten artean. Borroka horien baitan, 1937ko ekainaren 29an, Jose Domingo Larrinaga Larrinaga «Azpikoerrota» (Xemein, 1916 – Turtzioz, 1937) hil zen Turtziozen. Irrintzi batailoiko gudaria zen (Egaña, VIII: 232). Familiakoek izan zuten heriotzaren berri, baina Markina eta Xemein frankisten eskuetan zeudenez, ezin izan zuten hilotzaren bila joan.

Ekainaren bukaeran, Bizkaia ia osoa frankisten eskuetan zegoen, eta borroka ia guztiak bukatuta zeuden. Hala ere, abertzale eta ezkertiarren aurkako errepresioak tinko jarraitzen zuen.

1937ko ekainean, Isidoro Aldaz Zabalzak (Aita Sergio) (Iruñea, 1888 - Santander, 1971) karmeldarren probintzialak, Aita Martin Uriarte Odriozola (Aita Martin) presionatu zuen, Markinako komentuko priore postuari uko egin ziezaion. 1937ko ekainean utzi zuen postua, eta Julio Ibarra Uriartek (Aita Julio) (Zeanuri, 1904 – Zornotza, 1970) hartu zuen (Urkiza, 1992: 505).

1937ko uztailaren 4an, bestalde, Benito Aginaga Ugalde «Mendaro» zendu zen Gasteizko kartzelan. Francoren tropak sartu osteko egunetan, maiatzaren hasieran, atxilotu, eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, Gasteizko kartzelara eraman zuten. 1937ko ekainaren 29an, ospitale militarrean sartu zuten, eta handik bost egunetara, uztailaren 4an, hil zen; epailearen txostenaren arabera, bronkoneumoniaz. Eusko Jaurlaritzak dituen datuen arabera fusilatu egin zuten[49].

1937ko uztailaren 9an, Hilario Aretxabaleta, Txomin Aretxabaleta, Inazio Ugarteburu eta Benito Muñoz markinarrak epaitu zituzten Bilbon. Hilario Aretxabaletari, Txomin Aretxabaletari eta Inazio Ugartebururi heriotza zigorra jarri zieten, eta Benitori betirako kartzela zigorra (Airmn, 140-1944 txostena)[50].

1937ko uztailaren 13an, Jose Maria Arizmendiarrieta abadegai markinarra atxilotu zuten Bilbon. Jose Maria Euzko Gudarosteko soldadu egin zen 1936ko abenduan, eta sei

---

[49] http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47contmh2/es/contenidos/informacion/listado_personas_desaparecidas/es_memoria/a_listado_personas_desaparecidas.html

[50] Kartzelan egon zirenen informazioa bi artxibotatik lortu dut, batez ere: Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste, Ferrol (Airmn), Bilbao funtsatik eta Archivo General de la Administración (AGA), Alcala de Henares, artxibotik. Laburbildu asmoz, lehenengo artxiboa Airmn akronimoarekin agertzen dut eta bigarrena AGArekin.

hilabetez kazetari lanak egiten aritu zen *Eguna* egunkarian, «Arretzinaga» izenordea erabiliz (Molina, 2005: 141-142). Franco Bilbon sartu zenean, 1937ko ekainean, Frantziara alde egiten saiatu zen, baina, azkenean, Markinara bueltatu zen, uztailaren 2an edo 3an. Dena den, Bilbora eraman zuen taxilari markinarrak salatu ostean, Bilbon atxilotu zuten, 1937ko uztailaren 13an, eta, egun horretan berbertan, Larrinagako kartzelan sartu zuten, abuztuaren 2ra arte (Molina, 2005: 158-142). «Gizona etxean sartuta zegoen denbora osoan, eta, beraz, Tomasari egokitu zitzaion herrira joan eta semearentzat laguntza eskatzea. Parrokoarengana, Barquinengana joan zen, Markinako agintari berrien laguntza bereganatzen lagundu ziezaion. Alkateak ez zuen laguntzeko gogorik, baina amore eman behar izan zuen Barquinen presioaren aurrean, eta agiri bat idatzi zuen, esanez Jose Mariak 'beti portaera egokia izan zuela alde sozialetik, politikotik, erlijiosotik eta moraletik, eta herriko erregistroan ez zela ageri haren aurkako ezer'. Barinagako parrokoak diktatu zuen agiriaren testua. Antzeko agiriak idatzi zituzten handik hiru egunera herriko beste bi gizonek. Falangistak eta gizartean gain-gainean zeudenetakoak ziren biak» (Molina, 2005: 164). 1937ko abuztuaren 2an egin zioten epaiketan, Garikano Goñi fiskalak heriotza sententzia eskatu zuen beretzat, baina, azkenean, absoluzioa lortu zuen, erakutsi zuenean kuarteletik kobratzen zuela eta ez egunkaritik; hau da, propaganda lanetan ibili ordez, gerrara halabeharrez joan behar izan zuela demostratu zuenean. Gero, Burgoseko bulego militar batera bidali zuten soldaduska egitera. Abadetzarako ikasketak 1940an bukatu zituen, eta 1941eko urtarrilaren 1ean eman zuen bere lehen meza Barinagan.

Jose Maria Arizmendiarrieta preso hartu zuten egunean, uztailaren 13an, epaileak Hilario Aretxabaleta, Txomin Aretxabaleta eta Inazio Ugartebururen kasuak berrikusi zituen, eta Txomin Aretxabaletari eta Inazio Ugartetxeari heriotza zigorra kendu zieten, betirako kartzela zigorraren truke. Hilario Aretxabaletari, aldiz, hasierako heriotza zigorra mantendu zioten. Hilario Markinako EAJ-ko Uri Buru Batzarreko lehendakaria zelako eta Markinan eratu zen Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuelako fusilatu zuten Derioko kanposantuan, 1937ko uztailaren 21ean.

Hilario fusilatu eta zortzi egunera, 1937ko uztailaren 29an, epaileak heriotza zigorra eskatu zuen Joan Loiola eizagirre «Zumarra» xemeindarrarentzat.

Joan Loiola eizagirrek Francoren tropak sartu aurreko egunean, apirilaren 26an, ihes egin zuen Bilbora, baina ekainaren bukaeran edo uztailean bueltatu zen. Atxilotu, eta Markinako kartzelatik, Larrinagako kartzelako lehen galeriako 19. ziegara eraman zuten. Bere aurkako heriotza sententziak zioen abertzale sutsua zela. Horrez gain, 1933ko hauteskundeetan hauteskunde mahaian zegoen norbait jotzea leporatzen zioten (Egaña, 2000, VII. tomoa: 219). Uztailaren amaieran, ez dakit egunik, Jeronimo Sanchezen aurkako heriotza epaia ere atera zen, eta, kasu honetan ere, epaileak heriotza sententzia eskatu zuen.

Abertzale eta ezkertiarren aurkako epaiketek aurrera segitu zuten 1937ko uztailean eta abuztuan. 1937ko uztailaren 30rean, epaileak heriotza zigorra eskatu zuen Anbrosio Mallukiza markinarrarentzat eta Bonifazio Egurrola Ziortza-Bolibarko semearentzat[51]. Tomas Beesik dioen bezala: «Aita –eta, eruan zituenetik hamabost egun edo iru astera, epaia: egunkarian, iru Markiñekuei eta Bolibarko bateri eriotza[52], eta bestiei bizitza guztikoa zan zigorra. Erri bientzako au izan zan albiste baltza: zortzirak, familietako gizon ondradu eta normalak. Sinistu eziñik, zerbait egiteko jagi ziran, zerbait egin naian,

[51] Epaiketa berean, Jose Maria Gerrikabeitia Aranguren eta Pedro Gerrikagoitia Jaio Ziortzakoak libre atera ziren.

[52] Hiru markinarrak eta bolibartar bat honako hauek ziren: Joan Loiola eizagirre «Joan Zumarra», Jeronimo Sanchez, Anbrosio Mallukiza eta Bonifazio Egurrola.

eta epaiaren barriztapena lortu eben, bitartian lan gogor egiñaz zerbait lortzekotan. Eta beste iru edo lau aste pasau ziran epai barrirako (Gerrikagoitia, 2000: 84)… Ara emen epai barrian zer: zigor bardiña lau eriotzadunei eta aurrera lengua, eurakgaitik berriztatze ori eskatu izan arren…» (Gerrikagoitia, 2000: 86).

1937ko abuztuaren 2an, bestalde, Aita Jose Domingoren aurkako epaia sinatu zuen epaileak: zortzi urteko kartzela zigorra (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 13), abertzale sutsua izateagatik eta fraidegaien artean propaganda nazionalista egiteagatik (Urkiza, Unzueta eta Fernandez De Mendiola, 2005: 386).

3.9. **1937ko uztaila: egitura erlijioso, sozial, politiko eta kultural berriak Markinan eta Xemeinen**

Abertzaleen, errepublikazaleen eta ezkertiarren aurkako jazarraldiarekin batera, FET-JONS-eko kideek egitura sozial, ekonomiko, politiko eta erlijiosoak eraberritzeari ekin zioten. Gizarte berri batek aurkariak desagerraraztea eskatzen zuen, baina baita erakunde berriak sortzea ere.

Aita Martin Uriarte (Aita Martin) Markinako karmeldarren priore postutik kendu ostean, uztailaren 30rean, komunitate berria eratu zen komentuan. Fraideetariko asko ihes eginda edo espetxean zeudenez, fraide berriak ekarri zituzten kanpotik[53].

1937ko irailaren 30rean, Aita Silberio Santa Teresarena Definitore Jeneralaren ikustaldi kanonikoa izan zuten fraideek, eta komentuko ikustaldi aktetan Jeneralaren aholkuak idatzi zituzten: nagusiak aberriaganako maitasuna bultzatu behar zuela agindu zien (argi dago Espainiari buruz ari zela), politika gaiei, nazionalismoari eta separatismoari buruz hitzik egin gabe, horrek erlijiosoen artean zatiketak sortzen zituelako; eta komentuko agintariek neurriak hartu behar zituztela, aurrekoa bete eta fraideen artean anaitasuna bultzatzeko (Urkiza, 1992).

1937ko urriaren 30rean, Begoñako karmeldarren komentua espetxe bihurtua zegoelarik, Markinako Karmengo fraidetxea teologoen ikastetxe izendatzea erabaki zuten karmeldarrek. 1937ko azaroan hasi zen ikastaroa. Etorri ziren lehen irakasleak Aita Antonio Bikuña Zinkunegi (Aita Eduardo) eta Jenaro Urkixo Agirre-Eleizpeiti (Aita Jenaro) izan ziren, eta ikasleak soldaduska amaitutako hamabi bat gazte (Urkiza, 1992: 290). Definitore Jeneralak esandakoei jarraituz, ikastetxeko buru berriak fraide berriengan Espainiarenganako maitasuna bultzatzen saiatu ziren.

Egia esan, Asaltoko Guardiak, militarrak eta FET-JONS-eko kideak ez ezik, abade eta fraide frankistak ere funtsezkoak izan ziren egoera politiko berria eta Estatu faxista sendotzerakoan. Eliza kontrol sozialerako eta propaganda politikorako gunea bihurtu zen.

Arlo politikoan ere gauzak zeharo aldatu ziren. 1937ko abuztuaren 4an, Udal berriak sortu ziren bi herriotan. Bizkaiko Gobernari Zibilaren aginduz, Markinako Udala honako pertsona hauek osatu zuten (Garaian, 1, 1987: 29): Felipe Gaitan de Aiala Costa, alkate, eta Rikardo Urkieta Txopitea (Lehen Alkate Ordeko), Alejandro Duralde Barrenetxea (Bigarren Alkate Ordeko), Jose Maria Cazalis Salazar, Fermin Alberdi Alberdi, Gonzalo Goiogana Elordi, Jose Urkiza Arriaga, Jose Kareaga Mandiola eta Jeronimo Mendibe Ikaran zinegotziak. Idazkaria Federiko Pradera Mendibe zen.

---

[53] Uztailaren 30rean heldu ziren Julio Ibarra - Aita Julio Ume Jesusena priore berria, Aita Zelso Sortzez Garbiarena, priore ordezkoa eta ikasle teologoen maisua (hau abuztuaren erdialdean) eta beste hainbat fraide berri.

1937ko azaroan, Espainiako Gobernuak zinegotzien kopurua zortzitik seira jaisteko agindua eman zuen, eta Gonzalo Goioganak eta Jose Urkizak utzi egin zuten Udal Batzordea.

1937ko abuztuan, Xemeinen ere Udal Batzorde berria osatu zen. Alkate berria Jose Orbea izan zen, eta zinegotziak: Jose Maria Rekalde, Rafael Urbieta, Manuel Alzibararetxuluaga, Jose Martin Gisasola, Francisco Arriola eta Esteban Ibarluzea.

Udala eta eliza ez ezik hezkuntza sistema ere Francoren «gurutzadaren» alde jarri zen. Eskola kontrol sozialerako, homogeneotasun kulturalerako eta errepresiorako tresna baliagarria bihurtu zen.

Frontea geratuta egon zen zazpi hiletan, ez zen klaserik egon, eta umeek ikasturte bat galdu zuten. 1937ko irailean, klaseak hasi ziren, Xemeinen zein Markinan; eta bi eskolok erregimen berriaren zutabe garrantzitsu bihurtu ziren: euskaraz hitz egitea debekatu zitzaien umeei, momentu guztietan Franco goraipatzen zen, eta tropa frankisten arrakastak ospatzen ziren. Gernika gorriek erre zutela esaten zieten umeei, nahiz eta hauek Gernika erre zuten hegazkinak ikusi zituzten. Eskolak umeak doktrinatzeko eta galtzaileak irain tzeko gune bihurtu ziren. 1937ko azaroan edo abenduan, Leon Barrenetxea umea Artibai kaleko eskolara eraman zuen bere amak, Bilbon ihesean denboraldi bat ibili ostean. Handik gutxira, Markinako alkatea sartu zen eskolan, eta irakaslearekin hitz egin ostean, eskolatik atera zuen, eta debekatu egin zion berriro eskolara bueltatzea, abertzaleen semea zelako, eta bere aita ihes eginda zegoelako. Handik aurrera, Leonek klase partikularrak hartu behar izan zituen. Beste ume batzuei ere gauza bera gertatu zitzaien.

FET-JONS-eko kideek goitik behera kontrolatzen zuten maisuek eta ikasleek eskola orduetan egiten zutena: eskolan sartu orduko «Cara al Sol» ereserkia abestu behar zuten guztiek, eta, errezatu ostean, Francok konkistatutako hiri eta lurraldeak erakusten zizkieten. Goizean zein bazkalondoan arrosarioa errezatzen zuten. Eskola liburuxketan eta arbelean, dataren ondoan, honako esaldi hauek idatzi behar izaten zituzten umeek: «1937, 1. año triunfal; 1938, 2. año triunfal... ». Jose Ramon Argoitiak (Shangai, 1931-) ondo azaltzen du 1937an Markinako eskolan bizi zen giro frankista eta antieuskalduna: «Sei urtegaz sartu ninduen eskolan, txinoz eta euskeraz baino ez nekiela. Baina bai erderea laister ikasi be, maixu baten belarriondoko mordo bati esker. Gogoan dot, oraindik be, zelan eskolatik aparte, baina hezkuntza sistemaren barruan, instrukzio militarrak (paramilitarrak zuzenago) egiten genduzan, egurrezko 'mauser'ekin, tanbor eta guzti, Xemeingo meza ordura arte.

Oso ondo gogoratzen naz, baita be, garai haretako Laurentzi Murgizu mutil koskorragaz. Beti zigortuta eukiten eban maixuak 'Lorenzo' deitu honek eta berak 'Laurentzi' zala zuzentzeagatik.

Gu baino 10-12 urte nagusiagoak kontrolatu egiten ginduezan benetako mauserekin, Zabalaneko etxean egoan Falanjeko kuartelean.

Garai hareetan Markinan ez egoan 'Frente de Juventudes'ik, baina Begoñako 'Centuria'k etorten ziran zelaira, euren denda eta abarrekin. Pelota partiduak eta boxeoa antolatzen eben, abestu… Boxeoa, esate baterako, 'Circulo'an egiten zan. Bizkaiko Txapeldun Barinagak eta Kale Okerreko 'Potolo' Gandiaga ('Txitxiano') zanak egin eben boxeo erakustaldi bat bertan» (Aransolo eta Barinagarrementeria, 1995-16: 19).

Euskararen eta euskal kulturaren aurkako «gurutzada» ere berehala hasi zen. Mezak euskaraz ematea debekatu egin zen; FET-JONS-eko kideek errieta egiten zieten kalean euskaraz hitz egiten zutenei, guztiz gain, umeei; eta euskal izenak zituzten umeen gurasoak gaztelerazkoa jartzera behartu zituzten. Agintari berriek Xemeingo kanposantuan euskarazko inskripzioak zituzten hilobiei ere buelta eman eta erdaraz jartzeko agindua eman zuten, 1937ko martxoaren 15eko aginduan oinarrituta (Egaña, 2000, VII. tomoa:

207). Auzo eskolei (Larruskain, Azpiltza, Goierri eta Iturreta), horman itsatsita zuten euskarazko inskripzioa kendu zieten. Egun batetik bestera, ikur eta idazki euskaldunak desagertu ziren, eta ikur frankistak ugaldu.

Gizarte egitura berria sortzeko eta sendotzeko gobernuak dirua behar zuen. Errepublikazale eta abertzaleei jarritako isunak dirua lortzeko bide erraza izan zen Francorentzat. Horrela, Jose Seva komandanteak isunak jarri zizkieten, FET-JONS-eko kideek egindako zerrendetan, abertzale edo ezkertiar gisa agertzen zirenei: Jose Maria Arizmendiarrietaren aitak, Barinagako Iturbe baserriko Jose Luis-ek, 5.000 pezetatako isuna ordaindu zuen, EAJ-ko kidea izateagatik (Molina, 2005: 164). Ramon Olabarria Zelaia, «Txasiok», 5.000 pezeta ordaindu zituen abertzalea izateagatik eta hauteskunde garaian EAJ-koen aldeko botoak biltzen ibiltzeagatik. Pedro Agirreamalloak, Olabe baserrikoak, 3.000 pezetatako isuna ordaindu behar izan zuen, Xemeingo EAJ-ko zinegotzia izateagatik. Gainera, handik aurrera, beste baserritar batzuen artean gobernuarentzako zerga bat kobratzera behartu zuten[54]. Antonio Oregi Olalde barinagarrak eta Zamora baserriko Joan Barruetabeñak 5.000 pezeta ordaindu zituzten, gerratean zinegotzi abertzalea izateagatik[55]. Egia esan, asko izan ziren 3.000 eta 5.000 pezetatako isunak ordaindu zituztenak. Kontuan izan, era horretako isunak izugarriak zirela garai hartan. Langile arrunt baten hamar urteko soldata zen. Izan ere, langile arruntek 300-400 pezeta inguru irabazten zituzten urtean (1936an, Esperanza fabrikako langileek zazpi pezeta irabazten zituzten astean).

Abertzale edo errepublikazale batzuk zoritxarrekoagoak izan ziren, eta lehenengo denboraldi bat kartzelan egin, eta, gero, bertatik ateratzeko isunak ordaindu behar izan zituzten. 1937ko maiatzaren hasieran, Alberto Urbieta «Albertin», Martin Laka, Bitoriano Ugarte okina, azken honen emaztea, Jesusa Urreta, Jesus Egia maisua, Migel Larrinaga «Bolu» okina, bere emaztea, Teresa Gisasola, Casimiro Aliende, Basilio Bollar Okerra kaleko dendaria, Gilermo Barruetabeña «Txinpas» pregoilaria eta Enrike Arriaga «Kurutzebarri» arotza Markinako kartzelan sartu, eta Teresa Gisasola kenduta, beste guztiak Gasteizko Aliko eskoletan zabaldu zuten kartzelara eraman zituzten. Guztiek hil bat edo bi egin zituzten preso, eta 1937ko ekainean zehar atera ziren libre, isun handiak ordaindu ostean. Martin Laka Mandiolak bi hil eskas egin zituen Gasteizko kartzelan, eta, 1937ko ekainaren 22an, bere emazteak 10.000 pezeta ordaindu behar izan zituen bere senarra kartzelatik libratzeko (1938ko uztailaren 27an, beste isun bat ere ordaindu behar izan zuen, oraingoan 2.000 pezetatakoa). Enrike Arriaga «Kurutzebarrik» 1.000 pezeteta ordaindu behar izan zituen, eta, horrez gainera, bederatzi hiletan desterratu egin zuten Iruñeara. Teresa Gisasolak 5.000 pezetetako isuna ordaindu behar izan zuen bere senarra, Migel Larrinaga, kartzelatik libratzeko. Alberto «Albertin» Urbieta Elizgaraik

---

[54] Pedro Agirreamalloa Solozabal (1888 - 1952) Xemeingo Olabe baserrikoa zen, eta Eusebia Olalderekin zegoen ezkonduta. 1933ko apirileko udal hauteskundeetan, Xemeingo zinegotzi bihurtu zen EAJ-tik. Dena dela, 1934an, dimititu egin zuen, «Ardoaren gerragatik». Bere arreba Maria Agirreamalloa Solozabal izan zen. Beraz, Jose Domingo Balentziaga Maguregi (1889 - 1960) eta Pedro Agirreamalloa koinatuak ziren eta gerratean biak egon ziren Xemeingo Udal Batzordean; bat EAJ ordezkatzen eta bestea Herri Frontea.

[55] Antonio Oregi Olalde Barinagako Etxenausi baserrian bizi zen, eta errota bat ere bazuen. Abertzalea zen, eta Barinagako batzokiko lehendakaria izan zen Errepublika garaian. 1933ko apirileko udal hauteskundeetan, Xemeingo zinegotzi aukeratu zuten EAJ-tik. Gero, 1934an dimititu egin zuen, «Ardoaren gerragatik». Gerra piztu zenean, garaiko alkate eta zinegotziek utzi egin zituzten udalean zeuzkaten ardurak, eta 1936ko azaroan EAJ-ko eta Herri Fronteko kideez osatutako batzordeak sortu ziren Markinan eta Xemeinen. Antonio EAJ ordezkatzen zuen zinegotzi bihurtu zen Xemeinengo Udal Batzordean.

bere autoa, Morris markakoa, saldu behar izan zuen, Gasteizko Saratxaga epaileak jarri zion isuna ordaintzeko, eta gero desterratu egin zuten Kanariar Uharteetara.

Isunekin batera, desterrua ere gizarte berria sortzeko tresna garrantzitsua izan zen. Frankistek hainbat zigortu zituzten atzerrian bizitzera, euren seme-alaben eta familien egoera kontuan hartu gabe. Agintari berriengandik bueltatzeko baimenak edota informe positiboak lortzen zituztenean, hauekiko esker ona eta mendekotasuna adierazten zuten zigortutakoek, eta horrek sistema politiko berria sendotzen zuen. Alegia, aurretik salatutako berberek ematen zituzten aldeko txostenak, mendekotasuna areagotuz.

Jendea salatu, atxilotu, isunak ordainarazi eta desterratzeaz gain, militarrak eta FET-JONS-eko kideak zigorgabetasunez aritu ziren abertzale eta ezkertiarren ondasunak, komertzioak eta etxeak bahitzen eta lapurtzen. Kasu batzuetan, ihes egin zuten abertzale eta ezkertiarren etxeak Francoren alde borrokatzen ari ziren familiakoei ematen zizkieten.

Hilario Aretxabaleta 1937ko uztailaren 21ean fusilatu zuten. Ostean, eta sententziak adierazten zuen isuna ordaintzeko, estankoaren lizentzia kendu zioetan familiari, baita etxean zituzten ondasun eta altzari asko bahitu ere. Guardia Zibila lau edo bost aldiz sartu zen Hilarioren etxean, dena erregistratuz eta hankaz gora jarriz.



Argazkia: Garaian Aldizkaria
Anbrosio Mallukiza eta bere familia. Anbrosio Mallukiza Aldaolea (Munitibar, 1888 – Derio, 1937) Derion fusilatu zuten 1937ko irailaren hamaseian.

Anbrosio Mallukiza 1937ko irailean fusilatu zuten, eta ostean, Markinako FET-JONS-eko buru batek Anbrosioren dendako gauza guztiak lapurtu zituen, eta bere denda ireki.

Felipe García Maguregi ihes eginda ibili zen, eta 1937ko abuztuan edo irailean bueltatu zen. Bere bi etxeak bahituta aurkitu zituen, eta, gainera, estankoa kudeatzeko baimena galdu zuen.

Tomas eta Gregorio Duralde Kerejeta anaiek hainbat denda, negozio eta auto zituzten gerra aurretik, baina guztiak galdu zituzten.

Jerardo Ibarluzeren etxean, «Itsulapikorenean», ere sartu ziren, familiak ihes egin zuenean, eta hainbat gauza lapurtu zizkieten: besteak beste, izarak, koltxoiak eta etxeko baxera.

Emakume Abertzale Batzako buruari, Natividad Zabalari, bizi zen Zabala jauregiko altzariak, izarak eta etxeko baxera lapurtu zizkioten.

Cazalistarrenean, Artibai kaleko 14.ean, ondasun guztiak lapurtu zituzten, eta gero Francoren alde borrokatzen ari zen soldadu baten familiari eman zioten etxea.

Pedro Onaindia Zuluaga, Xemeingo idazkaria, abuztuaren 15ean ailegatu zen Azkainera, eta, irailaren 3an, On Joxe Migel Barandiaranek elkarrizketatu zuen. Bere adierazpenek argi erakusten dute, 1937ko maiatzetik abuztura arte, bi herriotako ezkertiar eta abertzaleen aurkako jazarraldia izugarria izan zela: «…han sido detenidos muchos cristianísimos vecinos, algunos de ellos condenados a muerte, otros a reclusión de 20 y 30 años, fueron encárceladas 12 mujeres, la mayoría de comunión diaria; han rapado la cabeza a 10 emakumes, obligándolas luego a recorrer las calles; se han impuesto numerosas multas de 3 y 5.000 pesetas a numerosos aldeanos… El robo está a la orden del día. D. Felipe Gaitan de Aiala quiso apropiarse de mis muebles y en una casa habilitada para hospital yo mismo he visto robar objetos de plata, marfil, etc. y echar por la ventana bastones, sombreros. En esta casa habían estado antes nacionalistas y rojos, que respetaron cuanto en ella había» (Bidasoa, 2005: 715).

3.10. **1937ko abuztuaren 25a: gerraren bukaera Hego Euskal Herrian**

Hego Euskal Herrian, 1937ko abuztuaren 25ean amaitu zen Gerra Zibila; hain zuzen ere, Mancini jeneral italiarrak eta EAJko ordezkariak, Joan Ajuriagerrak, Santoñako ituna sinatu zutenean. Ajuriagerrak honako baldintza hauek onartu zituen: Santoña hartuko zuten Corpo Truppe Volontarie-ko (CTV) soldadu italiarrei bidea ez oztopatzea, eta armak eta gerra materiala haien esku uztea; konkistatutako lurretan ordena publikoa ziurtatzea; eta Santoñan eta Laredon errepublikarrek zituzten presoak errespetatzea. Italiarrek, bere aldetik, hitza eman zuten euskal gudarien zein agintarien bizitzak errespetatuko zirela, erbesterako bidea ez zela oztopatuko eta Euzkadiko Jaurlaritzaren alde azaldu zen populazioa ez zela jazarriko (Onaindia, 1983).

Santoñako Ituna sinatu zenean, milaka izan ziren Santoñan, Laredon, Urdializen (Castro Urdiales) eta inguruko herrietan ihes egiteko zain zeuden gudariak eta milizianoak. Italiarrek ez zituzten itundutakoak bete, eta ez zieten utzi itsasontzi britainiarrei gudarien ebakuazioak egiten. Euskal agintariak, gudariak eta milizianoak Duesoko presondegian edo herri horietan zabaldu ziren kontzentrazio eremuetan sartu zituzten preso (Onaindia, 1983)[56].

Gudari eta miliziar arrunten aurkako errepresioa gogorra izan zen, baina jazarraldia bereziki bortitza izan zen Errepublikako armadan graduren bat izan zutenekin. Ekainetik aurrera, hauetariko asko atxilotu zituzten, eta abuztuan eta irailean zehar, epaiketa militarrei aurre egin behar izan zieten. Matxinadari laguntzea salaketapean, heriotza zigorrak eta urte askotako kartzela zigorrak jarri zizkieten.

---

[56] Abuztuaren bukaeran, behin Kantabria hartu ostean, Francok preso pila zituen, eta denak sartzeko tokia behar zuen. Santoñan lau kontzentrazio eremu ireki ziren, 1.200 presorentzako; Laredon 9.000 presorentzako kontzentrazio eremuak zabaldu ziren, eta Urdializen 10.000 presorentzako guneak. Santanderren ere lau kontzentrazio eremu zabaldu ziren, 12.000 presorentzako. Laredon, Jose Maria Arriaga Arrillaga (Markina, 1909 – Markina-Xemein, 1975) Salutregi baserrikoa (Markina) atxilotu zuten; Santoñan, Jose Mari «Txirget» Barrenetxea Artamendi eta Pio Jauregi Plaza fraide karmeldarra; eta Santanderren, Inazio Etxaniz Laka «Olazar» eta Eusebio Sololuze Olasolo, Egiaguren baserrikoa. Joan Ugartetxea «Padarra» Limpiasen atxilotu zuten. Beste hamaika markinar eta xemeindar ere atxilotu zituzten ingurune honetan, eta Duesoko kontzentrazio esparruan eta kartzelan sartu zituzten preso. Besteak beste, Duesoko kontzentrazio esparruan egon ziren: Benito Apoita Ibaibarriaga, Gregorio Cazalis Areitio, Santiago Onaindia Baseta, Gregorio Duralde Kerejeta eta Pako Duralde Kerejeta.

Bizente Batiz Bilbao (Aita Nikolas) (Gerrikaitz, 1907 - Gasteiz, 1995) fraide karmeldarra Euskal Armadako kapilau izan zen, teniente graduarekin (Baraiazarra, 2007: 33-35 eta Martínez, 2007: 66), eta epaiketan, fiskalak heriotza zigorra eskatu zuen. 1937ko abuztuaren 15ean atera zen sententzia: 30 urteko kartzela zigorra.

Santiago Onaindia Baseta (Aita Santi) (Amoroto, 1909 – Gasteiz, 1996) fraide karmeldarra Kirikiño batailoiko kapilaua izan zen. 1937ko irailaren 9an epaiketa militarra egin zioten, eta 30 urteko betirako kartzela zigorra jarri.

Leon Aranguren Artola (Aita Leon) (Aramaio 1906 – Markina-Xemein, 1986) fraide karmeldarra Itsasalde batailoiko kapilau izan zen, kapitain graduarekin (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 48). Atxilotu ostean, epaiketa militarra egin zioten, 1937ko abuztuaren 5ean, eta abuztuaren 14an heriotza sententzia eman zioten (Martínez, 2007: 64 eta Baraiazarra, 2009: 373)[57].

Joan Iturregi Aurrekoetxea (Aita Joan) (Mungia, 1910 - Markina-Xemein, 2004) fraide karmeldarra Larrazabal batailoiko kapilau izan zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 217). Atxilotu egin zuten 1937ko ekainean (Garaian, 35-2004: 28; Baraiazarra, 2009: 394 eta Gutierrez, 2007: 114), eta kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen atxilotuta.

Pio Jauregi Plaza (Markina, 1899 – Olaeta, 1960) abadea Euzko Gudarosteko kapilaua izan zen, kapitain graduarekin. Epaiketa militarra 1937ko irailaren 9an egin zioten, eta «Matxinada Laguntzea» salaketapean, 20 urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri.

Julian Etxaniz Laka «Olazar» (Xemein, 1902 - Markina-Xemein, 1986) Itsasalde batailoiko Boga-Boga konpainiako kapitaina izan zen. Bilbon atxilotu zuten, 1937ko ekainaren 19an. Epaiketa militarrean, heriotza sententzia eman zioten. Geroago, epaia berrikusi egin zuten, eta heriotza sententzia kendu. Hala ere, 33 hilabete egin behar izan zituen kartzelan.

1937ko azaroan, atxilotuta egon ziren euskal armadako 11.000 gudari eta miliziar aske gelditu ziren, 5.400 langileen batailoietara bidali zituzten, 5.600 preso sartu zituzten, eta 510ri heriotza zigorra jarri zieten. Beraz, Errepublikaren alde borrokan aritutako hamaika markinar eta xemeindarrek etxera etorri ahal izan zuten. Hala ere, hauen pozak gutxi iraun zuen. Ia gehienak berehala eraman zituen Francok bere alde borrokatzera. Hain zuzen ere, Bizkaia konkistatu ostean, frankistek 26.000 gazte bizkaitar eraman zituzten frontera (Egaña, 2000, VII. tomoa: 195). Hauetariko asko hilko ziren hurrengo hiletan.

1937ko uztailean eta abuztuan, 1917an eta 1918an jaiotako hainbat gazte markinar eta xemeindar eraman zituen Francok, eta horrek herritarren mendekotasuna, samina, beldurra eta garaituak izatearen sentsazioa areagotu zituen. Gazte hauek 19 eta 20 urte egiten zituzten 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaien soldaduskara joatea tokatzen 1938 eta 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 1938ko eta 1939ko kintak mobilizatzea erabaki zuen. 1938an eta 1939an 21 urte betetzen zituztenek osatzen zituzten kinta horiek. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1937an mobilizatu zituzten 1938ko eta 1939ko kintak. Gainera,

---

[57] 1937ko abuztuaren 27an, Franco jeneralak heriotza sententzia berretsi zuen, eta sententziaren berri ematen zuen eskutitza irailaren 6an heldu zen Karmeloko komentura (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 387-388). Irailaren 7an eta 8an, Bernardino Arroitajauregi – Teodoro Karmengo Ama Birjinarena «Txaraka» (Xemein, 1902 – Buenos Aires, 1984), Bilboko Karmeloko Komentuko priorea (1936 - 1939), Iruñeara eta Belaskoainera joan zen, Olaetxea Monsinorearekin eta Goma Kardinalarekin hitz egitera, Leonen sententzia aldatzeko asmoz. Irailaren 12an, betearazpena atzeratzea lortu zuen, eta 1939ko azaroaren 13an, heriotza zigorra kendu zioten Leoni.

1936ko azaroan Euzkadiko Jaurlaritzak egin bezala, Francok Esperanza militartu zuen, 1937ko urrian, eta langileak diziplina militarpean gelditu ziren. Frontean zeuden langileak ere euren lanpostuetara bueltatu behar izan zuten (Egaña, 2000, VII. tomoa, 193). Esperanza fabrikari esker, gazte markinar eta xemeindar askok heriotza saihestu ahal izan zuten.

Gudari eta miliziar batzuk libre utzi zituzten, baina, hala ere, 1937ko abuztuan, Francok preso gehiegi zituen Bilboko, Santoñako, Duesoko edo Laredoko kartzeletan eta kontzentrazio esparruetan. Bestalde, Frantzian atzerriratuta egon ostean, itzultzea erabaki zuten soldadu errepublikazale asko ere atxilotu zituzten (kontuan izan behar da ihes eginda zeuden soldadu Errepublikarrei 1940ko martxoko epemuga jarri zitzaiela errekluten kaxara aurkezteko. Hortik aurrera, iheslaritzat hartzen zituzten). Horrez gain, frankistek zibilak atxilotzen jarraitzen zuten konkistatutako herrietan, erantzukizun politikoak zituztelako, erregimen berriko agintariek traidoretzat jotzen zituztelako edota iheslariak zirelako. Beraz, 1937ko abuztuaren bukaeran, Francok preso gehiegi zituen, eta hainbat arazo denak giltzapetuta edukitzeko. Egoerari irtenbidea aurkitu nahirik, kontzentrazio esparruak ugaritzen eta langileen batailoiak sortzen hasi zen.

1937ko uztailaren 5eko Estatuko Aldizkari Ofizialean, Burgos probintzian lau kontzentrazio eremu sortzeko agindua eman zion bertako gobernuari. Bi hil geroago, 1937ko irailaren hasieran, Miranda de Ebroko kontzentrazio eremua zabaldu zen[58]. Besteak beste, kontzentrazio esparru honetan egon ziren Joan Karlos Larrinaga «Bolu», Jose Meabebasterretxea «Larrei», Benigno Urkidi Etxezarraga «Karia», Patxi Cazalis «Patxiko Lentes», Joan Arrate Santamaria «Joanito Txorixe» eta Doroteo Etxebarrieta «Antorontxu». Hemen egoten ziren bitartean, presoak langileen batailoietan aritzen ziren lanean, tunel, bide, zubi edo trenbideak egiten. Horrez gain, Errepublika iraintzera behartzen zituzten edota Franco goratzera eta bere alde abestera.

Hainbat markinar eta xemeindar San Pedro de Cardeñako (Burgos) komentuko kontzentrazio esparrutik ere pasatu ziren. 1937tik aurrera, hemen egon ziren, adibidez, Doroteo Etxebarrieta Belaustegi eta Pedro Jose Kaltzakorta Sololuze xemeindarrak eta Luis Foruria Zelaia markinarra.

Atxilotutako guztiak kartzelaratzea edo kontzentrazio esparruetan sartzea ezinezkoa zenez, preso asko bortxazko lanak egitera bidali zituzten, 1937tik aurrera. Migel Cifuentes-ek Noticias de Navarra egunkarian zioenez (2010-5-9), Kontuen Epaimahaiaren Artxiboaren arabera, 550 langileen batailoi sortu zituen Francok 1937tik 1942ra. Horietariko 60 Hego Euskal Herrian aritu ziren lanean (18 Gipuzkoan, 27 Nafarroan, 12 Bizkaian eta 7 Araban). Egia esan, langileen batailoiei buruz hitz egiten da, orokorrean, baina Beaumont eta Mendiola historialariek ederki adierazi duten bezala, erregimen frankistak hiru motatako batailoietan antolatu zituen bortxazko lanak[59]:

---

[58] Kontzentrazio eremu hau 1937tik 1947ra erabili zuten Frankistek. 42.000 metro kuadro zituen, eta Castejon - Bilbo trenbidearen eta Bayas errekaren artean zegoen. 1.500 presoentzako prestaturik zegoen, baina momentu batzuetan 4.000 preso ere egon ziren bertan (Fernández López, 2006). Guztira, 65.000 preso errepublikar pasatu omen ziren hemendik. Txema Floresek dioen bezala: «Preso guztiek, zoru hutsean pilaturik eta lokatz gainean egiten zuten lo. 1937ko neguan, tenperaturak zeropeko hogei gradutara iritsi ziren, eta asko izan ziren gosez eta, batez ere, hotzez hil ziren presoak. Preso askok ez zuen oinetakorik eta askotan oinak traputan edo zakutan bildurik ibiltzea beste aukerarik ez zuten (Flores, 2002: 51).

[59] Bortxazko lanak diktadura frankistan: http://www.esclavitudbajoelfranquismo.org/files/catalogo03IIparte.pdf

1. **Gerrako Presoen Langile Batailoiak** (Batallones de Trabajadores) 1937aren erdialdera eratu ziren, eta era askotako lanak egin zituzten: hasieran, fronteetan erabili zituzten, gerrako materialak berreskuratzen edota lubakiak nahiz kokalekuak eraikitzen. Ondorioz, preso asko hil, eta beste askok ihes egin zuten. Berehala, erretagoardiara eraman, eta errepideak egiten, trenbideak konpontzen edota eraikitzen eta, neurri txikiagoan, lantegietan eta meategietan lanean jarri zituzten. Gerra amaitu zenean, azpiegiturak berreraikitzen erabili zituzten. 1940aren erdialdean, langile gehienak askatu zituzten (haietako asko hiru urte atxilotuta egon ostean), eta Gerrako Presoen Langile Batailoiak desegin.
2. Bortxazko lanak egiteko frankistek sortu zuten 2. batailoi mota **Langileen Diziplina Batailoiak** izan ziren (Batallones Disciplinarios de Trabajadores). 1940ko maiatzean eta ekainean, Gerrako Presoen Langile Batailoietan urte bat baino gehiago atxilotuta zeramaten presoak askatu zituztelarik, gainontzeko presoak Langileen Diziplina Batailoietara bidali zituzten. Hauetara bidali zituzten gehienak, gerra bukatu aurretxoan, 1939ko urtarrila eta apirila bitartean, atzerrira ihes egin, eta gero atzera itzulitako soldadu nahiz zibil errepublikazaleak ziren; salaketaren batengatik edota aurrekari politikoengatik atxilotutakoak ere baziren haien artean. Inongo deliturik leporatzerik ez eta, auzipetu ezinik, zigor txiki gisara, bortxazko lanetara (gehienetan urtebetez) bidalitakoak. Era honetako batailoi gehienak 1940ko bigarren erdialdera arte aritu ziren lanean; batzuk 1942a arte.
3. Azkenekoz, **Soldadu Langileen Diziplina Batailoiak** (Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores) zeuden. Askotan, Gerrako Presoen Langile Batailoiekin eta Langileen Diziplina Batailoiekin nahasten dira; izan ere, haien ondorengo zuzenak izan ziren egiturari eta funtzionamenduari dagokienez. Batailoi hauen lanak ere antzekoak izan ziren: azpiegituren berreraikuntzan aritu ziren (besteak beste, Pirinioak zein Gibraltarko Itsasartea gotortzeko lanak hasi zituzten). Gerrako Presoen Langile Batailoien buruekin eta zaintzaileekin eratu ziren, talde haiek desegin zirenean, eta 1942ko amaiera arte aritu ziren lanean. Beste biekiko alderik handiena bertan aritu zirenen izaera da. Soldadu Langileen Diziplina Batailoietan, 1936 eta 1941 bitarteko kintoak sartu zituzten (1915 - 1920 bitartean jaiotakoak), gerrak etendako soldaduska egin behar zutenak. Erregimenaren aginduz, errekluta guztien sailkapen soziopolitikoa egiten zen udaletan, eta erregimenaren ez-lagun («desafectos») zirenak, armadako unitate erregularretara bidali beharrean, Soldadu Langileen Diziplina Batailoietara bidaltzen zituzten, bortxazko lanei jarraipena emanez. Udaletako agintariek eta Falangeko kideek zehazten zuten nortzuk ziren lagunak eta ez-lagunak, eta horren arabera sailkatzen zituzten soldadu berriak.

Hiru batailoi mota hauetan zeudenek bizi baldintza oso txarrak izan zituzten (badirudi gerrako Presoen Langile Batailoietako eta Langileen Diziplina Batailoietako presoen bizimodua gogorragoa zela soldadu langileena baino). Gosea, hotza, gaixotasunak, zigorrak eta irainak etengabeak ziren. Eskubide guztiak ukatzen zizkieten, eta Espainiaren zoritxar guztien errua leporatzen zieten, «eurek eragindako kalteak» konpontzeko lan eginaraziz. Erorien Harana da bortxazko lanen bidez frankisten egin zuten eraikuntzarik ezagunena, baina beste asko egon ziren. Ramon Esnaola markinarrak dioen bezala: «Estuve primero en Algeciras, haciendo carreteras, vestidos de cualquier cosa. Re-

cuerdo que también hicimos el aeropuerto de A Coruña. Esa fue la etapa más horrible, la de Galicia. Los sargentos y soldados no te dejaban parar de trabajar. Recuerdo aún a una bestia que lo único que hacía era gritar: '¡Cagüen Dios!' Y cogía un palo y nos pegaba. Luego estaban los castigos: te mandaban hacer imaginaria toda la noche en vez de dormir, mandaban a los soldados pegarnos…¡Eran unos sinvergüenzas!» (Palenzuela, Dominguez eta Mendia, 2007: 125).

Hainbat izan ziren langileen batailoietan egon ziren markinarrak eta xemeindarrak[60]. Ia denak Errepublikaren alde borrokatzen egon ziren lehenengo, eta atxilotu ostean, 1937ko ekaina eta abuztuan, langileen batailoietara bidali zituzten. Batzuk 1940ra arte egon ziren batailoi hauetan. Beste batzuek, denboraldi bat egin zuten langileen batailoietan, eta gero Francoren alde borrokatzera behartu zituzten.

Kontzentrazio esparruetara edo langileen batailoietara bidalitakoek gorriak ikusi zituzten. Dena dela, une larriagoak pasatu zituzten Joan Loiolak, Anbrosio Mallukizak, Jeronimo Sanchezek eta Bonifazio Egurrolak. Laurak fusilatu zituzten 1937ko Santa Eufemia egunaren bueltan.

Joan Loiola Eizagirre, «Joan Zumarra» (Xemein, 1903 – Derio, 1937), 1937ko ekainetik zegoen atxilotuta Larrinagako kartzelan. 1937ko irailaren 8an bere emaztegaiaren, Maria Garateren, bisita izan zuen, eta biharamunean, irailaren 9an, Derion fusilatu zuten, 34 urte zituela (Ferrol eta Egaña, 2000 VII. tomoa: 219).

Anbrosio Mallukiza Aldaolea (Munitibar, 1888 – Derio, 1937) jatorriz Munitibarkoa, Markinan bizi zen. Izquierda Republicanako militantea zen, eta gerra piztu zenean, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuen. Gerratean sortutako Udal berrian, Herri Fronteko zinegotzia ere izan zen. Frankistak sartu zirenean, bere familiak alde egin zuen, baina bera gelditu egin zen, bere taberna eta bizartegia zaintzeko asmoz. Atxilotu egin zuten 1937ko maiatzaren hasieran, eta, epaiketan, heriotza sententzia eman zioten. Derion fusilatu zuten.

Jeronimo Sanchez Pesado ere 1937ko iraileko egun horietan fusilatu zutela pentsatzen dut. Jeronimo Mallorkakoa zen jaiotzez, baina Markinan bizi zen bakarrik, Irarragan (gaur egun Etxano taberna dagoen etxearen alboko txabola batean). Lanbidez traperoa zen. Gerratean, milizianoentzako janaria eta behiak bahitzen ibiltzen zen, baserriz baserri. Salatu egin zuten, eta, epaiketa militarra egin ostean, fusilatu.

---

[60] Patxi Alberdi Azkue «Patxiko Aixerna», Anjel Aldazabal Urriolabeitia, Saturnino Aliende Fernandez (langileen 65. batailoian), Rikardo Aretxabaleta Izaola, Joan Aretxabaleta Izaola, Pedro Argoitia Sololuze (Langileen 51. batailoian), Jenaro Arrate Santamaria «Txorixe», Joanito Arrate Santamaria «Txorixe», Jose Arriaga Aranburu (langileen 176. batailoian), Jose Maria Arriaga Lejardi, Jose Maria Arriaga Arrillaga, Manuel Arriaga Arrillaga, Ramon Arriola Markoerkiaga (langileen 136. batailoian), Simon Barrutia Sololuze (langileen 2. batailoian), Gregorio Cazalis Izarra (Langileen 23. batailoian), Galo Hilarion Duralde Kerejeta, Pablo Etxaniz Laka «Olazar», Inazio Etxebarria Eizagirre, «Inazio Sakristaua» (langileen 13. batailoian), Lauren Foruria Bollar, Luis Foruria (langileen 3. batailoian), Pedro Gandiaga Gerenabarrena, Santiago Garate Zabala (langileen 18. batailoian), Simon Garmendia Barinaga, Zelestino García Iriondo (langileen 20. batailoian), Gregorio Gerenabarrena Agirrebengoa, «Aita Honorio» edo «Munoki», Migel Ibarluzea Madinabeitia (langileen 17. batailoian), Antonio Ibarluzea Oregi (langileen 142. batailoian), Pedro Jose Kaltzakorta Sololuce (langileen 91. batailoian), Joan Karlos Larrinaga Gisasola «Goiko-Bolu», Antonio Lejardi Arriaga (Langileen 11. batailoian), Joan Lejardi, Jose Maguregi Amezti, «Laitxu» (langileen 1. batailoian), Ireneo Olabe Akaiturre (25. langileen batailoian), Jose Martin Onaindia Astarloa (Langileen 14. batailoia), Anjel Pertika Urrutia, Simon Sololuze Txurruka eta Luis Ugarte Ugartetxea «Okoki» (langileen 1. batailoian).

XIII. Taula. **Gerratean fusilatutako markinarrak eta xemeindarrak (Ikus VI. eta VII. eranskinak)**

	Errepublikarrek fusilatutako laikoak	Frankistek fusilatutako laikoak	Frankistek fusilatutako abade eta mojak	Errepublikarrek fusilatutako abade eta mojak
Gizonak	1	6	2	3
Emakumeak	–	–	–	1
Guztira	**1**	**6**	**2**	**4**

Iturria: nik neuk egina.

Bonifazio Egurrola (Agarre) Ziortza-Bolibarko Ziarrei auzoko Agarre baserrian bizi zen. Derion fusilatu zuten, 1937ko irailaren 16an. Tomas Beesik dioen bezala, egun larriak izan ziren hauek markinarrentzat eta bolibartarrentzat: «Gure erriko onek iru seme gazte eta laugarrena bidian eukazan. Azken ori naigabearen naigabez galdua izan zan. Egun larriak arek benetan naiz eta kale bat bere oroitzan gaur erri onetan eduki, sendi orren naigabeak ezin parkatu. Onen ilketak errian naigabe eta asarriak, frankisten artian be. Egun gitxira aita etorri zan ni ikustera. Onek be niretzat beste askoren ustia edo itxaropena ekarren. Onek, Larrinagan egon ziran legez, gauza baltz asko ikusi eben euren begien aurrien, eta bildurre arimaraño sartuta euken. Erriko jazoera ori dala ta, ona esaten eban: Odol egarri izan dituk. Egin juek pekatu ori. Il juek Boni. Kendu juek bistetik. Baña barruan biztu egin jakuek; errian euretar asko be asko jagi dituk kontra. Errudun diren artian be, burutik eginde jabizek. Etxera atetik sartu biarrian, maats parran gora igonda leiotik sartzen dan bat edo beste be bai» (Gerrikagoitia, 2000: 86).

Santoñako Itunean, Errepublikaren eta Euzkadiko Jaurlaritzaren alde egin zuten zibilen aurkako jazarpenik ez egitea onartu zuten italiarrek. Hala ere, 1937ko abuztutik aurrera ere, abertzaleen eta ezkertiarren aurkako errepresio bortitzak jarraitu zuen. Santoñako Itunean zinatutakoak ezer gutxirako balio izan zuten.

Fusilamenduekin batera, 1937ko irailean, urrian eta abenduan, atxiloketa gehiago etorri ziren. Irailean, Xemeingo Udal Batzordeko lehen alkate ordeko izan zen Lorenzo Garate Ibarzabal (1880 - 1954) espetxeratu zuten. Epaiketa militarra egin ostean, lau urte egin behar izan zituen kartzelan (Ferrol 1093/37 txostena). Lorenzo, Joan Loiolaren emaztegaiaren, Maria Garateren, aita zen.

1937ko urriaren 11n, Rosario Garate Zubillaga (Markina, 1887 – Markina-Xemein, 1967) atxilotu zuten. Rosario Bernardo Aretxabaletaren emaztea zen. Bernardo Aretxabaletak, gerratean alkate izan zenak, Bilbora hanka egin zuen frankistak sartu aurretxoan. Bere senarraren ihesaldia mendekatzeagatik, Rosario espetxeratu zuten 1937ko urriaren 11n, eta kartzela bitan eduki zuten Bilbon. Horrez gain, ilea zerora moztu zioten eta herrian bueltaka erabili zuten, jendearen barregarri. Lan horretan aritu zenetariko bat Uhagondarren etxeko bat izan zen (ez dakit Eduardo Gortazar militarra izan zen edo Jose Maria Uhagon falangista). Ilea mozten zioten bitartean, herriko errekete gazteak egon ziren etxeko ataria zaintzen. Rosariok urte bat inguru egin behar izan zuen kartzelan.

1937ko urrian, markinar eta xemeindar gehiago ere espetxeratu zituzten. Rosario Garaterekin batera, Jose Maria Murga Arana «Murga Txiki» eta Anjel Ugarte «Okoki» atxilotu zituzten, baina hauek bakarrik egun bat egin zuten kartzelan. Gaspar Ibarluzea Iturraran (Kaxpar Bariña, garai hartan Barinagan bizi zelako) eta Jose Manuel Unamunzaga Amallobieta ere garai honetan espetxeratu zituzten (Airmn, 1.004 txostena).

Atxiloketa, isun eta fusilatzeekin batera, frankistek etxe kartzela eta desterrua ere erabili zituzten abertzaleak eta ezkertiarrak menderatzeko. Tomas Duralde Kerejetaren emazteari, Josefa Kerejeta Alberdiri, etxe kartzela zigorra jarri zioten 1937ko udagoienean, bere senarra erbesteratu zenean. Esan bezala, Rosario Garate kartzelan eduki zuten bederatzi hilabetez, eta gero ez zioten uzten etxetik ateratzen. Susana Uribe Ajuriagojeaskoa 1938ko maiatzaren 9an atxilotu, eta 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean. Horrez gain, etxetik ateratzeko debekua jarri zioten, berarekin espetxeratu zituzten beste batzuei bezala. Dena den, Susana alkatearengana joan zen, eta etxe kartzela saihestea lortu zuen, bakarrik zegoela (senarra bide konpontzailea zen, eta Francok eraman zuen bortxazko lanetara) eta bere semeentzako janaria lortzeko etxetik ateratzea beste aukerarik ez zuela argudiatuz.

Egia esan, gosea gerraren eta jazarraldiaren beste ertz mingarri bat izan zen. Frontea mugitu gabe egon zen hiletan, ez zen goserik izan, Markinako Frontean borrokatzen ari ziren soldaduentzako janari asko zegoelako herrian (Onaindia, 1980: 130). Milizianoekiko harremanen bidez, herritar askok janaria eramaten zuten etxera.

Frontea jausi aurreko asteetan, baina, nabaria zen elikagaien eskasia; batik bat, ogi zuriarena. Horregatik, erreketeak azeri jokatu zuten, eta ogi zuria banatzen sartu ziren, eta askok pentsatu zuten frankistekin buruhauste guztiak konponduko zirela, eta aurrerantzean nahi beste ogi zuri jango zutela. Egiatan, 1937ko apirilaren 27tik aurrera, bizimailak okerrera egin zuen, eta herritarrak, batez ere kale artean bizi zirenak, gose izugarria pasatzen hasi ziren. Gerragatik uzta txikiak hartzen ziren, eta nazioarteak hasi zuen blokeo ekonomikoagatik, elikagai gutxi etortzen zen atzerritik.

Baserritarrek garia eta artoa hartzen zituzten, baina Francoren Gobernu Zibilaren 'Hornikuntza eta Garraioak' sailak ekoizten ziren elikagaien parte handi bat bahitzen zuen, gero, errazionamendu kartilen bidez, herritarren artean banatzeko. Bahiketa hauetatik ihes egiteko, zenbat komeria gauean, inork ikusi gabe arto edo gari irina ehotzeko eta garraiatzeko.

Udal bakoitzak errazionamendu kartilak banatzen zituen herritarren artean, eta kide kopuruaren arabera, familiek elikagai gehiago edo gutxiago eskuratzen zituzten. Berbarako, pertsona bakoitzari egunean 80 gramoko ogia ematen zioten, eta tailerretako langileei 160 gramokoa. Arropa ere errazionatuta zegoen. Kalitate oso txarrekoa zen, baina besterik ez zegoen. Herritarrek ilarak egin behar izaten zituzten denden aurrean elikagaiak eta arropak lortzeko.

Baserritarrek egoera apur bat hobeagoa zuten, ortuekin eta abereekin elikagai gehiago lortzen zituztelako, baina kalean bizi zirenek gose izugarria pasatzen zuten. Gari gutxi zegoenez, saiarekin eginiko ogi beltza jan behar izaten zen edota arto irinez egindako taloak, eta jendeak ogi zuriarekin amets egiten zuen. 1937ko udagoienean, sagarrak eta gaztainak oinarrizko elikagai bihurtu ziren markinarren eta xemeindarren mahaietan. Lodi gutxi zegoen garai hartan.

Egoerarik txarrena aita kartzelan edo ihes eginda zutenek bizi zuten. Familia hauetako emazteek gorriak pasatu zituzten euren seme-alabak aurrera ateratzeko. Kasu askotan, seme-alabak banatu egin behar izaten zituzten familiakoen edo auzokoen artean, eta zerbitzari lanak egitera kanpora joan behar izan zuten. Herriko ume batzuk San Roke egoitzara joaten ziren jatera, bertako Pauleko San Bizenteren Karitateko Alaben ordenako mojek herriko ume pobreei jaten ematen zietelako. Gaur egun ere, markinar batzuk asko gogoratzen dira moja hauen karitatearekin.

Goseak amorratuta zeuden herritar gehienak, baina dirua zutenek nahi beste ogi, arropa eta elikagai lortzen zituzten. Sasoi hartan markinar eta xemeindar batzuk aberas-

tu egin ziren olioaren, azukrearen edo gari irinaren estraperloarekin (http://batxilergoa.leartik.com/web/batxilergoa/index.php?Skz=548).

Errepresioa eta gosea, gosea eta errepresioa ziren gehienek bizi zutena 1937ko abenduan. Eta, gainera, beti agerian zegoen frontean zeuden senideei buruzko ardura. Hego Euskal Herrian gerra bukatua zegoen, baina Espainiako hamaika tokitan borrokek jarraitzen zuten, eta egunero ehunka gazte hiltzen ziren.

Bereziki gazte euskaldun asko hil ziren 1937ko abenduaren 15etik 1938ko otsailaren hogeira, Teruel eta inguruko herrietan egin ziren operazio militarretan. Hildakoen artean hiru xemeindarrak ziren: Florentzio Iturraran Lauzirika, Segundo Larruskain Solozabal eta Rikardo Cazalis[61].

3.11. **1937ko Gabonak: markinarrak eta xemeindarrak triste**

1937. urteak bi zati, guztiz desberdinak, izan zituen. Apirilaren 27ra arte, herritarrak gerra giro gordinarekin bizitzen segitu zuten: tiro hotsekin, soldadu errepublikarren joan-etorriekin eta hegazkin eta kanoi frankisten bonbardaketekin. Markina eta Xemein plaza militarrak ziren.

Bigarren zatian, 1937ko apirilaren 27tik aurrera, herritarren bizimodua goitik behera eraldatu zen, batez ere ezkertiar, errepublikazale eta abertzaleena. Tropa frankistak sartu ziren, eta bi herriok miliziar eta gudari errepublikarren mende egotetik eta guda lerro izatetik, frankistek militarki hartutako herriak izatera pasatu ziren. Agintari berriekin, abertzaleen, ezkertiarren eta, oro har, herritarren aurkako errepresio izugarria hasi zen; 38 urte iraungo zuen errepresioa.



Jose Etxebarria Astorkia, Jose (1917an jaioa, Xemeinen, 1938ko kintoa): Euzko Gudarostean borrokatu zuen lehenengo. Atxilotuta egon ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatzera behartu zuten.

[61] Florentzio Xemeingo Axola baserrikoa zen, eta adinagatik gerrara joan behar izan zuen. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela hil zen Teruelgo frontean, 26 urte zituela (Garaian, 3-1988). Segundo Larruskain Solozabal (Xemein, 1918 – Teruel, 1937) Anitua baserrikoa zen, eta pentsatzen dut fraide ikasketak egiten ari zela gerra hasi zenean. Teruelgo frontean hil zen 1937ko abenduaren 26an, Francoren aldeko batailoietan borrokatzen ari zela. Teruelgo frontean, Rikardo «Rikardito» Cazalis ere zendu zen 1938an, baina hau Errepublikaren alde borrokatzen ari zela. Ez dakit zenbat urte zituela hil zen, baina, nire ustez, 18-19 izango zituen. Rikardo Cazalis Areitio, «Cazalis Mayor» pilotariaren semea zen (Onaindia, 1980: 456).

1937ko gabonetan, herritar gehienak lur jota zeuden. Alde zaharreko etxe asko apurtuta zeuden, eta ia guztiei kristalak falta zitzaizkien. Jende asko lanik gabe zegoen, eta hainbat enpresa, negozio, taberna eta denda itxita zeuden, frankistek bahitu zituztelako, bonbardaketetan kaltetu zirelako edota jabeak eta langileak frontean, kartzelan, langileen batailoietan edo ihes eginda zeudelako. Arrazoi berberengatik, baserriko lanak aurrera ateratzeko arazo pila zeuden.

Krisi ekonomiko sakonaz aparte, 1937an, hainbat pertsona atxilotu, bortxazko lanak egitera behartu, hamaika emakumeri ilea moztu eta hainbati isun izugarriak ordainarazi zizkioten. Asko izan ziren desterratu edo etxe kartzelara zigortu zituztenak.

1937ko gabonetan, gizarte kohesioa guztiz zapuztua zegoen. Irabazleen harrotasunaren aurrean, galtzaileek isilik egotea eta irabazleei men egitea beste aukerarik ez zuten. Errepresioa jasan zutenen seme-alabekin hitz egitea besterik ez dago, bizitako samina ezkutuan baina ahantzi gabe egon dela konturatzeko.

1937a gerrako urte gogorrena izan zen; errepresio bortitzena eta heriotza kopuru handiena izan zirelako. Urte horretako Gabonak tristeak izan ziren gehienentzat, baina beregainki lazgarriak izan ziren heriotzak izan zituzten familientzat. Kontuan hartu behar da 1937an zehar herriko 46 pertsona hil zirela.

Alde batetik, 17 zibil hil ziren bonbardaketen edo tiroengatik, kartzelan gaixorik, fusilatuta edo esku bonbak eskuetan lehertu ostean (14 markinarrak eta xemeindarrak ziren, bat Etxebarriakoa eta bi Ziortza-Bolibarkoak):

1. Urtarrilaren 4a: Frantzisko Baskaran Arrillaga «Illaizpe» hil zuten Bilbon kontrolik gabeko milizianoek.
2. Otsailaren 23a: hegazkin frankistek Urberuaga bonbardatu, eta Jose Maria Urriolabeitia «Laiz» hil zuten.
3. Martxoaren 22a: Plazida Mandiola zortzi urteko ume barinagarra hil zuten frankistek.
4. Martxoaren 31: Durangoko bonbardaketan hiru markinar, xemeindar bat eta bolibartar bat hil zituzten: Antonia Aldazabal Gabioleta, Jose Aulestiarte Ikaran eta Nikasio Pérez Argoitia markinarrak, Manuel Quintana Azurmendi xemeindarra eta Ziortza-Bolibarko Patxi Bustindui Elordui «Patxiko Errota».
5. Maiatzaren 1a: Benito Agapito Bereziartua Egia ume etxebarritarra hil zen, esku bonba bat eskuetan lehertu ostean.
6. Maiatzaren 12a: Agarre baserriko Pedro Erkiaga Agirreamalloa xemeindarra hil zen, esku bonba bat eskuetan lehertu ostean.
7. Ekainaren 12a: Antonio Arregi Arrizabalaga hil zuten Zamudion, hegazkinez egindako bonbardaketa batean.
8. Uztailaren 4a: Benito Aginaga Ugalde «Mendaro» hil zen gaixorik (informazio batzuen arabera, fusilatuta), Gasteizko kartzelan.
9. Uztailaren 21a: Hilario Aretxabaleta fusilatu zuten, Derion.
10. Irailaren 9a: Joan Loiola «Joan Zumarra» fusilatu zuten, Derion.
11. Irailaren 16a: Anbrosio Mallukiza Aldaolea, Jeronimo Sanchez eta Bonifazio Egurrola (Agarre) fusilatu zituzten, Derion.

Bestetik, 1937an zehar, 29 gazte markinar eta xemeindar hil ziren frontean, Errepublikaren aldeko batailoietan edo Francoren batailoietan borrokatzen:

1. Martxoaren 6a: San Andres batailoiko Migel Ibarzabal Arrieta gudaria hil zen, Etxebarri-Barinaga-Markina bide gurutzean, buruan tiro bat hartu ostean.

2. Urtarrila-apirila: Jose Migel Baskaran Bilbao (1917an jaio zen, Xemeinen) errepublikarrekin borrokatzera joan zen 1937ko hasieran, eta pentsatzen dut 1937an zehar hil zela.
3. Urtarrila-apirila: Felix Argoitia Sololuze (1917an jaioa, Xemeinen) Errepublikaren alde borrokatzera joan zen urte hasieran, eta pentsatzen dut 1937an zehar hil zela.
4. Urtarrila-apirila: Bernardo Argoitia Sololuze (1917an jaioa, Xemeinen), Errepublikaren alde borrokatzera joan zen urteko lehen hiletan, eta bere anaia Felix bezala, 1937an zendu zen.
5. Urtarrila-apirila: Gilermo Onaindia Astarloa (Xemein, 1917 – 1937) errepublikarekin borrokatzen ari zela hil zen, nire aburuz, 1937an.
6. Urtarrila-apirila: Eugenio Aulestiarte Sololuze (1917an jaioa, Xemeinen), errepublikarrekin borrokatzen ari zela zendu zen frontean, 1937an.
7. Apirilaren 14a: Lorenzo Barinagarrementeria Totorikaguena (Xemein, 1913 – Saibigain, 1937) Sabigaineko borroketan hil zen.
8. Apirilaren 25a: Jose Maria Arrillaga Zuazo (Xemein, 1914 – Zaldibar, 1937) apirilaren 24tik 25erako goizaldean hil zen, Zaldibarren, Ganguren mendi puntan.
9. Apirilaren 26a: Martzelino Aginaga Barinaga (Markina, 1906 – Amorebieta-Etxano, 1937) hil zen, Zornotzako ospitalean, Eubako frontean izan zituen zauriengatik.
10. Maiatzaren 1a: Jose Larruskain Olalde (Markina, 1911 – Bilbo, 1937) Ermuan zauritu zuten, eta Basurtuko Ospitalean hil zen.
11. Maiatzaren 2a: Frantzisko Gunetxea Agirrebengoa markinarra Sollubeko batailan hil zen, Gernika inguruan.
12. Maiatzaren 8a: Domingo Apalategi Dorronsoro eta Jose Martin Arrieta Ikaran hil ziren, Sollubeko borroketan, Errepublikaren alde borrokatzen ari zirela.
13. Maiatzaren 11tik 15era: Viktor Goikoetxea Azpiazu (1916an jaioa, Xemeinen) zendu zen, Bizkargin, errepublikarrekin borrokatzen ari zela.
14. Maiatzaren 18a: Joan Zubialdea Kortabitarte (1914 - 1937) hil zen, Sollubeko borroketan zauritu ostean.
15. Maiatzaren 25etik ekainaren 5era: Felix Urriolausokoa Lauzirika «Lezaran» (Xemein, 1916 – Lemoa Haitza, 1937) hil zen, Lemoa Haitzean, erreketeekin borrokatzen ari zela.
16. Maiatzean zehar Damaso Urionabarrentxea Alberdi «Albitxu» (1912an jaioa, Markinan), Ermuan zauritu zuten, eta Bilboko ospitalean hil zen.
17. Maiatza - ekaina: Anjel Eizagirre Kareaga (Markina, 1912 - 1937) frankistekin borrokatzen ari zela hil zen.
18. Maiatza - ekaina: Agustin Arrate Sololuze (1917an jaioa, Xemeinen) errepublikarrekin borrokatzen ari zela hil zen, nire ustez, 1937ko apirilean edo maiatzean.
19. Uztailaren 29a: Jose Domingo Larrinaga Larrinaga «Azpiko-errota» (Xemein, 1916 – Turtzioz, 1937) Turtzioz-en zendu zen, Errepublikaren alde borrokatzen ari zela.
20. Irailaren 28a: Valentin Onaindia Baseta (1914 - 1937) Leoneko frontean hil zen erreketeen tertzioetan borrokatzen ari zela.
21. Urtarrila-urria: Jose Maria Oregi Mallea (1908an jaioa, 1929ko kintoa) hil zen. Badirudi, Errepublikaren alde borrokatzen ari zela.
22. Abenduaren 26a: Segundo Larruskain Solozabal (Xemein, 1918 – Teruel, 1937) Teruelgo frontean hil zen, Francoren aldeko batailoietan borrokatzen ari zela.



Argazkia: Barinagako auzo elkartea.
Agustin Laka (1911 jaioa, Barinagan): lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen, eta gero Francoren alde. Etxekoek uste dute fusilatu egin zutela Madrilen.

Ez dakit hilik, baina honako gazte markinar eta xemeindar hauek ere 1936ko bigarren erdian edo 1937an hil ziren:

1. Simon Arrieta Ikaran (1918an jaioa, Xemeinen): senideek Geronimo zuela izena diote, baina paper guztietan Simon legez agertzen da.
2. Simon Balentziaga Kintana (1916an jaioa, Xemeinen, 1937ko kinta): Francok soldaduskara eraman zuen 1937ko urrian, eta urte horretan edo 1938an zendu zen.
3. Joan Garate Arizmendiarrieta (1918an jaioa, Xemeinen): 1937an edo 1938an hil zen, Francorekin borrokatzen ari zela.
4. Agustin Laka Oregi (1911 jaioa, 1932ko kintoa): Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela hil zen Madrilgo frontean, 1937an edo 1938an.
5. Jose Migel Larruskain: Francoren batailoiekin borrokatzen ari zela hil zen, eta hilotza ez zen inoiz agertu. 24 urte zituen hil zenean.
6. Isidro Olalde Mendibe (1912an jaioa, Markinan): Errepublikaren alde borrokatu zuen lehenengo, eta atxilotu ostean, Francoren batailoietan borrokatu behar izan zuen. Pentsatzen dut 1937an hil zutela.

IV
1938: MESFIDANTZA, FRUSTRAZIOA ETA BELDURRA NAGUSI

> «No se respetaron los derechos de los prisioneros de guerra según el convenio de Ginebra de 1929. Los hombres encerrados en el Fuerte sufrieron unas durísimas condiciones de vida, lejos de sus familias, incomunicados, humillados, sometidos a castigos, aterrorizados, hacinados, muchos enfermos, sometidos a un hambre atroz, en un edificio frío y húmedo que no había sido diseñado para cárcel y no estaba acondicionado para albergar a tantas personas»
>
> SIERRA ETA ALFORJA
> *Fuerte San Cristobal* (2006: 19-20)

1938. urtea, aurreko zortzi hilen jarraipena izan zen. FET-JONS-eko kideak abertzaleak, errepublikazaleak eta ezkertiarrak iraintzen, salatzen eta asaltoko guardien eskuetan uzten jarraitu zuten (Bidasoa, 2005: 715). Herrian nagusi ziren mesfidantza, frustrazioa eta beldurra, eta gizarte kohesioa txikitua zegoen. Guda lerroa urrun zegoen, baina giro gordina bizi zen.

Aldaketa bakarra Markinako Udal Batzordean gertatu zen. 1938. urtea hasi zenean, Luis Felipe Gaitan de Aiala zen Markinako alkatea, baina Markinan gutxi egoten zenez, 1938ko otsailean, Rikardo Urkieta egin zuten jarduneko alkate. 1938ko azaroaren 17an, alkate izendapen ofiziala eman zioten.

4.1. **1938ko urtarrila: Saturrarango kartzela eta emakumeen aurkako errepresioa**

Gerrak negar asko eragin zien markinarrei eta xemeindarrei, baina inguruan ez zeuden hobeto. Gure herritik kilometro gutxira, Saturrarango seminarioan (Mutriku), sinistu ere ezin diren gehiegikeriak jasan zituzten hainbat emakume errepublikar, ezkertiar eta abertzalek. 1937ko abenduaren 29ko Francoren agindu batek eraginda, Saturrarango seminarioa andrazkoentzako kartzela bihurtu zen. 1938ko urtarrilean, oraindik kartzela bezala egokitu gabe zegoela, lehen emakume presoak heldu ziren, Asturiastik.

Urte bereko irailaren 5ean, Mesedetako mojak izendatu zituzten emakumeen kartzelez arduratzeko, zaintza eta zuzendaritza ardura espetxe funtzionarioen eskuetan gelditu zelarik.

Saturraranen sartu zituzten emakume gehienak militante errepublikarren senideak ziren (emazteak, alabak, amak, arrebak…). Eta kartzelan sartuta, ustez, erregimenaren

aurkakoak ziren andrazkoak zigortu nahi zituzten, familiaren hezitzaile legez, euren baloreen transmisioa ekiditeko.

Ofizialki, 700 presorentzako tokia zuen Saturrarango kartzelak, baina garai batzuetan, 1.700 emakume eta ume egon ziren preso. Emakumeak Estatuko hainbat tokitakoak ziren, baita Euskal Herrikoak ere. 1938 - 1944 bitartean, lau mila emakume baino gehiago pasatu ziren kartzela honetatik, eta, gutxienez, 120 emakume eta 57 ume hil ziren (González eta Barinaga, 2008: 67). González eta Barinagak dioten bezala: «La dureza de la prisión de Saturraran se debía, en primer término, al deteriorado estado de las instalaciones, así como a la severidad del húmedo clima. Más allá de cuestiones físicas, las presas subrayan la crueldad de las monjas de la Merced, quienes llegaron al extremo de robar la comida de presas y niños, para vendérselo en el mismo economato de la cárcel o, incluso, de estraperlo. Por ello, la madre superiora Sor Mª Aranzazu Vélez de Mendizabal, conocida entre las presas como *La Pantera Blanca* fue posteriormente destituida. Además, las monjas confiscaban los alimentos que enviaban las familias de los pueblos de alrededor. Las pescadoras de Ondarroa, de hecho, salían a faenar para conseguir comida para las mujeres recluidas en Saturraran. Mientras las presas eran empleadas para cultivar las huertas de las monjas de la Merced. Por último, las presas también han dejado constancia del 'acoso y agresiones sexuales' a las que les sometieron algunas de las 'monjas guardianas'» (González eta BArianga, 2008: 68).

Sabina Ibarrolaza Gastiasoro xemeindarra Saturrarango kartzelan sartu zuten 1938an. 1937ko udan preso hartu zuten Berrizen, beste bost andrazkorekin batera, eta, ilea zerora moztu ostean, herrian zehar bueltaka erabili zituzten guztiak. Berriztik Durangora eraman zituzten atxilotuta, eta gero Larrinagako kartzelara. Epaiketa egin ostean, Saturrarango emakumeen kartzelara ekarri, eta hiru urtez eduki zituzten preso, hau da, 1941. urtera arte.

Saturraranen sartu zituzten emakumeen aurka ez ezik, Markinako eta Xemeingo emakume askoren aurkako jazarraldia ere izugarria izan zen. 1937ko apiriletik aurrera, FET-JONS-eko kideek goitik behera iraindu zituzten familia abertzaleko eta ezkertiarretako emakumeak, eta beldurra arimaraino sarrarazi zien. Erregimen berriak asmo argi bat zuten: erregimen berriaren aurkako ideologien transmisioa oztopatzea, eta familiari, elizari eta etxeko lanei loturiko andrazko eredua berreskuratzea eta sendotzea.

Guztien gainetik, une latzak pasa zituzten erantzukizun politikoak izan zituztenen emazteek, arrebek eta alabek. Frankisten errepresioaren beldurrez, hauetariko batzuek atzerrira ihes egin zuten, Francoren tropak sartu aurretxoan[1].

Beste batzuk, baina, gelditzea erabaki, eta atxilotu egin zituzten. Zorte gehien izan zutenak Markinako kartzelan sartu zituzten egun batzuetan, eta gero libre utzi; beldur izugarria pasatu ostean[2]. Hauetariko batzuek isunak ere ordaindu behar izan zituzten, kartzelatik ateratzeko[3].

---

[1] Elixabete Aginaga Garate «Ete», Eusebia Legarra Urriolabeitia, Jesusa Mallukiza, Justa Mallukiza, Josefa Matea Zuluaga Maguregi, Carmen Onaindia Zuluaga, Joana Onaindia Zuluaga, Feliziana Duralde, Pakita Ugarte, Mikaela Ibarrolaza, Damiana Izaola Abendaño, Esperanza Aretxabaleta Izaola, Maria Zelaia Balentziaga, Maria Zelaia Garramiola, Ines eta Anjela Azpiri Aldazabal ahizpak, Maria Luisa Zelaia Kareaga, Purificacion Foruria Zelaia eta Klara Arregi. Maria Arrarte Unamunzaga, Maria Zelaia Garramiola, Natividad Ugarte Urreta eta Rosario Onaindia Iriondok alde egin zuten tropa frankistak sartzean, baina berehala bueltatu ziren.

[2] Besteak beste, Markinako kartzelan preso egon ziren, Klementina Korta Larruskain, Klara Korta Larruskain, Martzelina Lejardi Ibaibarriaga, Ramona Arroitajauregi (sei hilabete egin zituen Markinako kartzelan), Maria Luisa Aretxabaleta, Jesusa Urreta, Remijia Arriaga, Julia Arroitajauregi, Jesusa Zabala, Erramona Totorikaguena, Maria Luisa Belaustegi eta Teresa Gisasola.

[3] Remijia Arriagak, Frantziska Madariagak eta Susana Uribek, berbarako.

Emakumeen hirugarren talde batek zorte txarragoa izan zuen, eta, atxilotu ostean, Bilboko edo Saturrarango kartzeletara eraman zituzten: Kasilde Aginaga Zamudion atxilotu zuten, eta sei hilabete egin zituen Bilboko Orue Txaletean, Rosario Garatek bederatzi hil Bilboko bi kartzelatan, Sabina Ibarrolazak hiru urte inguru Saturrarango kartzelan eta Antonia Balentziagak hiru urte Bilboko kartzelan.

Kasurik onenean, emakume abertzale eta errepublikazaleak isunak ordaintzera behartu zituzten, militarren egoitzak eta arropak garbitzera zigortu, edota ilea zerora ebaki ostean, herrian zehar bueltaka erabili, herritarren barregarri. Soldadu frankistek Xemeingo emakumeren bat bortxatu ere egin omen zuten.

XIV. Taula. **Markinako Eta Xemeingo emakume abertzale eta ezkertiarren aurkako errepresioa 1937 - 1939**

Ihesean denboraldi bat egin ostean, bueltatutakoak	Atzerrian urte bat baino gehiago erre-fuxiatutakoak	Atxilotutakoak	Bilboko edo Saturrarango kartzeletan denboraldi bat egindakoak	Bortxazko lanak egitera behartuak	Ilea moztutakoak
15	23	18	4	Ez daukat ko-puru zehatzik, baina hainbat izan ziren	11

Iturria: nik neuk egina.

Gerraondoko emakume askoren bizimodu lazgarria ulertzeko, kontuan hartu behar da hainbat kasutan, seme-alabak bakarrik atera behar izan zituztela aurrera, gizonak edota seme nagusiak ihes eginda, preso edo frontean zituztelako. Errepresioa, gosea eta irainak bakarrik eta isilean jasan behar. Bizi izan zuten beldurrak eta lotsak azaltzen du, nolabait, gerrateko eta gerraosteko gehiegikerien berri euren seme-alabei ezkutatzea, eta urte haietan gertatutakoak isileko kontua bihurtzea.

Emakumeen eskubideen zapalketa areagotzeko, 1938ko martxoan, erregimen frankistak emakume ezkonduen etxetik kanporako lana oztopatzeko hainbat erabaki hartu zituen, lanbide liberalak egitea debekatu zieten, umeen eskubide legal berdinak onartu zizkieten, eta epaitegietan edozein salaketa jartzeko senarraren baimena lortzera behartu zituzten. Erregimen berriarentzat, amatasuna bihurtu zen andrazkoen bizitzako helburu natural bakarra.

Frankistek bultzatu zuten emakumeen eredu soziala Errepublika garaiko emakume tradizionalistena edo falangistena baino atzerakoiagoa zen (González eta Barinaga, 2008: 45). Emakumeek Errepublika garaiko eskubide sozial eta politiko guztiak galdu zituzten. Halaber, Emakume Abertzale Batza debekatua izan zen, eta Margaritak desagertu egin ziren. 1937tik Franco hil zen arte (1975), emakume talde batek izan zuen nagusitasun politiko eta soziala: FET-JONS-eko Emakumeen Atalak. «La principal labor de la Sección Femenina consistía en preparar la 'vuelta al hogar después de la guerra' de todas las mujeres que habían conseguido acceder a trabajos fuera del hogar, así como hacer desistir a las mujeres de los derechos adquiridos durante la Republica» (González eta Barinaga, 2008: 46).

4.2. **Francoren borroka Espainiatik kanpo**

Gizarte egiturak, ekonomia, eliza… lur jota zeuden 1938an, baina Francok normaltasun itxura eman nahi zuen atzerrian. Nazioartean erregimen berriaren aurkako propaganda egin zezakeen edozer isilarazi nahi zuen, eta, horretarako, hainbat estrategia jarri zituen martxan.

Alde batetik, 1938ko udan, atzerrian zeuden umeak bueltatzeko eskaria egin zuen, eta Euskal Herritik ihes egin zuten hainbat umek etxera bueltatu ahal izan zuten. Keltse Altunak eta bere ahizpa Ibone eta Mirenek 1937ko maiatzaren 21ean ihes egin zuten Erresuma Batura, eta 1938ko irailaren 13an bueltatu ziren Bilbora (Arrien, 1991: 170). Hala ere, kontuan izan behar da ume askok atzerrian gelditzea aukeratu zutela, gurasoak hilda, preso edo desagertuta zituztelako.

Bestetik, gerra hasi eta gutxira, Francok FET-JONS-en Atzerriko Zerbitzua, hau da, Atzerriko Falangea, sortu zuen, nazioartean erregimen berriaren aldeko jarrera bultzatzeko.

Gure herriko hainbat pilotarik egin zuten bat Atzerriko Falangearekin, eta diru laguntza emateaz gain, euren lankideek eta ingurukoek Francoren aurka esaten edota egiten zituztenak zelatatzen eta salatzen zituzten. Horrela, 1938ko uztailaren 27an, Martin Laka markinarrari 2.000 pezetatako isuna jarri zioten, Bruselako Atzerriko Falangeak bidalitako txosten baten arabera, bere seme batek, Martin Laka Bereziartuak (Encrucijada, Kuba, 1913 – Markina-Xemein, 1961) Errepublikaren alde dirua biltzeko, pilota partida bat jokatu zuelako (Martin 1938ra arte aritu zen pilotan jokatzen, Bruselako Jai Alai Stadium pilotatokian). Itxura denez, Atzerriko Falangearentzat lanak egiten zituen Iruzubietako pilotari batek salatu zuen, eta semearen aurka ezer egiterik ez zutenez, aitari jarri zioten isuna.

Txinan jokatzen ari ziren hainbat pilotari ere Atzerriko Falangearentzat lanean aritu ziren gerratean eta gerraostean. Teodoro Jauregik eta honen mende zegoen Julian Ibarrolaza (Markina, 1910 – San Frantzisko, Kalifornia, 1965)[4] pilotari ohiek zuzenduta, Shangai edo Tientsin-eko pilotariek informazioa eta dirua eskaintzen zieten Falangeari, Francoren garaipena ahalbidetzeko (Rodas, 1993).

4.3. **Heriotzak frontean eta kartzeletan**

Bitartean, gazteak frontean hiltzen jarraitzen zuten. 1938ko uztailean eta abuztuan, Francok 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatzea erabaki zuen. Izatez, 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zituzten 1940ko eta 1941eko kintak. Hauetariko askok Aragoiko Ofentsiban, Ebroko batailan eta Kataluniako Frontean borrokatu zuten, eta hamaika hil ziren.

Teruelgo gudaldia 1938ko otsailaren hogeian bukatu zen, eta handik hiru astetara, Aragoiko Ofentsiba hasi zen. 1938ko martxoaren 7an hasi ziren borrokak, eta apirilaren 19an bukatu. Aragoiko borroketan, Altzalei baserriko Jose Maria Ibaibarriaga Madariaga (Markina, 1913 – Aragoiko Frontea, 1938) markinarra hil zen, 25 urte zituela, Francoren batailoietan borrokatzen ari zela (Garaian, 3-1988). Hilotza ez zen inoiz agertu.

Hiru hilabetera, Ebroko bataila hasi zen; Gerra Zibileko batailarik handiena eta garrantzitsuenetarikoa. Ebro Aranaren beheko uharkan gertatu zen, Tarragonako mende-

---

[4] Julian Ibarrolaza Tientsin-eko (Txina) Forum Hai Alai frontoian egon zen pilotan jokatzen 1934tik 1938ra (Bilbao, 2009: 202).

baldetik (Amposta-tik) Zaragozako ekialdera arte (Mequinenza-ra) sortu zen 60 kilometrotako frontean. 1938ko uztailaren 24an hasi ziren borrokak, eta azaroaren 16an bukatu. Guztira, 15.000-20.000 soldadu hil ziren. Ebroko batailan, hiru markinar eta xemeindar hil ziren, gutxienez: Jose Arrieta Lejardi (Markina, 1918 – Tarragona, 1938), Markinako Barenda Azpiko baserrikoa, Martzelino Alberdi Gisasola (Xemein, 1918 – Ebroko Frontea, 1938), Xemeingo Akeliño baserrikoa eta Jose Maria Zubigarai Elorza (Xemein, 1912 – Ebroko Frontea, 138) Larruskaingo Larruskain Erdikoa baserrikoa. Lehenengo biak Francoren alde borrokatzen ari ziren, eta hirugarrenari buruzko informaziorik ez daukat. Bataila honetan zauritu zuten, 1938ko urriaren 22an, Jose Antonio Zubialdea Kortabitarte, Ugartetxe baserrikoa. Izan zituen zauriengatik betirako elbarrituta gelditu zen.

Atxiloketak, soldaduen heriotzak frontean, isunak, ile mozketak… Hala ere, FET-JONS-eko kideek «Francoren Armada Nazional Laudagarria» herrian sartu zela ospatzera behartu zituzten herritarrak, 1938ko apirilaren 27aren bueltan. 1938ko otsailetik martxora, Markinako Udalak herri diru bilketa bat hasi zuen horretarako, eta 200 pezeta jarri zituen; hainbat herritarrek ere dirua eman zuten, «Liberazioaren» lehen urteurrenaren bueltan erromeria eta kirol eta kultura ekitaldiak antolatzeko. Urteurren jaiak, hildako soldadu frankisten aldeko omenaldiak, hiri garrantzitsuen konkistak ospatzeko jaiak… galtzaileak iraintzeko beste modu bat izan ziren.

FET-JONS-eko kideek ezarri zuten kontrol sozial eta politikoaren baitan, eskutitzen zentsuraz ere baliatu ziren.

1938an, hainbat ziren ihes eginda, kartzeletan edo langileen batailoietan zeuden herritarrak. Hauetariko askok eskutitzak idazten zizkieten senideei, eta, hartzaileei eman aurretik, FET-JONS-eko kideek irakurtzen zituzten, postariaren konplizitate eta onespenarekin. Askotan, euretariko baten tabernan elkartzen ziren, posta irakurtzeko. Horrekin, informazioa kontrolatzen zuten, baina baita galtzaileen zorigaitzen kontura barre egin ere. Adibidez, herriko faxistek Bernardo Aretxabaletak Frantziatik idazten zituen eskutitzak irakurtzen zituzten, emazteari eman aurretik. Horren jakitun, Bernardok Elgoibarko ahaide batzuei idazten zizkien, eta eskutitzak Esperanza autobus konpainiako txoferren bidez heltzen ziren Markinara.

Kasu batzuetan, eskutitzetako informazioa jende gehiago atxilotzeko ere erabili zuten. Adibidez, Erramona Arroitajauregi Totorikaguena, Anastasio Barrenetxea «Txirgeten» emaztea, 1939ko urtarrilean atxilotu, eta Markinako kartzelan sartu zuten sei hilabetez, bere senarrak idatzitako karta batengatik. Itxura denez, Anastasiok Euzko-Etxeari buruz hitz egiten zion bere emazteari. Etxe hori bahituta zuten frankistek, abertzaleen ekimenez kooperatiba modura egin zelako 1933an, eta kooperatibako bazkideak nortzuk ziren jakin nahi zuten FET-JONS-ekoek. Alegia, bazkideen izenak jakiteagatik sartu zuten Erramona kartzelan.

1938. urtea gogorra izan zen familia ezkertiar, errepublikazale eta abertzaleentzat. Gainera, 1938. urtea aurrera zihoan neurrian, erantzukizun politiko txikiagoa zuten pertsonak atxilotzen hasi ziren. 1937ko maiatzetik 1938ko lehen hiletara arte, Errepublikaren Aldeko Batzordean ibili zirenak eta, frankisten aburuz, parte hartze politiko argiak zituztenak atxilotu ostean, 1938ko bigarren erdian, «ustez» erregimen berriaren aurka zeudenak atxilotzen hasi ziren. Kasu askotan, salaketen atzean, inbidia edota mendeku pertsonalak zeuden.

1938ko maiatzaren 9an, Markinako, Xemeingo, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako 19 pertsona atxilotu zituzten, eta Markinako kartzelan sartu. Ia guztiak 1938ko uztailaren 10ean askatu zituzten, isunak ordainarazi ostean. Kartzelatik ateratzeko baldintza izan zen, espetxeratutako 19 pertsonek ordaindu behar zutela isuna. Guztiek ordaindu

arte ez zuten inor askatu. Atxilotutakoek 500 pezetetako edo 750 pezetetako isunak ordaindu behar izan zituzten. Batzuei etxe kartzela zigorra ere gaineratu zieten.

Kartzelan egon ziren bitartean, etxekoek eraman behar izaten zizkieten eguneko hiru jatorduak. Batzuei koltxoiak ere eraman zizkieten, guztientzako oherik ez zegoelako[5].

Markinako kartzelan sartzen zituztenak beldurrak jota zeuden, baina Estatuko kartzeletan zehar sakabanatu zituztenak baino bizi baldintza hobeagoak zituzten. Azken hauek osasun eta elikadura arazo asko izaten zituzten, eta asko gaixotu eta hil egiten ziren, kartzelan bertan.

1937an eta 1938an zehar, hiru markinar hil ziren espetxean gaixotuta: Gasteizko espetxean, Benito Aginaga zendu zen, 1937ko uztailaren 4an (batzuek diote fusilatu egin zutela). Iruñeako San Kristobal gotorlekuan, Benito Muñoz[6] eta Inazio Ugarteburu[7] hil ziren, 1938an.

San Kristobal gotorlekua kartzela modura erabili zuten frankistek, 1936tik 1945era. Gerra hasi eta hil gutxira, 2.000 preso zeuden bertan, gehienak nafarrak eta errioxarrak. 1937ko urtarrilaren 1etik 1945eko uztailaren 6ra, hau da, gotorlekua zarratu zen arte, 305 preso hil ziren gaixorik, gehienak tuberkulosiak eta bihotzekoak jota (Egaña, IV. tomoa). Gainera, 25 bat pertsona fusilatu zituzten gotorlekuan berbertan, eta beste 225 pertsona hil zituzten 1938ko ihesaldiarekin lotuta. San Kristobal gotorlekua, Saturraran edo frankistek zabaldutako beste hainbat kartzela bezala, «garbiketarako» espetxe bat izan zen (Sierra eta Alforja, 2006: 19-20).

4.4. **1938ko Gabonak: mesfidantza, beldurra eta lotsa galtzaileen artean**

Nire ustez, 1937a izan zen gerrako urterik gogorrena. Urte horretako maiatzetik abendura izan zen errepresiorik bortitzena, eta atxiloketa eta hildako kopuru handiena. 1937ko Gabonak oso garratzak izan ziren askorentzat.

1938ko Gabonak ez ziren askoz hobeagoak izan. Atxiloketa gutxiago izan ziren[8], baina oraindik ere beldurra zen nagusi galtzaileen artean, eta gizarte kohesioa guztiz

---

[5] 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zituzten batzuk izan ziren Remijia Arriaga Galdos, Jose Gurutz Garate Larruskain, Gaspar Ibarluzea Iturraran «Kaxpar Bariña», Klementina Korta Larruskain, Klara Korta Larruskain, Martin Lariz Aranburu, Jose Manuel Unamunzaga Amallobieta eta Susana Uribe Ajuriagojeaskoa. Iruditzen zait, talde honetan, Bolunbarriko Julia Arroitajauregi Totorikaguena, bere koinata Jesusa Zabala eta bere izeko Erramona Totorikaguena ere atxilotu zituztela.

[6] Benito Muñoz Azpeitia (1894 - 1938) markinarra San Kristobal gotorlekuan (Iruñea) sartu zuten 1937ko irailaren 1ean, eta bertan hil zen gaixorik, 1938ko otsailaren 1ean, 43 urte zituela. Antsoain Zendean lurperatu zuten (Sierra eta Alforja, 2006, eranskineko seigarren txostena). Bere heriotzaren txostenak dio bihotza gelditu zitzaiolako hil zela.

[7] Inazio Ugarteburu Anitua markinarra (1890 - 1938) ere toki berean hil zen, 1938ko urriaren 10ean. Inazio Ugarteburu EAJ-ko zinegotzia izan zen Markinan 1936an, eta frontea Markina inguruan geldirik egon zen zazpi hilabeteetan, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuen. Francoren tropak sartu aurretik, Bilbora ihes egin zuen, baina gero bueltatu egin zen, eta atxilotu egin zuten. Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Larrinagako kartzelan sartu zuten. 1937ko irailaren 1ean, San Kristobal gotorlekura (Iruñea) eraman zuten, eta berbertan hil zen, 1938ko urriaren 10ean, 46 urte zituela. Inazio ere, Antsoain Zendean (Nafarroa) lurperatu zuten (Sierra eta Alforja, 2006, eranskineko seigarren txostena).

[8] Ezkertiarren, errepublikazaleen eta abertzaleen aurkako errepresioak ez zuen atsedenik izan 1938an. Otsailaren 18an, Pedro Onaindia Jaio markinarra atxilotu zuten, abertzalea zelako, 1934an, «Ardoaren gerrarengatik», Markinako zinegotzi postutik dimititu zuelako, eta, gerratean, Markinako

zapuztua zegoen. 1938an, gerra bukatua zegoen Markinan eta Xemeinen, eta baita Hego Euskal Herrian ere, baina herriko antolaketa eta gizarte egitura guztiak hankaz gora zeuden. 1937 maiatzetik izandako atxiloketen ondorioz, hainbat familia txikituta zeuden. Bestetik, gizarte hartako beste zutabe garrantzitsua, eliza, ere apurtuta zegoen. Izan ere, herriko abade ia guztiak ihes eginda edo desterratuta zeuden[9]. Gainera, 1938an, sei markinar eta bost xemeindar gazte hil ziren frontean. Bat kenduta (Rikardo Cazalis), beste guztiak Francoren aldeko batailoietan borrokatzen ari ziren:

1. Jose Maria Ibaibarriaga Madariaga, Markinako Altzalei Beheko baserrikoa.
2. Florentzio Iturraran Lauzirika, Xemeingo Axola Baserrikoa.
3. Benito Ibarluzea Oregi, Markinako Barinaga auzoko Odiaga Nagusi baserrikoa.
4. Rikardo «Rikardito» Cazalis, Cazalis Mayor pilotariaren semea.
5. Eusebio Larruskain Garitagoitia (1919 - 1938), Markinako Altzalegi-Goiena baserrikoa.
6. Doroteo Antonio Txopitea Apoita, Xemeingo Txepetxabixe Baserrikoa
7. Jose Arrieta Lejardi (1918 - 1938), Markinako Barenda Azpikoa Baserrikoa
8. Migel Lejardi Goiogana (1918 - 1938), Xemeingo Laparre Baserrikoa
9. Martzelino Alberdi Gisasola (1918 - 1938), Xemeingo Akeliño baserrikoa
10. Antonio Alberdi Azpiri (1919 - 1938), Barinagako Orrondo baserrikoa
11. Jose Maria Zubigarai Elorza (1912 - 1938): Larruskaingo, Larruskain Erdikoa baserrikoa.

1938an, Etxebarriako bost gazte ere hil ziren:

1. Julian Arrieta Txurruka «Atote» (1916 - 1937/38), Etxebarriako Atotea baserrikoa.
2. Manuel Mandiola Baskaran, Etxebarriako Mandiola baserrikoa
3. Pedro Muniozguren Larrañaga (Simon Bolibar batailoia), Etxebarriako Elordi baserrikoa
4. rancisco Maria Arriola Bastida
5. Jose Manuel Ibarzabal Urkiola

---

zinegotzi abertzalea izan zelako. Markinako kartzelan eduki ostean, Bilboko Larrinagako kartzelara eraman zuten. Epaiketa militarra egin zioten 1938ko apirilaren 7an, eta apirilaren 23an eman zuen epaileak sententzia: sei urte eta egun bateko espetxe zigorra (Ferrol, 17.205 txostena). Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan, baina badakit 1940ko martxoan atxilotuta jarraitzen zuela; baita ere 10.000 pezetatako isuna ordaindu behar izan zuela kartzelatik ateratzeko.

[9] Xemeingo parrokian, Balentin Zulueta zen gelditzen zen abade bakarra. Ondorioz, Barinagako parrokoak, Joan Barquin Truebak (1891 - 1986), hartu zuen Xemeingo parrokiako ardura, inolako izendapenik gabe. 1941era arte egon zen parrokiako arduradun, eta gero, Leioako arimazain egin zuten (Kalzakorta, 2006:IX). Gerraondoko urte haietan, eragin sozial eta politiko handia izan zuen abadea izan zen (Molina, 2005: 164). Hala ere, bera izan zen Jose Maria Arizmendiarrietaren aldeko agiri bat idazteko alkatea presionatu zuena (Molina, 2005: 164).

V
1939: GERRAKO AZKEN URTEA

> «Para el franquismo, el recluso ha perdido su condición de ser humano. Lo trata como a una bestia. Y ha de tenerse en cuenta que en un pocentaje elevadísimo, concretamente en el caso de los presos vascos de El Puerto de Santa María, se trata de presos por delitos políticos, cuya formación moral y cultural, coloca en condiciones de manifiesta inferioridad moral y cultural, en este orden a sus jueces y guardianes, representantes de un régimen que se dice 'salvador de la civilización'. No precisamos esforzarnos para patentizar la crueldad, el sentido incivil y sangriento, que preside el trato a que están sometidos nuestros presos en El Puerto de Santa María».
>
> MARTÍNEZ CORDERO
> *El Penal de El Puerto de Santa Maria 1886 - 1981*, (2003: 150)

1939a hasi zenean, fronteko lehen lerroa oso urrun zegoen Markinatik eta Xemeindik, baina, giro istilutsua nabaria zen: gazteen militarizazioak, galtzaileen ondasunen bahiketak, atxiloketak, heriotzak frontean, irabazleen mesprezuak, gosea… Hala ere, aurreko hiru urteekin alderatuta, 1939. urtea lasaiagoa izan zen. Apirilaren 1ean gerra bukatu zen, eta apurka-apurka, gauzak bere onera etortzen hasi ziren.

5.1. **1939ko urtarrila - maiatza: atxiloketek, heriotzek eta ihesaldiek jarraitzen dute**

1939a atxiloketa batekin hasi zen: urtarrilean, Erramona Arroitajauregi Totorikaguena hartu zuten preso militarrek, Euzko-Etxearen bazkideak nortzuk ziren jakin nahi zutelako.

Atxiloketa hau gertatu zen egunaren bueltan, hain zuzen ere, 1939ko urtarrilaren 26an, Francoren tropak Bartzelona hartu zuten, eta Girona otsailaren 5ean. Ostean, tropa frankistak Frantziako mugarantz abiatu ziren, eta Puigcerdá-ko eta Portbou-ko (Girona) pasabideak hartu zituzten. Urtarrilaren bukaeran eta otsailaren hasieran, borrokaldi gogorrak izan ziren Bartzelona eta Girona inguruan, eta alde bateko zein besteko hainbat soldadu hil ziren, tartean Francoren batailoietan borrokatzen ari ziren bi markinar: Alexander Aretxabaleta Goikoetxea (Markina, 1920 – Katalunia, 1939) eta Iñaki Urigoitia Arrien (Forua, 1918 – Lleida, 1939) (Garaian, 4-1989).

Makarda Beheko baserriko Agustin Larruskain Olalde (Markina, 1913 – Iruñea, 1939) markinarra ere garai honetan zendu zen. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela, zauritu egin zuten (baliteke Kataluniako frontean), eta Iruñeako ospitalean hil zen, 1939ko otsailean, 25 urte zituela. Bere hilotza ekarri zutenean, FET-JONS-eko kideek omenaldi bat egin nahi izan zioten, baina etxekoek ez zuten nahi inolako ospakizunik; batetik, oso triste zeudelako, eta, bestetik, Agustinen anaia Jose bi urte aurretik, 1937ko maiatzean, hil zelako frontean, Errepublikaren alde borrokatzen, eta hari ez ziolako inork omenaldirik egin. Herritarrek diotenez, abadeak ez omen zuen nahi izan azken honen alde mezarik ateratzerik ere, gorriekin borrokatzen hil zelako, eta, ondorioz, familia minduta zegoen.

1937ko apirilaren bukaerara arte, Errepublikaren alde borrokatzen ari zirenen hilotzak heltzen ziren herrira, baina matxinatuak sartu ostean, bakarrik frankisten alde borrokatzen aritutakoenak. Jendeak izaten zuen Errepublikaren alde borrokatzen ari ziren soldaduen heriotzen berri, baina gorpurik ez zen heltzen, eta askotan gurasoek ez zuten jakiten euren semeak non hiltzen ziren, ezta non lurperatzen zituzten ere.

Aldiz, Francoren alde borrokatzen ari zen soldaduren bat hiltzen zenean, familiakoak joaten ziren hilotzaren bila, eta defuntu pilaren artean ezagutu ostean, autoan sartu (udalak ordaintzen zuen taxia), eta etxera ekartzen zuten. Hiltzen zirenetik familiakoak gorpuak hartzen zituzten arte, egun asko pasatzen ziren; horrez gainera, hilotzetako asko bonbak edo metrailak zartatuta egoten ziren, eta usain handia izaten zuten. Askotan, familiakoek, gorpuzkina egoera oso txarrean ikusita, hilotza zegoen herrian bertan lurperatzea erabakitzen zuten.

Herrira ekartzen ziren soldaduen gorpuzkinak udaletxean edota elizan jartzen zituzten, omenaldia egiteko. Herritarrak behartuta joaten ziren hilotza ikustera, eta osteko hileta elizkizunera. Soldadu frankisten aldeko hileta elizkizunak izaten zirenean, herri guztia gelditzen zen, eta dendak eta lantegiak ere itxi egiten zituzten. Hori egiten ez zutenei azalpenak eskatzen zizkieten eta, kasu batzuetan, baita isunak edota bortxazko lanak ezarri ere.

1939ko urtarrilaren amaieran eta otsailaren hasieran, Katalunia jausi aurretxoan, 550.000 errefuxiatu inguru Frantziako mugara bideratu ziren, Francoren tropen erasoetatik eta jazarralditik ihesi. Nazioarteko iritzi publikoaren eraginez, Frantziako Kontseiluko Lehendakariak, Edouard Daladierrek (1884 - 1970), errefuxiatuei ateak irekitzea onartu zuen, 1939ko otsailaren 5ean. Horrela, milaka pertsona sartu ziren arrapaladan Frantziara, La Junqueratik edo Portboutik, tartean baita markinar eta xemeindar batzuk ere[1].

Errefuxiatu askok pentsatzen zuten muga pasatzearekin Francoren atzaparretatik eskapatu eta askatasuna lortu ahal izango zutela, baina laster konturatzen ziren Frantzian ez zituztela maite, eta kontzentrazio esparruetan sartzen zituztela (Chueca, 2007).

1939ko otsailean, Gerra Zibila bukatu aurretxoan, Frantziako gobernuak Argelès-sur-Mer-eko kontzentrazio esparrua ireki zuen, iheslari espainiarrak sartzeko[2]. Argelès-

[1] Besteak beste, Kataluniatik Frantziara ihes egin zuten: Bernardo Aretxabaleta Arriolak «Tate», Lopetxea baserriko ahizpek, Anjelita eta Ines Azpiri Aldazabalek, Markinako sektoreko buruak, Santiago Meabe Bilbaok, Jose Maria Barrenetxea Artamendik «Txirget», Patxi Cazalis Areitiok, azken honen emazteak, Mikaela Ibarrolaza Gastiasorok, Joan Cazalis Areitiok, Rikardo Cazalis Areitiok «Cazalis Mayor», Segundo Cazalis Areitiok «Cazalis Menor» eta azken bi hauen familiek.

[2] Kontzentrazio esparru hau Ekialdeko Pirinioak Departamenduan zegoen, Mediterraneoko kostaldean, Languedoc-Rosellon erregioan, mugatik 35 bat kilometrotara.

sur-Mer-eko hondartza arantzadun alanbreekin inguratu ostean, egurrezko eta lonazko barrakoiak eraiki zituzten errefuxiatuak sartzeko. Espainiatik 550.000 pertsonak ihes egin zuten Frantziara, eta horietariko 100.000 kontzentrazio eremu honetatik pasatu ziren. Zaindariak tropa kolonialak ziren, gehienak marokoarrak eta senegaldarrak, baina baita frantziar jendarmeak ere. Osasun eta bizi baldintza txarrengatik (hezetasuna, hotza, gosea…), jende asko hil zen gaixotuta, batez ere disenteriarekin, sarnarekin edota tifusarekin.

Rikardo Cazalis Areitio «Cazalis Mayor» (Xemein, 1892 – Argelés, Frantzia, 1939) pilotari xemeindarra kontzentrazio eremu honetan sartu zuten, Bartzelonatik hanka egin zuenean, eta, bertan gaixotu ostean, hil egin zen, 1939an. Zendu zenean, 50.000 franko zituen poltsikoan, baina une lazgarri hartan, ez zioten ezertarako balio izan. Bi urte aurretik bere semea Rikardito hil zen frontean, errepublikarrekin borrokatzen ari zela (Onaindia, 1980: 456).

XV. Taula. **Kartzeletan edota kontzentrazio esparruetan atxilotuta egon ziren markinarrak eta xemeindarrak (Ikus IV. eranskina)**

	Atxilotuta egon ziren markinar eta xemeindarrak	**Herrian bertan atxilotuak**	**Herritik kanpo atxilotuak**	**Urte bat baino gutxiago atxilotuta**	**Urte bat baino gehiago atxilotuta**
Gizonak	89	42	47	46	43
Emakumeak	18	14	4	15	3
Umeak eta gaztetxoak	1	1	–	1	–
Guztira	**108**	**57**	**51**	**62**	**46**

Iturria: nik neuk egina.

5.2. **1939ko apirilaren 1a: Gerra Zibila ofizialki bukatu zen**

1939ko apirilaren 1ean, Gerra Zibila ofizialki bukatu zen, eta Markinako Udal Batzordeak erromeria antolatu zuen gertaera ospatzeko. Jendea nazkatuta zegoen egoerarekin, eta gerraren bukaerak esperantzarako eta baikortasunerako ateak ireki zituen. Hala ere, hurrengo hiletan, soldadu joandako gazteen heriotzak jarraitu zuten. Sotero Olañeta Agirregomezkorta (1913 - 1939), adibidez, gerra bukatu eta gero hil zen Calpen (Alacant), 1939ko apirilean. Lizentziatu ostean, bainu bat hartzera joan ei zen hondartzara, eta itota hil zen.

Akoda baserriko Karmelo Gandiaga Lejardi (Markina, 1919 – Valladolid, 1939) ere gerra bukatu ostean zendu zen. Denbora asko egon zen Valladolideko ospitale militarrean gaixorik, eta familiak hainbat ahalegin egin zituen handik etxera ekartzeko (batez ere, Gurutze Gorriko buru zen Gaitan de Aialarekin aritu ziren harremanetan), baina, azkenean, Valladoliden hil zen, 1939ko abuztuan, eta bertan lurperatu zuten.

XVI. Taula. **Frontean hildako markinarrak eta xemeindarrak (Ikus X. eranskina)**

Heriotza urtea	Franquistekin borrokatzen	Errepublikarrekin borrokatzen	
1936	–	5	**5**
1937	6	20	**26**
1938	14	–	**14**
1939	6	–	**6**
Guztira	**26**	**25**	**51**

Iturria: nik neuk egina.

Gerra bukatzearekin, are eta errefuxiatu gehiago bildu zen Frantziako Hegoaldean. Ondorioz, 1939ko apirilaren 4an, 5ean eta 6an, gobernu frantziarrak Gurs-eko kontzentrazio esparrua ireki zuen.

Gurs Biarnoko herri bat da, Mauletik 20 kilometrotara dagoena. Bertan, Frantziako gobernuak Gerra Zibiletik eta errepresio frankistatik ihesean heltzen ziren errepublikarrak bildu zituen (Chueca, 2007)[3]. Zabalik egon zen bost urte eta zortzi hiletan, 1939ko apiriletik 1945eko abenduaren 31ra, 63.929 pertsona pasatu ziren bertatik; horietatik 6.555 jatorri euskalduneko atzerriratu errepublikarrak ziren[4].

Horrenbeste euskaldun bertan egonik, Eusko Jaurlaritzak bazuen Gurs-en errefuxiatuei laguntzeko azpiegitura txiki bat. Bertan presentzia izan zuen Gobernu bakarra izan zen. Erakunde judu frantses batzuek, kuakeroek eta YMCA bezalako erakundeek ere laguntza eskaintzen zieten errefuxiatuei. Hala ere, jana urria eta kalitate txarrekoa zen, eta ez zegoen komun edo osasun zerbitzu egokirik, ezta ur garbirik ere. Mikaela Ibarrolaza xemeindarrak gogoratzen zuen bezala, euri asko egiten zuen lurraldea izanik, lokatz asko izaten zen barrakoien arteko kaleetan. Barrakoiak egurrezko ohol fin batzuekin eginak zeuden eta gainetik tela moduko bat zuten. Ez zuten leihorik, ezta inolako aireztatze sistemarik ere. Gaineko tela hori laster apurtzen zen, eta, beraz, hotza eta euria erraz sartzen ziren barrakoietan. Barnean ez zegoen altzaririk, eta errefuxiatuek behearen gainean lo egiten zuten, lastoz beteriko zakuen gainean.

Bizi baldintza hauengatik, hainbat izan ziren Gurs-en hil ziren errefuxiatuak. Gutxi gorabehera, mila pertsona hil ziren, gehienak judutarrak, eta kontzentrazio eremuko kanposantuan lurperatu zituzten.

---

[3] Kontzentrazio esparruaren eraikuntza 1939ko martxoaren 15ean hasi zen, eta oraindik bukatu gabe zegoela, errefuxiatuen lehen taldea heldu zen, 1939ko apirilaren 4an. Argelès-Gazost-eko kontzentrazio esparruan zegoen errefuxiatu euskaldunen talde bat izan zen Gurs-en sartu zuten lehena. Hasieran, kontzentrazio esparru hau bakarrik iheslari euskaldunentzako eraiki zen, baina, gero, espainiarrak ere sartu zituzten.

[4] Claude Laharie-ren *Le camp de Gurs* (1993) liburuaren arabera, kontzentrazio eremu honetan gutxienez 6.555 euskaldun sartu zituzten, baita Estatu espainiarreko beste zonalde batzuetako 19.022 errefuxiatu errepublikar eta 52 herrialdetako Nazioarteko Brigadetako 6.808 boluntarioa ere. 1940an, Alemaniako gobernu naziarekin Frantziak sinatu zuen armistizioaren ondorioz, Vichy-ko gobernuak kontzentrazio eremu honetan sartu zituen Alemaniako, Poloniako eta Austriako 26.641 judu, Vichy-ko gobernu kolaborazionistaren aurka zeuden 1.470 komunista, sozialista edo anarkista frantses eta 63 ijito. Aipagarria da Gurs-eko kontzentrazio eremutik 3.907 judu atera zirela Auschwitz-eko nazien heriotza-eremura sei tren konboietan, 1942ko abuztutik 1943ko otsailera.

1940ko ekainean, 800 atxilotu euskaldun zeuden Gurs-en. Alemaniarrak gerturatzen ari zirenez, hauetariko asko Espainiara estraditatu zituzten, eta beste askori Hego Amerikara joateko aukera eman zieten (Chueca, 2007: 95). Gurs-en egon ziren markinar eta xemeindar gehienak Espainiara estraditatu zituzten. Batzuek Espainiako kartzeletan edo langileen batailoietan denboraldi bat egin behar izan zuten. Beste batzuk zuzenean atera ziren kalera[5].

Iparramerikarrek Frantzia alemaniarrengandik liberatu zutenean (1945), Gurs-eko kontzentrazio eremua estraperloan aritzeagatik atxilotutakoak, alemaniarrekin kolaboratu zuten frantziarrak eta gerrako atxilotu alemaniarrak sartu zituzten. Dena den, 1945eko abenduaren 31n zarratu egin zuten[6].

5.3. **1939ko apirila: Karmeldarren Kapitulu Probintziala Markinan**

Gurs-eko kontzentrazio eremua ireki eta egun batzuetara, 1939ko apirilaren 28an, Nafarroako San Joakin Probintziako Karmeldarren Kapitulu Probintziala hasi zen Markinako komentuan. Bilerak ondo erakusten du Elizako goi agintarien artean zegoen erregimen berriaren aldeko giroa. Kapituluan, 29 fraide kapitularrek parte hartu zuten; ia denak Francoren «gurutzadaren» oso aldekoak (Urkiza, Unzueta, eta Fernandez de Mendiola, 2005: 394). Kapitulua hasi zen egunean, apirilaren 28an, Isidoro Aldaz Zabalza - Sergio Santa Teresarena (Iruñea, 1888 - Santander, 1971) karmeldarren probintzialak telegrama hau bidali zion Francori: «Capitulo provincial Carmelitas San Joaquín de Navarra reunido motivo renovación cargos convento Marquina – Vizcaya, rinde Vuecencia, Caudillo victorioso, sentido tributo admiración, prometiéndole fidelidad para bien de la religión y de España. Provincial Sergio» (Urkiza, 1992: 292).

1939ko apirilaren 29an, frankista sutsua zen Jose Leon López de Maturana Balzategi – Jose Leon Inmakulada Kontzepziokoarena (Alegria, 1884 – Corella, 1966) aukeratu zuten San Joakin Probintziako Karmeldarren Probintzial posturako. Komentuetako prioreak aukeratzerakoan ere karmeldarren jeneralak agindutakoa bete zen: «Procure no poner al frente de las comunidades a religiosos conocidos por sus inclicinaciones poco afectas a España» (Urkiza, Unzueta, eta Fdz. De Mendiola, 2005: 394). Kapituluan parte hartu zutenek aukeraketak egiterakoan erabilitako irizpidea sekretupean edo isilik gordetzea zin egin zuten. Luis Baraiazarrak dioen bezala: «Isilean gordetzeko zina Bizkaiko Gobernu Zibilak Kapitulura bidalitako ohar bati buruzkoa zen. Ohar horretan, edozein kargutarako betoa zuten erlijiosoen zerrenda zetorren… Beto hori bete egin zen» (Baraiazarra, 2010: 54). Markinako komentuko priore postuan Florentzio Arruza Urrutia – Zeltso Inmakulada Kontzepziokoarena (Mungia, 1886 – Markina-Xemein, 1978) jarri zuten.

---

[5] Gurs-en, gutxienez, zazpi markinar, xemeindar eta etxebarritar egon ziren: Leokadio Aliende Fernandez, Frantzisko Ansola Aldazabal, Agustin Arrate Santamaria «Txorixe», Patxi Cazalis Areitio, Jose Maria Epelde Iruretagoiena, Mikaela Ibarrolaza Gastiasoro eta Jose Maria Agirre Salaberria (Chueca, 2007). Frantzisko Barroetabeña Petralanda Etxebarriako maisu azpeitiarra ere kontzentrazio esparru honetan egon zen.

[6] 2006ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak omenaldi bat eskaini zien Gurs-eko kontzentrazio eremuan sartu zituzten 6.555 euskal atzerriratu errepublikarrei. Nestor Basterretxeak egindako plaka bat jarri zuten bertan, eta Gernikako arbolaren adaska bat landatu.



Argazkia: Jose Mari Agirreren familia
Jose Maria Agirre Salaberria (Etxebarria, 1919 – Palma de Mallorka, 2009) Catalunyako frontean (1939). Gerra bukatu zenean, Saint Ciprien-eko (Frantzia) kontzentrazio esparruan sartu zuten, eta, gero, Gurs-eko kontzentrazio esparruan. 1940an, naziek Mauthausen-eko kontzentrazio esparruan (Austria) sartu zuten, Bigarren Mundu Gerra bukatu zen arte.

Maiatzaren 3an, honako hau erabaki zuten Kapituluan parte hartu zuten aita kapitularrek: «El Ven. Capítulo prohibe toda manifestación externa de política a nuestros religiosos por ser contraria a las leyes y a nuestro espíritu religioso; y declara a la vez: a) Que no es política hacer patria: que no ofende ni contradice a nuestras leyes ni está reñido con el espíritu religioso defender a la patria, para nosotros la patria española, ni hablar de sus glorias y grandezas, nombrarle con orgullo y honor ante propios y extraños cuando las circunstancias lo reclamen. B) Prohibe también el Capítulo toda manifestación separatista por considerarla política, por consiguiente, contraria a nuestras leyes y gravemente perjudicial al espíritu religioso. C) encarga a los superiores estrecha vigilancia sobre estos puntos y ordena que no permitan a sus súbditos ni dentro ni fuera de sus conventos ninguna manifestación política en la forma explicada, prohibiendo a los delincuentes, siempre que la prudencia o necesidad exigiere, toda comunicación con los seglares y religiosos hasta que se logre su enmienda».

Honako hau ere onartu zen Kapituluan: «El Capítulo de la Provincia de S. Joaquín de Navarra, aceptando plenamente el mensaje de S.S. Pío XII y la carta colectiva del Episcopado Español, presta su adhesión sincera y entusiasta al Movimiento Nacional y a las Autoridades que lo representan, en especial al glorioso Caudillo, el Generalísimo Franco; y, en cuanto a él le compete, dispone que sus religiosos presten esta misma adhesión y que en todas sus manifestaciones externas sean consecuentes con estos sentimientos» (Urkiza, 1992: 293).

5.4. **1939ko bigarren seihilekoa: egoera lasaiagoa bi herriotan**

Herritarrek festarako gogo gutxi zuten 1939an. Hala ere, FET-JONS-eko kideek gerraren bukaera ospatzeko jaiak antolatu zituzten. 1939ko maiatzaren 17tik 19ra,

hainbat ekitaldi egin ziren. Egunik garrantzitsuena maiatzaren 19a izan zen. Hona hemen egun horretako egitaraua (Garaian 4, 1989: 8):

– Zazpiretan: kalejira, txistulariekin
– Hamarretan: meza
– Meza ostean: bigarren lerroko indarren eta Pelaioen desfilea. Herritarrekin batera, bigarren lerroko indarrak eta Pelaioak Zelaira abiatu ziren, Afrikako Armadaren agintea hartzerakoan, Franco jeneralaren berbaldia eta gerrako azken partea entzutera.
– Ordu bi eta erdietan: Egixarre zelaira ibilera, hildakoen omenez errespontsu bat errezatzera.
– Arratsalde erdian: pilota partida
– Pilota partidaren ostean: erromeria.

Gerra bukatuta, giroa apur bat lasaitu egin zen, eta erbesteratu eta kartzelaratutako batzuek etxera bueltatu ahal izan zuten. Apurka-apurka, Markina eta Xemein jendez betetzen hasi ziren[7].

Modu berean, 1936ko azarotik Zamudion lanean ari zirenak ere bueltatu ahal izan zuten, Esperanza fabrika Markinara bueltatu zelako. Lehen langileak 1939ko hasieran bueltatu ziren, eta azkenak 1939ko abuztuan.

Esperanzako langile batzuek herrira etortzeko beldurra zuten, FET-JONS-eko batzuek esan omen zutelako fabrikako langile abertzale batzuk espetxeratu egingo zituztela, bueltatzen zirenean. Castor Uriarte zen zuzendari-gerentea, eta ezagun asko zituen militarren artean. Ondorioz, langile askori lagundu zien Markinara, arazorik gabe, bueltatzen. Horien artean zeuden Joan Zelaia, Joan Onaindia eta Frantzisko Etxebarria (Patxiko Txanbolin).

Egoerak eraginda, hamaika presoren auziak ere berrikusi ziren 1939an, eta hainbatek kartzelatik ateratzeko aukera izan zuten.

Leon Aranguren Artola (Aita Leon) (Olaeta-Aramaio, 1906 – Markina-Xemein, 1986) fraide karmeldarrari heriotza zigorra kendu zioten, 1939ko azaroaren 13an. Heriotzara kondenatua zegoen, Itsasalde bataniloiko kapilaua izan zelako, kapitain graduarekin.

1939ko abenduan, Aita Jose Domingoren kasua ere berrikusi zuten. Lino Akesolok Aita Jose Domingoren kasuaz hitz egiterakoan zioen bezala: «Franco'ren gobernua kenkaz dago espetxeak beteegi daukazalako. Arazo ori zelanbait arindu edo konpondu egin nai dau. Erruduntzakoak epaitzerakoan lekuan lekuan neurri bardiñik erabili ez

[7] 1939ko maiatzaren 31n, Leandro Jauregi Altuna (Aita Zezilio) (Aramaio, 1872 - Markina, 1951) fraide karmeldarra bueltatu zen Markinako komentura, Gasteizen bi urte desterratuta egin ostean. 1939ko apirilean, karmeldarren Probintziako Kapituluan parte hartu zuen, eta Markinako umeek eta maistrek harrera ezin hobea egin zioten, eta berriro euren artean ikusi nahi zutela adierazi karmeldarren nagusiei. Aita Jose Leon Probintzial berriak Markinara bidali zuen, 1939ko maiatzaren 31n (Urkiza, 1992: 397). Markinan hil zen 1951. urtean. Maria Zelaia Balentziaga (Xemein, 1913 – Ondarroa, 2005) ere 1939ko udan bueltatu zen Xemeinera. Maria Askurrinaga Goikoa (Xemein) baserrikoa zen, eta frankistak Xemeinen sartu aurretxoan Frantziara ihes egin zuen, bere senargaiaren familiarekin batera. Bi urte atzerriratuta egin ostean, etxera bueltatu zen. Bitoriano Ugarte Mendibe (1881 - 1965) eta bere emazte Jesusa Urreta 1937ko maiatzaren hasieran atxilotu zituzten, eta bi hilabete egin zituzten Gasteizko kartzelan, eta gero desterratu egin zituzten Iruñeara. Bi urte egon ziren desterratuta, eta 1939ko udan bueltatu ahal izan zuten Markinara. 1939ko lehen hiletan, Castor Uriarte Agirreamalloa eta bere familia Hego Euskal Herrira bueltatu ziren, 1937ko ekainetik Azkainen errefuxiatuta egon ostean. 1939ko abuztuan, Markinan zeuden bizitzen.

zalako atxakiaz, bakotxaren auzia barriro ikustea erabagi dau, salakuntza guztiak egitzat emonda, ori bai, espetxe-urteak gitxitu egingo ditu, eta sei urterik bere betetako daukenak, etxera» (Akesolo 1980-4).

1939ko abenduaren azkenetan, «A. Jose Domingoren aldeko adierazpenak egin zituzten Etxanoko alkateak (1939-12-28), Zornotzakoak (1939-12-29) eta Markinakoak (1939-12-31). Larrean haren nobizio izan zirenek adierazpen bat sinatu zuten, beraiekin abertzaletasunaren aldeko propaganda egin zuelako salaketa gezurrezkoa zela agertuz eta haren salatari nagusiak, A. Jose Agustinek, atzera bota zuen notarioaren aurrean (1940-01-08) Bilboko tribunalaren aurrean lehenago egindako salaketa» (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 14). Hortaz, 1940ko urtarrilaren 26an, sei urte eta egun batera jaitsi zieten espetxealdia, eta kondenaren erdia betea zuenez, beste erdia atzerrian, Bizkaitik eta Gipuzkoatik kanpo, egindako lan pastoralarekin kitatu ahal izateko aukera eman zioten (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 14 eta Akesolo, 1980).

1939. urtea lasaiagoa izan zen ezkertiarren eta abertzaleentzat. Preso eta errefuxiatu batzuek etxera etorri ahal izan zuten, heriotza gutxiago izan ziren, eta giroa baikorragoa zen. Hala eta guztiz ere, atxiloketa batzuk izan ziren. Hain justu ere, gerra bukatu eta gero, batzuek bueltatzea erabaki zuten, ezer ez zitzaiela gertatuko pentsatuta. Euren usteen aurka, atxilotu egin zituzten, eta kartzelan sartu. Besteak beste, 1939an, gutxienez hiru pertsona espetxeratu zituzten: Evaristo Arrate Egia, Txorixa baserrikoa, Jose Mari Azpiri Aldazabal, Lopetxea baserrikoa, eta Agustin Egizabal Martínez, «Agustin Politxe».

Gauzak lasaitzen ari ziren, baina heriotzak izan zituztenen familiek, edo ahaideak preso, erbestean edo langileen batailoietan zituztenek triste, beldurtuta eta lotsatuta jarraitzen zuten, gerraren irabazleek bigarren mailako hiritar sentiarazten zituztelako. Kasu askotan, gainera, Errepublikaren alde borrokatzen aritu zirenen etxekoek ez zuten jakiten euren semeak hilda edo bizirik zeuden, ezta non eta zein baldintzatan zeuden preso ere, eta horrek ezinegona eta frustrazioa areagotzen zuen.



Argazkia: Rosario Bustindui
Puerto de Santa Mariako (Cadiz) kartzela, 1940an. Beste preso batzuen artean, goian, lehenengokoa, Roman Bustindui (Ziortza-Bolibarkoa) eta laugarrena Kandido Zenarruzabeitia (Ziortza-Bolibarkoa). Behean, lehenengokoa, Aranaga eta bigarrena Ignacio Azkue (Markinakoa).

Buruhausteak buruhauste, herritar gehienek, aurreko urteetan baino lasaiago igaro zituzten 1939ko Gabonak. Zer jan askorik ez zegoen gabon mahaietan (sagarrak eta gaztainak, nagusiki), baina behintzat familiek bazekiten euren seme soldaduek hiltzeko arrisku gutxiago zutela. Horrez gain, Zamudion lanean, ihes eginda edo frontean aritutako batzuek etxera bueltatu ahal izan zuten, eta, aspaldiko partez, familia askok elkartuta igaro ahal izan zituzten jaiak.

Hala ere, kontzentrazio esparruetan, kartzeletan edo langileen batailoietan zeudenek bizi baldintza oso txarrekin jarraitzen zuten. Gogoratu, 1939an, Rikardo Cazalis Areitio «Cazalis Mayor» pilotaria hil zela Frantzian, Argeles-sur-Mer-eko kontzentrazio eremuan (Onaindia, 1980: 456). Bestalde, Andaluzia ingurura bidali zituzten presoak ere egoera oso txarrean zeuden. 1939an idatzi zen *Informe sobre Presos Vascos en El Penal de El Puerto de Santa Maria* txostenean adierazten zen bezala (Martínez, 2003: 150)[8]: «…Hace unos meses, grandes contingentes de presos vascos que se encontraban en las prisiones de Euzkadi y en el Penal de Santoña, fueron trasladados a la Prisión Central de El Puerto de Santa María (Cádiz), sumaban unos cuatro mil en total. Sucesivos desplazamientos han disminuido notablemente, desde aquel tiempo, el núcleo de vascos que se encuentran en el citado penal andaluz. A la Cárcel de Sevilla, por ejemplo, fueron trasladados quinientos cuarenta, a la de Huelva doscientos, a Granada otros doscientos, etc. Otros fueron enviados a las prisiones de Osuna y Cazalla de la Sierra. Y en resumen, podemos concretar que de los cinco mil cuatrocientos presos que albergaba el Penal de El Puerto de Santa María, unos dos mil son vascos, y de estos, quinientos aproximadamente afiliados al Partido Nacionalista Vasco. ¿En qué condiciones viven nuestros compatriotas en aquella prisión? Compendiando las diversas referencias obtenidas, ofrecemos en el presente informe una descripción veraz y exacta de su situación en los diversos aspectos: régimen de vida, condiciones de habitabilidad, estado sanitario, asistencia religiosa, etc. La impresión conjunta que se deduce de los datos que aportamos, no puede ser más deplorable, y viene a confirmar, una vez más, la verdad ya expuesta reiteradamente sobre el régimen penal vigente en la España franquista, que por sus características inhumanas, excede en la realidad cruel a cuanto pudiera imaginar el juicio más parcial y desfavorable». Manuel Martínez-ek zera ondorioztatzen du (Martínez, 2003: 149-150): «Al leer este informe, se ponen de manifiesto los dos principios básicos de la situación penitenciaria del primer franquismo: el exterminio del adversario en la Guerra Civil (1936 - 1939) y la no reconciliación entre vencedores y vencidos en la posguerra (1939 - 1945)».

Langileen batailoietan zeudenak ere bizi baldintza oso txarrekin jarraitzen zuten 1939an. Lan ordu ugari, tratu txarrak eta elikagai eskasia eguneroko kontuak ziren. Hala ere, zaintzaile batzuen ordez beste batzuk jartzeak, edo komandante baten erreleboak, erabateko aldaketa ekarri ahal zien langile presoei (onerako nahiz kalterako). Zenbaitetan, batailoien bizimodua hobeagotu egiten zen, kokatzen ziren herriko jendearekin elkartasun sareak sortzen zirelako, eta janaria, arropa eta, batez ere, euren bizitzan nolabaiteko normaltasuna lortzen zituztelako. Ez zen harritzekoa, esate baterako, aisialdi tartetxoak izatea (jardunaldia amaituta, edo jai egunetan) paseoan

[8] Besteak beste, Puerto de Santa Mariako kartzelan egon ziren preso Ignazio Azkue markinarra, Erroman Bustindui (1874 - 1949) eta Kandido Zenarrutzabeitia bolibartarrak eta Aranaga bilbotarra (gerraostean Markinara bidali zuten, Langileen Diziplina Batailoi batean Esperanza fabrikan lan egitera, eta gero gure artean bizitzen gelditu zen). Aranaga kenduta, beste guztiak denboraldi bat Larrinagako edo Duesoko kartzelan egin ostean eraman zituzten bertara.

ibiltzeko, zinemara nahiz dantzara joateko, eta jendearekin harremanak izateko. Berriro ere Ramon Esnaolaren berbak hartuz: «Estuve 3 ó cuatro veces en el hospital con 42 kilos. En el hospital tuve suerte porque había una monja navarra que era de los nuestros y me dejaba ropa y me permitía salir a dar una vuelta, eso sí, esquivando a los militares. Sin embargo, muchos compañeros morían de hambre. Aún me acuerdo de mi amigo Cirilo Araistegi, de la cuadrilla; ese murió de hambre» (Palenzuela, Dominguez eta Mendia, 2007: 130). Dena den, gehienetan diziplina zorrotzak ez zuen inongo aukerarik uzten batailoitik kanpo harremanak egiteko edo aisialdiaz disfrutatzeko.

5.5. **1940 eta 1941: gerraren ondorioak agerian**

Gerra Zibila 1939ko apirilaren 1ean bukatu zen ofizialki. Hala ere, giro liskartsua eta nahasia ez zen berehala uxatu. Alde batetik, 1940an, atxiloketa gehiago izan ziren. Adibidez, Viktoriano Arrate Egibar (1908an jaioa, Markinan) Esperanza fabrikan aritu zen lanean 1939ra arte, eta 1940ko hasieran atxilotu egin zuten, eta hil batzuk egin behar izan zituen Larrinagako kartzelan (Airmn, 11.373/40 txostena).

Bestetik, alemaniarrek Frantzia inbaditu zuten 1940ko maiatzean, eta hainbat frantziarrek ihes egin zuten Estatu espainiarrera. Errefuxiatu hauen asmoa zen Portugalera edo Gibraltarrera heltzea, gero Hego Amerikara, Ingalaterrara edo Afrikako kolonietara ihes egiteko. Atxilotzen zituzten zibilak Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan sartzen zituzten, baina gehiegi zirenez, beste kontzentrazio esparru batzuk ireki behar izan zituzten, tartean Urberuagakoa.

Urberuagako bainuetxeko kontzentrazio esparrua 1940tik 1943ra egon zen irekita, eta urte horietan hainbat errefuxiatu pasatu zen bertatik. Denboraldi bat bainuetxean egin ostean, Madrilera eramaten zituzten, eta handik euren herrialdeetara estraditatzen, enbaxaden bidez, edo beste herrialde batzuetara bidaltzen (Rodrigo, 2005: 243 eta López Jiménez: http://www.ciere.org).

Urberuagan sartzen zituzten errefuxiatuek ez ezik, Estatuko kartzeletan sakabanatuta zeuden presoek ere egoera jasanezina zuten 1940an. Irtenbide bat aurkitu nahirik, 1940ko maiatzean eta ekainean, frankistek urte bete baino gehiago kartzelan edo langileen batailoietan preso zeuden asko askatu zituzten. Hainbat izan ziren, beraz, etxera bueltatu ahal izan zutenak.

Izan zituzten bizi baldintzen eta esperientziengatik, oso argal etortzen ziren; eta, kasu batzuetan, baita gaixotasun psikologikoekin ere. Halaber, hauetariko askok arazoak izan zituzten beharra bilatzeko. Asko ziren gerragatik zarratutako enpresak eta negozioak, eta lan askorik ez zegoen. Bestalde, ugazabak FET-JONS-eko kideen errepresalien beldur ziren, preso egondakoak kontratatzen bazituzten. Beraz, kartzelan edo langileen batailoietan egon ostean, preso errepublikarrek irabazleen mesprezuei, langabeziari eta arazo ekonomikoei aurre egin behar izan zieten. Txomin Aretxabaleta «Txomin Zapaterue», adibidez, 1942an atera zen kartzelatik, baina bueltatu zenean, ez zioten utzi bere zapata denda zabaltzen, eta ganbaran lan egin behar izan zuen denboraldi batez.

Kasilde Aginaga Barinagarrementeria (Markina 1916 -) 1938ko gabonetan etorri zen Markinara, Bilboko Orue txaleteko kartzelan sei hilabete egin ostean. Gerra bukatu zenean, Esperanza fabrika Markinara bueltatu zen, baina Kasilde ez zuten lanerako hartu, 1942 urtera arte, lantegia militarren agintepean zegoelako, eta bera epaile militar batek epaitua zegoelako.



Argazkia: Patxi Juaristi
Kasilde Aginaga (Markina 1916-) Zamudio atxilotu zuten 1938ko maiatzaren hogeita zazpian, eta Bilboko Orue Txaletean frankistek emakumeentzako eraiki zuten kartzelan sartu zuten. Sei hilabete eta egun bat egin behar izan zituen kartzelan.

Alberto Onaindia Badiola botikariak ideologia errepublikarra zuen, eta frankistak sartu aurretxoan ihes egin zuen. Bueltatu zenean, isuna ordaindu behar izan zuen, eta botikari lanetan aritzeko lizentzia kendu zioten, 1941. urtera arte (Garaian, 1991-8: 9).

Jose Domingo Balentziagak eta Nemesio Aldazabalek Saltos del río Ondarroa enpresan lan egiten zuten, baina kartzelan edo ihes eginda egon ostean, ez zituzten euren postuetan hartu.

1940an, preso asko askatu zituzten, baina batzuk, etxera bidali ordez, Langileen Diziplina Batailoietara bidali zituzten. Era honetako batailoi gehienak 1940ko bigarren erdialdera arte aritu ziren lanean, baina batzuek 1942ra arte iraun zuten (http://www.esclavitudbajoelfranquismo.org/files/catalogo03IIparte.pdf).

1941 eta 1942an, horrelako langile talde bat egon zen Markinan, Esperanza fabrikan. Hamar pertsonako taldea zen (Leopoldo Castro, Luis Aranaga, Bordera, García, Camps eta beste bost bat lagun, andaluzak, katalanak eta nafarrak gehienak), eta Puerto de Santa Mariako (Cadiz) kartzelatik ekarri zituzten. Gauean Markinako kartzelan lo egiten zuten, eta, egunean zehar, Esperanzan lan egiten. Gosaldu, bazkaldu eta afaldu Onaindia Zaharraren jatetxean egiten zuten. Hauetariko bi, Leopoldo Castro eta Luis Aranaga, gure artean gelditu ziren bizitzen, eta euren familiak hemen atera ahal izan zituzten aurrera.

Apurka-apurka, gauzak normaltzen joan ziren. Presoak, langileen batailoietan zeudenak eta errefuxiatu batzuek etxera bueltatu ahal izan zuten, eta jendeak egunerokotasunari ekin zion: lana, familia, astialdiko jarduerak… Diktadura bortitz baten azpian eta arazo ekonomiko larriekin, baina gure herria bere onera etorri zen 40. eta 50. hamarkadetan, eta gizarte sareak, kohesio soziala edota herritarren arteko harremanak berriro ehundu ziren. Hala ere, gerrako belaunaldiek beti presente izan dituzte 1936tik 1939ra bizitakoak. Zauri psikologiko eta sozialak hor iraun dute, nahiz eta, kasu askotan, belaunaldi berriok ez ditugun sumatu ere egin.

5.6. **Frankisten errepresioaren zergatiak**

138 bat iheslari, 108 atxilotu eta preso, bederatzi fusilatu, ilea zerora moztutako hamaika emakume, herritar asko desterratuta, isun izugarriak, lapurretak, etxeen eta ondasunen bahiketak… Markina eta Xemein herri txikiak ziren, baina frankisten errepresioa izugarria izan zen.

Nola azaldu errepresio garratz hau? Nola ulertu urteetan elkarrekin bizi zirenen eta, kasu batzuetan, senide zirenen arteko salaketak? Non dago gerraondoko herritarren arteko bortizkeriaren oinarria? Nola apurtu zen gizarte kohesioa hain modu bortitzean? Charles Tilly-k *Violencia Colectiva* liburuan dio zaila dela era honetako galderei erantzun egoki bat aurkitzea (Tilly, 2007: 11). Dena den, iruditzen zait gatazkaren soziologian ekarpen hain garrantzitsuak egin dituzten Lewis Coser-en eta Ralf Dahrendorf-en lanek ematen dituztela galdera hauei erantzuteko irizpide batzuk (Juaristi, 2011: 29-59):

1. **Autoritatearen banaketa desberdina:** edozein gizartetan beti daude autoritate gehiago edo gutxiago duten pertsonak eta taldeak, eta autoritate horren menpe bizi direnak. Beraz, taldeen eta pertsonen artean dominazio-mendekotasun harremanetan oinarritutako harremanak sortzen dira. Hau da, talde edo pertsona batzuek euren dominazioa ezartzen dute, eta beste batzuek mendekotasuna pairatzen. Dahrendorfek (1971: 188-198) honi «autoritatearen banaketa dikotomikoa» deitzen dio.

Epe luzera, «autoritatearen banaketa dikotomikoak» interesen gatazka sortzen du autoritatea dutenen eta autoritate honen mende daudenen artean. Alegia, denborarekin, agintzen dutenen eta men egiten dutenen interes desberdinak aurkako interesak bihurtzen dira. Agintzen dutenek euren *status quo-a* babestu nahi izaten dute, eta autoritatea pairatzen dutenek *status quo* hori aldatzea edo deuseztatzea.

Errepublika aurreko urteetan, oso gutxi ziren jauntxoen eta tradizionalisten autoritatea zalantzan jartzen zutenak. Ondorioz, arazorik gabe lortzen zituzten alkatetzak, zinegotzi postuak, Aldundiko karguak edota eragin ekonomiko, politiko eta sozial handia zuten erakundeetako aginte postuak. Autoritate politikoa euren eskuetan edo euren gustuko hautagaienetan zegoen beti, eta hori ez zuen inork zalantzan jartzen.

Ikuspuntu erlijiosotik ere tradizionalistek eta jauntxoek autoritate izugarria zuten. Gaitan de Aialatarrak, berbarako, Markinako alkatetza izateaz gain, Xemeingo eta Markinako Andre Maria parrokiako eta Etxebarriako San Andres parrokiako zaindariak ziren, eta horrek eliza hauetako parrokoak aukeratzerako eskubidea ematen zien. Jauntxo tradizionalisten eta elizgizonen arteko harremana oso estua zen, eta horrek indartu egiten zuen hauen autoritatea eta herritarrengan zuten eragina.

Nekazaritza ekonomiaren oinarri garrantzitsuena zen gizarte hartan (Mugartegi, 1927), jauntxo tradizionalistak baserri, errota, etxe, baso eta lur ugariren jabe ziren, eta euren autoritate ekonomikoa zalantza ezina zen. Errepublika aurreko urteetan, Markinako zein Xemeingo baserritarren bi herenak ez ziren etxe jabeak, maizterrak baizik; beraz, jauntxoen nahiak eta aginduak onartzea beste aukerarik ez zuten (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1991: 19 eta Lorenzo, 1996: 68). Gainera, euren aberastasunak medio, jauntxoek beste negozio eta inbertsio batzuk ere izaten zituzten (bainuetxeak, argindar enpresak, inbertsioak bankuetan, trenbide sareetan edo beste negozio batzuetan…), eta horrek euren autoritatea berrindartzen zuen.

Bigarren Errepublikak jauntxoen autoritatea ahultzea ekarri zuen Estatu espainiarrera, eta horrek eragina izan zuen baita Markinan eta Xemeinen ere. Sistema politiko berriak jauntxoen eta tradizionalisten pribilegioak eta *status quo*-a murriztu zituen. Ondorioz, EAJ eta ideologia abertzalea asko indartu ziren.

Ikuspuntu erlijiosotik, abade eta fraide abertzaleak, euskaltzaleak eta gai sozialei garrantzia ematen zietenak ugaritu ziren inguru honetako parrokietan eta komentuetan, eta, ondorioz, ahuldu egin ziren tradizionalisten eta elizgizonen arteko harremanak, eta, horrekin, baita hauen autoritate erlijiosoa ere (Urkiza, 1992; Urkiza, Unzueta, eta Fdez. De Mendiola, 2005; Oar-Arteta, 1991; eta Ugalde, 1988).

Ikuspuntu sozial eta ekonomikotik, Errepublikak aldaketak sartu zituen baserri jabeen eta maizterren arteko harremanetan. Maizterrek bizi ziren etxe eta lurrekiko eskubide gehiago lortu zituzten (maizterrak etxetik botatzea zaildu egin zen, adibidez), eta horrek ere baserri jabe eta jauntxoen autoritatea murriztu zuen. Bestetik, lantegi industrialak edota soldatapeko langileak ugaritu ziren (Esperanza fabrika 1933an etorri zen), eta handitu sindikatuetara afiliatutakoen kopurua, baita baserritarren sindikatuetara afiliatutakoena ere.

Hitz gutxitan esateko, Bigarren Errepublikak zalantzan jarri zuen jauntxoen eta tradizionalisten autoritate ekonomiko, erlijioso, politiko eta soziala; eta, ondorioz, hauek denak Errepublikaren aurka eta matxinada militarraren alde agertu ziren. Izan ere, matxinatuen asmoa zen jauntxoek eta eskuindarrek galdutako autoritatea berreskuratzea. Are gehiago, errepresio basatiaren helburu garrantzitsuena izan zen jauntxoen eta tradizionalisten autoritatea zalantzan jarri zutenak desagerraraztea. Horrela, jazarraldia bereziki bortitza izan zen abade eta fraide abertzale eta euskaltzaleekin, sindikatuetako kide ziren baserritar eta langileekin, eta alderdi abertzale, ezkertiar edo errepublikazaleetako militanteekin.

2. **Taldea eta ia-taldea:** Dahrendorfen arabera (Dahrendorf, 1971), interes taldea, eta ez ia-taldea, da benetako agente aktiboa interes gatazkak daudenean. Interes taldeek argi dituzte zeintzuk diren euren nahiak eta interesak, eta gai dira gatazken arrazoiak interes eta helburu horien arabera azaltzeko, pertsonak eta taldeak interes horietara erakartzeko eta hauen portaerak bideratzeko. Ia-taldeak, aldiz, interes batzuk komunean dituzten kategoria sozialak dira, eta zehaztu gabe izaten dituzte nahiak eta interesak, eta, beraz, gatazketan ez dira hain eraginkorrak.

Errepublika garaian, lau alderdi politiko zeuden antolatuta Markinan eta Xemeinen: Komunio Tradizionalista, EAJ, PSOE eta Izquierda Republicana. Talde bakoitzak bere interes eta ideologia zuen:

– Euzko Alderdi Jeltzaleko (EAJ) kideak katoliko sutsuak ziren, euskaltzaleak eta eskubide foralen alde borrokatzen zuten. Hego Euskal Herriarentzat Autonomia Estatutua lortzea zen hauen asmo politiko garrantzitsuena. Ia gehienak dendariak eta baserritarrak ziren.
– Markinako Batzorde Sozialistako (PSOE) kide gehienak, aldiz, klase kontzientziadun soldatapeko langile industrialak ziren. Gizarte sozialista eta ateo baten alde borrokatzen zuten.
– Izquierda Republicana (IR) alderdiaren jarraitzaileak ez ziren oso elizkoiak, monarkiaren aurka agertzen ziren eta Errepublika Federala defendatzen zuten.
– Komunio Tradizionalista alderdiko kideak erabat katolikoak ziren, monarkiaren alde zeuden, ideologia kontserbadorea zuten, eta jauntxoen eta aberatsen *status quo*-a gordetzearen aldekoak ziren. Euren nahiak ziren monarkia berrezartzea, Errepublika bultzatzen ari zen aldaketak gelditzea, eta hauteskundeetan ezkertiarrei eta abertzaleei aurre egitea.

Gerra Zibilak lau alderdiok bi taldetan banatu zituen: alde batean, Errepublikaren alde eta matxinatutako militarren aurkakoak zeuden (EAJ, PSOE eta IR); bestean, tradizionalistak, jauntxoak eta eskuindarrak.

Frontea geratuta egon zen zazpi hiletan, abertzaleek, ezkertiarrek eta errepublikazaleek Errepublikaren Aldeko Batzordea eta Udal Batzordeak eratu zituzten, eta agintean egon ziren 1937ko apirilaren 27ra arte. Lan asko egin zuten herritarren artean elikagaiak banatzen, Markinako Frontean zeuden gudari eta milizianoei laguntzen, ordena publikoa eta elkarbizitza ziurtatzen, frontea sendotzen eta herritik metro gutxira zeuden matxinatu

frankisten aurka borrokatzen. Alabaina, halabeharrak eraginda sortutako ia-talde bat ziren, eta, ondorioz, nahastu egiten ziren batzuen eta besteen helburuak, interesak eta estrategiak. Errepublikarrek arazo asko izan zituzten helburuak finkatzerakoan, estrategiak zehazterakoan eta matxinatuen aurka modu antolatuan eta eraginkorrean borrokatzerakoan. Besteak beste, istilu asko izan zituzten herriko espioiekin edo saboteadoreekin hartu behar zituzten neurriak finkatzerakoan (Onaindia, 1937).

Tradizionalistak, aldiz, interes talde bat ziren, eta argi zituzten zeintzuk ziren euren interesak eta horiek lortzeko bideak. Errepublika garaian, gerratean zein gerraondoan, tradizionalistek euren interesak modu aktiboan babestu zituzten. Oso ondo antolatu zituzten frontearen beste aldean zeuden militar matxinatuei informazioa pasatzeko espioitza sareak, jendea frontearen alde batetik bestera pasatzeko moduak edota sabotaje ugari prestatu zituzten Errepublikaren aldeko soldaduen eta antolaketa militarraren aurka (abade, agintari zein tradizionalistek parte hartzen zuten sabotaje hauetan). Gerraostean, euren interesen araberako errepresio bortitza bultzatu zuten, euren autoritatea zalantzan jarri zuten aurkari politikoak desagerrarazteko asmoarekin.

3. **Gatazkaren intentsitatea eta bortizkeria:** Dahrendorfek bi eskalen arabera aztertzen ditu gizarte gatazkak: gatazken intentsitatearen arabera eta gatazken bortizkeriaren arabera (Dahrendorf, 1971: 188-198).

Intentsitateak gatazka batean nahastuta daudenen parte hartzearekin zerikusia du; alegia, parte hartzaileek gatazkan erabiltzen duten energiarekin. Gatazkaren intentsitatea handia izango da inplikatuta daudenei gatazka asko axola bazaie; bestela esanda, gatazka galtzearen ondorioak handiak badira.

Ezkertiarren eta abertzaleen aurka gerraondoan hasi zen errepresioa oso intentsua izan zen. Tradizionalistek eta jauntxoek arriskuan ikusi zituzten euren autoritatea, interesak, ideologia eta, oro har, bizimodua; eta erabat inplikatu ziren abertzaleak, ezkertiarrak eta euskaltzaleak salatzen, iraintzen eta kartzelaratzen.

Dahrendorfen arabera (Dahrendorf, 1971: 188-198), gatazken intentsitatea handitu egiten da gizarte gatazkak elkar pilatzen direnean. Alegia, gizarte batean dauden elkarteen arteko gatazkak bata bestearengandik desberdintzen ez direnean. Gerratean zein gerraostean, gatazka politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta soziala nahastu ziren, eta horrek intentsuagoa bihurtu zuen gatazka. Beste berba batzuekin esanda, errepresioaren bidez, autoritate politikoa, erlijiosoa, ekonomikoa eta soziala, guztiak batera, berreskuratu nahi izan zituzten tradizionalistek, eta horrek maila, talde eta sektore desberdinen aurkako errepresioa eragin zuen.

Gatazken bortizkeriari dagokionez, Dahrendorfek dio gatazka baten bortizkeria txikiagotu egiten dela gatazka araupetzen denean (Dahrendorf, 1971). Eta horrek esan nahi du gatazkan dauden parteek elkarrengandik aldentzen diena onartzen dutela, beste aldea errespetatzen dutela eta elkarrekiko harremanetan arau komun batzuk errespetatzen dituztela. Gerraondoko bortizkeria handia izan zen gure herrian, araurik gabeko gatazka izan zelako. Tradizionalistek eta jauntxoek ez zituzten aurkariak onartzen ezta errespetatzen ere, eta inolako arau edota gizatasunik gabeko jazarraldiari ekin zioten.

Dahrendorfen arabera, gizarte egituraren aldaketa are eta erradikalagoa da zenbat eta gatazkaren intentsitatea handiagoa izan (Dahrendorf, 1971: 188-198). Eta gizarte baten egitura are eta bizkorrago aldatzen da zenbat eta gatazkaren bortizkeria handiagoa izan.

Nire ustez, gerraosteko errepresioa intentsua eta bortitza izan zen, hain zuzen ere, FET-JONS-eko kideek Errepublika garaiko gizarte aldaketak errotik ezabatu nahi izan zituztelako.

4. **Ideologia eta gatazka:** Lewis Coserren arabera (Coser, 1964), gatazkan parte hartzen dutenek elkarteen eta taldeen izenean parte hartzen dutenean, eta, euren helburuengatik borrokatu beharrean, ordezkatzen duten taldearen ideiengatik eta helburuengatik borrokatzen dutenean, erradikalagoak eta errukigabeagoak bihurtzen dira. Nahi pertsonalak gatazkatik alboratzen direnean, gatazka bortitzagoak sortzen dira (Coser, 1964: 111-119).

Errepublika etorri aurreko urteetan, markinar eta xemeindar gehienak nekazariak ziren, eta ideologia tradizionalista zuten. Agintari tradizionalistak jaun eta jabe ziren. Errepublikarekin, mentalitateak, ideologiak, kultura politikoa eta balioak aldatzen hasi ziren. Eta horrek zalantzan jarri zuen jauntxoen eta tradizionalisten autoritatea, *status quo*-a edota pribilegioak.

Gerraondoan, guda lerroa apurtu eta tradizionalistek agintea lortu zutenean, Errepublika aurreko gizarte mota berreskuratzen saiatu ziren, aurkariak desagerraraziz. Euren autoritatean oinarritutako gizartea berreraiki nahi zuten, eta, horretarako, errukigabe eta bortizki zapaldu zituzten euren ideien, bizimoduaren eta helburuen aurka zeudenak. Tradizionalistek, asmo pertsonalak babestu ordez, gizarte mota bat eta ideologia eta balio batzuk babesten zituzten, eta ez zuten zalantzarik izan eurek bezala pentsatzen ez zutenen aurka bortizkeri izugarria erabiltzerakoan. Ezkertiarrak, sindikalistak, euskaltzaleak edo abertzaleak kartzelaratuak, fusilatuak edo desterratuak izan ziren.

5. **Benetako gatazka eta gatazka faltsua:** Lewis Coserren arabera, bi eratako gatazkak daude: egiazko gatazkak eta gatazka faltsuak (Coser, 1964: 48-55) .

Benetako gatazken bidez, gabezia bat sentitzen duten pertsonek edo taldeek gabezia hori ase nahi dute. Gatazka, kasu honetan, helburu zehatz bat lortzeko bitartekoa da. Gatazka faltsuak, aldiz, ez dira sortzen aurkariek asmo desberdinak dituztelako, baizik eta gatazkan parte hartzen duten pertsona edo taldeek pilatuta duten tentsioa arindu nahi dutelako. Bigarren gatazka mota honetan, tentsioa arintzen da aurkarien aurkako ekintza bortitzen bidez (Coser, 1964: 55).

Egiazko gatazka helburu bat lortzeko bitarteko bat da, eta, beraz, helburua lortzen denean edo helburu hori lortzeko beste bitartekoren bat aurkitzen denean, gatazka alboratu daiteke. Faltsuak diren gatazketan, ez dago horrelako alternatibarik. Asegarritasuna ekintza bortitzak berak ematen du[9].

Coserren proposamen honi jarraituz, Markinan eta Xemeinen gerraostean eman zen jazarraldi bortitza gatazka faltsua izan zen, nire ustez. Izan ere, tradizionalistek, eskuindarrek eta jauntxoek ikusi zuten Errepublika garaian urteetan izan zuten autoritateak ihes egin ziela; euren ideologia eta balioak zalantzan jartzen zirela; eta frontea geldirik egon zen hiletan, 1936ko uztailetik 1937ko apirilaren 27ra, hainbat une larri bizi behar izan zituztela (herriko buruzagi tradizionalista batzuk atxilotu, kasu batzuetan jo edota torturatu egin zituzten, isunak ordainarazi zizkieten, euren etxeak eta ondasunak bahitu…). Honek guztiak sorrarazi zuen amorru eta frustrazioaren eraginez, gerraondoan gatazka faltsu bat hasi zen. Gerra irabazi eta boterea eskuratuta ere, jauntxoek eta eskuindarrek jasan zituzten kalteen ordain gisa erabili zuten bortizkeria. Euren amorrua eta tentsioa arintzeko modu bat izan zen gerraosteko errepresioa.

---

[9] Lewis Coserrek dioen bezala: «…satisfaction is derived from the aggresive act itself» (Coser, 1964: 55).

VI
GERRAREN ONDORIOAK MARKINAN ETA XEMEINEN

«Iragana gogoratzen ez dutenek errepikatzera kondenatuak daude»

GEORGE SANTAYANA
Arrazoia Sen Onean

Markinan eta Xemeinen ez zen hil Otxandion, Bilbon, Gernikan edo Durangon bezainbat pertsona. Markinak eta Xemeinek ez zuten ezagutu aipatutako herriotan hegazkin italiar eta alemaniarrek egin zuten bezalako triskantzarik. Dena dela, gerraren ondorioak oso larriak izan ziren bi herriotan[1]. 1936ko uztailetik 1939ra, gauza mingarri eta beldurgarri asko gertatu ziren, eta horrek eragin izugarria izan zuen garai hura bizi izan zutenengan, baita hauen ondorengoengan ere.

Gure herriko lurretan, 1936ko irailaren 29an lehertu ziren lehen obusak, eta 1937ko apirilaren 25era arte (egun horretan izan zen azken bonbardaketa), tropa frankistek hainbat leherkari tona bota zituzten markinarren eta xemeindarren gainera. Hegazkinen bitartez, zein Arnoaten, Urkaregin edo Madalenako ermitaren inguruan (Berriatu) zeuden kanoi baterien bidez, erreketeek askotan bonbardatu zituzten Xemein eta Markina. Alberto Onaindiak dioen bezala, «Markina será de las villas que más bombardeos aéreos ha sufrido durante toda la campaña de la guerra» (Onaindia, 1937: 9). Bonbardaketa hauek guztiek kalte ekonomiko, material eta ekologiko ugari eragin, eta, garrantzitsuagoa dena, pertsona asko hil zituzten[2]. Horrez gain, hamaika izan ziren txikituta edo kaltetuta gelditu ziren etxeak, batez ere Markinako alde zaharrean. Alberto Onaindiak dioen bezala: «No se puede hacer un resumen detallado de las casas tocadas por los bombardeos aéreos y de artillería, porque aunque poco todas las casas sufrieron los efectos de los bombardeos. Algunas quedaron destrozadas en parte y otras totalmente. Yendo a contar casi todas las casas del arrabal de Abesua fueron alcanzadas por algún obús, comenzando por Txoribenta, Casa de Torre Bidarte, Zabala, Arrillaga, Mendaro, Sota, Manu-Antzotegi, Merced, Onaindia Zarra, etc. sin quedar ni una sola intacta.

---

[1] Felicitas A. Lorenzok esaten du Markinan eta Xemeinen, Gerra Zibilaren ondorioak ez zirela izan beste herri batzuetan bezainbat larriak: «…gerra horren ondorioak ez ziran beste herri batzuetan baizen larriak suertatu-eta. 1936 eta 1937ko aktetan behin baino ez dogu ikusi bonbaketearen aukerea egon zana eta antza danez, urigunean ez zan borrokarik egon» (Lorenzo, 1996: 45). Egiatan, Markina eta Xemein askotan bonbardatu zituzten, eta, nire ustez, gerraren ondorioak oso larriak izan ziren bi herriotan.

[2] Nik dakidala, kanoi baterien bidez egindako bonbardaketek ez zuten zibilik hil Markinan eta Xemeinen. Bonbardaketetan hildako guztiak, hegazkinetatik botatako bonben ondorioz izan ziren.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Jose Martinen etxea 1937ko otsailaren zazpiko bonbardaketaren ostean.

En el portal del Carmen ocurrió otro tanto, siendo muy castigado el convento de los PP. Carmelitas. No hemos de contar todas las casas del pueblo tocadas porque quedaríamos cortos, y más vale decir que sufrió todo el pueblo, unos más que otros» (Onaindia, 1937: 12).

Txikizio materialekin batera, gerraren beste ondorio larri bat ekonomiaren desegituraketa izan zen. Gerrako lehenbiziko hilabeteetan, frontetik hurbil bizi ziren baserritar batzuek diru asko egin zuten milizianoei elikagaiak saltzen eta zerbitzuak eskaintzen (arropak garbitu eta jaten eman, adibidez). Baina, oro har, gerrak lur jota utzi zuen garaiko jendearen bizibide garrantzitsuena, nekazaritza, eta herritarren diru sarrerak asko murriztu ziren. Alde batetik, kontuan hartu behar da hainbat baserritarrek ihes egin behar izan zutela, euren baserriak soldaduen errelebu kuartel bihurtu zirelako edota frontetik hurbilegi zeudelako. Baserri askotan, bestalde, arazo asko zeuden lanerako, egunean zehar tiroak eta bonbak jausten zirelako inguruan. Baserriko produktuen salerosketak ere asko murriztu ziren, jendeak dirurik ez zuelako, eta gutxiago etortzen zelako eguenetako azokara. Azkenik, kontuan hartu behar da gazte asko frontean borrokatzen zegoela, eta baserriko lanekin jarraitzeko arazo izugarriak zeudela.

Nekazaritzak ez ezik, industriak ere asko sufritu zuen. Errepublika garaian, Markina, Xemein eta inguruetako herrien egitura sozial eta ekonomikoa apur bat aldatu egin zen. Errepublika aldarrikatu zenean, Markina eta, batez ere, Xemein nekazaritzari lotuta zeuden, baina, hala ere, lanpostu industrialak ugaritzen ari ziren. Alde batetik, kontuan hartu behar da, XIX. mendearen azkenetan eta XX. mendearen hasieran sortutako latonerien lan karga handitu egin zela 20. eta, bereziki, 30. hamarkadaren hasieran, eta, horrekin, baita langile industrialen kopurua ere (Juaristi, 2008c). Bestalde, 1933an, Esperanza y Cia enpresa etorri zen Markinara, eta enpresa honek eragin handia izan zuen inguruko herrien egitura sozial eta ekonomikoaren eraldaketan*, lanpostu industrial zuzenak zein zeharkakoak sortu zituelako*.

Herria aberastu eta modernizatu zuten aldaketa ekonomiko hauek guztiak ezerezean gelditu ziren gerrarekin. Esperanza fabrikak Zamudiora joan behar izan zuen 1936ko

azaroan, eta bertan egon zen hiru urtez. Horrek eragin zuzena izan zuen herriko okupazio tasan, udalaren diru sarreretan eta, oro har, herritarren ekonomian. Bestalde, latoneriek arazoak izan zituzten aurrera egiteko, galdategietarako burdina eta beste lehengai batzuk falta zirelako, lan eskaerak murriztu zirelako edota jabeak eta langileak kartzelan, frontean borrokatzen edo langileen batailoietan zeudelako[3]. Gerraondoan, latoneri ia denek umeak hartu behar izan zituzten lanerako, gizon gutxi zegoelako herrian.

Hirugarren sektorea ere lur jota gelditu zen. Denda eta negozioek galera ekonomiko handiak izan zituzten, bonbardaketen beldurrez jende gutxiago etortzen zelako erosketak egitera, jendeak dirurik ez zuelako, eta, gainera, gerra aurrera zihoan heinean, dendariek produktuak lortzeko arazoak zituztelako. Are gehiago, denda asko zarratu ziren, jabeak eta langileak frontean, kartzelan, langileen batailoietan edo ihes eginda zeudelako[4].

Hirugarren sektoreak jasan zituen kalteen erakusle ona da Urberuagako bainuetxearekin gertatutakoa. Bainuetxea soldaduen kuartel izan zen 1936tik 1940ra (1937ko apirilera arte errepublikarrena eta 1940ra arte frankistena), eta 1940tik 1943ra, Bigarren Mundu Gerran Frantziatik ihes eginda etortzen ziren zibilen kontzentrazio eremu bihurtu zuten frankistek (Rodrigo, 2005). Horrek galera ekonomiko handiak eragin zizkion bainuetxearen jabeari, Manuel Alonso Agirresarasuari, baina baita hainbat markinarri eta xemeindarri ere. Izan ere, **b**ainuetxeak urtero zabaltzen zituen ateak ekainaren 15etik irailaren 30era, eta inguruko jende askori ematen zien lana (Sarrionaindia, 1989: 225). Nire kalkuluen arabera, denboraldi bakoitzean 35 bat pertsona arituko ziren bertan lanean. Halaber, bainuetxearen inguruan denda, bizartegi, denboraldiko bost ostatu eta beste negozio batzuk zeuden, eta, bainuetxea zarratuta zegoenez, hauetan ere ez zen aberastasunik eta lanposturik sortzen.

Gerrak hankaz gora jarri zituen markinarren eta xemeindarren bizibide, diru iturri eta beharrak, eta gerraostea oso gogorra izan zen herritarrentzat. Galera materialei, ezkertiarren eta abertzaleen aurkako jazarraldiari eta gizartean zegoen beldurrari egoera ekonomiko kaxkarra gehitu behar izan zitzaion.

Gerraren beste ondorio bat galera ekologikoak izan ziren. Nahiz eta gaur egun oso zaila den era honetako galerak neurtzea, kontuan hartu behar da, gerra ia guztietan bezala, gure mendi, erreka eta basoek kalte asko jasan zituztela. 1937ko otsailaren 7an, adibidez, Saseta batailoikoek su eman zioten Etxebarriako Aulesti eta Kortabitxi baserriaren parean zegoen pinudi bati, aurkarien mugimenduak hobeto ikusteko (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 75). Lubakiak eta bideak egin ziren, bonbardaketek hainbat mendi eta baso hondatu zituzten, edota hauen itxura aldatuta gelditu zen, metrailadoreentzako porlanezko etxeak eta era askotako eraikuntzak egin zirelako; gainera, mendi,

---

[3] Artibai kalean zegon latoneria, Martin Frantzisko Cazalis Lapeirak (1845 - 1917) (Martin «Pirri») sortutakoa, zarratu egin zen gerraondoan, bi jabeak, Manuel Cazalis Sarasua eta Jose Cazalis Sarasua, kartzelan sartu zituztelako. Fernando Oliver Lakastaren (Alcala de Henares, 1878 - Xemein, 1946) latoneriarentzat ere Gerra Zibila oso kaltegarria izan zen. Jabearen semea, Fernando Oliver Larrinaga, kartzelan sartu zuten; bertan lan egiten zutenetariko asko ere kartzelan edo langileen batailoietan zeuden. Ondorioz, umeak hartu behar izan zituzten lanerako. Azkenik, Azpiko Errotako galdategiaren arduradunetariko bat, Jose Domingo Larrinaga Larrinaga, Gerra Zibilean hil zen, eta hori oso kaltegarria izan zen galdategiarentzako. Artibai kaleko latoneriak ere kalte handiak izan zituen, jabeetariko bat, Joan Loiola eizagirre, fusilatu zutelako eta beste bat, Joan Ugartetxea, kartzelan sartu zutelako.

[4] Basilio Bollarren eta Gerardo Ibarluzearen «Itsulapikoren» dendak, adibidez, zarratuta egon ziren, euren jabeak ihes eginda edo kartzelan zeudelako. Anbrosio Mallukizaren taberna-denda itxi egin zen, atxilotu zutenean, 1937ko maiatzean.

baso eta zelaiak metrailaz, balez eta txatarraz beteta gelditu ziren. Gure baso eta mendietan, oraindik ere zutik daude metrailadore etxeak, lubakiak eta parapetoak.

Gerrak eragin zituen galerarik garrantzitsuenak, hala ere, gizakien heriotzak izan ziren. Fronteetan hil ziren markinar eta xemeindarrak (berrogeita hamaika bat, gutxi gorabehera), frankistek zein errepublikazaleek fusilatu zituztenak (hamahiru markinar eta xemeindar), espetxeetan eta kontzentrazio esparruetan hil zirenak (lau pertsona guztira) eta bonbardaketetan hil ziren zibilak batuta (hamasei markinar eta xemeindar), laurogeita lau markinar eta xemeindar inguru hil ziren Gerra Zibilean. Goian esan dut Markinak eta Xemeinek ez zutela ezagutu Otxandio, Bilbo, Gernika edo Durangok bezalako txikiziorik. Dena den, bi herri hauek zuten biztanleria kontuan hartzen badugu (biek batera 3.245 biztanle zituzten 1936an), nire ustez, gerraren ondorioak oso lazgarriak izan ziren hemen. Gutxi gorabehera familien %15ean heriotza bat egon zen.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu alde bateko zein besteko soldadu ugari hil zela gure herriko lurretan, frontea mugitu gabe egon zen zazpi hilabeteetan. Oso zaila da zenbaki bat ematea, baina, nire ustez, alde bateko eta besteko ehunka soldadu hil ziren. Bereziki, soldadu asko hil ziren Egixarreko batailan (1936ko urriaren 21ean) eta San Esteban egunean Kalamuan egin ziren borrokaldietan (1936ko abenduaren 26a).

Gerrak galera sozial anitz ere ekarri zituen, eta gizarte kohesioa txikituta gelditu zen. Tradizionalistek, abertzaleek, sozialistek eta errepublikarrek ideologia eta interes desberdinak zituzten, baina, gerra aurretik, elkarrekin parte hartzen zuten herriko bizitzan (Juaristi, 2006). Gerrak tradizionalisten eta Errepublikaren aldekoen arteko harremanak apurtu zituen, eta mesfidantza eta elkarrekiko beldurra nagusitu. Jendeak kontu handia zuen norekin hitz egiten zuen.

Guda lerroa apurtu ostean, FET-JONS-eko kideek errukirik gabeko mendekua hasi zuten ezkertiarren eta abertzaleen aurka, eta kohesio soziala are eta gehiago txikitu zen. Erregimen berriaren aldekoen eta abertzale, ezkertiar eta, oro har, frankistentzat «susmagarriak» zirenen artean zulo izugarria eraiki zen, eta herritar gehienek galtzaileak alboratu eta irabazleen aldeko jarrera agertu zuten, badaezpada.

Herriko bizitza soziala kaltetu zuen beste arazo larri bat familien banaketak izan ziren. Hainbat pertsonak ihes egin zuten atzerrira, kartzeletan sartu zituzten edota langileen batailoietara bidali. Senide askok urteak egin zituzten elkar ikusi gabe. Horrez gainera, kasu askotan, familiek ez zuten jakiten euren semeak edota gizonak non zeuden preso, eta horrek banaketa are eta lazgarriagoa egiten zuen.

Auzoetako bizitza ere oso kaltetua gelditu zen. Gerratean, jendea gutxiago ateratzen zen kalera, eta elkarrekin egoteko eta berba egiteko aukerak murriztu egin ziren. Bonbardaketengandik babesteko, jendeak babeslekuetan edo kobazuloetan pasatzen zuen eguna (Osolon, Axpen edo Montemarren) edota egun guztia ezkutatuta egiten zuen (Urkiza, 1992: 289). Gerraondoan, auzotar batzuk elkar salatzen hasi ziren, gerrarekin edo politikarekin zerikusirik ez zuten haserreek eraginda. Salatutakoa abertzalea edo ezkertiarra bazen, Zabalako komandantziara deitzen zioten berehala, eta, hainbat kasutan, isuna jartzen zioten edota kartzelara sartzen. Gerraostean, inbidiak, haserreak eta mendekuak modu bortitzean azaleratu ziren.

Galera sozialekin bukatzeko, aipatzekoa da frankistek emakumeen aurkako errepresio bortitza hasi zutela, hauen bizimodua goitik behera aldatuz. Frankistek Errepublika garaian emakumeek lortu zituzten aurrerapen guztiak ezabatu zituzten, eta familiari, elizari eta etxeko lanei loturiko andrazkoaren eredua berreskuratu eta inposatu zuten. Emakumeak irainduz eta beldurtuz, matxismoa nagusitu zen gizartean, eta emakumeen garapen pertsonala oztopatu zen urteetan.

Gerrak galera kulturalak ere ekarri zituen. Alde batetik, kontuan hartu behar da, frontea gure herriko lurretan geldirik egon zen zazpi hiletan, eskolak itxita egon zirela. Gerra hasi zenean, 1936ko uztailaren 17an, umeak oporretan zeuden, baina gero, 1936ko irailean, eskolek ez zituzten ateak ireki, frontea hurbilegi zegoelako, bonbardaketek arrisku asko sortzen zutelako, eta irakasle gehienak ihes eginda zeudelako. Gainera, Markinako Artibaiko eskolan intendentzia jarri zuten errepublikarrek. Beraz, 1936ko irailetik 1937ko irailera arte, sei eta hamahiru urte arteko umeak eskola barik gelditu ziren.

Bestetik, bi herriotako bizitza kulturala gelditu egin zen. Antzerkiak, jaiak, elkarte erlijiosoek, kulturalek eta politikoek antolatzen zituzten ekintza kulturalak edo umeentzako ekimenak desagertu egin ziren. Bizirik segitu zuen ekintza kultural bakarra zinea izan zen.

Hirugarrenik, gogoratzekoa da bi herriotako ondare historikoak asko sufritu zuela. Batetik, hainbat baserri erre eta hondatu ziren. Etxebarrian, adibidez, Abiñe, Beide eta Mandiola Beheko baserriak erre egin ziren (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1989: 197)[5]. Xemeingo Egurrola baserria eta Olazar baserria ere erre egin ziren. Olazar baserriaren kasuan, auzoko errekete batzuek lehenengo lapurretan egin zuten, eta gero erre. Bestetik, Markinako alde zaharra oso kaltetua gelditu zen. Etxe askok izan zituzten txikizioak.

Erabilpen militarra izan zuten eliza, komentu eta jauregiak ere asko hondatu ziren. Karmengo fraidetxea txerritegi bat eginik gelditu zen, eta balioko gauzarik gehienak apurtuta edo ostuta (Baraiazarra, Garaian, 5, 1989 eta Mugartegi, 1938: 224). Mesedetako mojen komentua zein Beheko mojena ere berdin gelditu ziren (Valladolideko Unibertsitatea, Mugartegi, 1938: 224).

Munibe jauregia ere oso hondatua gelditu zen, eta hamaika artelan eta liburu desagertu ziren (Mugartegi, 1938: 225). Inazio Urkixok zioen bezala: «Nuestra última guerra, había de ser funesta para los destinos de esta casa. Completamente desvalijada por las hordas rojo-separatistas, que se llevaron a Holanda todos los cuadros y libros que poseía…» (Urkixo, 1947: 18).

Patrokua jauregiko liburutegia ere hemendik eraman egin zuten, bonbardaketengandik babesteko, eta desagertu egin zen. Urberuagako bainuetxea ere hainbat aldiz bonbardatu zuten, eta dena lapurtuta eta hondatuta gelditu zen (Valladolideko Unibertsitatea, 1938: 252). Uhagon etxeko liburutegia ere desagertu egin zen (Mugartegi, 1938: 224).

1937ko urtarrilean, Jesus Maria Leizaola, Justizia eta Kultura Sailburuaren aginduz, Markinako epaitegian eta kartzelan zeuden Markinako Barrutiko Notaritza Protokoloen Artxiboa eta lehengo Busturiako Merindadeko Notaritza Protokolo batzuk Gernikara eraman zituzten, Martínez abizeneko notario baten etxera. Markinak bonbardaketa anitz jasaten zituenez, toki «ustez» seguruago batera eraman nahi izan zuten artxiboa. Protokolo hauek guztiak Gernikako bonbardaketan erre ziren, 1937ko apirilaren 26an (Mugartegi, 1937, Garaian, 15: 30).

Ziortzako kolejiatako artxiboa ere desagertu egin zen. Joan Jose Mugartegik zioen bezala: «…se llevaron también el curioso e interesante archivo de la abadía, cargando también con el recio arcón en donde había estado admirablemente catalogado y conservado desde hace más de tres siglos; y si este valioso fondo documental ha salido de Vizcaya, habrán desaparecido con él documentos de gran valor histórico, entre otros muchos el original de la Carta de Fundación de la villa de Guernica, dada por el Conde

[5] Beide baserria Mandiolatik botatako bonben ondorioz erre zen, eta Mandiola Beheko baserria Beidetik jaurtitako bonben ondorioz (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1989: 161)

D. Tello el año 1366, un precioso Privilegio Rodado del rey D. Juan I de Castilla de 4 de marzo de 1386, el original en pergamino, perfectamente conservado, de las Segundas Constituciones de la Abadía, dadas en Vitoria el 20 de Diciembre de 1400, cantidad de Bulas y Breves Pontificios de los años 1488 a 1708, por no citar más, que harían interminable esta relación» (Valladolideko Unibertsitatea, Mugartegi, 1938: 225).

Azkenekoz, kontuan hartu behar da gerraondoan euskal kultura eta euskara oso kaltetuak gelditu zirela, herriko kultur eragileak ihes egin behar izan zutelako, eta euskara eta euskal kultura sustatzea debekatu egin zirelako. Sermoiak eta dotrina euskaraz ematea ere debekatu egin zen, eta euskarazko inskripzioak zituzten hilobiei ere buelta emateko agindua eman zuten agintari berriek. Errepublika garaian euskal kulturak bizi izan zuen pizkundea gelditu egin zen. Euskararen eta euskal kulturaren aurkako giroa nagusitu zen elizan, eskolan eta, oro har, gizartean (Urkizu, 2009: 1049-1078).

Bonbardaketek, atxiloketek, familiako kideen heriotzek, ondasunen bahiketek, irainek, ihesaldiek eta, oro har, gerra giroak beldur, frustrazio, desesperazio eta estutasun asko sortu zuten herritarren artean, gehienbat ezkertiarren eta abertzaleen familietan. Gerra irabazi zutenak harro eta gupidagabe agertzen ziren bitartean, galtzaileek ezin zuten ezer esan; ezta euren defuntuengatik dolua gorde edota behar bezala negar egin ere. Frankisten propagandaren ondorioz, biktimen familiak bigarren mailako herritarrak bihurtu ziren. Kartzelan edo hilda zeuden abertzaleen eta, bereziki, «gorrien» emazte eta seme-alabek irainak eta begirunerik eza jasan behar izaten zituzten agintari berriengandik zein garaile atera ziren herritarrengandik. Horrek samina eta ezintasun izugarria sortzen zuen, eta batzuek urteak egin zituzten goibel eta deprimituta, etxetik atera ere egin gabe. Jose Luis Arizmendiarrieta, Jose María Arizmendiarrietaren aita, berbarako, EAJ-ko zinegotzia izan zen Errepublika garaian, eta, beldurraren beldurrez, depresioak jota egon zen gerraostean, eta ez zen irten ere egiten Iturbe baserritik (Morillo, 2005: 156). Jose Andres Aginaga (Markina, 1874 – Markina, 1938) atxilotu egin zuten, eta kartzelan biluztu eta jo. Egun gutxi egin zituen preso, baina bertan bizitako une latzen ondorioz, handik gutxira hil zen (1938an), arazo psikologiko larriekin. Gerratean zein ostean bizitakoekin herritarrak markatuta gelditu ziren, eta oraindik ere guztiz osatu gabe dauden zauri psikologikoak ireki ziren.

Beregainki umeek asko sufritu zuten. 1937an zehar, 30.000 bat ume erbesteratu ziren Europako lau estatutara: 4.000 Erresuma Batura, 3.000 Belgikara, 2.000 Sobiet Batasunera eta 10.000 Frantziara (Arrien, 1991). Nik dakidala, ume markinar bakarra eraman zuten atzerrira (zazpi urteko Jose Antonio Zuberogoitia) eta beste bat atxilotu zuten (15 urteko Jose Maria Arakistain), baina bi ume eta gaztetxo bat hil ziren (Plazida Mandiola, zortzi urteko barinagarra eta Etxebarriako Benito Agapito Bereziartua, hamahiru urtekoa, eta Jose Ramon Belaustegi, 17 urtetakoa) eta beste bi ume gutxienez zauritu zituzten (sei urteko Jose Antonio Zuberogoitia eta Etxebarriako, Elordi baserriko, Pedro Txurruka Muniozguren, bost urtekoa). Halaber, ume askok galdu zuten aita, anaia edo senideren bat, edo, denbora askoan, hauek ikusi gabe egon ziren, kartzelan edo atzerrian zeudelako.

Hau guztia gutxi balitz legez, ezkertiarren eta abertzaleen umeek FET-JONS-eko kideen irainak jasan behar izaten zituzten: fletxen eta pelaioen desfile militarretan parte hartu behar, guraso ezkertiarrak edo abertzaleak izateagatik eskolara joateko debekuak, erromerietan edota ekintza ludikoetan parte hartzeko oztopoak… Gurasoak ihes eginda, fusilatuta edo kartzelan zituzten umeek kulpa sentimenduak eta autoestimu baxua garatu zituzten, eta, hil diren arte, oroimen tristeekin bizi behar izan dute. Irtenbiderik gabeko egoera hartan, askok bizitzarekiko sentimendu tragikoak ere garatu zituzten, eta horrek eragin sakona izan du euren bizitzetan.



Argazkia: Abertzaletasunaren Agiritegiari - Sabino Arana Fundazioa
Jose Martinen etxea eta gaur egun Toldope taberna dagoen eraikina, 1937ko otsailaren zazpiko bonbardaketaren ostean.

Agintari berriek erregimen berriaren aldekoen eta aurkakoen artean desberdintzen zituzten herritarrak; norbait zirenen eta ezer ez zirenen arteko bereizketa egiten zuten, eta horrek bizitzaren zentzuaren aldaketa eragin zuen askorengan. Gerrako umeek gomutan izan dituzte beti gerrako zein gerraondoko gertaera lazgarriak, eta askotan izan dituzte horiei loturiko amets gaiztoak. Gerrak apurtu zituen familia askok euren bizitzak berreraiki ahal izan dituzte, baina kalte sinbolikoak, oroimen mingarriak eta frustrazioak hor gelditu dira.

Honegatik guztiagatik, ulergarria da hauetariko askok gerrari buruz hitz egin nahi ez izatea. Sarreran esan bezala, agintari frankistekiko beldurrak, galtzaile izatearen lotsak, momentu mingarri guztiak bizkor ahanzteko gogoak, edota seme-alabei frustrazioa eta amorrua ekidin nahiak belaunaldien arteko transmisioa oztopatu zuten. Gregorio Armañanzas-ek oso ondo azaltzen ditu, nire ustez, Gerra Zibilaren inguruan garatu zen isilezko hitzarmenaren arrazoiak (Armañanzas, 2003: 37-38): «Muchos supervivientes eligen el silencio como forma de proteger a sus descendientes. Aceptar el daño psicológico, contar los horrores, puede ser vivido como una segunda victoria del enemigo.

También necesitan negar el efecto del trauma en sus hijos: ellos son su futuro y su esperanza (Danielli, Y., 1998). Si no niegan esto ellos se sentirán culpables de transmitir este daño.

En otros casos el silencio es un mecanismo de defensa con el objetivo de negar sus sufrimientos y continuar con sus vidas normales. No pasó nada. Pero muchas veces, el silencio transmite mucho más internamente que las palabras.

El silencio y los secretos familiares, así como los mitos familiares constituyen uno de los mecanismos más efectivos para asegurar el impacto de la problemática familiar del pasado. Esto es cierto en las familias de supervivientes, agresores y Nazis» (Rosental, G. y Volter, B., 1998).

El silencio transmite normas, mitos y meta-mensajes, sin ninguna posibilidad de ser cuestionados.

Para proteger a sus descendientes los supervivientes les disuaden de hacer preguntas».

Gerraren beste ondorio bat abertzale, euskaltzale, ezkertiar eta errepublikazaleen aurkako errepresio bortitza izan zen. FET-JONS-eko kideek eta militar frankistek boterea eskuratu zutenean, euren aurkari politikoen eta hauen familien aurkako jazarraldi basatia hasi zuten, arerioak desagerrarazteko eta euren agintea sendotzeko (Bidasoa, 2005: 715).

Herriko tradizionalistak erabat inplikatu ziren militarrek agindutako eta antolatutako errepresioa gauzatzen, eta lan asko egin zuten «susmagarrien» zerrendak prestatzen eta jendea salatzen. Are gehiago, hainbat kasutan, kartzelatik edo heriotza zigorretatik libratzeko, atxilotuek epaileei aurkezteko behar izaten zituzten aldeko txostenak ukatu zizkieten (Gerrikagoitia, 2000). Aurretik politikan sartu gabe zeuden markinar eta xemeindar asko ere txapel gorria jantzi, eta FET-JONS alderdiko kide egin ziren, badaezpada, eta 1937ko maiatzetik aurrera, ezkertiarren eta abertzaleen kontrolatzaile eta salatari bihurtu ziren. Gizarte bizitza eta harremanak hankaz gora jarri ziren.

Egia da alde Errepublikarrean zein frankistan egon zela errepresioa, baina errepresio mota desberdinak izan ziren. Zentzu honetan, nik ere bat egiten dut Javier Rodriguez Gonzálezek dioenarekin: «En la Guerra Civil hubo represión en los dos bandos, pero existe una clara diferencia en la naturaleza de las dos represiones. Mientras en la zona sublevada es un terror organizado, que se irá convirtiendo poco a poco en una forma de acción política; en la republicana las deficiencias de control de los centros operativos explican en parte el carácter incontrolado e irregular de gran parte de la represión que afectó, en general, a personas que apoyaban la sublevación. Además hay que tener en cuenta que los sublevados ejercían una violencia contra la legalidad establecida y la República se defendía de ese ataque. Tal y como dice Santos Juliá 'no se trata de postular ningún paralelismo que iguale responsabilidades y reparta culpas, sino sencillamente de constatar un hecho: en la zona insurgente, la represión y la muerte tenían que ver con la construcción de un nuevo poder; en la leal, la represión y la muerte tenían que ver con el hundimiento de todo poder» (Rodriguez González, 2008: 103-104).

VII
BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, J.A. (1976): *Entre la Libertad y la Revolución 1930 - 1935. La verdad de un lustro en el País Vasco*. Geu argitaletxea, Bilbo.

AIXERIXA (1936-10-30): «Pazizta Egaskiñen erailketak». *Euzkadi* egunkaria.

AIZPURU, M., APAOLAZA, U., GOMEZ, J. M. eta ODRIOZOLA, J. (2007): *1936ko Udazkena Gipuzkoan. Hernaniko Fusilatzeak*. Alberdania, Irun.

AKESOLO, L. (1980): «Aita Jose Domingo Ugartetxea», *Karmel*, 1980-4.

ALIA MIRANDA, F. (1994): *La Guerra Civil en Retaguardia, Ciudad Real (1936 - 1939)*. Ciudad Realeko Aldundia, Ciudad Real.

ALONSO CARBALLES, J. J. (1998): *Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica. Historia y memoria de un éxodo infantil, 1936 - 1940*. 37an Atzerriraturiko Haurren Elkartea, Bilbo.

ALTAFFAYLLA KULTUR TALDEA (1986): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Altaffaylla Kultur Taldea, Lizarra.

ALTZIBAR, X. (2005): «Lauxeta eta Euzkadi Egunkariaren Euskal Atala». *Euskera*, Euskaltzaindia, 2005-2: 560-626.

ÁLVAREZ ROYUELA, R. (2007): *Guerra de España 1936 - 1939. Testimonio de un militar de la República*. Hondarribiko Udala.

AMURIZA, X. (1996): *Bertsolaritzaren historia*. Orain, Donostia.

ARANSOLO, I., LOIOLA, E.; MAGUREGI, I. eta MAIZTEGI, A. (1990): «Inazio Etxebarria». *Garaian*, 7. zenbakia, 38-41.

ARANSOLO, I. eta MAIZTEGI, A. (1991): «Markina-Xemeingo Industrial Iraultzaren Lehen Pausuak», *Garaian*, 9. zenbakia, 33-35.

——— (1993): «Paquita Ugarte». *Garaian*, 13. zenbakia, 14-15.

ARANSOLO, I. eta BARINAGARREMENTERIA, M. D. (1995): «Jose Ramon Argoitia. Telebista Izarra», *Garaian*, 15. zenbakia, 19-21.

———, BARINAGARREMENTERIA, M. D., GARITAOINAINDIA, L. eta MUNIOZGUREN, J. L. (1995): «Jose Mallukiza 'Mallu'. Pelotari eta 'Trotamundosa', *Garaian*, 17. zenbakia, 4-7.

ARANSOLO, I. eta LOIOLA, E. (2000): «Migel Ibarluzea». *Garaian*, 26. zenbakia, 28-31.

ARANSOLO, I. BARINAGARREMENTERIA, M. D. eta LOIOLA, E. (2005): «Jose Maria Rekalde Arriola». *Garaian*, 37. zenbakia, 40-45.

ARANSOLO, I. eta BARINAGARREMENTERIA, M. D. (2008): «Miren Kasilde Aginaga Barinagarrementeria», *Garaian*, 42. zenbakia, 12-15.

ARIZALETA, M. (1993): *El Tribunal de Jurado (Relatos). Euskadi 1936/37*. Oibar argitaletxea, Bilbo.

ARMAÑANZAS, G. (2003): «Transmisión intergeneracional del trauma de guerra», González, F. eta Cornago, N. (editoreak): *Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko XII. Jardunaldiak*. Gernika Gogoratuz, Gernika-Lumo.

AROSTEGUI, J. (1991): *Los combatientes carlista en la guerra civil española 1936 - 1937* (Bi tomo). Fundación Hernando de Larramendi, Aportes XIX, Madril.
ARRIEN, G. (1983): *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-40*. Onura Argitaletxea, Bilbao.
——— (1991): *Niños Vascos Evacuados a Gran Bretaña*. 37an Atzerriraturiko Haurren Elkartea, Bilbo.
ARRIETA, Y., ETXABE, R. M. eta ETXABE, M. (1988): «Salvadora Madinabeitia 'Doña Salva'». *Garaian*, 3. zenbakia, 18-21.
ARRIZABALAGA, B. (2004): *Barroetatarrak*. Markina-Xemeingo Udala, Markina-Xemein.
ARRIZABALAGA, J. J. (1978): *Markiña Zarra Kontu Kontari*. Ermuko Onandia Argitaldia.
ATXAGA, M. (1998): *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza*. Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
ATXAGA, B. (2007): *Markak. Gernika 1937* . Pamiela, Iruñea.
AZCONA, J. M. (2007*): Los desastres de la Guerra Civil Española*. Rey Don Joan Carlos Unibertsitatea.
AZKUE, K. (2007): *Irrintzi. Grito de Guerra*. Koldo Azkue, Bilbao.
AZURKI, A. (2011): *Maizales bajo la lluvia. Testimonios de los últimos gudaris y milicianos de la Guerra Civil en Euskadi*. Alberdania, Irun.
BADIOLA, A. (2011): *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937 – 1940)*. Txerto
BARAIAZARRA, L. (1989): «Aita Zezilio eta Pragako Jesus Haurra». *Garaian*, 5. zenbakia, 38-40.
——— (1993): «Vera-Cruz ikastetxearen 75. urteurrena», *Garaian*, 12. zenbakia, 34-35.
——— eta URKIZA, J. (1998): *Onaindia, Santi*. Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Plangintzarako Sailburuordetza, Klasikoak bilduma 13. zenbakia.
——— (2002): «Misiolari Markinarrak Malabarren». *Garaian*, 31. zenbakia, 20-21.
——— eta URKIZA, J. (2002): *Lino Akesolo 1911 - 1991*. Bidegileak, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
——— (2003): «Misiolari Markinarrak Malabarren II». *Garaian*, 33. zenbakia, 44-45.
——— (2004): «A. Joan Iturregi Aurrekoetxea (1910 - 2004)». *Garaian*, 35. zenbakia, 28-30.
——— (2004): «Erlijiotasuna Markina-Xemeinen», Garaian 36. zenbakia, 7-11.
——— (2007): «Bizente Batiz Bilbao (A. Nikolas)», *Garian*, 41. zenbakia, 33-35.
——— (2007): «Bizente Batizen Unetxo Bat». *Karmel*, 260. zenbakia, 2007-4, 32-54.
——— (2009): *Nire Sasoiko Markina-Xemein*. Markina-Xemeingo Udala, Markina-Xemein.
——— (2010): «Euskal Herriko Karmeldarren Historia Euskaraz». *Karmel*, 271. zenbakia, 2010-3, 41-54.
——— (2011): «Markinako Karmeldarrak eta Gerra Zibila». Garaian, 47. zenbakia.
BARINAGARREMENTERIA, M. D. (1989): *El Medio Rural de Markina-Xemein*. Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta Markina-Xemeingo Udala, Bilbao.
——— eta VIVANCO, G. (1995): «En memoria y homenaje a los que perdieron la vida y a los que con mejor suerte sobrevivieron al campo de exterminio de Mauthausen, en especial a nuestro narrador y paisano José María Agirre Salaberria». *Garaian*, 17. zenbakia, 28-30.
——— eta LOIOLA, E. (2007): «Micaela Ibarrolaza Gastiasoro», *Garaian*, 40. zenbakia, 40-43.
BARRUSO, P. (1996): *Verano y revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa*. R&B edizioak, Donostia.
BELDARRAIN, P. (1980): *Los Asaltos al Monte Intxorta. Intxorta Mendiko Burrukaldiak (1936 - 1937)*. Bidasoa Oraiñaldiko Edesti-Ikasgoa, Geu Argitaldaria, Bilbo.
BERAZATEGI, I. eta DOMINGUEZ J. (2006): *1936 Memoria de la Guerra en Euskadi*. Radio Euskadi.
BERRIOZABAL, R. (1996): *Nacionalismo Vasco en Durango (1893 - 1937)*. Sabino Arana Fundazioa.

BIDASOA (2005): *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Bidasoa. Instituto de Historia Contemporanea. Hegoa. Frantzia.
BILBAO M. A. (1988): «Industrias y Comercios cerrados en Markina-Xemein en lo que va de Siglo I», *Garaian,* 3. zenbakia, 9-14.
——— (1989): «Industrias y Comercios cerrados en Markina-Xemein en lo que va de Siglo II», *Garaian* 4. zenbakia, 38-44.
——— (1993): *Garaian*-13, 1993
——— (1994): «Del sentimiento religioso de los markineses I», *Garaian*, 15. zenbakia, 15-20.
——— (1995): «Del sentimiento religioso de los markineses II», *Garaian*, 16. zenbakia, 39-46.
——— (1995): *La villa de Markina-Xemein*. BBK, Bilbo.
——— (1996): «Las Fiestas del Carmen». *Garaian*, 18. zenbakia, 37-40.
——— (1997): «D. Elías Lasuen Narbaiza. Un hombre bueno», *Garaian*, 20. zenbakia, 17-21.
——— (2000): «Bodas de Plata de 'Esperanza y Cia, S.A.'», *Garaian*, Markina-Xemein, 34-35.
——— (2009): *Cesta Punta*. Lizarra Grafikagintza.
——— (2009): «Los Hermanos Alonso Areizaga». *Garaian*, 44. zenbakia, 8-11.
——— (2011): «Gerrako kontuak». *Garaian*, 47. zenbakia.
CAMINO, I. (1985): *Nacionalistas 1903 - 1923*. Alberdi Argitaldaria, Bilbo.
CANAL, J. (2006): *Banderas blancas, boinas rojas. Una historia política del Carlismo, 1876 - 1939*. Marcial Pons, Madril.
CAZALIS, S. (1958): *Cuba Ahora*.
CHUECA, J. (2007): *Gurs. El Campo Vasco*. Txalaparta, Tafalla.
CIFUENTES, M. (10-5-2010): «Navarra y la CAV acogieron más de 60 batallones de trabajadores entre 1937 y 1942». *Diario de Noticias de Navarra*.
CHRISTIAN, W. (1997): *Las visiones de Ezkioga. La Segunda República y el Reino de Cristo*. Ariel, Bartzelona.
CUADRILLERO, J. D. (2009): *El exilio republicano español en Cuba*. Siglo XXI de España editores.
COSER, L. (1956): *The Functions of Social Conflict. Free Press*.
DAHRENDORF, R. (1971): *Elementos para una teoría del conflicto social*. Tecnos, Madril.
DELGADO, A. (2008): *La otra Bizkaia. Política en un medio rural durante la Restauración (1890 - 1923)*. UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
ECCLESIA DIGITAL (2007ko urriaren 23a): «498 Víctimas de la Persecución Religiosa - Bartzelona (II)». http://www.revistaecclesia.com
EGAÑA, I. (Zuzendaria) (2000): *1936 Guerra Civil en Euskal Herria*. Zortzi Ale. Aralar Liburuak, Andoain.
EGIGUREN, J. M. (1984): *El PSOE en el País Vasco (1886 - 1936)*. Haranburu editorea, Zarautz.
ERRAZKIN, M. (2011): *Memoriaren izenak. Errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta Lehen Frankismo garaian (1936 - 1945)*. Aranzadi, Donostia.
ESNAOLA, S. eta ITURRARAN, E. (1994): *El Clero Vasco en la Clandestinidad (1940 - 1968)*. Lizarra argitaldaria, Lizarra.
ETXANIZ ORTUÑEZ, J. A.: *Esperantza*. Gernikazarra taldea.
ETXEANDIA, J. (1945): *La persecución roja en el País Vasco*. Fidel Rodríguez inprimatzailea. Bartzelona.
EUSKERAZAINTZA (2002): *36'ko Gudaldian Su-Izkillatutako Idazle Gazteak*. Euskerazaintza, Bilbo.
EUZKADI (1936-12-20): «Población de los Ayuntamientos». *Euzkadi* Egunkaria.

——— (1936-11-19): «Euzko-Gudarostia. Ordenes de acuartelamiento y presentaciones». *Euzkadi* Egunkaria.

EUZKO APAIZ TALDEA (1981): *Historia General de la Guerra Civil en Euskadi*. V. tomoa. *El Clero Vasco I*. Luis Aranburu Editorea, Donostia, eta Naroki, Bilbao.

FERNÁNDEZ LÓPEZ, J. A. (2006): *Historia del Campo de Concentración de Miranda de Ebro (1937 - 1947)*. Autoeditatua, Miranda de Ebro.

FUSI, J. P. (2002): *El País Vasco 1931 - 1937. Autonomía. Revolución. Guerra Civil*. Biblioteca Nueva, Madril.

GALLEGO, J. A. eta M. PAZOS, A. (Editoreak) (2001): *Archivo Goma. Documentos de la Guerra Civil 1. Julio-Diciembre 1936*. CSIC, Madril.

——— (Editoreak) (2003): *Archivo Goma. Documentos de la Guerra Civil 5. Abril-Mayo 1937*. CSIC, Madril.

GARAIAN ALDIZKARIA (1987): «Markina-Xemein, Hace 50 años», *Garaian*, Markina-Xemein, 29.

——— (1988): «Onaindia Zuluaga». *Garaian*, 1988, 3. zenbakia, 23-25.

——— (1988): «Markina-Xemein, Hace 50 años», *Garaian*, Markina-Xemein, 8.

——— (1994): «Dokumentu grafikoa», Garaian, 15. zenbakia, 24-25.

——— (1996): «La Estela Markinesa de Segundo Olaeta», *Garaian*, 19. zenbakia, 35.

——— (2003): «Las Madres Carmelitas de Markina-Xemein». *Garaian* 33. zenbakia, 37-40.

——— (2005): «El comercio y la industria de la villa de Markina en 1930», *Garaian*, 36. zenbakia, 44-45.

GERRIKAGOITIA, T. (2000): *Arantza eta larrosa. Nire bizitzaren gomutak*. Sendoa, Oiartzun.

GOIOGANA, I. (2010): «Euskal erbesteratuen mundura hurbiltze biografiko zenbait». Chueca, J. (koordinatzailea): *Lau Haizetara. Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz*. UEU, Bilbo.

——— eta ARRIETA, L. (editoreak): *Alberto Onaindiaren Artxiboa*. Argitaratze prozesuan.

GONZÁLEZ, M. eta BARINAGA E. (2008): *No lloreís, lo que teneís que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes*. Ttarttalo, Donostia.

GOÑI, J. M. (1989): *La Guerra Civil en el País Vasco: una guerra entre católicos*. Vitoria.

——— (2003): «Onaindia y el bombardeo. Actuación de un espíritu fuerte, revalidada por su trayectoria pública global». *Eleiza eta Frankismoa: Aita Onaindiari Omenaldia*. Gernika-Lumoko Historia Bilduma VII, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Gernika-Lumo, 19-31.

GOROSABEL, O. (2006): «70 urte, Amalloko Abadia Afusillatu Zebela». Ondarroako Historia Zaleak: *Ondarroa 2006*, Ondarroako Udala, 112-117.

GRANJA, DE LA, J. L. (1986): *Nacionalismo y II República en el País Vasco*. CIS-Siglo XXI de España Editores, Madril.

——— (1990): *República y Guerra Civil en Euskadi. Del Pacto de San Sebastián al de Santoña*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP-HAEE), Bilbo.

GUTIERREZ AROSA, J. (2007): *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*. Eibarko Udala, Elgetako Udala eta Ego Ibarra Batzordea.

IBARZABAL, J. «Buztarri» (1998): *Nire aztarrenak*. Bertsozale Elkartea.

IBERDUERO (1985): *Centrales del río Artibai*. Iberduero, Bilbao.

IRAZABAL AGIRRE, J. (2001): *1937 martxoak 31. Durango. 1937ko martxoaren 31n Durangoren aurka egindako aire-bonbardaketari buruzko azterlana*. Gerediaga Elkartea, Durango.

——— (2007): *Gerra Zibila Durangaldean* (1936 - 1937). Gerediaga Elkartea.

IRIGOIEN, I. eta AMUTXASTEGI, F. (1995): *Zerutxu Dantza Taldea Markina-Xemein 1966 - 1991. Euskal Folklorea Lantzen*. Zerutxu Dantza Taldea, Markina-Xemein.

ISPIZUA, T. (1986): *Odisea del Clero Vasco Exiliado. Apasionante relato de un sacerdote vasco en el exilio desde 1937 a 1974*.T de I, Bilbo.

IURREBASO, I. (2011): *Legazpi 1936*. Legazpiko Udala, Legazpi.

JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI, L. M eta JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI, J. C. (1978): *La Guerra en Euskadi*. Plaza & Janes, Bartzelona.

JUARISTI, P. (1996): «Antzerki tradizioa Markina-Xemeinen 1920 - 1996», *Garaian*, 18. zenbakia, 8-12.

——— (1997): «Zinearen historia Markina-Xemeinen», *Garaian*, 20. zenbakia, 37-41.

——— (2006): «Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen I». *Garaian*, 39. zenbakia, Markina-Xemein, 27-32.

——— (2006-12-24): «Gerraren Memoria». *Berria* Egunkaria.

——— (2007a): «Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen II». *Garaian*, 40. zenbakia, Markina-Xemein, 33-37.

——— (2007b): «Gerra Zibilean Hildako Zibilak», *Garaian*, 41. zenbakia, 44-45.

——— (2008a): *Gerra Zibila, Jendea da Hila*. Markina-Xemeingo Udala, Markina-Xemein.

——— (2008b): «XX. mendeko 20. hamarkada: Belle Époque Markinan eta Xemeinen», *Garaian*, 42. zenbakia, 5-9.

——— (2008c): «Enpresa industrialak Markinan eta Xemeinen XIX. mendearen amaieratik Gerra Zibilera arte», *Garaian*, 43. zenbakia, 27-31.

——— (2009-11-28): «Mauthausen-eko Memoria». *Berria Egunkaria*.

——— (2010): «Lau beato eta beatogai Markina-Xemeinen», *Garaian*, 46. zenbakia, 42-43.

——— (2011-4-1): «Gerra Zibila Bizkaian». *Berria egunkaria*.

——— (2011): «Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen: soziologiatik egindako irakurketa». *Karmel*, 273. zenbakia, 2011-1

——— (2011): «Markinako eta Xemeingo Emakumeak Gerra Zibilean», *Garaian*, 47. zenbakia.

KALZAKORTA, J. (2006): «Willian Rollo eta The Basque Dialect of Marquina: Sarrera», Willian Rollo (2006): *The Basque Dialect of Marquina*. Labayru Ikastegia, Bilbao, V-XXVIII.

LACOMBA, J. A. (1998): *Introducción a la Historia económica de la España Contemporánea*.

LAHARIE, C. (1993). *Le camp de Gurs, 1939–1945, un aspect néconnu de l'histoire de Vichy*. Societé Atlantique d'Ímpression, Biarritz.

LARRAZ, P. eta SIERRA-SESÚMAGA, V. (2010): *Requetés. De las trincheras al olvido*. La Esfera de los libros, Madril.

LARRONDO, M. E. (2003): *Una vida marcada por el orfanato. Una historia real*. Arenas inprimategia, Areeta.

LEGARRA BELASTEGUI, M. (2008): *De la calle Pi y Margall al Tercio de San Miguel (Recuerdos de un requeté)*. Actas argitaletxea, Madril.

LIZARZA, A., NAGORE, J., SALAS, R., GARCÍA, R. eta D'ORS, A. (2006): *Navarra fue la primera 1936 - 1939*. Sahats, Europar Batasuna.

LEZAMIZ, J. eta TABERNILLA, G. (2002): *Saibigain, el monte de la sangre*. Sancho de Beurko Elkartea, Bilbo.

LÓPEZ JIMÉNEZ, J.: *Fondos Documentales Conservados en el Archivo General Militiar de Guadalajara*. http://www.ciere.org/CUADERNOS/Art%2055/Fondos%20documentales... .htm

LÓPEZ PEGO, C. (2004): *Los Jesuitas en Ciudad Real 1903 - 1986*. Ciudad Realeko Aldundia, Ciudad Real.

LORENZO, F (1996): *Markina-Xemein*. Bizkaiko Herrien Monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

MADARIETA, A. (2007): *Kresaleko gudariak. Itsasalde batailoiaren historia*. Argitaratu gabea.

MANRESA, A. (2009): «José Mari Aguirre Salaberría, superviviente de Mauthausen». *El País* egunkaria (2009-9-10).

MARTÍNEZ CORDERO, M. (2003): *El Penal de El Puerto de Santa Maria 1886 - 1981*. Manuel Martínez Cordero argitaratzailea, Kadiz.

MARTÍNEZ SÁNCHEZ, S. (2007): «Mons Antoniutti y el clero nacionalista vasco (julio-Octubre 1937)», *Sancho el Sabio*, 27. zenbakia, 39-79.

MENDIZABAL, J. M., LASA, J. L. eta AGIRRE, F. (2006): *Gudaris y rehenes de Franco (1936 - 1943)*. Alberdania, Irun.

MOLINA, F. (2005): *Jose Maria Arizmendiarrieta. 1915 - 1976*. Euskadiko Aurrezki Kutxa, Arrasate.

MONFERRER, l. (2007): *Odisea en Albion: Los Republicanos españoles exiliados en Gran Bretaña 1936 - 1937*. De la Torre edizioak.

MUGARTEGI, J. J. (1927): *La villa de Marquina*. Echeguren eta Zulaica, Bilbao.

——— (1937): «Marquina», Universidad de Valladolid. Informe sobre la situación de las Provincias Vascongadas bajo el dominio rojo-separatista. Año 1938. *Garaian*, 15. zenbakia, 1994, 30-31 eta Valladolideko Unibertsitatea (1938): *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*. Cuesta tailer tipografikoak, Valladolid.

MUNITIBAR (1983-10-8): «El capitán Olazar vive sin rencor y con recuerdos en su Markina natal». *El Correo Español-El Pueblo Vasco*.

OAR-ARTETA, J.A. (1936): *Miren'en Senargeya*. Gaubeka Idaztegia, Bermeo, 1936

——— (1991): *Zaar-Barri*. Labayru, Bilbao.

OAR-ARTETA, S. (1991): «Osaba Jose Antonio Nire Gogoan (1900 - 1978), *Zaar-Barri*. Labayru, Bilbao, 7-37

ONAINDIA, A. (1937): «La Guerra Civil Española en Markina» txostena, 20. kaxa, argitaratu gabea. Alberto Onaindiaren Artxiboa, Derio.

——— (1974): *Capítulos de mi vida II: Experiencias del exilio*. Buenos Aires, Ekin.

——— (1975): *Ayer como hoy. Documentos del clero vasco*. Donibane Lohizune, Axular.

——— (1980): *Hombre de Paz en la Guerra. Obras completas de Alberto de Onaindia*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Kardaberaz Bazkuna.

——— (1983): *El «Pacto de Santoña»*. Laiz, Bilbo.

ONAINDIA, S. (1977): «Jose Antonio Oar-Arteta». *Euskal Literatura V*. Etor.

——— (1988): *Oroi-Txinpartak*. Igarri, Bilbo.

——— (1987): *Gernika*. Aita Onaindia, Larrea.

ORUEMAZAGA BASETA, I. (2006): «Uron. Unión Republicana Ondarresa». *Ondarroa 2006*. Ondarroako Udala.

PALENZUELA, S., DOMINGUEZ, J. eta MENDIA, E. (2007): *1937 Memoria de una derrota*. Radio Euskadi.

PAYNE, S. G. (1985): *Falange. Historia del fascismo español*. Sarpe, Madril.

PÉREZ ESTEBAN, F. J. (2008): «Represión contra los curas vascos durante la ofensiva de Vizcaya», RODERO, J., MORENO, J. eta CASTRILLO, J. (editoreak) (2008): *Represión franquista en el Frente Norte*. Eneira, Madril.

PUBLICACIONES DOCUMENTALES DEL CLERO VASCO: *El Clero Vasco Frente a la Cruzada Franquista*, Bigarren bolumena. Egi-Indarra argitaletxea.

REAL CUESTA, J. (1991): *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco, 1876 - 1923*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

REVILLA CEBRECOS, C. (1975): *Tercio de Lacar*. G. del Toro Argitaletxea. Madril. http://www.requetes.com/navarra.html

RODAO, F. (1993): «Falange en Extremo Oriente, 1936 - 1945». *Revista Española del Pacífico*, 3. zenbakia.

RODRIGO, J. (2005): *Cautivos: Campos de Concentración de la España Franquista, 1936 - 1947*. Critica, Madril.

RODRIGUEZ GONZÁLEZ, J. (2008): «Tipología de la represión franquista». Rodero, J., Moreno, J. eta Castrillo, J. (editoreak) (2008): *Represión franquista en el Frente Norte*. Eneira, Madril.

RODRÍGUEZ RANZ, J. A. (1996): *Jesús María Leizaola, denborak garaituz*. Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.

ROMERA, P. (2010-2-15): «Muere en Cintruénigo María Gaytán de Ayala, baronesa de la Torre Gaytán de Ayala, quien era viuda del barón de la Torre Enrique Lataillade y Aysa, falleció ayer a los 96 años de edad». *Diario de Navarra*, http://www.diariodenavarra.es

RUIZ MANJON-CABEZA, O. (1986): *La Segunda República y la Guerra*. Rialp Edizioak, Madril.

SABINO ARANA FUNDAZIOA (1998): *Espetxean 1937 - 1942. Bizitza eta Heriotza Giltzapean*. Sabino Arana Fundazioa, 1998.

SALABERRI, P. (2002): *Iraupena eta lekukotasuna*. Elkar.

SARRIONAINDIA, M. (1989): *Historia de los Balnearios de Bizkaia*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

SAENZ DE SANTA MARÍA, C. (1978): *Historia de la Universidad de Deusto*. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea, Bilbao.

SEBASTIÁN GARCÍA, L. (1999): «La represión económica bajo el primer gobierno vasco. La Junta Calificadora Central (1936 - 1937)», *Vasconia* 29, 169-184.

SIERRA, F. eta ALFORJA, I. (2006): *Fuerte San cristóbal*, 1938. Pamiela, Iruñea.

SIERRA HOYOS, F. (2000): *La fuga de San Cristóbal*, 1938. Pamiela, Iruñea.

STEER, G. L. (2002): *El Árbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*. Txalaparta, Tafalla.

TALON, V. (1988): *Memoria de la Guerra de Euzkadi de 1936*. Plaza & Janes, Bartzelona.

TILLY, C. (2007): *Violencia Colectica*. Hacer argitaletxea, Bartzelona.

UGALDE, M. (1988): «*Alberto Onaindia eta Aitzol», Argia aldizkaria, 1988-7-3*.

UHAGON GUARDAMINO, FRANCISCO RAFAEL, LAURENCINEKO MARKESA (1908): *Los Uhagón, señores de Hoditegui. Datos y noticias reunidos por Francisco R. de Uhagón, Marqués de Laurencín; con prefacio de Jean de Jaurgain ; y una carta de Francisco Fernández de Béthencourt*. Madril, Establecimiento Tipográfico de Fortanet.

UNTZETA, F. (1937): *La Sanidad Militar en Euzkadi*. Talleres Gráficos de Euzkadi.

UNZUETA, A. (1997): *Jose Domingo de Santa Teresa (Ugartetxea Urkieta) (1880 - 1980)*. Apunte Biográfico. Producción Musical. Experta de Archivum Bibliographicum Carmeli Teresiani, 34. zenbakia.

——— eta IZPURA, L. M. (2001): *Los Religiosos Carmelitas Descalzos de la Provincia de San Joaquín de Navarra (1868 - 2000)*. El Carmen edizioak, Vitoria-Gasteiz.

URIARTE, C. (1976): *Bombas y mentiras sobre Gernika*. Castor Uriarte, Ellacuria grafikagintza, Erandio.

URIONAGUENA, R. (2005): «Aita Rafael: Gerra Zibila eta Larreako Karmeldarrentzat ondorioak (Argitaratu gabeko koadernoak)». Luis Baraiazarrak itzulia. *Karmel*, 2005-4, 252. zenbakia, 109-253.

URKIXO OLANO, I. (1947): «Breves recuerdos históricos con ocasión de una visita a Munibe» *RSBAP-ren buletina*, Donostia.

URKIZA, J. (1992): *Karmeldarrak Markinan (1691 - 1991). Historia eta agiriak*. Karmel Sorta 5, Zornotza.

——— eta BARAIAZARRA, L. (2005): «Aita Rafael Urionaguena Garro (1890 - 1975)». *Karmel*, 2005-4, 252. zenbakia. Gasteiz, 3-21.

———, UNZUETA, A. eta FERNANDEZ DE MENDIOLA A. (2005): *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (Siglos XIII-XX)*. El Carmen edizioak, Vitoria-Gasteiz.

URKIZU, P. (1996): *Historia del teatro vasco*. Orain.

——— (2009): «Euskal Teatroa Gerra Zibilean», *Euskera*, 54. zenbakia 2-2. zatia, Bilbo.
URRUTIA, X. eta JUARISTI, P. (2007): «Jose Mari Eizagirre: bi urte eta zazpi hilabete gerran», *Garaian*, 41. zenbakia, 10-11.
URUBURU, L. (1997): *Emakume Abertzale Batza*. Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
UTANDRA, L. eta FEO, F. (1996): «Propiedad Rustica en Vizcaya según el Registro de la Propiedad Expropiable». Euskal Geografi Elkargoa (INGEBA): *Lurr@lde*, 19. zenbakia, 65-87. (http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur19/19utand/19utanda.htm)
VALLADOLIDEKO UNIBERTSITATEA (1938): *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*. Cuesta tailer tipografikoak, Valladolid.
VARGAS ALONSO, F. M. (2001): «El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936 - 1937)». *Vasconia*, 31. zenbakia, 275-304.
——— (2002): «Los Batallones de los Nacionalismo Minoritarios en Euzkadi: ANV, EMB, STV (1936 - 1937)». Vasconia, 32. zenbakia, 517-547.
——— (2007): *Bermeo y la guerra civil. La Batalla de Sollube*. Eusko Ikaskuntza.
ZUBIKARAI, A. eta FDEZ. EGIGUREN, J. (1991): *Markina-Xemein I* eta II. Agustin Zubikarai eta Joan Fernandezen argitarapena.
ZUBIKARAI, A. eta FDEZ. EGIGUREN, J. (1989): *Etxebarria*. Agustin Zubikarai eta Joan Fernandezen argitarapena.

VIII
ERABILITAKO WEB ORRIAK

Auñamendi Eusko Entziklopedia: http://www.euskomedia.org/aunamendi
Ahaztuak 1936 - 1937: http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com/
Ahaztuen Oroimena. Markiñaldeko Frentea 1936. Etxebarria Xemein Markina: http://ahaztuenoroimena.wordpress.com/
Basque Children of 37 Association: http://www.basquechildren.org
Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa: http://www.aheb-beha.org
Memoriaren Bideak - Jeronimo de Uztariz (editoreak): Bortxazko lanak diktadura frankistan: http://www.esclavitudbajoelfranquismo.org
Blog de la Asociación Cultural Lloixa: http://aclloixa.blogspot.com
Centro de Investigación y Estudios Republicanos:
http://www.ciere.org/CUADERNOS/Art%2055/Fondos%20documentales... .htm
Durango 1936 Kultur Elkartea: http://www.durango1936.org
Ecclesia Digital aldizkari digitala: http://www.revistaecclesia.com
Egoibarra. Eibarko Kultura Ondarea: http://egoibarra.com
Euskal Geografi Elkargoa (INGEBA):
http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur19/19utand/19utanda.htm
Euskaltzaindia: http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/65856.pdf
Euskonews & media: http://www.euskonews.com/0290zbk/gaia29003es.html
Eusko Jaurlaritza, Justizia eta Herri Administrazio Saila: http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contmh2/es/contenidos/informacion/listado_personas_desaparecidas/es_memoria/b_listado_personas_desaparecidas.html
Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa, Bigarren Errepublikako emaitzak: http://www9.euskadi.net/emaitzak/republica/republica_e.htm
Eustat: www.eustat.es
Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa: http://www.osanet.euskadi.net/bopv2/datos/1937/05/3701863a.pdf
Elgoibar 1936: http://www.elgoibar1936.com
Espainiako Gerra Zibileko Erreketeen Memorian: http://www.requetes.com/lesaca.html
Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa 1936: http://www.gipuzkoa1936.com
Google liburuak: http://www.google.es
Hitza: Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea: www.lea-artibaietamutriku.hitza.info
Lea Artibai Ikastetxea: http://batxilergoa.leartik.com/web/batxilergoa/index.php?Skz=548
Lloixa kultur elkartearen bloga: http://aclloixa.blogspot.com
Markina-Xemeingo Udala: www.markina-xemein.com
Santxo de Beurko Elkartea: http://www.sanchodebeurko.org
Todos los nombres de Asturias (Gerra Zibilean, Asturiasen hildako errepublikarren zerrenda): http://www.todoslosnombres.es

IX
ERABILITAKO EGUNKARIEN ETA ALDIZKARIEN HEMEROTEKAK

ABC egunkaria: http://www.abc.es/archivo/archivo.asp
Alma Mater aldizkaria: http://www.almamater.cu
Berria egunkaria: www.berria.info
Diario de Navarra egunkaria: http://www.diariodenavarra.es
Euskal Prentsaren lanak (Euzkadi eta Eguna egunkariak): http://www.hemeroketa.com
El Correo Español. El Pueblo Vasco egunkaria: http://www.elcorreo.com/
El País egunkaria: http://www.elpais.com/
Garaian aldizkaria: http://garaianelkartea.blogspot.com/
Karmel aldizkaria: http://www.karmelaldizkaria.com/index.php
Lea Artibai eta Mutrikuko Hitza: http://www.11barri.info

X
ARAKATUTAKO ARTXIBOAK

Aranzadi Zientzia Elkartearen agiritegia, Donostia: presondegian edo langileen batailoietan egondakoen zerrendak.

Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste (Airmn), Ferrol, Bilbao funtsa: epaiketa militarra izan ostean, kartzelan egon zirenen zerrendak.

Archivo General de la Administración (AGA), Alcala de Henares: epaiketa militarra izan ostean, kartzelan egon zirenen zerrendak.

Abertzaletasunaren Agiritegia - Sabino Arana Fundazioa: Markinako fronteko argazkiak, eta beste hainbat dokumentu.

Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: borrokan hildakoen erregistroa.

Bizkaiko Eliz Artxibo Historikoa (http://www.aheb-beha.org/): markinarren eta xemeindarren jaiotza eta heriotza urteak.

Erorien Haraneko Abadiako Beneditarren Artxiboa.

Labayru Ikastegiaren Agiritegia: Alberto Onaindia fondoa.

Markinako Udal Artxiboa: gerran mobilizatutakoen espedienteak eta udal aktak.

Markina-Xemeingo Erregistro Zibila: heriotza-agiriak.

Xemeingo parrokiako artxiboa: markinarren eta xemeindarren jaiotza eta heriotza urteak.

XI
ZUZENEKO INFORMAZIOA EMAN DIDATEN INFORMATZAILEAK

AGINAGA, Kasilde
ALDAZABAL, Iñaki
ANSOLA, Maria Fernanda
ARAKISTAIN, Jose Mari «Zestero»
ARAKISTAIN, Jose «Zestero»
ARANSOLO, Jesus «Gerriketxe»
ARETXABALETA, Lauren
ARETXABALETA, Imanol
ARREGI, Agustina
ARRIAGA, Karmen
ARRIETA, Joan
ARRIETA, Patxi «Iñuspe»
ARRIETA BASKARAN, Maria
ARRIOLA ARRIOLA, Jose (Berriatukoa)
AZPIRI, Natividad
AZURMENDI AZPIRI, Arantxa
BARINAGARREMENTERIA, Patxi «Ibaun»
BARINAGARREMENTERIA, Antoni (Berriatukoa)
BARRENETXEA, Leon «Txirget»
BARRENETXEA, Eugenio
BUSTINDUI, Rosario
DURALDE, Begoña
EGIRAUN, Teresa
EIZAGIRRE, Jose Mari
ETXANIZ, Julian
GARATE, Maria
GARATE ALBIZU, Jose
GARCÍA, Maite
GOJENOLA MAGUREGI, Damiana
IBARLUZEA, Imanol
IBARROLAZA, Mikaela
IDOETA ARGOITIA, Patxi (Berriatukoa)
IRIONDO, Pedro
KINTANA, Julia
LAKA, Jose
LARRINAGA, Alberto
LARRINAGA, Ana Maria
LARRINAGA, Maria Paz
MAGUREGI AMESTI, Julian
MANDIOLA UGARTETXEA, Sabino
MUNIOZGUREN LARRAÑAGA, Bitxori
MUÑOZ, Luzia
ONAINDIA, Jon
SOLOLUZE, Eusebio
URKIOLA, Miren
URRIOLABEITIA, Joanita
JESUSA, Beide Baserrian jaioa
BARINAGAR BAT
ZELAIA, Ane
ZELAIA, Luis

XII
ETXEKOEN EDOTA HURBILEKOEN BERRI EMAN DIDATEN INFORMATZAILEAK

Aginaga, Tere
Aginaga, Nekane
Alberdi, Jose
Alberdi, Martin
Aldazabal, Oskar
Aldekoa, Jesus «Goitxi»
Aldekoa, Tere
Amutxastegi, Felipe
Aretxabaleta, Maitasun
Aretxabaleta, Betikone
Arrate, Alberto
Arrate, Jabier
Arrate, Mateo
Arriaga, Jose Mari
Arriaga, Eloisa
Arrizabalaga, Maite
Arronategi, Estibaliz
Bereziartua, Aitor «Lomiño»
Bereziartua, Xabier «Lomiño»
Bilbao, Migel Anjel
Bilbao, Jon
Bollar, Jose Maria
Duralde, Nere
Egia, Jesus
Egia, Zuriñe
Egizabal, Jose
Etxebarria, Jose Inazio
Etxebarria, Begoña
Etxebeste, Ana Mari
Errazkin, Mikel
Foruria, Aurora
Foruria, Maria Jesus
Galparsoro, Etxahun
Gandiaga, Belen
Gandiaga, Txelo
Garramiola, Garbiñe
Garate, Inazio
Gisasola, Natividad
Ibarra, Serafin
Ibarluzea, Ramon
Iturriarte, Begoña
Kaltzakorta, Nere
Laka, Rafael
Larrinaga, Maite
Larrinaga, Felix
Mandiola, Tere
Mandiola, Pilar
Martínez, Jose Antonio
Muniozguren, Joan Luis
Olabarria, Pedro Mari «Txasio»
Onaindia, Maite
Oar-Arteta, Segundo
Pertika, Felix
Pagegi, Fernando
Sarasola, Fatima
Sololuze, Nere
Txurruka, Fernando
Totorikaguena, Estibaliz
Ugarte, Jabier
Ugartetxea Arrieta, Arantxa
Ugartetxea Azumendi, Joseba
Ugartetxea Berazadi, Jabier
Ugartetxea Berazadi, Maria Angela
Ugaldea, Jose Mari
Unamuno, Alberto
Zamakona, Joxe Felix
Zelaia, Imanol
Zuberogoitia, Pako

XIII
ERANSKINAK: GERRAKO PROTAGONISTAK

I. ERANSKINA: ERREPUBLIKARRENGANDIK IHES EGIN ZUTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK

Alkorta Zulueta, Dolores (Markina, 1888 - Gijon, 1977): denda bat izan zuen Guen kalean. Geroago, bere denda zarratu, eta bere izeko baten, Joana Alkorta Montejoren (1858an jaioa), dendaren ardura hartu zuen. Denda hau gaur egun JJ zapata denda dagoen tokian zegoen. Jose Urkiza Arriagarekin ezkonduta zegoen. Doloresek ideologia tradizionalista zuen, Markinako Margariten burua izan zen, eta baita Zirkulu Tradizionalistaren sortzaileetariko bat ere. Partehartze politiko garrantzitsua izan zuen Errepublika garaian, Gerra Zibilean zein gerraostean. Markinan egon zen bizitzen 1937ko urtarrilera arte, eta gero frontearen beste aldera ihes egin zuen, Alejandro Gaitan de Aialarekin batera (Onaindia, 1937).

Costa Anunzibai, Maria Juliana: Alejandro Gaitan de Aialaren emaztea 1904. urtetik. Patrokua jauregian bizi zen, eta gerra hasi eta berehala desagertu zen Markinatik.

Enriquez de Salamanca Davila, Rafael: Markinako lehen instantziako epailearen, Javier Sanchez del Camporen, idazkaria zen. Eskuineko ideologia zuen (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 144). Gerrako lehen hiletan, presionatua sentitu zen milizianoengandik eta Santiago Meaberengandik, eta, epaileak bezala, hanka egin zuen Markinatik; nire ustez, 1936ko irailean. Bere anaia Alvaro Albazeten hil zuten.

Gaitan de Aiala Ansotegi, Alejandro (Madrilen jaio zen, eta Markina-Xemeinen hil zen 1963an): baso, lur, jauregi eta baserri ugariren jabe zen Xemeinen, Markinan eta Etxebarrian. Gutxienez 265,7 lur hektarea zituen ingurune honetan (Utanda eta Feo, 1993). Zuzenbidea ikasi zuen, eta 1904an Maria Juliana Costa Anunzibairekin ezkondu zen. Ideologia liberal monarkikoa zuen. Markinako alkate izan zen 1920tik 1922ra, eta 1929an, Primo de Riveraren diktadura garaian, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakariorde izendatu zuten. Bizkaiko Nekazari Katolikoen Federazioaren lehendakaria ere izan zen II. Errepublikan (http://www.euskomedia.org/aunamendi). Gerrako lehen bi hiletan, momentu oso txarrak pasatu zituzten Gaitandarrek, milizianoak euren atzetik zebiltzalako. Horrela, abuztuaren 14an, Alejandrok ihes egin zuen Markinatik (Azkona, 2007: 28). Txepetxabixe baserrian ezkutatuta egon zen 1937ko urtarrilera arte, eta, gero, frontearen beste aldera pasatu zen, Dolores Alkortarekin batera (Onaindia, 1937). Frontearen beste aldean zegoela, bera babesten herriko errekete gazteak izan zituen.

Gaitan de Aiala Costa, Jose Luis (1907 - 1993): Ikusi II. eranskina.

Gaitan de Aiala Costa, Luis Felipe (Bilbo, 1908 – Sevilla, 1975): ez dakit non harrapatu zuen gerrak, baina, guda hasi eta berehala desagertu zen. Frankistek Markina hartu zutenean agertu zen, eta, 1937ko abuztuan, Markinako alkate egin zuten. 1938 otsailean, utzi egin zuen alkatetza.

Gaitan de Aiala Costa, Fernando (Bilbo, 1910 – Madril, 1984, 1931ko kintoa): 1936ko uztailean eta abuztuan, Gaitandarrek ikusten zuten Jose Luis Gaitan de Aiala alkatearen bila zebiltzala, eta milizianoen beldur ziren. 1936ko abuztuaren 14an, Fernando Gaitan de Aiala Pedro Onaindiaren etxean agertu zen, ezkutatzeko eskatzen. Onaindiatarrak Goiko Portalean bizi ziren, lehenengo eta bigarren pisuan, eta bertan ezkutatu zuten, bi egunez, eta gero Gabaro baserrira ihes egiten lagundu (Onaindia, 1937). Pedro Onaindia bigarren pisuan bizi zen, eta hauen goiko solairuan Teodoro Urtiaga «Txillaro». Azken hau erreketea izanik, pentsatuta zuten arazoak sortzen baziren, Fernando «Txillaroren» etxera eramango zutela, eta milizianoak han ere arakatzen hasten baziren, teilatutik zehar Patxuaren etxera pasatu ahal izango zutela; Patxua etxean, «Txillaroren» emaztearen gurasoak bizi baitziren. Egun batzuk Onaindiatarren etxean egon ostean, Gabaro baserrian ezkutatu zen, eta, 1936ko abenduan, frankisten aldera ihes egin zuen, bere anaia Joakinekin batera. 1931ko kintoa zenez, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen. 1937an, zainketa lanak egiten zegoen Santoñako Kontzentrazio esparruan.

Gaitan de Aiala Costa, Maria Asuncion «Dorreko Baronesa» (Markina, 1913 – Zentroniko, 2010): herritarrek diotenaren arabera, gerrak Bilbon harrapatu zuen, eta bertatik ihes egin zuen edota ezkutatu egin zen. Maria Markinan jaio zen 1913ko maiatzaren 5ean. Umetan eta gaztaroan Bilbon bizi izan zen, eta Jesusen Bihotzaren eskolan ikasi zuen. Enrike Lataillade-rekin ezkondu zen 1939ko irailean, Xemeinen. Enrike Zentronikoko alkatea izan zen 1939tik 1948ra. Ezkondu zenetik zendu zen arte, Maria Asuncion Zentronikon bizi izan zen; hain justu ere, Baroiaren etxean. Etxe horretan, Joan Karlos erregeak eta bere anaia Alfontsok ostatu hartu zuten 50. hamarkadaren hasieran. Ministroa eta Estatuko Kontseiluko Lehendakari izan zen Iñigo Cavero Lataillade-ren izekoa izan zen. Mariak eta Enrikek ondorengorik izan ez zutenez, Iñigok heredatu zuen Dorreko baroigoa (Romera, 2010-2-15 http://www.diariodenavarra.es).

Gaitan de Aiala Costa, Joakin (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): bere aitak eta anaia Fernandok bezala, 1936ko abuztuaren 14an hanka egin zuen Markinatik. Xemeingo hainbat baserritan ezkutatuta ibili ostean, frankisten aldera pasatu zen, bere anaia Fernandorekin batera, 1936ko abenduan (Onaindia, 1937). 1937ko urrian, Francok frontera eraman zituen bere kintako guztiak. Beraz, Joakinek ere gerrara joan behar izan zuen. 1937ko urrian, 23. zenbakia zuen Amerikako 5. batailoian zegoen.

Prado Uhagon, Maria Dolores (1991n hil zen Donostian): Uhagon etxearen jabea zen. Donostian bizi zen, baina berak eta bere familiak denboraldi luzeak egiten zituzten Markinan. Gerrak Markinan harrapatu zituen, eta bertatik ihes egin zuten Alzolara, eta gero Frantziara. Lehenengo Alberto Onaindiaren amaren etxean egon ziren ezkutatuta, eta Alberto Onaindiak berak lagundu zieten ihes egiten (Onaindia, 1980: 131 eta Gallego eta Pazos, 2001: 275-277)[1]. Uste dut Donibane Lohizunen errefuxiatu zirela, eta bertan egon zirela gerra bukatu zen arte. Maria Doloresen familiak hanka egin zuenean, Uhagon etxea lehenengo Avellaneda batailoiaren intendentzia bihurtu zen eta gero Otxandiano batailoiarena. Maria Dolores, Maria del Carmen Uhagonen (Markinan jaioa, 1885ean) eta Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz-en alaba zen (Markinan ezkonduak 1907an), eta Eduardo Gortazar Moronatti kapitainarekin ezkonduta zegoen. Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz Donostiako alkate maurista izan zen, eta gerra hasi zenean, atxilotu egin zuten errepublikarrek, eta Angeles Custodiosen zabaldu zen kartzelan sartu zuten (Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 2007: 161 eta Onaindia, 1980: 131). 1937ko urtarrilaren 4an, Errepublikaren aldeko ezkertiarrek Bilboko espetxeetan zeuden 234 pertsona hil zituzten, hegazkin alemanek Bilboren

[1] Alberto Onaindiak dioen bezala: «(Maria Dolores Prado Uhagon)…a quien yo había ayudado en circunstancias más que de novela (Onaindia, 1980: 131).

aurka egin zuten bonbardaketa mendekatzeko. Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz hil zutenetariko bat izan zen. Maria Doloresen senarra, Eduardo Gortazar Moronatti, Donostia eraso zuten tropa frankisten kapitaina izan zen, eta 1936ko irailetik aurrera, Kalamuako frontean aritu zen erreketeekin borrokatzen. Markinako Frontea jausi zenean, Markinan egon zen denboraldi batez.

Ruiz, Emilio: Xemeingo Instrukzio epailea zen gerra hasi zenean. Ihes egin zuen Markinatik 1936ko irailean.

Sanchez del Campo Etxenike, Javier: Markinako Lehen Instantziako eta Instrukzioko epailea zen, eta ideologia eskuindarra zuen (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 144). Markinako epaitegian lanean ari zirenek gero eta estuago ikusten zuten euren burua 1936ko udazkenean, oso presionatuta sentitzen baitziren Santiago Meaberengandik. 1936ko irailaren 28an, Javier Sanchez del Campo Onaindiatarren etxean agertu zen pistola eskuan zuela ezkutatzeko «eskatzen», eta bertan egon zen hamabost egunez. Gero hanka egin zuen (Onaindia, 1937). 1937ko maiatzaren 7an, Justizia eta Kultura sailburuak, Jesus Maria de Leizaolak, emandako aginduaren arabera (Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan, 223. zenbakia, 1677. orrialdea), epailetzatik kanporatu zuten, eta epaile legez zituen eskubide guztiak kendu zizkioten (http://www.osanet.euskadi.net/bopv2/datos/1937/05/3701863a.pdf).

Zubiaga: Prokuradore lanak egiten zituen Markinan eta Xemeinen, eta matxinada hasi zenean, 1936ko uztailaren 18an, desagertu zen. Frankistak herrian sartu zirenean agertu zen berriro ere.

II. ERANSKINA: ERREPUBLIKARREK ESPETXEAN SARTU ZITUZTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK

Alegria Uriarte, Bittor Jose (Lekeitio, 1911 – Bilbo, 1936): ikusi VII. eranskina.

Amillategi Kareaga, Matias (Markinan jaioa 1913an, 1934ko kintoa): Barinagako Armistegi baserrikoa. 1937ko abenduaren 23an atxilotu zuten, Ramon Zuazo, Patxi Baskaran eta Migel Baskaranekin batera, jendea frontearen alde batetik bestera pasatzeko sare batean parte hartzen zuela salaketapean. Ez dakit zenbat denbora egon zen preso. Gero, Francok eraman zuen bere alde borrokatzera. 1939ko urtarrilean, Francoren batailoietan zegoen borrokatzen, transmisioen konpainiako hirugarren sekzioan.

Amutxastegi Eraso, Hilarion (Markina, 1892 – Markina-Xemein, 1981): Markinako Urkijo bankuko zuzendaria izan zen, eta, gero, Markinako Hispano Americano Bankuko langilea. Horrez gain, bere lehengusu Gregorio eta Tomas Duralde Kerejeta anaiei ere laguntzen zien taxiarekin. Ideologia tradizionalista zuen, eta Zirkulu Tradizionalistako sortzaileetariko bat izan zen (Larrondo, 2003: 42). Atxilotu egin zuten 1937ko otsailaren hasieran, Jose Luis Gaitan de Aiala alkatearen ihesaldian nahastuta egon zelako (Onaindia, 1937). Egun gutxi egin zituen kartzelan, baina atxilotuta egon zen egunetan, berak eta Gonzalo Goiogana Elordik, Alejandro Duralde Barrenetxeak eta Jose Urkiza Arriagak tratu txarrak jasan zituzten. Hiru gautan kartzelatik atera ei zituzten, eta fusilatzeko saioak egin zizkieten milizianoek, eta gero berriz kartzelan sartu, fusilatzeko arazoren bat egon zela argudiatuz. Beldur izugarria pasatu zuten, eta psikologikoki lur jota gelditu. Gerraondoan, parte hartze politiko garrantzitsua izan zuen (Larrondo, 2003: 42).

Aranbarri, Jose Maria: Larrus baserrian bizi zen. Inguruko beste baserritar batzuekin batera atxilotu zuten 1937ko otsailaren hasieran, eta Markinako kartzelara ekarri zituzten guztiak, frontearen beste aldera pasatzeko zegoen sareari buruz informazioa lortzeko eta, gehienbat, Gaitandarren ezkutalekuei buruzko informazioa lortzeko helburuarekin. Milizianoen susmoa zen Gaitandarrak, tartean Jose Luis Gaitan de Aiala, baserri hauetan ezkutatuta zeudela. Ondorioz, hainbat aldiz galdekatu zituzten. Aipagarria da Gaitandarrak baserri

hauetan egon zirela ezkutatuta (Onaindia, 1937: 23). Gaitandarrei emandako laguntzagatik, Patrokua jauregian nahi zuenean sartzeko eta bertan otordua egiteko eskubidea eman zioten.

Atxurra Gojenola, Bizenta – Daniela Bernabe Donearena (Xemein, 1890 – Bartzelona, 1936): ikusi VI. eranskina.

Baskaran Arrillaga, Francisco (Markina, 1885 - Bilbo, Angeles Custodios komentuko kartzela, Bilbo, 1937): ikusi VII. eranskina.

Baskaran Arrillaga, Migel: Barinagakoa zen, eta ideologia tradizionalista zuen. Bere anaia Patxirekin, Matias Amillategirekin eta Ramon Zuazorekin batera atxilotu zuten, 1936ko abenduaren 23an, frontearen alde batetik bestera jendea pasatzeko sare batean nahastuta egotearen salaketapean. Migel Baskaran Begoñako Karmeloko Komentuko kartzelan sartu zuten, eta denbora gutxira aske utzi.

Baskaran Garate, Joan Jose (1890. urtean jaioa): Barinagakoa jaiotzez, Markinan bizi zen. Ideologia tradizionalista zuen. 1936ko uztailaren 30rean atxilotu zuten, eta Markinako kartzelan sartu, Jose Luis Gaitan de Aialaren ihesean nahastuta egon zitekeelakoan. Hiru egunetara askatu zuten, EAJ-koen presioaren ondorioz (Onaindia, 1937).

Diez Ramos, Jose «Mortel» (Valentzian jaioa, 1907an): Valentziarra zen jaiotzez, baina bi urte zituela Markinara etorri zen bizitzera. Gerra hasi zenean, Bartzelonan zegoen pilotan jokatzen, eta errepublikazaleekin ez borrokatzeagatik, ezkutatu egin zen sei hilabetez. Den adela, atxilotu egin zuten, eta Bartzelonako Modelo kartzelan sartu zuten. Gerra bukatu aurretxoan, ihes egin zuen Recasex-eko gaztelutik (Girona). Frantziara pasatu, eta Irundik zehar Estatuan sartu zen. Boluntario sartu zen Francoren Flandeseko Erregimentuan. Erregimentu honetan bere anaia pilotariak zeuden.

Duralde Barrenetxea, Alejandro (Markina, 1886 – Markina-Xemein, 1957): Alderdi Tradizionalistako kidea zen. Zinegotzi karlista izan zen 1913an, eta bigarren alkate ordeko 1933an, Jose Luis Gaitan de Aiala alkate egin zutenean. Gerraostean sortu zen lehen udalean (1937-8-4), bigarren alkate ordeko izan zen 1937tik 1938ra, Luis Felipe Gaitan de Aiala alkate zela. Bere aita bezala (Jose «Santua», 1857 - 1923), uhalgilea zen. Bere uhal-denda Artibai kalean zegoen. Felipa Madariaga Ugartebururekin (1893 - 1964) ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Bere seme zaharrenak ihes egin zuen frontearen beste aldera, 1937ko urtarrilean, eta frontearen beste aldera ihes egiteko sareei buruz informazioa lortzeko asmoarekin, Alejandro atxilotu egin zuten 1937ko otsailaren hasieran, eta Markinako kartzelan sartu zuten (Onaindia, 1937). Egun gutxi egin zituen kartzelan, baina kartzelan egon zen egunetan berak eta berarekin atxilotu zituzten beste hiru pertsonak (Gonzalo Goiogana Elordik, Hilarion Amutxategi Erasok, eta Jose Urkiza Arriagak) tratu txarrak jasan zituzten. Beldur izugarria pasatu zuten, eta psikologikoki lur jota gelditu ei ziren.

Gaitan de Aiala Costa, Jose Luis (1907 - 1993): Alejandro Gaitan de Aialaren seme nagusia. Botere ekonomiko, politiko eta sozial asko zuen Markinan, Xemeinen eta Etxebarrian. Bizkaian eta Gipuzkoan ere eragin handia izan zuen bere bizitzan zehar. 19 urte zituela, Primo de Riveraren diktadura garaian, Gipuzkoako Diputatu probintziala izan zen, 1926tik 1930era. Urte horietan, Gipuzkoako Aldundiaren ordezkaria ere izan zen Eusko Ikaskuntzan. 1936ko hauteskunde orokorretan, Espainiako legebiltzarrerako Komunio Tradizionalistako hautagaia izan zen, baina ez zen hautatua izan. 1933tik 1936ra, Markinako alkatea izan zen, baina gerra hasi zenean, ihes egin zuen Markinatik, etxeko morroiak lagunduta. 1936ko uztailaren 24rako ihes eginda zegoen. Jendeak pentsatu zuen frankisten aldera ihes egin zuela, baina Xemeingo baserrietan ezkutatu zen (Txepetxabixe, Lauzirika, Larrus…). Denboraldi bat Xemeingo baserrietan egin ostean, Aulestira pasatu zen: lehenengo Barbaixola baserrira (Barbaixolan, egunez ira-metaren azpian egoten omen zen ezkutatuta eta gauean etxean) eta gero Koba baserrira (Onaindiak, 1937). 1937ko otsailean, Jose Luis baserrian lotan zegoela, Koba baserriko semea atxilotu zuten, Markinako eta Xemeingo beste baserritar batzuekin batera, eta Markinako kartzelara ekarri zuten, Jose Luisen ezkuta-

lekuari buruzko informazioa lortzeko helburuarekin. Honek ukatu egin zuen Jose Luis Gaitan de Aiala euren etxean zegoenik. Hala ere, Jose Luis-ek bere burua hiltzeko arriskuan ikusi zuen, eta milizianoen eskuetan jausi baino nahiago izan zuen Gernikan zeuden Ertzainei deitzea, eta bere burua hauei entregatzea. Hain zuzen ere, 1937ko otsailean entregatu zen Aulesti inguruan (Onaindia, 1980: 234). Atxilotu ostean, Larrinagako kartzelan sartu zuten, 1937ko ekainaren 18an aske utzi zuten arte. Eusko Jaurlaritzak Francoren tropak Bilbo berehala sartuko zirela kontuan hartuz, libre utzi zituzten Larrinagako kartzelan eta Bilboko beste kartzela batzuetan zeuden eskuindarrak, militarrak edo Francoren aldekoak. Kartzelatik askatutako hauek guztiek Derion egin zuten bat Francoren aldeko tropekin. Beraz, Jose Luis Gaitan de Aiala 1937ko otsailetik ekainera egon zen kartzelan. 1937an, Francok Bizkaia eta Gipuzkoa bereganatu zituenean, Gipuzkoa Kudeatzeko eratu zen gestorako idazkari egin zuten. 1940. urtean, Bizkaiko Diputatu izendatu zuten. Bera izan zen Markinako eta Xemeingo tradizionalisten artean, kartzelan denbora gehien egin zuena. Jose Luis Gaitan de Aiala Maria Dolores Smith Pradorekin (1909 - 1992) ezkondu zen.

Goiogana Elordi, Gonzalo (Markina, 1874 – Markina-Xemein, 1963): Tate tabernaren alboan jostundegi bat zuen. Patrizia Manuela Ugarte Mendiberekin (1874 - 1939) egon zen ezkonduta. Alderdi Tradizionalistako kidea. Markinako alkate izan zen 1912tik 1914ra. Atxilotu egin zuten 1937ko otsailaren hasieran, eta Markinako kartzelan sartu; izan ere, Omaetxebarria abizena zuen pertsona bat atxilotu zuten Akarregin, 1937ko urtarrilean, eta honek esan zuen Gonzaloren etxean egon zela ezkutatuta, frontea pasatzen saiatu aurretik (Onaindia, 1937). Atxilotutakoaren anaia, Jenaro Omaetxebarria abadea, Gonzalo Goioganaren etxean egon zen apopilo, Markinako abade laguntzaile izan zen urteetan, eta honekin zuen adiskidetasunagatik hartu zuen Gonzalok bere anaia etxean, baita ihes egiten lagundu ere. Egun gutxi egin zituen kartzelan, baina, egun horietan, berak eta Hilarion Amutxastegi Erasok, Alejandro Duralde Barrenetxeak eta Jose Urkiza Arriagak tratu txarrak jasan zituzten. Gerraondoan, zinegotzia izan zen, 1937ko abuztuan eratu zen udal berrian, Felipe Gaitan de Aiala alkate zela. 1937ko azaroan, zinegotzi kopurua bederatzitik zazpira pasatu zen, eta Gonzalok utzi egin zuen udala.

Ibarluzea, Jose Maria: Gabaro baserrikoa. Inguruko beste baserritar batzuekin batera, atxilotu zuten 1937ko otsailaren hasieran, eta Markinako kartzelara ekarri zituzten guztiak, frontearen beste aldera pasatzeko zegoen sareari buruz informazioa lortzeko helburuarekin, batez ere, Gaitandarren ezkutalekuei buruzko informazioa lortzeko. Milizianoen susmoa zen Gaitandarrak, tartean Jose Luis Gaitan de Aiala, baserri hauetan ezkutatuta zeudela. Ondorioz, hainbat aldiz galdekatu zituzten. Aipagarria da Gaitandarrak baserri hauetan egon zirela ezkutatuta (Onaindia, 1937: 23).

Ibarluzea Oregi, Domingo (Markina, 1906 - Las Casas, Ciudad Real, 1936): ikusi VII. eranskina.

Irusta, Pablo «Kanpetxa»: Berriatuko Kanpetxa baserrian jaioa, baina Markinan bizi zen «Katxoren» okindegian lan egiten zuelako. Itxura denez, erreketea zen, eta kartzelan sartu zuten, pistola bat aurkitu ziotelako, 1936ko uztailaren 30rean. Hala ere, egun gutxi egin omen zituen kartzelan (Onaindia, 1937).

Iturraran Lauzirika, Migel (Xemein, 1918 - Paracuellos del Jarama, 1936): ikusi VII. eranskina.

Mendibe, Pantxiko: Xemeingo Olua baserrian bizi zen. 1936ko urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran atxilotu zuten, frontearen alde batetik bestera jendea pasatzeko sare batean nahastuta egon zitekeelakoan. Zehatzago esateko, bera atxilotzeko arrazoia izan zen, Etxebarriako parrokoa, Frantzisko Etxebarria, eta bere abade laguntzailea, Martzelino Ibarzabal, bere baserrian ezkutatu zituela 18 egunez, eta gero frontearen beste aldera pasatzen lagundu ziela (Valladolideko Unibertsitatea, 1938: 182). Atxilotu ostean, Erdotzako jauregian sartu zuten preso. EAJ-koen lanari esker, laster atera ei zen kartzelatik (Onaindia, 1937).

Olaortua Arana, Joakin: Jaiotzez gernikarra zen, baina Markinan bizi zen. 1936ko uztailaren 30rean atxilotu zuten, Jose Luis Gaitan de Aialaren ihesean nahastuta egon zitekeelakoan, baina hiru egunetara askatu zuten (Onaindia, 1937).

Olaortua Arana, Zesar (1883an jaioa): Gernikarra zen jaiotzez, baina Markinan bizi zen. Markinako notarioa zen, eta gaur egun Josune denda dagoen tokian zuen notaritza. Markinako erreketeen zuzendaritza taldekoa omen zen. 1936ko uztailaren 30rean atxilotu zuten, eta egun batzuetan Markinako kartzelan sartu[2].

Txopitea, Jose: Txepetxabixe baserrikoa. Inguruko beste baserritar batzuekin batera (Gabaro, Lauzirike, Larrus…) atxilotu zuten, 1937ko otsailaren hasieran, frontearen beste aldera pasatzeko zegoen sareari buruz informazioa lortzeko asmoarekin, eta, gehienbat, Gaitandarren ezkutalekuak ezagutzeko. Milizianoen susmoa zen Gaitandarrak, tartean Jose Luis Gaitan de Aiala, baserri honetan ezkutatuta egon zirela. Ondorioz, hainbat aldiz galdekatu zituzten. Badirudi Alejandro Gaitan de Aiala baserri honetan egon zela ezkutatuta.

Txurruka Txurruka, Anakleto (1910 - 2007): 1936ko abuztuaren 14an, Gaitandarrak ihes egin zuten, eta, biharamunean, abuztuaren 15ean, Kleto Txurruka atxilotu zuten, Gaitandarren berri izateko helburuarekin. Kletok Gaitan de Aialatarren Patrokuako baratza zaintzen zuen. Markinako kartzelan eduki zuten egun batzuetan, eta abuztuaren 27an, Bilbora eraman zuten atxilotuta, baina laster atera ei zen kartzelatik.

Urkiza Arriaga, Jose (Markinan jaioa 1885ean): Ideologia tradizionalista zuen. Dolores Alkorta Zuluetarekin ezkondu zen 1924an. Doloresek ihes egin zuen frontearen beste aldera 1937ko urtarrilean, eta 1937ko otsailaren hasieran bere senarra atxilotu zuten, frontearen beste aldera ihes egiteko sareei buruz informazioa lortzeko, eta Gaitan de Aiala alkatearen ezkutalekua ezagutzeko. Egun gutxi egin zituen kartzelan, baina atxilotuta egon zen egunetan, berak eta Hilarion Amutxastegi Erasok, Gonzalo Goiogana Elordik eta Alejandro Duralde Barrenetxeak tratu txarrak jasan behar izan zituzten. Beldur izugarria pasatu zuten, eta psikologikoki lur jota gelditu ziren. Jose Urkiza zinegotzia izan zen, 1937ko abuztuan sortutako udal berrian, Felipe Gaitan de Aiala alkate zela. 1937ko azaroan, zinegotzi kopurua bederatzitik zazpira pasatu zenean, Josek utzi egin zuen zinegotzi postua. Dena den, 1938ko otsailean, Luis Felipe Gaitan de Aialak utzi egin zuen Markinako alkatetza, eta Rikardo Urkietak hartu zuen bere tokia. Rikardo Urkietaren zinegotzi tokia Jose Urkiza Arriagak hartu zuen.

Urtiaga Alzibar, Teodoro «Txillaro» (Markina, 1885 - Markina, 1960): Goiko Portalean bizi zen, Onaindia familia bizi zen eraikineko hirugarren pisuan. Bere aita Jose Andres bezala, zapataria zen, eta bere tailerra Goiko Portalean zegoen. Klara Trotiaga Artaetxebarriarekin (1893an jaioa) egon zen ezkondua. Txillarok ideologia tradizionalista zuen, eta 1936ko uztailaren 30rean atxilotu zuten milizianoek, pentsatzen zutelako Jose Luis Gaitan de Aialaren ihesean nahastuta egon zitekeela; hala ere, hiru egunetara askatu zuten, Markinako EAJ-koek Santiago Meabe presionatu ostean (Onaindia, 1937).

Urriolausokoa: Lezaran baserrikoa. Inguruko beste baserritar batzuekin batera atxilotu zuten 1937ko otsailaren hasieran, eta Markinako kartzelara ekarri zituzten guztiak, frontearen beste aldera pasatzeko zegoen sareari buruz informazioa lortzeko helburuarekin, eta, bereziki, Gaitandarren ezkutalekuak ezagutzeko (Onaindia, 1937: 23).

---

[2] Flora Unzeta G. de Albenizekin egon zen ezkonduta. Bere semeetariko bat izan zen Pelaio Olaortua Unzeta (1910 - 1983) margolari gernikarra. Pelaiok Madrilen ikasten zuen, baina udatan eta gabonetan beti Markinara bueltatzen zen. Bere lanen artean azpimarra daitezke: Estampa antigua de Bilbao, Ondarroa, Viejo restaurante en el barrio latino, Rompientes, Calle de Mundaka, hainbat bodegoi eta Bizkaiko herrietako margolanak. Hauek denak Madrileko Arte Garaikideko Museoan, Bilboko Arte Ederren Museoan eta hainbat bilduma pribatutan daude (http://www.euskomedia.org/aunamendi). Nahiz eta bere aita ideologia tradizionalistakoa zen, berak pintatu zituen Zehar kaleko Batzokiko irudiak, 1932ko udan, Markinan oporretan zegoela.

Iturraran: Axola baserrikoa. Inguruko beste baserritar batzuekin batera atxilotu zuten, eta Markinako kartzelara ekarri zituzten guztiak, frontearen beste aldera pasatzeko zegoen sareari buruz informazioa lortzeko helburuarekin, eta, gehienbat, Gaitandarren ezkutalekuak ezagutzeko (Onaindia, 1937: 23). Milizianoen susmoa zen Gaitandarrak, tartean Jose Luis Gaitan de Aiala, baserri hauetan ezkutatuta zeudela. Ondorioz, hainbat aldiz galdekatu zituzten. (Onaindia, 1937: 23).

Markinan edo Xemeinen bizi ez arren, bi herri hauekin harremana izan zuten beste bi pertsona ere atxilotu zituzten errepublikarrek:

Bergara, Bizente: Etxebarriako Iruguen Aldekoa baserrikoa. Atxilotu egin zuten, frontearen alde batetik beste jendea pasatzeko sare batean nahastuta egotearen salaketapean.

Prado Ruiz de Gamiz, Joan Jose (Bilbon hil zuten, 1937an): ikusi VII. eranskina.

III. ERANSKINA: FRANCOREN TROPAK SARTU AURRETIK IHES EGIN ZUTEN MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK

Aginaga Garate, Elixabete «Ete» (Markina, 1901 – Markina, 1952): Benito Aginagaren (1874 - 1937) eta Maria Garateren (1875 - 1953) alaba. Bere gurasoak eta neba Alberto bezala, EAJ-ko militantea zen, baita Emakume Abertzale Batzakoa eta Euskaltzale Bazkunakoa ere. Errepublika garaian, parte hartze zuzena izan zuen Batzokian antolatzen ziren ekimen sozial, politiko eta kulturaletan. Besteak beste, antzerkiak zuzentzen zituen, eta euskarazko klaseak eman. Horrez gain, Lauaxetak Euzkadi egunkariarentzako sortu zuen idazleen sarean parte hartu zuen, Markinako eta Xemeingo kronikak idatziz. Errepublikaren Aldeko Batzordeko kide izan zen, emakumeen zuzendaritzan. Frankistak herrian sartu aurretik, ihes egin zuen Bilbora, eta gero Frantzian errefuxiatu zen, gutxi gorabehera, 1947 edo 1948ra arte. Garai batean behintzat Tréboul-en (Bretainia) egon zen bizitzen, mojen komentu batean. Berarekin batera, Donato Ugartetxearen emaztea, Juliana Arrieta, egon zen. Hasieran oso txarto pasatu zuten, bertako katoliko eta abadeek ez zituztelako ondo ikusten (Goiogana eta Arrieta (editoreak): Alberto Onaindiaren Artxiboa, Alberto Onaindiari idatzitako eskutitza, 1937-7-29). Elixabeteren aita, Benito, atxilotu egin zuten frankistek eta Gasteizko kartzelan sartu. Uztailaren 4an hil zen, bronkoneumoniaz (informazio batzuen arabera, fusilatu egin zuten). Elixabeteren amari, Maria Garateri, ilea moztu zioten frankistek, eta Markinako kaleetan zehar erabili zuten bueltaka kamioi batean.

Aldazabal-Totorikaguena familia: ikusi Nemesio Aldazabali buruzko azalpena IV. Eranskinean.

Alkorta Arroitajauregi, Bruno (Xemein, 1901 -): Irarragan bizi zen. Gerra aurretik, pilotaria izan zen, eta Brasilen jokatu zuen (Bilbao, 2009:). Francoren tropak sartu aurretxoan, ihes egin zuen Bilbora, eta handik Santurtzira. Santurtzin bat egin zuen Joan Ugartetxea Olasolorekin, Joan «Padarrarekin» (Xemein, 1904 – Santurtzi, 1970). Baldintza txarretan egon ziren bizitzen, gose handia pasatuz. Bruno ezkutatuta ibili zen denbora luzez, eta ez zuten atxilotu. 1940an, Vigoko pilotatokiaren irekieran egon zen, pilotak egiten. Geroago, frontoi horretako arduradun egin zuten.

Aretxabaleta Arriola, Bernardo «Tate» (Markina, 1894 – Markina-Xemein, 1968) eta bere seme Jon Domingo Aretxabaleta Garate: Taberna, gozotegi eta denda zerbitzua eskaintzen zuen Markinako Zelaiaren aurrean, gaur egun Tate gozotegia dagoen toki berean. Horrez gainera, Ferrocarriles Vascongados Konpainiaren ordezkaria zen Markinan, eta, ondorioz, autobus eta tren txartelak saltzen zituen, eta ekipaiaren ardura eramaten zuen. Bere anaia Txomin eta Hilario bezala, EAJ-ko militantea zen. Gerratean, herriko alkate izan zen 1936ko abenduaren 6tik 1937ko apirilaren 27ra arte. Francoren tropak Markinan sartu zirenean, 1937ko apirilaren 27an, ihes egin zuen Bilbora, bere seme Jon Domingorekin

batera. Carlton Hotelean jarri zuten Markinako Udala, eta bertan aritu zen lan egiten aste batzuetan. Bilbo frankisten eskuetan jausi aurretxoan (1937ko ekainaren 19an), Bernardok Bartzelonara hanka egin zuen, eta bere seme Jon Domingo Markinara bueltatu zen. Bartzelona jausi aurretxoan, 1939ko urtarrilean edo otsailaren hasieran, Bernardok Frantziara ihes egin zuen, hain justu ere, Akizera (Dax). Eusko Jaurlaritzako kargudun gisa erbesteratu zen (Egaña, VIII. tomoa: 918). Akizetik Tarbesera joan zen 1939an, eta gero Saint Martin D'oydes herritxora, Pamiers – Ariege herriaren alboan. Urteak egin zituen herritxo honetan bizitzen, ahal zuen lanbideetan lan egiten. Frantzian errefuxiatuta egon zen urteetan, harremanetan egon zen bere koinatuarekin, Joan Martin Garate Zubillaga fraide karmeldarrarekin, Tomas Duralderekin, Elixabete Aginagarekin «Ete», Anastasio Barrenetxearekin «Txirget», eta Azkainen bizi ziren Onaindia familiarekin (urtero egiten zien bisita). Bernardo 16 urtez egon zen Frantzian erbesteratuta, hain zuzen ere, 1937tik 1952. urtera. Frantziatik bueltatu zenean, Bilbora joan zen bere anaia Txominekin paperak konpontzera, eta militarrek argi adierazi zioten urte batzuk aurretik berak zituen baino kargu gutxiagogatik fusilatu zutela jendea. Bere emaztea, Rosario Garate Zubillaga (1887 - 1967), atxilotu egin zuten 1937ko urriaren 11n, eta Bilboko kartzelan sartu zuten bederatzi hilabetez, baita ilea zerora moztu, eta herrian bueltaka erabili ere.

Aretxabaleta Arriola, Hilario (Markina, 1888 - Derio, 1937) eta bere seme Joseba Aretxabaleta Aginaga (1919an jaioa): Francoren tropak Markinan sartu aurretxoan, Hilariok ihes egin zuen bere seme Joseba Aretxabaleta Aginagarekin batera, baina ekainaren bigarren hamabostaldian, bueltatu ziren etxera. Hilario atxilotu, eta uztailaren 21ean fusilatu zuten Derion. Joseba Aretxabaleta Aginagak (1919an jaioa) Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an (ikusi VI. eranskina).

Aretxabaleta Arriola, Txomin (Markina, 1889 – Markina-Xemein, 1960): Ikusi IV. eranskina.

Aretxabaleta, Maria Luisa eta hiru umeak: Maria Luisa Aretxabaleta Basilio Bollar Salazarrekin (Lekeition jaioa 1895ean) zegoen ezkonduta, eta denda bat zuten Okerra kalean. Ideologia abertzalekoak ziren. Maria Luisak (1900 - 1954) bere hiru seme-alabek ihes egin zuten Markinatik Francoren tropak herrian sartu aurreko egunean, apirilaren 26an, eta bidean Gernika erretzen ikusi zuten. Mundakara joan ziren laurak, Maria Luisaren osaba abade baten etxera. Dena den, osaba ere atxilotu egin zuten frankistek, eta berehala bueltatu behar izan zuten etxera. Basilio 1937ko maiatzean atxilotu zuten, eta hil bat egin behar izan zuen preso, Gasteizen. Kartzelatik ateratzeko isuna ordaindu behar izan zuen, eta gero bortxazko lanak egitera behartu zuten Markinan.

Aretxabaleta - Izaola familia: Ikusi Anjel Aretxabaletari buruzko azalpena IV. Eranskinean.

Arrarte - Unamunzaga familia: Jose Maria Arrarte Goiogana «Txato-k» (1876an jaioa) zapatak konpontzeko tailer bat zuen Erdiko kalean, bere anaia Jose Cruz-ekin batera. Bere emaztea Maria Unamunzaga Elordi zen. Ramon EAJ-ko militantea zen (Egaña, 2000, III. tomoa: 264), eta gerratean, intendentzia lanetan aritu zen Markinan. Francoren tropak sartu aurretik, Jose Mariak hanka egin zuen Bilbora, bere seme-alaba Pedro, Ramon eta Mariarekin. Bilbon, Jose Maria Burdinazko Gerrikoan aritu zen lanean, denboraldi batez (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 548). Ez dakit zenbat denbora egon ziren Markinatik kanpo, ezta bueltatu zirenean zer gertatu zitzaien ere.

Arrate Egia, Evaristo «Txorixa» (Xemein, 1906 – Markina-Xemein, 1963): ikusi IV. eranskina.

Arrate Santamaria, Jenaro «Txorixe» (Xemein, 1909 – Markina-Xemein, 1967): ikusi XI. eranskina.

Arregi Kareaga, Klara «Klara Foruria» (Markina, 1888 – Markina-Xemein, 1976): elikagaien denda bat zuen Guen kalean, Patxua tabernaren alboko etxean. Prudentzio

Foruria Gerrikabeitiarekin (1884an jaioa) ezkondu zen. Prudentziok gozotegia eta txokolategia zuen Erdiko Kalean, Karloseneko etxean. Klararen semeak Prudentzio eta Tiburtzio izan ziren. Klara EAJ-ko militantea zen, eta Emakume Abertzale Batzako kidea. Apirilaren 26an, tropa frankistak herrian sartu aurreko egunean, Klara Arregik, bere ahizpaorde Maria Luisa Zelaiak eta honen alaba Purita Foruriak ihes egin zuten kamioi batean Bilbora, eta gero Ipar Euskal Herrira joan ziren itsasontziz. Hirurak egon ziren errefuxiatuta Lapurdiko Getarian, 1941. urtera arte, eta Kurutzia hotelean lan egiten zuten. Klararen seme bat, Prudentzio Foruria, atxilotu egin zuten, eta hainbat urte egin behar izan zituen kartzelan eta Soldadu Langileen Diziplina Batailoietan.

Artalarrea Gorrotxategi, Hiazinto – Hiazinto Karmengo Ama Birjina Santuarena (Berriz, 1863 – Gasteiz, 1944): fraide karmeldarra 1881. urtetik. Berrizkoa zen jaiotzez, baina Errepublika garaian eta gerra hasi zenean, Markinako komentuan bizi zen. 1936ko irailean, Bizkaiko Gobernadore zibilaren aginduz, komentua Errepublikako soldaduen kuartel bihurtu zenean, alde egin zuen Markinatik, bere lehengusuaren etxera, Garaiko parrokoa zen Felipe Zarateren etxera. Salaketa bat izan zuen abertzalea zelako, eta karmeldarren probintzialak Gasteizko karmeldarren komentuan bizitzera zigortu zuen (Urkiza, 1992: 287-290). Berbertan zendu zen 1944. urtean. Euskarazko predikuan nabarmendu zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 259).

Azpiri – Aldazabal familia: Gregorio Azpiri, aita, eta Jose Mari (Xemein, 1905 – Markina-Xemein, 1989), Anjelita (Xemein, 1911 - Markina-Xemein, 2003) eta Ines Azpiri Aldazabal (Xemein, 1913 – Markina-Xemein, 1987) neba-arrebak: Xemeingo Lopetxea baserrian bizi ziren, eta etxeko guztiak abertzaleak ziren. Ines eta Anjelita Emakume Abertzale Batzako kideak ere baziren. Francoren tropak sartu ziren egunean, 1937ko apirilaren 27an, guztiek Bilbora ihes egin zuten, Francoren jazarraldiaren beldurrez. Anjelita eta Ines Santanderrera heldu ziren. Han itsasontzi bat hartu zuten, eta Frantziatik zehar Kataluniara heldu ziren. Besalú-n (Girona) egon ziren bizitzen denboraldi batez. Katalunia jausi aurretxoan, 1939ko urtarrilean, Frantziara ihes egin zuten. Frantzian, kontzentrazio eremu batean egon ziren, Perpinan inguruan. Handik lanera eramaten zituzten. Anjelita mahatsa eta marrubiak biltzen ibili zen, eta Ines neskame lanetan, bertako batzuen etxean. Euren ahizpa Joanitaren ahaleginei ezker, Anjelitak eta Inesek Frantziatik bueltatu ahal izan zuten 1939aren amaieran. Donostiako udalaren bitartez, Joanitak Anjelita eta Ines erreklamatu zituen, eta bere kargura hartu. Joanita bere alaba Arantzarekin joan zen Behobiako mugara bere bi ahizpen bila, eta Donostian alokatu zuen etxe batean hasi ziren bizitzen guztiak. Anjelita eta Ines bi urtez egon ziren bizitzen Donostian, eta 1941ean bueltatu ziren Xemeinera. Gregoriok, aitak, eta neba Jose Marik ere ihes egin zuten Bilbora, eta, denboraldi batez, Burdinazko Gerrikoan lan egiten aritu ziren boluntario (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 550). Bilbo hartu ostean, aita etxera bueltatu zen, eta frankistentzako lanen batzuk egin behar izan zituen. Jose Mari ihes eginda ibili zen, eta gero atxilotu egin zuten, eta urte bat inguru egin behar izan zuen Gasteizko kartzelan, 1939tik 1940ra. Bere anaia Gurutz Euzko Gudarostean aritu zen borrokan eta, atxilotu ostean, urte bat egin behar izan zuen Deustuko Unibertsitateko kartzelan, eta gero Francok bere alde borrokatzera eraman zuen. Euren arreba Joanitari gizona fusilatu zioten Zumarragan (Iurrebaso, 2011: 222-224).

Balentziaga - Agirreamalloa familia: Jose Domingo Balentziaga Maguregik (1889 - 1960) bere emazte Maria Agirreamalloa Solozabal (Markina, 1898 – Markina-Xemein, 1984) eta hauen seme Pedrok ihes egin zuten Francoren tropak sartu aurretxoan. Jose Domingo Balentziaga xemeindarra zen, eta Saltos del río Ondarroa enpresarentzat lan egiten zuen, Plazakolako argindar zentralean. Ideologia sozialista zuen. Gerra piztu zenean, Xemeingo alkate eta zinegotziek utzi egin zituzten Xemeingo udalean zituzten ardurak, eta 1936ko azaroan, EAJ-ko eta Herri Fronteko kideez osatutako batzordeak eratu ziren Markinan eta Xemeinen. Jose Domingo Herri Fronteko ordezkari bihurtu zen Xemeingo Udal Batzordean.

Frankistak herrian sartu aurreko egunetan, ihes egin zuen bere familiarekin, eta bere lagun, lankide eta Xemeingo zinegotzi zen Nemesio Aldazabalekin eta honen familiarekin. Lehenengo Bilbora joan ziren eta gero Balmasedara. Hemen denboraldi batez egon ziren bizitzen, baina, ekainaren 29an, tropa frankistak Balmasedan sartu ziren, eta handik gutxira (1937ko uztailean), Nemesio atxilotu zuten, eta beste guztiak Xemeinera bueltatu ziren. Jose Domingo ez zuten atxilotu, baina pentsatzen dut isuna ordaindu behar izan zuela kartzelatik libratzeko. Horrez gain, Saltos del río Ondarroa enpresan zuen lana galdu zuen. Jose Domingoren emaztea, Maria, Xemeingo Udal Batzordeko kidea izan zen Pedro Agirreamalloa Solozabalen (EAJ) arreba zen. Beraz, Jose Domingo Balentziaga eta Pedro Agirreamalloa koinatuak ziren, eta gerratean, biak egon ziren Xemeingo Udal Batzordean: bat EAJ ordezkatzen eta bestea Herri Frontea. Gerraostean, Jose Domingok bizikletak konpontzeko eta alokatzeko tailer bat izan zuen Zehar kalean.

Barrenetxea Beraza, Bonifazio (Markina, 1885 – Markina-Xemein, 1962): frankistak herrian sartu aurreko egunean, 1937ko apirilaren 26an, ihes egin zuen Plentzia edo Sopela ingurura, eta hil bat etxetik kanpora egin ostean, bueltatu egin zen Markinara. Dena den, bueltatu zenean, frankisten komandantzia zaintzera behartu zuten.

Barrenetxea - Arroitajauregi familia: ikusi Erramona Arroitajauregiri buruzko azalpena IV. Eranskinean.

Barroetabeña Bollar, Gilermo «Txinpas» (1895 - 1947): Ikusi IV. eranskina.

Cazalis Areitio, Rikardo «Cazalis Mayor» (Xemein, 1892 – Argelés, Frantzia, 1939): ikusi V. eranskina.

Cazalis Goenaga familia, Segundo Cazalis Areitio «Cazalis Menor» eta bere familia: ikusi IV. eranskina.

Cazalis Areitio, Patxi (Xemein, 1904 - Markina-Xemein, 1982): ikusi IV. eranskina.

Cazalis Areitio, Joan: ikusi IV. eranskina.

Duralde Kerejeta, Tomas (1891 - 1963) eta bere alaba Feliziana Duralde Kerejeta: Bere anaia Gregorio bezala, Tomas Duralde Kerejeta uhalgilea, zapataria eta autobus gidaria zen. Josefa Kerejeta Alberdirekin zegoen ezkonduta. Errepublika garaian, Markinako Lehen Alkate Ordeko izan zen, Felipe García Maguregi alkate zela. 1933ko hauteskundeetan, tradizionalistek lortu zuten alkatetza, baina Tomas Duralde EAJ-ko zinegotzi atera zen. 1934an, «Ardoaren gerraren» ondorioz, dimititu egin zuen zinegotzi postutik, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat alkate eta zinegotzi abertzalek egin zuten bezala. Gerratean, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuen. Horrez gain, Markinan sortutako udal berriko alkate izan zen egun batzuetan (1936ko azaroaren 26tik abenduaren 6ra). Honegatik guztiagatik, Francoren soldaduak Markinara sartu aurretxoan, ihes egin zuen Bilbora bere alaba Felizianarekin batera, gero Bartzelonara joan zen, eta handik Akizera (Dax) (Frantzia). 1939an, Akizen zegoen, Joan Martin Garate fraidearekin eta Bernardo Aretxabaletarekin. Denboraldi bat Akizen egin ostean, Iparraldera bueltatu zen, eta, azkenik, 1940an, Venezuelan erbesteratu zen. Bilbotik Bartzelonara eta handik Akizera Eusko Jaurlaritzako kargudun gisa erbesteratu zen (Egaña VIII: 946). Gregorio eta Tomas Duralde Kerejetak hainbat denda, negozio eta lanbide izan zituzten gerra aurretik: uhal-denda eta zapata denda Pepa jantzi dendaren alboko etxearen azpian zegoen. Gasolindegia etxe honen atariaren aurrean zegoen. Horrez gain, Duraldetarrek Markina - Gernika eta Markina - Elgoibar garraio zerbitzuak eskaintzen zituzten. Horretarako, autobus bat zuten. Taxi zerbitzua ere ematen zuten. Auto bi zituzten horretarako: bat «Wiped» markakoa eta beste bat «Ford» markakoa. Negozio hauek guztiak aurrera eramateko, euren koinatu Hilarion Amutxastegi Erasoren laguntza zuten. Gerraondoan, Duraldetarren autoak eta autobusa bahitu zituzten frankistek. Tomas 1947an bueltatu zen Venezuelatik. Markinara heldu zenean, bi egun egin behar izan zituen atxilotuta. Hil batzuk egin zituen Markinan, eta 1947ko abenduan, bere familia guztiarekin bueltatu zen Venezuelara. Feliziana Duralde Angelu inguruan egon zen bizitzen, 1937tik

1940ra, mojen komentu batean, eta Bigarren Mundu gerra hasi zenean, 1940an, aitarekin joan zen Venezuelara, gerratik eta naziengandik ihesi. Venezuelan egon zen bizitzen 1960ra arte. Venezuelarako bidean, bera joan zen itsasontzia Errepublika Dominikarrean egon zen ainguratuta hilabetez, janaririk eta urik ez zutelako ontzian.

Egiraun Arza, Akilino (Bidania, 1895 - Markina-Xemein, 1969): abertzalea zen, eta Euzko-Etxea kooperatibaren sorreran parte hartu zuen. Errepublika garaian, Azpiko-errotako latonerian lan egiten zuen. Gerratean, Xemeingo udal fiskal egin zuten (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 19337132-17-02-1937). Francoren tropak sartu aurretxoan, alde egin zuen Bilbora, baina giroa lasaitu zenean, Xemeinera bueltatu zen. Markinako komandantzian esan zioten bere aurka ez zegoela salaketarik, eta ez zuten atxilotu. Dena den, egun batzuetan, frankistentzat lan egitera behartu zuten.

Etxaniz Laka, Inazio (Xemeinen jaioa 1899an): Ikusi IV. eranskina.

Etxebarrieta Belaustegi, Doroteo (Munitibar, 1908 – Markina-Xemein, 1998): Ikusi IV. eranskina.

Epelde - Aldazabal familia: Jose Maria Epelde Iruetaguena, bere emaztea, Karmen Aldazabal, eta aita, Jose Epelde Txurruka, Larruskainen bizi ziren, eta bertako taberna eramaten zuten. Ezkertiarrak ziren, eta Jose Mari frankistak gelditzeko frontea antolatzen eta trintxerak egiten ibili zen Amallo inguruan, 1936ko abuztuan eta irailean. Francoren tropak sartu aurretik ihes egin zuten guztiek, Bilbora. Jose Mari Burdinazko Gerrikoan aritu zen lanean denboraldi batez (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 559). Bilbo frankisten eskuetan jausi zenean, Jose Marik Frantziara ihes egin zuen. 1939an, Gurs-eko kontzentrazio eremuan zegoen (Chueca, 2007: 162)[3]. Ez dakit noiz bueltatu zen, ezta ere zer gertatu zen bere emaztearekin eta aitarekin.

Etxebarria Alakano, Felipe - Aita Pio Santa Teresarena (Gorozika, 1898 – Lima, 1945): fraide karmeldarra. 1932tik 1936ra Karmengo - Argia aldizkariaren zuzendaria izan zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 436). Txiletik etorri zen aldi baterako Markinako komentura (Urkiza, 1991: 287), eta, gerra hasi zenean, Markinako karmeldarren priore-ordea eta profesio egin berrien irakaslea zen. 1936ko irailean, Bizkaiko Gobernadore Zibilak eman zuen aginduaren ondorioz, Markinako karmeldarren komentua erabilpen militarretarako gelditu zen, eta Aita Piok Txaraka baserrian hartu zuen ostatu. Euskaltzalea izanik, Frantziara alde egin zuen, frankistak sartu aurretik, eta gero Perura destinatu zuten, eta berbertan hil zen (Urkiza, 1992: 289). Santiago Onaindiarekin batera, Goiz - Zale liburua (Gasteiz, 1956) idatzi zuen (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 556).

Gandiaga Loiola, Andres (1892an jaioa), bere emaztea, Benita Aginaga (Markinan jaioa, 1895ean), eta bost seme alabak, Iziar (Markinan jaioa, 1921ean), Koldobike (Markinan jaioa, 1922an), Ander (Mexikon jaio, 1927an) Joseba (Markinan jaioa, 1932an) eta Maite (Markinan jaioa, 1933an): Andres Gandiaga EAJ-ko kidea zen. Markinako kartzelako zuzendaria izan zen, 1936ko uztailetik azarora. Azaroan, Zamudiora joan zen Esperanza fabrikarekin batera. Bilbo frankisten eskuetan jausi aurretik, Santanderrera ihes egin zuen, eta gero Ancenisen (Loire Inférieure, Frantzia) errefuxiatu zen. Fusilatu zuten Joan Loiolaren ahaidea zen. Andresen emaztea eta bost seme-alabak ere Frantzian errefuxiatu ziren, hain zuzen ere, Akizen. 1946an, sendiko batzuek Lourdesen (Frantzian) errefuxiatuta jarraitzen zuten. Ez nago ziur, baina pentsatzen dut Benita Aginagaren ahizpak (Maria –33 urte–, Sabina –28 urte– eta Iñake) ere Ancenisen errefuxiatu zirela.

Garate Zubillaga, Joan Martin - Joan Martin San Joserena (Xemein, 1874 – Donostia, 1948): fraide karmeldarra. 1930ean, Logroñoko karmeldarren komentura bidali zu-

[3] Josu Chueca-k idatzitako *Gurs. El Campo Vasco* liburuan (Txalaparta, 2007) Jose Mari PNV-koa dela esaten da, baina gure informazioen arabera, bera eta bere familia ezkertiarrak ziren.

ten, eta bertan zegoen bizitzen gerra hasi zenean. Gerra piztu zen egun berean, Markinan zegoen, Karmen jaiak ospatzera etorrita, eta, beraz, ezin izan zuen bere komentura bueltatu. Francoren tropak sartu aurretxoan, 1937ko apirilean, Frantziara ihes egin zuen, eta Akizeko (Dax) Gotzainak, Mathieu monsinoreak, bertan zeuden euskal errefuxiatuen kapilau egin zuen[4], eta eginkizun horretan aritu zen gutxienez 1939ra arte; gero karmeldarrek Txilera bidali zuten (Unzueta eta Izpura, 2001: 331). Frantzian errefuxiatuta egon zen urteetan, bere koinatu Bernardo Aretxabaletarekin eta Tomas Duralderekin egon zen, eta harreman estua izan zuen Elixabete Aginagarekin «Ete» eta Anastasio Barrenetxearekin. Bere arreba, Rosario Garate Zubillaga (1887 - 1967), atxilotu egin zuten 1937ko urriaren 11n, eta Bilboko kartzelan sartu, ilea zerora moztu ostean. Rosarioren senarra, Bernardo Aretxabaleta (1894 - 1968), Markinako alkatea izan zen gerratean, eta Frantzian errefuxiatu zen hainbat urtez.

Garate Zabala, Dolores (Xemeinen jaioa 1917an) eta bere semea: Lorenzo Garate Ibarzabalen alaba. Osolo-Etxebarri (Meabe) baserrikoa zen, baina Ondarroara joan zen bizitzera, Felix Apraiz gernikarrarekin ezkondu zenean. Elikagaien denda bat zuten Ondarroan. Abertzaleak ziren, eta gerra hasi zenean, Frantziara ihes egin zuten, euren urte beteko umearekin. Dena den, Dolores eta semea bueltatu egin ziren Xemeinera, 1936ko abenduan. Frankistak herria hartu aurretxoan, 1937ko apirilaren 26an, ihes egin zuen berriro, Frantziara, eta bere senarrarekin elkartu zen. Gregorio Duraldek eraman zuen bere taxian Bilbora. Frantziatik Argentinara alde egin zuten, eta, liburu hau idazten ari naizen momentuan, oraindik ere bertan bizi da.

García - Iriondo familia: Felipe García Maguregi (1884 - 1960) Markinako lehen alkatea izan zen II. Errepublikako lehen bi urteetan. Estanko bat zuen Artibai kalean, gaur egun bidai agentzia dagoen tokian. Ikatza saltzeko negozioa ere bazuten. Bere emaztea, Santa Iriondo Irusta (1892 - 1978), Erandiokoa zen. Frankistak herrian sartu aurretxoan, Santa Iriondok eta familiako gazteenek (Josefa, Teresa, Begoñe eta Maite) Aulestira ihes egin zuten, eta, egun batzuk geroago, Felipek, aitak, eta alaba zaharrenek, Mariak eta Jesusak, ere bai, etxeko besteekin Aulestin elkartzeko asmoarekin. Etxean, aitaren bi arreba ezkongabeak gelditu ziren. Dena den, aita eta bi alabak Aulestira heldu zirenean, ama eta Josefa, Teresa, Begoñe eta Maite Bilbora alde eginak zeuden. Anjel Ugartek erabiltzen zuen Eusko Jaurlaritzak bahitutako furgoneta batean ihes egin zuten. Felipe Errepublika garaiko alkate abertzalea izan zen, eta Francoren soldaduen errepresioaren beldurra zuen. Familia osoa Derion elkartu zen. Handik Manu Canela dendara joan ziren (bertako langile zen Maria Ansolarengana), eta gaua bertan egin ostean, Areetara heldu ziren. Han trenaren tunel batean egon ziren ezkutatuta egun batzuetan. Tunel hartan baldintza txarretan egon ziren. Frankistek tunelaren sarrera eta bukaera etengabe bonbardatzen zuten, eta jende asko hil zen. Tunelean egin zituzten egunak oso garratzak izan ziren. Aita ezkutatuta zuten, gizona izanik frontera eramango zutenaren beldurrez. Gau batean, maiatzaren 16an ziur aski, Frantziara eskapatzen saiatu ziren itsasontziz, Santurtziko portutik. Onaindia-Zuluaga familiak aurreko itsasontzian alde egin zuen, eta eurek ere gauza bera egin nahi zuten. Dena den, Felipe Garcíari ez zioten utzi enbarkatzen, gizona zelako, eta bere emazteak, Santak, nahiago izan zuen bere senarrarekin gelditu. Beraz, itsasontzia utzi eta berriro Areetako tunelera joatea erabaki zuten guztiek. Areetan bizi ziren euren familiako batzuen etxean egon ziren egun batzuetan. Hainbat aste etxetik kanpora egin ostean, Teresa, Begoñe eta Maite 1937ko uztailean edo abuztuan bueltatu ziren Markinara. Aita, ama eta beste ahizpak geroago etorri ziren, giroa apur bat lasaitu zenean. Felipe García ez zuten kartzelan sartu, baina Zabala etxean zegoen komandantzia militarra zaintzera behartu zuten, militarren uniformea jan-

[4] Mathieu monsinoreak asko lagundu omen zien Hego Euskal Herritik Frantziara ihes egindako abade eta fraideei.

tzita. Horrez gain, bere bi etxeak bahitu zizkioten eta estankoa kudeatzeko baimena galdu zuen. Feliperen arrebak eta alaba zaharrenak soldadu frankistak eta Guardia Zibilak bizi ziren tokiak garbitzera behartu zituzten.

García Maguregi, Alberto (Etxebarria, 1878 - Markina, 1948): abadea. 1903an abadetu zen, eta 1912. urtera arte Erandioko abade laguntzaile izan zen, baita bertako Konpasioko mojen kapilau ere. 1912tik 1937ra, Markinako abade laguntzaile eta moja karmeldar oinutsen kapilau izan zen (Martínez, 2007: 60). «Rompe Bóvedas» deitzen zioten, ahots oso boteretsua zuelako. Ideologia abertzalea zuen, eta frankistak Markinara sartu aurretxoan, alde egin behar izan zuen. 1937ko maiatzaren 21ean, 3.840 umek hartu zuten Erresuma Batura zihoan Habana itsasontzia, gerratik ihes egiteko helburuarekin. Ume hauekin batera, 80 irakasle, 120 laguntzaile, 15 abade eta bi mediku joan ziren. Abade hauetariko bat Alberto García Maguregi izan zen. Erresuma Batura heldu ziren beste errefuxiatu guztiak bezala, Stoneham-eko kanpalekuan egon zen hasieran, eta, gero, Southhamptoneko St. Mary's College Bitterne Park-era bidali zuten, ume errefuxiatu batzuen arduradun espiritual gisa (Arrien, 1991: 89). 1937ko azaroa baino aurretik heldu zen toki horretara (Monferrer, 2007: 32). 1937tik 1946ra, komentu honetan egon zen bizitzen. Albertorentzat gogorra izan zen erbestea. Ez zuen ingelesez hitz egiten eta, itxura denez, bera oso kontularia izanik, ingelesak hotzegiak eta serioegiak iruditzen zitzaizkion. Halaber, harrera oso hotza izan zuten bertako abade eta katolikoengandik. Gregorio Arrienek dioen bezala: «… pasaron grandes dificultades, siendo objeto de un cierto rechazo de parte del clero y algunas fuerzas católicas de Gran Bretaña, mayoritariamente favorables a la causa de Franco. Los Obispos no les querían tener más tiempo, forzándoles a marcharse a su tierra» (Arrien, 1991: 88). Bederatzi urte Erresuma Batuan egin ostean, Alberto Azkainera etorri zen, 1946an. Azkainen, bere ahaideak ziren Onaindia-Zuluagatarrak zeuden. Azkainera gaixorik etorri zen. Urte horretan berbertan heldu zen Markinara, eta bi urte geroago hil zen, 1948. urtean.

Garetxana Gerrikabeitia, Ramon eta Andres: Ikusi XI. eranskina.

Ibarluzea Gerrikabetia, Andres (1919an jaioa, Markinan) eta Oliva neba-arrebak: Francoren tropak sartu aurretik ihes egin zuten Etxebarritik, baina gero bueltatu egin ziren. Ez dakit zenbat denbora egin zuten Markinatik kanpo, ezta bueltatu zirenean atxilotu zituzten edo ez. 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Hauen aita, Gaspar Ibarluzea «Gaspar Bariña» bi aldiz atxilotu zuten.

Ibarluzea Iriondo, Jerardo (Markina, 1887 – Markina, 1951) eta familia: Jerardo zapataria zen, eta denda bat zuen Erdiko kalean. Ideologia abertzalea zuen. Familia osoak hanka egin zuen frankistak sartu aurretxoan, 1936ko apirilaren 25ean. Seme bat, Migel, frontean zegoen, Itsasalde batailoian, Errepublikaren alde borrokatzen. Lehenengo Aulestira joan ziren guztiak, eta han Jerardoren emaztea, Agustina Madinabeitia (1887 - 1962), eta bi ume, Imanol eta Faustino, gelditu ziren. Aitak eta beste bi semek, Andonik eta Kirruk, aurrera jarraitu zuten. Aulestitik Bermeora ihes egin zuten, eta handik, itsasontziz, Bilbora. Ama berehala bueltatu zen Markinara, baita Andoni, Kirru eta Faustino ere (frankistak sartu eta bi edo hiru egunetara). Imanol gaixorik zegoen, eta Aulestin gelditu zen 1937ko ekainaren 19ra arte, hau da, gauzak pixka bat baretu arte. Apirilaren 29an edo 30rean, Agustina Madinabeitia eta umeak etxera bueltatu zirenean, etxeko koltxoiak, izarak eta eskatzeko tresna eta baxera lapurtuta zeuden. Jerardo bi urte egon zen Bilbon bizitzen, Markinara etorri gabe, eta horrela errepresioa saihestu ahal izan zuen. Bilbon egon zen garaian, zapatari lanetan aritu zen, lehenbiziko Ariz enpresan, eta gero bere etxean. Imanol Jose Seva komandantearentzat ordenantza lanak egitera behartu zuten.

Ibaibarriaga Oregi, Pio – Aita Apolinar San Joserena (Garai, 1882 – Begoña, Bilbo 1946): Markinako San Jose komentuko moja karmeldarren kaperaua izan zen gerratean, eta bertan ematen zuen meza egunero (Urkiza, 1991: 288). Francoren tropak sartu zirenean, ezkutatu egin zen aita Urbanorekin, eta biek batera Frantziara ihes egitea lortu zuten, eta

handik Perura destinatu zituzten (Urkiza, 1991: 289). Bizkaiko Gobernadore Zibilaren oharretan, «separatistas» bezala sailkatutako erlijiosoen zerrendan agertzen zen (Urkiza, 1991: 295-296). Euskarazko predikuan nabarmendu zen (Unzueta eta Izpura, 2001: 82).

Ibarrolaza Gastiasoro, Mikaela (1913-): ikusi IV. eranskina.

Jauregi Altuna, Leandro - Zezilio Karmengo Birjinarena (Aramaio, 1872 - Markina, 1951): fraide karmeldarra. 1897tik 1951ra arte, hau da, hil zen arte, Markinako karmeldarren komentuan bizi izan zen. Pragako Jesus Haurraren Anaidiaren sortzailea (1914ko maiatzaren 24an) eta eragilea izan zen, ia zendu zen arte (Unzueta eta Izpura, 2001: 127). Kofradiak hainbat ekimen antolatzen zituen umeekin. Pastoral lanaz gain, antzerki emanaldiak eta zozketak antolatzen zituen, Artibai kaleko eskolan. Markinako umeen artean indar handia izan du anaidi honek, joan den mendeko 80. hamarkadara arte. Horren erakusle da Goiko Portaleko iturri gaineko Pragako Jesus Haurraren marmol zurizko irudia, 1923an jarria. Gerratean, Olabe baserrian bizi zen, eta San Hiazintoko baselizan ematen zuen meza. Salaketa bat izan zuen abertzalea zelako, eta karmeldarren probintzialak Gasteizko karmeldarren komentuan bizitzera zigortu zuen. 1937tik 1939ra egon zen bizitzen Gasteizen. 1939ko apirilean, Markinako komentuan egin zen Karmeldarren Probintziako Kapituluan parte hartu zuen, eta egun horretan bertan, herriko umeek eta maistrek harrera ezin hobea egin zioten, karmeldarren nagusiei berriro euren artean ikusi nahi zutela adieraziz. Aita Jose Leon Probintzial berriak Markinara bidali zuen, 1939ko maiatzaren 31n (Urkiza, 1992: 397).

Larrinaga Gisasola, Joan Karlos (Markina, 1922 – Markina-Xemein, 2000): ikusi IV. eranskina.

Loiola eizagirre, Joan («Joan Zumarra») (Xemein, 1903 – Derio, 1937): Ikusi VI. eranskina.

Maguregi Amesti, Basilio, Joanita, Trinidad eta Josefa anai-arrebak, «Laitxu familia»: Basilio, Trinidad eta Josefa Derion zeuden lan egiten Esperanza fabrikan, eta Joanita Donostian neskame lanetan. Etxeko guztiak abertzaleak ziren. Trinidadek apirilaren 26an ihes egin zuen Markinatik Deriora, eta Joanita ere Deriora etorri zen Donostiatik. Burdinazko Gerrikoa apurtu aurretxoan (1937ko ekainaren 19an), Santanderrera ihes egin zuten laurek, eta handik Frantziara. Normandiako Caen herrian egon ziren bizitzen. Urte bat Frantzian egin ostean, 1938an, Francoren Espainiara edo Gorrien Espainiara joateko aukera eman zieten, eta Irunetik zehar Hego Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuten. Joanita Donostian gelditu zen bizitzen, eta besteak Markinara bueltatu ziren. Basilio Francoren alde borrokatzera eraman zuten. 1951ko abenduan, Venezuelara joan zen bizitzera, eta bertan hil zen. Markinara bueltatu zirenean, Trinidad eta Josefa komandantzia garbitzera behartu zituzten.

Maguregi Solozabal, Amador «Bizkai» (Markina, 1899 – Markina-Xemein, 1953): bere anaia Fabianekin batera (1897an jaioa) zapatak konpontzeko tailer bat zuten Guen kalean. Abertzalea zen, eta Francoren tropak sartu aurrean ihes egin zuen. Ez dakit zenbat denbora egon zen Markinatik kanpo. Ezta kartzelan sartu zuten edo ez. Bere arreba Eloisa Maguregi Solozabali ilea moztu zioten, eta Urberuagako Bainuetxean soldadu frankisten komunak garbitzera behartu.

Mallukiza-Legarra familia: Francoren soldaduak sartu aurretxoan, Anbrosio Mallukizaren emazteak, Frantziska Mikaela Eusebia Legarra Urriolabeitiak (1880 - 1949), eta bi alabak, Justak eta Jesusak, ihes egin zuten Markinatik, eta Frantzian errefuxiatu ziren, eta geroago Belgikan. Frantzian egon ziren denboran, kontzentrazio eremu batean sartu zituzten. 1939an, La Habanan (Kuba) zeuden bizitzen. Felipe Mallukiza Legarra (Markinan jaioa 1919an) Bigon (Galizia) zegoen pilotan jokatzen, eta ez zuen ihes egin. Alabaina, 1937an, bere anaia Josek Kubara ihes egiten lagundu zion, pilotarako kontratu faltsuarekin. Jose Mallukiza-k, Anbrosio eta Eusebiaren semeak zera zioen *Garaian* aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean (Aransolo, Barinagarrementeria, Garitaoinaindia eta Muniozguren, 1995: 6): «Habanan nengoela gerra piztu zan hemen. Gerra Zibila. Aitxe ez neban gehiago ikusi,

fusilatu egin eben (1937). Anaia Vigon egoan jokatzen. Neuk atara neban. Artean hamazazpi urterik ez eukan. Ama eta arrebak, barriz, Frantziara ihes eginda. Anaia adin txikikoa zen, eta gurasoen baimenik barik ezin eban urten Espainiatik. Kontratu faltsu bat bialduta lortu neban neugana ekartea. Gogorra izan zan etxekoen barririk ia ez eukitea hainbeste denboran. Halako batean, lortu neban ama eta arrebekin harremanetan jartzea eta halantxe jakin eben Felipe anaia neugaz zala. Ordurako ama eta arrebak nahiko ondo konpontzen ziran, ez penalitate gitxi pasata (kontzentrazio eremu baten egonak ziran, Frantzian eta Belgikan ibiliak…). Arreba bata umezain egoan eta bestea pasteleria batean beharrean… Beldurra emoten eusten Hitler aurreratzen ikusteak eta egoera gero eta okerragoa zanez, telegrama bat bialdu neutseen Habanara etorri nahi eben galdetzen. Eta halantxe alkartu ginen barriro be familia osoa, aita ez».

Mayo Carballo, Santiago eta bere seme Santiago Mayo Mayo (Markina, 1928 – Markina-Xemein, 1982): Santiago Mayo zapadore lanetan aritu zen, guda lerroa gure herrira hurbildu zenean. Berak eta bere semeak Francoren tropak sartu aurretik ihes egin zuten, baina gero bueltatu egin ziren. Ez dakit zenbat denbora egon ziren Markinatik kanpo, ezta bueltatu zirenean atxilotu zituzten edo ez. Santiago Mayo Mayo semeak bederatzi urte zituen ihes egin zuenean.

Manzisidor Atutxa, Urbano - Aita Urbano Jesusena (Lemoa, 1894 – Viña del Mar, Txile, 1974): karmeldarra. Euskaltzalea zen, eta gerra piztu zenean, euskara eta historia irakasten zituen karmeldarren komentuan. Markinako komentuko irakasle izan zen 1921etik 1928ra eta 1934tik 1936ra. Baraiazarrak eta Urkizak Lino Akesoloren (Dima 1911 - Bilbo, 1991) biografian dioten bezala: «Karmeldar gazteak euskaltzaletasunez pizteko toki gertatu zen Markina... Han zen Urbano Manzisidor historia euskaraz azaltzen, A. Lontzi (Ormaetxea), Txomin Agirreren *Garoa* goratzen, eta ikasleengan harridura sortzen. *Zeruko Argia* eta *Jaungoiko-Zale* aldizkariak hartzen zituzten beste batzuen artean... » (Baraiazarra eta Urkiza, 2002: 5). Gerratean, Aita Urbano Olabe baserrian egon zen bizitzen, Aita Zeziliorekin batera, eta San Hiazintoko baselizan ematen zuten meza. Aita Piok bezala, Francoren tropak sartu aurretik hanka egin zuen Frantziara, eta 1938an Txilera bidali zuten (Urkiza, 1992: 289 eta Unzueta eta Izpura, 2001: 501). Txilen Chuchungo-ko irakaslea izan zen.

Muñoz Azpeitia, Benito (Markina, 1894 – Iruñea, 1938), bere emaztea eta lau semealabak: Francoren tropak herrian sartu aurretxoan, familia guztiak ihes egin zuen Markinatik, baina hiru egunetara emaztea eta bi seme-alaba etxera bueltatu ziren, eta Benito eta bere seme-alaba Luzia eta Jose Maria Bilbora joan ziren. Ikusi V. eranskina.

Oar-Arteta Undabeitia, Jose Antonio (Ajangiz, 1900 - Urberuaga, Markina-Xemein, 1978): Ajangizen jaio zen, eta 1923an egin zen abade. Lekeition, Gasteizen eta Burgosen egin zituen eliz ikasketak. Abade laguntzaile izan zen Markinako Xemeingo parrokian, 1931tik 1936ra (Oar-Arteta, 1991 eta Martínez, 2007: 60). Francoren tropak berehala sartuko zirela pentsatuz, alde egin zuen 1936ko udagoienean. Lehenengo Gernikan egon zen, gero Bilbora joan zen, eta handik Santoñara ihes egin zuen. 1937ko uztailaren 6an, Bordelera heldu zen (Oar-Arteta, 1991: 18). Frantziatik Belgikara joan zen, eta, azkenean, berriro Frantziara bueltatu zen. 1939an, Roye-n (Somme) zegoen. Alemaniarrek Frantzia hartu zutenean, Ziburura joan zen bizitzera (Onaindia: 1977). 1947an bueltatu zen Hego Euskal Herrira. 1950. urtean, Lemoizko arimazain izendatu zuten, eta lan horretan aritu zen 24 urtez. Gero, Gernikara joan zen bizitzera. 1978an hil zen, Markina-Xemeinen (Urberuagan), auto istripuz (http://www.euskomedia.org/aunamendi). Ospe handiko sermoigile izan zen. *Jaungoiko-Zale, Euzkadi, Ekin, Karmel* eta *Anaitasuna* aldizkarietan eman zituen argitara lan aipagarrienak. Berak idatzitako liburu batzuk dira: Aratuzteko Iru-urrena (1930); *Gexoen Elexakoak* (1931); *Ugutza ta Ezkontza* (1931), *Jesus'en Biotzaren Illa* (1931), *Manuale Sacramentorum, euskeraz* (1934, M. Lekuonarekin batera); *Sasi ezkontza* (1934, antzerkia) eta *Miren'en Senargeya* (1936).

Onaindia Badiola, Alberto (Markina, 1882 – Markina, 1951) eta familia: bederatzi urtetan Markinako alkate izan zen Leon Onaindiaren semea zen. Lanbidez botikaria zen, eta baserri askoren jabea (Subedi, Alegrixe, Elorrixa eta Etxezuri baserrien jabea zen Ziortza-Bolibarren, Salutrei Markinan eta Trotixa Xemeinen). Ana Maria Luzia Fernandez Hernandezekin egon zen ezkonduta (1894an jaioa). Errepublikazalea zen, eta Errepublika garaian, errepublikazaleen lehendakaria izan zen hil batzuetan. Indalezio Prieto politikari sozialistaren laguna zen. Errepublika garaian, Manuel Azañak, Errepublikako Gobernu buruak, eta Indalezio Prietok eta Martzelino Domingok, ministroak, bere etxean hartu zuten atseden, Ondarroara etorri zirenean, portuko lanen hasierako lehen harria jartzera (Oruemazaga, 2006: 38-45). Alberto Onaindiak Indalezio Prietorekin zuen adiskidetasunaren ondorioz, Markinako Udalak 40.000 pezeta lortu zituen gobernutik, eskola berriak egiteko. Apirilaren 26an ihes egin zuen bere familiarekin, baina, denbora bat kanpoan egin ostean, bueltatu egin zen. Bueltatu zenean, isuna ordaindu behar izan zuen. Horrez gain, botika edukitzeko behar zen lizentzia kendu zioten 1941era arte (Garaian, 1991-8: 9).

Onaindia-Elorriaga familia: Pedro Onaindia Zuluaga (Markina, 1904 – Algorta, 1986) eta bere familia Goiko Portaleko bigarren zenbakian bizi ziren. Pedro Jose Migel Onaindiaren eta Matea Zuluagaren semea zen. Pedro izan zen abade egin ez zen seme bakarra. Bere aita hil zenean, Pedrok hartu zuen Xemeingo idazkari postua. Horrez gain, Goiko Portalean zegoen Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipaleko bulegoko ardura zuen. Ordulariak ere konpontzen zituen. Gerra garaian, Pedro Onaindiaren emaztea, Maria Cruz Elorriaga Dañobeitia (Bilbo, 1905 – Madril, 1991) eta bere lau seme-alabak (Jon, Markinan jaioa, 1932an, Miren, Markinan jaioa, 1933an, Josu, Markinan jaioa, 1934an eta Sorne, Aulestin jaioa, 1936an) Aulestira joan ziren bizitzera, Markinaren kontra Kalamutik eta Urkaregitik botatzen zituzten bonbetatik ihesi. Eurekin joan ziren ere Josefa Matea Zuluaga, Pedroren ama, eta Pedroren bi arrebak: Joanita eta Carmen. Markinako Guda lerroa apurtu zenean, 1937ko apirilaren 27an, familiako kideak ihesari ekin zioten. Bakoitzak ahal izan zuen moduan, Lekeitiora heldu ziren, eta han bat egin zuten familiako hamar kideek (baita Domingo eta Alberto abadeek ere). Handik Areetara joan ziren, senide batzuen etxera. Pedroren ama, Matea, arreba, Joanita, bere emaztea, Mari Cruz, eta hauen seme alabak Frantziara ihes egin zuten Habana itsasontzian, 1937ko maiatzaren 6an, baina Pedrori ez zioten utzi itsasontzian sartzen, gizona zelako. Beraz, bakarrik gelditu zen Areetan ezkutatuta. Bere arreba Karmen ere Areetan gelditu zen, baina honek maiatzaren 16an ihes egin ahal izan zuen Frantziara, Habana itsasontzian. Pedro, ezkutatuta egon ostean, Donostiara heldu zen abuztuaren 12an, eta mugalari baten laguntzaz, Beratik zehar, Biriatura pasatu zen. Azkainera abuztuaren 15ean heldu zen. Iparraldera ihes egiten Manu Canela dendan lan egiten zuen Maria Ansola Zelaiak lagundu zion[5]. Dendan lan egitearen ondorioz, Mariak jende asko ezagutzen zuen, eta Pedro Onaindiak Iparraldera ihes egiteko laguntza eskatu zion. Mariak errekete arropak lortu zizkion Pedrori. Errekete jantzita, txapel gorri eta guzti, Donostiara heldu zen, eta handik, mendiz mendi, Azkainera heltzea lortu zuen, abuztuaren 15ean. Bere seme Jon Onain-

[5] Maria Ansola Zelaia (Elgoibar, 1909 - Markina, 1970) txanbolintarren arreba zen. 1930. urtean Bilbora joan zen Manu Canela izeneko dendan lan egitera, eta bertan aritu zen lanean 25 urtez. 1955. urtean, Markinara etorri zen bizitzera, eta 1970. urtean hil zen, Markina-Xemeinen. Manu Canela denda Bilboko elikagaien dendarik famatuenetarikoa zen II. Errepublika garaian. Maria Zelaia gerratean zein gerraostean asko inplikatu zen andrea izan zen. Abertzalea zen, eta hainbat gauza arriskutsu egin zituen. Pedro Onaindiari ihes egiten laguntzeaz gain, Larrinagako preso ezagunak ere sarritan bisitatzen zituen. Askotan, gainera, bere diruarekin erosten zituen Larrinagan zeuden presoentzako elikagaiak, edota Valladolidera arte joaten zen, presoak bisitatzera. Alberto Onaindiari ere informazio asko bidaltzen zion gerraondoan. Pedrok alde egin zuenean, Mariari utzi zizkion Onaindiatarren etxeko ondasun batzuk. Kontuan izan Ansolatarren etxea Elgoibarren Zelestino Onaindia bizi zen tokitik oso hurbil zegoela, eta elkar ondo ezagutzen zutela. Gainera, Mariaren ama markinarra zen, Askurrinaga-Goikoa baserrikoa.

diak gogoratzen duen legez, Donostian zegoela, frontoira joan zen txapel gorria jantzita, eta bertan markinar bat topatu zuen. Markinan eta Xemeinen gertatutako guztiak azaldu ostean, argi adierazi zion Pedrori ihes egin behar zuela, bere bizia arriskuan zegoelako. Iparraldean bizi zirela, Pedrok Donibane Lohizuneko denda batean lan egin zuen 1953. urtera arte. Baina gero lanik gabe gelditu zen, eta frantziar nazionalitaterik ez zuenez, ezin izan zuen autonomo gisa lan egiten hasi. Alberto Onaindiak Frantziako ministroekin hitz egin ostean, paperak lortu ahal izan zituen, eta ordulariak konpontzen hasi zen bere kontura, Azkainen berbertan. Horretan aritu zen, erretiroa hartu zuen arte. Mari Cruz-ek josten lan egiten zuen, Karmen eta Joanita koinatekin batera. Onaindiatarrak oso errespetatuak eta maitatuak izan ziren Azkainen. Dena den, alemaniarrak Frantzia hartu zutenean, 1940an, Pedro Onaindiak, badaezpada, etxetik kanpora lo egiten zuen, lagun batzuen baserrian. Kontuan izan, Francok eta Hitlerrek harreman estua zutela, eta errefuxiatu euskaldunen artean beldur asko zegoela. Bernardo Aretxabaleta «Tate» 1952. urtera arte egon zen errefuxiatuta Frantzian, eta urtero joaten zen Onaindiatarrak bisitatzera. Pedro eta Bernardo Aretxabaleta lagunak ziren. Biak EAJ-ko militanteak ziren, eta gerratean, elkarrekin lan egin zuten Errepublikaren Aldeko Batzordean. Pedro eta bere emaztea Azkainen egon ziren bizitzen, eta 1971. urtean, Algortara etorri ziren. Pedro Algortan zendu zen 1986an. Mari Cruz Madrilen hil zen 86 urte zituela, bertan bizi zen alaba bat bisitatzen zegoela. Jon Onaindia Elorriaga (Markinan jaioa 1932an), Pedro Onaindia eta Maria Cruz Elorriagaren seme zaharrena, Azkainen egon zen bizitzen hamaika urte izan zituen arte. Gero, Gasteizko seminariora etorri zen. Inolako paperik ez zuenez, udan, Azkainera joateko, mugalariekin pasatzen zuen muga. Era horretan ibili zen 16 urte izan zituen arte. 1956an abadetu zen, eta momentu honetan Iurretako parrokoa da. Miren, Josu, Sorne eta Kolestin Onaindia Elorriagak Lehen Hezkuntza Azkainen egin zuten, baina gero Hegoaldera etorri ziren ikastera. Inolako paperik ez zutenez, muga pasatzeko Donibane Lohizuneko itsasontzietan ateratzen ziren Iparraldetik, eta itsasoan, Ondarroako itsasontzietara pasatzen ziren, Hego Euskal Herrira sartzeko.

Onaindia-Zuluaga familia: **Josefa Matea Zuluaga Maguregi ama eta bere alaba Karmen eta Joanita Onaindia Zuluaga.** Josefa Matea Zuluaga Maguregi (Etxebarria, 1868 - Azkain, 1951) Jose Migel Onaindiarengandik alargunduta zegoen (Xemein, 1868 - Markina, 1932). Jose Migel, jaiotzez Ibaseta (Xemein) baserrikoa zen, eta Xemeingo idazkaria izan zen urte askotan. Matea eta Jose Migel Markinako Erdiko kaleko 15. zenbakian bizi ziren, eta bertan izan zituzten zazpi seme-alaba: Zelestino, Josefa, Domingo, Alberto, Pedro, Carmen eta Joanita. Zortzigarrena, Joan, Goiko Portaleko bigarren zenbakiko lehen solairuan jaio zen. Josefa Matea Markinako Goiko Portalean bizi zen bere alaba Karmen eta Joanitarekin batera, baina Aulestin errefuxiatu ziren guztiak, Markinaren kontra Urkaregitik Francoren tropek botatzen zituzten bonbetatik ihesi. Aulestin zeuden errefuxiatuta Matea Zuluaga, amona, honen bi alabak, Carmen eta Joanita, Pedroren emaztea, Maria Cruz Elorriaga, eta Pedroren eta Mari Cruz-en lau seme-alabak (Jon, Miren, Josu eta Sorne). Kolestin, gazteena, Bidarten jaio zen, 1939an. 1937ko apirilaren 27an, Josefa Matearen semea, Domingo Onaindia abadea, etorri zitzaien esatera Markinako guda lerroa apurtu egin zela, eta ihes egin behar zutela Aulestitik, frankistak laster sartuko zirelako. Familiako hamar kideak (baita Domingo eta Alberto abadeak ere) Lekeition elkartu, eta Areetara joan ziren, senide batzuen etxera. Josefa Matea, amonak, Joanita, alabak, Mari Cruz, erreinak, eta honen lau seme alabak Frantziara ihes egin zuten Habana itsasontzian, 1937ko maiatzaren 6an. La Pallice-ko portura heldu ziren (La Rochele-tik oso hurbil), eta gero Azkainen erbesteratu ziren. Alberto Onaindiak bilatu zien etxean hasi ziren bizitzen: Iturburu etxean. Carmen Onaindia Zuluaga (Markina, 1906 – Donibane Lohizune, 1992) Bilboko portutik maiatzaren 16an atera zen itsasontzian heldu zen Frantziara. Jon Onaindiak gogoratzen duen bezala: Azkaineko baserritarrak oso ondo portatu ziren beraiekin, hasierako egun horietan. Helduaz bat, euren ortuetatik nahi zuten guztia hartzeko baimena eman zieten. Onaindiatarrak bizi ziren etxean berbertan, bigarren solairuan, bizi izan ziren bi urtez errefuxiatuta Castor Uriarte, Esperanza

fabrikako zuzendari-gerentea, eta bere familia. Carmen eta Joanitak (Markina, 1908 – Donibane Lohizune, 1971) josten lan egiten zuten, Maria Cruz koinatarekin batera. Azkainen urte pila egin ostean, Joanita eta Karmen Domingo Onaindiarekin bizitzera joan ziren Donibane Lohizunera, eta bertan hil ziren. Karmen 1992an hil zen, 85 urte zituela eta Joanita 1971n, 63 urte zituela. Josefa Matea Zuluaga ama Azkainen hil zen.

Onaindia Zuluaga, Alberto (Markina, 1902 - Donibane Lohitzune, 1988): Erdiko kaleko 15. zenbakian jaio zen. Batxilergoa Durango Jesuitetan egin zuen. Gasteizko seminarioan hasi zituen abade ikasketak, eta Erroman bukatu. Teologia eta Filosofia doktoregoa ere Erromako Eskola Gregoriar Nagusian atera zuen. Hiru urtetan, Saturrarango Seminarioko udako ikastaroak eman zituen, baina gero Valladolidera joan zen, eta bertan Kanoniko postua atera zuen. Ostean, Areetara bidali zuten. Bigarren Errepublika garaian, AVASC-ek (Agrupación Vasca de Acción Social Cristiana) antolatzen zituen ikastaroetan parte hartu zuen. Errepublika garaian, arazo sozialez arduratu zen abadetariko bat izan zen. Alberto Onaindiak Leon Xlll. Aita santuak *Rerum novarum* (1891) entziklika bidez eta Pio XI.ak *Quadragesimo Anno* (1931) entziklika bidez zabaldu zuen mezua jazo zuen; hau da, langileen bizi baldintzei garrantzi gehiago eman behar zitzaiola, eta Elizak arazo sozialez gehiago arduratu behar zuela. Errepublikako urteetan, artikulu anitz idatzi zituen gai hauen inguruan, eta hainbat hitzaldi, ikastaro eta mahai-ingurutan parte hartu zuen (Goñi, 2003: 22). Eskuindarrak, Mujika gotzainarengana joanda, ekintza hauek errotik mozten ahalegindu ziren. Horrela, Mujika gotzainak Gasteizko Eliz berripaperean, apaizei eztabaidak debekatu zizkien eta prentsako lanak galarazi (Martin Ugalde, Argia, 1988-VII-3). Gerra Zibilean mobilizatu egin zuten, eta Lehendakaritzara atxiki (Onaindia, 1983: 19). Eusko Jaurlaritza osatu zenean, Agirre Lehendakariak bere aholkulari egin zuen. Francoren alde borrokatzen ari ziren italiarrek eta EAJko ordezkariek Santoñan sinatu zuten ituna prestatzen parte hartu zuen (Onaindia, 1983). Frankistek Hego Euskal Herria hartu zutenean, Frantzian erbesteratu zen: lehenengo Euskal Herriko Iparraldean eta gero Parisen. Alemaniarrak Frantzian sartu zirenean, Londresera hanka egin zuen. 1940ko ekainaren 11n utzi zuen Paris, eta 16an Azkainen zegoen. Ekainaren 25ean, Plymouth-era eraman zuen Restigouche itsasontzia hartu zuen Donibane Lohizunen (Onaindia, 1983: 18). Oso famatuak izan ziren Francoren diktadura garaian BBC irratitik (1941 - 1946) eta gero Frantziako Irratitik (1946 - 1957) gazteleraz egiten zituen irratsaioak. Paris Irratian hitz egiteko «Padre Olaso[6]» ezizena hartu zuen (hitzaldi horiek 1957an amaitu ziren, Frantziako gobernuak frankismoaren eskaerei men eginda), eta BBC irratian «James Masterton» (Goñi, 2003: 23). Alberto Onaindiak hainbat artikulu idatzi zituen prentsan, batez ere, *Euzkadi* egunkarian. Erdaraz idazten zuen «Egizale», «Markiña», «Olaso», «Jurgi de Ibaseta» ezizenez. Euskaraz ere zerbait idatzi zuen, Markinako berriak emanez. Horrez gain, hainbat liburu ere idatzi zituen. Ezagunenak *Hombre de Paz en la Guerra*, *Experiencias del exilio* eta *El Pacto de Santoña dira*. Donibane Lohizunen zendu zen 1988an, baina bere guraria izan zen Markinan lurperatzea. 1988ko uztailaren 21ean, azken agurra egin zitzaion Xemeingo Andre Mariaren Parrokian. Bere iloba Jon Onaindiak zuzenduta, 49 abadek parte hartu zuten elizkizunean, eta bertan egon ziren Leizaola, Garaikoetxea eta Ardanza lehendakariak. Markina-Xemeinek XX. mendean eman duen pertsonaia ilustratuenetarikoa izan zen, nire ustez. II. Errepublika garaian eta Gerra Zibilean, eragin politiko eta sozial handia izan zuen pertsonaia izan zen. Bere anaia Pedrok 1983an esan bezala, «…siempre que ha actuado lo ha hecho con criterio personal y como sacerdote, ya que ni antes ni ahora ha pertenecido a ningún partido político» (Garaian, 1988-3: 23). Alberto Onaindia Domingo Onaindiaren eta frankistek Hernanin fusilatu zuten Zelestino Onaindiaren anaia zen.

---

[6] Olaso Berriatuko baserri baten izena da. Eta Albertok izen hori aukeratu zuen i eta u bokalak ez dituelako (bokal hauek ez omen dira oso ondo entzuten irratian) eta bere familia inplikatu nahi ez zuelako.

Onaindia Zuluaga, Domingo (Txomin) (Markina, 1901 – Angelu, 1985): Txomin Onaindia Erdiko kaleko 15. zenbakian jaio zen. 1923an egin zen abade. Arteagako Seminario Txikiko irakaslea izan zen 1923tik 1929ra, eta Markinako abade laguntzailea 1929tik 1936ra (Martínez, 2007: 61). Urte horietan, Xemeingo parrokiako abesbatza zuzendu zuen. 1937ko apirilaren 27an, Francoren soldaduak Markinan sartu aurretxoan, ihes egin zuen, eta Lekeition elkartu zen bere familiarekin. Handik Areetara joan ziren guztiak. Txominek hilabete eta erdi ezkutatuta egin zuen, eta 1937ko ekainaren 18an, Santoñara ihes egin zuen autobusez, beste 35 elizgizonekin batera. 1937ko uztailaren 3an, Molton izena zuen itsasontzi ingelesean sartu ziren abade guztiak, beste 1747 pertsonarekin batera. 1937ko uztailaren 5ean heldu ziren Pauillac-eko portura (Frantzia, Burdeos). Segundo Oar-Artetak dioen bezala: «36 sacerdotes vascos, no tengo la relación de quiénes, pero entre ellos Domingo (Txomin) Onaindia y mi tío José Antonio Oar-Arteta, el 17 de junio de 1937 recibieron la noticia de que podían embarcar con destino a Francia para huir del temor a las venganzas de los fascistas que pronto iban a entrar en Bilbao. El 18 de junio los 36 sacerdotes y religiosos vascos montaron en dos autobuses en dirección a Santoña. Tras numerosas peripecias en el trayecto, en Santander y embarques frustrados, el 3 de julio de 1937, a las nueve y media de la noche embarcaron en el barco inglés Molton 1.747 personas, entre ellas los 36 sacerdotes vascos. Después de 33 horas de navegación llegaron al mediodía del 5 de julio de 1937 a la localidad francesa de Poullac. El día 6 de julio desembarcaron. El alcalde de Poullac, que era vasco y hablaba euskera, les recibió como pudo. Los sacerdotes tuvieron problemas para ser aceptados en tierra francesa tras el desembarco. Tres jesuitas vascos, expulsados por Franco, mediaron ante el Arzobispo para que les acogiera mientras se resolvía su situación». Domingo Hendaian bizitzen egon zen 1937tik 1940ra. 1940tik hil zen arte, Donibane Lohizunen bizi izan zen, eta bertako abade laguntzaile izan zen. 1985eko apirilaren 2an hil zen, auto istripuz, Angelu inguruan (Garaian, 1988-3: 23).

Onaindia Iriondo, Rosario: Emakume Abertzale Batzako kidea zen, eta, Errepublika garaian, Batzokian sortutako antzerki taldeko kidea. Francoren soldaduak Markinan sartu aurretxoan, ihes egin zuen, baina gero bueltatu egin zen. Ez dakit zenbat denbora egon zen ihes eginda. Bere aita Pedro Onaindia Jaio zen, Uhagon etxeko lorazaina, eta Markinako EAJ-ko zinegotzia Errepublika garaian eta gerratean. Pedro atxilotu egin zuten, eta hainbat urte egin behar izan zituen kartzelan.

Ormaetxea Aldana, Pedro - Aita Leoncio (Lontzi) San Joan Gurutzekoa (Etxano, 1891 – Viña del Mar, Txile, 1949): fraide karmeldarra. 1931. urtetik 1937. urtera, Larrea eta Markinako komentuetan bizi izan zen. Markinako karmeldarren komentuan euskara irakaslea zen 1936an. Francoren tropak Bizkaia hartu ostean, 1937an, Txilera bidali zuten. Txileko Viña de Mar-eko komentuan hil zen. (Urkiza, Unzueta eta Fernandez de Mendiola, 2005: 453-454). Unzueta eta Izpurak dioten bezala (2001: 350): «Conventual de Marquina, Larrea y Alzo, las circunstancias políticas obligaron a que fuera destinado a Chile (1937). Predicador, escritor y poeta en lengua vasca».

Sololuze Olasolo, Eusebio (Xemein, 1920 – Markina-Xemein, 2007): Ikusi IV. eranskina.

Tajueña Alkolea, Tomas: barkillo saltzailea zen, eta ihes egin zuen Markinatik Francoren tropak sartu aurretxoan. Ez dakit zenbat denbora egin zuen ihesean.

Ugarte, Pakita (Markina, 1910 – Markina-Xemein, 1995): Errepublika garaian, Emakume Abertzale Batzako kidea izan zen, eta, 1935etik 1937ra, Bilbon aritu zen lanean, «Euzko Ikastola Batzarentzat»[7]. Bilbo jausi aurretxoan (ekainaren 15ean edo 16an), erbeste-

[7] Euzko Ikastola Batza Bilbon sortu zen 1932. urtean, eta bere helburua zen euskal eskolen garapena sustatzea. Gerra Zibilak eta osteko errepresio frankistak erakunde honen desagertzea ekarri zuen.

ratu egin zen, aurrenengo Santanderren, gero Donibane Garazin eta hil batzuk beranduago, 1937an, Bruselan. 1940. urtera arte egon zen erbesteratua Bruselan (Garaian, 13-1993: 14-15). Hara nola azaltzen duen bere historia: «1936an gerrak urte eban, eta 1937ko ikasturtea amaitu zanean, eskola itxi eta Bilbotik urten behar izan genduen, Santanderreruntz. Ekaina aldea zan. Bilbo jausi baino egun batzuk arinago. Juxtu-justuan urten be. Nire neba Angelek furgoneta bat eukan, Eusko Jaurlaritzak 'errekisatua' egoana eta haretxegaz eroan ginduen, ni, beste lau-bost andereño eta sartzen ziran guztiak, hestu-hestu eginda. Gaba zan Bilbotik urten genduenean, eta a zelako luzea egin jakun bidea! Harek ziran karabanak… danak ihes egin nahiean… Durangoko bat etorren geugaz, pariente batzuk eukazanak Santanderretik zazpi bat kilometrotara; eta hareen etxean egon ginen gordeta, harik eta 'Comisión de Escuelas'ekoek aurkitu ginduezan arte. 'Asistencia Social' edo antzeko zerbitzu batekoak ziran. Hareek lagunduta eta juxtu-juxtuan, Frantziara joian itsasontzi bat hartu ahal izan genuen, geure lau gauzok maleta zaharretan sartuta. Geugaz etorren Olaeta (balletekoa) eta bere familia ere. Baina gizonezkoei ez eutseen ixten itsasontzira sartzen eta lehorrean geratu behar izan eban. Ikustekoa zan haren emaztearen negarra, bakarrik umeekin. Hain dira hunkigarriak ikusi behar izan ditugunak… Eta hantxe, itsasontzi haretako bodegetan eroan ginduezan Frantziara. Donibane Lohizunera, hain zuzen. Han trena hartu eta Donibane-Garazira. Ekainaren 24a zan, San Joan eguna. Jaietan egoazan, beraz. Gehien harritu ninduena hango dendak, eta batez be harategiak eta, izan zan. Halako argitasunik, harenbeste okela ikustea… Bilbon ez egoan aspalditik be holakorik.… Danetarik egin behar izan genduen: eskolak emon, umeak zaindu, zorriak kendu… Pelukera egitea be egokitu jatan, umeentzat, beste andereñoentzat… Egin behar…». Pakita Ugarterekin batera, hainbat ume, irakasle eta laguntzaile joan ziren itsasontzian Donibane Garaziko koloniara (Alonso Carballés, 1998: 207). Tartean zihoan, irakasle lanetan, Markinako Mesedetako mojen komentuan hainbat urte egin zituen eta Ikastolako zuzendari izan zen Libe Altuna (Arrien, 1983: 256).

Ugarte Urreta, Natividad: Lorenzo Solozabalekin (Amorotokoa) zegoen ezkonduta, eta ideologia abertzalea zuen. Frankistak herrian sartu aurretxoan, Natividadek hanka egin zuen, baina gero bueltatu egin zen. Bere senarra gudaria izan zen, eta kartzelan egon zen denboraldi batez. Kartzelatik bueltatu zenean, Venezuelara joan ziren bizitzea. Lorenzo Venezuelan zendu zen, eta Natividad Bilbon. Natividad Ugarteren aita eta ama ere atxilotu, eta bi hil egin zituzten kartzelan, eta bi urte desterratuta.

Ugartetxea Olasolo, Joan «Padarra» (Xemein, 1904 – Santurtzi, 1970): Ikusi IV. eranskina.

Ugartetxea Ugarteburu, Jose Maria (1889an jaioa, Markinan eta Mexikon hil zen): gerra piztu zenean, Joan Barquin Trueba ekonomoaren abade laguntzailea zen, Barinagako parrokian. Hargina izan zen gaztetan, eta 1917an abade txiki egin zen, hau da, karrera laburreko abade. 28 urte zituela abadetu zen. Garai hartarako nahiko berandu zen hori. Lehenengo Gerea auzoan (Mallabia) egon zen abade, eta gero, ez dakit noiz, Barinagara bidali zuten (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, II, 1991: 188). Pentsatzen dut, II. Errepublikako urteetan, Barinagan egon zela. 1937an, Francoren tropak sartu aurretxoan, Mexikora ihes egin zuen, berarekin bizitzen ari ziren loba mexikarrekin batera. Mexikon jokatzen zegoen bere anaia pilotari baten seme-alabak ziren. Badirudi Mexikora joatea erabaki egokia izan zela. Izan ere, frankistek harrapatu balute latzak pasatuko zituen. Jose Antonio Oar-Artetak bere *Zaar-Barri* liburuan dioen bezala: «Apaiz-lagun izan zan Bariñagan, Markiñetik alboko erritxu batean, 1937 garreneko gudararte. Orduan emen egon zirean bere anai-pelotariaren umetxu bi, eta Mexikuko pelotariak ara 'Cruz Rojaren' bitartez eskatu zituan. Norbaiten babespean joan bear eben, eta On Joxe-Mariak eroan zituan. Eskerrak umieie, bestela emen txarto erabiliko eben» (Oar-Arteta, 1991: 58). Jose Mariri arreba bat hil zioten gerran: Isidra Ugartetxea Ugarteburu (1896 - 1936) hegazkinekin egindako bonbardaketa batean hil zuten frankistek, Markinan, 1936ko urriaren 22an.

Ugartetxea Urkieta, Jose Mateo - Aita Jose Mateo Jesusen Bihotz Sakratuarena (Markina, 1881 – Donostia, 1970): fraide karmeldarra 1907. urtetik. Domingo Ugartetxea abadearen eta Francisco (Jose Domingo) Ugartetxea fraide karmeldarraren anaia. Markinako Zehar kalean jaio zen. Errepublika garaian eta gerra hasi zenean, Markinako komentuan zegoen bizitzen. Euskaltzalea zen, eta Bizkaiko Gobernadore Nagusiaren oharrean «separatista» gisa agertzen zen (Urkiza, 1991: 295-296). Salaketa bat izan zuen abertzalea zelako, eta karmeldarren probintzialak Logroñoko karmeldarren komentuan bizitzera bidali zuen (Urkiza, 1992: 287-290). Unzuetak eta Izpurak dioten bezala (2001: 307): «Entró en la Orden siendo ya sacerdote. Predicador de misiones en lengua vasca. Prior de Marquina (1930 - 33) y Hoz de Anero (1942 - 45). Desde 1945 residió en el convento de San Sebastián».

Ugartetxea Zabala, Donato (Xemein, 1902 - Donostia, 1989) eta bere emazte Juliana Arrieta: Goitxi baserrian (Xemein) jaio zen, baina, gaztetan, Eibarrera joan zen, bizimodua ateratzera. Handik Donostiara pasatu zen, kristaldegi batean lan egitera (Aldazabal eta Laka, eta gero Aldazabal y Compañia S.A.). Abertzalea, euskaltzalea eta antzerki zalea zen. Errepublika garaian, hamaika antzerki egin zituen Donostiako Batzokian, baita Aldundiaren babespean eratu zen Iztunde antzerki eskolan ere (Euskal Deklamazio Eskola). Toribio Alzagaren ikaslea izan zen, eta Errepublika garaiko euskal antzerkiaren pizkundean parte hartu zuen. Euskal Herria osoa zeharkatu zuen antzerkiak egiten[8]. EAJ-ko militante gisa, hainbat mitin eman zituen Gipuzkoan eta Bizkaian, Monzon eta, batez ere, Altzetarekin batera. Markinako batzokian ere hainbat mitin eman zituen Errepublika garaian. Bere emaztea, Juliana Arrieta Zapirain, Astigarragako batzokiaren inaugurazio egunean ezagutu zuen. Juliana Gartziategi sagardotegiko alaba zen. Bi alaba izan zituzten: Mertxe (1940an jaioa) eta Arantxa (1941ean jaioa). 1936ko abuztuaren 12aren bueltan, Donostian gertatzen ari ziren borroketatik ihesi, Donato eta bere emaztea Xemeinera etorri ziren. Markinar eta xemeindar askok Donatoren ahotik jakin zuten egun horietan Donostian gertatzen ari zena. Ikusitakoak ikusi ondoren, Donato nahastuta eta beldurtuta heldu zen Xemeinera (Onaindia, 1980: 20). Militarrek Xemein hartu aurretik, berak eta bere emazteak Bilbora ihes egin zuten. Emazteak Frantziara ihes egitea lortu zuen. Donato Bilbon gelditu zen, frankistak sartu zirenean. Bilbotik ihes egin nahian zebilela, Garatea baserriko (Zeinka-Ziarregi) Balendin Gerrikabeitia fraide pasiotarrak laguntza eskaini zion, eta Angostoko (Araba) pasiotarren monasterioan ezkutatu zuen, pare bat urtez. Morroi lanak egiten zituen bertan, Joan Zabala izenordearekin. Bere emazteak, Juliana Arrietak, Bilbotik itsasontziz ihes egin zuen Bretainiara (Frantzia), baina laster bueltatu zen Donostiara. Bretainian, Tréboul-en (Bretainia) egon zen bizitzen, mojen komentu batean. Berarekin batera, Elixabete Aginaga markinarra egon zen. Donato 1939an bueltatu zen Angostotik Donostiara, baina bi urte egin zituen etxetik atera gabe, beldurtuta. Bere antzerki grinaren ondorioz, Frankismo garaian ere, hainbat antzerki egin zituen Maria Dolores Agirreren zuzendaritzapean (Urkizu, 1996: 78-79).

Urbieta Elizgarai, Domingo (Markina, 1898 – Markina-Xemein, 1965): Ikusi IV. eranskina.

Uriarte Agirreamalloa, Castor (Catabuig, Filipinak, 1892 - Bilbo, 1979) eta bere familia: bere aita kapitaina zen, eta horregatik jaio zen Filipinetan. Hil gutxirekin, Ajangizera joan zen bizitzera bere familiarekin, eta 1900. urtetik aurrera, betirako gelditu ziren bertan bizitzen. Bartzelonan ikasi zuen arkitektura. II. Errepublikako urteetan eta gerratean, Gernikako eta Lekeitioko udal arkitektoa izan zen, eta, gerraostean, Ondarroa eta Amorebieta-

---

[8] Toribio Alzagak zuzentzen zuen Euskal Etxeko antzerkian ibili zen, hau da, *Euskal Iztundea* izeneko antzerkian. Felisa Areitioaurtena, Gregorio Beorlegi, Jose Egilegor eta Antonio Etxeberriarekin batera aritu zen antzerkiak egiten. Besteak beste, Shakespeare-n *Macbeth* eta Molière-n *L'Avare* antzeztu zituzten. Bere anaia Agustin Goitxik (Agustin Ugartetxea) ere antzerkiak egiten zituen Markinako Batzokian (Auñamendi Eusko Entziklopedia: http://www.euskomedia.org/aunamendi).

Etxanoko arkitektoa (http://www.euskomedia.org/aunamendi). Ideologia abertzalea zuen. Esperanza y Cia fabrikako gerente-zuzendaria ere bazen, gerra hasi zenean. 1936ko azaroan, Euzkadiko Gobernuak Esperanza y Cia arma enpresa militartu egin zuen, eta Errepublikako Gobernuaren menpe gelditu zen. Garai horretan, eta fabrika hobeto babesteko helburuarekin, Esperanza fabrika Zamudiora eta, zati bat, Bilbora eraman zuten. Fabrikarekin batera, familia osoa ere Bilbora joan zen bizitzera. Maiatzaren 6an, Castor Uriarteren emazteak eta lau seme-alabek ihes egin zuten Habana itsasontzian, eta Azkainen errefuxiatu ziren. Castor Uriartek ezin izan zuen ihes egin, frontera joateko adinean zegoelako (45 urte zituen), baina ekainaren 17an, Bilbo frankisten eskuetan jausi baino bi egun aurretik, ihes egin zuen Santanderrera, handik Frantziara heldu zen, eta bere familiarekin elkartu ahal izan zuen Azkainen (Uriarte, 1976: 82). Bertan egon ziren bizitzen bi urtez: 1937ko ekainetik 1939aren hasierara. EAJren diziplinapean erbesteratu zen Iparraldean (Egaña VIII: 946). Uriartetarrak Onaindiatarrak zeuden etxe berean egon ziren bizitzen Azkainen. Ez dakit, zehatz-mehatz, noiz bueltatu ziren Hego Euskal Herrira, ezta Markinara ere; dena den, badakigu 1939ko hasieran, Castor Uriarte Zamudion zegoela, Esperanza fabrika zuzentzen, eta 1939ko uztailaren bukaeran, Markinan. Arkitekto gisa, berak egindako lan batzuk dira: Lekeitioko Batzokia (1921), neovasco estilokoa, Larreako (Zornotza) López Jauregia (1926), neoklasikoa, eta Bermeoko Angelo Parodi-ren kontserba fabrika (1932) (Euskonews & Media, 2005, 290. zenbakia). Markinan La Esperanza fabrikaren eraikina egin zuen (1932 - 33), arrazionalista estilokoa, baita Mesedetako mojen komentua handitu eta frontoia estali ere. Hiru liburu idatzi zituen: *Bombas y mentiras sobre Guernica. Acusa su arquitecto municipal cuando la guerra* (Bilbo, 1976), *Estudio de Santa María de Guernica, sus altares e imágenes* (Bilbao, 1976) eta *Las iglesias-salón vascas del último período del gótico* (Vitoria, 1978).

Urrutia Esteibarlanda, Jose Anizeto (Apotzaga, 1880 – Leza, 1941): Apotzagan (Gipuzkoa) jaio zen, eta 1906an abadetu zen. Markinako eta Xemeingo parroko-artzapeza izan zen 1917tik 1936ra (Martínez, 2007: 59). Gerragatik atzerriratu egin zen, aurrenengo Frantzian, eta gero Belgikan (Lovainako abadian) eta, 1939an, Kanbora (Osuna Landetxean bizi izan zen). Lezako tuberkulosoen erietxean hil zen, 1941ean.

Zelaia Balentziaga, Maria (Xemein, 1913 – Ondarroa, 2005): Askurrinaga Goikoa (Xemein) baserrikoa. Gerra hasi zenean, Ondarroan zegoen bizitzen, bertako etxe batean neskame lanetan ari zelako. Frankisten tropak Ondarroan sartu zirenean (1936ko urriaren 4an, arrosarioko domeka), bere jaiotetxera, Askurrinagara, etorri zen, eta frankistak Xemeinen sartu aurretxoan, Frantziara hanka egin zuen, bere senargaiaren familiarekin batera. Frantzian egon zen bizitzen, Gerra Zibila bukatu zen arte. Frantzian egon zen denboran, taberna batean lan egiten zuen.

Zelaia-Garramiola familia: Manuel Zelaia Ituarte aita, kale garbitzailea zen, eta Xemeingo Beko-laba baserrian bizi zen, bere seme-alabekin batera: Maria, Luis, Pedro eta Andres Zelaia Garramiolarekin. Abertzaleak ziren, eta Francoren tropak sartu aurretik aitak eta seme-alabek ihes egin zuten. Ez dakit zenbat denbora egin zuten Markinatik kanpo. Dakiguna da 1937ko ekainean, hau da, frankistak sartu eta bi hilera, Xemeindik kanpo zeudela. Dena den, pentsatzen dugu denbora bat kanpoan egin ostean bueltatu zirela. Aipatzekoa da Andres Zelaia Garramiolak, 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuela 1938an.

Zelaia Kareaga, Maria Luisa (Xemein, 1879 - Markina-Xemein, 1961) eta bere alaba Purificación «Purita» Foruria Zelaia (Markina, 1904 – Markina-Xemein, 1985): Purita Foruria Modesto Foruria Gerrikabeitiaren (1878an jaioa) eta Maria Luisa Zelaia Kareagaren (1879 - 1961) alaba zen, eta Artibai kalean bizi ziren. Bere familia osoa bezala, EAJ-ko militantea zen. Horrez gain, Euskaltzale bazkunako eta Emakume Abertzale Batzako kidea ere bazen (Baraiazarra, 2009: 299). 1937ko apirilaren 26an, tropa frankistak herrian sartu aurreko egunean, Puritak, bere ama Maria Luisak, eta izeko Klara Arregik ihes egin

zuten kamioi batean Bilbora, eta gero Ipar Euskal Herrira joan ziren itsasontziz. Hirurak egon ziren errefuxiatuta Ipar Euskal Herrian, 1941. urtera arte. Lapurdiko Getarian egon ziren bizitzen, eta bertako Kurutzia hotelean lan egiten zuten. Maria Luisaren seme bat, Luis Foruria Zelaia (1912an jaioa, Markinan) boluntario joan zen frontera (Itsasalde batailoiko Boga-Boga konpainian borrokatu zuen), eta atxilotu ostean, hiru urte egin zituen kontzentrazio esparruetan, langileen batailoietan eta kartzelan.

Zuberogoitia Uribe, Jose Antonio (Berriatu, 1930 - Villeneuve du Pareage, Frantzia, 1991): gerra zela medio, Jose Antonio Zuberogoitia umea Munitibarren bizi zen bere familiarekin. Apirilaren 26an, Gernika eta Munitibar bonbardatu zituzten. Bonbardaketak sortu zuen egoera nahasian, Jose Antonio bide ondoan gelditu zen bakarrik eta zaurituta. Gurutze Gorrikoek Bilboko erietxera eraman zuten identifikatu gabe, eta, gero, umezurtza zelakoan, Belgikara, shock egoeran, berba egin ezinik baitzegoen. 1937tik 1942ra egon zen Belgikan familia batekin bizitzen. Bitartean, Markinan, pare bat urte pasatu eta gero, ume desagertua hildakotzat eman zuten, eta hileta elizkizuna egin zioten, Karmengo elizan. Hamaika urte zituela bueltatu zen Markinara, Pilar izeneko moja batek egin zuen ikerketari esker, nongoa zen asmatu zutenean (euskara galdu egin zuen, eta bakarrik berba eta irudi solteak gordetzen zituen buruan: Markina hitza, aitaren txapel gorria, bere txakurraren izena eta abar), eta soldaduska garaia heldu arte hemen bizi izan zen, Kanariar Irletan pilotan egin zituen hilabete batzuk kenduta. 1951n, Markinatik ihes egin zuen Frantziara, soldaduska ez egiteagatik. Frantziara eskapatzeko lehenengo saiakeran, mugan harrapatu zituzten, Jose Agustin «Tate», Jesus «Txirget» eta bera. Bigarrenean, Jose Agustinek eta berak mugalari batzuen laguntzaz zeharkatu zuten muga, baina Frantziara heldu zirenean, zeukaten dirua eta dokumentazioa lapurtu zizkioten mugalariek, eta bertan behera utzi zituzten. Nola edo hala, Jose Agustinen aita, Bernardo Aretxabaleta, erbesteratuta zegoen herriraino heltzea lortu zuten. Jose Antonio berbertan ezkondu zen, eta ez zen bueltatu Markinara 70. hamarkadara arte. Bere bizitza gehiena Frantzian egin zuen, eta bertan hil zen 1991n.

140 markinar eta xemeindar hauez gain, bi herri hauetan jaio edota gerra aurretik edo gerratean Markinarekin eta Xemeinekin harremana izan zuten beste batzuk ere erbesteratu ziren:

Abaitua Laka, Frantzisko (Markina, 1862 – Azpeitia, 1945): markinarra zen jaiotzez, eta 1897an abadetu zen. Markinako abade laguntzailea izan zen mende hasieran. Durangoko artzapeza 1918tik 1936ra arte (aurretik Mungiako parrokoa), frankistak Durango hartu aurretik Akizen (Frantzia) erbesteratu zen (Martínez, 2007: 62), eta bertan egon zen gutxienez 1939ra arte. Frantzisko Abaitua izan zen Aita Santuaren aurrean Durangoko bonbardaketa salatu zuten abadeetariko bat. Jon Irazabalek bere *1937 martxoak 31 Durango* liburuan dioen bezala, (Irazabal, 2001: 113): «Bandoen arabera, bonbardaketari buruzko bertsioak edo erreakzioak desberdinak izan ziren, eta benetan kontraesankorrak. Maiatzaren 11n, Euzkadi egunkariak, portadan, Ramon de Galbarriatu Bikario Nagusiak eta Durango, Gernika, Bilbo, Arbazegiko abadeekin batera Aita Beatuari igorritako gutuna argitaratu zuen. Gutun horretan, Bizkaiko hainbat herrik pairatutako bonbardaketei buruzko egia agertzen ahalegindu ziren. Durangoko kasuan, gutuna honakook sinatu zuten: Frantzisko Abaitua, Durangoko artzapeza, Joan de Mendive, Durangoko Santa Anako lagunkidea eta Pedro de Atucha, Abadiñoko abade ekonomoa. Gutun hartan adierazten da Durango, Gernika eta Arbazegiren suntsipena ez zela soldaduen gauza Salamancak adierazten zuen bezala, bonbardaketa bortitzen ondorioa baizik. Hilabete batzuk geroago, irailaren 1ean, Bilbo Franco jeneralaren tropen mende dagoela, Bikario Nagusia gutun bateratu hartatik desbinkulatu zen bere borondatearen aurka sinatu zuela adieraziz». 1939ko uztailaren 10ean, Frantzisko Abaitua Akizeko

(Dax) Seminario Nagusian zegoen. Handik Biarritzera etorri zen 1939aren bukaeran. Gero, Azpeitiara etorri zen, eta bertan hil zen 1945eko maiatzaren 15ean, 85 urte zituela.

Agirre Salaberria, Jose Maria (Etxebarria, 1919 – Palma de Mallorka, 2009): ikusi IV. eranskina.

Altuna, Keltse (Bilbo, 1928 – Markina-Xemein, 2011): Keltse Altuna Markinan bizi da 1958tik, baina jaiotzez bilbotarra zen, eta bertan bizi zen, Gerra Zibila hasi zenean. Habana itsasontzian ihes egin zuen Erresuma Batura, bere ahizpa Ibone eta Mirenekin batera, 1937ko maiatzaren 21ean (Arrien, 1991: 170). 1937ko maiatzean, euren etxea apurtuta gelditu zen, Bilboren aurkako bonbardaketa baten ondorioz, eta gurasoek hiru alaba gazteenak (Ibonek hamahiru urte, Mirenek hamaika eta Keltsek zortzi urte, bederatzi egiteko) Erresuma Batura bidaltzea erabaki zuten. Guztira, 1937ko maiatzaren 21ean, 3.861 ume euskaldun Santurtzitik Southampton (Ingalaterra) ingurura abiatu ziren *Habana* ontzian, hiru asteko egonaldia egitera. Egonaldi hura hamasei hilera luzatu zen Altuna ahizpentzat: 1938ko irailaren 13an bueltatu ziren Erresuma Batutik (Arrien, 1991: 170). Nerea Bedialaunetak Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzan adierazi bezala: «Altuna familia Bilboko Korreo kalean bizi zen, eta bonba bat jausi ostean, etxea suntsitu eta kalean geratu ziren. Hain egoera tamalgarrian, gurasoek ezin izan zituzten anai-arreba guztiak mantendu, eta hiru ahizpa txikienak errefuxiatu modura bidali zituzten. Keltse Altunak garai hartan zortzi urte zituen, eta bost eta hamalau urte bitarteko ehun eta hogei neskagaz batera egon zen White irlan. Nahiz eta familiaren hutsunea eduki zuen, oroitzapen politak gordetzen ditu. 'Egunero klaseak genituen, eta ahal genuen bakoitzean abestu eta dantzatu egiten genuen moja irlandarrekin'. 1938an, berriz, hamar urte zituela, Francok umeak bueltatzeko eskaria egin zuen, eta Altunatarrak suntsitutako Bilbora bueltatu ziren; Bigarren Mundu gerra ere heltzear zen. Hala eta guztiz ere, 400 bat lagunek Ingalaterran geratzea aukeratu zuten. Ez zuten nora bueltatu; kasu askotan, gurasoak hilda, preso edo desagertuta zituzten eta» (Bedialauneta, www.lea-artibaietamutriku.hitza.info).

Altuna, Libe (1916an jaioa Bilbon): Mesedetako moja, eta hainbat urtetan Bera Kruz Ikastolako irakaslea eta zuzendaria. Gerra aurretik, EABko kidea eta EAJ-ko militantea izan zen, eta hamaika mitinetan parte hartu zuen. 19 urte zituen gerra hasi zenean. 1937ko maiatzean, bere gurasoen etxea apurtuta gelditu zen, Bilboren aurkako bonbardaketen ondorioz. Bilbo jausi aurretxoan, 1937ko ekainean, Santanderrera ihes egin zuen, eta handik Donibane Garazira joan zen ume errefuxiatuen talde batekin, irakasle laguntzaile gisa. Hil batzuk hemen egin ostean, 1937ko abuztuaren 10ean, Bruselara abiatu zen, Donibane Garaziko koloniako 67 ume errefuxiaturekin (Alonso Carballés, 1998: 207 eta 283). 1938aren bukaerara arte egon zen erbesteratuta Bruselan (Arrien, 1983: 169-170). Gerraondoan, Berrizko Mesedetako mojen ordenan sartu, eta bi tokitan izan zen irakasle: 1945ean etorri zen lehen aldiz Markinako Bera-Kruz komentura, baina gero joan egin zen Otxarkoagara. 70. hamarkadan, berriro bueltatu zen Markina-Xemeinera, eta urte pila egin zituen gure herrian. Euskarazko irakaskuntza bultzatu zuen Bera-Kruz Ikastolan, eta lan asko egin zuen umeen artean euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarrera sustatzen (http://www.euskomedia.org/aunamendi/).

Cazalis Areitio, Gregorio (1886an jaioa, Xemeinen): Ikusi IV. eranskina.

Carnicero, Frantsizko: Ikusi IV. eranskina.

Iturriotz Iztueta, Patxi (Ordizia, 1900 – Ordizia, 1972 - 1973): Ikusi IV. eranskina.

Meabe Bilbao, Santiago (Bilbo, 1878 – Bilbo, 1961): Tomas Meabe politikari sozialistaren anaia zen. Bere anaiari oso lotua egon zen, nahiz eta, momentu batzuetan, alderdi politiko desberdinetan aritu ziren. Komertzio ikasketak egin zituen, eta, bere anaiarekin batera, Sabino Arana Goiriren lehen jarraitzaileetarikoa izan zen. Euskal aldizkari nazionalistetako idazle izan zen, baita zuzendaria ere. 1901etik 1903ra, *La Patria* astekari abertzalea zuzendu zuen, eta 1906an, *Aberri* aldizkaria. Aldizkari honetan, Geyme (Gora Euskadi y muera España) goitizena erabiltzen zuen, eta Sabino Aranaren jarraitzaile sutsu gisa agertzen

zen. ELAko kidea ere izan zen, baina utzi egin zuen, konfesionala zelako. EAE-ANV-n ere sartu zen, sortu zenean, alderdi nazionalista eta sozialista zelako, baina, geroago, hau ere utzi egin zuen. Errepublika garaian, sozialisten inguruan zebilen. Horregatik, hain zuzen ere, 1934ko greba bultzatzen aritu zen Markinako Barrutian, eta atxilotu eta kartzelan sartu zuten. Errepublika garaian, Ondarroan denboraldi luzeak egiten zituen, eta gerra hasi eta bi egunera, 1936ko uztailaren hogeian, Markinako Barrutirako Bizkaiko Gobernadore Zibilaren Delegatu izendatu zuten; baita Markinako eta Ondarroako Errepublikaren Aldeko Batzordeko lehendakaria ere (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007: 144, http://www.euskomedia.org/aunamendi eta Camino, 1985: 89). Markinako barrutian frontea antolatzeko eta ordena publikoa zaintzeko ardura eman zioten. Hasieran, Ondarroan bizi zen, baina Ondarroa frankisten eskuetan jausi zenean (1936ko urriaren 4an), Markinara etorri zen. Inguruko sozialistekin eta Izquierda Republicanako kideekin elkartu zen, faxistei aurre egiteko helburuarekin. 1936ko urrira arte, Markinako Errepublikaren Aldeko Batzordearen Arduradun nagusia izan zen, eta 1937ko apirilaren 27ra arte, Markinako Barrutirako Bizkaiko Gobernadore Zibilaren Delegatu. Frankistak herrian sartu aurretxoan, Bilbora ihes egin zuen, eta Bilbo jausi zenean, Santarretik zehar Frantziara, eta handik Kataluniara. «Katalunian, Indalecio Prieto Defentsa Nazionalerako ministroaren bitartez, Gironako Angles herrian jarri zen M.P.-3 arma-fabrikako administrazio-buru lan egitea tokatu zitzaion Meaberi, eta horretan jarraitu zuen harik eta 1938ko Gabonetan nazionalek hasi zuten erasoaldiak, berriz ere, Frantziara bultzatu zuten arte. 1939ko otsailaren 4an izan zen hori eta horretarako hartu zuen bidea Figueresetik La Jonquerara doana izan zen» (Goiogana, 2010: 75). Frantzian, Calvadosko Bayeux-ko suprefetak Arromanches-les Basins-en kokatu ziren 2.000 iheslarien ardura eman zion. Dena dela, Frantziako agintariek Arromanches-etik bota egin zuten, «alemanek Arromanches-ko eremua Mantxako kanalean kokatuta zegoenez eremu militar arriskutsutzat hartu zutelako… Orduan hasi zen Meaberen gurutzebidea Frantziako iparraldean batetik bestera, harik eta Sees-era heldu zen arte» (Goioagana, 2010: 75). Urte gogorrak izaren haiek Santiagorentzat: diru eta etxebizitza duinak lortzeko arazoak, bakardadea… Bigarren Mundu Gerra bukatu zenean, Baionara etorri zen bizitzera, eta handik Bilbora. Bilbon zendu zen, 1961eko urriaren 25ean (Camino, 1985: 90, Goiogana, 2010: 73-76 eta http://www.euskomedia.org/aunamendi)

Olaeta Mugartegi, Segundo (Gernika, 1896 – Miarritze, 1971): Gernikako musika-bandako zuzendaria (1920). Elai-Alai dantza-taldea, Euskal Herriko lehen talde koreografikoa, sortu zuen (1926), baita Oldarra dantza-taldea ere (1936). Euskaltzalea eta abertzalea izanik, Donibane Garazin errefuxiatu zen 1937an. Bertan egon zen bizitzen sei bat urtez. 1943an, Castor Uriartek, Esperanza fabrikako gerente-zuzendariak, Markinara ekarri zuen, eta fabrikako eskolako arduradun egin zuen. Biak gernikarrak izanik, aspalditik elkar ezagutzen zuten. Fabrikako eskolan klaseak emateaz gain, Segundo Olaetak hainbat ekimen kultural bultzatu zituen Markinan. Besteak beste, Artibai musika banda eratu zuen 1943an, eta desagertu zen arte, 1947an, zuzendu zuen. Segundo Olaeta 1950. urtera arte egon zen bizitzen Markinan, eta gero Bilbora joan zen. Beraz, zazpi urte egin zituen Markinan. Garaian aldizkarian irakurri daitekeen bezala: «En Markina, Segundo Olaeta no hizo muchos años, pero en el tiempo que le tuvimos como vecino (residió en la calle Guen kalea, alojado en la casa de Juli Zulueta, la 'taquillera') su vena artística no se apagó, todo lo contrario, se integró rápidamente en la sociedad markinesa (daba clases de solfeo, enseñaba a bailar las danzas vascas, colaboraba activamente en la Cabalgata de los Reyes Magos…) y logró que muchos jóvenes markineses se movilizaran e integraran en torno a un proyecto artístico que llevaba la denominación «Artibay» y que fructificó con la creación de una Banda de Música que hizo su debut la víspera de Santa Eufemia del año 1943…» (Garaian, 1996-19: 35).

Uralde Espilla, Matias (Aulestin jaioa 1933an): Alonso Carballés-en *1937. Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica* liburuaren arabera, lau urteko Matias Uralde Espilla

umea Frantziako Berck-Plage herrira eraman zuten 1937an (Alonso Carballés, 1998: 3. eranskina). Liburu honetan esaten da Matias markinarra zela, baina, nire ikerketen arabera, Aulestiarra zen (Malax auzoko Artiz baserrikoa). Ziur aski, Markinan zegoen odol ospitalera ekarriko zuten gaixorik zegoelako, eta handik Gorlizeko ospitalera eramango zuten. Horregatik agertzen da paperetan markinar gisa. Eusko Jaurlaritzako Artxiboaren arabera, Matias Uralde Espilla umea gaixorik zegoen Gorlizko Eritegian 1937an, eta bertatik Sanatorium Boutllier-era (Frantzia) eraman zuten, eta hemendik Sanatorium Vincent Berck sur Mer-era (Frantzia) (Osasun Saila, 1937 - 1940, medikuen txostenak / 1937 -1938 / GE-0794-01). Bere arreba Trinidadek dionaren arabera, Matias oso gaixorik egon zen, hiltzeko zorian, baina sendatu egin zen, eta 19 urte zituela, 1952an, Idahora joan zen lanera, eta, gaur egun ere bertan bizi da.

IV. ERANSKINA: ESPETXEAN EDO KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN SARTU ZITUZTEN EZKERTIARRAK, ABERTZALEAK ETA ERREPUBLIKAZALEAK[9]

Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde (Markina 1916 -): bere familia osoa bezala, abertzalea zen: EAJ-ko militantea eta Emakume Abertzale Batzako kidea zen hamahiru urte zituenetik. 1936an, Esperanza fabrikan lan egiten zuen. Gerra Zibila hasi zenean, Esperanza Errepublikako Gobernuaren menpe gelditu zen, eta 1936ko azaroaren 13an, fabrika Zamudiora eta zati bat Bilbora eraman zuten. Markinako beste asko bezala, Kasilde ere fabrikarekin batera joan zen Zamudiora. Bertan atxilotu zuten 1938ko maiatzaren 27an, eta Bilboko Orue Txaletean (Begoña auzoan) frankistek emakumeentzako eraiki zuten kartzelan sartu zuten. Epaiketa militarra egin zioten 1938ko irailaren 3an, eta sententzia irailaren 23an atera zen: sei hilabete eta egun bateko espetxe zigorra jarri zioten, 1938ko urtarrilaren 7an erregimen frankistaren aurka txarto hitz egiten aritzeagatik (Ferrol, 15.631-38 kausa). Gauez kartzelan lo egiten zuen, eta jatorduak ere bertan egiten zituen, baina egunean zehar bulego batzuk garbitzera behartzen zuten. Lan hori egiteagatik ez zuen ezer kobratzen. Sei hil eta egun bat aritu zen bulegoak garbitzen, eta gero aske utzi zuten. 1938ko gabonetan etorri zen Markinara. Esperanza Markinara bueltatu zen, baina Kasilde ez zuten fabrikan hartu 1942 urtera arte. Fabrika militarren agintepean zegoen, eta bera epaile militar batek epaitua zegoen (Aransolo eta Barinagarrementeria, 2008: 12-15).

Aginaga Ugalde, Benito «Mendaro» (Mendaro, 1874 - 1937): Ikusi V. eranskina.

Aginaga Ugarteburu, Jose Andres «Buru-biribil» (Markina, 1874 – Markina, 1938): frankistak herrian sartu zirenean, atxilotu, eta Markinako kartzelan sartu zuten, EAJren antolaketari buruz informazioa lortzeko helburuarekin: Francoren Asaltoko Guardiek Batzokiko eta EAJko buruzagiak nortzuk ziren jakin nahi zuten. Kartzelan biluztu egin zuten, eta jo, baina berak ez zuen izenik eman. Kartzelan egun gutxi egin zituen, baina bertan bizi izan zituen une latzen ondorioz, handik gutxira hil zen (1938). Jose Andres zapataria zen. Bere tailerra Okerra kalean zegoen. Joxepa Martina Angela Barinagarrementeria Arakistainekin (1874 - 1961) ezkonduta zegoen. EAJ-ko militanteak ziren, eta euren alaba Kasilde ere kartzelan sartu zuten, abertzalea izateagatik. Jose Andresen errainari, Maria Luisa Belaustegiri, ilea moztu zioten, kartzelan eduki zuten aste bat, nahiz eta haurdun zegoen, eta solda-

[9] Kartzelan egon zirenen informazio bi artxibotatik lortu dut, batez ere: Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste, Ferrol (Airmn), Bilbao funtsatik eta Archivo General de la Administración (AGA), Alcala de Henares, artxibotik. Laburbildu asmoz, lehenengo artxiboa Airmn akronimoarekin agertuko dut eta bigarrena AGArekin.

duen, asaltoko guardien eta guardia zibilen arropak eta hauek bizi ziren etxe eta kuartelak garbitzera behartu zuten.

Aldazabal Eizagirre, Nemesio (Xemein, 1901 - Markina-Xemein, 1988): Nemesio Aldazabal Eizagirrek Saltos del río Ondarroa enpresan lan egiten zuen gerra aurretik, eta Azpiltzan bizi zen bere emaztearekin eta bi semeekin (Jose Migel eta Iñaki). Bere anaia Pedro bezala, Markinako Batzorde Sozialistako kidea zen, eta gerratean Xemeingo bigarren alkate ordeko izan zen. Francoren tropak sartu aurretik, 1937ko apirilaren 27aren bueltan, ihes egin zuen Bilbora, bere andrearekin eta bi semeekin, eta handik Balmasedara. Beraiekin batera ihes egin zuten bere lankide eta lagun zen Jose Domingo Balentziagak, honen emazteak eta seme Pedrok. Balmasedan denboraldi batez egon ziren bizitzen, baina, 1937ko ekainaren 29an, frankistak Balmasedan sartu ziren, eta, handik lasterrera, Nemesio atxilotu egin zuten. Beste guztiak Xemeinera bueltatu ziren, 1937ko uztailean. Nemesioren familia Azpiltzako etxera bueltatu zenean etxe guztia hankaz gora aurkitu zuten, eta balioko gauza guztiak lapurtuta, baita etxeko oilo guztiak ere. Nemesiori, epaiketa militarra egin zioten 1937an, eta, ostean, Santoñako kartzelan sartu zuten 34 hilabetez. 1940ko urtarrilean atera zen kartzelatik. Dena den, hil bat aske egon ostean, berriro atxilotu zuten otsailean, eta Eskolapioetako kartzelan sartu zuten, beste hil batez. Beste epaiketa bat egin zioten otsailaren 7an, baina aske gelditu zen, 1940ko martxoaren 11n (Ferrol, 10.438 kausa). Etxera bueltatu zenean, ezin izan zuen Saltos del río Ondarroa enpresan lanean segitu, eta Goikoetxea enpresan hasi zen lanean.

Aliende, Kasimiro: Guardia Zibil erretiratua zen. Errepublikaren Aldeko Batzordeetan parte hartu zuen; hain justu ere, Isunen Batzordeko kidea izan zen. Ideologia ezkertiarra zuen. Francoren tropak Markinan sartu zirenean, atxilotu, eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, Gasteizko kartzelara eraman zuten. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelara. Hilabete batzuk kartzelan egin ostean, desterratu egin zuten Markinatik. Martin Laka Mandiola, Bitoriano Ugarte, Jesusa Urreta, Migel Larrinaga, honen emazte Teresa Gisasola Salegi eta beste batzuekin batera atxilotu zuten (guztira hamabi bat pertsona), eta hauekin batera eraman zuten Gasteizera. Kasimiroren hiru seme joan ziren gerrara, eta hauetariko bik hainbat denbora egin behar izan zuten langileen batailoietan eta kontzentrazio eremuetan.

Apoita Ibaibarriaga, Benito «Aita Pacifico»: fraide pasiotarra. Gerratean Euzko Gudarosteko kapilaua izan zen (Egaña, 2000: 44). Santoñan atxilotu zuten, 1937ko abuztuaren amaieran, eta Dueso kartzelan egon zen (Espetxean 1937 - 1942, 1998: 162). 1937ko irailaren 9an epaiketa egin zioten, eta libre utzi zuten (Ferrol, 5-4112 txostena). Bere anaia Joanek Itsasalde batailoian borrokatu zuen.

Arakistain Urriolabeitia, Hilarion «Zestero» (Markina, 1898 – Markina, 1950): Abertzalea zen. Euzko Nekazari Bazkunako buruetariko bat, Markinan eta Xemeinen. 1937ko ekainean, Bilbo inguruko Burdinazko Gerrikoa apurtu eta Derio frankisten eskuetan jausi zenean, Hilarion Zamudion zegoen lanean Esperanza fabrikan, eta berbertan atxilotu zuten, 1937ko uztailetik irailera bitartean. San Antongo zubipean frankistek egin zuten kartzelan sartu zuten, eta bertan egon zen hilabete bat inguru. 1937ko irailean edo urrian etxean zegoen.

Arakistain Maguregi, Jose Maria «Zestero» (Markina, 1922 – Markina-Xemein, 2011): Hilarion Arakistainen seme zaharrena zen. Maiatzaren hasieran, Hilarion Arakistainen emaztea, Magdalena Maguregi, atxilotzen saiatu ziren herriko errekete batzuk. Alabaina, amak erreketei esan zien bera eramaten bazuten bere zortzi seme-alabak ere eraman beharko zituztela berarekin (txikienak hilak zituen). Amaren ordez, hamalau urte zituen seme zaharrena, Jose Mari, atxilotuta eraman zuten Markinako kartzelara. 10-12 egun egin zituen Markinako kartzelan Gilermo Barroetabeña Bollar (Txinpas) eta Katxo okinarekin (Viktor Barinagarrementeria) batera, eta gero aske utzi zuten.

Aretxabaleta Arriola, Hilario (Markina, 1888 - Derio, 1937): ikusi IV. eranskina.

Aretxabaleta Arriola, Txomin «Txomin Zapaterue» (Markina, 1889 – Markina-Xemein, 1960): Hilario eta Bernardo Aretxabaletaren anaia. Zapataria zen. Gerratean, Markinako udal fiskal ordezkoa izendatu zuten (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: 1936062 - 09/12/1936). Frankistak sartu aurretxoan, Bilbora hanka egin zuen, bere anaia Hilariorekin batera, eta Bilbotik Cantabriara. Dena dela, ekainaren bigarren hamabostaldian, bueltatu egin ziren biak, eta atxilotu egin zituzten. Markinako Kartzelan sartu, eta gero Bilboko Larrinaga kartzelara eraman zituzten. Epaiketa militarra egin zioten Bilbon, 1937ko uztailaren 9an, Hilario Aretxabaleta, Inazio Ugarteburu eta Benito Muñozekin batera. Bere aurkako sententziak zera dio: «Domingo Arechavaleta estaba de aprovisionamiento de gasolina, además de ser un elemento destacado del Batzoki fue del equipo de obras de atrincheramientos». Hilariori, Domingori eta Inaziori heriotza sententzia eman zioten matxinada militarra salaketapean, baina, uztailaren 13an, Inazioren eta Domingoren kasuak berrikusi zituen epaileak, eta biei heriotza sententzia kendu eta betirako kartzela zigorra jarri zieten (Airmn, 140-1944 txostena). Domingo San Kristobal gotorlekuan (Iruñea) sartu zuten 1937ko irailaren 1ean, 48 urte zituela, eta 1942ko irailaren 22an, Duesoko (Santoña, Kantabria) kartzelara eraman zuten. Guztira, sei urte eta erdi egin zituen kartzelan.

Aretxabaleta Aizpurua, Anjel (1890ean jaioa Begoñan): Aretxabaleta familia Barakaldotik etorri zen Markinara, aitak, Anjelek, Goiko Boluko okindegian lana bilatu zuelako. Erdiko kalean bizi ziren. Anjel Markinako Batzorde errepublikarreko eta UGT-ko kidea izan zen Errepublikako urteetan. Gerratean, Errepublikaren Defentsarako Batzordean parte hartu zuen. Gerra hasi zenean, Markinako alkateak, Jose Luis Gaitan de Aialak, hanka egin zuen, eta Udal Batzorde berria sortu zen, 1936ko azaroaren 26an. Anjelek Herri Frontea ordezkatu zuen Udal Batzorde berrian, 1936ko azaroaren 26tik 1937ko apirilaren 27ra. Errepublikaren Aldeko Batzordeetan ere parte hartu zuen. Francoren aldeko tropak sartu zirenean, Anjel Aretxabaletak alde egin zuen bere andrearekin (Damiana Izaola Abendaño) eta alabarekin (Esperanza Aretxabaleta Izaola). Emazteak eta alabak Frantziara ihes egitea lortu zuten, eta bertan errefuxiatu ziren. Aita, Anjel Aretxabaleta, 1937ko abuztuaren 25ean atxilotu zuten, itsasoz Santanderretik Frantziara ihes egiten ari zela, eta kartzelan sartu zuten. Anjelek eta Damianak bi seme zituzten boluntario Errepublikaren aldeko armadan (Joan eta Rikardo). Biak atxilotu zituzten, eta langileen batailoietan sartu. Anjel 1939ko bukaeran atera zen kartzelatik, baina denbora bat aske egon ostean, berriro atxilotu zuten otsailean. Beste epaiketa bat egin zioten, eta urtarrilaren 3an atera zen sententzia: hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra (Ferrol, 10.695-39 kausa). Kartzelan hainbat urte egin ostean, Anjelek bere buruaz beste egin zuen.

Arizmendiarrieta Madariaga, Jose Maria (Markina, 1915 – Arrasate, 1976): Barinagako Iturbe baserrikoa. Abadegaia zen gerra hasi zenean. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Jose Maria 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara (Molina, 2005: 141-142). Sei hilabetez kazetari lanak egin zituen Eguna egunkariarentzako, Arretzinaga izenordea erabiliz. Franco Bilbon sartu zenean, 1937ko ekainaren 19an, Frantziara ihes egiten saiatu zen, baina, azkenean, Markinara bueltatu zen. Dena den, Bilbora eraman zuen taxilari markinarrak jarritako salaketa bat medio, Bilbon atxilotu zuten, 1937ko uztailaren hasieran, eta Larrinagako kartzelan sartu zuten, abuztuaren 2ra arte. Epaiketan, Garikano Goñi fiskalak heriotza sententzia eskatu zuen beretzat, baina absoluzioa lortu zuen, erakutsi zuenean adinagatik joan behar izan zuela gerrara eta ez boluntario; eta, soldadu giza, egunkaritik kobratu beharrean, bera destinatua zegoen kuarteletik kobratzen zuela. Burgoseko bulego militar batera bidali zuten soldaduska egitera, Artilleria Arineko 11. Erregimentura. Abadetzarako ikasketak 1940an bukatu zituen, eta 1941eko urtarrilaren 1ean eman zuen bere lehen meza, Markinan. Arrasatera bidali zuten, eta bertako Joan Bataiatzailearen parrokian

aritu zen 35 urtez, abade laguntzaile lanetan. Bere meritu azpimarragarriena izan zen Arrasateko kooperatiben mugimendua (Gipuzkoa) sortzea. 1999ko bukaeran, Jose Maria Ormaetxea, Alfontso Gorroñogoitia eta beste batzuk Jose Mariari buruzko informazioa biltzen eta elkarrizketak egiten hasi ziren. Informazio hau ikusi ondoren, 2006an, Santuen Gairako Kongregazioak *nihil ostat* (oztoporik ez) delakoa eman zuen; alegia, beato izateko elizaren partetik ez dagoela oztoporik adierazi zuen. Orain, Santuen Gairako Kongregazioak erabaki behar du Arizmendiarrieta santu bihurtuko den edo ez. Urteak beharko dira erabakiaren berri jakiteko. Kontuan izan, beato izateko milagro bat behar dela eta santu izateko bi (Juaristi, 2010: 43).

Arrate Egibar, Teodoro (1897an jaioa, Xemeinen): markinarra zen jaiotzez, Abesua kalean jaiotakoa, baina Gernikan bizi zen. Bere gurasoak Nemesio eta Josefa ziren. Gernikako parrokiako sakristaua izan zen Errepublikako urteetan eta gerratean. 1938ko maiatzean atxilotu, eta Santoñako kartzelan sartu zuten. 1938ko irailaren 5ean, Bilboko Eskolapioetan zegoen kartzelara ekarri zuten. Epaiketa militarra egin zioten, 1939ko azaroaren 14an, eta matxinada militarra salaketapean, sei urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri zioten. 1940ko urriaren 12an atera zen kartzelatik, behin-behineko askatasunarekin (AGA eta Airmn, 10.161/39 txostena).

Arrate Egibar, Viktoriano (1908an jaioa, Markinan): Artibai kalean bizi zen, eta ideologia abertzalea zuen. Bere gurasoak Nemesio eta Josefa ziren. Errepublikaren Defentsa Batzordeko kidea izan zen. Francoren tropak sartu zirenean, Zamudion zegoen, Esperanza fabrikan lan egiten. Esperanza fabrikarekin bueltatu zen Markinara 1939ko abuztuan. 1940an atxilotu zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, Bilboko kartzelan sartu zuten. 1940ko abuztuaren 10ean atera zen kartzelatik (Airmn, 11.373/40 txostena).

Arrate Egia, Evaristo «Txorixa» (Xemein, 1906 – Markina-Xemein, 1963): Txorixa baserrian (Xemein) bizi zen, eta abertzalea zen. Francoren tropak Xemeinen sartu aurretxoan, ihes egin zuen Bilbora, eta denboraldi batez Burdinazko Gerrikoan lan egiten aritu zen boluntario (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 548). Gero, Xemeinera bueltatu zen. 1939an, atxilotu egin zuten, eta kartzelan sartu. Epaiketa militarra egin ostean, urte bat egin behar izan zuen Gasteizko kartzelan. 1940ko abuztuaren 10ean libre gelditu zen. Jose Mari Azpirirekin (Lopetxa baserrikoa) batera egon zen kartzelan.

Arrate Egia, Joan «Txorixa» (1903 - 1976): Laredo inguruan atxilotu zuten, eta bertako hondartzan irekitako kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan. Informazio batzuen arabera, hiru alditan kartzelaratu zuten. Ideologia errepublikazalea zuen.

Arrate Elordi, Agustin (Xemein, 1886 – Xemein, 1947): xemeindarra zen, eta Artibai kaleko 22an bizi zen. Bere gurasoak Pedro eta Erramona ziren. Izquierda Republicanako kidea zen. Gerra hasi zenean, frankisten erasoaldia gelditzeko, trintxerak egiten eta frontea antolatzen parte hartu zuen, beste ezkertiar batzuekin batera. Francoren tropak sartu aurretxoan, Bilbo ingurura ihes egin zuen, baina 1937ko abenduaren 12an, atxilotu egin zuten, eta Larrinagako kartzelan sartu (Badiola, 2011: 180). Epaiketa militarra 1938ko maiatzaren 9an egin zioten, eta «matxinada militarrean» parte hartzea eta «matxinada sustatzea» leporatu. Sei urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri zioten. 1940ko uztailaren 14an atera zen kartzelatik (behin-behineko askatasuna). Kartzelan egon zen garaian (1939ko otsailean), bortxazko lanetara eraman zuten Portugaletera (AGA eta Airmn, 2786-37 txostena).

Arriaga Arrillaga, Jose Maria «Pitis» (Markina, 1909 – Markina-Xemein, 1975): Salutregi baserrian (Markina) jaio zen, baina, gerra hasi zenean, Ziortza-Bolibarren bizi zen. Bizartegi bat zuen Ziortza-Bolibarren, eta Eugenia Olabe Etxebarriarekin zegoen ezkonduta. Francoren tropak sartu aurretxoan, ihes egin zuen, eta zapadore lanetan aritu zen Errepublikaren alde (ziur aski, Bilboko Burdinazko Gerrikoa sendotzen). Laredon atxilotu ostean, Aranda de Duerora eraman zuten, eta handik Burgoseko kartzelara. Burgoseko kartzelan

zegoela, epaiketa militarra egin zioten, eta «matxinada militarra» salaketapean, hainbat urtetako kartzela zigorra jarri. 1938ko abuztuaren 7an, Bilbora ekarri zuten. Eskolapioetan eduki zuten, eta bertan bat egin zuen bere lehengusu Erramun Arriaga Gandiagarekin «Armola» (Ziortza-Bolibar, 1906 – Ziortza-Bolibar, 1968). 1940ko urtarrilaren 12an, bere kasua berrikusi zuten: kartzelatik atera, eta langileen batailoi batean sartu zuten, 1940ko urtarrilaren 24an. Lehenengo Deustuko Deposituen Konpainiara bidali zuten, eta handik Huesca ingurura, langileen batailoi batera. Langileen batailoian egon zen 1940ko abuztuaren 28ra arte (AGA eta Airmn, 17.695-38 txostena).

Arriaga Galdos, Remijia (1891n jaioa): Jose Olalde Lakaren (1874an jaioa) emaztea zen. Barinagako Urrondo baserrian bizi ziren eta abertzaleak ziren. Remijia Markinako kartzelan egon zen denbora batez, eta isuna ordaindu ostean atera zen.

Arriaga Lejardi, Enrike «Kurutzebarri» (1904 - 1986): Francoren tropak sartu osteko egunetan, 1937ko maiatzaren hasieran, Benito Aginaga, Alberto Urbieta, Martin Laka, Bitoriano Ugarte, honen emazte Jesusa Urreta, Migel Larrinaga, honen emazte Teresa Gisasola Salegi, Basilio Bollar, Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpas» eta beste batzuekin batera atxilotu zuten (guztira hamabi bat pertsona), eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, Gasteizko kartzelara eraman zituzten guztiak. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelan sartu zituzten guztiak. 1.000 pezetatako isuna ordaindu behar izan zuen kartzelatik ateratzeko, eta bederatzi hiletan desterratuta bizi behar izan zuen Iruñean. Iruñean egon zen bitartean, bizartegi batean lan egiten zuen. Bere emazteak bi umerekin gelditu behar izan zuen etxean.

Arroitajauregi Totorikaguena, Erramona (Markina, 1904 – Markina-Xemein, 1988): Anastasio Barrentxea «Txirget» (Markina, 1891 – Markina-Xemein, 1973), bere emaztea Erramona Arroitajauregi Totorikaguena eta hauen lau seme-alabak (Jesus, Karmelo, Leon, zazpi urtekoa, eta Miren, lau urtekoa) Txori-bentan, Abesua kalean, bizi ziren, gerra hasi zenean. Anastasio EAJ-ko militantea zen. Markinako Fronteak iraun zuen zazpi hiletan, Anastasio asko inplikatu zen Errepublikaren aldeko eta frankisten aurkako borrokan. Errepublikaren aldeko hainbat batzordetan parte hartu zuen. Frankistak herrian sartu aurretxoan, 1937ko apirilaren 27an, Bilbora ihes egin zuen bere familiarekin. Bilbo jausi aurretik (1937ko ekainaren 19an), Anastasiok Santoñara ihes egin zuen, eta handik Frantziara. Hain zuzen ere, Akizen egon zen errefuxiatuta, Tomas Duralde, Bernardo Aretxabaleta eta Juan Martin Garaterekin batera. Venezueletara joatea pentsatu zuen, baina 1941. urtean, Hego Euskal Herrira bueltatu zen. Dena dela, frankistek ez zioten utzi zuzenean Markinara bueltatzen, eta Bilbon egon behar izan zuen sei bat hilabetez. Bilbotik etorri zenean, astean bi aldiz, astelehenetan eta ostegunetan, joan behar izaten zuen Guardia Zibilengana sinatzera. Anastasiok Bilbotik hanka egin zuenean, 1937ko ekainean, bere emazte Erramona eta bere semealaba Leon eta Miren Markinara bueltatu ziren, gauzak lasaiago zeudela pentsatuta. Bi seme nagusienak, Jesus eta Karmelo, Bilbon gelditu ziren bizitzen, senide batzuen etxean. Erramona eta bere seme-alaba gazteenak euren senide batzuen baserrira etorri ziren, Zuluetara, eta, gero, Zehar kaleko Euzko-Etxeara joan ziren. Izan ere, Euzko-Etxea kooperatibako bazkideak ziren. Markinara etorri zirenean, Leon umea herriko eskolara eraman zuten, baina, 1938ko azaroan edo abenduan, Urkieta alkateak eskolatik atera, eta debekatu egin zion berriro eskolara bueltatzea, ihes egindako abertzale baten semea zelako. Handik gutxira, 1939ko urtarrilean, Erramona atxilotu, eta Markinako kartzelan sartu zuten, sei bat hilabetez. Kartzelan sartzeko arrazoia izan zen bere senarrak Frantziatik bidalitako eskutitz batean Euzko Etxeari buruz hitz egiten ziola. Etxe hori bahituta zuten frankistek, abertzaleen ekimenez kooperatiba gisa egin zelako, eta etxe horren bazkideak nortzuk ziren jakin nahi zuten FET-JONS-eko kideek. Alegia, bazkideen izenak jakiteagatik sartu zuten Erramona kartzelan. Kontuan izan, gerraondoan eskutitz guztiek zentsura pasatzen zutela, eta susmagarriak zirenen edo ihes eginda eta preso zeudenen eskutitzak irakurtzen zituztela. Erramona

kartzelan sartu ostean, alaba gazteena, Miren, Elorriora bidali zuten izeko batengana, eta etxean Leon semea gelditu zen bakarrik. Leonek zortzi urte zituen, eta egunero gosaria, bazkaria eta afaria eramaten zizkion bere amari kartzelara. Zortzi urte zituela, Leonek lapikoa jartzen ikasi behar izan zuen, eta lehen jaunartzea ere bakarrik egin behar izan zuen. Kartzelako arduradun Teodoro Onaindi-Zaharra zegoen, eta hark asko lagundu zion Leoni. Kartzelatik atera ostean, Erramona Urberuagako bainuetxea garbitzera eraman zuten.

Arroitajauregi Totorikaguena, Julia (Markinan jaioa eta Elorrion hila): Bolunbarri baserrian jaio zen, eta bertan bizi zen gerratean. Julia, bere koinata Jesusa Zabala eta bere izeko Erramona Totorikaguena atxilotu egin zituzten, eta Markinako kartzelan sartu. Ez nago ziur baina pentsatzen dut 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zituztela, Markinako, Xemeingo, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako 19 pertsonarekin batera. Etxekoek diotenaren arabera, Juliak hiru egun egin zituen kartzelan. Frankistak herrian sartu ostean, debekatu egin zuten etxetik kanpo elkarrekin berba egitea. Juliak eta bere koinata Jesusa Zabalak berba gutxi batzuk egin zituzten Klementinarekin eta Klara Korta ahizpekin, Bolunbarri baserriaren inguruan, eta, markinar batek salatu ostean, kartzelan sartu zituzten guztiak. Garai hartan, jende asko eraman zuten Zabala etxeko komandantziara, arau hori ez betetzeagatik, eta batzuk kartzelan ere sartu zituzten.

Azkarate, Julian (Karioka): Eibartarra zen jaiotzez, baina Markinan bizi zen. Ideologia ezkertiarra zuen. Katxo okinarekin lan egiten zuen. Frontea geratuta egon zen hiletan, parte hartze zuzena izan zuen frontearen antolaketan. Atxilotu egin zuten, baina ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Azkue Goia, Ignazio (Markina, 1884 – Markina-Xemein, 1968): Burdindegia eta txokolategia zituen Erdiko kaleko 14. zenbakian. Bere emaztea Joana Bilbao Arejita zen. Lehenengo Acción Republicana alderdiko kidea izan zen, eta gero, 1934an, PSOEra pasatu zen. 1931ko udal hauteskundeetan, errepublikarren eta PSOE-koen zinegotzi bihurtu zen Markinako Udal Batzordean. PSOE, errepublikarrak eta EAE-ANV elkarrekin aurkeztu ziren 1931ko udal hauteskundeetara, eta Ignaziok Markinako zinegotzi postua lortu zuen, ezkerreko botoei esker. Gerratean, Markinako udal epaile ordezkoa izan zen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua: 1936062 - 09/12/1936). Bilbora ihes egin zuen Francoren tropak herrian sartu aurretxoan, eta Bilbon atxilotu zuten 1937ko abuztuan. Upo Mendi itsasontzi espetxean egon zen atxilotuta (Badiola, 2011: 265). Epaiketa militarra egin zioten, eta irailaren 14an sententzia atera zen: hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra. Bilbotik Puerto de Santa Mariako (Cadiz) kartzelara eraman zuten, eta bertan egon zen preso, 1940ra arte. Epaiketa Etxebarriko Domingo Zelaia Bastidarekin batera egin zioten (Ferrol, 852. txostena).

Azpiri Aldazabal, Jose Mari (Xemein, 1905 – Markina-Xemein, 1989): Lopetxea baserrian (Xemein) bizi zen, eta etxeko guztiak bezala, abertzalea zen. Frankistak Xemeinen sartu aurretxoan, ihes egin zuen Bilbora, eta Burdinazko Gerrikoan lan egiten aritu zen boluntario (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 550). Gero, Xemeinera bueltatu zen (nire ustez, gerra bukatu ostean). Frankistak atxilotu egin zuten, eta kartzelan sartu. Epaiketa egin ostean, urte bat inguru, 1939tik 1940ra, egin behar izan zuen Gasteizko kartzelan. Evaristo Arraterekin «Txorixa» batera egon zen kartzelan. Jose Mariren bi arreba, Anjelita (Xemein, 1911 - Markina-Xemein, 2003) eta Ines (Xemein, 1913 - Markina-Xemein, 1987), Frantzian erbesteratu behar izan ziren 1937tik 1938ra, eta 1941. urtera arte ez zioten utzi Markinara etortzen. Bere anaia Gurutz kartzelan sartu zuten Deustuko Unibertsitatean, eta bere arreba Joanitari (Xemein 1907 – Ermua, 2000) gizona fusilatu zioten Zumarragan (Iurrebaso, 2011: 222-224).

Azpiri Aldazabal, Gurutz (Xemein, 1909 – Markina-Xemein, 1990): Lopetxea baserrian (Xemein) bizi zen, eta etxeko guztiak bezala, abertzalea zen. Pentsatzen dut boluntario joan zela Errepublikaren alde borrokatzera. Atxilotu ostean, Deustuko Unibertsitatean egon

zen preso urte bat inguru, 1937tik 1938ra. Carmelo Saenz de Santa Mariak dioen bezala, (1978): «Desde 1937 hasta 1940 la Universidad de Deusto, reducida prácticamente a sus paredes maestras, sirvió de 'campo de concentración de prisioneros y entregados'; mitad cárcel, mitad hospital, mitad centro de distribución. 'Se calcula –dice la Memoria académica del curso 1941 - 1942- que desfilaron por la Universidad unos 189.000 prisioneros de guerra, llegando a estar simultaneamente hasta 8.000'». Deustuko Unibertsitatean urte bat preso egon ostean, Francok bere alde borrokatzera eraman zuen 1938an. Valladoliden egon zen Farnesioko 10. Ehiztarien Erregimentuan.

Azpiri, Toribio (Eibarren jaioa, Xemeinen hil zen): Xemeinen bizi zen, Azpiltzako tabernan, apopilo. Postari lanak egiten zituen Errepublika garaian. Horrez gain, Urberuagako bainuetxeko dendatxoa eramaten zuen uda garaian. Toribiok ekainaren 15etik irailaren 30era zabaltzen zuen denda, bainuetxea hil horietan zabaltzen zelako. Denda horretan, orraziak, kolonia eta drogeriako produktuak saltzen zizkieten bainuetxeko udatiarrei. Toribiok ideologia sozialista zuen. Atxilotu ostean, epaiketa militarra egin zioten, eta urte asko egin behar izan zituen kartzelan. Gaixorik etorri zen kartzelatik, eta, hil zen arte, pertsona gaixoa izan omen zen.

Balentziaga Arakistain, Antonia (1904an jaioa): ikusi IX. eranskina.

Barinagarrementeria, Viktor (Katxo okina) (Etxebarria, 1894 – Markina-Xemein, 1962): Okindegi bat zuen Artibai kalean, eta abertzalea zen. Francoren tropak Markina eta Xemein hartu zituztenean, atxilotu egin zuten, eta Markinako kartzelan sartu. Berarekin batera egon ziren kartzelan Jose Maria Arakistain Maguregi (Markinan jaioa, 1923an) eta Gilermo Barroetabeña Bollar (Txinpas). Egun batzuk egin zituen kartzelan, eta isuna ordaindu ostean libre utzi zuten.

Barrenetxea Artamendi, Jose Mari «Txirget» (Markina, 1908 – Xemein, 1982): ikusi XI. eranskina.

Barroetabeña Bollar, Gilermo «Txinpas» (Markina, 1895 – Markina, 1947): «Jose Calvoren» semea. Pregoilaria. Ideologia abertzalea zuen. Francoren tropak sartu aurretik ihes egin zuen (ziur aski 1937ko apirilaren 26an). Egun batzuk ihesean ibili ostean, bueltatu egin zen, eta maiatzaren hasieran atxilotu zuten. Bi herriotako hamaika pertsonarekin batera hartu zuten preso, eta Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Gasteizera eraman zituzten guztiak. Markinako kartzelan Jose Maria Arakistain Maguregirekin (Markinan jaioa 1922an) eta Viktor Barinagarrementeriarekin (Katxo Okina) egon zen ziega berean. Goiko-Portaletik kamioi batean eraman zituzten Gasteizera Alberto Urbieta, Enrike Arrillaga «Kurutzebarri», Jesus Egia, Bitoriano Ugarte eta honen andrea, Jesusa Urreta, Basilio Bollar, Martin Laka eta beste batzuk. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelan sartu zituzten guztiak. Goiko-Portalean kamioira sartzera zihoazela Txinpas-ek esan ei zien atxilotuta zeramatzaten soldaduei: «¿qué, nos llevais de paseo?», eta ukabilkada bat eman ostean sartu zuten kamioira. Ez dakit zenbat denbora egon zen Gasteizko kartzelan, baina pentsatzen dugu hil bat egin zuela. Ziur aski isuna ordainduko zuen kartzelatik ateratzeko.

Batiz Bilbao, Bizente - Aita Nikolas Jesusena (Gerrikaitz, 1907 - Gasteiz, 1995): Fraide karmeldarra. Arbatzegi-Gerrikaitzen jaio zen, baina 1915ean Xemeinen zegoen bizitzen, Landaburu baserrian. Bere ume aroa Markinan eta Xemeinen igaro ostean, 1923an, karmeldarren abitua hartu zuen. Gero, 1972tik 1974ra ere Markina-Xemeingo karmeldarren komentuan bizi izan zen. Bere adinagatik, gerrara joan behar izan zuen (ez boluntario), eta Errepublikako armadaren kapilau bihurtu zen, teniente mailarekin (Baraiazarra, 2007-4: 33-35 eta Martínez, 2007: 66). Gerra Zibila amaitzean, preso hartu zuten beste kapilau batzuekin batera, eta Begoñako karmeldarren komentuan sartu zuten uztailaren 17an. Epaiketa militarra egin zioten 1937ko uztailaren 30rean, eta fiskalak heriotza sententzia eskatu zuen, abertzale sutsua eta gudarien kapilau izateagatik, teniente mailarekin. Dena den, abuztuaren

15ean atera zen sententzian, 30 urteko kartzela zigorra jarri zioten (Publicaciones Documentales del Clero Vasco, Bigarren bolumena, 177 eta Martínez, 2007: 52 eta 66). Karmel aldizkarian irakurri daitekeen bezala (Baraiazarra, 2007-4: 34): «gerra piztu zan, eta berari zegokion txandakoekin batera deitua izanik eta ez boluntario legez, Errepublikako armadaren kapilau sartu zan. Gerra Zibila amaitzean preso hartu eben beste kapilau batzuekin batera. Gerra-auzitegian bizi guztiko kondena emon eutsien aurrenengo eta gero 16 urtera jaitsi kartzelaldia. *Karmel* aldizkari honetan Jose Sotero Urionaguenaren (Aita Rafael) biografia eta bere eskuz idatziriko gerrateko dokumentua argitaratu genduanean, hau esaten zan haregaz batera kartzelatuak izan ziran karmeldarrei buruz: 'Abuztuaren 2an sinatu zuen epaia Tribunalak: Heriotza zigorra A. Leonentzat; 16 urteko kartzela A. Bautista, A. Lino, A. Rafael eta A. Nikolasentzat (Bizente Batiz); hamabi urte eta egun bat A. Sebastianentzat; hamar urteko kartzela A. Anjelentzat; eta zortzi urtekoa A. Jose Domingo eta A. Luziorentzat. Bestalde, A. Santi 1937.09.09an agertu zen gerrako epaitegian eta 30 urteko betiko kartzelaz zigortu zuten'. Kondena arintzea eta kartzelaz kanpo bete beharreko zigorra dala-eta hau esaten zan idazki horretan: '1940.01.26ko BOEn argitaratutako Presidentziaren aginduz eta ondorengo xehapenetan zehazturik, preso haien errugabetasuna bermatzen zuten pertsona garrantzitsuen adierazpenak bilduz, sei urte eta egun batera jaitsi zieten espetxealdia eta erdia betea zutenez, beste erdia atzerrian, hau da, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo, egindako lan pastoralarekin kitatu ahal izateko aukera eman zieten. Bautista Korellara (Nafarroa) bidali zuten, A. Luzio Nafarroako Alesbesera, A. Santi, A. Lino eta A. Rafael Santanderko Hoz de Aneroko Basamortura, A. Anjel, A. Nikolas [Bizente Batiz] eta A. Sebastian Soto-Iruzera, hau ere Santanderren eta A. José Domingo Santander hiriburuko komentura'.1972an Markina-Xemeingo komentura bidali eben. Lau urte, 1976ra arte, bizi izan zan hemen. Ustez, zoriontsu. Izan be, komunidade euskaldunean eta euskal giroan pozik bizi zan. Bera jaiotzez gerrikaiztarra izan arren, umetan hemen bizi izan zan eta hemen zituan txikitako lagunak. Bai, sustraiak hemen zituan eta oroimen harrigarrikoa izanik, umetako gorabeherak eta hemengo gauzak oroimenean ondo gordeta zituan».

Belaustegi Galdos, Maria Luisa (Mutriku, 1903 – Markina-Xemein, 1990): ikusi IX. eranskina.

Bollar Salazar, Basilio (Lekeitio, 1895 – Markina-Xemein): Ideologia abertzalea zuen. 1937ko apirilaren azkenetan edo maiatzaren hasieran, Basilio Bollar, Enrike Arriaga «Kurutzebarri», Kasimiro Allende, Alberto Urbieta, Martin Laka, Bitoriano Ugarte, honen emazte Jesusa Urreta, Migel Larrinaga, honen emazte Teresa Gisasola Salegi, Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpas» eta beste batzuk atxilotu (guztira 11-12 bat pertsona), eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, Teresa Gisasola askatu egin zuten, eta beste guztiak Gasteizera eraman zituzten, kamioi batean. Goiko Portalean sartu zituzten kamioira. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zen kartzelan sartu zituzten. Basilio Bollar justu hil bat egon zen kartzelan, eta askatu ostean, bortxazko lanetan jarri zuten Markinan, herria garbitzen edota gauzak konpontzen. Zabala etxean zegoen komandantzia ere zaintzen zuen astean behin. Denbora bat Markinan eginda, badaezpada, Lekeitiora joan zen bizitzera, andrea eta umeak hemen utzita.

Cazalis Areitio, Rikardo «Cazalis Mayor» (Xemein, 1892 – Argelés, Frantzia, 1939): ikusi V. eranskina.

Cazalis Areitio, Segundo «Cazalis Menor» (Xemein, 1894 – La Habana, 1959): Rikardo, Joan eta Patxi Cazalis Areitioren anaia. 1909an bihurtu zen pilotari profesional, eta gerra hasi zen arte, Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen. 1918tik 1922ra, 1923tik 1926ra eta 1927. urtean, La Habanako (Kuba) Jai-Alai pilotatokian (Garrasien jauregian izenarekin ezaguna) jokatu zuen. Gerrak Madrilen pilotan jokatzen zegoela harrapatu zuen. Errepublikaren alde borrokatu zuen, eta gerra bukatu zenean, Frantzian errefuxiatu zen. Frantzian, bere anaia Joan eta Patxi aurkitu zituen atxilotu zuten hondartzan. Bere emazteak

eta alabak Bizkaira etorri ziren gerra hasi zenean. 1937ko ekainean, Bizkaia frankisten eskuetan jausi aurretxoan, Bartzelonara joan ziren, eta gero, Kataluniako frontea jausi zenean, Frantziara ihes egin zuten, bere koinata Mikaela Ibarrolazarekin batera. Bere seme Segundo Cazalis Goenaga badirudi lehenengo boluntario aritu zela Errepublikaren alde borrokatzen Katalunian, eta gero Frantziara ihes egin zuela. Familia osoa Frantzian elkartu zen, eta 1939ko uztailean, La Habanara joan ziren bizitzera (Cuadrillero, 2009: 390). Segundo Cazalis Goenaga izan zen Fidel Castrori lehen elkarrizketa egin zion kazetaria, komandantea Sierra Maestran zegoela, 1958an. Gero *Cuba Ahora* liburua idatzi zuen, baita *Los hijos de gernika* (1968) dokumentala zuzendu ere.

Cazalis Areitio, Joan: Markinako eta Xemeingo Batzorde Sozialistaren buruzagietariko bat zen, eta gerratean, Errepublikaren aldeko Herri Batzordeetan parte hartu zuen. Bizkaia jausi zenean, Bartzelonara ihes egin zuen, eta Bartzelona jausi zenean, Frantziara. Frantzian kontzentratu zuten hondartzan, bere anaia Segundo eta Patxi aurkitu zituen. Ez dakit zenbat denbora egin zuen atzerrian, baina badakigu 1939an Parisen zegoela (Onaindia, 1980: 456).

Cazalis Areitio, Patxi «Patxiko Lentes» (Xemein, 1904 - Markina-Xemein, 1982): Alderdi Sozialistako militantea zen, bere anaiak eta lehengusuak bezala. Gerrako lehen hiletan milizianoentzako eta gudarientzako janaria, arropak, abereak, autoak… bahitzen aritu zen. 1936ko irailean, Francoren tropak laster sartuko zirela pentsatuz, Bartzelonara hanka egin zuen bere andregaiarekin (Mikaela Ibarrolazarekin), eta bertako frentean aritu zen borrokan, Francok Katalunia bereganatu zuen arte. 1939an, Frantziara ihes egin zuen, eta Gurseko kontzentrazio eremuan egon zen 1939an zehar. 1940an, Espainiara estraditatu zuten. Miranda de Ebroko kontzentrazio eremura eraman zuten, eta epaitu ostean, heriotza sententzia eman zioten. Dena den, 1941ean, Markinara bueltatu zen libre**.**

Cazalis Areitio, Gregorio (1886an jaioa, Xemeinen): markinarra jaiotzez, Ermuan bizi zen. Armagilea. Alargunduta zegoen, eta bere familiako guztiek bezala, ideologia sozialista zuen. Frankistak Ermuan sartu aurretxoan ihes egin zuen. Kantabrian atxilotu zuten 1937ko abuztuaren azkenetan, eta Duesoko kartzelan sartu (Espetxean 1937 - 1942, 1998: 169). 1937ko azaroan epaiketa militarra egin zioten, eta, «matxinada militarra» salaketapean, bizi osorako kartzela zigorra jarri, 1937ko azaroaren 22an. 1938ko abuztuaren 6an, Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten, eta 1940ko uztailaren 22an, libre gelditu zen (AGA eta Ferrol 1187-37 txostena).

Cazalis Goenaga, Segundo (La Habana, 1924 – Venezuela, 2000): ikusi XI. eranskina.

Cazalis Sarasua, Manuel (1887 -): Alderdi Sozialistako kidea zen. Gerratean Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean eta Isunen Azpibatzordean parte hartu zuen. Gerra piztu zenean, Jose Luis Gaitan de Aiala alkateak ihes egin zuen, eta, azaroan, EAJ-ko eta Herri Fronteko kideez osatutako Udal Batzordea sortu zen. Herri Fronteak hiru zinegotzi zituen batzorde horretan, eta horietariko bat Manuel Cazalis Sarasua zen. Honegatik guztiagatik, atxilotu egin zuten Bilbon, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Uste dut Duesoko (Santoña, Kantabria) kartzelan egon zela. Epaiketan 30 urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri zioten. Gutxienez kartzelan egon zen 1940. urtera arte.

Cazalis Sarasua, Jose (Markinan jaioa, 1896an eta Santa Ursulan (Tenerife) zendua): Manuel Cazalis-en anaia. 1917tik 1936ra, pilotaria izan zen Cazalis III.a izenarekin, eta Madrilen, Bartzelonan, Cienfuegosen (Kuba) eta La Habanan (Kuba) jokatu zuen. Izquierda Republicanako kidea zen 1933tik, eta Errepublikaren Aldeko Batzordeetan parte hartu zuen gerratean. Francoren tropak sartu aurretik ihes egin zuen, baina atxilotu egin zuten, eta kartzelan sartu. Hain zuzen ere, 1937ko azaroan sartu zuten Larrinagako kartzelan. 1938ko maiatzean, epaiketa militarra egin zioten, eta hil horren 24an sententzia atera zen: matxinada salaketapean, hiru urteko kartzela zigorra jarri zioten. La Habanan pilotaria izan zen garaian ezagutu zuen bere emazte Paulina Amalia Santiago y García. 1928an etorri ziren

Kubatik Markinara. 1925ean jaio zen euren alaba Olga Teresa Cazaliz Santiago. Amalia Santiagori ilea moztu zioten zerora. Manuel bezala, Jose Cazalis Sarasua ere kartzelan sartu zuten, eta, ondorioz, etxeko enpresa zarratu egin zen (AGA; Ferrol, 11.612/38 txostena, eta Badiola, 2011: 181).

Duralde Kerejeta, Gregorio (Markina, 1895 – Gernika, 1975): Tomas Duralde Kerejetaren (1891 - 1963) anaia. Bere anaia bezala, uhalgilea, zapataria eta autobus gidaria zen. Olabarri baserriko (Larruskain) Rufina Olabarriarekin zegoen ezkonduta. Gregorio EAJ-ko militantea zen. Gerratean, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuen. Markinako udal fiskala ere izan zen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua: 1936062 - 09/12/1936). Francoren tropak sartu aurretik, ihes egin zuen, baina gero bueltatu egin zen. Nire ustez, Bilbora hanka egin zuen, eta, beste asko bezala, Bilbo jausi ostean, etxera bueltatu zen. Asaltoko guardiek atxilotu egin zuten ekainaren amaieran edo uztailaren hasieran, bere ortuan lanean zegoela, eta, laster bueltatuko zela esanez, eraman zuten, Zabala jauregian zegoen komandantzia militarrera. Markinako kartzelan sartu zuten, 42 urte zituela. Preso zegoela, bere emazteak, Rufina Olabarria Zenarrutzabeitiak, euskaraz idatzita zegoen errezatzeko liburu bat eraman zion. Familiakoek uste dute koltxoi bat ere eraman ziotela, behearen gainean lo egiten zuelako. Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Bilboko Larrinagako kartzelara eraman zuten. 1937ko uztailaren 24an, epaiketa egin zioten Bilbon, eta «matxinada militarra» salaketapean, 30 urteko kartzela zigorra jarri. 1937ko irailaren 16an, Iruñeako San Kristobal kartzelara eraman zuten. Ia bi urte eta erdi kartzela honetan egin ostean, Larrinagako kartzelara ekarri zuten, 1940ko urtarrilean. 1940ko urtarrilaren 28an, bere kasua berrikusi zuten epaiketan, eta 30 urteko kartzela zigorra lau urteko kartzela zigorrarekin aldatu zioten (Iturria AGA: Archivo General de Administración. Alcala de Henares, Secretaría de Justicia, Registro Central de Penados, 1938 - 1958). 1940ko uztailaren 14an aske utzi zuten. Guztira, beraz, hiru urte eta hiru hilabete egin zituen kartzelan. Gerraostean, berak eta bere anaiak zeuzkaten negozio guztiak galdu zituzten. Euren autobusaz eta «Ford» markako autoaz ez dakite zer gertatu zen, baina Wiped markako autoa Gernikan ikusi zuten behin. Autoa ezagutu zuten, eta bazekiten norena zen ere, baina pasatutakoak pasatu ostean, ez ziren ezer egitera ausartu.

Egia Torrealdai, Jesus (1907, Durango – 1978, Durango): 1934an etorri zen Markinara, maisu lanak egitera. 1937ko maiatzaren hasieran atxilotu zuten herriko beste hamaika pertsonarekin batera, eta Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Gasteizera eraman zituzten guztiak, kamioi batean sartuta; besteak beste, Alberto Urbieta, Martin Laka, Enrike Arrillaga «Kurutzebarri», Txinpas, Bitoriano Ugarte eta bere emaztea, Jesusa, Basilio Bollar, Migel Bolu eta beste batzuk. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelan sartu zituzten guztiak. Hil bat egin zuen kartzelan, eta isuna ordaindu ostean atera zen, 1937ko ekainaren erdi inguruan. Kartzelan egon ostean, denboraldi batez ez zioten utzi klaseak ematen. Izan ere, 1937ko uztailaren bederatzian, «Comisión de Cultura y Enseñanza de la Junta Técnica Del Estado»-ko Bizkaiko delegatuak, Jose Antonio Amann-ek, gerra aurretik Bizkaian lanean aritu ziren irakasle guztiak euren postuetatik bota zituen, eta berriro lan egiteko, 20 eguneko epean, erregimen berriaren alde zeudela adierazten zuten txostenak aurkeztera behartu zituen irakasleak. 1937ko abenduaren 22an, aipatutako «Comisión de Cultura y Enseñanza de la Junta Técnica Del Estado»-ko Bizkaiko Delegazioak berari buruzko informazio moral, erlijioso, politiko eta profesionala eskatu zion Markinako Udalari, baita gerran izan zuen partehartzeari buruzko informazioa ere, eta 1938ko otsailaren 7an klaseak emateko baimena lortu zuen.

Egizabal Martínez, Agustin «Agustin Politxe» (Markina, 1905 – Markina-Xemein, 1974): ikusi XI. eranskina.

Espilla Ugartetxea, Markos (Markina, 1876 – Markina-Xemein, 1966): Abadea. Markinako abade laguntzailea, gerra piztu zenean. Frankistek kartzelan sartu zuten 1937.

urteko maiatzaren lehen egunean. Kartzelan sartzearen arrazoia izan zen euskaltzalea zela, predikua euskaraz ematen zuela eta, militarren ustez, «¡Viva Rusia!» esan zuela. Lehenengo San Jose babes-etxean zabaldu zen kartzelan (Donostia) egon zen atxilotuta, gero Gasteizera eraman zuten, hain justu ere, karmeldarren komentura, eta maiatzaren azkenetan, Ondarretako kartzelan sartu zuten. Maiatzaren 22an, Gasteizko karmeldarren komentuan zegoen atxilotuta, eta bere ziega berean A. Abelino, A. Martin, Markinako Karmengo komentuko priorea, Felix Bustindui, Berriatuko abadea, Aita Jose Domingo, karmeldarra, eta Domingo Ugartetxea, Bolibarko parrokoa, sartu zituzten (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11 eta Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182 eta Unzueta, 1997). Itxura denez, 1937ko maiatzaren 1ean, euskaraz eman zuen sermoia, Mesedetako elizan, eta, meza ostean, Eduardo Gortazar kapitainak (Uhagon etxeko jabearen, Maria Dolores Prado Uhagonen, senarra) eta mezatan egon ziren soldadu errekete batzuk berarekin eztabaidatzen hasi ziren, predikua euskaraz egin zuelako, eta toki publikoetan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoelako. Eztabaidaren baitan, Don Markosek errugabeak badira, errusiarrak hiltzea txarto zegoela esan ei zuen. Honen guztiaren ondorioz, Eduardo Gortazarrek Don Markos atxilotzeko eskatu zuen (Bidasoa, 2005: 233 eta Gallego eta Pazos, 2003: 386). Hiru kartzelatan egon ostean, epaiketa militarra egin zioten 1937ko abuztuaren 22an. Epaiketan libre atera zen. Beraz, ia lau hilabete egin zituen kartzelan (Ferrol 748-37 kausa). Atxilotuta egon ostean, Xemeingo parrokiako abade laguntzaile kargutik kendu zuten, eta 1937ko irailetik 1947ra arte Olarteko (Orozko) mesedetako mojen kapilau izan zen. 1947an, Markinara bueltatu, eta bertan hil zen 1966an, 90 urte zituela.

Etxaniz Laka, Inazio «Olazar» (Xemeinen jaioa 1899an): Olazar baserrian bizi zen, gerra hasi zenean. Ideologia abertzalea zuen, eta Bigarren Errepublikako urteetan, Xemeingo zinegotzia izan zen. Bere emaztea Feliziana Barruetabeña Basterretxea zen. Erreketeak 1936ko urriaren 4an heldu ziren Larruskain eta Amallo erreka ingurura, eta frontea hor gelditu zen mugitu gabe, 1937ko apirilaren 27ra arte. 1936ko urriaren 4tik aurrera, Amallo erreka ingurua su biren tartean gelditu zen, eta Olazar baserria hustera behartu zuten milizianoek. Hil bat inguru su biren artean egin ostean, azaroaren hasieran, Olazar etxekoak Ziortza-Bolibarrera joan ziren bizitzera, Karmelo Bustinduiren etxera, bustinduitarrak Olazarkoen ahaideak baitziren. Olazarko ardiak eta behiak Ziortza inguruko larreetara eraman zituzten, eta, frontea gelditua egon zen hiletan, han aritu ziren lanean. 1937ko apirilaren 26an, bi herriotako hainbat abertzale eta ezkertiarrek bezala, Inaziok ihes egin zuen Eusebio Sololuzerekin batera, erreketeen beldurrez. Kontuan izan Markinako Frontea apurtzen ari zela, eta, ondorioz, Errepublikaren aldeko soldaduak ere ihesean zebiltzala. Munitibartik zehar, Gernikara heldu ziren eta, bonbardaketaren ostean, Gernika erretzen ikusi zuten. 1937ko maiatzean zehar, Foru (gau bat), Fruiz (3-4 egun) eta Zamudio (15 bat egun) inguruko hainbat baserritan egon ziren bizitzen. Handik Bilbora heldu ziren, eta kuartel militarretik pasatu ostean, zapadore lanetan hasi ziren Errepublikaren alde. Besteak beste, trintxerak egiten aritu ziren Artxanda inguruan. Burdinazko Gerrikoa jausi aurretxoan (1937ko ekainaren 19an) Bilbotik ihes egin zuten, eta ordutik aurrera, Eusebio eta Inazio, hamaika lekutan ibili ziren, zapadore lanetan: besteak beste, Balmasedan, Karrantzan edota Riaño inguruan. Handik Santanderrera joan ziren eta berbertan atxilotu zituzten, abuztuaren azkenetan. Sardineron egon ziren lehenengo, etagero Santanderreko zezen plazan sartu zituzten, milaka soldadu errepublikarrekin batera. Lau egunetan ez zieten jateko ezer eman. 1937ko abuztuaren 31n, itsasontzi batera eraman, eta egun batzuk bertan egin ostean, Santoñan lurreratu zituzten. Duesoko kartzelan sartu zituzten preso. Eusebiok 16 urte zituen orduan, 17 urte gabonetan egiteko, eta adingabea zenez, etxera bidali zuten, 1937. urteko azkenetan. Inazio kartzelan sartu zuten.

Etxebarrieta Belaustegi, Doroteo (Munitibar, 1908 – Markina-Xemein,): Izquierda Republicanako kidea. Antorontxu baserrian (Meabe) bizi zen. Frankistak Markinan sartu

aurretxoan, Bilbora ihes egin zuen, beste markinar eta xemeindar askok bezala. Ziur aski frankistak sartu aurreko egunean ihes egingo zuen, 1937ko apirilaren 26an. Hil batzuk etxetik kanpora egin ostean, Bilbon bertan atxilotu zuten frankistek Bilbo hartu zutenean, 1937ko ekainaren 19an, erregimen frankistaren aurkaria zela akusaziopean. Deustuko Unibertsitatean sartu zuten lehenengo, eta bertan egon zen atxilotuta bi hilabetez. 1937ko abuztuan, San Pedro de Cardeña-ra (Burgos) eraman zuten, eta bertan hamar egunez eduki. Handik Miranda de Ebrora, eta gero San Joan de Mozarrifar-era. Hemen aste bat egin zuen, hain zuzen ere, Langileen 22. batailoia osatu zen arte. 1937ko irailean, Zaragozara eraman zuten, Sierra de Alcubierrera. Bere batailoia hamar hilabetez egon zen toki honetan trintxerak egiten. Gero, Teruelera eraman zituzten, eta Alfambra ibaian zubi bat egiten lan egin zuten. Hemendik Sarrion herrira, eta, ostean, Sarrioneko mendietara. Frankistak aurrera egiten zihoazen neurrian, Doroteo eta bera bezalako atxilotuek trintxerak eta bideak egiten lan egiten zuten palaz eta pikatxoiez. Gandesako, Bateako, Corbeko, Rubielos de Morako, Mora de Rubieloseko eta beste hainbat tokitako fronteetan egon zen lanean. Hemendik Castellon de la Plana-ra eraman zuten, bide bat eraikitzera. Berriro Teruelera ekarri zuten, eta hemendik Viver-era, eta gero, 1939ko martxoan, Guadalajarara. Guadalajarara heldu eta egun batzuetara jakin zuten gerra bukatu zela. Berriro Viver-era eraman, eta bideak konpontzen jarri zituzten, 1939ko abuztuaren 5era arte. Egun horretan utzi zuten aske. Dena den, lau egunen barruan, Markina-Xemeingo Guardia Zibilen kuartelean aurkezteko agindua zuen. Hiru urtetan, hilero aurkeztu behar izan zuen Guardia Zibilen kuartelean, erregimen frankistarentzako pertsona arriskutsua zela sakalaketapean. Bere txostena 1939ko otsailaren 23an berrikusi zuen epaileak, eta kasua behin-behinean bertan behera uztea erabaki zuen. Dena den, 1939ko otsailaren 23tik abuztuaren 5era arte, langileen batailoietan jarraitu behar izan zuen. Doroteok, guztira, bi urte eta bi hilabete egin zituen atxilotuta edo langileen batailoietan: 1937ko ekainaren 19tik 1939ko abuztuaren 5era (Airmn, 11672-38 txostena).

Foruria Arregi, Prudentzio (Markina, 1918 – Markina-Xemein, 1998): Guen kalean bizi ziren, Patxuaren alboko etxean. Bere aita Prudencio Foruria zen eta ama Klara Arregi «Klara Foruria». Aitak gozotegi bat zuen Erdiko Kalean eta amak elikagai denda Guen kalean. Bere anaia Tiburtzio Foruria Arregi (Markinan jaioa 1915ean) pilotaria izan zen, eta gerratean Tanger-en (Moroko) egon zen jokatzen (Bilbao, 2009: 168). Beste bi anaiek, Lauren Foruriak eta Domingo Foruriak Euzko Gudarostean borrokatu zuten, eta hainbat urte egin behar izan zituzten kartzelan eta langileen batailoietan. Prudentzioren amak, Klara Arregik, bere izekok, Maria Luisa Zelaiak, eta bere lehengusina batek, Purita Foruriak, ihes egin zuten apirilaren 26an, tropa frankistak herrian sartu aurreko egunean. Hirurak egon ziren errefuxiatuta Lapurdiko Getarian, 1941. urtera arte. Prudentzio 1937ko ekainaren 30rean atxilotu zuten, eta Gasteizko Kartzela Probintzialean sartu, «matxinada» salaketapean (Ferrol, 757/37 txostena). Epaiketa egin zioten 1937ko urriaren 8an, eta sei urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri. Gasteizko Kartzelan egon zen 1938ko azaroaren 13ra arte (502 egun), eta gero Iruñako (Langraiz Oka) kartzelara eraman zuten, 1940ko ekainaren 23ra arte (urte bat, zazpi hil eta hamaika egun egin zituen hemen). Denboraldi bat kalean egin ostean, soldaduskara joan behar izan zuen, eta Soldadu Langileen 30. Diziplina Batailoian sartu zuten, 1941eko irailaren 10ean. Bertan egon zen 1941eko abenduaren 12ra arte. Hemendik Soldadu Langileen 93. Diziplina Batailoira bidali zuten, 1942ko ekainaren 15era arte, eta gero Soldadu Langileen 29. Diziplina Batailoira, 1942ko irailaren 21era arte. Hemendik Soldadu Langileen 28. Diziplina Batailoian ibili zen, 1942ko abenduaren 19ra arte, eta gero Infanteriako 55. Erregimentuan sartu zuten Ourensen. Soldadu Langileen Diziplina Batailoietan egon zen denboran, Peñaranda de Brocamonten (Salamanca) eta Mahonen (Menorca) egon zen, besteak beste. Markinara bueltatu ostean, astero joan behar izaten zuen Guardia Zibilengana sinatzera.

Foruria Zelaia, Luis (Markina, 1912 - Sala de los Infantes, 1977): EAJ-ko militantea. Batzokiko lehendakaria Errepublika garaian, Francoren diktadura urteetan ere erantzukizun

politikoak izan zituen klandestinitatean. Boluntario joan zen frontera, Errepublikaren alde borrokatzera, eta Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 158). Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon. Atxilotuta egon ostean, San Pedro de Cardeñako kontzentrazio eremuan egon zen. 1937ko uztailean langileen 3. batailoira eraman zuten. 1937ko abuztuan, Madrileko Espetxe Probintzialean (Porlier-eko espetxea) sartu zuten. Joan García Delgado, langileen 3. batailoiko kapitain buruak txosten batean zioen bezala, kartzelan sartu zuten: «…para depurar su actuación durante la dominación roja». 1940ko martxoaren 3an utzi zuten libre. Dena den, handik aurrera hamabostero joan behar izaten zuen Guardia Zibilengana sinatzera, eta Markinan bizitzera beharturik zegoen. Guztira, beraz, ia hiru urte egin zituen kontzentrazio eremuan, langileen batailoian eta kartzelan (iturria: familiak emandako dokumentuak).

Garate Ibarzabal, Lorenzo (1880 - 1954): Xemeingo Osolo-Etxebarri (Meabe) baserrian bizi zen, eta Isabel Zabala Elurekin zegoen ezkonduta. Xemeingo Udal Batzordeko lehen alkate ordeko izan zen gerratean. 1937ko irailean atxilotu zuten Xemeinen, eta Markinako kartzelan sartu. Hemen egun batzuk egin zituen, eta gero Larrinagako kartzelan, Begoñako Karmeloko Komentuko kartzelan eta Upo Mendi itsasontzian egon zen. Epaiketa militarra egin zioten 1937ko irailaren 22an, eta hamabi urte eta egun bateko espetxe zigorra jarri zioten «matxinadari laguntzea» salaketapean (Ferrol 1093/37 txostena). Ostean, Puerto de Santa Mariako kartzelara bidali zuten (Kadiz) eta han hil batzuk egin ostean, Sevillako kartzelara. Berarekin batera egon zen kartzelan Pako Duralde, Tomas Duralderen semea. Lau urte, egun batzuk gutxiago, egin zituen kartzelan. Bere alaba Dolores Garate Zabalak (1917an jaioa) Frantziara ihes egin zuen 1937ko apirilaren 26an, urte beteko ume bat besoetan zuela, Francoren tropen beldur. Frantzian bat egin zuen aurretik ihes egina zegoen bere senarrarekin, eta gero Argentinara ihes egin zuten. Gaur egun ere Dolores hantxe bertan bizi da. Beste alabaren, Mariaren, senargaia fusilatu egin zuten.

Garate Larruskain, Jose Cruz (Markina, 1889 – Xemein, 1953): Erdotzan jaio zen, baina Iruzubietan bizi zen. 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zuten, Markinako eta Ziortza-Bolibarko beste pertsona askorekin batera (19 bat guztira), eta Markinako kartzelan sartu zuten. 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isun bat ordaindu ostean. 500 pezetatako edo 750 pezetatako isuna ordaindu behar izan zuen. Bere seme Jose Garate Albizu egunero hiru aldiz joaten zen bizikletan, gosaria, bazkaria eta afaria eramatera. Atxilotu zituzten guztiak isuna ordaindu arte, ez zioten inori utzi kartzelatik ateratzen.

Garate Zubillaga, Rosario (1887 - 1967): ikusi IX. eranskina.

Garetxana Uriguen, Manuel (1868an jaioa, Ziortza-Bolibarren): gerra piztu zenean, Markinako alkateak, Jose Luis Gaitan de Aialak, ihes egin zuen, eta 1936ko azaroan, EAJ-ko eta Herri Fronteko kideez osatutako Udal Batzordea sortu zen. Herri Fronteak hiru zinegotzi zituen batzorde horretan, eta EAJ-k alkatea eta bost zinegotzi. Horietariko zinegotzi bat Manuel izan zen, eta horregatik atxilotu zuten, eta kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Gisasola Salegi, Teresa (1896 – Markina-Xemein, 1986): frankistak herrian sartu osteko egunetan atxilotu zuten bere senarrarekin batera, eta Markinako kartzelan sartu zituzten biak, Markinako beste hamar bat pertsonarekin batera. Teresa haurdun zegoen, eta aste bat egin zuen kartzelan, baina bere senarra Gasteizko kartzelara eraman zuten. Teresak ahalegin izugarriak egin zituen bere senarrarentzako informe baikorrak bilatzeko (Fermin Alberdik ukatu egin zizkion informeak hasieran), eta hil bat kartzelan egin eta 5.000 pezetatako isuna ordaindu ostean atera zen kartzelatik. Trantze honen ostean, Teresak haurra galdu zuen. Bere seme bat, Joan Karlos Larrinaga Gisasola, boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera, hamalau urte zituela. Rosa Luxenburgoko gudariekin ihes egin zuen Markinako Frontea jausi zenean, 1937ko apirilaren 26an. Hauen alaba Maria Paz Larrinagak hamahiru urte zituen, eta bere gurasoak kartzelan zeuden bitartean, Munibe jauregira bidali

zuten, hiru egunez, gaixoak zaindu eta etxeko lanak egitera. Munibe jauregian zaurituentzako ospitalea zegoen Gerra Zibilean.

Goikoetxea Omar, Antonio: Ideologia ezkertiarra zuen. Zamora baserrian bizi zen (Xemein), nahiz eta jaiotzez Elorriokoa izan. Ez nago ziur, baina pentsatzen dut frankistak herrian sartu ostean atxilotu zutela. 1937ko abuztuaren 6an epaiketa egin zioten, eta libre utzi zuten (Airmn, 489-37 txostena).

Goikoetxea Omar, Manuel (Elorrion jaioa 1997an): Ideologia ezkertiarra zuen. Nahiz eta jaiotzez Elorriokoa izan, Zamora baserrian (Xemein) bizi zen bere gurasoekin. 1934ko urriko grebaren ostean, atxilotu egin zuten Frantzisko Cazalis, Santiago Meabe eta beste ezkertiar batzuekin batera, eta Bilbon zegoen itsasontzi batean sartu zuten. 1937ko irailaren 18an, berriro atxilotu zuten, eta Upo Mendi itsasontzi kartzelan sartu (Badiola, 2011: 266). Epaiketa militarra egin ostean, 20 urteko kartzela zigorra jarri zioten (AGA). Ez dakit noiz atera zen kartzelatik.

Ibarluzea Iturraran, Gaspar (Kaxpar Bariña, Barinagan bizi zelako gerratean): 1937ko urrian atxilotu zuten, eta Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Bilboko Larrinagako kartzelan sartu. 1937ko azaroaren 13an epaiketa egin zioten, Jose Manuel Unamunzagarekin eta beste hamabi pertsonarekin batera, eta azaroaren 15ean libre utzi zuten (Airmn, 1004 txostena). Dena den, 1938ko maiatzaren 9an, berriro atxilotu zuten Markinako, Xemeingo, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako beste 19 pertsonarekin batera, eta Markinako Kartzelan sartu zuten. Martin Lariz eta Jose Kruz Garate zeuden ziega berean egon zen preso. 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean. Kartzelatik ateratzeko baldintza izan zen, atxilotutako 19 pertsonek ordaindu behar zutela jarritako isuna. Guztiek ordaindu arte ez zioten utzi inori kartzelatik ateratzen.

Ibarrolaza Gastiasoro, Sabina «Sabina Pola» (Gallartan jaioa 1904an, Berrizen hil zen): bere gurasoak xemeindarrak ziren, baina XIX. mendearen bukaeran, Gallartara joan ziren, minetan lan egitera, eta, horregatik, Sabina Gallartan jaio zen. Dena den, berriro ere Xemeinera bueltatu ziren gurasoak, eta Sabina Xemeingo beheko errebalean hazi zen; Artibai kalearen bukaeran, gaur egun Ituarte denda dagoen etxeren alboan. Bost neba-arreben artean zaharrena zen. Leon Kortabarria berriztarrarekin ezkondu zen. Leon Markinan zuen arreba bat bisitatzera joaten zen, eta bertan ezagutu zuen Sabina. Gazte ezkondu, eta Berrizen hasi ziren bizitzen. Karakter gogorreko emakumea zen, baina baita eskuzabala eta alaia ere. Igandeetan Berrizko plazan dagoen ardandegiko atarian kartetan jolastea zuen gustuko («Berriz 1936 Gogoratzen» elkartekoek emandako informazioa). Tropa frankistak 1937ko apirilaren 25ean sartu ziren Berrizen, eta 1937ko maiatzean, ekainean edo uztailean, Sabina atxilotu egin zuten, herriko beste bost emakumerekin batera, eta Bilbora eraman zituzten guztiak. Larrinagan edo Begoñako Karmeloko Komentuko kartzelan sartu zituzten. Sabina 1937ko abuztuaren 3an epaitu zuten Berrizko beste pertsona batzuekin batera (Ferrol, 544-37 txostena), eta epaia 1937ko abuztuaren 9an atera zen: sei urte eta egun bateko kartzela zigorra. Ostean, emakume guztiak Saturrarango emakumeen kartzelan sartu zituzten (kartzela hau 1938ko urtarrilean ireki zutela kontuan hartzen badugu, pentsatzekoa da Sabina Larrinagako kartzelan edo Karmelon egon zela gutxienez 1938ko urtarrilera arte, eta gero sartu zutela Saturraranen). Berrizen, 2007ko irailaren 11n egin zen «Frankismoaren Biktimeei Gorazarrea. Felipe Urtiaga alkatearen hilketaren 70. urteurrena» ekitaldian, «Berriz 1936 Gogoratzen» elkartekoek irakurri zuten idatzian zera aipatzen zen: «Orain dela 70ko uda hartan herriko sei emakume, atxilotu, gezurrez betetako epaiketak pasau eta gero Saturraraneko kartzelan sartu ebezan. Niceta Ariznabarreta 21 urteko neska zana, bere aiztie Sofia Ariznabarreta 29 urtekoa, Erramona Uribeganekoa 55 urteko andrie, Luis Gorroñoaz hiru seme alaben ama, euretariko bi, Rafael eta Cruz, gudari frentien eukezena, Benancia Etxano jaiotzez ondarrutarra baña Berrizen abade etxien neskame egon zana, Sabina Ibarrolaza jaiotzez Gallartakue baña gure herrixen Joan Polaz ezkondu eta hamaika karamelo herriko umiei

saldutakue zana, eta Teodora Uribarri, gure amama, bere senarra Felix Arrizabalaga kartzelan euela ekixela sei eta hamahiru urte bitarteko lau seme-alaba bakarrik itxi behar izan zittuena. Zergaittik kartzelatu ebezan aitzie gatxa badabe, frankisten udaletxetik agindute hiru urte bete arte ein ebezan euretariko bakotzak, ein ziren barraskeriagattik zoritxarrez ospetxue dan Saturrarango kartzelan». Alberto Cebrianek *El Correo* egunkarian adierazten zuen bezala (http://www.elcorreo.com, 2008-3-6): «Ninguna de las seis mujeres se encuentra ya con vida y en el pueblo poca gente sabe que estuvieron presas. Tras lamentar que aún se les considere culpables de los delitos que les imputaron porque la ley 'no es del todo clara, al no anular las condenas y por lo tanto no reconocer la inocencia de esas personas', Maite Arrizabalaga considera 'muy urgente' recuperar la memoria histórica de los años de la Guerra Civil y la dictadura 'porque la gente que lo vivió es muy mayor y se va muriendo'». Saturrarango kartzelan baldintza oso txarretan bizi ziren emakumeak. Mojen tratua oso gogorra zen, eta hauetariko batek behintzat mojatza utzi egin zuen, jainkoaren izenean burutzen ziren gehiegikeriak jasan ezinean. Kartzela zaintzaileen helburua zen ezkertiarren eta abertzaleen emakumeak zigortzea, familiaren hezitzaile legez, euren baloreen transmisioa ekiditeko. 1938 - 1944 bitartean milaka emakume pasatu ziren Saturrarango kartzelatik, eta gutxienez 112 berbertan hil ziren, horietatik 62 umeak ziren.

Ibarrolaza Gastiasoro, Mikaela (Xemein, 1913 – Lekeitio, 2010): Patxi Cazalis-en emaztea eta jostuna. Frankistak laster sartuko zirela beldurrez, Bartzelonara ihes egin zuen, 1936ko irailean, bere mutil-lagun Patxi Cazalisekin batera. Bartzelonan, soldaduentzako uniformeak egiten aritu zen, Bartzelona jausi zen arte. Bartzelonatik Frantziara hanka egin zuen 1939an. 1941ean, 27 urte zituela, Frantzian atxilotu, eta Polizia frantsesak Gurs-eko kontzentrazio eremuan sartu zuen, 1942ko irailera arte. 1942. urtean, Espainiara estraditatu zuten, eta Markinara etorri zen. Gursen, beraz, urte bat inguru egin zuen, 1941etik 1942ra, baldintza oso txarretan.

Iriondo Urkidi, Joan Andres (Markinan jaioa 1905ean): Abadea zen 1928tik. Markinako Guen kalean jaio zen, baina gerra hasi zenean, Sopelan zegoen abade. Bere gurasoak Jose eta Mikaela ziren. Gerratean Euzko Gudarosteko kapilaua izan zen. Santoñan atxilotu zuten, 1937ko abuztuaren bukaeran, eta Dueso kartzelan egon zen (AGA). 1937ko irailaren 9an epaiketa egin zioten, eta libre utzi zuten (Ferrol, 5-4112 txostena).

Korta Larruskain, Klementina (1884. urtean jaioa): ikusi IX eranskina.

Korta Larruskain, Klara (1882. urtean jaioa): Emakume Abertzale Batzako kidea zen. Bere ahizpa bezala, Julia Arroitajauregirekin eta Jesusa Zabalerekin kalean berba egiten egoteagatik salatu zituen markinar batek, eta bi hil eta egun bat egin behar izan zituen Markinako kartzelan. 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zuten Markinako, Etxebarriako eta Ziortza-Bolibarko beste pertsona askorekin batera, eta 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean.

Laka Mandiola, Martin (Markina, 1873 – Markina-Xemein, 1960): Kuban aritu zen lanean urte batzuetan, eta 1920an bueltatu zen Markinara. Kubatik etorri eta urte betera, 1921ean, Erdotzako etxea eraiki zuen. Errepublika garaian, Izquierda Republicanako lehendakaria, gerratean, Errepublikaren alde eratu ziren batzordeetan parte hartu zuen; hain zuzen ere, Isunen azpibatzordeko kidea izan zen. Francoren tropak sartu osteko egunetan, 1937ko maiatzaren lehenengo egunetan, Bitoriano Ugarte, honen emazte Jesusa Urretarekin, Migel Larrinagarekin, honen emazte Teresa Gisasola Salegirekin, Basilio Bollar, Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpasekin» eta beste batzuekin batera atxilotu egin zuten (guztira hamabi bat pertsona), eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, handik Gasteizera eraman zituzten (Teresa Gisasola Salegi aske utzi zuten). Familiakoek eman dituzten azalpenen arabera, badirudi Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelan sartu zituztela guztiak. Hilabete bat eta erdi inguru egin zuen kartzelan (Rikardo Urkieta «Katxera» eta Fermin Alberdik egindako informeei esker atera zen kartzelatik). 1937ko ekainaren 22an, bere emaz-

teak (Joakina Bereziartua Aranzetak) 10.000 pezetetako isuna ordaindu behar izan zuen, bere senarra kartzelatik ateratzeko. Kartzelan hain txarto pasatu zuenez, etxera etorri zenean, kaiolan zuen zozoa askatu ei zuen. 1938ko uztailaren 27an, beste isun bat ere ordaindu behar izan zuen, oraingoan 2.000 pezetatakoa. Bigarren isun honen arrazoia izan zen, frankisten arabera, bere semeei Francoren altxamenduaren aurkako ideologia igortzen zietela, eta hauek atzerrian Francoren erregimenaren aurkako propaganda egiten zutela. Kontua da, bere seme batek, Martin Laka Bereziartuak (Encrucijada, Kuba, 1913 – Markina-Xemein, 1961) pilota partida bat jokatu zuela Bruselan (bertako Jai Alai Stadium pilotatokian aritu zen 1938ra arte), bildutako diruarekin Bizkaira patata bidaltzeko helburuarekin. Itxura denez, espia lanak egiten zituen Iruzubietako batek salatu zuen, eta semearen aurkako errepresio gisa, aita isuna ordaintzera behartu zuten.

Landa Murua, Anjel: Donostiarra jaiotzez, Markinan bizi zen. Atxilotu ostean, epaiketa militarra egin zioten, eta kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Lariz Aranburu, Martin (1882. urtean jaioa): Barrenengoa baserrian bizi zen. Ideologia ezkertiarra zuen. 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zuten, Markinako, Etxebarriako eta Ziortza-Bolibarko beste pertsona askorekin batera (19 bat guztira), eta 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean. Kaxpar Ibarluzea (Etxebarria) eta Jose Kruz Garate egon ziren ziega berean egon zen Markinako kartzelan.

Lariz Aranburu, Joan Ezekiel (1878. urtean jaioa): Barrenengoa baserrikoa zen jaiotzez, baina Arteagan bizi zen. EAJ-ko militantea, gerra hasi zenean, Arteagako milizien buru egin zuten. Frankistak Arteaga hartu zutenean, atxilotu, eta kartzelan sartu zuten. 1937ko urriaren 4an, epaiketa egin zioten. Epaileak hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri zion. Ez dakit noiz arte egon zen kartzelan (Ferrol 1.060-37 kausa).

Larrinaga Aldazabal, Migel «Migel Bolu» (Xemein, 1894 – Markina-Xemein, 1961): Jaiotzez Beheko-Bolu okindegikoa zen, baina gaztetan Goiko-Boluko okindegia ireki zuen, Goiko Portalean, eta bertan bizi eta lan egiten zuen. Izquierda Republicanako kidea zen. Frankistak herrian sartu osteko egunetan, 1937ko maiatzaren hasieran, Migel Larrinaga eta bere emaztea, Teresa Gisasola Salegi, atxilotu zituzten. Eurekin batera Benito Aginaga, Martin Laka, Bitoriano Ugarte eta bere emazte Jesusa Urreta, Alberto Urbieta, Enrike Arriaga «Kurutzebarri», Casimiro Allende, Basilio Bollar, Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpas» atxilotu zituzten (guztira hamabi bat pertsona), eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, batzuk askatu, baina beste batzuk Gasteizera eraman zituzten. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelan sartu zituzten guztiak. Migelen emaztea haurdun zegoen, baina aste bat egin behar izan zuen kartzelan. Migel Larrinaga Gasteizko kartzelara eraman zutenetariko bat izan zen. Bere emazteak ahalegin ugari egin zituen herriko eskuindarrengandik bere senarraren aldeko informeak bilatzen (Fermin Alberdik ukatu egin zizkion informeak hasiera batean), eta 5.000 pezetatako isuna ordaindu ostean atera zen kartzelatik. Hil bat egin zuen kartzelan. Bizi izandako urduritasun eta tentsioaren ondorioz, Teresa Gisasolak haurra galdu zuen. Hauen seme bat, Joan Karlos Larrinaga Gisasola, hamalau urte zituela joan zen boluntario Errepublikaren alde borrokatzera. Rosa Luxenburgoko milizianoekin ihes egin zuen Markinako Frontea jausi zenean, 1937ko apirilaren 26an. Migelen eta Teresaren alabak, Maria Paz Larrinagak, hamahiru urte zituen 1937an, eta bere gurasoak kartzelan zeuden bitartean, frankistek Munibe Jauregiko ospitalera bidali zuten, hiru egunetan gaixoak zaintzera eta garbiketa lanak egitera.

Larrinaga Gisasola, Joan Karlos (Markina, 1922 – Markina-Xemein, 2000): hamabost urte egin gabe zituela, boluntario joan zen frontera, Errepublikaren alde borrokatzera. Hain zuzen ere, Rosa Luxenburgoko gudariekin ihes egin zuen, Markinako Frontea jausi aurreko egunean. Etxekoak kobazulo batean egon ziren ezkutatuta egun guztian bonbardaketen beldurrez, eta, gauean, etxera bueltatu zirenean, Joan Karlosek ihes egin zuela konturatu ziren. Itxura denez, Joan Karlosek ogia eramaten zuen Urberuagako bainuetxera egunero, eta

harreman onak zituen Rosa Luxenburgoko milizianoekin, baita herriko beste ezkertiar batzuekin ere. Gerran hiru hil ibili ostean, etxekoek Gurutze Gorrikoen bidez jakin ahal izan zuten nondik nora zebilen. Behin Bizkaia jausi zenean, Rosa Luxenburgoko soldaduak Kantabriara pasatu ziren. Santoñako Ituna sinatu ostean, abuztuaren amaieran, Joan Karlosen anaia Jose Mari (1921 - 1991), bere bila joan zen Castro (Kantabria) ingurura, eta etxera ekarri zuen. Handik lasterrera, soldaduskara eraman zuten frankistek, eta, Burgosen zegoela, taberna batean, Francoren argazkia apurtzeagatik eta erregimen berria iraintzeagatik, atxilotu, eta epaiketa militarra egin ostean, Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan sartu zuten. 1938ko martxoan behintzat Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan zegoen. Bertan bat egin zuen Benigno Urkidi Etxezarragarekin «Karia» (Iurreta, 1900 – Markina, 1940) eta Jose Meabebasterretxea Amorebieta «Larrei» bolibartarrarekin. Miranda de Ebroko kontzentrazio eremua 1937tik 1947ra erabili zuten frankistek. Hemen egoten ziren bitartean, presoek **«langileen batailoietan» lan egin behar izaten zuten, tunel, bide, zubi edo trenbideak egiten (**Fernández López, 2006). Joan Karlosek pare bat urte egin zituen etxetik kanpo (1938 - 1940), eta oso argal bueltatu zen. 1940an, Bigon zegoen pilotan jokatzen.

Legarra Maguregi, Eujenio - Aita Bautista San Joserena (Aulesti, 1902 - Palmira, Kolonbia, 1986): Fraide karmeldarra. Jaiotzez Aulestiarra zen, baina gerra piztu zenean, musika irakaslea zen Markinako karmeldarren komentuan. Frankistak Markinan sartu ostean, atxilotu egin zuten, eta Begoñako Karmeloko Kartzelan preso sartu, beste fraide eta abade batzuekin batera. Hemendik, Larrinagako kartzelara eraman zuten, eta, 1937ko uztailaren 7an, Iruñako (Langraiz Oka) kartzelara. Epaiketa egin zioten 1937ko uztailaren 30rean, eta epaileak heriotza sententzia eskatu zuen, abertzale sutsua izateagatik eta Rosa Luxenburgo batailoiaren komandanteari eskerrak emateagatik, Etxanoko parrokian zeuden fraide zaharrei tratu ona eman zietelako. Epaileak abuztuaren 15ean eman zuen sententzia: 30 urteko kartzela zigorra, baina geroago sei urteko kartzela aldiagatik aldatu zioten (Airmn, 250-37 txostena eta Martínez, 2007: 66). Arabako kartzelatik Carmonako kartzelara eraman zuten, eta hemendik 1940ko urriaren 10ean atera zen libre. 1953an, Kolonbiara bidali zuten, eta Palmiran (Kolonbia) hil zen (Urkiza, Unzueta eta Fernandez De Mendiola, 2005: 386). Urkizak, Unzuetak, eta Fernandez De Mendiolak (2005) dioten bezala: «…era acusado de haber hecho propaganda separatista desde el púlpito y confesonario, de haber tenido amistad con dirigentes nacionalistas, de haber dicho que: 'El Pueblo Vasco' era el peor periódico y de haber proferido frases injuriosas contra D. Esteban Bilbao» (Urkiza, Unzueta eta Fernandez De Mendiola, 2005: 386). Frankistek ez zuten maite, baina itxura denez, bere etxea eskaini zuen Jose Luis Gaitan de Aiala Markinako alkate tradizionalista ezkutatzeko (Publicaciones Documentales del Clero Vasco, Bigarren bolumena, 177).

Lejardi Ibaibarriaga, Martzelina: markinarra jaiotzez, Gasteizen bizi zen. Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Loiola eizagirre, Joan («Joan Zumarra») (1903 - 1937): Ikusi VI. eranskina

Madariaga Kareaga, Frantziska (Markina, 1889 – Eibar, 1972): Jose Manuel Unamunzaga Amallobietaren emaztea. Bereinku Barrena (Barinaga) baserrian bizi zen. Hiru seme-alaba zituzten, eta abertzaleak ziren. Frankistak herrian sartu osteko hiletan (1937ko maiatza, ekaina edo uztaila) atxilotu egin zuten, eta isuna ordaindu ostean atera zen. Bere senarra bi aldiz atxilotu zuten.

Maguregi Urkidi, Zipriano «Laitxu» (Markina, 1869 – Markina, 1945): abertzalea zen. Jaiotzez Laitxu baserrikoa, Markinan bizi zen. Errementaria. Frankistak herrian sartu ostean, atxilotu egin zuten, eta Markinako kartzelan sartu. Biluztu ere egin zuten, baina, beste batzuei ez bezala, ez zuten jo, adinez nagusia zelako (68 urte zituen atxilotu zutenean). Kartzelatik atera ostean, militarrek astean birritan Ondarroara errementari lanak egitera joatera behartu zuten, Ondarroako ferratzailea ihes eginda zegoelako.

Mallukiza Aldaolea, Anbrosio (Munitibar, 1888 – Derio, 1937): Ikusi VI. eranskina.

Mandiola Bastida, Luis «Makutegi-Txiki» (Etxebarrian jaioa, 1900an eta Donibane Lohizunen hila): Luis Etxebarriakoa zen jaiotzez, baina Markinan bizi zen. Munibeko jauregian zegoen morroi, eta bere emazteak, Lorentzak, (Berriatuko Legarrei baserrikoak) Markinako taberna bat eramaten zuen; hain zuzen ere, gaur egun Mayo taberna dagoen tokian zegoena. Luis Markinako Batzorde Sozialistako (PSOE) kidea zen. Errepublikaren Aldeko Batzordeetan parte hartu zuen gerratean. Frankistak herrian sartu aurretik, ihes egin zuen Bilbo ingurura, baina gero bueltatu egin zen Markinara, eta atxilotu egin zuten, 1938an. 38 urte zituen atxilotu zutenean, eta alaba bat zuen. Markinako kartzelan denbora bat egin ostean, Bilbora eraman zuten. Epaiketa militarra egin zioten 1939ko urriaren 18an (Ferrol 1376-38 txostena). Fiskalak heriotza sententzia eskatu zuen, baina, azkenean, 30 urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri zioten, matxinadari atxikitzea salaketapean. Munibeko jauregian lapurtzea ere aurpegiratzen zioten. Luis kartzelan sartu zutenean (1938an), bere emaztea, Lorentza, Bilbora joan zen, militar batzuen etxean lan egitera, eta hor lortutako influentziek asko lagundu omen zioten Luisi, fiskalaren heriotza eskaera kentzeko. 1938ko urriaren 27an, Burgoseko kartzelara eraman zuten (AGA). Hortik aurrera Espainiako hainbat kartzelatatik pasatu zen: 1939ko urtarrilaren 1ean, Valdenocedako kartzelara eraman zuten, eta 1939ko apirilaren 16an Bilboko Larrinagako kartzelara (AGA). 1942ko urtarrilaren 6an, berriro Burgosera eraman zuten, eta hemendik El Escudo, Arroyo eta Santanderreko kartzeletatik ere pasatu zen. Azkenik, Duesoko kartzelara ekarri zuten, 1944ko urriaren 21ean (Espetxean 1937 - 1942, 1998: 179). 1945eko azaroaren 30rean atera zen kartzelatik. Gero Berriatura (Itxurrino baserrira) joan zen bizitzera, baina, beldurraren beldurrez, ez omen zen etxetik ere ateratzen. Gainera, eskopeta bat erosi zion ijito bati, eta egun batean, eskopetaren jabea agertu ei zen, ijitoak lapurtutakoa zela esanez. Beldurtuta, Donibane Lohizunera ihes egin zuen, eta bertan zendu zen (etxekoek emandako informazioa, Ferrol 1376-38 txostena eta AGA)

Meabebasterretxea Amorebieta, Jose «Larrei» (Ziortza-Bolibar, 1904 – Barinaga, Markina, 1977): Ziortza-Bolibarko Larrei baserrian (Ziortza-Bolibar) jaioa, gerratean bertan bizi zen. Gerraondoan, Barinagara joan zen bizitzera, eta bertan hil zen 1977. urtean. 1938ko martxoaren 11n atxilotu zuten, eta hiru hilabete egin zituen Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan. Bertan, Joan Karlos Larrinaga Gisasolarekin «Bolu» (Markina, 1922 – Markina-Xemein, 2000) eta Benigno Urkidi Etxezarragarekin «Karia» (Iurreta, 1900 – Markina, 1940) bat egin zuen. Kartzelan sartu zutenean, bere emaztea hiru ume eta hiru pertsona nagusirekin gelditu zen baserrian.

Muñoz Azpeitia, Benito (1894 - 1938): ikusi V. eranskina

Muñoz Azpeitia, Salvador (1904an jaioa): markinarra zen, baina oso gaztetan joan zen Bilbora bizitzera. Eskalerista bezala lan egiten zuen Errepublika garaian. Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan. Dakidana da 1939ko apirilean kartzelan jarraitzen zuela.

Murga Arana, Jose Maria «Murga Txiki» (1877 - 1974): hamaika etxe, baserri eta ondasunen jabe zen Markinan eta Xemeinen. Horrez gainera, mende hasieran, Azpiltzako errota zaharraren alboan, argi indarra sortzeko fabrikatxoa eraiki zuen, eta, 1922an, Ondarroa Ibaiko Ur-jauziak (Saltos del río Ondarroa) enpresako bazkide egin zen. Murga familiako guztiak bezala, Jose Maria ere tradizio liberalekoa zen. 1914an, adibidez, errepublikazaleek eta sozialistek egin zuten manifestazio batean lehen lerroan parte hartu zuen. Bi liburu idatzi zituen: *El Teniente General D. Joseph de Andonaegui* (1928) eta *El Maestre de Campo don Lope de Andonaegui y López de Rentería* (1929). Salaketa bat izan zuen, eta atxilotu egin zuten Rosario Garate Zubillaga eta Anjel Ugarte markinarrekin batera, 1937ko urriaren 11n. Bilbora eraman zituzten guztiak, baina Jose Mariak eta Anjel Ugartek bakarrik egun bat egin zuten kartzelan.

Olabarria Zelaia, Ramon «Txasio»: Gurbiola (Txasio) baserrikoa. 1938an atxilotu zuten. Ez nago ziur, baina pentsatzen dut maiatzaren 9an atxilotu zutela, Markinako, Xemeingo, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako 19 pertsonarekin batera. Markinako kartzelatik langileen batailoietara eraman zuten, eta hilabete bat egin zuen bertan. Bere aitari, Martin Olabarriari, 5.000 pezetako isuna jarri zioten abertzalea izateagatik.

Oliver Larrinaga, Fernando (1909an jaioa, Xemeinen): ezkertiarra zen, eta lanbidez Torneroa. Bere aitak, Fernando Oliver Lacastak (Alcala de Henares, Madril 1878 – Xemein, 1946), latoneria bat zuen Markinako kartzelaren parean (Juaristi, 2008c: 27-31), Arretxinaga etorbidean, eta bertan lan egiten zuen. Bere ama Maria Frantziska Larrinaga Arrate (1886 - 1962) izan zen, Azpiko-errotakoa. Frontea gure herriko lurretan gelditu zenean, zapadore lanetan aritu zen frankisten erasoa gelditzeko helburuarekin. Frankistak sartu aurretxoan, Fernandok ihes egin zuen, baina atxilotu egin zuten, eta kartzelan sartu. 1939ko azaroaren 11n egin zioten epaiketa Bilbon. 1940ko otsailaren 1ean, bere kasua berrikusi zuten, eta kartzelatik atera ahal izan zuen, baina, denboraldi batez, langileen batailoietan egotera behartu zuen epaileak; hain justu ere, 170. Langileen batailoian egon zen hil batzuetan. 1940. urteko abuztuan etorri zen etxera (Airmn, 16.036-38 txostena).

Onaindia Zuluaga, Zelestino (Markina, 1898 - Hernani, 1936): Ikusi VI. eranskina.

Onaindia Jaio, Pedro: Uhagon etxeko lorazaina zen. Ideologia abertzalea zuen eta EAJ-ko kidea zen. Errepublika garaian, 1933ko apirileko udal hauteskundeetan, Jose Luis Gaitan de Aialak irabazi zituen hauteskundeak, baina EAJ-k hiru zinegotzi atera zituen: Pedro Onaindia horietariko bat izan zen. Besteak Tomas Duralde Kerejeta (EAJ) eta Bernardo Aretxabaleta Arriola izan ziren. Dena den, 1934an, hirurek dimititu egin zuten zinegotzi postuetatik, «Ardoaren gerragatik». Gerra piztu zenean, Jose Luis Gaitan de Aiala alkateak alde egin zuen, eta 1936ko azaroan, EAJ-ko eta Herri Fronteko kideez osatutako Udal Batzordea eratu zen. Pedro Udal Batzorde honetako kide bihurtu zen, EAJ-ren izenean. Honegatik guztiagatik, atxilotu egin zuten 1938ko otsailaren 18an, eta, egun batzuetan Markinako kartzelan eduki ostean, Bilboko Larrinagako kartzelara eraman zuten. Epaiketa militarra egin zioten 1938ko apirilaren 7an eta apirilaren 23an eman zuen epaileak sententzia: sei urte eta egun bateko espetxe zigorra (Ferrol, 17.205 txostena). Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan, baina badakit 1940ko martxoan, preso jarraitzen zuela oraindik. Badakit ere 10.000 pezeta inguruko isuna ordaindu behar izan zuela kartzelatik ateratzeko. Bere seme bat, Joan Onaindia Iriondo, Derion zegoen lan egiten Esperanza fabrikan, eta Don Castorren laguntzarekin, Markinara etorri eta atxiloketa saihestu ahal izan zuen.

Sagarna Uriarte, Jose (Zeanuri, 1911 - Markina, 1936): Ikusi VI. eranskina.

Sanchez Pesado, Jeronimo (Pollensan, Mallorka, jaio zen, eta Derion fusilatu zuten, 1937an): Ikusi VI. eranskina.

Saratxaga Bergara, Felices: markinarra jaiotzez, Urduñan bizi zen. Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Sololuze Olasolo, Eusebio (Xemein, 1920 – Markina-Xemein, 2007): Egiaguren baserrian jaio zen, baina hamahiru urte zituela (1934an) morroi lanetara joan zen Olazar baserrira. Erreketeak Markina eta Xemein inguruko mendietara heldu zirenean, bere jaiotetxea (Egiaguren) eta gurasoak (Anastasio Sololuze Txurruka eta Arsenia Olasolo Jaio) erreketeen partean gelditu ziren eta bera, Olazarren bizi zenez, errepublikarren aldean. Erreketeak 1936ko urriaren 4an heldu ziren Larruskainera eta Amallo ingurura, eta frontea hor gelditu zen mugitu gabe 1937ko apirilaren 27ra arte. 1936ko urriaren 4tik aurrera, Amallo erreka ingurua su biren tartean gelditu zen, eta Olazar baserria hustera behartu zuten milizianoek. Olazarkoekin batera (Etxaniz familia), Eusebio Ziortza-Bolibarrera joan zen bizitzera. Karmelo Bustinduiren etxera joan ziren, bustinduitarrak Olazarkoen ahaideak ziren-eta. Olazarko ardiak eta behiak Ziortza inguruko larreetara eraman zituzten, eta frontea geldirik egon zen hiletan, Eusebiok

artzain lanetan segitu zuen inguru hartan. Apirilaren 26an, bi herriotako hainbat abertzale eta ezkertiarrek bezala, Eusebiok hanka egin zuen Inazio Etxanizekin batera, erreketeen beldurrez. Kontuan izan Markinako Frontea apurtzen ari zela, eta, ondorioz, milizianoak ere ihesean zebiltzala. Munitibartik zehar Gernikara heldu ziren, eta Gernika erretzen ikusi zuten. 1937ko maiatzean zehar, Foru (gau bat), Fruiz (3-4 egun) eta Zamudio (15 bat egun) inguruko hainbat baserritan egon ziren lo egiten. Handik, Bilbora heldu, eta kuartel militarretik pasatu ostean, zapadore lanetan hasi ziren Errepublikaren alde. Besteak beste, trintxerak egiten, Artxanda inguruan, Burdinazko Gerrikoa sendotzen. Burdinazko Gerrikoa jausi aurretxoan (Bilbo 1937ko ekainaren 19an jausi zen frankisten eskuetan) Bilbotik ihes egin zuten, eta ordutik aurrera hainbat lekutan ibili ziren zapadore lanetan: besteak beste, Balmasedan, Karrantzan edota Riaño inguruan. Handik Santanderrera joan ziren, eta bertan atxilotu zituzten, abuztuaren azkenetan. Sardinero futbol zelaian egon ziren aurrenengo, eta gero Santanderreko zezen plazan sartu zituzten, milaka soldadu errepublikarrekin batera. Lau egunetan ez zioten jateko ezer eman. 1937ko abuztuaren 31n, itsasontzi batera eraman, eta han egun batzuk egin ostean, Santoñan lurreratu zituzten. Duesoko kartzelan sartu zuten preso. Guztira lau hilabete egin zituen preso. 16 urte zituen orduan, 17 urte gabonetan egiteko. Adingabea zenez, etxera bidali zuten, 1937. urteko azkenetan. 37 kilo zituen etxera heldu zenean. Urte bat etxean egin ostean, 1939. urtearen hasieran, 18 urte egin berritan, soldaduskara eraman zuen Francok, Iruñeara. Dena dela, elgorriaz gaixotu zen berehala, eta ospitalean sartu zuten. Bere konpainiako asko hil ziren gerran, baina berak zortea izan zuen, gaixotu zelako, eta ospitalean sartu zutelako. Gero etxera etorri zen, eta bitartean gerra bukatu zen, 1939ko apirilaren 1ean. Dena den, 1943ko uztailaren erdira arte egon behar izan zuen soldaduskan. 1943ko Karmen jaietan etorri zen etxera lizentziatuta. Dena den, 1943ko kontzesioetan, 1939ko, 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatu zituzten berriro, eta bera 39ko kintakoa zenez, 22 hilabetetan soldaduskara joan behar izan zuen berriro. 1937ko apirilaren bukaeran atera zen etxetik eta 1945eko bukaeran bueltatu zen etxera, lau hil kartzelan egin eta Francorekin zazpi urte soldaduskan egon ostean. Etxera heldu zenean, 25 urte zituen, 26 egiteko.

Solozabal Aizpurua, Agustin: markinarra jaiotzez, Durangon bizi zen. Badirudi Durangoko Errepublikaren Aldeko Batzordean parte hartu zuela. Atxilotu, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Heriotza sententzia jarri zioten, baina gero kondena hori 30 urteko kartzela zigorragatik aldatu zioten. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Totorikaguena Lasuen, Erramona: Markinako Ugarte baserrian jaio eta bizi zen. Bere iloba Julia eta koinata Jesusa Zabalarekin batera atxilotu zuten. Ez nago ziur, baina pentsatzen dut 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zituztela hirurak, Markinako, Xemeingo, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako 16 pertsonarekin batera. Etxekoek diotenaren arabera, Erramonak hiru egun egin zituen kartzelan.

Uberuaga Antxustegi, Andres: markinarra jaiotzez, Lekeition bizi zen. Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Ugarte Mendibe, Bitoriano (1881 - 1965): abertzalea. Lanbidez okina. Okerra kalean bizi zen. Frankistak herrian sartu osteko egunetan, 1937ko apirilaren azkenetan edo maiatzaren hasieran, bera, bere emaztea, Jesusa Urreta, eta beste batzuk (guztira hamabi bat pertsona) atxilotu, eta, egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, hauetariko batzuk askatu zituzten, baina beste batzuk Gasteizera eraman zituzten preso. Bitoriano Ugarte eta bere emaztea Gasteizera eraman zituztenetarikoak izan ziren. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Aliko eskoletan zabaldu zuten kartzelan sartu zituzten guztiak. Bitoriano eta bere emaztea bi hilabete Gasteizko kartzelan egin ostean, desterratu egin zituzten Iruñeara. Bi urte egon ziren desterratuta bertan. Denbora horretan, Bitorianok okin bezala lan egiten zuen eta Jesusak Las Potxolitas hotelean. Bi urte horietan, Markinako okindegia zarratuta egon zen. 1939ko udan etorri ziren Markinara.

Ugarte Ugartetxea, Anjel «Okoki» (Markinan jaioa 1909an, 1930eko kintoa): Salaketa bat izan zuen, eta atxilotu egin zuten 1937ko urriaren 11n, Rosario Garate Zubillaga eta Jose Maria Murgarekin batera. Bilbora eraman zituzten hirurak, baina Jose Mariak eta Anjel Ugartek bakarrik egun bat egin zuten kartzelan. 1938an, Francok eraman zuen bere alde borrokatzera. 1939ko urtarrilean, Uztailaren 18ko Erregimentuko 4. batailoian zegoen.

Ugarteburu Anitua, Ignazio (1890 - 1938): Ikusi V. eranskina.

Ugartetxea Olasolo, Joan «Padarra» (Xemein, 1904 – Santurtzi, 1970): Padarra baserrian jaioa, Xemeinen bizi zen. Errepublika garaian, latoneria bat zuen Artibai kalean, Joan Loiola eizagirre, («Joan Zumarra») (1903 - 1937) eta Lorenzo Azpirirekin (Xemein, 1904 – Markina-Xemein, 1981) batera (Garaian 4, 1989: 43 eta Juaristi, 2008c: 27-31). Abertzalea zen, eta EAJ-ko militantea. II. Errepublikan, Xemeingo zinegotzia izan zen, eta gerratean, alkate. Francoren tropak sartu aurreko egunean, apirilaren 26an, ihes egin zuen Bilbora, bere bazkide eta lagun Joan Loiolarekin «Joan Zumarra» batera. Bilborako bidean, Gernika erretzen ikusi zuten. Bilbora heldu ostean, Artxandara igo ziren, Burdinazko Gerrikoa zaintzera. Bilbon zeudela, Joan Zumarrak esan zion ez zutela ezer txarrik egin, eta etxera bueltatu behar zutela. Joan Padarrak esan zion bueltatzea oso arriskutsua izan zitekeela, abertzaleak zirelako, eta frontea geratuta egon zen garaian, erantzukizun politikoak izan zituztelako. Hala ere, Joan bueltatu egin zen, eta, egun gutxira, atxilotu egin zuten. Derion fusilatu zuten 1937ko irailaren 9an, 34 urte zituela. Joan Padarra Bilbotik Santurtzira joan zen, eta bertan bat egin zuen Bruno Alkorta xemeindarrarekin. Santurtzin baldintza oso txarretan egon ziren bizitzen, eta gose handia pasatu zuten. Santurtzitik Santander aldera ihes egin zuen Joanek, eta Limpiasen atxilotu zuten italiarrek, 1937ko abuztuaren azkenetan. Handik Laredoko hondartzara eraman zuten. Hiru hilabetetan familiak ez zuen bere berri izan. Epaiketa militarra egin ostean, Joan Padarra langileen batailoietara bidali zuten. Teruelen trintxerak egiten aritu zen, eta Extremaduran, Madrilen, Guadalajaran, Toledon eta Estatuko beste hainbat tokitan ere ibili zen, bortxazko lanetan; besteak beste, bideak konpontzen. Guztira 28 hilabete egin zituen langileen batailoietan, eta 1940aren hasieran bueltatu zen etxera, behin-behineko askatasunarekin. Urte betera, epaiketa izan zuen, eta bere lantegia galdu zuen. Ostean, Santurtzira joan zen bizitzera.

Ugartetxea Urkieta, Domingo (Markina, 1885 – Lamiako, 1958): abadea. Markinako Zehar kalean jaio zen. Frantzisko Maria Ugartetxea Urkieta karmeldarraren anaia. Gerra hasi zenean, Ziortza-Bolibarko parrokoa. Gutxienez 1922. urtetik zegoen abade Ziortza-Bolibarren; lehenengo abade laguntzaile eta gero parroko gisa. Frankistek 1937ko maiatzaren hasieran atxilotu zuten, Markina, Xemein eta Bolibar hartu zituztenean. Hainbat kartzelatan egon zen 1937an zehar: lehenengo, Donostiako San Jose babes-etxean zabaldu zen kartzelan sartu zuten. Bertan bat egin zuen Markos Espilla eta Joan Narbaiza abadeekin. Gero Gasteizko karmeldarren komentuan egon zen atxilotua, eta bere anaia Jose Domingo karmeldarrak (Frantzisko Ugartetxea) bertan topatu zuen kartzelaratu zutenean, 1937ko maiatzaren 22an (Unzueta, 1997). Gasteizko kartzelan, A. Abelino, A. Martin, Markinako Karmengo fraidetxeko priorea, Felix Bustindui, Berriatuko abadea, eta Markos Espilla, Markinako abade laguntzailearekin, egon zen ziega berean (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11 eta Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182). Gero, abuztuaren 10ean, Bilboko Karmeloko komentuan zegoen kartzelara ekarri zuten. Hainbat abaderekin batera, epaiketa militarra egin zioten Bilbon 1937ko abuztuaren 31n, abertzale sutsua izateagatik eta gazteak EAJn sartzera eta gudari joatera bultzatzeagatik (Martínez, 2007: 68). Hala ere, epaiketan libre atera zen. Beraz, 1937ko maiatzaren hasieratik 1937ko abuztura arte egon zen kartzelan. Kartzelatik atera ostean, Lamiakoko abade egin zuten, eta hantxe bertan hil zen 73 urte zituela.

Ugartetxea Urkieta, Frantzisko Maria - Aita Jose Domingo Santa Teresarena (Markina, 1888 – Markina-Xemein, 1980): fraide karmeldarra. Markinako Zehar kalean jaioa. Gerratean, Larreako (Zornotza) karmeldarren komentuan zegoen bizitzen. 1937ko maiatzaren 18an, frankistak Larreako (Amorebieta-Etxano) karmeldarren komentuan sartu

ziren. Biharamunean, maiatzaren 19an, Aita Jose Domingo fraide karmeldarra atxilotu zuten, Aita Rafael San Joserena, Aita Abelino, Aita Bizente eta anaia Eujeniorekin batera, eta Begoñako basilikako parrokoa tartean sartu ez balitz, anaia Eujenio kenduta, beste guztiak fusilatuko zituen Lastra Koronelak. Begoñako karmeldarren komentura eraman zuten, eta 1937ko maiatzaren hogeian, Gasteizen kartzelaratu zuten, kartzela gisa erabiltzen zuten zaldientzako korta batean (Publicaciones Documentaldes del Clero Vasco, 180). Bi egun geroago, 1937ko maiatzaren 22an, A. Amalio Etxeberria Gasteizko priorearen ahaleginei esker, Gasteizko karmeldarren komentura eraman zuten atxilotuta. Aita Jose Domingoren ziega berean egon ziren Aita Abelino, Aita Martin, Markinako Karmengo komentuko priorea, Felix Bustindui, Berriatuko abadea, Markos Espilla, Markinako abade laguntzailea, eta Domingo Ugartetxea, Bolibarko parrokoa eta Aita Jose Domingoren anaia (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11; Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182; Unzueta, 1997). 1937ko abuztuaren 2an sinatu zuen epaimahaiak Aita Jose Domingoren aurkako epaia: zortzi urteko kartzela zigorra (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 13 eta Ferrol 250-37 txostena). «1940-01-26ko BOEn argitaratutako Presidentziaren aginduz eta ondorengo xehapenetan zehaztu rik, bere errugabetasuna bermatzen zuten pertsona garrantzitsuen adierazpenak bilduz, sei urte eta egun batera jaitsi zieten espetxealdia eta erdia betea zutenez, beste erdia atzerrian, hau da, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo, egindako lan pastoralarekin kitatu ahal izateko aukera eman zieten» (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 14). 1940ko lehen hiletan atera zen kartzelatik baldintzapeko askatasunarekin, eta Santander hiriburuko komentura bidali zuten. Gutxi gorabehera bi urte eta erdi egin zituen kartzelan, 1937ko maiatzetik 1940aren hasierara arte. Urkiza, Unzueta eta Fernandez De Mendiolak dioten bezala: «…se le acusaba de ser nacionalista exaltado y de haber realizado propaganda nacionalista entre los novicios como Maestro que era de ellos (Urkiza, Unzueta eta Fdz. De Mendiola, 2005: 386). Espetxean egon eta gero, beste hiru urte egin behar izan zituen Euskal Herritik kanpo (Akesolo, 1980-4).

Ugartetxea Zabala, Agustin, «Agustin Goitxi» (Xemein, 1909 – Markina-Xemein, 1991): Goitxi baserrian (Xemein) jaio zen. Lanbidez, hargina. Markina-Xemeingo kanposantuko hilobi asko berak eginak dira. Berak eta beste bi bazkidek Urloko Harrobia ustiatzen zuten. Errepublika garaian, hainbat antzerki egin zituen Markinako Batzokian, eta Xemeingo dantzaria ere izan zen (Bilbon ere dantzan egin zuen). Bere familiako beste kideek bezala, ideologia jeltzalea zuen. Soldaduska egiten ari zela etorri zen II. Errepublika. Emeteria Azumendi Juaristirekin (Berriatu, 1913) ezkondu zen 1935ean, eta bere emaztearen jaiotetxean, Berriatuko Pertika baserrian, bizitzen hasi ziren. Bertan jaio zen, 1936ko abuztuan, euren seme Joseba. Francoren tropak Berriatu inguruko mendietan agertu zirenean (1936ko urriaren 4an), Pertika baserria soldadu frankistek kontrolatzen zuten frontearen aldean gelditu zen. Besteak beste, San Inazio errekete tertzioko soldaduek hartu zuten toki hau (Arostegui, 1991, II. tomoa: 70). Handik gutxira, Markinako bi gizon eta Berriatuko beste bat agertu ziren baserrian, eta Agustin Ugartetxea, Agustinen aitaginarreba eta auzoko beste gizon bat atxilotu zituzten, abertzale izateagatik, eta frankistek Debako eskoletan ireki zuten kartzelan sartu[10]. Beldur izugarria pasatu zuten kartzelan egon ziren bitartean. Izan ere, kartzela zaintzen zutenek behin baino gehiagotan esaten zieten biharamunean fusilatuko zituztela. Hiru bat hilabete egin zituen Agustinek kartzelan. Dena den, egun batean, berarekin soldaduskan ibilitako pertsona batek ikusi zuen, eta Deba inguruko herri bateko alkate frankista izanik, kartzelatik ateratzea lortu zuen. Agustinek Pertikara bueltatu ahal izan zuen, bere emaztearekin eta seme jaioberriarekin batera. Dena den, 27 urte zituenez, Francok gerrara eraman zuen 1937aren hasieran, bere kintako beste asko bezala. Ebroko borrokan lehen lerroan parte har-

[10] Debara eraman zituzten bertan zegoelako Nafarroako Bigarren Brigadaren kuartel nagusia. Bigarren Brigada hau Ondarroa inguruan hasi eta Akarregi ingurura arte egon zen borrokatzen (Lezamiz eta Tabernilla, 2002; http://www.sanchodebeurko.org).

tu zuen, San Quintin batailoiarekin, eta 1938ko irailaren 24an zauritu egin zuten (Ebroko bataila 1938ko uztailetik azarora izan zen). Tripa azpian tiro bat hartu, eta hiltzeko zorian egon zen, Calatayud-eko ospitalean. Xemeinera bueltatu zen, baina oraingoan Francoren soldadu zauritu gisa. Zauriaren ondorioz izan zuen sufrimenduagatik bi domina eman zizkioten, eta kabo izatera heldu zen. Gerraostean, lan gutxi zegoen, eta harrobia ere ez zebilen oso ondo. Beraz, zauritutako soldadu gisa, Markinako kartzelako ardura lortu zuen. Etxea, bi ortu, ura eta argia zituen doan. Markinako kartzelako arduraduna izan zen 1960. urtera arte. Dena den, 1941ean, Markinako Esperanza fabrikan sartu zen. Fabrika hau militartua zegoen, eta bertako langile izanik ezin zuten gerrara bidali. Kontuan izan, aldi hartan, Espainia, Italia eta Alemania aliatuak zirela, eta askok pentsatzen zutela berehala beste gerra bat hasiko zela Frantzia eta Erresuma Batuaren aurka. Esperanza fabrikan lan egiteak gerra saihesteko aukera ematen zuen. Beheko boluko (Markina-Xemein) bere etxean hil zen, 1991n. Agustin Xemeingo dantzari zaharren aitzindaria izan zen Xemeingo ezpata-dantza berreskuratzen[11].

Unamunzaga Amallobieta, Jose Manuel (Berriatua, 1891 – Eibar, 1966): Abertzalea. Jaiotzez Berriatukoa zen, baina Bereinku Barrena (Barinaga) baserria erosi zuen, eta bertan bizi zen, bere emazte Frantziska Madariaga Kareagarekin eta hiru seme-alabekin. Lurkana baserriaren jabea ere bazen. Errepublika denboran, EAJ-rentzako botoak biltzen aritu zen, Barinaga inguruan. Frankistak herrian sartu ostean, atxilotu, eta Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Bilboko Larrinagako kartzelara eraman zuten. Ez dakit noiz sartu zuten kartzelan, baina badakit 1937ko urriaren hogeian, kartzelan zegoela. 1937ko azaroaren 13an, epaiketa egin zioten Gaspar Ibarluzearekin eta beste hamabi pertsonarekin batera, eta epaiketan libre gelditu zen. Azaroaren 15ean, behin-behineko askatasuna lortu zuen (Airmn, 1.004 txostena). Dena den, 1938ko maiatzaren 9an, berriro atxilotu zuten, Markinako, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako beste hainbat pertsonarekin batera, eta berriro ere Markinako Kartzelan sartu zuten. 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean. Kartzelatik ateratzeko baldintza izan zen, atxilotutako 19 pertsonek jarritako isuna ordaindu behar zutela. Guztiek ordaindu arte ez zuten inor kartzelatik atera. Jose Manuelek hiru seme-alaba zituen, eta bigarren atxiloketa honen ostean, bere osasuna oso kaltetua gelditu zen. Bere emaztea, Frantziska Madariaga ere preso egon zen 1937an zehar.

Urbieta Elizgarai, Domingo (Markina, 1898 – Markina-Xemein, 1965): Markinako Batzorde Sozialistako kidea. Gerratean, Gaitandarren ihesean nahasturik egon zitezkeen eskuindarrak atxilotzen parte hartu zuen. Bilbora ihes egin zuen, baina atxilotu egin zuten, eta Eskolapioetan irekitako kartzelan sartu. 1938ko urriaren 6an, epaiketa militarra egin zioten, eta 18 urteko espetxe zigorra jarri. 1940ko uztailera arte egon zen kartzelan.

Urbieta Elizgarai, Alberto «Albetin»: Artibai kaleko 20. zenbakian bizi zen. Bizkaia Bankuko zuzendaria, Errepublika garaian. 1936ko udal hauteskundeetan, EAJ-ko hauteskunde-zerrendan joan zen independente gisa. Francoren tropak sartu osteko egunetan, 1937ko apirilaren azkenetan edo maiatzaren hasieran, Markinako eta Xemeingo hainbat abertzale eta ezkertiar atxilotu zituzten, tartean Alberto Urbieta Elizgarai. Egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, Gasteizera eraman zituzten guztiak. Herritarrak diotenarena arabera, Gasteziko Ali-ko eskoletako kartzelan sartu zituzten. Albertok hil bat edo bi egin zituen kartzelan, eta libre gelditzeko isuna ordaindu behar izan zuen. Isuna Gasteizko Saratxaga epaileak jarri zion, eta bere autoa, Morris markakoa, saldu behar izan zuen ordaintzeko. Desterratu egin zuten Kanariar Irletara, eta bertan zendu zen.

Uriarte Odriozola, Martin - Aita Martin Mariaren Bihotz Garbiarena (Zeanuri, 1879 - Larrea, 1960): fraide karmeldarra. Irakaslea, idazlea eta predikari famatua zen. Berak

---

[11] Joanito Onaindia eta Bernardino Larruskain izan zituan lagun horretan (Irigoien eta Amutxastegi, 1995: 65- 76).

idatzitako lan garrantzitsuenak dira: *Egi biribillak, Basarri gaiak* («Karmengo Argia» aldizkarian argitaratua) eta *Loretako illa* eta *Itzaldiak* (http://www.euskomedia.org/aunamendi). Gerra hasi zenean, Karmengo priorea zen. Frankistak Markinan sartu osteko egunetan, atxilotu, eta Begoñako karmeldarren komentuko presondegira eraman zuten, jarduera nazionalistetan parte hartu zuela leporatuz. Hemendik Gasteizko karmeldarren komentura eraman zuten atxilotuta. Gasteizen, bera sartu zuten ziega berean egon ziren Aita Jose Domingo, A. Abelino, Felix Bustindui, Berriatuko abadea, Markos Espilla, Markinako abade laguntzailea, eta Domingo Ugartetxea, Bolibarko parrokoa (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11 eta Publicaciones Documentales del Clero Vasco, 182). Atxilotu ostean karmeldarren probintzialak, Sergio Santa Teresarenak, presionatu egin zuen Markinako komentuko priore postuari uko egin ziezaion. Priore postua Julio Ibarrak hartu zuen. Epaiketa militarra egin, eta kartzelan sartu zuten. Guztira, urte bat eta bost hilabete egin zituen kartzelan. 1938ko urriaren 15ean, Bilboko epaile batek Gasteizko apezpikuari jakinarazi zion Aita Martin Uriarte fraidearen aurka jarritako auzia bertan behera gelditzen zela, eta, ondorioz, libre utzi zuten. Horrela jakinarazi zion Gasteizko apezpikuak karmeldarren Probintzialari. Dena den, epaileak zioen aipaturiko erlijiosoak Euskaditik gutxienez 500 kilometrotara aldendu behar zuela. Kondena, Cadizko San Fernando herriko karmeldarren komentuan bete zuen (Urkiza, 1992: 289 eta 404-405 eta Urkiza, Unzueta eta Fernandez De Mendiola, 2005: 380). Luis Baraiazarrak dioen bezala, (Baraiazarra, 2009: 246): Aita Martin Uriarte «Karmen'go Argia» aldizkariko zuzendaria izan zen, Zornotzan sortu zenetik, 1931n, 1936an gerrak ito zuen arte. Unzueta eta Izpurak dioten bezala (2001: 389): «Prior de Marquina (1924 - 27 y en 1936, teniendo que renunciar en 1937), de Larrea (1927 - 30 y 1945-48) y de Begoña (1933 - 36). Infatigable predicador en lengua vasca: 19.000 sermones en sus 55 años de ministerio. Fue primer director de la revista vasca 'Karmengo Argia', por lo que fue detenido y encárcelado. Sobreseída su causa en 18-10-1938 fue desterrado a Andalucia, volviendo a la provincia en 1940».

Uribe Ajuriagojeaskoa, Susana (Munitibar 1897 - Etxebarria 1981): Anastasio Zuberogoitia Azumendirekin (1899 - 1979) egon zen ezkonduta, eta gerra hasi zenean, Arbatzegi-Gerrikaitzen bizi ziren. 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zuten Markinako, Xemeingo Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako beste 19 pertsonarekin batera, eta Markinako Kartzelan sartu. Kartzelan sartzeko arrazoiak izan ziren abertzalea zela eta euskaraz hitz egiten zuela. 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean. Kartzelatik ateratzeko baldintza izan zen, atxilotutako 19 pertsonek ordaindu behar zutela jarritako isuna. Guztiek ordaindu arte ez zuten inor atera. Susanak egoera latza zuen kartzelaratu zutenean, 1938an. Urte bete aurrerago, 1937ko apirilean, bere sei urteko seme Jose Antonio desagertutzat eman zuten, Munitibarko bonbardaketan; euren etxea apurtuta gelditu zen bonbardaketa honetan, eta, ondorioz, izeko zahar batekin bizitzera joan ziren Txoribentara. Gainera, senarra Bizkaiko Aldundiko bide konpontzailea zenez, kanpora bidali zuen Francok, apurtutako bideak konpontzera. Bere seme Pedrok gogoratzen du hamar urte zituela nola joaten zen Markinako kartzelara amari bazkaria eramatera, eta han zegoen guardia zibilak (Trescasas izenekoak) esaten ziola: «Rojo mas que rojo, no volverás a ver a tu madre hasta que San Pedro baje el dedo». Kartzelatik atera zenean, etxetik ateratzeko debekua jarri zioten berari eta berarekin batera atxilotu zituzten beste batzueri. Baina familia aurrera ateratzeko bere burua baino ez zuenez, Rikardo Urkieta «Katxera» alkatearengana joan zen, eta zigorra kentzeko eskatu zion, bera «erregatera» zela esanez, eta etxean geratuta ezin zuela familia mantendu. Alkatea konbentzitu egin zuen.

Urionaguena Garro, Jose Sotero - Rafael San Joserena (Ziortza-Bolibar, 1890 - Markina-Xemein, 1975): fraide karmeldarra. Ziortza-Bolibarren jaioa, Alegrixe baserrian, baina bere bizitzako azken 18 urteetan Markina-Xemeinen bizi izan zen (1957 - 1975), eta gure herrian hil zen, 1975eko otsailaren 11n. Larreako karmeldarren komentuko (Amorebieta-Etxano) priorea zen gerra piztu zenean, postu horretan iraun zuen 1937ra arte. 1937ko maia-

tzaren 18an, tropa frankistak Larreako karmeldarren komentuan sartu ziren. Biharamunean, maiatzaren 19an, atxilotu egin zuten, Aita Jose Domingo, Aita Abelino, Aita Bizente eta anaia Eujeniorekin batera, eta lehen hirurak fusilatu egingo zituen Lastra Koronelak, Begoñako basilikako parrokoak parte hartu izan ez balu. Maiatzaren hogeian, Gasteizen kartzelaratu zuten, zaldientzako korta batean. Bi egun geroago, 1937ko maiatzaren 22an, Julian Etxeberria Barrena – Amalio San Luis Gonzagarena (Arlegi, 1889 – Gasteiz, 1972) Gasteizko karmeldarren komentuko priorearen ahaleginei esker, Gasteizko karmeldarren komentura eraman zuten atxilotuta, A. Jose Domingo, A. Abelino, A. Martin eta beste elizgizon batzuekin batera (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 11). Jasan zituen presioengatik, Larreako priore postua utzi egin behar izan zuen. Uztailaren 17an, Begoñako Karmeloko kartzelara ekarri zuten, Aita Jose Domingo, Aita Martin eta Aita Abelinorekin batera, eta epaiketaren zain gelditu zen. Abuztuaren 2an sinatu zuen epaia Tribunalak: 16 urteko kartzela zigorra (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 13). 1940an, berari eta beste fraide karmeldar batzuei sei urte eta egun batera jaitsi zieten espetxealdia eta erdia betea zutenez, beste erdia Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo egindako lan pastoralarekin kitatu ahal izateko aukera eman zieten (Urkiza eta Baraiazarra, 2005: 14). Beraz, 1940ko uztailaren 29ra arte egon zen Carmonako kartzelan, eta baldintzapeko askatasunarekin atera zen. Gero Santanderreko Hoz de Aneroko komentuan bizitzera zigortu zuten. 1942ko uztailera arte egon zen bertan eta gero Gasteizera bidali zuten (1942 - 1945). Urkiza, Unzueta eta Fdz. De Mendiolak dioten bezala: «…se le acusaba de haber sido nacionalista exaltado y de haber hecho propaganda en tal sentido, y de haber dado gracias por escrito al Comandante del batallón 'Rosa Luxemburgo' por la defensa de los religiosos ancianos de la casa parroquial de Echano contra las amenazas de los rojos asturianos» (Urkiza, Unzueta eta Fernandez De Mendiola, 2005: 386).

Urkidi Etxezarraga, Benigno (Dima, 1902 – Markina, 1942): Diman jaioa, baina Markinara etorri zen bizitzera. Kareaga Dorren bizi zen Errepublika garaian. Gerraondoan, atxilotu egin zuten, eta Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan sartu. Ez dakit zenbat denbora egon zen espetxean, baina 1938an behintzat kontzentrazio eremu horretan zegoen. Joan Karlos Larrinaga «Goiko-Bolu» markinarrarekin eta Jose Meabebasterretxe «Larreirekin» bat egin zuen Miranda de Ebron egon zenean. Bere emaztea, Isabel Mandiola Gabiola, zazpi umerekin gelditu zen bakarrik Benigno kartzelara sartu zutenean. Kartzelatik etorri eta urte gutxira hil zen, 1942an, 39 urte zituela. 40 urte egin zituen egunean lurperatu zuten.

Urkidi Salazar, Hermenegildo: markinarra jaiotzez, Durangon bizi zen. Atxilotu, eta epaiketa militarra egin ostean, Larrinagako kartzelan sartu (Badiola, 2011: 190). Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Urkijo Juaristi, Inazio: markinarra jaiotzez, Berrizen bizi zen. Atxilotu, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu zuten. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Urreta Barinaga, Jesusa (1889 - 1958): Bitoriano Ugarte okinaren emaztea. Bere senarrarekin eta Markinako eta Xemeingo beste askorekin batera atxilotu zuten, frankistak herria hartu osteko egunetan, 1937ko apirilaren azkenetan edo maiatzaren hasieran. Berarekin batera atxilotu zituzten Martin Laka, Bitoriano Ugarte, Migel Larrinaga, honen emazte Teresa Gisasola Salegi, Basilio Bollar, Gilermo Barroetabeña Bollar «Txinpas» eta beste batzuk (guztira hamabi bat pertsona), eta egun batzuk Markinako kartzelan egin ostean, hauetariko batzuk askatu egin zituzten, baina beste batzuk Gasteizko kartzelara eraman. Herritarrek diotenaren arabera, Gasteizko Ali-ko eskoletan zabaldu zuten kartzelara. Jesusak bi hilabete egin zituen Gasteizko kartzelan, eta gero Iruñeara desterratu zuten bere senarrarekin batera. Bitoriano eta Jesusa bi urte egon ziren desterratuta Iruñean. Bitorianok okin bezala lan egiten zuen eta Jesusak Las Potxolitas hotelean. 1939ko udan etorri ziren Markinara.

Zabala, Jesusa: Mallabikoa jaiotzez, baina Klaudio Arroitajauregi Totorikaguenarekin ezkondu ostean, Bolunbarri baserrian hasi zen bizitzen. Erramona eta Julia Arroitajauregi

Totorikaguenaren koinata zen. Ez nago ziur, baina pentsatzen dut 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zutela, Markinako, Xemeingo, Ziortza-Bolibarko eta Etxebarriako 19 pertsonarekin batera. Tartean bere koinata Julia Arroitajauregi eta bere senarraren izeko Erramona Totorikaguena. Etxekoek diotenaren arabera, Jesusak gau bat egin zuen kartzelan.

Gerraostean, jaiotzez markinarrak zirenak edo Markinarekin eta Xemeinekin harreman handia izan zutenak ere atxilotu zituzten. Hona hemen hauetariko batzuen izenak:

Agirre Salaberria, Jose Maria (Etxebarria, 1919 – Palma de Mallorka, 2009): Jose Maria Agirre Salaberria Etxebarriako Egixarre baserrian jaio zen 1919an. Bere gurasoak Doroteo eta Raimunda ziren. Bere aita eibartarra zen, eta ama Etxebarriako Egixarre baserrikoa. Jose Mariaren lehengusuak oraindik ere Markina-Xemeinen bizi dira. Berak Markina-Etxebarriakoa zela esaten zuen beti, eta, horregatik, ikerlari batzuek Markinakoa zela diote, baina, egiatan, Etxebarriakoa zen. Jose Mariak hiru urte zituenean, familia osoa Irunera joan zen bizitzera. Raimundaren ahizpa bat, Maria, Irungo Federiko Etxeparerekin ezkondua zegoen, eta Federikok eta Mariak Iruneko etxean solairu bat hutsik zuten. Doroteo eta Raimundak beste zazpi seme-alaba izan zituzten, denak Irunen jaioak: Kontxita, Jose Manuel, Merzedes, Joan Mari, Maria Teresa, Miren eta Maritxu. Bere iloba Etxahun Galparsorok dioen bezala: «Jose Marik Etxebarritik hiru urte zituela alde egin bazuen ere, zendu zen egunera arte Etxebarriako oroitzapen argi bat izan zuen: Ardiak Etxebarriako larreetan. Inoiz ezin izan zituen Etxebarriako ardiak ahaztu eta haurtzaroko oroitzapenik kuttunena izan zen beretzat: zahartzaroan ere negar egiten omen zuen ardi haiekin oroituz. Jose Mari Palmatik Markina eta Irunera bisitan etorri izan zen. Gaur egun Agirre Salaberriatar gehienak Frantzian bizi dira (Chatellerault-en, Vienne departamenduan) eta Agirre Salaberria sendiak oso gogoan dauka familiaren jatorria Etxebarriako Egixarren dagoela (errefuxiatu guztiek bezala)». 1936ko irailaren 4an, Irun frankisten eskuetan jausi zenean, familia osoak Bidasoa zeharkatu zuen, eta Frantziara pasatu zen, beste irundar asko bezala. Dena den, 17 urte zituela, bera eta bere aita errepublikarrek erreklutatu zituzten, frankisten aurka borrokatzeko, eta Port Bou-tik Kataluniara sartu ziren. Berehala, Kataluniako kostaldera bidali zituzten borrokatzera, eta bere aita, Doroteo Agirre, berbertan hil zen. Doroteok emaztea eta zortzi seme-alaba zituen. Jose Maria zen zaharrena. Gerra bukatu zenean, Jose Mariak Frantziara ihes egin zuen. Saint Ciprien-eko kontzentrazio esparruan sartu zuten aurrenengo, eta, gero, Gurs-eko kontzentrazio esparruan. Bigarren Mundu gerra hasi zen, eta alemaniarrak hurbiltzen ari ziren heinean, hainbat euskaldunek, Jose Maria tartean, utzi egin zuten Gurs-eko kontzentrazio esparrua. Dena den, 1940an, alemaniarrek atxilotu zituzten, eta Estrasburgora eraman. Gestapokoek bagoietan pilatu, eta, egun biko bidaiaren ostean, Mauthausen-eko kontzentrazio esparruan (Austria) sartu zituzten; 1940ko abenduaren 13a zen. Markina-Xemeingo Garaian aldizkarian egin zitzaion elkarrizketa batean zioen bezala (Garaian, 17-1995: 28-30): «Ezin da azaldu. Bizitakoa kontatzeko ez dago berbarik… zero azpitik 20 gradutara, uniformedun gazte armatu eta histerikoak, txakur diabolikoekin, gure gainera etorri ziren, eta inork atera ezin zuen toki batean sartu gintuzten. Biluztu, gorputz osoko ileak moztu eta desinfektatu ostean, arraiadun traje bat eman zidaten 4.553 zenbakiarekin, eta, 'aberrigabe' espainiar guztiei bezala, barnean S bat zuen hiruki urdin bat jarri zidaten. Atxilotutako besteak bezala, gaizkile arruntek kudeatzen zituzten barraketariko batera bidali ninduten. Egunero, goizeko seietan jaikitzen ginen, eta kontzentrazio esparruko plazan kontaketa egin ostean, lanera ateratzen gintuzten, zubiak eta bideak egitera edo harrobietan lan egitera. Neguan, zero azpitik 30 gradutan. 1941 eta 1942 urteetan, harrobi batean lan egin nuen, eta nire lagun asko nola hiltzen ziren ikusi nuen. Urte gogorrenak izan ziren». 1945eko maiatzaren 2an hanka egin zuen amets gaizto hartatik,

Ebensee-ko kontzentrazio esparrura eramaten ari zirela, Amerikako Estatu Batuetako tropek Mauthauseneneko presoak askatu aurretxoan (1945eko maiatzaren 5ean). Guztira, 54 hilabete egin zituen Mauthausenen, 1940ko abenduaren 13tik 1945eko maiatzaren 2ra arte. Zabaldu zenetik, 1938ko abuztuan, itxi zen arte, 206.000 pertsona pasatu ziren bertatik, eta horietatik 71.000 pertsona hil ziren gosearen, gaixotasunen edo gehiegizko lanaren ondorioz. Askatasuna lortu ostean, bere familiarekin elkartu zen Frantzian, eta handik Mallorkara joan zen bizitzera. Preso egon zen garaietan, frantsesa eta alemana ikasi zituen, eta, ezagutza hori baliatuz, 1953an Mallorkako hoteletan hasi zen lanean. Gure herriko beste hainbat pertsonari bezala, Jose Mariri asko kostatu zitzaion Gerra Zibilean edo Gurs-eko edo Mauthauseneko kontzentrazio esparruetan bizi izan zituenak kanporatzea. Samina eta tristura handiegiak ziren inori ezer kontatzeko. Alabaina, 80. hamarkadatik aurrera, hainbat hitzaldi eman zituen Mallorkako eskoletan eta ezker alternatiboko taldeen artean. Pedro de Echave, Luis Ortas eta Albert Herranz zinegile eta dokumentalgileek bere historia jaso zuten, Mallorkako telebista publikoak egin zuen *Memoria y olvido de una guerra* dokumentalean. Jose Maria 2009ko irailaren 6an hil zen, Palma de Mallorkan, 90 urte zituela; baina etxebarritar honen memoria bizirik gordeko da, bere historia mingarria kontatzeko izan zuen adoreagatik. Hara zer zioen Andreu Manresak «José Mari Aguirre Salaberría, superviviente de Mauthausen» izenburuarekin *El País* egunkarian argitaratu zuen artikuluan (*El Pais*, 2009-9-10): «Las sonrisas y la emoción se mezclaron extrañamente el pasado lunes en el tanatorio de Palma de Mallorca mientras era incinerado el cuerpo de José Mari Aguirre Salaberría (Markina, 1919), vasco expansivo y republicano evidente que falleció el día anterior, 6 de septiembre, en el hospital General de Mallorca, con las piernas muy maltrechas y el corazón vencido. Libertario antifranquista, tardó 35 años en hablar de su supervivencia de cuatro años y medio -»54 meses», decía- en el campo de exterminio nazi de Mauthausen. «Guardé silencio. Sólo se lo explicaba a mi mujer, Sarah», detalló aquel que no quiso ser reducido a un número, el 4553. «Fuera de España no había españoles», determinó sobre él y decenas de miles el ministro de Franco Serrano Súñer. Recorrió Mallorca dando charlas pedagógicas por colegios y círculos de la izquierda alternativa. Se instaló en la isla en 1953 para trabajar en hoteles turísticos gracias a su dominio del francés y del alemán forzado por las circunstancias. Una noche fría, a los 85 años, en Pollença, cerró su narración para nada protagonista ni escabrosa con una invitación a cantar. La audiencia juvenil había enmudecido tras su relato vital, su travesía individual por la trágica historia del siglo XX que para él comenzó cuando se fue a la guerra con su padre, salió derrotado y pasó la frontera de Francia para ser recluido en el campo de Saint Ciprien y después deportado a Mauthausen. Tras la versión de una tragedia, desde su fortaleza vital recuperada y sostenida gracias al deporte de la pelota, se atusó el pelo blanco largo y la barba aún contestataria y empezó jocosamente: «¡Las vacas del pueblo ya se han *escapau, riau, riau!*». Una bandera de la República presidía la sala y él llevaba otra sobre el pecho, en el jersey. «De España, nada» Resistió al horror, tuvo suerte y tiempo para contarlo y prolongó el rastro colectivo de sus recuerdos, desde su condición de víctima, y en nombre de millones de aniquilados. La República Federal de Alemania (RFA), tras años de reclamaciones, le pasó 650 euros mensuales de indemnización. «De España, nada», recordó su viuda. Aguirre deja muchos papeles por ordenar. En 2005 escribió al presidente José Luis Rodríguez Zapatero antes de que éste fuera al campo de exterminio. «Todo alemán de más de 60 años ha de conocer forzosamente la existencia de aquella infamia. Nos veían uniformados, famélicos, de un sitio para otro, en batallones de trabajo», decía sin angustia y amenidad. Los anarquistas de Palma de L'Estel Negre de la CNT le dieron cauce, y los cineastas y documentalistas Pedro de Echave, Luis Ortas y Albert Herranz recogieron su mirada en el excelente serial -notarial- de la televisión pública Mallorca TV *Memoria y olvido de una guerra*. «Los SS amaban a sus hijos, escuchaban a Wagner y calculaban cómo era más rentable y rápida nuestra eliminación», lamentaba. Se fugó mientras era conducido al campo de Ebensee cuando llegaban las

tropas estadounidenses para la liberación. José Mari Aguirre nunca se despertaba sin toparse con un techo de plomo, escenas de pánico. En su cautiverio hinchaba los mofletes para no parecer famélico y esquivar la sentencia final y, además, tuvo la complicidad de un médico catalán, Pere Freixes, para evitar la inyección mortal de gasolina en el corazón. Su familia enterró la urna con sus cenizas al pie del limonero que veía desde la cama de su habitación, en la casita del barrio popular de Son Roca. Las últimas semanas, Aguirre recuperó cierta memoria del euskera y susurraba entre sus tinieblas a su madre muerta» (Iturriak: Jose Mariren ahaideak: Etxahun Galparsoro, Vivanco…).

Beotegi, Jose Maria: abertzalea. Jaiotzez Ibarrangelukoa, baina Errepublika garaian, Markinako maisua izan zen. Gerra garaian, lan asko egin zuen Markinako guda lerroa antolatzen eta abertzaleen eta ezkertiarren ihesaldiak prestatzen. Donostian atxilotu ei zuten, eta kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Carnicero, Frantzisko: Errepublika garaian, Gorozikako maisua zen. 1936ko urriaren bigarren erdian, Euzkadiko Gerrako Sailburuak Markinako Plaza Militarreko epaile militar egin zuen (Onaindia, 1937: 15). 1936ko urritik 1937ko apirilaren 27ra arte, Markinan egon zen bizitzen, eta frankistak herrian sartu zirenean, 1937ko apirilaren 27an, Bilbora ihes egin zuen. Ez gaude ziur atxilotu zuten edo ez. Dakiguna da 1937ko uztailaren 9an, Francok maisutzatik bota zituen Bizkaiko maisuetariko bat izan zela (Egaña, 2000, VII. tomoa: 208).

Gallastegi Telleria, Felipe «Elgeta» (Elgeta, 1905 – Markina-Xemein, 1982): Elgetakoa zen jaiotzez, baina gerraondoan Markinara etorri zen bizitzera. Ez dakit noiz atxilotu zuten, baina 1938an Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan zegoen. Bertan bat egin zuen Joan Karlos Larrinaga Gisasola «Bolurekin», Jose Meabebasterretxea «Larreirekin» eta Benigno Urkidi Etxezarraga «Kariarekin».

Iturriotz Iztueta, Patxi (Ordizia, 1900 – Ordizia, 1974): Ordiziarra zen jaiotzez. Errepublika garaian, Ordiziako alkatea (EAJ) izan zen, baina Gipuzkoa frankisten eskuetan jausi zenean, Bizkaira ihes egin zuen. 1936ko urriaren bigarren erdian, Euzkadiko gerrako Sailburuak Markinako Plaza Militarreko idazkaria egin zuen. 1936ko urritik 1937ko apirilaren 27ra arte, Markinan egon zen bizitzen, eta frankistak herrian sartu zirenean, 1937ko apirilaren 27an, Bilbora ihes egin zuen. Bertan atxilotu, eta epaiketa militarra egin ostean, Puerto de Santa Mariako kartzelan sartu zuten hiru edo lau urtez. Alberto Onaindiak dioen bezala: «Después de la segunda quincena de Octubre de 1936 fue nombrado Delegado de Plaza de Markina por el Consejero de Guerra de Euzkadi Xanti Meabe, contra la voluntad del Partido Nacionalista, ya que las autoridades locales protestaron de este nombramiento antes y despúes de efectuado. Añadiendo un Secretario al Delegado para que le pudiera contener dentro de la prudencia D. Francisco Iturrioz alcalde de Villafranca de Gipuzkoa (Onaindia, 1937: 15).

Onaindia Baseta, Santiago – Santiago Deikundearena (Amoroto, 1909 – Gasteiz, 1996): Amorotoko Atxuriarte baserrian jaio zen, baina bere burua markinartzat zuen, gurasoak markinarrak zirelako, eta asko egoten zelako Markinan. Gerratean, bere gurasoak Markinan bizi ziren, eta hil ere hemen hil ziren. Bere ama, Jazinta Baseta Albizuri, Markinan hil zen 1953an 79 urte zituela, Abesuako Onaindi-Txiki etxean; baita bere aita ere, Migel Onaindia Barrutia, 76 urte zituela. Santiago Kirikiño batailoiko kapilaua izan zen. Abuztuaren amaieran atxilotu zuten, eta Santoñako Duesoko kartzelan sartu. 1937ko irailaren 9an, epaiketa militarra egin zioten, eta 30 urteko betirako kartzela zigorra jarri. Zazpi hilabete egin zituen kartzela honetan, eta, 1938ko martxoaren 29an, Iruñako (Langraiz Okako) kartzelara eraman zuten. Egun gutxira, Begoñako karmeldarren komentuan atxilotuta zeuden beste bederatzi karmeldar ere eraman zituzten kartzela honetara (Urkiza, Unzueta, eta Fernandez de Mendiola, 2005: 388). Santiagori anaia hil zitzaion frontean borrokatzen 1937ko irailaren 28an: Valentin Onaindia Baseta (1914 - 1937), San Inazio Errekete Tertzioko soldadua. Valentin San Inazio Tertzioko lehen defuntua izan zen (Arostegui, 1991, II. tomoa: 68). Markinako kanposantuan lurperatu zuten.

V. ERANSKINA: KARTZELAN EDO KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN GAIXORIK HIL ZIREN HERRITARRAK

Aginaga Ugalde, Benito «Mendaro» (Mendaro, 1874 – Gasteiz, 1937): Markinako udalean sartu zen lehenengotariko zinegotzi abertzalea izan zen; hain zuzen ere, 1911n. Geroago, bere anaia Teodoro ere (1867 - 1930) zinegotzi abertzalea izan zen. Bere anaiekin batera, Benitok arotzeria bat zuen Abesuan, eta gero Okerra kaletik Osteko kalera joateko dagoen etxartean. Francoren tropak sartu osteko egunetan, maiatzaren hasieran, atxilotu, eta Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Gasteizera eraman zuten. 1937ko ekainaren 29an, ospitale militarrean sartu zuten, eta uztailaren 4an hil zen ospitalean bertan, bronkoneumoniaz. Eusko Jaurlaritzako web orriaren arabera, fusilatu egin zuten[12]. Familikoek ez dakite zehatz mehatz zer gertatu zen. 1933ko urtarrilaren hogeiko udal hauteskundeetan, Benito Aginaga, mahaiko lehendakari zegoen hauteskunde mahaian, eta ez zion utzi bozkatzen Alejandro Gaitan de Aialaren emazteari, Maria Juliana Costa Anunzibairi, bere izena ez zelako ondo agertzen erroldan. Ondorioz, iskanbila izugarria egon zen tradizionalisten eta abertzaleen artean. Iskanbila horretan, norbaitek bozka ontzia apurtu zuen, eta Asaltoko guardiak etorri behar izan zuten bakea berrezartzera. Hauteskundeak balio gabe gelditu ziren Markinan, eta Gobernadoreak batzorde kudeatzaile bat aukeratzea eskatu zuen. Gerratean, Benito Aginaga Markinako Udal Epaile izendatu zuten (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua: 1936062 - 09/12/1936), eta izugarrizko ahaleginak egin zituen atxilotzen zituzten tradizionalistak eta eskuindarrak askatzeko. Hobeto esanda, lan asko egin zuen Gaitandarrei ihes egiten lagundu ziotenak askatzeko. Berak egindako presioen ondorioz, atxilotutako gehienak berehala etorri ziren etxera. Alabaina, frankistak herrian sartu zirenean, atxilotu eta epaiketa militarra egin ostean, Gasteizko kartzelan sartu zuten, eta hil batzuetara bertan hil zen gaixorik. Beste batzuen arabera, baina, fusilatu egin zuten. Hara zer dioen Pedro Onaindiaren txostenak Benito Aginagaren heriotzari buruz: «…ha muerto en la cárcel de Vitoria el que era juez municipal del citado pueblo de Markina y no actuó más que para sacar de la cárcel a quien complicado en la fuga de los Gaitanes fue detenido, teniendo éxito en su empeño» (Bidasoa, 2005: 715). Maria Garate Gallastegirekin (1875 - 1953) egon zen ezkonduta. Mariari ilea moztu zioten, eta bere alabak, Elixabete aginaga Garatek, Frantzian errefuxiatu behar izan zuen, hamar bat urtez, 1937tik 1947 edo 1948ra arte.

Cazalis Areitio, Rikardo «Cazalis Mayor» (Xemein, 1892 – Argelés, Frantzia, 1939): Segundo, Joan eta Patxi Cazalis Areitioren anaia zaharrena zen. 1910ean egin zen pilotari profesional, eta gerra hasi zen arte Estatuko eta atzerriko hamaika frontoitan jokatu zuen. Bartzelonan bizi zen gerra hasi zenean, baina Bartzelona Francoren eskuetan jausi aurretxoan, Frantzian errefuxiatu zen. Argelés-eko errefuxiatuen kontzentrazio esparruan sartu zuten, eta bertan gaixotu ostean hil zen, 1939an. Bere seme bat, Rikardo Cazalis «Rikardito», frontean borrokatzen zendu zen. Alberto Onaindiak Bartzelonan ikusi zituen azkenenekoz Rikardo eta Segundo Cazalis Areitio pilotariak: «Asistí en el frontón a un partido de pelota de cesta-punta, a beneficio, evocando recuerdos de mi pueblo natal Marquina, de cuyo frontón han salido los Erdozas, Cazalis, Marcelino, Amorotos, Guillermo, y tantos otros campeones de esta especialidad de la pelota vasca. Allí saludé por última vez a los hermanos Segundo y Ricardo Cazalis, de familia bien anticlerical de mi pueblo, con quienes departí en gratísima tertulia viviendo viejos recuerdos de nuestra niñez y juventud. A la caída final del frente republicano, Ricardo se refugió en Francia. Un día su hermano Juan vino a verme en París y me pidió que interviniera urgentemente para sacar a un hospital a Ricardo

[12] http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47contmh2/es/contenidos/informacion/listado_personas_desaparecidas/es_memoria/a_listado_personas_desaparecidas.html

que se encontraba en el campo de Argelés, y enfermo. Los servicios vascos funcionaron con rapidez extraordinaria. A las pocas horas Ricardo moría al llegar al Hospital agotado de cansancio, de hambre e inanición. Llevaba en su cartera más de 50.000 francos de 1939, que para nada le sirvieron, porque era tal la avalancha de huidos, tan difícil y complejo llegar a ayudar a todos, que no pocos murieron víctimas de las terribles circunstancias. Dos años antes había perdido a su hijo Ricardito luchando en el ejército republicano. Al decirle yo en el frontón que al día siguiente celebraría una misa por su hijo, Ricardo me apretó fuertemente la mano, y no pudo contener las lágrimas» (Onaindia, 1980: 456).

Ugarteburu Anitua, Inazio (1890 - 1938): 1936an, EAJ-ko zinegotzia zen Markinan, eta Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuen, guda lerroa Markina inguruan geldirik egon zen zazpi hilabeteetan. Zelaiaren parean bizi zen, Arkupeko etxean. Francoren tropak sartu aurretik, Bilbora ihes egin zuen, baina gero bueltatu egin zen, ezer ez zitzaiola gertatuko pentsatuta. Ekainaren bukaeran edo uztailaren hasieran, Zabala jauregian zegoen komandantziara deitu zioten, eta lehenengo libre utzi bazuten ere, handik ordu batzuetara atxilotu zuten. Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Larrinagako kartzelara eraman zuten. Epaiketa militarra egin zioten Bilbon, 1937ko uztailaren 9an, Hilario Aretxabaleta, Txomin Aretxabaleta eta Benito Muñozekin batera. Hilariori, Txomini eta Inaziori heriotza sententzia eman zioten, baina uztailaren 13an, Inazioren eta Txominen kasuak berrikusi zituzten, eta biei betirako kartzela zigorra jarri zieten (Airmn, 140-1944 txostena). Bilbotik San Kristobal gotorlekura (Iruñea) eraman zuten 1937ko irailaren 1ean, eta berbertan hil zen, 1938ko urriaren 10ean, 46 urte zituela. Antsoain Zendean (Nafarroa) lurperatu zuten. Bere heriotzaren txostenak dio tuberkulosiagatik hil zela (Sierra eta Alforja, 2006, eranskineko 6. artxiboa). Inazio tailer mekanikoa eta aroztegia zituen Abesuan. Joana Eizagirre Alkortarekin (Perran bizargile eta fotografoaren alaba) egon zen ezkonduta. Bere aita, Martin, ere arotza izan zen.

Muñoz Azpeitia, Benito (Markina, 1894 – Iruñea, 1938): Igeltseroa. Errepublika garaian, Markinako Batzorde sozialistako lehendakaria izan zen, eta gerratean, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordeko kidea. Markina inguruan hainbat trintxera eta metrailadore etxe egin zituen (besteak beste, Zapolakoak). Francoren tropak herrian sartu baino aurretik ihes egin zuen, bere familiarekin. Dena den, Munitibar bonbardatu eta bi egunetara, emaztea eta bi seme-alaba gazteenak etxera bueltatu ziren. Benito, bere seme Jose Maria (Markinan jaioa 1922an) eta alaba Luzia Muñoz Elustondorekin (Markinan jaioa 1924an) batera, Bilbora joan zen. Bertan egon ziren bizitzen Bilbo frankisten eskuetan jausi zen arte (1937ko ekainaren 19ra arte). Gero, Markinara bueltatu ziren. Handik lasterrera, ekainaren bukaeran edo uztailaren hasieran, Benito atxilotu egin zuten. Hain zuzen ere, Gregorio Duralderekin batera atxilotu zuten. Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Bilboko Larrinagako kartzelara eraman zuten. Epaiketa militarra egin zioten Bilbon, 1937ko uztailaren 9an, Hilario Aretxabaleta, Txomin Aretxabaleta eta Inazio Ugartebururekin batera. Hilariori, Txomini eta Inaziori heriotza sententzia eman zieten (gero sententzia berrikusi egin zen, eta bakarrik Hilariori mantendu zioten heriotza sententzia) eta Benitori betirako kartzela zigorra (Airmn, 140-1944 txostena). 1937ko irailaren 1ean, San Kristobal gotorlekuan (Iruñea) eraman zuten. Bertan hil zen gaixorik, 1938ko otsailaren 1ean, 43 urte zituela. Antsoain Zendean lurperatu zuten (Sierra eta Alforja, 2006, eranskineko 6. artxiboa)[13]. Bere heriotzaren txostenak dio bihotza gelditu zitzaiolako hil zela.

---

[13] «Ahaztuak 1936 - 1977» elkartearen web orrian irakurri daitekeen bezala: «Las investigaciones llevadas a cabo por la «Asociaciòn de Familiares de Fusilados de Navarra» y «Txinparta Elkartea» han permitido descubrir que 203 personas que murieron, bien fusiladas o en otras circunstancias, en el Fuerte de San Cristóbal durante la Guerra Civil o en los dos años siguientes fueron enterradas y están registradas en los cementerios de los pueblos de la cendea de Ansoáin. De estas 203 personas, 80 son caste-

VI. ERANSKINA: FRANCOREN ALDEKO TROPEK FUSILATUTAKO MARKINARRAK, XEMEINDARRAK ETA INGURUKO HERRIETAKOAK

Aretxabaleta Arriola, Hilario (Markina, 1888 - Derio, 1937): Erloju-konpontzailea zen, eta gaur egun Zelaiko ziburuak dauden pareko etxearen lehenengo solairuan erlojuak saltzen eta konpontzen zituen. Emilia Aginagarekin zegoen ezkonduta. Etxearen beheko pisuan bere emaztearen familiak estanko-denda bat zeukan: Manu «Antsoteiren» (1862 - 1929) estanko, abarketa denda eta bizartegia (Garaian, 4, 1989: 38).

Hilario EAJ-ko militantea zen (Egaña, 2000, III. tomoa: 263) eta Markinako EAJ-ko lehendakaria. Horregatik eta Markinan sortu zen Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuelako fusilatu zuten Derion, 1937ko uztailaren 21ean. Andreari eta seme-alabei zuzendutako eskutitz bat dago, 1937ko uztailaren 21eko datarekin.

Itxura denez, frankistak herrian sartu aurretxoan ihes egin zuen bere anaia Txominekin batera. Lehenengo Bilbon egon ziren, eta gero Cantabria ingurura ihes egin zuten. Dena den, gau batean, ekainaren bigarren hamabostaldian, bueltatu egin ziren. Hilariok seme-alabei eta emazteari agur esan zien gauean, eta hurrengo goizean Zabala etxean zegoen komandantzia militarrean aurkeztu zen. Asaltoko Guardiek atxilotu zuten, eta Markinako kartzelan sartu. Ostean, Larrinagako kartzelara eraman zuten, eta Derion fusilatu, uztailaren 21ean.

Bere heriotza sententzia 1937ko uztailaren 9an sinatu zen. Honako hau esaten da heriotza sententzia oinarritzeko: «Que iniciada la rebelión rojo-separatista de la provincia de Vizcaya, en el pueblo de residencia de los procesados se constituyó un llamado Comité de Defensa rojo-separatista integrado por elementos destacados del pueblo afiliados al Frente Popular, en cuyo Comité formaban parte los destacados nacionalistas y propagandistas de dicho (idearío?) Hilario Arechabaleta Arriola, su hermano Domingo e Ignazio Ugarteburu, el cual fue afiliado al Partido (Carlista/Nacionalista?), aún cuando después se dio de baja con anterioridad a nuestro movimiento, Muñoz Azpeitia, (continúa)... actúa como tal en el referido Comité. Asimismo, el procesado Hilario Arechavaleta fue presidente del Batzoki y Delegado del Partido Nacionalista».

Fusilatu ostean, eta sententziak adierazten zuen isuna ordaintzeko, estankoaren lizentzia kendu zioten familiari, baita etxean zituzten ondasun eta altzari guztiak bahitu ere. Guardia Zibila lau edo bost aldiz sartu zen bere etxean, gauzak erregistratuz eta dena hankaz gora jarriz. Hara zer zioen Pedro Onaindiak: «En Markina han fusilado por ser Presidente de la Junta Municipal Nacionalista un padre de siete hijos, que al decir de mi hermano sacerdote, D. Domingo Onaindia, coadjutor de Markina, era uno de los mejores feligreses de la Iglesia…» (Bidasoa, 2005: 715). Don Elias abadeak ere gauza bera esaten zuen *Garaian* aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean: «…no le conocía, pero oía hablar de él como uno de los hombres mejores del pueblo» (Garaian, 20, 1997).

Loiola eizagirre, Joan «Joan Zumarra» (1903 - 1937): Xemeingoa zen, eta latoneroa. Artibai kalean latoneria bat zuen Lorenzo Azpirirekin (1902 - 1981) eta Joan Ugartetxearekin

---

llanos, 30 de Galicia, 25 de la Comunidad Autónoma Vasca, 17 de Andalucia, 17 de Madrid, cinco son de Navarra y el resto de otros puntos del Estado como Asturies, La Rioja, Extremadura... y de otros paises como Portugal, Cuba, Argentina o Venezuela. Estas 203 nuevas identidades -ninguna de ellas relacionadas con la fuga de 1938 - se suman a las de las 131 presos que fueron enterrados en el cementerio habilitado junto al Fuerte, por lo que en este momento se conocería ya el paradero de 334 presos que pasaron por este fuerte, uno de los mas representativos de la represión franquista.

…Los 203 cadáveres se encuentran repartidos en doce cementerios de localidades próximas al monte de San Cristóbal, como Berriosuso, Berrioplano, Ártica, Ballariain, Elkarte, Berriozar, Ansoáin o Aizoáin, «en los pueblos que antaño pertenecieron a la Cendea de Ansoáin»…

(1904 -) batera (Garaian 4, 1989: 43 eta Juaristi, 2008c: 27-31). Gerratean, Xemeingo idazkari lanak egin zituen. Francoren tropak sartu aurreko egunean, apirilaren 26an, hanka egin zuen Bilbora, bere bazkidea eta laguna zen Joan Ugartetxearekin (Joan Padarra) batera. Bilborako bidean, Gernika erretzen ikusi zuten. Bilbora heldu ostean, Artxandara joan ziren, Burdinazko Gerrikoa zaintzera. Bilbon zeudela, Joan Zumarrak esan zion ez zutela ezer txarrik egin, eta etxera bueltatu behar zutela. Joan Padarrak esan zion bueltatzea oso arriskutsua izan zitekeela, kontuan izanik abertzaleak zirela eta frontea geldirik egon zen hiletan erantzukizun politikoak izan zituztela. Hala ere, Joan etxera bueltatu zen, eta, Xemeinen agertu eta egun gutxira, atxilotu egin zuten, eta Markinako kartzelan sartu. Gero Larrinagako kartzelara eraman zuten. Lehen galeriako 19. ziegan egon zen. 1937ko irailaren 8an bere emaztegaiaren, Maria Garateren, bisita izan zuen eta biharamunean, irailaren 9an, Derion fusilatu zuten, eta bertako kanposantuan lurperatu (Badiola, 2011: 196). 34 urte zituen. Heriotza sententziak zioen «abertzale sutsua» zela. Horretaz gain, 1933ko hauteskundeetan hauteskunde-mahaian zegoen norbait jotzea leporatzen zioten. «Joan Loiola eizagirre, vecino de Xemein y *furibundo separatista* según el fiscal del consejo de guerra que le juzgó, fue condenado a muerte 'por agredir a uno de los componentes de una mesa electoral en 1933'. Fue fusilado en Derio el 9 de setiembre de 1937» (Egaña, VII. tomoa, 219).

Murua Garramiola, Ramon «Txirrikiton» (1914an jaioa, Markinan, 1935eko kintoa): ez daukagu informazio askorik pertsona honi buruz. Dakiguna da bere aitak, Anjel Muruak, «Txirrikiton-ek» arotzeria bat zuela Okerra kalean dagoen Argoitiaren etxearen azpian, eta familia osoa Bilbora joan zela bizitzera, gerra hasi aurretik. Badirudi frankistek gerrara eraman zutela, baina errepublikarren aldera pasatzen ari zela, frankistek atxilotu egin zuten, eta ostean fusilatu. Ez dakit non eta noiz gertatu zen hori. Bere anaia Josek Itxarkundia batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 285).

Mallukiza Aldaolea, Anbrosio (Munitibar, 1888 – Derio, 1937): jatorriz Munitibarkoa, Markinan bizi zen. Frantziska Mikaela Eusebia Legarra Urriolabeitiarekin (1880 - 1949) zegoen ezkonduta. Pitis eta Legarraren bitartean dagoen etxe azpian taberna, denda, ostatua eta bizartegia zuen (Garaian, 4, 1989: 40). Berbertan elkartzen ziren garai hartako errepublikazale, sozialista eta ezkertiar asko. Izan ere, Anbrosio Izquierda Republicana-ko militantea zen 1934tik, eta gerra piztu zenean, Errepublikaren Defentsarako Herri Batzordean parte hartu zuen. Halaber, gerratean egin zen Udal berrian, Herri Fronteko zinegotzia izan zen. Frankistak herrian sartu zirenean, bere familiak alde egin zuen, baina bera negozioa zaintzen gelditu zen. Atxilotu egin zuten, eta, epaiketa egin ostean, heriotza sententzia eman zion epaileak, 1937ko uztailaren 30rean. Ingurukoak mugitu ziren, heriotza sententzia kentzeko asmoarekin, eta epaiketa berria lortu zuten, baina epaileak berriro ere heriotza sententzia eman zuen, 1937ko abuztuaren 3an (Ferrol, 223-37 txostena). Derion fusilatu zuten 1937ko irailaren 16an, Santa Eufemia egunean, eta bertako kanposantuan lurperatu (Badiola, 2011: 196). Fusilatu ostean, herriko FET-JONS-eko kide batek dendan zituen gauza guztiak hartu, eta bere denda zabaldu zuen. Anbrosioren anaia Anastasio Munitibarko EAJ-ko zinegotzia izan zen Errepublika garaian, eta horregatik atxilotu, eta kartzelan egon zen denboraldi batez. Aske gelditu zen 1938ko ekainaren 9an.

Onaindia Zuluaga, Zelestino (Markina, 1898 - Hernani, 1936): Erdiko kaleko 15. etxean jaio zen. Onaindia Zuluaga familiako nagusiena. Gerra piztu zenean, abade laguntzailea zen, Elgoibarko San Bartolome parrokian. 1936ko urriaren 21ean, Elgoibarren atxilotu zuten militarrek Jose Peñagarikano abadearekin batera, eta Ondarretako espetxean sartu. Handik gutxira, urriaren 28an, fusilatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik izan gabe, eta Hernaniko kanposantuan abadeentzako prestatuta zegoen hobi komunean lurperatu zuten (Onaindia, 1980: 39, ikusi ere Aita Onaindia, 1988: 204). Aizpurua, Apaolaza, Gomez eta Odriozolak dioten bezala (2007: 305): «Txosten frankistaren arabera, oso arriskutsua zen; honela definitzen dute: 'mala conducta, y estaba conceptuado como extremadamente separatista, hablando

públicamente en contra de la Causa Nacional'. Espioitza ere leporatu zioten…». Zelestino Onaindiaren heriotzari buruz zera esan zuen bere anaia Pedro Onaindiak: «El Sr. Párroco de Elgoibar después de haber contribuido positiva y negativamente –como sabe todo el pueblo- al fusilamiento de mi hermano sacerdote, dijo a los sacerdotes de Markina que el buen Zelestino tenía en su casa un arsenal de armas y municiones. Esto es absolutamente falso, nada tiene de extraño, que los fieles de Elgoibar se acerquen al confesionario a decir al párroco en confesión, porque de otro modo tienen sus represalias, que es un asesino y que celebra sacrilegamente la misa» (Bidasoa, 2005, Pedro Onaindiaren txostena: 716). Zelestinoren lobak, Jon Onaindiak, kontatzen duen moduan[14], Franco hil ostean, bera eta Carmen, Alberto eta Domingo Onaindia anai-arrebak Covadonga ezagutzera joan ziren. Domingo bertako abade batekin hitz egiten hasi zen, eta hark esan zion nola bera erreketeen kapilau izan zela gerratean, eta Elgoibarren egon zen egun batean, erreketeek abade bat atxilotuta zeramatela ikusi zuela. Erreketeek esan omen zioten fusilatu egin behar zutela, eta berak esan omen zien atxilotzeko, baina ez fusilatzeko. Abade horrek Domingori esan zion nahiko lukeela abade haren berri izatea, eta Domingok erantzun zion abade hura bere anaia izan zela eta fusilatu egin zutela. Abadea lur jota gelditu zen. Biharamunean, abadeak deitu egin zien, eta barkamena eskatu, modu koldarrean jokatu zuelako, eta abadea behar bezala babestu ez zuelako.

Sagarna Uriarte, Jose (Zeanuri, 1911 - Markina, 1936): 1935eko ekainaren 28an, Jose Sagarna abade gazteak lehen aldiz eman zuen meza Zeanurin, eta egun horretan bertan hartu zuen Larruskaingo parrokiaren ardura. Horrekin, auzo honetako 249 biztanleen arimazain bihurtu zen (Gorosabel, 2006: 114). Jose Sagarnak 22 urte zituen Larruskainera heldu zenean, ekainaren 29an, eta Julian Etxebarrieta Lejarzegi abade mendatarraren tokia hartu zuen. 1936ko ekainean, Gasteizko gotzaindegitik Larruskain utzi eta Berriatura aldatzeko agindua hartu zuen Josek, eta bere tokian Joseba Andoni Urresti ondarrutarra jarri zuten. Baina guda lerroa 1936ko urriaren 4an, Arrosario domekan, heldu zen Berriatuko eta Larruskain inguruko mendietara, eta Joseba Andoni Urrestik ihes egin zuen Frantziara. Jose Sagarnak ere pentsatu zuen ihes egitea, baina Don Domingo abadeak gelditzeko konbentzitu zuen, ezer ez zuela egin eta ez zitzaiola ezer gertatuko esanez. 1936ko urrian, Jose Sagarnak Larruskaingo parrokiaren ardura hartu behar izan zuen. Urriaren 8aren bueltan, Berriatutik Amallora joatea erabaki zuen, baina ezin izan zuen Pertika baserritik aurrera joan, oraindik frontea finkatu gabe zegoelako, eta pasatzea arriskutsuegia zelako. Beraz, Pertikan gelditu zen bederatzi egunetan. Frontea finkatu zenean, Pertika matxinatuen kontrolpean gelditu zen, eta Jose Sagarnak Larruskainera pasatzeko igaro baimena lortu zuen, abadea zela eta Larruskaingo parrokiaren ardura zuela esanez (Gorosabel, 2006: 115). Urriaren 17an, zapatuan, heldu zen Larruskainera, eta biharamunean, urriaren 18an, meza eman zuen bertako elizan, goizeko zortzietan. Gerra hasi aurretik, Larruskain Errota baserrian egon zen apopilo, baina etxe hau beteta zegoenez, Amallogarai Goikora joan zen lo egitera. Larruskain Errota baserrian Amulategi baserrikoak zeuden, Zabala familia. Familia honek ihes egin behar izan zuen Amulategi baserritik, matxinatuek aginte postua eta sektoreko komandantearen etxebizitza jarri zituztelako bertan (Gorosabel, 2006: 115). Urriaren 19an, astelehenean, Sagarna atxilotu egin zuten Molina komandantearen aginduz, eta Mandiola Goikoa aginte postura eraman zuten preso. Abadearekin batera eraman zituzten atxilotuta aurreko gauean lo egin zuen baserriko gizonak; hau da, Amallogarai Goikoako Frantzisko Txurruka Arriola eta honen emaztearen neba, Inazio Etxaniz Jemein. Amallogarai Goikoa baserrian Frantziskoren emaztea, Josefa Etxaniz, eta hauen lau seme-alabak gelditu ziren. Sagarna abadea Mandiola Goikoa baserriko kortan sartu zuten lotuta, eta bertan pasatu zuen 19tik 20rako gaua. Lotuta zegoela, Manuel Alzibararetxuluaga joan zitzaion ikustera, eta orduan jakin zuen Josek nor zen bere salatzailea, eta zer-

[14] Radio Euskadin ere kontatu zuen historia hau 2009ko uztailaren 9an.

gatik zegoen preso. Atxilotzeko arrazoia mendekua zen. Sagarna abadeak Manuel Alzibararetxuluagak Larruskaingo maistrarekin zuen harremana salatu zuelako, bere etxean bizitzeari uko egin ziolako eta bere ilobari sakristau postua kendu ziolako salatu zuen (Gorosabel, 2006: 114). Gainera, badirudi sermoiren batean, ezkontzatik kanpoko harremanen aurka hitz egin zuela, izenik eman gabe (Pérez Esteban, 2008: 155). Honegatik guztiagatik, Manuel Altzibaretxuluagak salatu egin zuen, eta ostean soldaduek atxilotu. Gaua Mandiola Goikoa baserrian egin ostean, urriaren hogeiko goizean, martitzenean, fusilatu zuten frankistek Amulategi baserriaren inguruan. Fusilatzeko Mandiola Goikoa baserritik Amulategi baserrira jaitsi zuten, Josek Larruskaingo elizara begira hil nahi zuela eskatu zuelako. 24 urte zituen hil zutenean. Ostean, Larruskaingo kanposantura jaitsi zuten, manta batekin estalita. Amallogarai Goikoa baserrikoek ikusi zuten hildako norbait manta batekin tapatuta jaisten, baina ez zuten ezagutu. Alboko baserriko Jose Maria Lizundiak oinetakoengatik ezagutu omen zuen Jose Sagarna abadea zela hildakoa. Soldadu frankistek eurek lurperatu zuten abadea, Larruskaingo kanposantuan, eta egurrezko gurutze xume bat jarri zioten (Gorosabel, 2006: 116). Jose Sagarna abade euskaltzalea zela badakigu (euskaraz irakurtzen zuen, euskaraz ematen zuen sermoia eta dotrina…), eta pentsatzekoa da abertzalea ere bazela. Manuel Alzibararetxuluagak errepublikarren alde espioitza lanak egiten zituela salatu zuen, baina, esan bezala, benetako arrazoia mendekua zen. Urteetan auzoko jauntxoa izandakoak horrela mendekatu nahi izan zuen abadeak egindako mesprezua (Gorosabel, 2006: 112-117). 1936ko urriaren 21eko goizeko zazpietan, eguaztenean, militar matxinatuak gosaltzen zeuden Mandiola Goikoako aginte postuan. Egixarreko bataila prestatzeko, errepublikarrek obusak bota zituzten gaur egun Etxano taberna dagoen ingurutik (Irarraga), eta Mandiola Goikoa baserriko horma zulatu eta sukaldera arte sartu zen. Eztandak Molina hartu zuen bete-betean, eta izterra eta mokorra apurtu zizkion. Azpeitiko ospitalera eraman zuten, baina handik gutxira hil zen. Molina zendu zen egunean, urriaren 21ean, jakin zuten Amallogarai Goikoako andreak bere senarra eta osaba Elgoibarren zeudela. Handik hilabetera agertu ziren etxean.

Sanchez Pesado, Jeronimo (Pollensan, Mallorka, jaioa, eta Derion fusilatua, 1937an): Mallorkakoa zen, baina denboraldi luzeak egiten zituen Markinan. Lanbidez, traperoa zen. Gaur egun Etxano taberna dagoen etxearen alboko txabola batean bizi zen, bakarrik. Markina eta Xemeingo frontean zeuden milizianoentzako janaria eta behiak bahitzen ibiltzen zen, baserriz baserri. Horregatik, izen txarra hartu zuen baserritarren artean. Salatu egin zuten, eta, epaiketa egin ostean, fusilatu. Tomas Gerrikagoitiak esaten duenaren arabera, pentsatzekoa da Jeronimo ere 1937ko irailean, Santa Eufemia egunaren bueltan, fusilatu zutela (Gerrikagoitia, 2000: 86).

Ziortza-Bolibarko fusilatua

Egurrola, Bonifazio «Agarre» (Ziortza-Bolibar, 1899 – Derio, 1937): Ziortza-Bolibarko Ziarrei auzoko Agarre baserrian bizi zen. Ideologia ezkertiarrekoa zen. Gerratean, Errepublikaren Aldeko Batzordean parte hartu zuen eta Ziortza-Bolibarko zinegotzia izan zen (Ferrol, 223-37 txostena). Frankistak Ziortza-Bolibarren sartu zirenean, atxilotu egin zuten, eta, epaiketa egin ostean, epaileak heriotza sententzia eman zion, 1937ko uztailaren 30rean. Etxekoak mugitu ziren, heriotza sententzia aldatzeko helburuarekin, eta epaiketa berria lortu zuten, baina epaileak berriro ere heriotza sententzia eman zuen, 1937ko abuztuaren 3an. Derion fusilatu zuten 1937ko irailaren 16an, Santa Eufemia egunean, eta bertako kanposantuan lurperatu zuten (Badiola, 2011: 196). 38 urte zituen, eta hiru seme txiki. Bere emaztea haurdun zegoen, baina atsekabearekin, laugarren umea galdu egin zuen (Gerrikagoitia, 2000: 86).

Zuazo Otalora, Ramon (Bolibar, 1910 – Bilbo, 1937): Bolibarren jaio zen, Gorosta (Gorostiza) baserrian, baina Errepublika garaian, Barinagan bizi zen. Gerratean, eskuinda-

rrak pasatzen aritu omen zen frontearen alde batetik bestera, Barinagako beste batzuekin batera. 1937ko abenduan atxilotu zuten milizianoek, baina handik gutxira libre utzi zuten. 1936ko abenduan edo urtarrilean, Errepublikaren alde borrokatzera eraman zuten, 1931ko kinto guztiak bezala. Ez nago ziur, baina pentsatzen dut Ibaizabal batailoian borrokatu zuela (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 405). Frankistek atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin zioten Bilbon, 1937ko abuztuaren 6an (Ferrol, 223. txostena). Epaiketan, Patxi Baskaranen atxiloketa eta osteko heriotza leporatu zioten, baita Barinagako Armistegi Goikoa baserriko Matias Amillategiren atxiloketan zerikusia izatea ere. Horregatik guztiagatik, Bilbon fusilatu zuten frankistek, 1937ko irailaren 6an, 27 urte zituela (Badiola, 2011: 195).

Etxebarriako fusilatua

Peñagarikano Solozabal, Jose (Etxebarria, 1872 - Oiartzun, 1936): Etxebarriako Peñaneko baserrian jaio zen. Errepublika denboran eta Gerra Zibil hasi zenean, Etxebarriako abade laguntzailea zen. Tropa frankistak Etxebarriako mendietara heldu zirenean (1936ko irailaren 21ean), Etxebarria su biren erdian gelditu zen, eta Jose Peñagarikano bere lehengusu batzuen baserrira joan zen bizitzera; hain zuzen ere, Arnoriaga baserrira. Irailaren amaieran, baserri hori frankistek kontrolatzen zuten aldean gelditu zen, eta urriaren hogeian, Etxebarriako abadea Eduardo Gortazar kapitain frankistaren aurrean aurkeztu zen, Urkaregi inguruan. Eduardo, Maria Dolores Prado Uhagonekin zegoen ezkonduta, Markinako Uhagon etxeko jabearekin. Maria Dolores eta Eduardo ezagunak ziren Markinan eta inguruetan. Eduardo Donostia eraso zuten tropa frankisten kapitaina izan zen, eta Etxebarria inguruko frontean egon zen, 1936ko irailaren bukaeran, frankistak gure herriko mendietara heldu zirenean (Onaindia: 1980: 39). Eduardok aholkatu zion Jose Peñagarikano abadeari frontea uzteko, arriskutsua zelako, eta Zelestino Onaindiarekin Elgoibarrera bizitzera joateko; eta horrela egin zuen. Kapitainak berak eraman zuen Elgoibarrera (Gallego eta Pazos, 2001: 275-277). Biharamunean, urriaren 21ean, militar batzuk etorri ziren Elgoibarrera, eta abade biak atxilotu zituzten, eta Ondarretako kartzelan sartu. Jose Peñagarikano urriaren 27an fusilatu zuten, Oiartzunen, eta Zelestino Onaindia 28an, Hernanin. Alberto Onaindiak dioen bezala: «Nunca fueron interrogados por oficial, instructor, juez o autoridad alguna. Una noche, cada uno en su fecha, fueron sacados de Ondarreta, firmaron a la puerta de la prisión un documento de libertad, les ataron las manos, los empujaron a un camión, y casi a media noche los fusilaron sin testigos. A D. José, al parecer, en Oyarzun; a mi hermano, en Hernani, juntamente con otros 11 ó 12. Todos fueron enterrados en una fosa común, sin caja mortuoria, sin una cruz, fuera de lo sagrado, entre zarzas. No consta su nombre en ningún registro civil ni eclesiastico, ni siquiera los ha recogido el Boletín Eclesiástico de la antigua Diócesis de Vitoria, ni el de la nueva de San Sebastián. Así quedaban doblemente muertos. Por lo mismo, más vivos en el recuerdo y veneración del pueblo que los conoció y amó (Onaindia, 1980: 39, ikusi ere Onaindia, 1988: 204). Ahaztuen Oroimena. Markiñaldeko Frentea 1936 Etxebarria, Xemein, Markina blogean (http://ahaztuenoroimena.wordpress.com/) irakurri daitekeen bezala: «Izaera bereziko pertsona omen zen. Gauzak zuzen eta egoki egitea gustuko zuen. Baina bere izaera horren barruan zioan berezitasunik markatuena, euskaltzalea izatea azpimarratu daiteke. Garai haietan ematen ziren eztabaiden ingurutik, Don Jose Peña, euskara egokia, garbia eta ondo erabiliaren zalea eta defendatzailea zen. Umeei kalean berbak zuzentzen zizkien, euskara goraipatzen zuen eta euskara erabiltzen zuen. Euskararen defendatzaile sutsua zen. Jasotako testigantzek ez dute agertzen Don Jose Peña politikoki errepublikazalea zenik edo bere izaera zitxel eta zorrotza izan arren, politikoki finkatua edo ideologia zehatz baten defendatzailea zenik.

Halabaina, Arnorixa inguruetatik pasatu zen Elgoibarrera, eta han, bertako elizan hartu eta Oiartzunen fusilatu zuten faxistek, 1936ko urriaren 27an».

Markinarekin eta Xemeinekin lotura duten beste fusilatu batzuk

Azurmendi Arrondo, Zelestino (Legazpi, 1904 – Zumarraga, 1936): Legazpiko Brinkola auzokoa zen. Xemeingo Lopetxea baserriko Joanita Azpiri Aldazabalekin (Xemein, 1907 – Ermua, 2000) zegoen ezkonduta. Gera hasi zenean, mikeleteen kaboa zen. Otzaurteko (Zumarraga) mikeleteen kuartelean zegoen lan egiten, eta faxistak Otsaurtera iritsi zirenean (1936ko irailaren 18an), atxilotu egin zuten, eta, ostean, fusilatu, Zumarragako harrobi batean, 1936ko irailaren 23an. 32 urte zituen. 1937an, behin fronteak aurrera egin zuenean, bere emazte Joanita eta urte beteko alaba Arantxa Xemeinera etorri ziren bizitzera, Lopetxea baserrira. Baserrian bere aita Gregorio Azpiri Arrizabalaga eta bere ama zeuden bakarrik. Izan ere, Joanitaren arreba biak, Ines eta Anjelita, Frantzian zeuden erbesteratuta eta neba biak, Gurutz eta Jose Mari, ihes eginda (Iurrebaso, 2011: 222-224).

Pérez Salvatierra, Pedro (Lodosa, 1907 – Zaragoza, 1936): Zaragozan fusilatu zuten 1936ko urriaren 4an (Egaña, 1999, II. tomoa: 290). Bere anaia Manuel (1911 - 1936) ere fusilatu zuten Muniain herrian, 1936ko uztailaren 31n. Guztira, frankistek Lodosako 131 pertsona fusilatu zituzten (Altaffaylla, 1986: 369-379). 1936ko uztailaren 18an, matxinada militarra gertatu zela jakin zutenean, Lodosar langileek eta ezkertiar batzuek herria hartu zuten, eta frankistei aurre egiteko prestatu ziren. 19an, kaleetan zehar barrikadak jarri zituzten, eta eskopetak, trabukoak eta makilak hartuta, Lodosa defendatzeko erabakia hartu zuten. Arratsaldeko lauretan, frankistekin zeuden Guardia Zibilak kalera atera, eta tiroketa gogorrak izan ziren. Guardia Zibilek ezin izan zuten herria kontrolatu, eta biharamunean falangistak eta militarren konpainia bi agertu ziren. Metrailadoreen bidez, herria kontrolatzea lortu zuten. Ezkertiarrek eta emakumeen talde batek Errioxara eta inguruko mendietara ihes egin zuten. Kaleak hutsitu, eta Lodosarrak jazarraldiaren zain gelditu ziren, altxamenduari aurre egin zion Nafarroako herri bakarrenetarikoa izan zela jakitun. Atxiloketak berehala etorri ziren. Ospitalean zeuden zaurituetariko batzuk fusilatu egin zituzten, eta inoiz argitu ez diren suizidio batzuk ere gertatu ziren. 1936ko uztailetik urrira bitartean, hainbat lodosar atxilotu eta fusilatu zituzten, eta herritar askori erreketeen tertzioetan borrokatzea edo hiltzea aukeratzeko eskatzen zioten Guardia Zibilen kuartelean. Iruñea kenduta, Lodosa izan zen errepresio bortitzena jasan zuen Nafarroako herria. *Navarra 1936* liburuan irakurri daitekeen bezala: «…los motivos de la desproporcionada represión en Lodosa tienen lógica relación con el fuerte componente izquierdista de la población, reflejado en los resultados electorales, la importante presencia anarquista, etc., así como la resistencia inicial ofrecida a la sublevación franquista. Otro factor importante fue la extrema brutalidad de los responsables de la Guarida Civil y el Requeté frente a los que ni siquiera el párroco, factor decisivo en la mayoría de los pueblos, pudo hacer nada». Esan bezala, guztira 131 pertsona hil zituzten Lodosan, tartean Pedro eta Manuel Pérez Salvatierra anaiak (Altaffaylla, 1986: 376-377 eta Egaña, 1999, II. tomoa: 290). Pedro Pérez fusilatu ostean, bere semeak Lodosatik atera behar izan ziren, eta bere semeetariko bat, Pedro Pérez, Markina-Xemeinenera etorri zen bizitzera.

VII. ERANSKINA: ERREPUBLIKARREK FUSILATUTAKO MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK

Atxurra Gojenola, Bizenta - Daniela Bernabe Donearena (Xemein, 1890 – Bartzelona, 1936): Xemeingo Torremotxo baserrian jaio zen, eta Bartzelonan fusilatu zuten 1936ko uztailaren 31n. Nahiz eta toki guztietan esaten den Bizenta Atxurra Berriatukoa zela, kontuan hartu behar da Torremotxo baserria Markina-Xemein dela udalez, nahiz eta elizaz Berriatu izan. Bizenta 1915ean sartu zen misiolari karmeldarren ordenan, Graciako (Bartzelona) nobizio-etxean, eta 1921. urtean egin zen moja. 1936ko uztailaren 31n fusilatu zuten

errepublikarrek La Arrabassadan (Bartzelona), 46 urte zituela. Gerra Zibilaren ondorioz hil zen lehen markinarra edo xemeindarra izan zen. Bizenta Atxurra beatifikatu egin zuten Erroman, 2007ko urriaren 28an, 497 martirirekin batera. Tartean Migel Iturraran xemeindarra zegoen. Beraien eguna azaroaren 6an ospatzen da. Ecclesia Digital aldizkarian irakurri daitekeen bezala: «Hna. Daniela Achurra nació el 4 de abril de 1890 en Berriatúa (Vizcaya), en el seno de una familia vasca, sencilla, de tradición religiosa. El 23 de marzo de 1915, a los 20 años, ingresó en las Carmelitas Misioneras, en el noviciado de Gracia, Barcelona. Inició la vida religiosa el 23 de septiembre del mismo año. Emitió su profesión el 16 de octubre de 1916 y los votos perpetuos el 17 de octubre de 1921. A la Hna. Daniela sus compañeras la recuerdan así: era entregada, sencilla, humilde, con gran espíritu de sacrificio, jovial, alegre, bondadosa, muy trabajadora, buena compañera, piadosa. Sus devociones preferidas eran el Sagrado Corazón y la Virgen del Carmen. Desempeñó diferentes servicios y tareas de apostolado como: Las Corts, el Seminario de la Diócesis de Barcelona, el Asilo de Badalona, la asistencia a los invidentes en el Amparo de Santa Lucía (Barcelona) y finalmente la Casa Madre de Gracia-Barcelona, donde residía sus últimos años y desde donde ejercía su asistencia de enfermos a domicilio. Tenía su pequeño campo de trabajo en Pedralbes: la asistencia a una enferma grave. De Gracia a Pedralbes y de Pedralbes a Gracia viajaba, junto con la Hna. Gabriela, en tranvía, donde la sorprendió el martirio. Fue denunciada por un empleado de los tranvías azules, y detenida como religiosa, junto con la Hna. Gabriela, por el «Comité Rojo» y con ella asesinada, acribillada por las balas, en La Arrabassada (Barcelona), el 31 de julio de 1936. Tenía 46 años. (Ecclesia Digital, 2007ko urriaren 23a. http://www.revistaecclesia.com eta Juaristi, 2010: 42).

Ibarluzea Oregi, Domingo (Markina, 1906 - Las Casas, Ciudad Real, 1936): Markinako Barinaga auzoko Odiaga Nagusi (Oria Nagusi) baserrian jaio zen, 1906ko urriaren 6an, eta Jesusen Konpainiako kide egin zen, 1935eko urtarrilaren 8an. 1932an, Errepublikak josulagunen ordena desegin zuen, eta josulagun askok atzerrira alde zuten. Gelditu ziren josulagunen artean, errepublikarrek 122 hil zituzten, eta horietariko 52 beato izateko prozesuan daude momentu honetan (Juaristi, 2010: 43). Domingo Ibarluzea Oregi horietariko bat da. Domingo Ciudad Realen atxilotu zuten 1936ko abuztuaren 18an, beste josulagun batekin batera, eta bertan eduki zituzten preso, irailaren 7ra arte. Egun horretako gauean atera zuten kartzelatik, beste josulagun batekin batera, eta biak Las Casas herrira eraman zituzten (Ciudad Realetik sei kilometrotara). Herriko kanposantuaren alboan fusilatu zituzten biak irailaren 8ko goizaldean, eta gero kanposantuan bertan zabaldu zuten hilobi baten lurperatu zituzten (López Pego, 2003: 57-63 eta Alia Miranda, 1994: 241-243). Bere beste anaia, Benito (1919 - 1938), Gerra Zibilean hil zen. Hauen hirugarren anaia batek, Antonio Ibarluzea Oregik, Morteros de Euzkadi batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 206).

Iturraran Lauzirika, Migel (Xemein, 1918 - Paracuellos del Jarama, 1936): Axola baserrian (Xemein) jaio zen 1918. urtean, eta Escorialeko Agustindarren komentuan bizi zen, Gerra Zibila hasi zenean. Paracuellos del Jaraman fusilatu zuten errepublikarrek 1936ko azaroaren 30rean (Juaristi, 2010: 42). Berarekin batera, Madril eta inguruetan atxilotutako ehunka abade eta fraide fusilatu zituzten Errepublikaren aldekoek. Paracuellos del Jaraman berarekin batera hil zituzten beste fraide agustindarrak bezala, Migel Iturraran Lauzirika beatifikatu egin zuten 2007ko urriaren 28an. Egun berean, guztira, Gerra Zibileko 498 martiri beatifikatu zituzten Erroman. Hauen artean, Bizenta Bernabe Donearena moja xemeindarra ere bazegoen. Migelen zein Bizentaren eguna azaroaren 6an ospatzen da. Aipatzekoa da Migeli beste anaia bi ere hil zitzaizkiola gerran: Martin eta Florentzio Iturraran Lauzirika. Martin Legution hil zen 1936ko abenduaren 2an eta Florentzio Teruelgo Frontean 1938an. Jose Saraiva Martins kardinalak Bizenta Atxurraren eta Migel Iturraranen beatifikazio ospakizunean (Erroma, Vatikanoko San Pedro Plaza, 2007ko urriaren 28an) esan bezala: «Por encargo y delegación del Papa Benedicto XVI, he tenido la dicha de hacer público el docu-

mento mediante el cual el Santo Padre proclama beatos a cuatrocientos noventa y ocho mártires que derramaron su sangre por la fe durante la persecución religiosa en España, en los años mil novecientos treinta y cuatro, treinta y seis y treinta y siete. Entre ellos hay obispos, sacerdotes, religiosos, religiosas y fieles laicos, mujeres y hombres; tres de ellos tenían dieciséis años y el mayor setenta y ocho. Este grupo tan numeroso de beatos manifestaron hasta el martirio su amor a Jesucristo, su fidelidad a la Iglesia Católica y su intercesión ante Dios por todo el mundo. Antes de morir perdonaron a quienes les perseguían –es más, rezaron por ellos–, como consta en los procesos de beatificación instruidos en las archidiócesis de Barcelona, Burgos, Madrid, Mérida-Badajoz, Oviedo, Sevilla y Toledo; y en la diócesis de Albacete, Ciudad Real, Cuenca, Gerona, Jaén, Málaga y Santander».

Baskaran Arrillaga, Patxi (Markina, 1885 - Bilbo, Angeles Custodios komentuan egin zen kartzela, 1937): Barinagakoa zen, baserritarra eta ideologia tradizionalista zuen (Echeandia, 1945: 231). 1920an, 1922an eta 1923an Markinako zinegotzi izan zen Joan Jose Mugartegi alkate zela. Gerrako gorabeherak medio, Errepublikaren aldekoek atxilotu egin zuten, eta Bilboko Angeles Custodioseko komentuan zabaldu zen kartzelan sartu. 1937ko urtarrilaren 4an, Errepublikaren aldeko ezkertiarrek Bilboko espetxeetan zeuden 234 pertsona hil zituzten, hegazkin alemanek Bilboren aurka egin zuten bonbardaketa mendekatzeko. Patxi Baskaran hil zutenetariko bat izan zen. 52 urte zituen, eta sei seme-alaba. Derion lurperatu zuten. Berarekin batera, bere anaia Migel Baskaran ere kartzelan sartu zuten, baina hura Karmeloko kartzelan, eta denbora gutxira aske utzi zuten.

Alegria Uriarte, Bittor Jose (Lekeitio, 1911 – Bilbo, 1936): jaiotzez lekeitiarra zen, baina gaztetan atera zen Lekeitiotik, abade ikasketak egitera. Markinar gutxi gogoratzen dira Bittor Alegriataz, baina askok ezagutu zituzten bere osaba, ama eta anai-arrebak. Izan ere, bere ama eta anai-arrebak Markinan bizi ziren, eta Bittor ere askotan etortzen omen zen bere familia bisitatzera, eta, ofizialki, markinarra zen. Bere ama, Luzia Uriarte Agirreamalloa zen, Esperanza enpresako zuzendari-gerentearen, Castor Uriarteren, arreba, eta bere anaia Koldo Alegria. Bere ama eta arreba Txori-Bentan bizi ziren. Bere aita Victor Alegria Iturbe zen (Lekeition jaioa 1873an). Familia osoa abertzalea zen, eta Bittorren anaiak, Luisek, Errepublikaren alde borrokatu zuen. Bittor ere abertzale bezala agertzen da paper guztietan (Echeandia, 1945: 133). Gerra hasi zenean, Maroñoko (Araba) ekonomo zegoen, baina errakuntza bat medio, atxilotu egin zuten, eta Cabo Quilates itsasontzian sartu (Jiménez de Aberasturi, L. M eta J. C., 1978: 197). Cabo Quilates eta Altuna Mendi itsasontziak Errepublikako gobernuak kartzela gisa erabili zituen gerratean. Itsasontzia Bilboko portuan zegoela, Bilboren aurka hegazkin bidez egindako frankisten bonbardaketa baten ostean, Jaime I.a gerraontziko eskifaiak, bere onetik aterata, Cabo Quilates eta Altuna Mendi barku-kartzeletako 39 pertsona hil zituen, 1936ko urriaren 2an. Erasoa egin zuten batzuk epaitu eta fusilatu egin zituzten, eta Jaime I.a Bilbo uztera behartu zuten. Cabo Quilates itsasontzian hil zituztenen artean 16 elizgizonak ziren (12 abade, bi dominikar eta marista bat). Horietariko bat Bittor Jose Alegria Uriarte abadea izan zen. Hil zutenean, 25 urte zituen. Lehenengo Deustuan lurperatu zuten, eta gero Derioko hilerrira ekarri.

Markinarekin harremana izan zuten bi hildako

Prado Ruiz de Gamiz, Joan Jose (Bilbon hil zuten 1937an): Maria del Carmen Uhagonekin (Markinan jaioa, 1885ean) ezkondu zen Markinan 1907an, eta euren alaba bat Maria Dolores Prado Uhagon zen, gerra garaian, Uhagon etxearen jabea. Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz Donostiako alkate maurista izan zen 1924tik 1925era, Primo de Riveraren diktadurako urteetan, eta baita Errepublika etorri aurretik ere, 1930etik 1931ra (Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 2007: 161). Donostian bizi zen, baina denboraldi luzeak egiten zituen Marki-

nako Uhagon etxean, eta ezaguna zen herrian. Gerra hasi zenean, Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz atxilotu egin zuten errepublikarrek. 1936ko irailaren 8an, tropa errepublikarrak Donostiatik ebakuatu zituzten egun berean, Bilbora eraman zuten itsasontziz, eta Angeles Custodiosen zabaldu zen kartzelan sartu zuten (Aizpurua, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 2007: 161 eta Onaindia, 1980: 131). 1937ko urtarrilaren 4an, Alberto Onaindiak bisitatu zuen. Alberto markinarra izanik, elkar ondo ezagutzen zuten (Onaindia, 1980: 131). Onaindiak bisitatu zuen egun horretan berbertan, miliziar ezkertiarrek Bilboko espetxeetan zeuden 234 pertsona hil zituzten, hegazkin alemanek Bilboren aurka egin zuten bonbardaketa mendekatzeko. Joan Jose Prado Ruiz de Gamiz hil zutenetariko bat izan zen (Echeandia, 1945: 341).

Belaustegi Arrillaga, Jose Ramon (Etxebarria, 1919 - Etxebarria, 1936): Aiste Etxe Zuri baserrikoa. Milizianoak Aisten agertu zirenean, etxeetakoei ahal zuten lekura ebakuatzeko esan zieten. Jose Ramon eta bere familia Urtzulo baserrira joan ziren bizitzera, eta baserri horren inguruan hil zuten milizianoek 1936ko urrian edo azaroan. Hil zuen balak otzara bat pasatu omen zuen, eskumuturretik sartu, eta gerria zeharkatu zion. Odolustuta hil zen, 17 urte zituela (http://ahaztuenoroimena.wordpress.com/).

VIII. ERANSKINA: FRANKISTEK HIL ZITUZTEN ZIBILAK

Aldazabal Gabioleta, Antonia (Markina, 1876 – Durango, 1937): markinarra jaiotzez, baina Durangon bizi zen. Durangoko bonbardaketan hil zen, 1937ko martxoaren 31n, metrailaren ondorioz. Zendu zenean, 61 urte zituen (Egaña, 2000, VI. tomoa: 278).

Aretxabaleta Leturiondo, Inazio (Markina, 1871 – Eibar, 1936): markinarra jaiotzez, Eibarren bizi zen. Nekazaria zen, eta ezkongabea. Eibarko bere etxean hil zen, fusilen balek zaurituta, 1936ko urriaren 30rean, eta Vista Alegren lurperatu zuten. 65 urte zituen hil zutenean (Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostena eta Gutierrez, 2007: 251).

Arrieta Ikaran, Geronimo: Markinako Iñuspe baserrikoa zen, baina Itziarko (Deba) Marizelai baserrian bizi zen, bere emaztearekin. Familiakoek diotenez, bonbardaketa batean hil zen Debatik Itziarrera zaldiz zihoala. 30 bat urte inguru zituen hil zenean. Deba irailaren 22an hartu zuten frankistek (Iruretagoiena Koronelak hartu zuen), baina urriaren 4ra arte borrokaldi gogorrak izan ziren inguru honetan. Irailaren bukaeran eta urriaren lehenengo egunetan, errepublikarrek hainbat aldiz bonbardatu zuten Deba ingurua, frankisten aurrerapena gelditzeko helburuarekin (Barruso, 1996: 269). Beraz, pentsa daitekeena zera da: Geronimo 1936ko irailaren amaieran edo urriaren hasieran hil zutela.

Aulestiarte Ikaran, Jose (Markina, 1868 – Durango, 1937): markinarra zen, baina Durango bizi zen. Durangoko bonbardaketan zendu zen, 1937ko martxoaren 31n, metrailaren ondorioz (Egaña, 2000. VI. tomoa: 280). Durangon lurperatu zuten hilobi komun batean (2. hilobi komunean). 69 urte zituen hil zutenean.

Egia Olabarria, Isabel (Xemein, 1921 – Ondarroa, 1936): Xemeingoa zen, Aranzabal (Antzabal) baserrikoa. Ondarroan bizi zen, eta neskame lanak egiten zituen. Metrailaren ondorioz hil zen Ondarroan bertan, 1936ko urriaren 24an, hamabost urte zituela (Egaña, 2000, VI. tomoa: 283). Kontuan izan Ondarroa eta Mutriku urriaren 4an jausi zirela Mola jeneralaren tropen menpe; dena den, Lea-Artibai osoan bonbardaketa ugari izan ziren urrian zehar.

Erkiaga Agirreamalloa, Pedro (Xemein, 1894 – 1937): Xemeingo Agarre baserrian bizi zen. Agarre baserriaren inguruan zazpi hilabete eta erdiz egon zen frontea gelditua. Ondorioz, Agarrekoak euren etxea utzi eta Beñe (Xemein) baserrira joan ziren bizitzera. Frontea mugitu zenean (1937ko apirilaren 27an), Agarrekoak etxera bueltatu ziren, auzokoek esan zietelako beste auzotar batzuk euren etxean lapurtzen ari zirela. Frankistak sartu eta 16 egunera, Pedro naboak biltzen ari zen Agarreko solo batean, behiei jaten emateko, eta, itxura denez, granada bat hartu zuen esku artean, eta lehertu egin zitzaion. Berbertan hilda gelditu

zen, 42 urte zituela. Markinako kanposantuan lurperatu zuten. Markinako erregistroaren arabera, 1937ko maiatzaren 12an hil zen (Iturria Markinako Erregistro Zibila, eta etxekoek emandako informazioa).

Furundarena Etxaniz, Agustin «Agustin Buztarri» (Mutriku, 1866 – Bilbo, 1936): Mutrikuarra jaiotzez, Markinan bizi zen. Pitis jatetxea dagoen goiko pisuan bizi zen, bere emaztearekin eta lobarekin batera. Bere etxe osteko ortuan zegoen sagarrak batzen, hegazkinen bonbardaketa hasi zenean, eta bonba baten metrailak hanka kendu zion orkatilatik. Bilboko ospitale Zibilera eraman zuten, baina handik lasterrera hil zen, ospitalean bertan, 1936ko urriaren hogeian. Bista Alegreko kanposantuan lurperatu zuten. Bonbardaketa batean zendu zen lehen markinarra izan zen. Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostenak zera dio: «Casado, enterrado en Vista alegre e inscrito en el Registro Civil nº 1 de Bilbao.» (Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostena).

Garate Bru, Dolores «Lolita» (Bartzelona, 1920 – Xemein, 1936): Xemeingo Erdotza Jauregian bizi zen. «Erdoza Mayor» pilotariaren alaba zen, eta «Erdoza Menor» pilotariaren iloba. Santiago baserriaren alboan, Kalamuara begira, milizianoen kanoiak zeuden. Hegazkinek kanoi horien aurka bonbak bota zituzten, eta metrailak Erdotza Jauregian bizi zen Lolita hil zuen. Bere amak aurreko eguneko bonbardaketan hil zen Isidra Ugartetxearen hileta mezatik atera zenean jakin zuen bere alabari gertatutakoa. Lolita 1936ko urriaren 22an hil zen, 16 urte zituela (Herritarrek emandako informazioa, Markina-Xemeingo Erregistro Zibila eta Egaña, 2000, VI. tomoa: 285).

Mandiola Bilbao, Plazida (Markina, 1929 – Markina, 1937): Barinagako Koastei (Gorostidi) baserrian bizi zen. Bere etxean hil zen, 1937ko martxoaren 22an, eta Barinagako kanposantuan lurperatu zuten. Zortzi urte zituen zendu zenean. Markinako erregistroaren arabera, hiltzeko arrazoia izan zen «Heridas en Abdomen por Guerra» (turria: Markina-Xemeingo Erregistro zibila).

Muguruza Arriaga, Benantzia (Markina, 1898 – Markina, 1936): 1898ko apirilaren 1ean bataiatu zuten Barinagako (Markina) elizan, eta Azkonabieta Baserrian bizi zen, bere familiarekin batera. Ezkongabea. Azkonabieta Barinagako azken baserria da, eta Kalamua tontorretik (erreketeen eskuetan zegoena) oso gertu dago. Baserriaren goiko maldetan, baserritik metro gutxira, soldadu frankistak zeuden, baina Azkonabieta baserria Errepublikaren aldekoen partean zegoen. Frontearen erdi-erdian zegoen, beraz, baserria, eta, horregatik, Azkonabietan bizi zirenak oso gutxi ateratzen ziren etxetik. Egoera baketzen zenean, milizianoekin ere egoten ziren hitz egiten, baina tiroketak hasten zirenean, egunak egiten zituzten etxetik atera gabe, tiroen beldur. Ondorioz, baserriko lanak egiteko arazoak izaten zituzten, bala galdu asko izaten zirelako inguruan, eta frankistek, mugimendu txikiena sumatzen zutenean, tiro egiten zutelako. Arrisku askorekin bizi ziren Muguruzatarrak, eta, horregatik, baserriko lanak ilunetan edo erdi-ilunetan egiten zituzten. Benantzia, Andres Maria Muguruza eta Josefa Antonia Arriagaren lau seme-alabetatik gazteena zen. Andres Maria Muguruza eguna argitu orduko joaten zen abereei jaten ematera, baserri alboan zegoen bordara. 1936ko abenduaren hogeian, Benantzia bere aitari gosaria eramatera joan zen. Eguna argitzen zegoela, soldadu frankistek mugimendua sumatu, eta tiro egin zuten. Tiro batek tripan jo zuen Benantzi, eta balak alde batetik bestera pasatu zuen bere gorputza. Bizirik zegoen hasieran, eta etxekoek Markinara deitu ostean, milizianoak Basurtuko ospitalera eramaten saiatu ziren, baina Barinagara jaitsi orduko hilda zegoen. Hala eta guztiz, Basurtuko ospitalera eraman zuten, eta Derion lurperatu. Benantziak 38 urte zituen hil zenean. Kontuan izan frontea ia-ia Barinagan bertan zegoela, eta inguruko baserritarrak tiro eta bonba artean bizi zirela. Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostenak zera dio: «Soltera, murió de heridas producidas en el frente de Marquina, enterrada en Derio e inscrita en el Registro Civil nº 1 de Bilbao, vivía en el camino Azconabieta» (etxekoek emandako informazioa, Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostena eta Egaña, 2000, VI. tomoa: 290).

Pérez Argoitia, Nikasio (Markina, 1886 – Durango, 1937): Markinakoa zen jaiotzez. Durangoko bonbardaketan hil zen, eta bertan lurperatu zuten hilobi komun batean (1. hilobi komunean). 51 urte zituen hil zutenean (Egaña, 2000, VI. tomoa: 292).

Quintana Azurmendi, Manuel (Xemein, 1906 – Durango, 1937): Xemeingo Belaustegi baserrikoa. Durangoko bonbardaketan zauritu zuten, eta Eusko Jaurlaritzaren zerrenden arabera, Bilboko Ospitale Zibilean hil zen, 1937ko martxoaren 31n. Derion lurperatu zuten, 31 urte zituela (Egaña, 2000, VI. tomoa: 292). Bere heriotzaren berri ematen da uztailaren 2ko Euzkadi egunkarian. Itxura denez, Manuel Kintana Markinako Frontean zeuden milizianoekin joan zen Bilbora. Trenez bueltatu ziren Durangora, eta tren geltokian bertan, bonbardaketak harrapatu zituen, eta zaurituta gelditu zen. Alarguna zenez, bere seme-alabak umezurtz gelditu ziren.

Ugartetxea Ugarteburu, Isidra (Xemein, 1896 – Xemein, 1936): xemeindarra jaiotzez, Eibarren bizi zen. Gerra garaia zela eta, bere amari laguntzera etorri zen Xemeinera. Hegazkinekin egindako bonbardaketa batean hil zuten Meabeko bidean, uren biltegi zaharra dagoen inguruan (Xemein). Itxura denez, bere amarekin zihoan paseatzen, eta hegazkinak ikusi zituztenean ezkutatzen saiatu ziren, baina metrailak zauri larri bat egin zion Isidrari buruan, eta bertan hilda gelditu zen. 1936ko urriaren 22an hil zen, 40 urte zituela. Markinako kanposantuan lurperatu zuten (etxekoek emandako informazioa, Markina-Xemeingo Erregistro Zibila eta Egaña, 2000, VI. tomoa: 295).

Ugarteburu Rotiaga, Julia (Markina, 1883 – Bilbo, 1937): markinarra jaiotzez, baina Bilbon bizi zen. Hegazkinez egindako bonbardaketa batean hil zen Alonsotegin, 1937ko ekainaren 14an. Ezkonduta zegoen, eta 54 urte zituen.

Urkidi Laka, Frantziska «Pantxike» (Xemein, 1913 – Gernika, 1937): Pantxike izan zen Gernikako bonbardaketan zendu zen xemeindar edo markinar bakarra. Pantxike Xemeingo Saratsua Zabala baserrikoa zen, eta Gernikako etxe batean zegoen neskame lanetan. 24 urte zituen hil zenean.

Urriolabeitia Garramiola, Jose Maria (1883/4 - 1937): Xemeingo Lariz Baserrikoa. Laizkoak Azpiltzara joanak ziren bizitzera, Laiz-en bizitzea arriskutsuegia zela pentsatuta. 1937ko otsailaren 25ean, Azpiltzako tabernako jantokian, bildots bat hiltzen zegoen, eta hegazkinekin egindako bonbardaketa baten ondorioz hil zen, 54 urte zituela (herritarrek emandako informazio eta Egaña, 2000, VI. tomoa: 295).

Guda Zibilean hil ziren Etxebarritar zibilak

Arregi Arrizabalaga, Antonio (Etxebarria, 1913 – Bilbo, 1937): Etxebarriako Saratsu Erdiko baserrikoa zen, baina Antzalei baserrian (Markina) bizi zen, Markinako Esperanza fabrikan lan egiten zuelako. Eusko Jaurlaritzak, Francoren tropak Markinan berehala sartuko ziren beldurrez, Esperanza arma fabrika Zamudiora eraman zuen. Antonio enpresarekin joan zen langileetariko bat izan zen. *Esperanza fabrikaren aurkako bonbardaketa bat egon zen 1937ko ekainaren 11n, eta Antonio piko arbola baten azpian ezkutatu zen. Dena den, bonbardaketaren ondorioz, zaurituta gelditu zen. Bilboko ospitale zibilera eraman zuten, baina biharamunean, 1937ko ekainaren 12an, zendu zen, 24 urte zituela. Vista Alegren lurperatu zuten.* Bizkaiko Artxibo Foralean dago bere heriotzari buruzko txostena. Honako hau dio txosten horrek: «Obrero de la fabrica La Esperanza y Cía, bombardeada el 11-06-37, enterrado en vista Alegre e inscrito en el Registro Civil nº 1 de Bilbao.» (etxekoek emandako informazioa, eta Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen txostena).

Idoeta Solozabal, Joan Jose «Amoto-txiki» (Etxebarria, 1875 – 1936): Etxebarriako Amoroto baserrian bizi zen. Nekazaria. Frankistek botatako bonben metrailaren ondorioz hil zen, 1936ko urriaren 27an, 61 urte zituela. Etxebarriako kanposantuan lurperatu zuten. Bera hil zen bonbardaketa horren ondorioz erre zen Etxebarriako Beide Baserria. Amoto-txiki Beide-

koei sua amatatzen laguntzera joan zen. Horretan zegoela, bonba gehiago bota zituzten erreketeek Kalamuatik, eta metrailaren ondorioz zendu zen. Bonbardaketan, Martzel Monterrei ere zauritu zuten (herritarrek emandako informazioa eta Markina-Xemeingo Erregistro Zibila).

Bereziartua Egia, Benito Agapito (Etxebarria, 1924 – Etxebarria, 1937): Etxebarriako Lobiano (Lomiño) baserrikoa zen. Markinan ogia erosi ostean, etxera zihoala, esku bonba bat aurkitu zuen eta berarekin jolasten zegoela, lehertu egin zitzaion eskuetan. Berbertan hilda gelditu zen. Markina eta Etxebarriaren arteko mugan hil zen, 1937ko maiatzaren 1ean, hamahiru urte zituela (Egaña, 2000, VI. tomoa: 281).

Guda Zibilean hil ziren Ziortza-Bolibartar zibilak

Bustindui Elordui, Frantzizko «Patxiko Errota» (Ziortza-Bolibar, 1908 – Durango, 1937): Ziortza-Bolibarkoa zen, Errotakoa, baina gerratean Iruzubietan bizi zen. Taxilaria zen. Markina-Xemeingo Erregistro Zibilean dagoen informazioaren arabera, 1937ko martxoaren 30rean zendu zen, gerrako ekintza batean izan zituen zauriengatik. 28 urte zituen hil zenean. Zornotzan lurperatu zuten. Herrikoek diote Durangoko bonbardaketan hil zela, baina Durangoko bonbardaketa 1937ko martxoaren 31n izan zen, eta erregistroaren arabera Patxi martxoaren 30rean hil zen (herritarrak emandako informazioa eta Markina-Xemeingo Erregistro Zibila).

Azpillaga, Joan: artxiboetan, Joan Azpillaga Ziortza-Bolibarkoa zela esaten da, baina ezin izan dut jakin nor zen, ezta non bizi zen ere. Barakaldoko ospitalean hil zen 1937ko maiatzaren 9an, metrailak buruan egin zizkion zaurien ondorioz (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildakoen jakinarazpena).

IX. ERANSKINA: ILEA MOZTU ZIETEN EMAKUMEAK

Balentziaga Arakistain, Antonia (1904an jaioa): Torremotxo (Xemein) baserrian bizi zen. Torremotxo baserria udalez Xemein zen, baina elizaz Berriatu. Bere gurasoak Pedro eta Erramona ziren. Frankistak sartu osteko hiletan, atxilotu, eta, Berriatuko plazan ilea moztu zioten. Markinako kartzelan egun batzuk egin ostean, Algortako Adoratrizen komentura eraman zuten atxilotuta, eta 1937ko abenduaren 16an, Bilboko kartzelara. 1938ko urtarrilaren hogeian hasi zen bere aurkako epaiketa militarra. Fiskalak «matxinada militarra» leporatzen zion. Sententzia 1938ko otsailaren 19an atera zen, eta hainbat urtetako kartzela zigorra jarri zioten. 1940ko abenduaren 14an atera zen kartzelatik (AGA eta Airmn, 2-457 txostena). Antonia Balentziaga bizi zen etxeak, Torremotxo baserriak, etxebizitza bi zituen. Beste etxebizitzan, 2007an beatifikatu zuten Bizenta Atxurra Gojenola jaio zen. Nahiz eta Antonia Bizenta baino 24 urte gazteagoa zen, pentsatzen dut elkar ezagutuko zutela. Izan ere, Antoniak hamaika urte zituela (1915) sartu zen Bizenta Bartzelonako karmeldar misiolarien ordenan, Graciako (Bartzelona) nobizio-etxean. 1921ean egin zen moja, eta 1936ko uztailaren 31n fusilatu zuten errepublikarrek La Arrabassadan (Bartzelona) (Ecclesia Digital (2007ko urriaren 23a) http://www.revistaecclesia.com eta Juaristi, 2010: 42). Antoniaren neba bik, Martzelinok eta Rufinok, Euzko Gudarostean borrokatu zuten.

Belaustegi Galdos, Maria Luisa (Mutriku, 1903 – Markina-Xemein, 1990): Joakin Aginagaren (Joakin Kalber) emaztea zen. Ideologia abertzalea zuen. Ilea zerora moztu zioten, eta gero aste bat eduki zuten Markinako kartzelan. Haurdun zegoen kartzelan sartu zutenean. Gero, soldaduak, asaltoko guardiak eta guardia zibilak zeuden etxeak garbitzera behartu zuten, baita hauen arropak ere. Ilea moztu ostean, lotsari gutxiago pasatzeko, txapela janzten zuen, eta txapelari gezurrezko ilea josten zion.

Duralde Kerejeta, Nikasia (1900 urtean jaioa, Markinan): familia abertzalekoa zelako, ilea moztu eta soldaduak, asaltoko guardiak eta Guardia Zibilak zeuden tokiak garbitzera behartu zuten. Bere bi nebek, Tomasek eta Gregoriok, parte hartze politiko garrantzitsua izan zuten Errepublika garaian eta gerrako hiletan. Tomas Markinako Lehen Alkate Ordeko eta zinegotzia izan zen, Errepublika garaian, eta gerrako hiletan Markinako alkate izan zen egun batzuetan (1936ko azaroaren 26tik abenduaren 6ra). Honegatik guztiagatik, ihes egin zuen bere alaba Felizianarekin batera, eta Venezuelan erbesteratu zen. Gregorio atxilotu egin zuten, eta hiru urte eta hiru hilabete egin zituen kartzelan. Gerraren ondorioz, familiak zituen ondasun eta negozio guztiak galdu zituen.

Garate Zubillaga, Rosario (1887 - 1967): Emakume Abertzale Batzako kidea zen, eta Bernardo Aretxabaletaren (1894 - 1968) emaztea. Bernardo Aretxabaletak, gerratean herriko alkate izan zenak, Bilbora ihes egin zuen frankistak herrian sartu aurretik. Bilbo jausi zenean, Bartzelonara joan zen, eta, azkenean, Frantzian errefuxiatu zen, 1952. urtera arte. Mendekuagatik, bere emaztea, Rosario, atxilotu zuten, 1937ko urriaren 11n, eta kartzela bitan eduki zuten. Kartzela horietariko bat frankistek emakumeentzako Bilbon zabaldu zuten Santa Martako kartzela izan zen. Horrez gain, frankistak sartu zirenean, ilea zerora moztu, eta herrian bueltaka erabili zuten, jendearen barregarri. Lan horretan aritu zenetariko bat Uhagon etxeko bat izan ei zen. Ilea mozten zioten bitartean, herriko errekete gazteak egon ziren etxeko ataria zaintzen. Bederatzi hilabete egin zituen kartzelan (Goiogana eta Arrieta (editoreak): Alberto Onaindiaren Artxiboa). Denbora horretan, bere ume batzuk Bilbon egon ziren bizitzen, eta ama bisitatzera joaten ziren. Etxera bueltatu zenean, herriko frankistek ez zioten uzten etxetik ateratzen, eta denbora luzez egon behar izan zuen etxean sartuta. Bakarrik goizetan mezetara joaten uzten zioten. Hori bai, astero joan behar izaten zuen Guardia Zibilengana sinatzera. Rosario atxilotu zuten egunean, Jose Maria Murga Arana «Murga Txiki» eta Anjel Ugarte «Okoki» ere atxilotu zituzten, baina hauek bakarrik egun bat egin zuten kartzelan. Gerraostean, herriko erreketeek bere senarrak Frantziatik idazten zizkion eskutitzak irakurtzen zituzten, eta hori ekiditeko Bernardo Elgoibarko ahaide batzuei idazten hasi zen, eta eskutitzak Esperanza autobus konpainiako gidarien bidez heltzen ziren Markinara.

Garate Gallastegi, Maria (1875 - 1953): Benito Aginaga Ugalderen emaztea. Frankistak herrian sartu zirenean, Benito Gasteizko kartzelan sartu zuten, eta bertan zendu zen gaixorik. Informazio batzuen arabera, fusilatu egin zuten. Mariari ilea moztu zioten frankistek, eta herritik bueltaka erabili zuten. Bere alabak, Elixabete Aginaga Garatek, Frantzian errefuxiatu behar izan zuen 1937. urtetik 1947 - 1948. urtera arte.

Iriondo Gabiola, Erramona (Xemein, 1908 – Markina-Xemein, 1990): Arizmendi Errota baserrian bizi zen. Frantzisko Larrinagaren (1895 - 1985) emaztea zen. Frantzisko Markinako Batzorde Sozialistako kidea zen, eta gerratean Udal Epaile ordezkoa izan zen Xemeinen. Milizianoak asko egoten ziren Arizmendi Errotan, jatorduak egiten eta Erramonak arropa ere garbitzen zieten. Frankistak herrian sartu zirenean, Urberuagako bainuetxea hartu zuten kuartel gisa. Hainbat hiletan, Erramona soldaduen logelak eta komunak garbitzera behartu zuten, ilea zerora moztu ostean.

Korta Larruskain, Klementina (1884. urtean jaioa): Klementinak elikagaien denda bat zuen Erdiko Kalean, bere ahizpa Klararekin batera. Frankistak herrian sartu ostean, ilea moztu zioten. Aurrerago, kartzelan ere sartu zuten. Frankistek debekatu egin zuten etxetik kanpo elkarrekin berba egitea. Klementinak eta Klarak berba gutxi batzuk egin zituzten Erramona Arroitajauregirekin eta Jesusa Zabalarekin, Bolunbarri baserriaren inguruan, eta, markinar batek salatu ostean, Markinako kartzelan sartu zituzten guztiak. Frankistak herria hartu osteko hiletan, Asaltoko Guardiek abertzale eta ezkertiar asko eraman zituzten Zabala etxeko komandantziara kalean hitz egiteagatik. 1938ko maiatzaren 9an atxilotu zuten Markinako, Etxebarriako eta Ziortza-Bolibarko beste pertsona askorekin batera (19 pertsona guztira), eta 1938ko uztailaren 10ean askatu zuten, isuna ordaindu ostean.

Lizundia Ugartetxea, Jenobeba (1896an jaioa): frankistak herrian sartu zirenean, Urberuagako bainuetxea hartu zuten kuartel gisa. Hamaika hiletan, Jenobeba soldaduen komunak eta logelak garbitzera behartu zuten, ilea zerora moztu ostean. Zigor honen arrazoia izan zen, Purita Foruriaren besotik joan zela bozkatzera 1936ko hauteskundeetan; alegia, abertzaleekin ibiltzea.

Maguregi Solozabal, Eloisa: familia abertzalekoa izateagatik, ilea moztu zioten, eta gero Urberuagako Bainuetxera eraman zuten, soldadu frankisten arropak, gelak eta komunak garbitzera. Bere neba Fabian eta Amadorrek «Bizkai» zapatak konpontzeko tailer bat zuten Guen kalean. Amadorrek ihes egin zuen Francoren tropak sartu aurreko egunean.

Santiago García, Paulina Amalia (Kubako hiriburuan, Habanan jaioa, 1905ean): Jose Cazalis-en emaztea zen. Jose Cazalis pilotaria izan zen La Habanan, eta bertan ezagutu zuen bere emazte Paulina Amalia Santiago García. 1928an etorri ziren Kubatik Markinara bizitzera. Euren alaba, Olga Teresa Cazalis Santiago, La Habanan jaio zen 1925ean. Jose Cazalis Izquierda Republicanako kidea zen 1933tik, eta Errepublikaren Aldeko Batzordeetan parte hartu zuen gerratean. Horregatik preso egon zen hainbat urtez. Bengantza gisa, frankistek bere emazte Amalia Santiagori ilea moztu zioten zerora, eta herritik ibili zuten bueltaka.

Unamuno Alberdi, Maria (1920 - 1949): Urlo Baserrikoa zen. Ilea mozteaz gain, erri-zinozko olioa ere eman zioten.

Ziortza-Bolibarko neska bati ere moztu zioten ilea

Arriaga Gandiaga, Manoli: Armola-Torre baserrikoa. Ideologia ezkertiarreko familiakoa. Bere aita, Jose Maria Arriaga Arrate, eta bi nebak, Erramun eta Kristobal «Kitxo» ere atxilotu zituzten, eta kartzelan sartu. Aitak denbora gutxi egin zuen kartzelan, baina neba biak hainbat urte. Familiaren aurkako mendekua borobiltzeko, Manoliri ilea moztu zioten.

X. ERANSKINA: FRONTEAN HILDAKO MARKINARRAK ETA XEMEINDARRAK

Aginaga Barinaga, Martzelino (Markina, 1906 – Amorebieta-Etxano, 1937): Armagilea zen, eta ezkonduta zegoen. Getxon bizi zen. Saseta batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 21), eta Eubako frontean izan zituen zauriengatik hil zen, Zornotzako ospitalean, 1937ko apirilaren 26an, 31 urte zituela (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa).

Alberdi Azpiri, Antonio (Markina, 1919 – Lleida, 1938): Markinako Orrondo baserrikoa (Barinaga). 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Antoniok 19 urte zituen 1938an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, frankistek 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten 1938an. Beraz, 1938ko otsailean joan zen soldaduskara, eta Falangeko batailoietan borrokatu zuen. Lleidako Frontean hil zen, 1938ko apirilaren 3an, 19 urte zituela.

Alberdi Gisasola, Martzelino (Xemein, 1917 – Ebroko Frontea, 1938): Xemeingo Akeliño baserrikoa. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, herriko hainbat gazte eraman zituen Francok frontera, tartean Martzelino. Martzelinok 20 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1938. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 38ko kinta mobilizatzea erabaki zuen. 1937ko uztailaren 27an eraman zuten gerrara. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela zendu zen Ebroko frontean, 20 urte zituela (Garaian, 3-1988). Ziur aski, 1938ko urtarrilean edo otsailean hilko zen. Hori pentsatzeko arrazoia da Ebroko bataila

1937ko abendutik 1938ko otsailera izan zela. Bere hilotza ez zen inoiz agertu, baina, gomutaki gisa, Zelestino Garcíak, Martzelinok erabili zuen gasen aurkako maskara ekarri zuen Akeliñora.

Apalategi Dorronsoro, Domingo (Ataunen jaioa eta Solluben hila, 1937an): Ataun herrikoa jaiotzez, Markinan bizi zen. Saseta batailoian borrokatu zuen, eta Solluben hil zuten, 1937ko maiatzaren 8an. Sollubeko borrokak 1937ko maiatzaren 7tik 14ra izan ziren (Vargas Alonso, 2007: 448; Egaña, 2000, VIII. tomoa: 44 eta (Markina-Xemeingo Erregistro Zibila. Hildakoen jakinarazpena). Bere anaia Felixek ere Saseta batailoian borrokatu zuen.

Aretxabaleta Goikoetxea, Alexander (Markina, 1920 – Katalunia, 1939, 1941eko kintoa): Txomin Aretxabaletaren semea eta Hilario eta Bernardo Aretxabaletaren iloba. Boluntario joan zen Francoren alde (Falangeetan) borrokatzera, horrek bere aita kartzelatik ateratzen lagunduko zuela pentsatuta. Kataluniako frontean hil zen, 1939ko urtarrilean, 19 urte zituela (Garaian, 4-1989).

Argoitia Sololuze, Felix (Xemein, 1917 - 1937): Errepublikaren alde borrokatzera joan, eta, nire ustez, 1937ko lehen lau hiletan hil zen. 1938ko kintoa izanik, pentsatzen dut 1937ko hasieran joango zela frontera, eta, beraz, 1937ko lehen lau hiletan hilko zela, 20 urte zituela.

Argoitia Sololuze, Bernardo (Xemein, 1917 – 1937): Errepublikaren alde borrokatzera joan zen 1937ko lehen hiletan, eta, bere anaia Felix bezala, 1937ko lehen lau hiletan hilko zen.

Arrate Sololuze, Agustin (1917an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Amalloa auzoko Olazar Beheko baserrian bizi zen. Nire ustez, 1937ko hasieran joan zen frontera borrokatzera, eta urte horretako lehen lau hiletan hil zen. Hori pentsatzeko arrazoia zera da: Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu zirela Markinan eta Xemeinen, eta, berehala, frankistek bere kintako hainbat gazte eraman zituela gerrara. Dena den, 1937ko maiatzerako Agustin hila zegoen.

Arrieta Ikaran, Jose Martin (Markina, 1915 – Bermeo, 1937): Markinako Iñuspe baserrikoa. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Jose Martin 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara. ANV-I batailoiko Olabarri konpainian borrokatu zuen. Solluben (Bermeoko frontean) zendu zen, 1937ko maiatzaren 8an, eta Vista Alegreko kanposantuan (Bilbo) lurperatu zuten. 22 urte zituen hil zutenean. Sollubeko borrokak 1937ko maiatzaren 7tik 14ra izan ziren (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa; eta Vargas Alonso, 2007: 441, dena den, nire ustez, errakuntza bat dago iturri bi hauetan. Bi zerrendetan Jose Martinen bigarren abizena Agirre zela esaten da, eta, egiatan, Ikaran zen).

Arrieta Lejardi, Esteban (1911n jaioa, Markinan, 1936an hil zen, 1932ko kintoa): Markinako Barenda Azpikoa baserrian bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera. Familiak ez zuen gehiago bere berririk izan, eta bere hilotza ez zen agertu; beraz, pentsa daitekeena da 1936an hil zela, 25 urte zituela. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 59).

Arrieta Lejardi, Jose (Markina, 1918 – Tarragona, 1938): Markinako Barenda Azpikoa baserrikoa, eta Estebanen anaia. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren, eta urte horretan berbertan, herriko hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara, tartean Jose. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1937an mobilizatu zuten 39ko kinta. Bere kintako beste hamaika bezala, 1937ko uztailaren 27an eraman zuten gerrara. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela hil zen Tarragonan, Ebroko frontean, 1938. urtean (Garaian, 3-1988). 19 urte zituen hil zutenean. 22. zenbakia zuen San Martzialen 2. batailoian (Nafarroako laugarren Dibisioan) borrokatzen ari zela hil zen.

Arrillaga Zuazo, Jose Maria (Xemein, 1914 – Zaldibar, 1937): Xemeingo Ormetxe baserrian (Meabe) bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1914an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Zapadores II eta Rebelion de la Sal batailoietan borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 59), eta 1937ko apirilaren 25ean zendu zen, 23 urte zituela. Bizkaiko Artxibo Foralean dagoen informazioaren arabera, Zaldibarren hil zen, baina familiakoek ez dakite non lurperatu zuten.

Aulestiarte Sololuze, Eugenio (1917an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Lariz baserrian bizi zen. 1938ko kintako beste asko bezala, 1937ko hasieran joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Nire ustez, 1937ko lehen lau hiletan hil zen.

Balentziaga Kintana, Simon (1916an jaioa, Xemeinen, 1937ko kinta): Xemeingo Gatzatu (Garazatua-Garazate) baserrikoa. Bere kintako asko bezala, Francok soldaduskara eraman zuen 1937ko urrian, eta frontean hil zen 1937an edo 1938an.

Barinagarrementeria Totorikaguena, Lorenzo (Xemein, 1913 – Saibigain, 1937): Xemeingo Elorradi baserrian bizi zen. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1934ko kintoa izanik, Lorenzok gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan, Errepublikaren alde borrokatzera. Sabino Arana Goiri batailoian borrokatu zuen lehenengo, eta, ostean, 39. batailoian. Sabigaineko borroketan zendu zen 1937ko apirilaren 14an, 27 urte zituela (Markina-Xemeingo Erregistro Zibila).

Baskaran Bilbao, Jose Migel (Xemein, 1917 - 1937): Xemeingo Gorostidi baserrian bizi zen. Larrañaga batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 81), eta frontean borrokatzen ari zela hil zen. 1938ko kintoa izanik, pentsatzen dut 1937ko hasieran eramango zutela frontera, eta, beraz, 1937ko lehen lau hiletan hilko zela, 20 urte zituela.

Cazalis, Rikardo «Rikardito» (1937an hil zen Katalunian): Teruelgo gudaldian zendu zen, 1937ko urtarrilean edo otsailean. 17-18 urte izango zituen hil zenean. Rikardo Cazalis Areitio, «Cazalis Mayor» pilotariaren semea zen. Bartzelonan bizi zen gerra hasi zenean. Bi urte geroago, 1939an, bere aita, Rikardo Cazalis hil zen gaixorik Argelés-eko kontzentrazio esparruan (Onaindia, 1980: 456).

Egia Olabarria, Joan «Antzabal» (1908an jaioa, Xemeinen, 1929ko kintoa eta pentsatzen dut 1938an hil zela): Xemeingo Aranzabal (Antzabal) baserrian bizi zen. Frontea gure herriko lurretan egon zenean, intendentzia militar lanetan aritu zen, errepublikarren armadan (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135). 1937ko urriaren 6an, Francok 1929ko kintoak eraman zituen frontera, eta, beraz, Joanek frontera joan behar izan zuen, Francoren alde borrokatzera. Frontean hil zen, nire ustez, 1938an, 29-30 urte zituela. Bere hilotza ez zen inoiz agertu, eta familiakoek ez dakite non zendu zen, ezta non lurperatu zuten ere.

Eizagirre Kareaga, Anjel (Markina, 1912 - 1937): Markinan bizi zen, Erdiko kalean, gaur egun Euzkitze burdindegia dagoen etxean. Bere amak denda bat zuen beheko solairuan. Berak tela denda bat zuen alboko etxean. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara deitu zioten, 1936ko azaroaren 19an. Dena dela, ezkutatu egin zen, frontera ez joateagatik. Guda lerroa apurtu zenean, eta Francoren tropak Markinan sartu zirenean (1937ko apirilaren 27an), atera egin zen bere ezkutalekutik. Frankistek frontera eraman, eta berehala hil zen, 25 urte zituela.

Gandiaga Lejardi, Karmelo (Markina, 1919 – Valladolid, 1939): Markinako Akoda baserrikoa. Karmelok 19 urte zituen 1938an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuen Francok. 1938ko otsailean joan zen gerrara, eta 1939an, italiarren CTV taldean zegoen. Valladolideko ospitale militarrean hil zen, eztarriko gaixotasun baten ondorioz, 1939ko abuztuan. Denbora luzez egon zen ospitalean gaixorik, eta familiak hainbat ahalegin egin zituen handik etxera ekartzeko (batez ere, Gurutze Gorriko buru zen Gaitan de Aialarekin aritu ziren harremanetan), baina ospitalean hil zen, eta Valladoliden lurperatu zuten.

Garate Arizmendiarrieta, Joan (1918an jaioa, Xemeinen): 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Joan. Joanek 19 urte egiten zituen 1937an. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1937an mobilizatu zuten 39ko kinta. Frontean borrokatzen ari zela hil zen.

Garramiola Garmendia, Jose Maria (Xemein, 1914 – Gorbeia, 1936): Xemeingo Eizagirre baserrian bizi zen. Nekazaria eta ezkongabea. Euzkadiko Jaurlaritzak bere kintakoak deitu zituen abenduaren 9an, baina badirudi, Jose Mari, deitu aurretik, boluntario joan zela frontera. Lehenengo Prieto batailoian borrokatu zuen, eta gero UGT2 batailoian. Gorbeian hil zuten, 1936ko azaroaren 30rean, fusilen balek eragindako zaurien ondorioz. 22 urte zituen (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa).

Goikoetxea Aspiazu, Viktor (Xemein, 1916 – Bizkargi, 1937): bere kintako beste asko bezala, 1936ko abenduan edo 1937ko hasieran joan zen frontera, Errepublikaren alde borrokatzera. Capitan Casero batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 181), eta Bizkargiko borroketan zendu zen, 1937ko maiatzaren 13an, 21 urte zituela.

Guenetxea Agirrebengoa, Francisco: markinarra jaiotzez, Basaurin bizi zen. Sollubeko batailan hil zuten; hain justu ere, Gernika inguruan, 1937ko maiatzaren 2an. 30 urte zituen (Vargas Alonso, 2007: 455 eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildakoen jakinarazpena).

Ibaibarriaga Madariaga, Jose (Markina, 1912 – Aragoi, 1938, 1933ko kintoa): Markinako Altzalei Beheko baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera; hain zuzen ere, Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 204). Atxilotu ostean, Francoren batailoietara bidali zuten, eta Aragoiko frontean hil zen, 1938. urtean, 25 urte zituela (Garaian, 3-1988). Hilotza ez zen inoiz agertu.

Ibarluzea Oregi, Benito (Markina, 1918 - 1939): Markinako Barinaga auzoko Odiaga Nagusi baserrikoa (Oria nagusi). 1938ko otsailean eraman zuen Francok gerrara, eta frontean hil zen, 1938ko abuztuaren 23an. 20 urte zituen. Beatifikazio prozesuan dagoen Domingo Ibarluzea Oregiren anaia zen.

Ibarzabal Arrieta, Migel (Markina, 1910 – Bilbo, 1937): Markinako Barinaga auzokoa zen, Aranzeta (Asta) Guena edo Goikoa Baserrikoa. Ezkongabea eta nekazaria. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1931ko kintoa izanik, Migelek gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera, 1936ko abenduan. San Andres batailoian egon zen. Postari lanak egiten zituen batailoi honentzako, eta bizikletaz joaten zen Barinagatik Markinara. Bizikletan zihoala, Etxebarri – Barinaga - Markina bide gurutzean tiro batek buruan jo zuen. Basurtuko Ospitalera eraman zuten zaurituta, baina bertan hil zen, 1937ko matxoaren 6an, 27 urte zituela. Barinagako kanposantuan lurperatu zuten (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa).

Iturraran Lauzirika, Florentzio (Xemein, 1911 – Teruelgo Frontea, 1938): Xemeingo Axola baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1932ko kintoa izanik, gerrara joan behar izan zuen, 1936ko azaroan. Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatzera bidali zuten; hain justu ere, San Inazio Errekete Tertziora. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela hil zen Teruelgo frontean, 1938ko maiatzaren 25ean (Garaian, 3-1988). Iglesuela del Cid herrian hil zen, 26 urte zituela.

Iturraran Lauzirika, Martin (Xemein, 1900 – Ubidea, 1936): Xemeingo Axola baserrikoa jaiotzez, baina Algortan bizi zen. Lanbidez gidaria, eta ezkonduta zegoen. Bi semealaba zituen. Errepublikaren alde borrokatu zuen, Carros de Combate batailoian, eta Ubidean hil zuten 1936ko abenduaren 1ean (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa). Legutioko Euskal Armadaren eraso zapuztua 1936ko azaroaren 30rean hasi zen (800 defuntu eta 400 zauritu euskal armadan). Erasoa hasi zen egunean,

Martinen anaia agustindarra, Migel, fusilatu zuten errepublikarrek Paracuellos del Jaraman (Xemein, 1918 - Paracuellos del Jarama, 1936). Martin Iturraran bere anaia Migel hil eta bi egunera zendu zen.

Laka Oregi, Agustin (1911 jaioa, Barinagan, 1932ko kintoa): Markinako Asabel Goikoa (Gainekoa) baserrikoa (Barinaga). 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera. Lehenengo, Errepublikaren aldeko Morteroen batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 224), eta gero, 1937ko irailetik aurrera, Francoren aldeko batailoietan. Etxekoek diote fusilatu egin zutela Madrilen.

Larrinaga Larrinaga, Jose Domingo «Azpiko-errota» (Xemein, 1916 – Turtzioz, 1937): Xemeingo Azpiko-Errota baserrian bizi zen. 1916an jaioa izanik, 1937ko kintakoa zen. Kinta honetakoek alde desberdinetan borrokatu zuten, gerrak non harrapatu zituenaren arabera. Batzuek Francoren aurka borrokatu zuten, beste batzuek Francoren alde eta beste batzuek lehenengo Errepublikaren alde eta gero aurka. Josek Errepublikaren alde borrokatu zuen, Irrintzi batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 232), eta 1937ko uztailaren 29an hil zen Turtziozen (Bizkaia). 21 urte zituen hil zutenean. Bere hilotza ez zen inoiz agertu. Bere iloba Ana Mari Larrinagak hainbat ahalegin egin ditu bere gorpua bilatzen, baina orain arte ez du ezer lortu. Hara zer erantzun zioten Aranzadi Zientzia Elkartekoek Jose Domingori buruz galdetu zienean: «Karrantzako Erregistro Zibilaren arabera, 1937ko uztaila amaieran hainbat jende hil zela dakigu, horien artean Jose Larrinaga (kopia helarazten da). Hildakoen arteko gehienak Karrantza inguruko herrietara eramanak izan ziren. Halaber, larri zauritutakoak Molinarreko Odol Ospitalera eraman zituzten». Bere amari denda zeukan errekete batek eman zion bere semearen heriotzaren berri, eguen batean azokatik etxera zihoala. Lur jota heldu ei zen etxera.

Larruskain Garitagoitia, Eusebio (Markina, 1919 – Kordoba, 1938): Markinako Altzalegi-Goiena baserrian bizi zen. 1938ko otsailean eraman zuen Francok frontera. 1940. urtera arte ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen, baina Francok errefortzuak behar zituenez, bera eta bere kintakoak 1938an eraman zituen gerrara. Erreketeekin borrokatu zuen, eta Kordobako frontean hil zuten 1938. urtean, 19 urte zituela (Garaian, 2 eta 3-1988).

Larruskain Olalde, Jose (Markina, 1911 – Bilbo, 1937, 1932ko kintoa): Markinako Makarda Beheko baserrikoa zen. Ezkongabea. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Rebelion de la Sal batailoiko lehen konpainian borrokatu zuen. Ermuan zauritu zuten, eta Basurtuko Ospitalean hil zen, 1937ko maiatzaren 1ean, 25 urte zituela. Bista Alegreko kanposantuan lurperatu zuten (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa).

Larruskain Olalde, Agustin (Markina, 1913 – Iruñea, 1939, 1934ko kintoa): Markinako Makarda Beheko baserrian bizi zen. 1934ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera eraman zuten, Rebelion de la Sal batailoira (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 233). Laredon atxilotu zuten 1937ko abuztuaren azkenetan, eta, denboraldi batez atxilotuta egon ostean, Francoren aldekoekin borrokatzera bidali zuten. 1939ko urtarrilean, erreketeen Lacar Tertzioan zegoen borrokatzen. Frontean zauritu egin zuten, eta Iruñeako ospitalean zendu zen, 1939ko otsailean, 25 urte zituela. Herritarrek diotenez, bere gorpua etxera ekarri zutenean, herriko erreketeek omenaldia egin nahi izan zioten, Francoren aldeko batailoietan hiltzen ziren beste soldaduei bezala, baina etxekoek ez zuten omenaldirik nahi izan; aurretik, Agustinen anaia Jose hil zelako frontean, eta hari ez ziolako inork omenaldirik egin. Familiak ez zuen ospakizunetarako gogorik.

Larruskain Solozabal, Segundo (Xemein, 1918 – Teruel, 1937): Anitua baserrikoa. Gerra hasi zenean, Angostoko pasiotarren komentuan zegoen bizitzen, agian, fraide ikasketak egiten ari zelako. Araba Francoren eskuetan gelditu zenez, frontera eraman zuten. Teruel-

go frontean hil zen, 1937ko abenduaren 26an, Francoren aldeko batailoietan borrokatzen ari zela. Tankeen aurkako 14. Bateriako hirugarren taldean zegoen hil zutenean.

Larruskain, Jose Migel: Ontzu-Azpi baserrian bizi zen. Francoren batailoiekin borrokatzen ari zela hil zen 1937an edo 1938an eta gorpua ez zen inoiz agertu. 24 urte zituen zendu zenean.

Lejardi Goiogana, Migel (Xemein, 1918 – Balentzia, 1938, 1939ko kintoa): Xemeingo Laparra baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak, eta urte horretan bertan, Francok herriko hamaika gazte eraman zituen gerrara, tartean Migel. Migelek 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen, 1939. urtera arte, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1937an mobilizatu zuten 39ko kinta. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela hil zen Balentziako frontean 1938. urtean, 20 urte zituela (Garaian, 3-1988).

López Ruiz, Santiago (1910 - 1936): Solaresen jaioa, Markinan bizi zen. Ebanista zen. Ezkondua zegoen eta seme bat zuen. Boluntario joan zen gerrara, batailoiak eratu aurretik. Herri milizietan borrokatu zuen, baita Amuategi batailoian ere. Arraten (Eibar) hil zuten, 1936ko irailaren 26an, 26 urte zituela (Gutierrez, 2007: 262 eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa).

Murua Garramiola, Ramon «Txirrikiton» (1914an jaioa, Markinan, 1935eko kintoa): ikusi VI. eranskina.

Olalde Mendibe, Isidro (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa, 1937an hil zen): Markinako Bekutegi baserrian bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 292). Atxilotu ostean, Francoren batailoietan borrokatu behar izan zuen eta frontean zendu zen. Pentsatzen dut 1937an hil zutela, 24 urte zituela.

Olañeta Agirregormezkorta, Sotero (Markina, 1913 – Calpe, Alacant, 1939): Markinako Barinaga auzoko Ertsil baserrikoa. Soldaduska egina zuen. Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1913an jaioa izanik, (1934ko kinta) gerrara joan behar izan zuen. Hain justu ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Eibarko gerrako komandantziara bidali zuten 1936ko urrian. Lehenengo, Errepublikaren alde borrokatu zuen Loiola batailoian, baina atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. Calpen (Alacant-en) hil zen itota, 1939ko apirilean. Itxura denez, gerra amaitu eta lizentziatu ostean, bainu bat hartzera joan zen, eta bertan itota hil zen, 26 urte zituela.

Onaindia Astarloa, Gilermo (Xemein, 1917 – 1937): Meabe auzoan bizi zen. Errepublikarekin borrokatzen ari zela zendu zen, nire ustez, 1937an. 1938ko kintoa izanik, pentsatzen dut 1937ko hasieran eraman zutela frontera, eta 1937ko lehen lau hiletan hil zela.

Onaindia Baseta, Valentin (1914 - 1937): Amorotoko Atxuriarte baserrikoa zen, baina, gerratean, Markinan bizi zen bere gurasoekin. Paperetan markinar bezala agertzen da. Santiago Onaindia karmeldarraren anaia zen. Bere ama, Jazinta Bazeta Albizuri, Markinan hil zen 1953an, 79 urte zituela, Abesuako Onaindi-Txiki etxean, baita bere aita ere: Migel Onaindia Barrutia, 76 urte zituela. Valentin San Inazio Errekete Tertzioko soldadua zen. San Inazio Tertzioko lehen hildakoa izan zen (Arostegui, 1991, II. tomoa: 68). Soldaduskara joan zen 1937an, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatzen tokatu zitzaion. Leoneko frontean hil zen, 1937ko irailaren 28an, 23 urte zituela. Bere aita Migel markinarra zenez (Meabe auzokoa), markinako kanposantuan lurperatu zuten.

Oregi Mallea, Jose Maria (1908an jaioa, 1929ko kintoa): Xemeingoa zen. Nire ustez, 1937ko hasieran joan zen frontera Errepublikaren alde borrokatzera eta 1937ko urrirako hilda zegoen. Kontuan izan 1937ko urriaren 6an, Francok 1929ko kintoak eraman zituela frontera, baina Jose Maria ezin izan zuen eraman hilda zegoelako.

Txopitea Apoita, Doroteo Antonio (Xemeinen jaioa, 1911n, 1932ko kintoa- Burgos 1938): Xemeingo Txepetxabixe baserrikoa. Francoren aldekoekin borrokatzen ari zela hil zen Burgoseko frontean, 1938an (Garaian, 3-1988). Pentsa daitekeena da boluntario joan zela. Izan ere, 1911n jaioa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten 1936ko urrian, dena den, bera ez zen aurkeztu, Francoren tropekin borrokatzen ari zelako. Burgoseko Artilleria Parkean borrokatu zuen, eta 1938ko urtarrila eta uztaila bitartean zendu zen. 26 urte zituen hil zenean.

Ugalde Goenaga, Mariano (Markina, 1910 – Asturias, 1936): markinarra zen, baina Erretuerton bizi zen. Arotza zen, eta ezkonduta zegoen. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1931ko kintoa izanik, Marianok gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan. Errepublikaren aldeko batailoietan aritu zen borrokan. Lehenengo Isaac Puente batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 373) eta gero Malatesta batailoian (CNT). Asturiasen hil zuten, 1936ko azaroaren 13an, 26 urte zituela (http://www.todoslosnombres.es eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: hildako gudarien erregistroa).

Urigoitia Arrien, Inazio «Iñaki» (Forua, 1918 – Lleida, 1939): Esperanza fabrika 1933an etorri zen Gernikatik Markinara, eta Saturnino Urigoitia Uriarte, Sabina Arrien eta euren seme-alabak (Maria, Joan, Karmen, Iñaki eta Felix) fabrikarekin batera etorri ziren Markinara. Okerra kaleko seigarren atarian hasi ziren bizitzen. Saturninok eta bere seme Joanitok, Iñakik eta Felixek Esperanza y Cian lan egiten zuten gerra hasi zenean. Esperanza fabrika militartua zegoen, eta, 1936ko azaroan, gerra hasi eta lau hilera, tropa frankistak Markina inguruko mendietara hurbildu zirenean, fabrika Zamudiora eraman zuten (seminarioaren beheko solairuetara), Burdinazko Gerrikoaren barnean babestuago zegoelakoan. Fabrikarekin batera, Urigotiatarrak Zamudiora joan ziren bizitzera. Burdinazko Gerrikoa apurtu zenean, fabrika frankisten eskuetan gelditu zen, baina militartua segitu zuen. Alegia, bertako langileak soldaduak bezalakoak ziren. 1938ko udan eta udazkenean, Francok arazoak izan zituen Ebro ibaia gurutzatzeko, eta soldadu gehiago behar izan zituen Ebroko gudaldian borrokatzeko eta Errepublikarrei irabazteko (Ebroko gudaldia 1938ko uztailetik azarora izan zen, eta 15.000-20.000 soldadu hil ziren). Horrela, Esperanza y Ciako langile batzuk mobilizatu zituzten 1938ko udan edo udazkenean, tartean Iñaki Urigoitia. Bere lagun batek bidali zuen eskutitz batetik dakite familiakoek Barbastro inguruan larri zauritu zutela, baina ez zuten gehiago bere berririk izan. Gerra bukatu zenean, etxera bueltatuko zenaren esperantza izan zuten etxekoek, baina ez zen inoiz agertu. Bere gurasoei asko kostatu zitzaien Francoren partean borrokatzen hil zirenen senideei zegokien pentsio kobratzea. Dena den, azkenean, lortu zuten, eta bere amak hil zen arte kobratu zuen pentsioa. Garaian aldizkarian datorren informazioaren arabera, Iñaki Lleidako frontean hil zen, 1939ko urtarrilean, 20 urte zituela (Garaian, 4-1989). Jenaro Arrate Santamariaren koinatua zen.

Urionabarrentxea Alberdi, Damaso «Albitxu» (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa eta Bilbon hil zen 1937an): Markinako Albitxu baserrian bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera; Rebelion de la Sal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 381) eta Ermuan zauritu ostean, Bilboko ospitalean hil zen, 1937an. 24 urte zituen hil zenean.

Urriolausokoa Lauzirika, Felix «Lezan» (Xemein, 1916 – Lemoa Haitza, 1937): Xemeingo Lezaran baserrikoa. San Inazio Errekete Tertzioan borrokatu zuen, Francoren aldeko batailoietan. Lemoa Haitzean hil zuten, 1937ko maiatzaren 25etik ekainaren 5era bitartean. Bere gorpua ez zen inoiz agertu.

Zubialdea Kortabitarte, Joan (Xemein, 1914 – Sollube, 1937): Xemeingo Ugartetxe baserrian bizi zen. Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Esperanza fabrikan lan egiten zegoen Zamudion 1936ko azarotik, baina Euzkadiko Jaurlaritzak bere

kintakoak deitu zituen abenduaren 9an. 1936ko abenduaren 14an, Euzko Gudarostean sartu zen. Gordexola batailoiko Mentxaka konpainiako gudaria izan zen. Sollubeko borroketan zauritu ostean zendu zen, eta Barakaldon lurperatu zuten. Familiakoek diotenaren arabera, Sollubeko borroketan hegazkin batetik botatako bonba batek bi hankak kendu zizkion (Nire kalkuluen arabera, hori maiatzaren 11n izan zen). Handik egun batzuetara, maiatzaren 18an, hil zen Barakaldoko ospitalean. 22 urte zituen hil zenean. Vargas Alonso ikerlariak, (2007: 444) Sollubeko borrokei buruzko liburuan, Joan Zubialdea Kortabarria izeneko pertsona baten berri ematen du. Bigarren abizena erratua dago: ez da Kortabarria Kortabitarte baizik (familiak emandako informazioa eta Vargas Alonso, 2007: 444). Itxura denez, Zamudion zegoen Esperanza fabrikatik hiru alditan deitu zioten lanera bueltatzeko, jendea behar zutelako, baina bere arrebari eman zioten hirugarren eskutitza heldu zen bakarrik.

Zubigarai Elorza, Jose Maria (Xemein, 1912 – Ebroko Frontea, 1938): Larruskain auzoko Larruskain Erdikoa baserrikoa. 1933ko kintoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Atxilotu ostean, langileen 14. batailoiko lehen konpainiara bidali zuten; hain zuzen ere, Alfajarinen (Zaragoza) eta Almocellas-en (Lleida) egon zen. 1938ko abuztuan langileen batailoi horretan jarraitzen zuen. Gasteizen ere egon zen atxilotua. Gero, Francok berarekin eraman zuen borrokatzera eta Ebroko frontean hil zen.

XI. ERANSKINA: GERRA ZIBILEAN BORROKATU ZUTEN MARKINARRAK eta XEMEINDARRAK

Aginaga Barinaga, Martzelino (Markina, 1906 – Amorebieta-Etxano, 1937, 1927ko kintoa): Ikusi X. eranskina.

Agirreamalloa Olalde, Jose (1918an jaioa, Xemeinen, 1939ko kintoa): Xemeingo Olabe baserrikoa. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, frankistek herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Jose. Josek 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuen. 1937ko uztailaren 27an eraman zuten Jose gerrara. 1938an, Palentziako Ospitale Probintzialean zegoen, zauritu zutelako edo gaixorik zegoelako. 1940an, seigarren Ingeniarien Erregimentu Mistoan zegoen.

Agirreamalloa Solozabal, Kalixto (1904an jaioa, Xemeinen): Olabe baserrian jaio zen. Olabe baserriko Pedro eta Maria Agirreamalloaren naia gazteena zen. 16-17 urte zituenean, Basaurira joan zen beharrera. Eusko Langileen Alkartasuneko kide eta EAJko jarraitzaile izan zen Errepublika denboran. Gerran Irrintzi mortero eta mina-jaurtitzaileen konpainian ibili zen. Ez zuten atxilotu, eta 1942. urteko urrira arte Bilbon aritu zen lanean. Gero Xemeinera bueltatu zen, eta Esperanza fabrikan hasi zen lanean, «…baina antolaketa politiko-sindikala alde batera utzi gabe… Markinako jeltzaleon mugimenduak laster sumatu zituzten hauen etsaiek eta, Calixtoren lehengusua eta 'lehen liberal beltza eta orain faltsuen buruzagia' zen arerioetariko Cecilio Bustinduiren eraginez berriz ere ihes egin beharra izan zuen (Goiogana, 2010: 68). Pasaian, Zumarragan eta Elizondon lanean ibili ostean, zerbait gertatuko zitzaiola beldurtuta, Iparraldera ihes egin zuen, 1944ko uztailean. Bigarren mundu gerran aliatuen esanetara borrokatu zuen Gernika batailoian aritu zen 1946. urtera arte, Gironda aldean. Urteetara bueltatu zen Hegoaldera (Goiogana, 2010: 67-69).

Agirregomezkorta Atxa, Jose (1910ean jaioa, 1931ko kintoa): 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1931ko kintoa izanik, Josek gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan. Errepublikaren aldeko batailoietan aritu zen borrokan, Orbea batailoian (Egaña, 2000, VIII.

tomoa: 24). Atxilotuta egon ostean, Francoren batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, 22. San Martzialen 2. batailoian zegoen, Nafarroako laugarren Dibisioan.

Aguado Baza, Inazio: Markinan jaio zen, baina Legorretan bizi zen. Convoyes batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 22). Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarraren ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan. Bere anaia Polikarpok Leandro Carro batailoian borrokatu zuen.

Alberdi Azkue, Joan (1906an jaioa, Xemeinen, 1927ko kintoa): bere kintako asko bezala, 1938ko abenduan eraman zuen Francok frontera.

Alberdi Azkue, Rufino (1912an jaioa, 1933ko kintoa): Markinan bizi zen. Bere aitaren fabrikan, Barinaga eta Alberdin, lan egiten zuen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Hain zuzen ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 27). Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten. Gero, langileen batailoira bidali zuten, gobernuarentzako debaldeko lana egitera. Estatuko hainbat tokitan aritu zen bortxazko lanak egiten.

Alberdi Azkue, Patxi «Patxiko Aixerna» (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936eko kintoa): Rufinoren anaia. Gerraurretik Inazio Azkueren dendan lan egiten zuen. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1936ko kintoa izanik, Patxik gerrara joan behar izan zuen, 1936ko abenduan. Errepublikaren aldeko batailoietan aritu zen borrokan, besteak beste, San Andres Zapadores batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 27). Agustin Egizabalekin ere ibili zen, intendentzia militarrean. Lehenengo Markinako Frontean aritu zen, eta gero Estatuko hainbat lekutan: Santander, Asturias, Jijon, Bartzelona, Teruel eta Kastellon. Bakarrik Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen. 1937ko abuztuan atxilotu egin zuten Laredon, eta gero langileen batailoietara bidali.

Alberdi Azkue, Eduardo (1917an jaioa, Xemeinen, 1938ko kintoa): gerra hasi zenean, Sevillan zegoen pilotan jokatzen (Bilbao, 2009: 21). Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Eduardo. Eduardok 20 urte zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1938. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 38ko kinta mobilizatzea erabaki zuen, eta gerrara joan behar izan zuen.

Alberdi Azpiri, Joan Jose (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): Markinako Orrondo baserrikoa (Barinaga). 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela.

Alberdi Azpiri, Justo (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintoa): Markinako Orrondo baserrikoa (Barinaga). 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Justok, 1936ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara. Saseta batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 27). Atxilotuta egon ostean, Francoren aldeko batailoietan ere borrokatu behar izan zuen.

Alberdi Azpiri, Jose (Markinan jaioa, 1917an, 1938ko kintoa): Markinako Orrondo baserrikoa (Barinaga). 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Las Navas Ehiztarien batailoian egon zen (Plana Nagusia).

Alberdi Azpiri, Antonio (Markina, 1919 – Lleida, 1938): ikusi X. eranskina.

Alberdi Gisasola, Martzelino (Xemein, 1917 – Ebroko Frontea, 1938): ikusi X. eranskina.

Alberdi Gisasola, Julian (1912an jaioa, 1933ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, ge-

rrara joan behar izan zuen. Hain justu ere, Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 28). Gerraren hasieran, Markinako Frontean ere egon zen, intendentzia lanetan.

Aldazabal Azpiri, Simon (1918an jaioa, Xemeinen, 1939ko kintoa): Xemeingo Itoiño baserrikoa. Boluntario joan zen zapadore edo luebakitzaile lanak egitera Errepublikaren alde. Atxilotuta egon ostean, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1937ko urrian. Hamabost hilabete egin zituen fronteko lehen lerroan Francoren alde borrokatzen, eta hamaika hilabete fronteko bigarren lerroan. Seigarren zenbakia zuen Ingeniarien Erregimentu Mistoan egon zen 23 hilabetez eta hiru hilabetez 24. zenbakia zuen Bailen Infanteriako Erregimentuan. Azkenean, Donostian zegoen, seigarren zenbakia zuen zapadoreen batailoian. 1942an lizentziatu zuten.

Aldazabal Urriolabeitia, Anjel (Xemein, 1916 – Markina-Xemein, 1977): Xemeingo Eizar baserrian jaio zen, baina 19 urte zituela Xemeingo udaletxera etorri zen bizitzera, bere amarekin batera. Abertzalea izanik, 1936ko abenduan, boluntario joan zen frontera, Errepublikaren alde borrokatzera. Itsasalde batailoian borrokatu zuen. Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon. Badakigu denboraldi batez Deustuko unibertsitatean egon zela atxilotuta. Ostean, langileen batailoietara bidali zuten, eta arotz lanetan ibili zen, 1939ra arte. Lorenzo Garateren alaba batekin, Mirenekin, ezkondu zen.

Alegria Uriarte, Koldobika (1915ean jaio zen, 1936ko kintoa): Lekeitiarra zen jaiotzez, baina 1933tik Markinan bizi zen. Esperanza fabrikan lan egitera etorri zen Markinara, eta Txori-benta inguruan bizi zen bere amarekin eta arrebekin. Bere ama, Luzia Uriarte Agirreamalloa zen, Esperanza fabrikako zuzendari-gerentearen, Castor Uriarteren, arreba. 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko, eta Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 31). Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon, eta, gero, langileen batailoira bidali zuten, gobernuarentzako doako lana egitera. Estatuko hainbat tokitan aritu zen bortxazko lanetan. Luisen anaia, Bittor, Maroñoko (Araba) ekonomoa zen, baina ez dakizkigun arrazoiengatik, atxilotu egin zuten errepublikarrek, eta Cabo Quilates itsasontzian hil zuten 1936ko urriaren 2an.

Allende Fernandez, Saturnino (Zentroniko, 1912 – Markina-Xemein, 1970, 1933ko kintoa): Zentronikon jaio zen (Nafarroa), baina Markinan bizi zen. Pilotaria zen (Bilbao, 2009: 29). 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. 1936ko azaroan joan zen frontera. Ingeniariak I batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 38). Atxilotu egin zuten, eta langileen 65. batailoietara bidali. Besteak beste, Balentzia inguruan ibili zen batailoi horrekin. Bere aita, Kasimiro Allende, kartzelan egon zen denboraldi batez, eta gero Markinatik desterratu egin zuten.

Allende Fernandez, Leokadio (Zentroniko, 1914 – Mexiko, D. F. 70. hamarkada, 1935eko kintoa): Zentronikon jaio zen (Nafarroa), baina Markinan bizi zen. Pilotaria zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera, Artilleria Arina batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 38). Gerra bukatu zenean, Frantziara ihes egin zuen. 1939an, Gurs-eko kontzentrazio eremuan zegoen (Chueca, 2007: 126). Ez dakit zenbat denbora egin zuen Gurs-eko kontzentrazio eremuan, ezta noiz bueltatu zen ere. Dena den, 1940an, pilotan jokatzen zegoen Madrilen. Bere pilotako azken urteetan (1945 - 1949) Mexikoko Distritu Federalean jokatu zuen, eta, ostean, bertan gelditu zen bizitzen. Mexiko Distritu Federalean zendu zen 70. hamarkadan (Bilbao, 2009: 29). Bere aita, Kasimiro Allende, kartzelan egon zen denboraldi batez, eta gero Markinatik desterratu egin zuten.

Allende Fernandez, Julian (Zentroniko, 1917 – Markina-Xemein, 1984, 1939ko kintoa): Pilotaria izan zen gerra aurretik (Bilbao, 2009: 29). Adinagatik, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. Hain zuzen ere, 141. batailoian egon zen, Plana Nagusian.

Alonso Nieulant, Rafael (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Bere gurasoak Manuel Alonso Agirresarasua eta Maria Karlota Nieulant Erro izan ziren (1887 - 1965), Villafranca del Castilloko-ko markesak. Rafael Xemeinen jaio zen, bere gurasoak Urberuagako bainuetxeko jabeak zirelako eta bertan bizi zirelako. Dena den, gero Bilbora joan ziren bizitzera eta Rafael Bilbon hasi zen. Bere kintakoak 1937ko urrian eraman zituen Francok frontera, eta pentsatzen dut bera ere orduan joan zela.

Alzibararetxuluaga Goenaga, Rejino (Xemeinen jaioa, 1910ean, 1931ko kintoa): Larruskain Goikoa baserrikoa. Manuel Alzibararetxuluagaren anaia. Frankisten alde borrokatu zuen gerraren hasieratik. 1937ko urrian, Francoren armadako Flandes-eko 3. batailoian zegoen (Nafarroako 4. Dibisioa). Alferez gradua lortu zuen Francoren armadan. Herritar batzuek diotenaren arabera, 1937ko otsailaren 23an, Urberuaga bonbardatu zuen hegazkin frankistaren kopilotu etorri zen. Bonbardaketa honek lau hildako eta bost zauritu eragin zituen (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006: 81). Bonbek Buena Vista etxea apurtu zuten, eta kalte handiak eragin zituzten Azpiltzan eta bainuetxeko etxe Frantsesean. Bonbardaketa honen ondorioz, Jose Maria Urriolabeitia Garramiola (1882 - 1937) eta miliziar batzuk hil ziren (Egaña, VI. tomoa, 1999: 295). Rejino abade egin zen.

Alzibararetxuluaga Galdos, Joan «Barinaga» (Markina, 1916 – Tanger, Moroko, 1946, 1937ko kintoa): Pilotaria izan zen, eta Bigon, A Coruñan, Lleidan eta Tanjerren jokatu zuen (Bilbao, 2009: 75). 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko armadan zegoen; metrailadoreen 257. batailoian.

Amillategi Kareaga, Matias (Markinan jaioa 1913an, 1934ko kintoa): ikusi II. eranskina.

Andrinua Barinaga, Joan (Markinan jaioa, 1913an, 1934ko kintoa): Okerra kalean bizi zen. Pentsatzen dut gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela.

Ansola Aldazabal, Francisco: Mutrikukoa zen jaiotzez, baina Larruskaingo (Xemein) errotan bizi zen. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera 1937ko urtarrilean, eta gero Frantziara hanka egin zuen. 1939an, Gurs-eko kontzentrazio eremuan zegoen (Chueca, 2007: 130). Josu Chueca-k idatzitako *Gurs. El Campo Vasco* liburuan (Txalaparta, 2007: 130) Francisco PCE-koa zela esaten da.

Ansola Aldazabal, Jose (Xemeinen jaioa, 1911n, 1932ko kintoa): Larruskaingo (Xemein) errotan bizi zen. Uste dugu Francoren armadan borrokatu behar izan zuela.

Ansola Zelaia, Felix: Ansola anaiak irailaren 21ean heldu ziren Elgoibartik Xemeinera. Erreketeak irailaren 21eko arratsaldeko 18: 30etan sartu ziren Elgoibarren, eta Ansolatarren ama xemeindarra zenez, Askurrinaga Goikoa baserrikoa, amaren jaiotetxera etorri ziren, frankistengandik ihesi. Markinara etorri ostean, PNV-ren Atzeguardia batailoian sartu ziren, Markinako eta Xemeingo ordena publikoa zaintzeko (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 161), eta, azaroan, Esperanza fabrikarekin joan ziren Zamudiora. Kontuan izan, Elgoibartik gazte askok ihes egin zutela 1936ko irailaren 21ean, eta ia denak gure herriko ordena publikoa zaintzen aritu zirela, urriaren 18tik aurrera.

Ansola Zelaia, Jose: bere anaiek bezala, irailaren 21ean heldu zen Elgoibartik Markinara, erreketeengandik ihesi. Jose politikoki inplikatua zegoen Elgoibarren, abertzalea eta ELA sindikatuko kidea zelako, eta, beraz, frankisten errepresioaren beldur zen. Bere anaiak eta beste hamaika elgoibartar bezala, PNV-ren Atzeguardia batailoian sartu zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 161), eta Markinako eta Xemeingo ordena publikoa zaintzen aritu zen urriaren 18tik aurrera. Alabaina, azaroaren 13an Zamudiora joan zen lanera Esperanza fabrikarekin.

Ansola Zelaia, Luis: bere anaiek bezala, irailaren 21ean heldu ziren Elgoibartik Markinara, erreketeengandik ihesi. Bere anaiak eta beste hainbat elgoibartar bezala, PNV-ren Atzeguardia batailoian sartu zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 161), eta Markinako eta Xeme-

ingo ordena publikoa zaintzen aritu zen urriaren 18tik aurrera. Dena den, azaroaren 13an Zamudiora joan zen lanera, Esperanza fabrikarekin.

Apalategi Dorronsoro, Domingo (Ataunen jaioa): ikusi X. eranskina.

Arakistain Gisasola, Jesus Julian (1911n jaioa, 1932ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Hain zuzen ere, Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 49). Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatu behar izan zuen.

Arakistain Gisasola, Jose Maria (1910an jaio zen, 1931ko kintoa): 1931ko kintoa izanik, 1937ko urtarrilean Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen, eta atxilotu ostean Langileen batailoietara bidali zuten. 1938ko urtarrilean, lehenengo zenbakia zuen langileen batailoian zegoen Madrileko frontean.

Arakistain Urriolabeitia, Bernardino (1908an jaioa, Markinan, 1929ko kintoa): Errepublikaren alde borrokatu zuen Gogorki batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 49). Atxilotu ostean, pentsatzen dut Francoren alde borrokatu behar izan zuela.

Aranburu Olano, Tomas: Okerra kalean bizi zen, eta Errepublikaren aldeko Rusia batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 46).

Aranburu Olano, Lucas: Okerra kalean bizi zen, eta Errepublikaren aldeko Rusia batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 46).

Aranburu Olano, Jose: Okerra kalean bizi zen, eta Errepublikaren aldeko Azkatasuna batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 46).

Aranguren Artola, Leon - Aita Leon San Eliasena (Aramaio 1906 – Markina-Xemein, 1986): Fraide karmeldarra zen. Jaiotzez Aramaiokoa zen, baina hainbat urte egin zituen Markinako karmeldarren komentuan bizitzen, bai gerra aurretik zein gerraondoan, eta bertan hil zen. Gerratean, Itsasalde batailoiko kapilau izan zen, kapitain graduarekin (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 48). Beraz, harreman estua izan zuen batailoi honetan egon ziren Markinako eta Xemeingo hainbat gudarirekin. Atxilotu ostean, epaiketa militarra egin zioten 1937ko abuztuaren 5ean, eta abuztuaren 14an heriotza sententzia eman zion epaileak, abertzale sutsua izateagatik, euskal gazteak Francoren tropen aurka borrokatzera bultzatzeagatik eta kapitain graduarekin gudarien kapilau izateagatik (Martínez, 2007: 64). Aita Luis Baraiazarrak dioen bezala, (Baraiazarra, 2009: 373): «Abade egin barri Markinara bidali eben giza zientzietako irakasle, 1931tik 1934ra. Soldadutza Donostian 1934ko abuztutik 1935eko urtarrilera bitartean egin ostean, Larreara bidali eben eta han harrapatu eban gerrak ezustean (1936 - 1939). Itsasalde batailoiko kapilau izan zan, kapitain graduaz. Kartzelan egon zan urteetan, 1937ko ekainaren 19tik 1943ko urtarrilaren 9ra bitartean, asko ikusia. Heriotzara kondenatu eben eta 1939ko azaroaren 13ra arte ez eutsien heriotza zigorra kendu. Gero hainbat komentutan bizi izan zan: Hoz de Aneron (Kantabria), Altzon, Markinan (bigarrenez), Hoz de Aneron (bigarrenez), Markina-Xemeinen (hirugarrenez), Larrean (bigarrenez), Altzon (bigarrenez), Hoz de Aneron (hirugarrenez), Soto-Iruzen (Kantabria), eta azkenez, Markina-Xemeinen (laugarrenez, 1975 - 1986)» (Airmn, 250-37 txostena; Baraiazarra, 2009: 373; eta Unzueta eta Izpura, 2001: 348).

Aransolo Barinaga, Jose (Markinan jaioa 1913an, 1934ko kintoa): Etxezabal baserrikoa. Francok gerrara eraman zuen 1937ko abenduan. 1939ko urtarrilean, bosgarren zenbakia zuen Flandes-eko Mendiko 4. batailoian zegoen, 12. dibisioan, 5. konpainian.

Aranzeta Bilbao, Santiago (1919an jaioa, Markinan, 1940ko kintoa): 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Santiagok 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten, eta Santiagok Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen. 1939an, zapadoreen bigarren talde mistoan zegoen, 2. konpainian, bigarren sekzioan, 13. taldean.

Areitio Amillategi Pedro (1913an jaioa, Markinan, 1934ko kintoa): Markinako Arriondo baserrikoa. Pentsatzen dut Francorekin borrokatu behar izan zuela.

Areitio Amillategi, Bizente (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintakoa): Markinako Arriondo baserrikoa. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Bizente 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara, Errepublikaren alde borrokatzera. Dena den, atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, 11. zenbakia zuen artilleria arineko erregimentuan zegoen. Dena den, badirudi ez zela frontera joan, eta zerbitzuetan aritu zela.

Areitio Amillategi, Teodoro (Markinan jaioa 1917an, 1938ko kintakoa): Markinako Arriondo baserrikoa. 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaien soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Seigarren zenbakidun Ceriñola 4. batailoiko, lehen konpainian egon zen borrokatzen.

Aretxabaleta Aginaga, Joseba (Markinan jaioa 1919an): 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Josebak 19 urte egiten zituen 1938an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen, 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez 1938an mobilizatu zuten 40ko kinta; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1938an. Bere aita fusilatu egin zuten Derion, 1937ko uztailaren 21ean.

Aretxabaleta Goikoetxea, Alexander (Markina, 1920 – Katalunia, 1939, 1941eko kintoa): ikusi X. eranskina.

Aretxabaleta Izaola, Rikardo: Erdiko kalean bizi zen. Bere gurasoek bezala, ezkerreko ideologia zuen. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten. Bere aita Anjel Aretxabaleta Aizpurua izan zen. Gerratean, Errepublikaren Defentsarako aldeko batzordeetan parte hartu zuen, eta, garai horretan, Markinako zinegotzia izan zen Herri Frontetik (Izquierda Republicana alderdiaren izenean). Francoren aldeko tropak Markinan eta Xemeinen sartu zirenean, Anjel Aretxabaleta Aizpuruak alde egin zuen bere andrearekin (Damiana Izaola Abendaño) eta alabarekin (Esperanza Aretxabaleta Izaola). Badirudi emazteak eta alabak Frantziara ihes egitea lortu zutela, eta bertan errefuxiatu zirela. Aita, Anjel Aretxabaleta, 1937ko abuztuaren 25ean atxilotu zuten, itsasoz Frantziara eskapatzen ari zela, eta kartzelan sartu zuten.

Aretxabaleta Izaola, Joan: Erdiko kalean bizi zen. Aurrekoaren anaia. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Ezkerreko ideologia zuen. Gerran ibili ostean, atxilotu, eta langileen batailoietara bidali zuten.

Aretxabaleta Izaola, Daniel: Erdiko kalean bizi zen. Aurrekoaren anaia. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Ezkerreko ideologia zuen. Gerran ibili ostean, atxilotu egin zuten, eta pentsatzen dugu langileen batailoietara bidali zutela.

Argoitia Sololuze, Pedro (1914an jaio zen, 1935eko kintoa): Xemeingo Beñekua (Barroeta-Beña) baserrian bizi zen. Gerrak soldaduskan harrapatu zuen. Hain justu ere, 1936ko urrian Garrellanon zegoen eta kuartel honetako militarrak Errepublikarekiko leial mantendu ziren, gerra piztu zenean. Horrela, Errepublikaren aldean borrokatu behar izan zuen. Atxilotu egin zuten, eta Langileen 51. batailoiko 3. konpainiara bidali, bortxazko lanak egitera; besteak beste, Gea de Albarracin-era.

Argoitia Sololuze, Felix (1917an jaioa, Xemeinen eta 1937an hil zen): ikusi X. eranskina.

Argoitia Sololuze, Bernardo (1917an jaioa, Xemeinen): ikusi X. eranskina.

Argoitia Sololuze, Jose Maria (1908an jaioa, 1929ko kintoa): Xemeingo Beñekua (Barroeta-Beña) baserrian bizi zen. Bere kintako beste hainbat bezala, Francok frontera eraman zuen 1937ko urrian.

Argoitia Unamunzaga, Tomas (1906an jaioa, Xemeinen, 1927ko kintoa): bere kintako asko bezala, 1938ko abenduan eraman zuen Francok frontera.

Arizmendiarrieta Madariaga, Jose Maria (Markina, 1915 – Arrasate, 1976, 1936ko kintoa): ikusi IV. eranskina.

Arizmendiarrieta Madariaga, Francisco (1916an jaio zen, 1937ko kintoa): Barinagako Iturbe baserrikoa. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen, 17. Ekipamendu Arinean, infanterian.

Arrarte Unamunzaga, Ramon (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa): EAJ-ko militantea zen (Egaña, 1998, III. tomoa: 264). Markinan bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Bere aita Jose Maria Arrarte Goiogana «Txato» zen (1876an jaioa) eta zapatak konpontzeko tailer bat zuen Erdiko kalean, bere anaia Jose Gurutzekin batera. Bere ama Maria Unamunzaga Elordi zen. Francoren tropak sartu aurretxoan, bere aitak eta anai-arreba Pedrok eta Mariak ihes egin zuten.

Arrate Apoita, Vitoriano (Xemein, 1910 – Markina-Xemein, 1963, 1931ko kintoa): Xemeingo Kanteralde baserrikoa zen. Gerra piztu zenean, pilotari zegoen Zaragozan (Bilbao, 2009: 55). Bere egoeran zeuden beste pilotari batzuek bezala, Francorekin egin behar izan zuen gerra.

Arrate Apoita, Jose (1916an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Kanteralde baserrikoa zen. 1937ko kintoa zen, eta Francok soldaduskara eraman zuen 1937ko urrian. Bakarrik Francoren batailoietan borrokatu zuen.

Arrate Egia, Esteban (1908an jaioa, Xemeinen, 1929ko kintoa): Bere kintako hamaika bezala, Francok frontera eraman zuen 1937ko urrian.

Arrate Santamaria, Jenaro, «Txorixe» (Xemein, 1909 – Markina-Xemein, 1967): Agustin Arrate Elordiren eta Saturnina Santamariaren semea. Bere aita eta anaiak bezala, Izquierda Republicanako kidea zen. Gerra hasi zenean, zapadore lanetan aritu zen, boluntario. Trintxerak egiten aritu zen, Markina eta Xemein inguruan, frankisten aurrerabidea gelditzeko. Francoren tropak bi herriotan sartu aurretxoan, Bilbo ingurura ihes egin zuen, eta berbertan atxilotu zuten. Larrinagako kartzelan sartu zuten aurrenengo, eta gero Francoren alde borrokatzera eraman zuten. 1939ko urtarrilean Burgosen zegoen, Artilleriako seigarren parkean.

Arrate Santamaria, Agustin, «Txorixe» (Xemein, 1912 – 1984): Agustin Arrate Elordiren semea eta Jenaroren anaia. Aita bezala, Izquierda Republicanako kidea zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Gerra bukatu zenean, Frantziara ihes egin zuen. Hortaz, 1939an, Gurs-eko kontzentrazio eremuan zegoen (Chueca, 2007: 123). Gurs-eko kontzentrazio esparruan egon ziren beste asko bezala, Francoren Espainiara bidali zuten, eta, ostean, Larrinagako kartzelan eta beste kartzela batzuetan egon zen preso.

Arrate Santamaria, Joan «Joanito Txorixe» (Xemein, 1916 – Santoña, 1991): Agustin Arrateren semea eta Jenaroren eta Agustinen anaia. Aita bezala, Izquierda Republicanako kidea. Gerra hasi zenean, trintxerak egiten eta frankisten erasoaldia gelditzeko frontea antolatzen parte hartu zuen Markina eta Xemein inguruan. Francoren tropak Markina eta Xemein inguruan sartu aurretik Liendora (Santander) ihes egin zuen, eta bertan atxilotu zuten 1937ko udan. Ostean, Santoñako kartzelan sartu zuten. Liendon ezagutu zuen bere emaztea, Teresa González. 1938ko azaroan, Haron zegoen, ziur aski, langileen batailoiren batean, eta 1940ko uztailean, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan. Kartzelatik atera ostean, Santoñara ezkondu zen, eta bertan hil zen.

Arrate Santamaria, Julian, «Txorixe» (Markinan jaioa, 1919an, Zaragozan hil zen): Pilotaria izan zen, eta Estatuko hainbat frontoitan jokatu zuen, baita Italiako frontoietan ere (Bilbao, 2009: 55). 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen

1938an. Julianek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez 1938an mobilizatu zuten 40ko kinta; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1938an. 1939an ehiztarien 8. batailoian zegoen, 4. konpainian.

Arrate Sololuze, Agustin (1917an jaioa, Xemeinen): ikusi X. eranskina.

Arregi Mallea, Antonio (1917an jaio zen, 1938ko kintoa): Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, bere kintako hainbat gazte eraman zituen Francok frontera.

Arriaga Aranburu, Jose (Markinan jaioa 1913an, 1934ko kintoa): 1933ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten. Hain justu ere, Itxasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 58). Atxilotu ostean, langileen 176 batailoiko 2. konpainiara bidali zuten.

Arriaga Arrillaga, Pedro (Markinan jaioa 1912an, 1933ko kintoa): Markinako Salutregi baserrikoa. 1939ko urtarrilean, Francoren tropekin borrokatzen zegoen, Garraioen 13. konpainian, lehenengo sekzioan.

Arriaga Arrillaga, Manuel (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintakoa): Markinako Salutregi baserrikoa. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Manuelek, 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara. Atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten. Langileen batailoietan egon zenean, Manacor inguruan ibili zen. Italiarren CTV batailoietan ere ibili zen.

Arriaga Arrillaga, Luziano: Markinako Salutregi baserrikoa. Rebelion de la Sal batailoian borrokatu zuen Errepublikaren aldeko armadan (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 58).

Arriaga Lejardi, Jose Mari «Kurutzebarri» (1910ean jaioa, Xemeinen, 1931eko kintoa): Xemeinen bizi zen, Kurutzebarri baserrian, eta 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Ezkutatu egin zen, gerrara ez joateagatik, baina frankistak Markinan sartu zirenean, harrapatu egin zuten, eta langileen batailoietan sartu.

Arriaga Lejardi, Pedro Maria «Kurutzebarri» (1908an jaioa, Markinan, 1929ko kintoa): Bere kintako hainbat bezala, Francok frontera eraman zuen 1937ko urrian.

Arriaga Lejardi, Jose «Kurutzebarri» (1914an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Kurutzebarri baserrian bizi zen. Gerrak soldaduskan harrapatu zuen. 1936ko urrian Garrellanon zegoen eta Garellanoko militarrak Errepublikarekiko leial mantendu ziren 1936an. Horrela, Errepublikaren aldean borrokatu behar izan zuen. Otxandiano batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 58).

Arriaga Lejardi, Joan «Kurutzebarri» (1916an jaioa, Xemeinen): Xemeinen bizi zen, Kurutzebarri baserrian. Bere kintako askok bezala, bi armadetan borrokatu zuen: Errepublikaren alde lehenengo eta, atxilotu ostean, Francoren batailoietan. Errepublikaren alde borrokatu zuenean Intendentzia Militar batailoian egon zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 58).

Arriaga Zuazo, Jose Maria (Xemeinen jaioa, 1913an): Xemeingo Meabe auzoan bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen 1936ko urrian. Rebelion de la Sal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 58).

Arrieta Baskaran, Pedro (1917an jaioa, Xemeinen, 1938ko kintoa): pentsatzen dut Errepublikaren alde borrokatu zuela, Fulgencio Mateos batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 58)

Arrieta Bastida, Joan Jose (Markinan jaioa, 1919an): Francoren batailoietan egin zuen gerra. 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Joan Josek 19 urte egiten zituen 1938an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara

joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten, eta gerrara joan behar izan zuen.

Arrieta Bastida, Pedro (1917an jaioa, Xemeinen): Francoren batailoietan borrokatu zuen. 1937an eraman zuen Francok frontera.

Arrieta Ikaran, Jose Martin (Markina, 1915 – Bermeo, 1937): ikusi X. eranskina.

Arrieta Ikaran, Simon (1918an jaioa, Xemeinen): ikusi X. eranskina.

Arrieta Lejardi, Esteban (1911n jaioa, Markinan eta 1936an zendu zen, 1932ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Arrieta Lejardi, Jose (Markina, 1918 – Tarragona, 1938): ikusi X. eranskina.

Arrieta Lejardi, Joakin (1910ean jaioa, 1931ko kintoa): 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1931ko kintoa izanik, Josek gerrara joan behar izan zuen, 1936ko abenduan. Errepublikaren alde borrokatu zuen, Kirikiño batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 59). Atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten.

Arrieta Martínez, Justo (Markinan jaioa, 1919an): Akarregiko frontean egon zen, erreketeen aldean, frontea gure herriko lurretan geldirik egon zen hiletan. Gero, 1938an, Francok soldaduskara eraman zuen. 1939an, Automobilen Hornikuntzarako Zutabe batean zegoen, lehen sekzioan.

Arrieta Uria, Frantzisko (Azkoitian jaioa): Azkoitiarra zen, baina gerra hasi zenean, Markinako karmeldarren komentuan bizi zen. Itxarkundia batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 59). Atxilotu ostean, epaiketa militarra egin zioten, eta kartzelan sartu. 1937ko abuztuan atera zen kartzelatik.

Arrillaga Arriaga, Francisco (1908an jaioa, Markinan, 1929ko kintoa): Salutregi baserrikoa. 1937ko urriaren 6an Francok 1929ko kintoak eraman zituen frontera, beraz, Frantziskok frontera joan behar izan zuen Francoren alde borrokatzera.

Arrillaga Arriaga, Pedro (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa): Salutregi baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Arana Goiri batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 59).

Arrillaga Arriaga, Inazio (Markinan jaioa, 1914an, 1935eko kintoa): Salutregi baserrikoa. 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela. 1939ko urtarrilean, Francoren batailoietan zegoen borrokatzen, Oviedoko zortzigarren Infanteria Erregimentuan, 4. konpainian.

Arrillaga Zuazo, Jose Maria (Xemein, 1914 – Zaldibar, 1937): ikusi X. eranskina.

Arriola Alkorta, Rikardo: erreketeen tertzioetan borrokatu zuen. 1937ko azaroaren 12an, zauritu egin zuten frontean, eta Iruñeako ospitalera eraman zuten,.

Arriola Markoerkiaga, Ramon (Xemeinen jaioa 1917an, 1938ko kintoa): Xemeingo Bengetxe baserrikoa. Errepublikaren alde borrokatu zuen, eta kontzentrazio esparru batean sartu zuten 1937ko ekainaren 29an. Gero Langileen 136. batailoiko 4. konpainiara bidali zuten. Bakarrik Errepublikaren alde borrokatu zuen.

Arriola Solozabal, Francisco (1916an jaioa, Xemeinen, 1937ko kinta): Xemeingo Ezkurrandi baserrikoa. Beste askok bezala, bi aldeetan borrokatu zuen: lehenengo Errepublikaren alde eta, ostean, Francorekin. Errepublikaren alde borrokatzen egon ostean, 1937ko ekainaren 7an Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen, eta Atzerriko Legioan sartu zen. 28 hilabete egin zituen legioan. Kabo izatera heldu zen, legioko 6. Banderan. Francorekin, 28 hilabetez egon zen borrokatzen lehen lerroan.

Arriola Solozabal, Jose (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Ezkurrandi baserrikoa. Gerrako lehen hiletan, Esperanza fabrikan egon zen lan egiten Zamudion (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 60). 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta

urte horretan berbertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, besteak beste, 1918an jaiotakoak. Jose Esperanza fabrikan zegoen lanean Zamudion, eta fabrika militartua zegoenez, hasieran ez zuten frontera eraman. Dena den, geroago, errefortzuak behar zituztenez, gerrara eraman zuten. 1940an, Automobilen 69.konpainian zegoen.

Arroitajauregi Totorikaguena, Klaudio (Markinan jaioa, 1910ean, 1931ko kintoa): Markinako Bolunbarri baserrian jaio eta bizi zen. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1931ko kintoa izanik, Klaudiok gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan, Errepublikaren alde borrokatzera. Euzko Gudarostean egon zen borrokatzen, eta, atxilotu ostean, Francoren alde borrokatzera behartu zuten, 1937ko irailetik aurrera. Bere emaztea, Jesus Zabala, atxilotu egin zuten 1938ko maiatzean, eta Markinako kartzelan sartu zuten gau batez. Klaudioren bi arrebak eta izeko bat ere kartzelan sartu zituzten. Jesusarekin batera, Klaudioren arreba Julia, eta euren izeko Erramona Totorikaguena atxilotu zituzten. 1938ko maiatzean, eta Markinako kartzelan hiru egun egin behar izan zituzten. Klaudioren beste arreba bat, Erramona, 1939ko urtarrilean atxilotu, eta Markinako kartzelan sartu zuten sei hilabetez.

Aulestiarte Sololuze, Eugenio (1917an jaioa, Xemeinen): ikusi X. eranskina.

Azkue Zalbidegoitia, Felix (1913an jaioa, 1934ko kintoa): Bilbon jaio zen, baina Xemeinen bizi zen, bere osabaren tailerrean, Barinaga eta Alberdi enpresan, lan egiten zuelako. Gerrak soldaduskan harrapatu zuen, eta uste dut Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela.

Azpiri Aldazabal, Gurutz (1908an jaio zen, 1929ko kintoa): ikusi IV. eranskina.

Azpiri Jemein, Valentin (1910ean jai ozen, 1931ko kintoa): Oreguntza (Oruntze) baserrikoa. Francoren batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, morteroen 2. konpainiako lehen sekzioan zegoen**.**

Azpiri Malaxetxebarria, Jose Andres (1911n jaioa, 1932ko kintoa): Xemeingo Torretxu baserrikoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera 1936an, gerra hasi eta gutxira. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 72). 1937ko ekainaren 19an, behin soldaduek eta nahi zuten herritarrek Bilbotik ihes egin zutenean, Itsasalde batailoiko gudari asko Francoren tropei entregatu ziren. Atxilotu ostean, Bilboko Arriaga antzokian sartu zituzten guztiak. Gero, langileen batailoira bidali zuten, gobernuarentzako debaldeko lana egitera. Estatuko hainbat tokitan aritu zen lanean 1939ra arte.

Azpiri Malaxetxebarria, Demetrio (1913an jaioa, 1934ko kintoa): Xemeingo Torretxu baserrikoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera 1936an, gerra hasi eta gutxira. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 72). Bere anaia Jose Andres eta Itsasaldeko gudari asko bezala, Bilbon, ekainaren 19an, atxilotu zituzten. Gero, langileen batailoira bidali zuten, gobernuarentzako doako lana egitera. Estatuko hamaika tokitan aritu zen lanean, 1939ra arte.

Balentziaga Arakistain, Martzelino (1912an jaioa, 1933ko kintoa): Xemeingo Torremotxu baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera, 1936ko urrian edo azaroan. Hain justu ere, Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 74). Bere arreba bati, Antoniari, atxilotu eta, Berriatuko plazan ilea moztu zioten. Gero kartzelan sartu zuten 1940ra arte.

Balentziaga Arakistain, Rufino (1917an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Torremotxu baserrikoa. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen, Loiola batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 74). Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatu behar izan zuen, 23. zenbakia zuen Amerika batailoian, 7. konpainian. Zauritu egin zuten 1938an, eta gerrako elbarritu bihurtu zen.

Balentziaga Kintana, Simon (1916an jaioa, Xemeinen, 1937ko kinta): ikusi X. eranskina.

Balentziaga Kintana, Jose Ramon (1914an jaioa, Xemeinen, 1935eko kintoa): Xemeingo Gatzatu (Garazatua-Garazate) baserrikoa. Francoren alde borrokatu behar izan zuen.

Barinaga Ituarte, Tomas: Xemeinen bizi zen, eta 1936ko azaroaren 19an deitu zioten errepublikarrek gerrara joateko. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 76)

Barinagarrementeria Totorikaguena, Luis (1910ean jaio zen, Xemeinen, 1931ko kintoa): Xemeingo Elorradi baserrikoa. 1931ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatu zuen lehenengo, ANV I batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 76). Gero atxilotu egin zuten, eta 1938ko lehen lauhilekoan, Francok frontera eraman zuen. Zaragozan egon zen metraileten batailoi batean.

Barinagarrementeria Totorikaguena, Lorenzo (Xemein, 1913 – Saibigain, 1937, 1934ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Barinagarrementeria Totorikaguena, Martin (1909an jaioa, Xemeinen, 1930ko kintoa): Xemeingo Elorradi baserrikoa. Errepublikaren alde borrokatu zuen lehenengo, eta, gero, atxilotu ostean, Francoren alde borrokatzera eraman zuten 1938an. Kontuan izan 1937ko urriaren 6an Francok 1930eko kintoei deitu ziela frontera joateko.

Barrenetxea Arrate, Felix (1911n jaioa, Markinan, 1932ko kintoa): Abesua errebalean bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Rebelion de la Sal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 78).

Barrenetxea Artamendi, Jose Mari «Txirget» (Markina, 1908 - 1982): EAJ-ko militantea zen (Egaña, 2000, III. tomoa: 268). Gerra Zibilean, Sukarrieta batailoiko intendentziako komandante izatera heldu zen (Egaña, 2000, VII. tomoa: 238). Intendente gisa, soldaduak erreklutatzeko bulegoan lan egiten zuen. Bilbo jausi zenean, Santanderrerantz hanka egin zuen, eta Santoñan atxilotu zuten, 1937ko abuztuaren bukaeran. Epaiketa militarra egin zioten 1938ko urtarrilaren hogeian, eta otsailaren 19an sententzia kaleratu zen: hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra (Ferrol, 2.457 kausa). Duesoko (Santoña, Kantabria) kartzelan sartu zuten (Espetxean 1937 - 1942, 1998: 166). Dena den, epaia hartu eta egun gutxira, 1938ko urtarrilaren bukaeran, frankistek eta errepublikarrek atxilotuen truke bat egin zuten (41 atxilotu guztira). Manuel Irujok bultzatu zuen trukaketa, eta buruzagi militar batzuen truke errepublikar batzuk askatu zituzten. Trukaketa horretan, Barrenetxea abizena zuen Peruko enbaxadoreak parte hartu zuen bitartekari gisa. Peruko enbaxadoreak bere abizen bera zuen Jose Mari hartu zuen trukatu behar zituztenen taldean, eta, ondorioz, Frantziara ihes egiteko aukera izan zuen. Guardia Zibilak eraman zituzten Irunera, eta handik muga pasatu ahal izan zuten (Egaña, 2000, VII. tomoa: 199-200). Alabaina, behin Frantzian zegoela, berriro bueltatu zen Bartzelonara, Francoren aurka eta Errepublikaren alde borrokatzera. Bartzelona jausi zenean, 1939an, Frantziara ihes egin zuen, eta handik Venezuelara joan zen 1940an.

Barroetabeña Elustondo, Martzelino (1916an jaio zen Markina, 1937ko kintoa): 1937an eraman zuen Francok gerrara. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen; hain justu ere, Osasun Militarreko 1. konpainian.

Barroetabeña Zigorraga, Frantzisko (1919an jaio zen Gernikan, 1940ko kintoa): Gernikan jaio zen, baina Markinan bizi zen. 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Frantziskok 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1939an, Frantzisko Nafarroako Laugarren Dibisioko, 2. konpainiako, Flandeseko 2. batailoian zegoen.

Barrutia Sololuze, Simon (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Kanterape baserrikoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera 1937ko urtarrilean. San Andres batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 79), eta, atxilotu ostean, langileen 2. batailoira bidali zuten. 1940an batailoi horretan zegoen oraindik.

Barrutia Sololuze, Jose Domingo (1913an jaioa, 1934ko kintoa): Xemeingo Kanterape baserrikoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Loiola batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 79).

Barrutia Sololuze, Pedro Maria (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Xemeingo Kanterape baserrikoa. Bakarrik Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Bere kintako guztiak bezala, pentsatzen dut 1937ko urrian eraman zutela frontera. Zortzi hilabete lehen lerroan egin zuen, San Martzial Infanteriako 9. batailoian, eta 22 hilabete bigarren lerroan, zainketa lanak egiten, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan.

Barrutia Totorikaguena, Eusebio (Markina, 1912 – Markina-Xemein, 1991): Markinan bizi zen. Pilotaria izan zen, eta hainbat frontoitan jokatu zuen gerra aurretik zein gerraostean. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Hain zuzen ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen, Itsasalde batailoiko Telleria konpainian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 79), eta gero Francoren aldeko batailoietan.

Barrutia Totorikaguena, Mariano: Eusebioren anaia eta Eustakioren lehengusua. Simon Bolibar batailoian borrokatu zuen, Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 79).

Barrutia Totorikaguena, Eustakio (Markinan jaioa, 1912an, 1933ko kintoa): Eusebioren eta Marianoren lehengusua. Pilotaria izan zen, eta hainbat tokitan jokatu zuen gerra aurretik zein gerraondoan (Bilbao, 2009: 79). 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Hain justu ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen, Itsasalde batailoiko Telleria konpainian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 79), eta gero, desertatu ostean, Francoren aldeko batailoietan. 1939ko urtarrilean, Infanteriako San Martzial erregimentuko 22. zenbakian zegoen (Nafarroako laugarren Dibisioan).

Barrutia Totorikaguena, Felix: (Markinan jaioa 1914an, 1935ko kintoa): Eustakioren anaia. 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela. 1939ko urtarrilean, Francoren batailoietan zegoen borrokatzen, Nafarroako lehen dibisioan, Tetuango Erregularren lehen taldean.

Baskaran Arriaga, Tomas (1914an jaioa, Xemeinen, 1935eko kinta): Xemeingo Abeletxe baserrikoa. Francoren altxamendua hasi zenean, Afrikan zegoen soldaduska egiten. Francoren batailoietan egin behar izan zuen gerra.

Baskaran Bilbao, Jose Migel (1917an jaioa, Xemeinen eta 1937an hil zen): ikusi X. eranskina.

Baskaran Laka, Gregorio (Markinan jaioa 1914an, 1935ko kintoa): 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela. 1939ko urtarrilean, Francoren batailoietan zegoen borrokatzen. Dena den, badirudi zerbitzuetan egon zela, eta ez zela frontera joan.

Baskaran Oregi, Antonio (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintakoa): 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Antonio 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara. Dena den, atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen: Nafarroako laugarren dibisioko hirugarren baterian.

Bastida Egia, Teodoro (Markinan jaioa 1919an): Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Teodorok 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten.

Batiz Bilbao, Migel - Aita Migel Anjel San Joserena (Xemeinen jaioa, 1916an, 1937ko kintoa): Xemeingo Landaburu baserrian jaioa. Larrean (Zornotza) fraide izate-

ko ikasketak egiten ari zela harrapatu zuen gerrak, eta ikasketak eten egin behar izan zituen. Izan ere, 1936ko irailaren 16an fraidegai guztiak etxera bidali zituzten Larreatik. 1937an, bere kintako asko bezala, Francok eraman zuen gerrara, eta erizain zereginetan aritu zen Samaniego-ko eskoletan frankistek jarri zuten ospitalean (Urkiza, 1992: 489). Gerraostean, Alwaye-ko Seminarioko Errektorea izan zen (1956 - 1967), Fraide karmeldarren Ordenako Jenerala (1967 - 1973), Ekialdeko Elizetarako Kongregazioko Aholkularia eta San Joan Damasceno Ikastetxeko Errektorea (1974 - 1993) (Unzueta eta Izpura, 2001: 398).

Batiz Bilbao, Bizente - Aita Nikolas Jesusena (Gerrikaitz, 1907 - Gasteiz, 1995): ikusi IV. eranskina.

Bilbao Urkiza, Zipriano (1917an jaioa, 1938ko kintoa): Xemeingo Axpe baserrikoa. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, herriko hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara, tartean Zipriano. Ziprianok 20 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1938. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 38ko kinta mobilizatzea erabaki zuen. Infanterian egon zen 17 hilabetez: 86. Infanteria Erregimentuan, laguntza zerbitzuetan. Bigarren linean egon zen, zerbitzuetan, beraz, nik dakidanez, ez zuen gerra zuzenik ezagutu**.**

Bilbao, Zeledonio: Errepublikaren alde borrokatu zuen.

Bilbatua Legarra, Jose (1908an jaioa, Markinan, 1929ko kintoa): Armistegi baserrikoa. Badirudi lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuela (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 93). Dena den, 1937ko urriaren 6an, Francok 1929ko kintoak eraman zituen frontera, beraz, Josek, Francoren alde borrokatu behar izan zuen.

Bilbatua Legarra, Antonio (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuela.

Bustingorri Espilla, Jose «Vega» (Markina, 1911 – Markina-Xemein, 2002, 1932ko kintoa): Guen kalean bizi zen. Pilotaria izan zen. 16 urte zituela egin zen pilotari profesional, eta Estatuko hainbat frontoitan jokatu zuen gerra aurretik (Bilbao, 2009: 356). Gerrak Zaragozan harrapatu zuen, eta, Markinako eta Xemeingo beste pilotari asko bezala, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Francoren batailoietan zegoen, Zaragozan bertan, Levanteko Armadako Automobilen Zerbitzuan.

Cazalis Areitio, Patxi «Patxiko Lentes» (Xemein, 1904 - Markina-Xemein, 1982): Ikusi IV. eranskina.

Cazalis Areitio, Segundo «Cazalis Menor» (Xemein, 1894 – La Habana, 1959): ikusi IV. eranskina.

Cazalis, Rikardo «Rikardito» (1937an hil zen, Katalunian): ikusi X. eranskina.

Cazalis Goenaga, Segundo (La Habana, 1924 – Venezuela, 2000): Segundo Cazalis Areitioren «Cazalis Menorren» semea eta Rikardito Cazalisen lehengusua. Aita Kuban pilotan jokatzen ari zela jaio zen, La Habanan. Bi urte zituela, 1926an, Euskal Herrira bueltatu zen bere amarekin. Gerrak Madrilen harrapatu zuen, aita bertako frontoian jokatzen ari zelako. Segundo Bizkaira etorri zen, bere ama eta arrebekin batera. 1937ko ekainean, Bizkaia frankisten eskuetan jausi zenean, gurasoek Frantziara bidali zuten, eta bere ama eta arrebak Bartzelonara joan ziren. 1938ko amaieran, Frantziatik Bartzelonara bueltatu zen, eta hamalau urte zituela, boluntario aurkeztu zen Errepublikaren alde borrokatzera. Dena den, frankisten ofentsibaren ondorioz, berriro ere Frantziara ihes egin behar izan zuen 1939an, eta kontzentrazio esparru batean sartu zuten (Cuadrillero, 2009: 390). Familia guztia Frantzian elkartu zen. 1939ko uztailean, bete aitabitxiak, Nestor Mendoza abokatuak, egindako gestioen ondorioz, Kubara heltzea lortu zuten, eta Segundok ingeniaritza ikasketak hasi zituen, baina bukatu gabe utzi zituen. Gero Venezuelara joan zen, eta El Nacional egunkariko idazle bihurtu zen. Bera izan zen, Sierra Madren zegoela Fidel Castro elkarri-

zketatu zuen lehen kazetaria, 1958an. «'Segundo era sin duda el más inteligente de la clase, yo diría que del colegio, con ventaja franca a todos. Pero no era el mejor estudiante porque era muy bohemio y más adelante muy enamorado. Empezamos los dos a estudiar ingeniería y yo acabé pero mi amigo no. Él se quería casar y se fue a trabajar a Venezuela donde se hizo periodista. Escribía muy bien y con mucha gracia que la tenía a chorros tanto con la pluma como en la vida real' —comenta Luis de Luis, un amigo de su época universitaria en La Habana». (http://www.almamater.cu). Segundo Cazalisek *Los hijos de Gernika (La lucha del pueblo vasco por su libertad)*, dokumentala zuzendu zuen Caracasen, 1968an. Pelikula hau 1936an eta 1937an Francoren aurka errepublikarrek egin zuten erresistentziaren lekukoa da.

Cazalis Izarra, Gregorio (1918an jaioa, Xemeinen): Bere aita Gregorio Cazalis zen. Xemeinen jaio zen, baina Ermuan bizi zen. Pilotaria izan zen, eta Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen gerra aurretik eta gerraondoan (Bilbao, 2009: 104). Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Atxilotu ostean, Langileen 23. batailoian sartu zuten, eta bertan egon zen, gutxienez 1940ra arte. 1943an, Zaragozan zegoen pilotan jokatzen.

Del Hoyo Villamariel, Jesus (Markinan jaioa, 1919an): Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Jesusek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zuten 40ko kinta.

Diez Ramos, Jose «Mortel» (Manisesen jaioa, 1907an): ikusi bigarren eranskina.

Diez Ramos, Antonio (Markinan jaioa 1913an, 1934ko kintoa): Francoren armadan borrokatu zuen, Flandeseko Erregimentuan.

Diez Ramos, Alfonso (Markinan jaioa 1916an, 1937ko kintoa): Bere anaiak bezala, Francoren armadan borrokatu zuen, Flandeseko Erregimentuan.

Duralde Barroetabeña, Ramon (1913an jaioa, Markinan, 1934ko kintoa): Zehar kalean bizi zen. Badirudi frontean egon zela, baina ez dakit zein aldetan borrokatu zuen.

Duralde Kerejeta, Gregorio (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): Tomas Duralderen semea. Bere kintako askori bezala, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten Errepublikaren alde borrokatzera joateko. Bilboko akademia militarrean egon ostean, teniente gradua lortu zuen, eta, ostean, Itsasalde batailoian sartu zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 129). 1937ko abuztuaren bukaeran atxilotu zuten Kantabrian. Epaiketa militarra egin zioten Santoñan 1937ko irailaren 25ean, eta hamabi urteko kartzela zigorra jarri zioten (Ferrol, 50-37 kausa). Duesoko espetxean egon zen (Espetxean 1937 - 1942, 1998: 170).

Duralde Kerejeta, Pako (Markinan jaioa, 1915ean, Venezuelan hil zen): Tomas Duralderen semea. Boluntario joan zen frontera, eta Itsasalde batailoian borrokatu zuen. Atxilotu egin zuten Kantabrian 1937ko abuztuaren azkenetan, eta Duesoko (Santoña, Kantabria) kartzelan sartu zuten. 1937ko urriaren 4an , epaiketa militarra egin zioten, eta, «matxinadari laguntzea» salaketapean, hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri zioten. Duesotik Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten, 1938ko abuztuaren 18an, eta hemendik Sevillako kartzelara (Iturria AGA: Archivo General de Administración. Alcala de Henares, Secretaría de Justicia, Registro Central de Penados, 1938 - 1958). Sevillako kartzelan bat egin zuen Lorenzo Garate xemeindarrarekin. Ez dakit noiz atera zen kartzelatik. Sevillan egon ziren bitartean, bertan bizi zen Maria Aginagak bisitatzen zituen.

Duralde Kerejeta, Galo Hilarion (1918an jaioa, Markinan, 1939ko kintoa): Tomas Duralderen semea. Boluntario joan zen Euzko Gudarostean borrokatzera. Atxilotu ostean, Deustuko Unibertsitatean egon zen preso, eta gero Larrinagako kartzelan sartu zuten 1939ra arte. Ostean, langileen batailoietara bidali zuten.

Duralde Kerejeta, Sabino (Markina, 1920 – 1963, 1941eko kintoa, «Biberoiaren Kinta»): Tomas Duralderen semea. Pilotaria izan zen (Bilbao, 2009: 128). 1938an, Francok 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatzea erabaki zuen. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zituzten 1940ko eta 1941eko kintak. Sabino ez zen frontera joan, baina, Galiziako banderan, 83. dibisioan egon zen soldaduska egiten.

Duralde Madariaga, Jose Maria (Markinan jaioa, 1917an, 1938ko kintoa): 1937ko urtarrilean, Euzkadiko Jaurlaritzak 1937ko kintoei dei egin zien frontera joateko, eta, urtarrilaren 27an, 18 eta 45 urte bitarteko gazteei Defentsa Sailaren kontrolpean zeudela adierazi zieten, dekretu bidez. Errealitatean, 18-45 urte bitarteko gizonen mobilizazio orokorra zen. Ondorioz, Jose Mariak ihes egin zuen frontearen beste aldera (Onaindia, 1937). Nafarroako Bigarren Brigadako San Inazio Tertzioko 1. konpainian borrokatu zuen.

Egaña Orbegozo, Agustin: Dragones batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135).

Egaña Orbegozo, Francisco: diziplina batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135).

Egaña Orbegozo, Joan: Ingeniarien 1. batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135).

Egia Gabiola: Amallobieta baserrikoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde zapadore lanak egitera.

Egia Olabarria, Tomas «Antzabal» (Xemein, 1914 – Markina-Xemein, 2005): Xemeingo Aranzabal baserrian bizi zen. Gerra piztu zenean, Lizarran zegoen soldaduska egiten, Mendiko Arapiles 7. batailoian. Baimenarekin etorri zen Xemeinera, etxekoak ikustera, eta, bitartean, gerra piztu zen. Ondorioz, ezin izan zuen kuartelera bueltatu. Esperanza fabrikan lan egiten zuenez, fabrikarekin batera joan zen Zamudiora, 1936ko azaroan. Dena dela, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Markinako eta Xemeingo beste gazte askok bezala, Euzko Gudarosteko Itsasalde batailoian, Boga-Boga konpainian, borrokatu zuen, Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135). Legutioko borrokan (1936ko abendua) ere parte hartu zuen. Itsasaldeko beste hamaika gudari bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon. Etxekoek pentsatzen dute Larrinagako kartzelan sartu zutela. Gutxienez 1939ko ekainera arte egon zen kartzelan. Tomasi epaiketa militarra egin zioten 1939ko ekainaren 23an, Burgosen, eta orduan behintzat kartzelan zegoen. Epaiketaren arrazoia izan zen gerra hasi ostean ez zela bere batailoira bueltatu; alegia, desertatu egin zuela. Dena den, epaileak bertan bera utzi zuen kasua, Tomasek erakutsi zuenean gerragatik ezin izan zuela koartelera bueltatu, eta ez zuela nahita ihes egin (Airmn, 506-39 txostena). Tomasi bere anaia Joan hil zitzaion gerran.Tomasen eta Joanen arreba bat, Isabel, metrailaren ondorioz zendu zen Ondarroan, 1936ko urriaren 24an.

Egia Olabarria, (Jose) Luis «Antzabal» (1916an jaioa, Xemeinen): San Andres batailoian borrokatu zuen, Euzko Gudarostean (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135), eta atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. Hain justu ere, 1937ko urrian eraman zuen Francok bere alde borrokatzera.

Egia Olabarria, Joan «Antzabal» (1908an jaio zen, 1929ko kintoa eta pentsatzen dut 1938an hil zela): ikusi X. eranskina.

Egia Olabarria, Teodoro «Antzabal» (Xemeinen jaioa, 1918an, 1939ko kintoa): Xemeingo Arantzabal baserrikoa. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. 1939ko kintoa zen, eta bere kintako guztiak 1937ko uztailan deitu zituen Francok gerrara joateko, baina berak ezin izan zuen joan, Gasteizko Refugio del Cocheron-en atxilotuta zegoelako.

Egia Olabarria, Jose Maria «Antzabal» (1913an jaioa, 1934ko kintoa): Xemeingo Arantzabal baserrikoa. Gormutua zen, baina errepublikarrek intendentzia militarrean jarri zuten, frontea bere etxe aurrean, Agarren, egon zenean (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 135).

Egizabal Martínez, Agustin «Agustin Politxe» (Arrona, 1905 – Markina-Xemein, 1974): Azpiko-errotako latonerian lan egiten zuen, eta ideologia sozialista zuen[15]. Gerra osoa Errepublikaren aldeko batailoietan aritu zen, intendentzia militar lanetan (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 136). Lehenengo Markinako Frontean aritu zen, eta gero Estatuko hainbat lekutan (Santanderren, Teruelen edo Balentzian, berbarako). Gerra bukatu zenean (1939), Markinara bueltatu zen, eta handik gutxira atxilotu zuten. Larrinagako kartzelan sartu zuten, eta bertan egon zen urte bat eta erdiz.

Eizagirre Urionabarrenetxea, Jose Mari «Albitxu» (Markinan jaioa, 1913an, 1934ko kintoa): Albitxu baserrian bizi zen. 1934ko kintoa zenez, gerrara joan behar izan zuen 1936ko azaroan. 1936ko azarotik 1937ko apirilera arte, Euzko Gudarosteko Ibaizabal batailoian borrokatu zuen, eta, gero, Francoren Nafarroako Lehen Dibisioko 22. San Martzialen 2. batailoian (metrailadoreetan). Hasieran, andari beharretan ibili zen, gero metrailagailuarekin eta, azkenean, sukaldari. Bataila famatu askotan parte hartu zuen: Legutioko batailan (1936ko abendua) Bizkargin (1937ko maiatza), Teruelgo batailan (1937ko abendutik 1938ko otsailera), Ebroko batailan (1938ko uztailetik azarora), Madril ingurua hartzen (1939ko apirila)… Berarekin batera, gerra osoan zehar, Elorrixa baserriko Joan Maria Zarrabe ibili zen. Gerra osoa elkarrekin egin zuten. Ibaizabal batailoian borrokan ibili ostean, Gernika bonbardatu osteko egunean, hau da, apirilaren 27an, Munitibarren lo egin eta gero, Espainiako bandera ikusi zutenean, ez zuten aurrera egin, eta entregatu egin ziren. Joan Onaindia (Ibaseta), Damian Urionabarrenetxea (Munitibar), eta Mateo Goikoetxea (Xemein) ere berarekin batera entregatu ziran. Guztiak Ibaizabal batailoikoak ziran. Francoren aldeko soldaduek Zeinkeko Zabala baserrira eraman zituzten, bertan egoan aginte postua eta. Zeinken entregatu eta gero, Bergarara eraman zituzten. Bertan gau bat egin ostean, Gasteizera eraman, eta bertan hamabost bat egun egin zituzten kartzelan. Damian Urionabarrenetxea eta bera kartzelatik atera eta Burgosera eraman zituzten «depositoen konpainiara». Frankistek konpainia honetara eramaten zituzten zauritutakoak, entregatzen zirenak edota borroketan harrapatzen zituztenak, eta gero bertatik euren batailoietara. 1937ko maiatzean, Burgosetik berriro Bergarara ekarri zituzten, trenez, handik Muxikan zegoen batailoi batera, eta, azkenik, Bizkargi mendian zegoen frontera. Bizkargi hartu eta gero Bilbo hartzen parte hartu zuen, 1937ko ekainaren 19an. Eta handik aurrera Gerra Zibileko hainbat batailatan parte hartu zuen, lizentziatu zen arte, 1939ko ekainaren 24an. 1936ko azaroan hasi zuen gerra Bilbon, eta bertan amaitu 1939ko ekainean. Bi urte eta zazpi hilabete ibili zen hara eta hona gerragatik (Urrutia eta Juaristi, 2007: 10-11).

Eizagirre Kareaga, Anjel (Markina, 1912 - 1937): ikusi X. eranskina.

Eizagirre Kareaga, Jose (1916an jaio zen Markina, 1937ko kintoa): 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen; Falangeko batailoietan, Plana Nagusian, 53. Dibisioan.

Esnaola, Ramon (1917an jaioa, 1938ko kintoa): Loiola batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 146). Otxandioko eta Legutioko fronteetan egon zen. Urdializen atxilotu, eta langileen batailoietara bidali zuten, bi urtez (Palenzuela, Dominguez eta Mendia, 2007: 123, 126 eta 130).

---

[15] 1933ko urtarrilaren hogeiko udal hauteskunde egunean, iskanbila izugarria egon zen hauteskunde lekuan karlisten eta abertzaleen artean. Iskanbila horren ondorioz, bozka ontzia apurtu egin zen, eta Asaltoko Guardiak etorri behar izan zuten bakea berrezartzera. Ondorioz, hauteskundeak balio gabe gelditu ziren Markinan. Ondorioz, gobernadorearen aginduz, batzorde kudeatzaile bat sortu zen 1933ko urtarrilaren 29an. Agustin Egizabal Martínez batzorde hau osatu zutenetariko bat izan zen, langileen ordezkari gisa. Izan ere, Agustin Obreros Vascos de Markina elkarteko kidea zen. Elkarte honetan hautatuak izateko aukera zuten bederatzi pertsona zeuden, eta zozketaz Agustin Egizabal atera zen hautatua.

Etxabe Areitio, Jose (1907an jaioa, Markinan): 1938an eraman zuen Francok frontera.

Etxabe Areitio, Leon (1919an jaio zen, 1940ko kinta): 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta hortik aurrera, Franco herriko gazteak eramaten hasi zen frontera, adinez soldaduskara joatea tokatzen ez zitzaienak ere bai. Leonek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuen. Leon 1938an joan zen gerrara, eta egun bat egin zuen fronteko lehen lerroan. Zauritu egin zuten, eta gero urte bat egin zuen bigarren lerroan.

Etxaniz Laka, Julian «Olazar Kapitaina» (Xemein, 1902 - Markina-Xemein, 1986): Olazar Goikoa baserrian (Xemein) jaio zen. 20 urte zituenetik EAJ-ko militantea zen. 110 kiloko pisua eta 1,85eko altuera zuen gizon honek, Marinako Kabo gradua lortu zuen soldaduskan. Ondarroa jausi ostean, 1936ko urriaren 4an, boluntario sartu zen Itsasalde batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 148). 1936ko abenduan, Itsasalde batailoiko Boga-Boga konpainiako kapitain izendatu zuten. 550 gudari zeuden bere aginduetara. Julian Etxaniz kapitain egin zutenean, Boga-Boga konpainia Urduñako frontean zegoen. Bere agindupean, Itsasalde batailoiko Boga-Boga eta Matxin konpainietako gudari boluntario talde batek frankisten eskuetan zegoen Artomañako herritxoan sartu, eta 36 tona gari berreskuratu zituzten (Madarieta, 2007: 25 eta Vargas Llosa, 2001: 314-315). Olazar Kapitainak Bilbao errenditzeko elkarrizketetan ere parte hartu zuen. *El Correo* Español-*El Pueblo Vasco* egunkarian egin zioten elkarrizketa batean zioen bezala: «Yo intervine en los trámites de la rendición de Bilbao a las tropas de Franco y precisamente hace poco, en una comida que tuvimos los veteranos del batallón 'Itxasalde' le entregué aquellos documentos al presidente Garaikoetxea» (Munitibar, 1983-10-8). Bilbo frankisten eskuetan jausi zenean, 1937ko ekainaren 19an, atxilotu egin zuten, Itsasalde batailoiko gudari askorekin batera, eta, epaiketa militarrean, heriotza sententzia eman zioten. Dena den, heriotza sententzia kendu egin zioten geroago, baina 33 hilabete egin behar izan zituen kartzelan. Lehenengo Logroñoko zezen plazara eraman zuten, gero Beti Jai frontoira, handik Logroñoko polizia-etxera, eta, azkenean, Larrinagako kartzelara (Munitibar, 1983-10-8). 1940ko otsailean edo martxoan atera zen kartzelatik. Alabaina, igandero joan behar izaten zuen Guardia Zibilen kuartelera sinatzera, eta hauek eta herriko frankistek ez zuten bakean uzten. Horrela, berriro sartu zuten kartzelan hiru hilabetez. Olazar kapitaina itota sentitzen zen Francoren erregimenean. Beraz, 1957an, Kolonbiara joatea erabaki zuen, eta Franco bizi zen bitartean, ez zela bueltatuko agindu zion bere buruari. Aipatutako elkarrizketan adierazten den bezala (Munitibar, 1983-10-8): «Entonces fue cuando hizo su juramento de no volver jamás mientras viviera el general: 'Me has metido dos veces en la cárcel, pero no me meterás la tercera' dijo. Como no le daban certificado de antecedentes penales libres, embarcó clandestinamente en un barco que mandaba un capitán bermeano; desembarcó en Colombia con 1.500 dólares que llevaba, puso una granja y vivió esperando leer la esquela del general». Kolonbian egon zen bizitzen 1977ra arte. Etxeko guztiak abertzaleak ziren, eta, beraz, Julianen beste anaia bi ere, Patxi eta Paulo, boluntario joan ziren Errepublikaren alde borrokatzera, eta atxilotu ostean kartzelan eta langileen batailoietan sartu zituzten. Etxekoek hainbat multa ordaindu behar izan zituzten gerraostean. Halaber, bizi ziren baserria, Amalloako Olazahar baserria, lapurtu egin zuten auzoko eskuindarrek, eta ostean erre. Hala ere, eta pasatutakoak pasatu ostean, inorenganako amorrurik gabe bueltatu zen Kolonbiatik: «- Entonces, volvería con ganas de venganza. – No, volví sin odio, sin deseos de vengarme de nadie. - ¿y los que le denunciaron? – Todo lo he olvidado» (Munitibar, 1983-10-8).

Etxaniz Laka, Patxi «Olazar»: Olazar Goikoa baserrian (Xemein) bizi zen. Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Iparraldeko frontea jausi zenean, atxilotu egin zuten, eta hiru urte egin zituen Gasteizko kartzelan (berea anaia Julianek baino hamabost egun gehiago). Kartzelan egon zen garaian, langileen batailoi batean ere aritu zen.

Etxaniz Laka, Paulo «Olazar»: Olazar Goikoa baserrian (Xemein) bizi zen. Errepublikaren alde borrokatu zuen boluntario, Loiola batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 130). Atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten.

Etxaniz Ondarra, Jose (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintoa): 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Jose 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara, Errepublikaren alde borrokatzera. Hain justu ere, Loiola batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 130). Dena den, atxilotu egin zuten frankistek, eta 1937ko irailetik aurrera Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen, Donostian.

Etxebarria Astorkia, Jose (1917an jaioa, Xemeinen, 1938ko kintoa): Iruzubietan bizi zen. Euzko Gudarostean borrokatu zuen lehenengo, Arana Goiri batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 149). Atxilotuta egon ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatzera behartu zuten. Flechas Verdes Italiako infanteria erregimentuan ere borrokatu zuen. Ebroko Frontean, orkatilan zauritu zuten, eta, horregatik, domina bat eman zioten.

Etxebarria Astorkia, Antonio (1919an jaioa, 1940ko kintoa): Iruzubietan bizi zen. Adinagatik, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. Hain zuzen ere, Cisnero jeneralaren txofer lanetan ibili zen. Lleidako frontean ere borrokatu zuen.

Etxebarria Eizagirre, Inazio «Inazio Sakristaua» (1913an jaio zen Ziortza-Bolibarren, 1934ko kintoa): Zalkorta baserrian (Ziortza-Bolibar) jaio zen. Xemeingo parrokiako sakristaua izan zen 1942tik 1984ra arte. 34ko kintoa zen, eta, beraz, adinagatik gerrara joatea tokatzen zitzaion, baina, Joan Martin Garate fraideak aholkatuta, boluntario joan zen 1936ko urriaren hasieran. Euzko Gudarostean borrokatzen ibili ostean, atxilotu egin zuten Santanderren, 1937ko abuztuaren bukaeran, eta langileen 13. batailoira bidali. 1938ko gabonetan bueltatu zen etxera gaixorik eta izugarriak ikusi eta pasatu ostean. Hara nola azaltzen duen gerran bizi izandakoa: «Era el día 16 de septiembre de 1936. Nos mandaron a casa a todos los estudiantes, y sólo quedaron allí los Padres y los legos (Larreako karmeldarren komentuan zegoen fraidetzako ikasketak egiten). Me acuerdo bien de la fecha, porque era el día de Santa Eufemia. Antes de quince días tuvimos aviso del Padre Joan Martin (Tateneko prailea, argitzen digu), quien nos informó de que nuestras quintas estaban a punto de caer; y no sugirió que nos adelantáramos como voluntarios, que sería mejor para nosotros, y es lo que hicimos. Efectivamente, a los 10 días llamaban a filas a nuestras quintas[16], pero nosotros ya nos habíamos adelantado. Nos llevaron primero a los Escolapios, y de allí nos destinaron a Larrea, donde estaba el Cuartel de Enlaces y Transmisiones. Ahí aprendimos morse, acústica, óptica y banderas. Ya preparados, salimos al frente de Ubidea donde trabajamos durante sesenta y seis días, hasta que nos relevaron y pudimos descansar 15 días, transcurridos los cuales volvimos a salir, esta vez al Gorbea. Era invierno (no hizo mal invierno, no). Un avión procedente de Gasteiz nos sobrevolaba diariamente, amenazándonos. Fuí precisamente yo, quien atendió la llamada telefónica que nos ordenaba bajar a Ibarra (Orozko ondoan). Eran las dos de la madrugada del día de San Antonio de Urkiola (1937ko urtarrilaren 17a). Bajamos con todos nuestros enseres a Ibarra, y antes que amaneciera nos esperaban camiones, que debían llevarnos a Dos Caminos, donde se luchaba encarnizadamente, en lucha desigual. De noche les podíamos, de día no. No teníamos medios suficientes, de lo contrario no hubiese pasado lo que pasó (aurpegia ere goibeltzen zaio ordungo gertakizunez gogoratzean). Ellos tenían tanques, nosotros no. La defensa de Malmasin fué heróica; habíamos agotado toda la munición cuando nos dieron la fatídica voz de 'salvese quien pueda'. Ya en el barranco, los pocos oficiales que quedaban nos dijeron que cada cual

[16] 1936ko urriaren 16an izan zen hori.

hiciera lo que quisiera. Algunos fueron adelante. Otros nos quedamos en los cuarteles. Ahí nos entregamos al grito de «Viva Franco, arriba España». No faltaron las lágrimas. De allí pasamos al batallón de trabajadores nº 13, donde anduvimos maltratados, mal vistos y amenazados. Para evitar males mayores cambié en mi documentación el dato de la profesión (estudiante por labrador), y la ortografía del apellido. Pero sobrevivimos a la guerra. Eta pozik! Habíamos pasado las de San Quintín, hambre, frío… estuve mucho tiempo en agonía, antes de volver a casa; pasando por hospitales de provincias como Teruel, Zaragoza y Valladolid... (Volví) En navidades de 1938. Volvi deshecho con pleura. Traía un pulmón seco. Pero nuestra vida ya se había roto en el 36 (Aransolo, Loiola, Maguregi eta Maiztegi, Garaian, 7. zenbakia, 1990: 38-41).

Foruria Arregi, Tiburtzio (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): 1936ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten 1936ko abenduan.

Foruria Arregi, Bernardino: Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 158). Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an gelditu zen Francoren soldaduen mende. Gero, ez dakit langileen batailoira bidali zuten edo kartzelan sartu.

Foruria Bollar, Laurentzi (1913an jaioa, Markinan, 1934ko kintoa): bere familiako beste kideak bezala, EAJ-ko militantea zen. Bere aita Prudentzio Foruria Gerrikabeitia (1884an jaioa) izan zen. Prudentzio Foruriaren anaiordea zen, eta Luis Foruriaren eta Purita Foruriaren lehengusua. Itsasalde batailoian borrokatu zuen boluntario (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 158). Itsasaldeko beste gudari asko bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon. Gero, langileen batailoira bidali zuten, gobernuarentzako debaldeko lana egitera. Estatuko hainbat tokitan aritu zen bortxazko lanak egiten. 1938ko azaroan, Flandeseko 5. Mendi batailoian zegoen.

Foruria Bollar, Domingo (1911n jaioa, Markinan, 1932ko kintoa): bere familiako beste kideak bezala, EAJ-ko militantea zen. Bere aita Prudentzio Foruria Gerrikabeitia (1884an jaioa) izan zen. Prudentzio Foruriaren anaiordea zen, eta Luis Foruriaren eta Purita Foruriaren lehengusua. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Gerra Zibilean itsututa gelditu zen.

Foruria Zelaia, Luis (Markina, 1912 - Sala de los Infantes, 1977): ikusi IV. eranskina.

Gainza Moret, Karmelo: Jatorriz ez zen markinarra, baina urte asko egin zituen Markinan bizitzen. Eusko Gudarostean borrokatu zuen Errepublikaren alde, Itsasalde batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 160). Sarjentua izatera heldu zen. Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon. Gero, ez dakit kartzelan sartu edo langileen batailoira bidali zuten.

Gandiaga Bengoetxea, Joan (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): Zapadores II batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 164), eta atxilotu ostean langileen batailoietara bidali zuten.

Gandiaga Bengoetxea, Eusebio (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): 1936ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten 1936ko abenduan.

Gandiaga Bengoetxea, Felix (Markinan jaioa 1919an): Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Felixek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1939an 134. batailoian zegoen, 1. konpainian, 85. dibisioan.

Gandiaga Gerenabarrena, Pedro (1917an jaioa, Markinan, 1938ko kintoa): Iturretako Jauregi baserrikoa. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen Gordexola batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 164), eta atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten.

Gandiaga Gerenabarrena, Eugenio: Iturretako Jauregi baserrikoa. Errepublikaren alde borrokatu zuen Mendiko 3. batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 164).

Gandiaga Lejardi, Karmelo (Markina, 1919 – Valladolid, 1939): ikusi X. eranskina.

Gandiaga Lejardi, Bernardo (1917an jaioa, Markinan, 1938ko kintoa): Markinako Akoda baserrikoa. 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Bernardo Nafarroako lehen dibisioko tankeen aurkako makinen eta metrailadoreen talde mistoan egon zen.

Gandiaga Lejardi, Nikomedes (Markinan jaioa 1912an, 1933ko kintoa): Markinako Akoda baserrikoa. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen, Artilleria Arineko 14. destamenduan.

Gantxegi Ugarte, Manuel (Markinan jaioa 1919an, 1940ko kintoa): Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Manuelek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten, eta gerrara joan behar izan zuen.

Gantxegi Ugarte, Tomas (Markinan jaioa, 1914an, 1935eko kintoa): gerrak soldaduskan harrapatu zuen. Hortaz, Posizioen eta Etapen Brigada Mistoa batailoian egon zen, Alfajarinen.

Garate Albizu, Frantzisko (1917an jaio zen Ziortzan, 1938ko kintoa): Ziortzakoa jaiotzez, Xemeinen bizi zen, Iruzubietan. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen, Itxarkundia batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 165), eta gero, 1937ko abuztuan, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen. Flechas negras taldean borrokatu zuen 22 hilabetez.

Garate Arizmendiarrieta, Joan (1918an jaioa, Xemeinen): ikusi X. eranskina.

Garate Arrate, Joan Jose (Bartzelona, 1917 – Markina-Xemein, 1974, 1938ko kintoa): Joan Jose «Erdoza Menor» pilotariaren (Etxebarria, 1889 – Bartzelona, 1942) eta Joanita Arrateren semea zen. Gerraurretik pilotaria izan zen, Bartzelonan eta Balentzian (Bilbao, 2009: 117). Bere kintakoak 1937ko urrian eraman zituen Francok frontera, baina bera aurretik joan zen boluntario, 1937ko apirilean. Gerra Zibilean ibili ostean, 1941. urtetik aurrera, Errusian ere borrokatu zuen, División Azul-ekoekin, Bigarren Mundu gerran. 1941etik 1943ra egon zen Errusian. Bere lehengusina bat, Dolores Garate Bru (Bartzelona, 1920 – Xemein, 1936), Gerra Zibilean hil zuten Xemeinen, bonbardaketa batean (herritarrek emandako informazioa eta Markina-Xemeingo Erregistro Zibila).

Garate Arrate, Eusebio (Markinan jaioa, 1919an, 1940ko kintoa): Joan Joseren anaia. Francoren tropak herrian sartu ostean, Francoren alde borrokatzera joan zen. Gerraondoan, pilotaria izan zen, eta Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen (Bilbao, 2009: 157).

Garate Larruskain, Frantzisko (1917an jaioa, Xemeinen): 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok soldaduak behar zituen, eta 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera, tartean Frantzisko. Frantzisko 1937ko abuztuaren hogeian joan zen gerrara. Flechas Negras taldean borrokatu zuen. Fronteko lehen lerroan 21 hilabete egin zituen eta bigarren lerroan bederatzi hilabete.

Garate Zabala, Santiago (Xemeinen jaioa, 1913an, 1934ko kintoa): Xemeinen bizi zen, Osolo-Etxebarri (Meabe) baserrian. Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1913an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Hain zuzen ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten Errepublikaren alde borrokatzera joateko. Errepublikaren alde borrokan aritu ostean, atxilotu, eta langileen 18. batailoira bidali zuten Guadalajarara, eta bertan egon zen, gutxienez, 1938ko uztailera arte. Langileen batailoietan zegoela, ebakuntza bat egin zioten Sorian, 1937ko urrian. Bere aita, Lorenzo Garate Ibarzabal (1880 - 1954), atxilotu egin zuten, eta bere arreba Doloresek (1917an jaioa) Frantziara alde egin behar izan zuen 1937ko apirilaren 26an, urte beteko bere haurra besoetan zuela.

García Iriondo, Zelestino (1918an jaioa, Markinan, 1939ko kintoa): Errepublikaren alde borrokatzen aritu zen aurrenengo, Inteligentzia Militar batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 168). Atxilotuta egon ostean, langileen batailoietara bidali zuten. Cangas-eko 20. Langileen batailoian egon zen, besteak beste, Bechin (Castellon) inguruan. Gero soldaduska egin behar izan zuen.

Garetxana Gerrikabeitia, Ramon (1917an jaioa, Markinan, 1938ko kintoa): Aranzeta Barrena (Barinaga) baserrikoa. Bera eta bere anaia Andres abertzaleak ziren, eta Francoren tropak sartu aurretxoan ihes egin zuten, baina gero bueltatu egin ziren etxera. Ez dakit zenbat denbora egin zuten Markinatik kanpo. 1917an jaioa izanik, Ramoni 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Ramon Francoren aldeko batailoietan zegoen borrokatzen 1939an; hain zuzen ere, 101 batailoian, 105 dibisioan.

Garetxana Gerrikabeitia, Andres (Markinan jaioa 1919an, 1940ko kintoa): Bere anaiarekin batera ihesean ibili ostean, Francok bere alde borrokatzera eraman zuen 1938an. Andresek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten, eta Andresek gerrara joan behar izan zuen. 1939an, zapadoreen talde bateko 6. konpainian zegoen.

Garmendia Barinaga, Simon (1916an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Belaustegi baserrikoa. Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten.

Garmendia Barinaga, Migel (1914an jaioa, Xemeinen, 1935eko kintoa): Xemeingo Belaustegi baserrikoa. Errepublikaren alde borrokatzera joan zen. Hain justu ere, Itxarkundia batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 176). Gerran zauritu egin zuten.

Garramiola Garmendia, Jose Maria (Xemein, 1914 – Gorbeia, 1936, 1935eko kintoa): ikusi X. eranskina.

Garrachon Gerrikabeitia, Ramon (Markinan jaioa, 1917an, 1938ko kintoa): 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera, tartean Ramon. Francoren armadako 101. batailoian borrokatu zuen.

Gaitan de Aiala Costa, Fernando (1910ean jaio zen Bilbon, 1931ko kintoa): ikusi I. eranskina.

Gaitan de Aiala Costa, Joakin (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): ikusi I. eranskina.

Gerenabarrena Agirrebengoa, Gregorio – Honorio Ume Jesusena «Munoki» (Mallabia, 1912 – Markina-Xemein, 1992): Fraide karmeldarra, eta organo jole oso ona (Unzueta eta Izpura, 2001: 246). Mallabiko Munoki baserrian jaio zen, baina 1952. urtetik Markinako karmeldarren komentuan bizi zen. Bere bizitzako azken zortzi urteak Arrasateko psikiatria-sendategian eman zituan. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, abadetzako ordena hartu gabe zegoela. Ariztimuño batailoian sartu zen 1936ko urriaren 28an. 24 urte zituen une hartan (Baraiazarra, 2009: 404). Gerraostean, langileen batailoi batean lan egitera zigortu zuten. Luis Baraiazarrak dioen bezala: «gerra amaitu zan, baina galtzaileentzat gerraondoa ez zan bape hobea. Askok kartzela izan eben «merezimenduen sari» eta beste askok lan-batailoietako esklabo-bizitza ikaragarria. Batailoi honeetariko bateko kidea izan zan Gregorio Gerenabarrena (Honorio). Torrecilla de Valmadrid-en izan eben lan gogorretako lekua (Baraiazarra, 2009: 405).

Gerenabarrena Arrutain, Antonio (1916an jaioa, Xemeinen, 1937ko kintoa): Errepublikaren alde borrokatu zuen, San Andres batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 195). 1937ko abuztuaren azkenetan atxilotu, eta gero Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan

sartu zuten, 1937ko irailean. 1938ko abuztuan, Lermako Kontzentrazio esparruan (Burgos) zegoen. Bakarrik Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen.

Gisasola Arriaga, Antonio (1913an jaioa, Markinan, 1934ko kintoa): Bareta baserrikoa. Itsasalde batailoian borrokatu zuen, Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 197). Itsasalde batailoiko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten Bilbon. Gero, ez dakit langileen batailoira bidali zuten, edo kartzelan sartu.

Gisasola Arriaga, Santos (Markinan jaioa 1910ean, 1931ko kintoa): Bareta baserrikoa. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1910ean jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan. Rebelion de la Sal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 197). Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen: Burgoseko Zaldien bosgarren erregimentuan, seigarren eskuadran.

Gisasola Arriaga, Joan (1920an jaioa, Markinan, 1941eko kintoa: «Biberoiaren Kinta»): Bareta baserrikoa. 1938an, Francok 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatzea erabaki zuen. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zituzten 1940ko eta 1941eko kintak. Joan Valladolideko 20. Infanteria Erregimentuan egon zen, 1. konpainian.

Gisasola Bilbao, Jose Maria (Xemein, 1913 (1934ko kintoa) – Galdakao, 1999): Xemeingo Ibaseta baserrikoa. Aita bederatzi urte zituela hil zitzaion, eta bere osaba Anton Gisasolak Bilbora eraman zuen. Antonek Zabalbide frontoia eramaten zuen, eta Jose Mariak han ikasi zuen palaz jokatzen. Madrileko frontoian aritu zen jokatzen, eta 1936ko otsailean Bartzelonako Novedades frontoira (1929an irekia) joan zen. Bertan zegoela harrapatu zuen Francoren altxamenduak. CNT-koek eta POUM-ekoek frontoia bahitu zuten, eta 1937ko martxoan, Jose Maria Armada Gorriarekin joan zen gerrara. Frontean egon zen 1939ko martxora arte, hau da, gerra bukatu zen arte. Hain zuzen ere, Kostako Artilleriako 9. baterian egin zuen gerra, baita Guadalajarako Behaketa postuan ere. Guadalajaran atxilotu zuten, eta bertako kontzentrazio eremu batean bi urte egin zituen. Gero, Xemeinera (Ibasetara) bueltatu zen, eta Esperantza fabrikan aritu zen lanean, erretiratu zen arte.

Goikoetxea Aspiazu, Mateo (1913an jaioa, Xemeinen, Meabe): Xemeinen bizi zen. Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1913an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Ibaizabal batailoian borrokan ibili ostean (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 181), bere batailoikoekin eskapa zihoala, Munitibarren lo egiten gelditu zen apirilaren 26an, hau da, Gernika bonbardatu zuten egunean. Biharamunean, Espainiako bandera ikusi zuen, eta entregatu egin zen. Jose Mari Eizagirre (Albitxu), Damian Urionabarrenetxea (Munitibar), eta Joan Onaindia (Ibaseta) ere berarekin batera entregatu ziren. Guztiak Ibaizabal batailoikoak ziran. Francoren aldeko soldaduek Zeinkeko Zabala baserrira eraman zituzten, bertan egoan aginte postua eta. Zeinken entregatu eta gero, Bergarara eraman zituzten. Gau bat bertan egin ostean, Gasteizera bidali zituzten, eta bertan hamabost bat egun egin zituzten preso. Pilo bat lagun egon ziren gela batean elkarren gainean, baldintza oso txarretan. Kartzelan egon ostean, Francoren batailoietara bidali zuten, eta bertan bukatu zuen gerra.

Goikoetxea Aspiazu, Domingo (Xemeinen jaioa 1909an, 1930eko kinta): Xemeingoa zen. 1938an Francok eraman zuen frontera.

Goikoetxea Aspiazu, Viktor (1916an jaioa, Xemeinen): ikusi X. eranskina.

Goikoetxea Omar, Anastasio (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Xemeingo Zamora baserrian bizi zen. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1915ean jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan. Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. Hain zuzen ere, 1937ko urrian eraman zuen Francok bere alde borrokatzera.

Goikoetxea Ugarteburu, Inazio (1918an jaioa, 1939ko kintoa): Urberuaga Etxekoa. Gerrara joatea tokatzen zitzaion 1936ko abenduan, baina ez zen joan, Zamudion zegoelako lan egiten Esperanza fabrikan. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan berbertan, Francok bere adineko (1918an jaioak) hamaika gazte eraman zituen gerrara. Inaziok 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, frankistek 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. Ez dakit, zehatz-mehatz noiz joan zen soldaduskara, baina 1940an, Automobilen Zerbitzuan zegoen, Donostian.

Goiogana Ugarte, Jose (Markinan jaioa 1910ean, 1931ko kintoa): Francoren batailoietan zegoen 1939ko urtarrilean; hain justu ere, Levanteko Armadako Automobilen Zerbitzuan, disposituen konpainia batean.

Goiogana Agirregomezkorta, Simon (Markinan jaioa 1914an, 1935eko kintoa): 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen, Zaldien Dibisioan, Lehen eskuadroian, hirugarren erregimentuan, bigarren brigadan.

Gomez Sanchez, Pedro (Markina, 1920 – Lleida, 1992, 1941ko kintoa: «Biberoiaren Kinta»): pilotaria zen (Bilbao, 2009: 185). 1938an, Francok 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatzea erabaki zuen. Izatez, 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zituzten 1940ko eta 1941eko kintak. Pedrok Maria Molina Errekete Tertzioan, 52. dibisioan, 3. konpainian, lehen sekzioan borrokatu zuen. Alabaina, 1938tik 1941era, Zaragozako Aragones frontoian pilotan jokatzen aritu zen (Bilbao, 2009: 185).

González Diaz, Agustin (Xemeinen jaioa, 1917an): Irarragan bizi zen. 1937ko hasieran joan zen frontera. Hain zuzen ere, Ordena Publikoan aritu zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 186). Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, bere kintako hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara. Agustin ez zegoen Xemeinen eta ezin izan zuten eraman.

Guenetxea Agirrebengoa, Francisco: ikusi X. eranskina.

Guenetxea Agirrebengoa, Marcelino: Errepublikaren alde borrokatu zuen. Diziplina batailoian egon zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 195).

Ibaibarriaga Beitia, Jose Martin (Xemeinen jaioa 1909an, 1930eko kinta): jaiotzez Ziortzakoa, Xemeinen bizi zen, Urberuagan. 1938ko hasieran, Francok soldaduak behar zituen eta frontera eraman zuen. Zauritu egin zuten, eta Torrijos-eko ospitalean (Toledo) egon zen.

Ibaibarriaga Madariaga, Jose (Markina, 1912 – Aragoi, 1938, 1933ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Ibarluzea Anitua, Esteban (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): gerrak soldaduskan harrapatu zuela pentsatzen dut, eta, ondorioz, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. Hain zuzen ere, 62. dibisioan, metrailadoreen sekzioan egon zen.

Ibarluzea Gerrikabeitia, Santiago (1913an jaioa, Markinan, 1934ko kintoa): Barinagakoa zen. Badirudi frontean egon zela Francoren aldeko batailoietan. Ez dakit aurretik Errepublikaren aldeko batailoietan egon zen edo ez.

Ibarluzea Gerrikabeitia, Manuel (1917an jaioa, Markinan, eta Zaragozan hil zen, 1938ko kintoa): Barinagakoa zen. Pilotaria izan zen gerra aurretik eta gerraostean, eta Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen (Bilbao, 2009: 201). 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. 1939an, lehen dibisioko, 12. artilleria arineko bigarren baterian zegoen.

Ibarluzea Gerrikabeita, Andres (1919an jaioa, 1940ko kintoa): Barinagakoa zen. Andresek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea

tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1938an. Andres Minen 6. konpainian egon zen.

Ibarluzea Madinabeitia, Migel «Itxulapiko» (Markina, 1915 – Markina, 2003): Markinako Erdiko kaleko 3. portalean jaio eta bizi izan zen. Bere aita Jerardo Ibarluzea izan zen. Bere familia osoa bezala, abertzalea zen. 1936an joan zen gerrara, eta Itsasalde batailoian borrokatu zuen. Itsasalde batailoia 1937ko ekainaren 17an igo zen Artxandara, Bilbo ebakuatzen zuten bitartean, tropa frankistak gelditzeko. Frankistei aurre egiteaz gain, Itsasaldekoek posizio batzuk ere berreskuratu zituzten: Fuerte Banderas eta Kasinoa. Biharamunean Artxandako eta Santo Domingoko posizioak utzi eta Larrinagako eta Karmeloko kartzeletara joateko agindua hartu zuten, Euzkadiko Jaurlaritzaren aginduz, bertan zeuden preso guztiak askatzeko. Ekainaren 19an, behin soldaduek eta nahi zuten herritarrek Bilbotik ihes egin zutenean, zubiak lehertu zituzten, eta, ostean, Francoren tropei entregatu. Atxilotu ostean, Bilboko Arriaga antzokian sartu zituzten guztiak. Gero, langileen 17. batailoira bidali zuten, gobernuarentzako doako lana egitera. Estatuko hainbat tokitan aritu zen bortxazko lanean. Bruneteko (Madril) gudaldian ere egon zen. 1936an atera zen etxetik gerrara joateko, eta 1941ean bueltatu zen Markinara. Garaian aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean zioen bezala: «gerra denborea gogorra izan zan. Batean Madrileko frentean (Guadarraman). Hurrengo bestean… Bruneten egon ginenean lekurik be ez geunken. Gaur hemen, bihar han… Beti tiroen azpian. Bost urte egin nituen etxera etorri barik» (Garaian 2000-26: 28-31).

Ibarluzea Imaz, Francisco (Xemeinen jaioa, 1918an, 1939ko kintoa): Xemeingo Gabaro baserrikoa. Boluntario joan zen borrokatzera. Bere kintako guztiak 1937ko uztailan deitu zituen Francok gerrara joateko, baina bera, dagoeneko, frontean borrokatzen zegoen, San Ignazio Errekete Tertzioarekin. 1940an Donostian zegoen Automobilen 6. konpainian.

Ibarluzea Imaz, Roman (1914an jaioa, Xemeinen: Xemeingo Gabaro baserrikoa. Infanterian zegoen Iruñean, baina 1936ko urriaren 21ean etxean zegoen gaixorik. Ez dakit non borrokatu zuen.

Ibarluzea Oregi, Antonio (Markinan jaioa 1911n, 1932ko kintoa): Markinako Barinaga auzokoa Odiaga Nagusi baserrikoa (Oria nagusi). 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera. Hain justu ere, Morteros de Euzkadi batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 206). Atxilotu ostean, Langileen batailoietara bidali zuten. 1939ko urtarrilean 142. langileen batailoian zegoen.

Ibarluzea Oregi, Emiliano (1916an jaioa, Markinan, 1937ko kintoa): Markinako, Barinaga auzoko, Odiaga Nagusi baserrikoa (Oria nagusi). 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen; Valladolideko 20. Erregimentuan, 130. batailoian, 3. konpainian.

Ibarluzea Oregi, Benito (Markina, 1918 - 1939): ikusi X. eranskina.

Ibarra Arrinda, Joan: Xemeingoa zen. Amuategi batailoian borrokatu zuen Errepublikaren aldeko armadan (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 206). Atxilotu ostean, langileen 41. batailoira bidali zuten, gutxienez, 1939. urtera arte. Besteak beste, batailoi hau Alayón-en (Zaragozan) ibili zen, bortxazko lanak egiten.

Ibarra Arrinda, Frantzisko: Xemeingoa zen. Capitan Casero batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 206). Gero atxilotu egin zuten, eta pentsatzen dut langileen batailoietan egon zela, gutxienez 1939ra arte.

Ibarra Arrinda, Anjel (1909ean jaio zen, 1931ko kintoa): 1931ko kintoa izanik Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1931ko abenduan. Hain justu ere, Rebelion de la Sal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VI. tomoa: 206). Dena dela, badirudi Zamudion zegoen Esperanza fabrikara joateko deia izan zuela. Iparraldeko frontea jausi ze-

nean, Francok gerrara joateko deia egin zien bere kintakoei 1937ko abenduan, baina Esperantza fabrikan zegoenez, Anjelek ez zuen frontera joan beharrik izan.

Ibarzabal Agirre, Paulino: Barinagako Azkonabieta baserrikoa. PCE-ren Leandro Carro batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 207).

Ibarzabal Anitua, Jose Mari (Markinan jaioa, 1917an, 1938ko kintoa): Markinako Ikatza baserrikoa. 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaien soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Hain zuzen ere, 23. erregimentuan egon zen, 1. konpainian, 17. batailoian, 31. dibisioan.

Ibarzabal Anitua, Esteban (Markinan jaioa 1914an, 1935eko kintoa): 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen, erreketeen tertzioetan.

Ibarzabal Anitua, Jose (Markinan jaioa 1919an, 1940ko kintoa): Markinako Ikatza baserrikoa. Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen. Josek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1940an, 21 urte betetzen zituztenek osatzen zuten kinta hori. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zuten 40ko kinta; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1938an. 1939an, Amerika 23. Erregimentuan zegoen, 1. konpainian, 171 batailoian, 31. dibisioan.

Ibarzabal Anitua, Isidro (1918an jaio zen, 1939ko kintoa): Adinagatik Francoren alde borrokatu behar izan zuen. Hain justu ere, Artilleria arineko 11. erregimentuan egon zen, 43. baterian, obusen bigarren taldean.

Ibarzabal Arrieta, Migel (Markina, 1910 – Bilbo, 1937): ikusi X. eranskina.

Ibarzabal Arrieta, Joan (Markinan jaioa 1912an, 1933ko kintoa): Markinako Barinaga auzokoa zen, Aranzeta (Asta) Guena edo Goikoa Baserrikoa, baina Xemeinen bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Errepublikaren alde borrokatu zuen Loiola batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 207), eta gero Francoren batailoietan. 1939ko urtarrilean, Francorekin zegoen borrokatzen, bosgarren dibisioan, hegazkinen aurkako bateria batean.

Iraolagoitia Lekerikabeaskoa, Jesus (1911n jaioa, Markinan, 1932ko kintoa): Usozabal baserrian bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera.

Iriarte Barinagarrementeria, Higinio (Markinan jaioa 1919an): Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen.

Itoiz Aranbarri, Santiago (Markinan jaioa, 1913an, 1934ko kintoa): Zehar kalean bizi zen. Gerra piztu zenean, Zaragozako Aragonés frontoian zegoen jokatzen, Tiburtzio Zelaia Ugarteburu, Jose Zelaia Ugarteburu, Joan Larrinaga «Azpikoerrota» eta Markinako eta Xemeingo beste hainbat pilotarirekin batera. Frankistek mobilizatu egin zituzten guztiak, eta Francoren batailoietan sartu. Dena den, egun batean etxera etorri zen inori ezer esan gabe, eta, bueltatu zenean, atxilotu, eta desertore gisa epaitu nahi izan zuten. Pilotariek zeuzkaten influentziak erabili behar izan zituzten kartzelatik ateratzeko.

Iturraran Lauzirika, Florentzio (Xemein, 1911 – Teruelgo Frontea, 1938, 1932ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Iturraran Lauzirika, Martin (1900 - 1936): ikusi X. eranskina.

Iturraran Lauzirika, Jose Frantzisko (1913an jaioa): Xemeingo Axola Baserrian bizi zen. Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen 1936ko urriaren 16an, eta 1913an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, 1936ko azaroan. Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 217).

Iturregi Aurrekoetxea, Joan – Joan Familia Sakratuarena «Aita Joan» (Mungia, 1910 - Markina-Xemein, 2004): Fraide karmeldarra. 1934an egin zen apaiz. Gerra hasi zenean, Eibarko karmeldarren komentuan zegoen, eta bertako bizitza eten behar izan zuen, sei hilabetez, gudarien kapilau zeregina betetzeko (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 217). Larrazabal batailoiko kapilaua izan zen. Atxilotu egin zuten 1937ko ekainean (Garaian, 35-2004: 28; Baraiazarra, 2009: 394 eta Gutierrez, 2007: 114), baina ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan. Bere anaia Josek Azaña-Gipuzkoa batailoian borrokatu zuen.

Iturriaga Arriola, Pedro (Xemeinen jaioa 1912an, 1933ko kintoa): Xemeinen bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera, 1936ko azaroaren 19an. Ariztimuño eta Artilleria Arinean batailoietan borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 218).

Iriondo Urkidi, Martin: (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): Markinako Guen kalean jaio zen. Pilotari profesionala izan zen, eta 30. hamarkadan Zaragozan, Bartzelonan, Bruselan, Caracasen eta La Habanan jokatu zuen (Bilbao, 2009: 211). Pentsatzen dut Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuela. Joan Iriondo abadearen anaia zen.

Jaio Aranburu, Paulino: San Andres batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 221). Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Jaio Aranburu, Anjel: San Andres batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 221). Ez dakit kartzelan edo langileen batailoietan egon zen.

Jauregi Plaza, Pio (Markina, 1899 – Olaeta, 1960): Abadea. Markinarra zen jaiotzez, baina Amorotoko abadea zen gerratean, eta bertako abadetxean bizi zen. Bere gurasoak Benito eta Maria ziren. Euzko Gudarosteko kapilaua izan zen kapitain graduarekin. Santoñan atxilotu zuten, abuztuaren amaieran, eta Duesoko (Santoña, Kantabria) kartzelan sartu zuten. Epaiketa militarra 1937ko irailaren 9an egin zioten, eta «Matxinada Laguntzea» salaketapean, 20 urte eta egun bateko kartzela zigorra jarri. 1938ko martxoaren 29an, Iruñako (Langraiz Oka) kartzelara eraman zuten. Hasieran, jarritako 20 urteko kondena bi urteko espetxealdiagatik aldatu zioten, eta 1940ko uztailaren 23an atera zen baldintzapeko askatasunean (AGA). Dueñas-eko eta Carmonako kartzeletan ere egon zen. Kartzelatik atera ostean, Bacaresen (Almeria) eta, 1945. urtetik aurrera, Olaetan (Araba) egon zen desterratua. Carmonako presondegian hainbat elizgizonek Julian Besteirorekin atera zuten argazkian agertzen da. Bere anaia Jesus Gernikako abade laguntzailea izan zen.

Kaltzakorta Atxurra, Agustin (1916an jaioa, Xemeinen): bere kintako askok bezala, bi armadetan borrokatu zuen: Errepublikaren alde lehenengo eta, ostean, Francoren alde. Francok 1937ko urrian eraman zuen gerrara.

Kaltzakorta Jemein, Ildefonso (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela.

Kaltzakorta Sololuce, Pedro Jose (Xemein, 1919 – Markina-Xemein, 2008): Boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera 1937ko urtarrilean. San Andres batailoian borrokatu zuen, zapadoreetan (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 102). 1937ko abuztuaren 26an atxilotu zuten Santo Cristo de Limpias-en (Santander). Handik Laredoko hondartzan zegoen kontzentrazio eremura eraman zuten oinez. Han hiru aste egin ostean, Deustuko Unibertsitatera eraman zuten trenez. Han deklarazioa hartu zioten, eta hil bat inguru eduki zuten atxilotuta. Handik, San Pedro de Cardeñako (Burgos) komentura eraman zuten trenez. Gero, Oviedora eraman zuten trenez, eta bertan langileen 91. batailoian sartu zuten, bideak eta errepideak konpontzeko. Handik Felechosara, San Isidro mendi-portuko errepidea konpontzera. Berriro Oviedora eman zuten. Handik, Sama de Langreora, trenbideak konpondu, mendietatik hondakinak atera eta bagoiak betetzera. Berriro Oviedoko barrakoietara bidali

zuten, mendietan arbolak bota eta egurra egitera. 1940ko maiatzaren 30rean askatu zuten, Asturiaseko langileen batailoietan 26 hilabete egin ostean. Etxera bueltatu ostean, hamaika urtez astero aurkeztu behar izan zuen Guardia Zibilen kuartelera.

Kortabitarte Garate, Jose Maria (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Askurrinaga Behekoa baserrikoa. Bere kintako guztiei bezala, gerrara joatea tokatzen zitzaion 1937ko uztailaren 27an, baina ez zen joan Zamudion zegoelako, Esperanza fabrikan lan egiten. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan berbertan, Francok bere adineko (1918an jaioak) hainbat gazte eraman zituen gerrara. Josek 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. Horrela, Logroñoko 86 zenbakidun Erregimentu Mistora bidali zuten, eta 1942an lizentziatu zen.

Laka Oregi, Agustin (1911 jaio zen, 1932ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Laka Ugarteburu, Joan Jose (Markinan jaioa 1917an, 1938ko kintoa): Abokatua eta prokuradorea zen. Adinagatik, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. 139. batailoian egon zen, 1. konpainian, 52. dibisioan.

Laka Ugarteburu, Jose (Markinan jaioa 1919an, 1940ko kintoa): 1919an jaioa izanik, 1940an tokatzen zitzaien soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1938an, bere kintako guztiak eraman zituen frontera. 1939an, Jose 134. batailoian zegoen, 85. dibisioan.

Larrañaga Urkidi, Matias (1920an jaioa): Larruskaingo (Xemeingo) Mañukorta baserrikoa. Teruelgo frontean borrokatu zuen, Francoren aldeko batailoietan. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta 1937an, 1938an eta 1939an Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Matias. Matiasek 18 urte zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1941. urtera arte. Dena den, Francok soldaduak behar zituen eta 1938an, 41eko kinta mobilizatu zuen. Teruelgo frontean borrokatu behar izan zuen. 1941eko kintakoei «Biberoiaren Kinta» deitzen zaie, gerrara oso gazte joan zirelako.

Larrañaga Alberdi, Eustakio: Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen PNV-ren atzeguardiako batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229).

Larrañaga Alberdi, Santiago: Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen Loturak eta Transmisioak batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229).

Larrañaga Alberdi, Serapio: Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen Euzko Indarra batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229).

Larrañaga Etxabe, Jose (Markinan jaioa, 1914an, 1935ko kintoa): gerrak soldaduskan harrapatu zuela pentsatzen dugu, eta, ondorioz, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. Espainiako Ehiztarien Erregimentuan, Zaldien bosgarren taldean, lehenengo eskuadran egon zen.

Larrañaga Etxabe, Anjel: Errepublikaren alde borrokatu zuen PNV-ren atzeguardia batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229).

Larrañaga Zubizarreta, Santiago: Markinako Barinaga auzoko Pagate baserrikoa. Simon Bolibar batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229). Atxilotu egin zuten frankistek, eta badirudi euren alde borrokatzera eraman zutela. 1939ko abenduan, frankistek Deustuan zabaldu zuten atxilotuentzako ospitalean zegoen.

Larrañaga Zubizarreta, Joan (Markinan jaioa 1907. urtean, 1928ko kintoa): Markinako Barinaga auzoko Pagate baserrikoa. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen Simon Bolibar batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229), eta, atxilotu ostean, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Mendiko bostgarren Flandes batailoian zegoen.

Larrañaga Zubizarreta, Antonio (Markinan jaioa 1912an, 1933ko kintoa): Markinako Barinaga auzoko Pagate baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak

1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen. Baliteke UHP batailoian borrokatu izana (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 229). Atxilotu ostean, Francok bere alde borrokatzera eraman zuen. 1939an, Francoren batailoietan zegoen, zapadoreen 6. batailoian, 13. konpainian, 1. dibisioan.

Larrañaga Zubizarreta, Zeledon (1916an jaio zen, 1937ko kintoa): Markinako Barinaga auzoko Pagate baserrikoa. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen borrokatzen. Hain justu ere, berreskuratzeko deposituan, Cantalapiedran.

Larrañaga, Jose (Markinan jaioa 1914an, 1935eko kintoa): 1939ko urtarrilean Francoren aldeko batailoietan zegoen, Espainiako Ehiztarien Erregimentuan, bosgarren zalditegian, lehen eskuadran. Pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela.

Larrinaga Aldazabal, Eusebio «Bolu» (Xemeinen jaioa, 1911n, 1932ko kintoa): Xemeinen bizi zen, Boluko okindegian eta lanbidez okina zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Hain zuzen ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 232). Itsasaldeko beste gudariak bezala, ekainaren 19an atxilotu zuten. Gero, ez dakit kartzelan sartu zuten edo langileen batailoira bidali zuten. Migel Larrinaga Aldazabalen «Goiko-Boluren» anaia zen.

Larrinaga Aldazabal, Jose Martin (1906an jaioa, Xemeinen, 1927ko kintoa): Xemeinen bizi zen, Boluko okindegian. Bere kintako asko bezala, 1938ko abenduan eraman zuen Francok frontera.

Larrinaga Gisasola, Joan Karlos «Goiko-Bolu» (Markina, 1922 – Markina-Xemein, 2000): hamabost urte egin gabe zituela, boluntario joan zen frontera, Errepublikaren alde borrokatzera. Hain justu ere, Rosa Luxenburgoko gudariekin ihes egin zuen 1937ko apirilaren 27an, Markinako Frontea jausi zenean. Etxekoak kobazulo batean egon ziren ezkutatuta egun guztian, bonbardaketen beldurrez, eta, gauean, etxera bueltatu zirenean, Joan Karlosek ihes egin zuela konturatu ziren. Itxura denez, Joan Karlosek ogia eramaten zuen Urberuagako bainuetxera egunero, eta harreman onak zituen Rosa Luxenburgoko milizianoekin. Gerran hiru hil ibili ostean, etxekoek Gurutze Gorrikoen bidez jakin ahal izan zuten nondik nora zebilen. Behin Bizkaia jausi zenean, Rosa Luxenburgoko soldaduak Kantabriara pasatu ziren, eta Joan Karlosen anaia Jose Mari (1921 - 1991) bere bila joan zen Castro (Kantabria) ingurura, eta etxera ekarri zuen, gutxi gorabehera 1937ko uztaila-abuztuan. Handik laster, soldaduskara eraman zuten frankistek, eta, Burgosen zegoela, taberna batean Francoren argazkia apurtzeagatik eta Gora Euskadi Askatuta oihukatzeagatik, atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan sartu. 1938ko martxoan behintzat Miranda de Ebroko kontzentrazio eremuan zegoen. Bertan bat egin zuen Benigno Urkidi Etxezarragarekin «Karia» (Iurreta, 1900 – Markina, 1940) eta Jose Meabebasterretxea Amorebieta «Larrei» ziortza-bolibartarrarekin. Miranda de Ebroko kontzentrazio eremua 1937tik 1947ra erabili zuten frankistek. Hemen egoten ziren bitartean, presoek «langileen batailoietan» lan egin behar izaten zuten, tunel, bide, zubi edo trenbideak egiten (Fernández López, 2006). Joan Karlosek, guztira, hiru bat urte egin zituen etxetik kanpo (1937 - 1940) eta oso argal bueltatu zen. 1940an, Bigon zegoen pilotan jokatzen.

Larrinaga Gisasola, Migel «Goiko-Bolu» (Markina 1919 – Markina-Xemein, 1985): Pilotaria izan zen (Bilbao, 2009: 234). Adinagatik, soldaduskara eraman zuen Francok 1938an, eta bere aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1939an, Aranda jeneralaren Kuartel Nagusian zegoen.

Larrinaga Larrinaga, Jose Domingo «Azpiko-errota» (Xemein, 1916 – Turtzioz, 1937): ikusi X. eranskina.

Larrinaga Larrinaga, Joan «Azpiko-errota» (Xemein, 1914 – Etxebarria, 2008): gerra piztu zenean, Zaragozan zegoen pilotan jokatzen, eta frankistek mobilizatu egin zituzten bera eta Markinako eta Xemeingo beste hainbat pilotari. Ondorioz, Francoren batailoietan borrokatu behar izan zuten guztiek. Joan Larrinaga San Migel de los Reyes-en atxilotu zuten (nire ustez, 1937an) eta handik Santanderrera eraman. Santanderren kartzelan edo kontzentrazio eremuan sartu zuten. 1938ko otsailean, Cardonako Gazteluan zegoen atxilotuta, eta Alberto Onaindiaren bitartez, bere osaba Felipe Larrinagak bisitatu ahal izan zuen 1938ko martxoan (Goiogana eta Arrieta (editoreak): Alberto Onaindiaren Artxiboa). Bertan zeuden Agustin Egizabal «Politxe» eta Patxi Alberdi «Patxiko Aixerna», hauek Errepublikaren aldeko armadan, eta Joanen familiakoek diotenez, asko babestu eta lagundu zioten Joani. Santanderretik Katalunia aldera eraman zuten langileen batailoi batean, eta toki batetik bestera trintxerak eta bideak egiten erabili (gose izugarria pasatu zuen, eta 20 kilo galdu). Katalunia jausi aurretxoan, aske utzi zuten. Guztira, urte eta erdi egin zuen atxilotuta. Bere alaba Ana Marik dioen bezala: «Mi aita, Juan Larrinaga, estaba en Zaragoza cuando el Alzamiento. Era pelotari y aunque todos en la familia somos nacionalistas, a él le mandaron al ejército de Franco. Durante la Batalla de San Miguel de los Reyes en Valencia lo pasó fatal. Vino con veinte kilos menos, lleno de piojos y sarna y, entre las cosas que me ha contado, hay algo que no se me olvidará jamás: limpiaban sus propias heces para ver si encontraban alguna lenteja que volver a comer (Palenzuela, Dominguez eta Mendia, 2007: 135).

Larrinaga Zubillaga, Antonio (1915ean jaioa, 1936ko kintoa): 1937an Francoren batailoietan borrokatzen zegoen, baina, badirudi, aurretik Errepublikaren alde borrokatu zuela, Ibaizabal batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 232).

Larruskain Astorkia, Jose Martin (Xemeinen jaioa, 1910ean, 1931ko kintoa): Errepublikaren alde borrokatu zuen lehenengo, eta, 1938tik aurrera, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. Francoren armadarekin Teruelen egon zen, Amerikako Infanteriako 29ko 137 batailoiko 2. konpainian, Gaztelako Armadan.

Larruskain Garitagoitia, Eusebio (Markina, 1919 – Kordoba, 1938): ikusi X. eranskina.

Larruskain Illoro, Jose (Markinan jaioa 1911n, 1932ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Capitan Casero eta San Andres batailoietan borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 233). Atxilotuta egon ostean, Francoren aldeko batailoietara bidali zuten. 1939ko urtarrilean, San Martzial 22. erregimentuko 4. konpainian zegoen (Nafarroako laugarren Dibisioan).

Larruskain Olalde, Jose (Markina, 1911 – Bilbo, 1937, 1932ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Larruskain Olalde, Agustin (Markina, 1913 – Iruñea, 1939): ikusi X. eranskina.

Larruskain Olalde, Hilario – Jenaro Familia Sakratuarena (Markina, 1914 – Markina, 1988, 1935eko kintoa): Markinako Iturreta auzoko Makarda Beheko baserrian jaio zen. 35eko kintakoa izanik, gerrara joan behar izan zuen 1936ko udagoienean. Larrazabal batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 233[17]). Iparraldeko frontea frankisten eskuetan jausi zenean, frankisten alde borrokatzera joan behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Iruñeako Alfontso Karlos Ospitalean zegoen. Luis Baraiazarrak (2009) dioen bezala: «Larreako Ikastetxe zaharrean sartu zan 1925eko maiatzean. Larrea bertako nobizio-etxean jantzi eban abitua 1931ko uztailaren 3an, hurrengo urteko uztailaren 7an profesa eginez. Profesa Nagusia 1940ko irailaren 8an egin eban, 1936ko Gerra Zibilean alde

[17] Liburu honetan, Anastasio izenarekin agertzen da, baina egiatan Hilario zen. Gainera, Hilario Larruskain kapilau lanetan aritu zela esaten da. Baliteke kapilauari laguntzen aritzea, baina kontuan izan 1940. urtera arte ez zela abadetu.

bietan ibili ondoren. Berariaz aitatu dogu Profesa Nagusia, Ordenarekin behin betiko lotzea esan nahi dauana, gerratean anaia bi galduta, familian gurasoekin, Joakin eta Joakinarekin, bakarrik geratu zalako. Makarda baserriko oinordekoa bera zan eta tira egingo eutsan horrek… Baina karmeldar jarraitzea erabagi eban. Ordena Sakratuak Markinan hartu zituan; abadetza 1940ko azaroaren 3an. Filosofia eta Teologia Iruñean, Gasteizen, Begoñan eta Markinan egin zituan. Ikasketak amaitzean Larreara bidali eben. Hamar hilabete igaro zituan han (1941 - 1942), «Universa»ko azterketarako prestatzen zan bitartean. Gero Markinako komentura bidali eben eta harrezkero hemen bizi izan zan; berrogeita sei urte, hil arte».

Larruskain Solozabal, Segundo (Xemein, 1918 – Teruel, 1937): ikusi X. eranskina.

Larruskain Solozabal, Jose (1914an jaioa, Xemeinen, 1935eko kintoa): Errepublikaren alde borrokatu zuen.

Larruskain, Jose Migel: ikusi X. eranskina.

Lasa Aldekoa, Joan (Bilbao, 1904 – Markina-Xemein, 1959): Goiko Portalean bizi zen. Errepublikaren alde borrokan ibili zen Intendentzia Militar batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 233). 1937an, Markinara bueltatu zen. Urte horretan, pilotan ere jokatu zuen Bilbon (Bilbao, 2009: 236), baita Bruselan ere (Garaian, 13-1993: 14-15). 1939an bueltatu zen Markinara, bere emaztearekin. Bruselan zegoela ezkondu zen gerratik ihes eginda zegoen Pakita Ugarterekin, 1938ko otsailean. Jose Anizeto Urrutiak, Xemeingo parroko-artzapezak, ezkondu zituen.

Legarra, Inazio: gerraren hasieratik erreketeen tertzioetan borrokatu zuen; hain zuzen ere, San Inazio errekete tertzioan.

Legarra Bilbao, Jose (Markinan jaioa 1913an, 1934ko kintoa): Karmengo errebalean bizi zen. 1939ko urtarrilean, Francoren batailoietan zegoen borrokatzen, Automobilen1. batailoian, 3. konpainian, lehen sekzioan.

Legarra Bilbao, Luis (Markinan jaioa, 1914an, 1935eko kintoa): 1935eko kintoa izanik Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten. Hain justu ere, Gordexola batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 237). Pilotaria izan zen, eta Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen (Bilbao, 2009: 238).

Legarra, Jesus (Markinan jaioa 1919an): Francoren batailoietan borrokatu zuen.

Legarra, Rufino (1920an jaioa, Markinan, 1941ko kintoa: «Biberoiaren Kinta»): 1938an, Francok 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatzea erabaki zuen. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zituzten 1940ko eta 1941eko kintak. 1939an, Rufino Bizkaia banderan zegoen, bigarren Zenturian, 61. dibisioan.

Lejardi Arriaga, Antonio (Markinan jaioa, 1912an, 1933ko kintoa): Barinagako Etxarte baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen 1936ko azaroan edo abenduan. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 239). Iparraldeko frontea jausi zenean, atxilotu egin zuten, eta langileen batailoi batera bidali. 1939ko urtarrilean, Langileen 11. batailoian zegoen, 3. konpainian, Torremayor inguruan.

Lejardi Arriaga, Inazio (Markinan jaioa, 1917an, 1938ko kintoa): Barinagako Etxarte baserrikoa. 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaien soldaduskara joatea. Alabaina, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Inaziok Infanteriako Bailen 24. Erregimentuko 3. konpainiako 5. batailoian borrokatu zuen.

Lejardi Madariaga, Jose (Markinan jai ozen 1912an, 1933ko kintoa): Barinagako Etxarte baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Hain zuzen ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko, eta Rebelion de la Sal batailoian borrokatu behar izan zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 239). Atxilotu,

eta 1937ko irailetik aurrera Francoren alde borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Zaragoza batailoian zegoen, 2. konpainian.

Lejardi Madariaga, Ignazio (Markinan jaioa 1919an, 1940ko kintoa): Barinagako Etxarte baserrikoa. 1938an eraman zuen Francok bere alde borrokatzera. Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen. 1939an, Kordoban zegoen.

Lejardi Goiogana, Jose Maria (1918an jaioa, Xemeinen, 1939ko kintoa): Xemeingo Gabiola baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, 1937ko uztailean, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Jose. Josek 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1937ko uztailean joan zen gerrara. Arazo fisikoak zituenez, bigarren linean egon zen, laguntza lanak egiten; beraz ez zuen gerra zuzenik ezagutu**.**

Lejardi Goiogana, Migel (Xemein, 1918 – Balentzia, 1938, 1939ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Lejardi, Pedro: Mandiola Goikoa baserrikoa. Frankistak urriaren 4an heldu ziren Amallo inguruko mendietara. Osteko egunetan, Periko Lejardi, Manuel Alzibararetxuluaga eta beste auzotar batzuk frankisten partera pasatu ziren Mendarotik, eta euren aldean borrokatu zuten. «Aurreko egunetan (1936ko urriaren 18aren aurreko egunei buruz ari da), Manuel Alzibararetxuluaga, Periko Lejardi eta beste auzotar batzuk golpisten aldera pasatu ziran Mendarotik. Amallon sartu ziranian, eurekin batera etorri ziran, bidiak erakusten-eta. Ordutik aurrera, golpisten zerbitzura jardun zeben, euren kide modura» (Gorosabel, 2006: 115).

Lejardi, Joan: Makarda Goikoa baserrikoa. Frontean ibili zen, eta atxilotu ostean langileen batailoietara bidali zuten.

Loiola Urkidi, Ignazio: Munibeko kotxeretan bizi zen. Lehenengo Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen, eta gero frankisten aldekoetan.

López Ruiz, Santiago (1910 - 1936): ikusi X. eranskina.

López García, Dionisio (Xemeinen jaioa, 1917an): Irarragan bizi zen, eta errepublikarren alde borrokatzera joan zen 1937ko hasieran, Enlaces y Transmisiones batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa, 244).

Maguregi Amezti, Jose «Laitxu» (Markina, 1911 – Markina-Xemein, 1965, 1932ko kintoa): Abertzalea zen, eta boluntario joan zen Errepublikaren alde borrokatzera. Teniente gradura heldu zen euskal armadan. Kapitain gradua ere lortu omen zuen, baina galoiak hartu aurretik atxilotu zuten. Itsasalde batailoiko Telleria konpainian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 254). Gerran zauritu egin zuten. Itxura denez, bere mende zeuden bi lehengusu markinarrek ihes egin zuten frankisten aldera, eta haien bila atera zenean, zauritu egin zuten tiroz sorbaldan. Santoñan atxilotu zuten, 1937ko udan, eta abenduaren 5ean langileen batailoietara bidali. Hain justu ere, FET-JONS-eko zapadoreen taldeko langileen 1. batailoian egon zen, 1939ko uztailaren 26ra arte. Langileen batailoietan ibili zen garaian, Sarriá de Ter (Gerona) inguruan aritu zen bortxako lanak egiten.

Maguregi Amezti, Basilio «Laitxu» (Markinan jaioa 1920an eta Venezuelan hil zen, 1941eko kintoa, «Biberoiaren Kinta»): gerratean, Derion zegoen lan egiten Esperanza fabrikan, eta Burdinazko Gerrikoa apurtu aurretxoan (1937ko ekainaren 19an), bere arrebekin batera, Santanderrera ihes egin zuten, eta gero Frantziara. Normandiako Caen herrian egon zen bizitzen bere arreba Joanita, Trini eta Josefarekin. Urte bat Frantzian egin ostean, *Francoren Espainiara* edo *Gorrien Espainiara* (Kataluniara) joateko aukera eman zioten, eta Irunetik zehar Hego Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuten neba-arreba guztiek. Markinara bueltatu ostean, bere adinagatik Francok bere alde borrokatzera eraman zuen frontera. Italiarren batailoietan ere borrokatu zuen, Gezi Beltzak taldean. Trenp (Huesca) inguruan ibili zen zapadore lanetan, baita Ebroko gudaldian ere. 1951ko abenduan, Venezuelara joan zen, eta berbertan hil zen.

Maguregi Elu, Joan (Markinan jaioa 1914an, 1935eko kintoa): 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela. 1939an, Francoren aldeko batailoietan zegoen, Artilleriako Erretserba Orokorrean, Plana Nagusian, Lehen Taldean.

Maguregi Urkidi, Martin (Xemeinen jaioa, 1911n, 1932ko kintoa): Markinan bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Hain justu ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Errepublikaren alde borrokatu zuen Larrazabal batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 254).

Maguregi Ibarzabal, Isidro (Xemeinen jaioa, 1912an, 1933ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta frontera joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Artilleriako Parkea batailoian egon zen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 254). Bilbon ere egon zen Errepublikako soldaduentzako uniformeak egiten. 1938ko abenduan, Francoren alde borrokatzera eraman zuten.

Mandiola Maguregi, Jose Mari (Markinan jaioa 1920an, 1941eko kintoa): Francoren armadak eraman zuen gerrara, Jose Luis Okokirekin eta Jesus Earekin batera. 1941eko kintakoei «Biberoiaren Kinta» deitzen zaie Francok oso gazte eraman zituelako gerrara.

Mandiola Ugartetxea, Sabino «Goitxi-Beitxi» (Markinan jaioa 1919an, 1940ko kintoa): Sabinok 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1939an, Arapiles 4. batailoian zegoen, 2. konpainian.

Mandiola Urkidi, Joan (1916an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Baskaran Goikoa edo Nagusia baserrikoa. Bi armadetan borrokatu zuen: Errepublikaren alde lehenengo, eta, ostean, Francoren alde.

Mandiola Urkidi, Antonio (1918an jaioa, Xemeinen, 1939ko kintoa): Xemeingo Baskaran Goikoa edo Nagusia baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, 1937ko uztailean, Francok herriko hamaika gazte eraman zituen gerrara, tartean Antonio. Antoniok 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1940an Guadalajarako Ingeniarien Artillerian zegoen.

Mendibe Mendibe, Pedro (1917an jaioa, Markinan, 1938ko kintoa): 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaion soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Gerran zauritu egin zuten, eta 1939ko otsailean, Logroñon zegoen, 10. Bailen Infanteria Erregimentuan, zaurituen konpainian.

Mentxaka Arriola, Feliziano (Markinan jaioa, 1914an, 1935eko kintoa zen): 1935ean joan zen soldaduskara, beraz, pentsa daitekeena da gerrak soldaduskan harrapatu zuela, eta Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela. 1939an, Francoren aldeko batailoietan zegoen, 3. erregimentuan, 3. eskuadran, 2. brigadan, lehenengo zaldien dibisioan.

Mentxaka Arriola, Joan Jose: Errepublikaren alde borrokatu zuen ANV I batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 269).

Muñoz Azpeitia, Valentin (1911n jaioa, Markinan, 1932ko kintoa): Benito eta Salvadorren anaia. Okerra kalean bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Mungia batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 283). Atxilotu ostean, langileen batailoietara bidali zuten.

Muñoz Elustondo, Jose Maria (1922an jaioa, Markinan): Frontean egon zen egun batzuetan 1937an, boluntario joanda. Gazteegia zenez (1937an hamabost urte zituen), aitak, Benito Muñoz-ek, etxera ekarri zuen.

Murga Mugartegi, Jose Maria (1917an jaioa, Xemeinen): Bidarte Torretxean bizi zen. 1917an jaioa izanik, 1938an tokatzen zitzaien soldaduskara joatea. Dena den, Francok 1937ko urrian, 21 urte egin gabe zituzten gazteak eraman zituen bere alde borrokatzera. Gasteizen egin zuen instrukzioa 1937ko uztailetik aurrera Infanteriako Arapiles 7. batailoian, eta 1937ko abuztuan Automobilen 2. batailoian sartu zuten. Fronteko lehen lerroan borrokatu zuten 1937ko abuztutik abendura arte.

Murua Garramiola, Ramon «Txirrikiton» (1914an jaioa, Markinan, 1935eko kintoa): ikusi VI. eranskina.

Olabarria Iturriaga, Jose (Xemeinen jaia, 1908an, 1929ko kintoa): Errepublikaren alde borrokatu zuen, Zapadores II batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 291), eta atxilotu ostean, libre utzi zuten 1937ko abuztuaren 28an. Dena den, 1938ko urtarrilean Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen.

Olabarria Iturriaga, Kosme (1910ean jaioa, Markinan, 1931ko kintoa): 1931ko kintoa izanik Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1936an; hain justu ere, Rebelion de la Sal batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 291).

Olabarria Zelaia, Pedro Maria «Txasio» (Xemein, 1915 – Markina-Xemein, 1992, 36ko kintoa): Xemeingo Gurbiola «Txasio» baserrian bizi zen, eta 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 291)

Olabarria Zelaia, Joan «Txasio» (Xemein, 1913 – Markina-Xemein, 2003, 1934ko kintoa): Xemeingo Gurbiola «Txasio» baserrian bizi zen. Esperanza fabrikan lan egiten zuen Zamudion, baina 1934ko kintoa zenez, bere anaiari bezala, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten Errepublikaren alde borrokatzera joateko. Itsasalde batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 291).

Olabarria Zelaia, Eleuterio «Txasio» (1917an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Gurbiola «Txasio» baserrian bizi zen. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, bere kintako hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara. Dena den, Eleuterio Zamudion zegoen lan egiten Esperanza fabrikan. Geroago joan behar izan zuen soldaduskara. 26. Toledo Infanteria Erregimentuan egon zen Francoren armadan.

Olabarria Zelaia, Martin (1919an jaio zen, 1940ko kintoa): Xemeingo Gurbiola «Txasio» baserrian bizi zen. Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta hortik aurrera Franco herriko gazteak eramaten hasi zen frontera. Adinez soldaduskara joatea tokatzen ez zitzaienak ere eraman zituen. Horrela, 1938an, 1919an jaiotakoak eraman zituen. Klaudiok 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1940an 21 urte betetzen zituztenek osatzen zuten kinta hori. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zuten 40ko kinta; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1938an.

Olabarria Zelaia, Ramon (1907an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Gurbiola «Txasio» baserrian bizi zen. 1938an, Francok eraman zuen bere alde borrokatzera.

Olabarria Zenarrutzabeitia, Klaudio (1919an jaioa, 1940ko kinta): Xemeingo Olabarria baserrikoa. Lehenengo, Errepublikaren alde borrokatu zuen, San Andres batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 291). Atxilotuta egon ostean, Francok frontera eraman zuen, bere alde borrokatzera. Klaudio 1938ko uztailaren 27an joan zen gerrara Francoren armadarekin, eta Infanteriako 24. batailoian egon zen hamabost hilabetez, 1939ko urriaren 30era arte. Bigarren lerroan egon zen, laguntza lanak egiten, beraz ez zuen gerra zuzenik ezagutu**.**

Olabarria Zenarrutzabeitia, Felipe (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Bere kintakoak bezala, 1937ko urrian eraman zuen Francok frontera. Ez dakit aurretik Errepublikaren alde borrokatu zuen edo ez.

Olabarria Zenarrutzabeitia, Simon (1914an jaioa, Xemeinen, 1935eko kintoa): gerrak soldaduskan harrapatu zuen, beraz pentsa daitekeena da Francoren aldeko batailoietan egin zuela gerra.

Olabe Akaiturre, Ireneo (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Meabe auzokoa. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1915ean jaioa izanik, 1936ko abenduan, Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen. Atxilotu ostean, langileen batailoi batera bidali zuten. Francoren langileen batailoietan 35 hilabete egin zituen: 25 hilabete langileen batailoietan eta hamar hilabete soldadu legez trenbideak konpontzen. Zauritu egin zen trenen istripu batean, Sevilla inguruan.

Olalde Mendibe, Isidro (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa, 1937an zendu zen): ikusi X. eranskina.

Olalde Mendibe, Martin (Markinan jaioa): Markinako Bekutegi baserrian bizi zen. San Andres batailoian borrokatu zuen Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 292).

Olalde Mendibe, Joan (1918an jaioa, 1939ko kintoa): Markinako Bekutegi baserrian bizi zen. Francok soldaduskara eraman zuen 1937ko abenduan, baina ez zen frontera joan. Zerbitzu lanetan aritu zen.

Olano Zuazo, Inazio (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Kortazar baserrikoa. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatzen aritu zen Martiartu batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 293). Atxilotu egin zuten, eta gero Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen: 29 hilabete egin zituen 24. Infanteria Erregimentuan eta hil bat 10. Infanteria Erregimentuan. Domina bat eman zioten gerrako merituengatik (Medalla de Campaña y Cruz Roja).

Olañeta Agirregormezkorta, Sotero (Markina, 1913 – Calpe, Alacant, 1939): ikusi X. eranskina.

Olea Rekalde, Joan (Xemeinen jaioa, 1910ean, 1931ko kintoa): Anitu baserrikoa. 1931ko kintoa izanik, 1936ko abenduan Errepublikaren alde borrokatu behar izan zuen, Capitan Casero batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 294). Iparraldeko frontea jausi zenean, atxilotu egin zuten, eta, ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen.

Olea Rekalde, Inazio (Xemeinen jaioa, 1913an, 1934ko kintoa): Anitu baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta bera 1934ko kintakoa zenez, frontera joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera. Atxilotu, eta kontzentrazio eremu batean sartu zuten, 1938ko martxoaren 28ra arte. Gero Reinosan egon zen Artilleria Arineko 11. Erregimentuan.

Olea Rekalde, Nemesio (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Anitu baserrikoa. Bere kintakoak 1937ko urrian eraman zituen Francok frontera. Bailen 24 zenbakia zuen batailoian borrokatu zuen. Frontean zegoela gaixorik jarri zen, eta Iruñeako ospitalean egon zen 1938ko urtarrilean.

Onaindia Arriola, Joan Jose (Xemein, 1914 – Markina-Xemein, 1994, 1935eko kintoa): Xemeingo Ibaseta-Erdikoa. Soldadu joan zen 1935ean, eta gerrak soldaduskan harrapatu zuen. Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu zuen, Ibaizabal batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 296). Bere batailoikoekin eskapa zihoala, Munitibarren lo egiten gelditu zen apirilaren 26an, hau da, Gernika bonbardatu zuten egunean. Biharamunean, Espainiako bandera ikusi zuen, eta entregatu egin zen. Berarekin batera, Jose Mari Eizagirre (Albitxu), Damian Urionabarrenetxea (Munitibar), eta Mateo Goikoetxea (Xemein) entregatu ziren. Guztiak Ibaizabal batailoikoak ziran. Francoren aldeko soldaduek Zeinkeko Zabala baserrira eraman zituzten, bertan egoan aginte postua eta. Zeinken entregatu eta gero, Bergarara era-

man zituzten. Bertan gau bat egin ostean, Gasteizera eraman zituzten, eta bertan hamabost bat egun egin zituzten preso. Pilo bat lagun egon ziren gela batean elkarren gainean, baldintza oso txarretan. Kartzelan egon ostean, Francoren batailoietara bidali zituzten guztiak.

Onaindia Astarloa, Jose Martin (1913an jaioa, Xemeinen, 1934ko kintoa): Meabe auzokoa. Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen; pentsatzen dut Arana Goiri batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 296). Atxilotu ostean, Langileen 14. batailoira bidali zuten Almacellas-era. 1938an, oraindik langileen batailoi honetan zegoen.

Onaindia Astarloa, Gilermo (Xemeinen jaioa, 1917an): ikusi X. eranskina.

Onaindia Baseta, Santiago (Amoroto, 1909 – Zornotza, 1997): Amoroton jaio zen, baina Markinartzat zuen bere burua, gurasoak ere markinarrak zituelako eta Markinarekin harreman estua izan zuelako. Gerra Zibilean, Kirikiño batailoiko kapilaua izan zen. Klasikoak bildumako bere biografian irakurri daitekeen bezala (Hizkuntza Plangintzarako Sailburuordetza, 1998: 7-9): «1936. urteko uztailean Eibarren zen Santi Onaindia eliza-hitzaldiak egiten…1936.eko Gabon aurretxoan dei egin zion Jose Maria Korta Uribarren jaunak, Euzko Gudarostearen kapilautzaren arduradunak. Bilboko Carlton hotelean, elkarrizketa txiki baten ondoren, berehala onartu zuen hark gudarien kapilau izatea. Kirikiño izeneko batailoian erroldatu zuten, eta Durangon egin zen bilera batean esan zioten zer egin. Bilera bukatu ondoren, Lauaxetari eta han zeuden beste ezagun batzuei bostekoa luzaturik, Larreara itzuli zen. Aste hartan bertan, Durangoko Josulagunenean zen, Kirikiño taldeak hantxe ezarri baitzuen bere egoitza. Kanpanzartik Intxortara bitartean, Angiozar gaintxoan egokiturik zegoen Kirikiño taldea. Hor zehar ibiliko zen Santi Onaindia ere… Duesoko kartzelan sartzean, goitik beherako araketa egin zieten, aldean zuten guztia bertan uztera behartuz. Lau zaintzaile omen zituzten begi-zorrotz. Bi liburu zituen eskuartean; bata, Sabino Aranaren *De su alma y de su pluma*, eta bestea, *Kristo-ren Antz-bidea*, Zornotzako Aita Pio karmeldarrak idatzia. Epaiketak etorri ziren gero. Apaiz hauei egozten zizkieten erruak berdintsuak izan ohi ziren: Espainia euren aberritzat ez onartzea; Espainiaren etsaiei, gudariei, laguntzea; Espainiaren kontrako altxamendurako hauen gogoaberotzea; euskaraz idaztea... Aita Santiri hiru galdera egin omen zizkion horretarako izendaturik zegoenak: lehenengoa, «zein daukazu zuk zeure aberritzat, Euzkadi ala Espainia?» bigarrena, «frentean ez al zenuen gure aldera pasatzeko aukerarik izan?» eta hirugarrena, «zuk Karmengo Argia aldizkarian idazten zenuen?» Lehenengoari, asmo txarrez egindako galdera maltzurra zela erantzun zion. Bigarrenari, baietz, aukera ugari izan zituela beste aldera pasatzeko, baina berak gudarien ondoan zuela bere egitekoa, haiei erlijio-zerbitzuak eskaintzen, horretarako izan baitzen izendatua. Hirugarrenari, baietz, ikasle zela idazten zuela, aldizkariaren zuzendaria lan eske joan ohi zitzaiolako. Gaiztakeria horien guztien ondorioz, 30 urteko kartzela egotzi zioten. Hiru urtetan zehar kartzelaz kartzela erabili zituzten: Duesotik Langraritzera, hemendik Dueñasera eta azkenez, Carmonara. Gorriak ikusi zituzten. Denbora luze joango zela uste izanik, ikasteari, irakurtzeari eta idazteari eman zieten. Aita Santik hizkuntzak ikasi zituen, batez ere frantsesa, ingelesa eta alemana. Azkenengo hau ikasten taldean aritzen ziren, Besteiro jauna irakasle zela. Liburuak irakurri eta hainbat lan burutu zituen, batez ere euskara lantzeari eta olerkiak idazteari gogotsu ekinez. 1940.eko uztailean eman zioten Aita Santiri askatasuna, baina Euskal Herriko komentuetara etortzerik ez zuen eta Kantabriako Hoz de Anero-ko auzunean den Rigadara bidali zuten. Aita Santirekin ziren komentu hartan, Carmonako kartzelatik irtenda, Aita Errapel Urionaguena Bolibarko semea eta Lino Akesolo ere».

Onaindia Baseta, Valentin (1914 - 1937): ikusi X. eranskina.

Onaindia Basterretxea, Segundo (1913an jaioa, Xemeinen, 1934ko kintoa): Meabe auzoan bizi zen. Errepublikaren alde borrokatu zuen Euzko Indarra batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 295). Gero, pentsatzen dut, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuela.

Onaindia Iriondo, Felipe «Uhagon» (Markinan jaioa 1912an, 1933ko kintoa): Markinan bizi zen, pilotaria. Estatuko eta Estutik kanpoko hainbat frontoitan jokatu zuen. 1928an jokatu zuen lehen aldiz pilotan profesional gisa, eta 1952ra arte aritu zen (Bilbao, 2009: 46). 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Hain justu ere, 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Gordexola batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 295). Gero, 1938an, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Villa Robledo-ko erregimentuan zegoen, 1. eskuadra. Bere aita Pedro Onaindia Jaio atxilotu egin zuten 1938an, eta urte batzuk egin behar izan zituen kartzelan.

Oregi Mallea, Jose Maria (1908an jaio zen, 1929ko kintoa): ikusi X. eranskina.

Pagegi Solaegi, Eujenio (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Errekalde baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Eujenio. Eujeniok 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1939an 21 urte betetzen zituztenek osatzen zuten kinta hori. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1937an mobilizatu zuten 39ko kinta; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara, 1937an. Eujenio, 1937ko uztailaren 27an eraman zuten gerrara, eta Teruelgo Frontean ere egon zen. 1940an, 53. Infanteria Erregimentuan zegoen, eta, guztira, sei urte egin zituen gerran eta soldaduskan, hain zuzen ere, 1943ra arte. Gerra Zibilean bi osaba hil zitzaizkion, biak bere amaren nebak: Eulogio eta Serafin Solaegi Duñabeitia. Biak ere errepublikarrek fusilatu zituzten. Eulogio Ajuriako Larrondo baserrian bizi zen, eta kamino zaintzailea zen. Ideologia tradizionalista zuen (Echeandia, 1945: 305). 1937an hil zuten Ibarruriko Ajuria auzoan (gaur egun Muxika[18]). Serafin Solaegi Duñabeitia (Ibarruri-Elexalde, 1901 – Madril, 1936) mesedetako fraidea zen, eta Madrileko Mesedetako Buena Dicha-ko komentuan bizi zen. Madrileko Mesedetarren Probintziako idazkaria zen. 1936ko abuztuaren 23an hil zuten errepublikarrek Madrilen, 36 urte zituela, eta Madrileko Almudenako kanposantuan lurperatu zuten. 1940ko maiatzaren 4an, bere gorpua, errepublikarrek hildako beste hainbat mesedetako fraideekin batera, Poyo-ko Monastegira (Pontevedra) eraman zuten. Momentu honetan, beatifikazio prozesuan dago (ABC egunkaria, 1940ko maiatzaren 2a).

Pagaegi Baskaran, Felix (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintakoa): 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Felix 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara. Dena den, atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen. Bere kintako guztiak bezala, 1937ko urrian eraman zuen Francok frontera. Hortaz, 1939ko urtarrilean, Galizian zegoen, Francoren aldeko batailoietan; hain justu ere, Begoñako Errekete Tertzioan.

Pagaegi Baskaran, Bizente (Markinan jaioa, 1916an, 1937ko kintoa): 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen; Mendiko Osasun Militarrean, Lehenengo Brigadan.

Pagoegi Ugarteburu, Antonio edo Jose Manuel: Iturretako Barainkua baserrian bizi zen. Frontean egon zen, eta etxekoek pentsatu zuten hil gin zutela, baina gero agertu egin zen bizirik.

Pertika Urrutia, Anjel (Begoña, 1911 – Markina-Xemein, 1932ko kintoa): Begoñan jaio zen, baina udan Gernikan egoten ziren. Familia abertzalekoa zen. Bere aita Begoñako

---

[18] Ibarruri-Elexalde elizatea zen 1965. urtera arte, baina urte horretan Gorozikarekin batera, Muxikarekin bat egin zuen. Ibarruri-Elexalde honako auzo hauek osotzen dute: Ajuria, Berroja, Burdaria, Izebale, Mauma, Muniketa, Ormaetxe eta Unda.

botikaria izan zen, eta harreman zuzena izan zuen Sabino Aranarekin. Gaztetan, Gernikan bizi zen, Esperanza fabrikan lan egiten zuelako. 1933an, Esperanza y Cia enpresa Markinara etorri zen, eta, enpresarekin batera, hamaika gernikar ere etorri ziren lan egitera Markinara, tartean Anjel Pertika. *II. Errepublika garaian, Markinako* Batzokiko idazkaria izan zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Euzko Gudarostean borrokatu zuen, Itsasalde batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 318). Atxilotu egin zuten, eta, epaiketa militarra egin ostean, langileen batailoi batera bidali, Lleida ingurura. 1940ko apirilaren 13an, bere kasua berrikusi, eta aske utzi zuten (Airmn, 10631-39 txostena).

Pradera Barroetabeña, Santos (Markina, 1916 – Markina-Xemein, 1996, 1937ko kintoa): Pilotaria, Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen (Bilbao, 2009: 300). 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen borrokatzen. Hain justu ere, Legionarioen lehen Brigada mistoan – Gezi Urdinak – Bigarren Erregimentua, 3. batailoia, 9. konpainia.

Pradera Barroetabeña, Rufino (Markinan jaioa, 1918an, 1939ko kintoa): Lehenengo Errepublikaren alde borrokatu behar izan zuen, San Andres batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 322). Gero, atxilotuta egon ostean, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen, Mendiko Artilleriako 12. talde arinaren 3. baterian.

Pradera Malaxetxebarria, Damian (1914an jaio zen, 1935eko kintoa): Pilotaria izan zen, eta Estatuko eta atzerriko hainbat frontoitan jokatu zuen (Bilbao, 2009: 300). 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen, Tetuango Erregularretan.

Rekalde Mendiola, Pedro: Zergatik ez batailoian borrokatu zuen, Errepublikaren alde (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 328). Epaiketa militarra egin zioten, eta kartzelan sartu.

Sach Taapquan, Albino: Alemaniarra zen, eta txofer bezala lan egiten zuen, Iruzubietako Jose Garaterentzat. Ideologia ezkertiarra zuen. Guda lerroa gure herriko lurretan gelditu zenean, zapadore lanetan aritu zen. Gero, frontera joan zen borrokatzera. 1937an, ihes egiten ari zela atxilotu zuten itsasoan. Kartzelan sartu zuten, baina ihes egitea lortu zuen, eta 1938ko uztailaren 10ean, Iruzubietan agertu zen, Jose Garateren etxean. Hain justu ere, Jose Garate kartzelatik atera zen egun berean agertu zen. Denboraldi batez Iruzubieta inguruan ibili zen ezkutatuta (Besteak beste, Armola tabernan), baina gero alde egin zuen, eta muga pasatzen ari zela Alemaniara joateko, berriro atxilotu zuten. Kartzelan urte batzuk egin ostean, Alemaniara bueltatu zen.

Salvatierra Ugarte, Jesus: Francoren aldeko batailoietan borrokatu zuen.

Sarria: Itxube «Txikerra» baserrikoa. Euzko Gudarostean borrokatu zuen. Frantziara ihes egin zuen, eta handik AEBetara.

Sololuze Olasolo, Eusebio (Xemein, 1920 – Markina-Xemein, 2007): ikusi IV. eranskina

Sololuze Txurruka, Simon: San Andres batailoian borrokatu zuen.

Solozabal Agirrebengoa, Migel (Markinan jai ozen 1911n, 1932ko kintoa): Zuluaga baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, lehenengo Errepublikaren alde borrokatu behar izan zuen. Loiola batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 364). Atxilotu eta gero, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. 1939ko urtarrilean, Burgoseko 31. Infanteria Erregimentuan zegoen, 3. konpainian, 85. dibisioan.

Totorikaguena Agirregomezkorta, Jose Frantzisko (Xemein, 1911 – Markina-Xemein, 1974): Xemeingo Elkor baserrian bizi zen. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1932ko kintoa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera. Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 371). Urkiolan zauritu zuten, sorbaldan eta sama inguruan (ez nago ziur, baina

pentsatzen dut 1937ko apirilean izan ziren Saibigineko borroketan), eta Gernikako ospitalera eraman zuten. Bertan ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Munitibarkoa zen, eta erizain lanetan ari zen ospitalean. Francoren tropak sartu zirenean, atxilotu egin zuten, eta ospitale batetik bestera erabili zuten, sendatu zen arte. Azkena, Talabera de la Reinako ospitalea izan zen. 1938ko abenduan, Francok kartzelan sartu zuen. Kartzelatik ateratzen bere arreba Mariak lagundu zion. Izan ere, Mariak Ibarrazpiko jauregian lan egiten zuen, eta hauek zituzten harremanak erabili zituzten Jose kalera ateratzeko. Gerran izan zituen zauriengatik bizi osoan osasun arazoak izan zituen.

Totorika Agirregomezkorta, Pedro Jose (Xemein, 1914 – Ziortza-Bolibar, 2002): Xemeingo Elkor baserrian bizi zen. Soldadu zegoen 1936ko urriaren 21ean. Errepublikaren alde borrokatu zuen Kirikiño batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 371).

Totorikaguena Agirregomezkorta, Jose Julian (Xemein, 1918 – Markina-Xemein, 1990): Xemeingo Elkor baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Jose Julian. 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1937ko uztailaren 27an joan zen gerrara. 1940an, Transmisioen Erregimentu batean zegoen.

Totorikaguena Azpiazu, Jose (1910ean jaioa, Markinan, 1931ko kintoa): 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen, eta 1931ko kintoa izanik, Josek gerrara joan behar izan zuen 1936ko abenduan, Errepublikaren alde borrokatzera. Ibaizabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 371). Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatzera bidali zuten. 1939ko urtarrilean, Mola Tertzioko 3. konpainian zegoen.

Txopitea Apoita, Doroteo Antonio (Xemeinen jaioa, 1911n, 1932ko kintoa- Burgos 1938): ikusi X. eranskina.

Txopitea Apoita, Joan (Xemeinen jaioa 1913an, 34ko kintoa): gerrak soldaduskan harrapatu zuen, eta Francoren aldeko batailoietan egon zen. Zauritu egin zuten frontean zegoela. 1938ko maiatzean Briñas-eko Santa Maria ospitalean zegoen.

Txopitea Apoita, Domingo (Xemein, 1910 – Bermeo, 1967): Xemeingo Txepetxabixe baserrikoa. Francoren alde borrokatu behar izan zuen, eta frontean zauritu egin zuten 1938ko apirilean. Ospitalean egon zen 1938ko uztailaren 12ra arte.

Txopitea Apoita, Daniel (1915ean jaioa, Xemeinen, 1936ko kintoa): Xemeingo Txepetxabixe baserrikoa. Francoren alde borrokatzera joan zen 1937ko urtarrilaren 7an, hain zuzen ere, San Martzial 22. zenbakia zuen infanteriako erregimentura. 1937ko ekainaren hasieran zauritu zuten frontean, eta ekainaren 5ean ospitalera eraman. Zaurien ondorioz, hanka galdu zuen, eta etxera ekarri zuten 1938ko otsailean.

Txopitea Apoita, Viktoriano: Xemeingo Txepetxabixe baserrikoa. Francoren armadan borrokatu zuen. 1938an, Iruñean zegoen, Sicilia Mendi batailoian.

Txurruka Goiogana, Jose Maria (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Gorostola baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Jose. Josek 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1937ko irailaren 4an, kanoi metrailak zauritu zuen. 1940an, 63. Artilleria Erregimentuan zegoen.

Txurruka Goiogana, Jose Domingo (1914an jaioa, Xemeinen, 1935eko kintoa): Larruskaingo Gorostola baserrikoa. Gerrak soldaduskan harrapatu, eta Francoren alde borrokatu behar izan zuen. 1937ko irailean, Mendiko Bigarren Erregimentuan zegoen eta urte horretako irailaren 4an, zauritu egin zuten, artilleriako baterien bonben metrailen ondorioz.

Ugalde Goenaga, Mariano (Markina, 1910 – Asturias, 1936): ikusi X. eranskina.

Ugarte Ugartetxea, Luis «Okoki» (1914an jaioa, Markinan, 1935eko kintoa): Markinako Abesua kaleko 8. zenbakian bizi zen. 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Larrazabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 374). Atxilotuta egon ostean, 1937ko azken hiruhilabetekoan, Cadizera bidali zuten, langileen batailoi batera (Badiola, 2011: 240). 1939an, Cadizeko Automobilak konpontzeko langileen 1. batailoian zegoen.

Ugarte Ugartetxea, Jose Luis «Okoki» (1920an jaioa, Markinan, 1941eko kintoa: «Biberoiaren Kinta»): 1938an, Francok 1940ko eta 1941eko kintak mobilizatzea erabaki zuen. Izatez 21 urte behar ziren soldadutzara joateko, baina gerrarako errefortzuak behar zituztenez, 1938an mobilizatu zituzten. Jose Luis Aragoiko 17. erregimentuan egon zen, 4. konpainian, 3. batailoian.

Ugarte Ugartetxea, Anjel «Okoki» (Markinan jaioa 1909an, 1930eko kintoa): ikusi IV. eranskina.

Ugarte Urreta, Jeronimo (Markina, 1915 – Markina-Xemein): Bitoriano okinaren semea. Markinan bizi zen, Osteko kalean. 1936ko abenduaren 9an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1931ko eta 1936ko soldadugaiak mobilizatzeko dekretua argitaratu zuen. Jeronimo 36ko kintoa izanik, 1936ko abenduan joan behar izan zuen gerrara. Dena den, atxilotu ostean, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen 1937tik aurrera. 1939ko urtarrilean, Francoren aldeko batailoietan zegoen; hain justu ere, Karroen 4. Konpainian, 85.dibisioan.

Ugartetxea Etxebarria, Joan (1909an jai ozen, 1930eko kintoa): 1938an, Francok soldaduak behar zituen eta urte horretan bertan frontera eraman zuten.

Ugartetxea Zabala, Agustin, «Agustin Goitxi» (Xemein, 1908 – Markina-Xemein, 1991): ikusi IV. eranskina.

Ugartetxea Zelaia, Vitoriano (1908an jaio zen, 1929ko kintoa): 1937ko urriaren 6an Francok 1929ko kintoak eraman zituen frontera, tartean Vitoriano. Valvastro-ko goarnizioan egon zen.

Unamuno Olabe, Jose (1917an jaioa, Xemeinen, 1938ko kintoa): Urlo baserrikoa. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, bere kintako hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara maiatzean. Dena den, Jose Zamudion zegoen Esperanza fabrikan lan egiten, eta fabrika militartua zegoenez, ez zuten frontera eraman. Geroago, baina, mobilizatu egin zuten. Urte bat egin zuen fronteko lehen lerroan, eta zazpi hilabete bigarren lerroan. Burgoseko Errekete Tertzioan 16 hilabete egin zituen, Santiago Errekete Tertzioan bi hilabete eta mendiko 42. dibisioko 9. batailoian hil bat. Bakarrik Francoren batailoietan borrokatu zuen.

Unamunzaga Amallobieta, Damaso (1908an jaio zen, 1929ko kintoa): Barinagako Bereinku Barrena baserrikoa. 1937ko urriaren 6an, Francok 1929ko kintoak eraman zituen frontera, beraz, Damasok, Francoren alde borrokatu behar izan zuen.

Unda Basterra (1912an jaio zen, 1933ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera;

Urigoitia Arrien, Inazio «Iñaki» (Forua, 1918 – Lleida, 1939): ikusi X. eranskina.

Urigoitia Arrien, Joan «Txikago» (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): Markinan bizi zen, eta 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Euzko Gudarostean borrokatu zuen.

Urionabarrentxea Alberdi, Damaso «Albitxu» (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa eta Bilbon hil zen 1937an): ikusi X. eranskina.

Urizar Kareaga, Angel: Lenago Hil batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 382). Atxilotu egin zuten, eta epaiketa militarra egin ostean, kartzelan sartu. Ez dakit zenbat denbora egin zuen kartzelan.

Urizarbarrena Aulestiarte, Antolin (Xemeinen jaioa, 1918an, 1939ko kintoa): Xemeingo Ateun-Torre baserrikoa. Frontea gure herriko lurretara etorri zenean, erreketeen al-

dean egon zen denboraldi baten. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretako uztailean, Francok herriko hamaika gazte eraman zituen gerrara, tartean Antolin. Antolinek 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1940an, 22. San Martzial Erregimentuan zegoen.

Urizarbarrena Txurruka, Nikolas (Xemeinen jaioa, 1912an, 1933ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Laguntza zerbitzuetan sartu zuten. Gero Francok berarekin borrokatzera eraman zuen 1937an, eta Francorekin ere Bigarren lerroan egon zen, laguntza lanak egiten, beraz, badirudi ez zela frontean egon**.**

Urkidi Gandiaga, Jose (1913an jaioa, Xemeinen, 1934ko kintoa): xemeindarra zen, Meabe auzokoa. 1936ko azaroaren 19an deitu zioten gerrara joateko. Errepublikaren alde borrokatu zuen, Larrazabal batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 382).

Urkidi Gandiaga, Benigno (1908an jaioa, Xemeinen, 1929ko kintoa): xemeindarra zen, Meabe auzokoa. Errepublikaren alde borrokatu zuen, eta gero 1937ko azarotik aurrera Francoren alde borrokatu behar izan zuen.

Urresti Zenarrutzebeitia, Esteban (1917an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Agorria baserrikoa. Gerrara joan zen 1937ko otsailaren hogeian, eta San Ignazio Tertzioan borrokatu zuen. Boluntario ibili zen 1937ko ekainaren 3ra arte (lau hil). Gero soldadu aritu zen artillerian, 1937ko irailetik 1939ko apirilaren 1era arte. Artilleriako 12. Erregimentuan 26 hilabete eta Artilleriako 18. Erregimentuan bi hilabete.

Urresti Zenarrutzabeitia, Ziriako (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Agorria baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Ziriako. Ziriakok 19 urte egiten zituen 1937an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1940an, automobilen 69. konpainian zegoen.

Urriolabeitia Aulestiarte, Gregorio (Xemeinen jaioa, 1910an, 1931ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1911n jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen Errepublikaren alde borrokatzera. Gero Francoren alde borrokatu behar izan zuen.

Urriolabeitia Barinaga, Anjel (1916an jaioa, Xemeinen, 1937ko kintoa): Errepublikarekin borrokatzen aritu ostean, Francok 1937ko urrian eraman zuen bere alde borrokatzera.

Urriolabeitia Urkidi, Jose (1917an jaioa, Xemeinen): Lariz baserrikoa. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, herriko hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara, tartean Jose. Josek 20 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1938. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 38ko kinta mobilizatzea erabaki zuen.

Urriolausokoa Lauzirika, Jose Julian (1910ean jaio zen, 1931eko kintoa): Xemeingo Lezaran baserrikoa. 1931ko kintoa izanik, 1936ko abenduan Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen. Atxilotu ostean, Francoren alde borrokatu behar izan zuen. Quintana de Los Prados-en (Burgos) egon zen, 22. San Martzial erregimentuan 18. konpainian.

Urriolausokoa Lauzirika, Joan: Xemeingo Lezaran baserrikoa. Errepublikaren alde borrokatu zuen San Andres batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 384).

Urriolausokoa Lauzirika, Felix «Lezan» (Xemein, 1916 – Lemoa Haitza, 1937): ikusi X. eranskina.

Urriolausokoa Lauzirika, Jose Maria «Lezan» (Xemein, 1918 – Markina-Xemein,): Xemeingo Lezaran baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan

eta Xemeinen, eta urte horretan bertan herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Jose Mari. Jose Mariak 19 urte egiten zituen 1937an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1937ko uztailaren 27an joan zen gerrara. 1940an, Artilleriako 25. Erregimentuan zegoen.

Zarrabe, Joan Maria: Markinako Elorrixa baserrikoa. Lehenengo Ibaizabal batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 403), eta gero, atxilotu ostean, Francoren Nafarroako Lehen Dibisioko 22. San Martzialen 2. batailoian (metrailadoreetan). Bataila famatu askotan parte hartu zuen: Legutioko batailan (1936ko abendua) Bizkargin (1937ko maiatza), Teruelgo batailan (1937ko abendutik 1938ko otsailera), Ebroko batailan (1938ko uztailetik azarora), Madril ingurua hartzen (1939ko apirila)…Berarekin batera, gerra osoan zehar, Albitxu baserriko Jose Maria Eizagirre ibili zen. 1936ko azaroan hasi zuen gerra Bilbon, eta berbertan amaitu 1939ko ekainean. Bi urte eta zazpi hilabete ibili zen hara eta hona gerragatik (Urrutia eta Juaristi, 2007: 10-11).

Zelaia Arakistain, Gonzalo (1915ean jaioa, Markinan, 1936ko kintoa): 1936ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten 1936an. Fulgencio Mateos batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 110). Ez dakit atxilotu ostean zer gertatu zitzaion.

Zelaia Arakistain, Joan (1912an jaioa, Markinan, 1933ko kintoa): 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen, Errepublikaren alde borrokatzera, Itsasalde batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 403).

Zelaia Garramiola, Jose Luis (Markinan jaioa, 1913an, 1934ko kintoa): Artibai errebalean bizi zen, Xemeingo Beko-laba baserrian. Errepublikaren alde borrokatu zuen Itsasalde batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 403).

Zelaia Garramiola, Pedro (1915ean jaio zen, 1936ko kintoa): Xemeingo Beko-laba baserrian jaio zen, eta Markinan bizi zen. 1936ko azaroaren 19an deitu zioten Errepublikaren alde borrokatzera joateko.

Zelaia Garramiola, Andres (Markinan jaioa 1919an): Xemeingo Beko-laba baserrian bizi zen. 1919an jaioa izanik, Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1938an. Andresek 19 urte egiten zituen 1938an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1940. urtera arte. Dena den, 1938an, 40ko kinta mobilizatzea erabaki zuten; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1938an.

Zelaia Ibaigarriaga, Santiago (Xemein, 1911 eta Eibarren hil 1950 - 1952 bitartean, 1932ko kintoa): Ibarlotza baserrian (Xemein) bizi zen. Errepublika garaian EAJ-rentzako botoak biltzen ibili zen. 1936ko urrian edo azaroan, Boluntario joan zen frontera, Errepublikaren alde borrokatzera, Itsasalde batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 403). 1937ko abuztuaren azkenetan, Laredon atxilotu, eta epaiketa militarra egin ostean, Burgoseko kartzelan sartu zuten. Tuberkulosia hartu zuen kartzelan, eta, handik aurrera, osasun arazo larriak izan zituen bere bizitza osoan zehar. 1949. urtean, oso gaixo egon zen Basurtoko ospitalean, eta handik pare bat urtera hil zen.

Zelaia Ugarteburu, Tiburtzio (Xemeinen jaioa, 1916an): Xemeingo Oxilain baserrikoa. Gerra piztu zenean, Zaragozako Aragonés frontoian zegoen jokatzen, Markinako eta Xemeingo beste hainbat pilotarirekin batera. Frankistek mobilizatu egin zituzten guztiak. Ondorioz, Francoren batailoietan egin behar izan zuten gerra.

Zelaia Ugarteburu, Jose (Xemein, 1915 – Markina-Xemein, 1989): Xemeingo Oxilain baserrikoa. Gerra piztu zenean, Zaragozako Aragonés frontoian zegoen jokatzen, Santiago Itoiz, bere anaia Tiburtzio Zelaia Ugarteburu, Joan Larrinaga «Azpikoerrota» eta Markinako eta Xemeingo beste hainbat pilotarirekin batera. Frankistek mobilizatu egin zituzten guztiak. Ondorioz, Francoren batailoietan egin behar izan zuten gerra.

Zelaia Ugarteburu, Joan (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Oxilain baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hamaika gazte eraman zituen gerrara, tartean Joan. Joanek 19 urte egiten zituen 1937an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten; alegia, 19 urte beteta edo orduan betetzeko zeuden mutil gazteak eraman zituzten gerrara 1937an. 1940an, Bilboko Automobilen Parkean zegoen.

Zenarrutzabeitia Osoro, Antonio (1916an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Illarrieta baserrikoa. 1937ko kintoa zen, eta Francok soldaduskara eraman zuen 1937ko urrian. Bakarrik Francoren batailoietan borrokatu zuen: 23 hilabete zapadore lanetan aritu zen fronteko lehen lerroan eta zortzi hilabete bigarren lerroan. Guztira 31 hilabete egin zituen frontean. 1939ko urriaren 2an lizentziatu zen.

Zenarrutzabeitia Osoro, Agustin (1918an jaioa, Xemeinen): Xemeingo Illarrieta baserrikoa. 1937ko apirilaren 27an sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, Francok herriko hainbat gazte eraman zituen gerrara, tartean Agustin. Agustinek 19 urte egiten zituen 1937an eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuten. 1937ko uztailaren 27an joan zen gerrara. 1940an, Artilleriako 63. Erregimentuan zegoen.

Zenarrutzabeitia Osoro, Jose Estanislao (1911n jaioa, 1932ko kintoa): Xemeingo Illarrieta baserrikoa. 1936ko urriaren 16an, Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1912an jaioa izanik, gerrara joatea tokatzen zitzaion, baina bere etxea frankisten partean gelditu zen, eta ez zen aurkeztu 1936ko azaroan. Gero Francoren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1937ko maiatzean.

Zuazo Armaolea, Doroteo (Markinan jaioa, 1915ean, 1936ko kintoa): 1936ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera deitu zioten, 1936an.

Zubialdea Kortabitarte, Jose Maria (Xemein, 1908 – Markina-Xemein, 1996, 1929ko kintoa): Xemeingo Ugartetxe baserrikoa. Errepublikaren aldeko batailoietan borrokatu zuen, Ejertzito Erregularreko Mendiko 2. batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 405). Bilbon atxilotu ostean, Gasteizko Kontzentrazio eremu batera eraman zuten. 1938ko edo 1939ko abuztuaren hasieran bueltatu zen etxera.

Zubialdea Kortabitarte, Jose Antonio (Xemein, 1913 – Markina-Xemein, 2004, 1934ko kintoa): Xemeingo Ugartetxe baserrikoa. 1934. urtean joan zen soldaduskara (1934ko kintoa zen), eta gerrak soldaduskan harrapatu zuen; beraz, Francoren aldeko batailoietan borrokatu behar izan zuen, ingeniarien batailoi batean. Ebroko gudaldian zauritu zuten (1938ko uztailaren 24an hasi zen gudaldia, eta azaroaren 16an bukatu), 1938ko urriaren 22an, eta betirako elbarri gelditu zen. Itxura denez, bere batailoikoekin lanean ari zela, bonba bat lehertu zen bera zegoen inguruan, eta Jose Antonio hanketan eta gorputzean zaurituta gelditu zen. Gerrako elbarritu bihurtu zen.

Zubialdea Kortabitarte, Joan (1914 - 1937): ikusi X. eranskina.

Zubialdea Kortabitarte, Basilio (Xemein, 1918 – Zaragoza, 1969): Xemeingo Ugartetxe baserrian bizi zen. Francoren tropak 1937ko apirilaren 27an sartu ziren Markinan eta Xemeinen, eta urte horretan bertan, herriko hainbat gazte eraman zituen Francok gerrara, tartean Basilio. Basiliok 19 urte egiten zituen 1937an, eta, teorian behintzat, ez zitzaion soldaduskara joatea tokatzen 1939. urtera arte. Dena den, 1937an, Francok 39ko kinta mobilizatzea erabaki zuen.

Zubigarai Elorza, Karlos (1906an jaioa, Xemeinen, 1927ko kintoa): bere kintako asko bezala, 1938ko abenduan eraman zuen Francok frontera.

Zubigarai Elorza, Jose Maria (Xemein, 1912 – Ebroko Frontea, 1938): ikusi X. eranskina.

Zubizarreta Landeta, Kandido (1910ean jaio zen, 1931ko kintoa): Barinagako Etxetxua baserrikoa. 1931ko kintoa izanik, Errepublikaren alde borrokatzera joan behar izan zuen 1931ko abenduan, Loiola batailoian (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 407).

Zubizarreta Landeta, Teodoro – Teodoro Joan Gurutzekoarena (Markinan jaio 1913an): Barinagako Etxetxua baserrikoa zen, baina, gerra hasi zenean, fraide karmeldar izateko ikasketak egiten ari zen Larrean (Bizkaia). Euzkadiko Jaurlaritzak 1932tik 1935erako kintak deitu zituen, eta 1913an jaioa izanik, gerrara joan behar izan zuen. Alkartzeak batailoian borrokatu zuen (Egaña, 2000, VIII. tomoa: 407). Gerragatik, ez zen abade izatera heldu, baina bere bizi guztian anaia lanetan aritu zen Larreako karmeldarren komentuan (Unzueta eta Izpura, 2001: 491).

1936ko irailetik 1937ko apirilera, guda lerroa geldirik egon zen Markina-Xemeingo lurretan, eta herritarrek eraso bortitz ugari jasan behar izan zituzten. Gainera, behin erreketeak herrian sartu eta gero, errepresio basatia hasi zuten abertzaleen eta ezkertiarren aurka. Zaharrenen artean, Gerra Zibileko oroitzapenak oso indartsuak dira. Hala ere, agintari frankisten alderako beldurrak, galtzaile izatearen lotsak, momentu mingarri guztiak bizkor ahanzteko gogoak, edota seme-alabei galtzaile sentimendua ekidin nahiak belaunaldien arteko transmisioa oztopatu zuten. Bestalde, irabazleek ez zuten nahi memoria historikoa askorik jorratzea, lotsatzeko moduko ekintzen erantzule zirelako. Ondorioz, gerra ostean jaiotako gutxik izan dute gertatu zenaren ideia argi bat.

Gizarte batzuetan, gerren oroitza oso ondo gorde da. Euskal Herrian, Gerra Zibila oro har lantzen duten lanak egin dira, baina, nire ustez, herriz herri gertatu zena ez da behar bezala ikertu, eta belaunaldi berriok gutxi jaso dugu gure hurbilekoei gertatukoari buruz. Liburu honek hutsune hau betetzen lagundu nahiko luke. Gerrak sortutako samina berreraikitzeak eta kontatzeak ez du biktimen sufrikarioa arintzen, baina bizi izan zutena ulertzen laguntzen digu besteoi, elkartasun sareak sendotzen ditu belaunaldien artean, eta etorkizunean saihestu behar den bidea erakusten; herritar jakintsuagoak, irizpide sendoagokoak eta, ondorioz, askeagoak ere sortzen ditu.

